Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Garraio eta Hirigintza Saila
Departamento de Transportes y Urbanismo

# DURANGOKO ESKUALDE EGITURAREN LURRALDEAREN ZATIKO PLANA
# PLAN TERRITORIAL PARCIAL DEL AREA FUNCIONAL DE DURANGO



## BEHIN BETIKO ONESPENAREN AGIRIA

## II. ANTOLAMENDUAREN MEMORIA

2011ko UZTAILA

EZKIAGA ARQUITECTURA SOCIEDAD Y TERRITORIO, S.L.

# II. ANTOLAMENDU MEMORIA

## AURKIBIDEA

1. Sarrera. Durangoko Eskualde Egituraren Lurralde Garapen Iraunkorrerako Jarraibideak ....1
1.1. Lurralde Antolamenduaren ikuspegi berria ....1
1.2. Espazioaren planifikaziotik lurraldearen gobernura ....3
1.3. Europa barruko lurralde-garapen orekaturako eta iraunkorrerako irizpideak ..4
1.4. Lurraldearen antolamendu iraunkorreko estrategiaren jarraibideak ....7
1.5. Durangoko Eskualde Egituraren LZPa egiteko irizpide metodologikoak ....13
1.5.1. Lurralde-proiektu bat formulatzeko oinarri objektiboak: hirigintza-informazioa eta diagnostikoa ....15
1.5.2. LZParen garapen metodologikoa ....17

2. Durangoko LZP egiteko esparru juridikoa ....24
2.1. Euskadiko lurralde-antolamenduko lege-sistema ....24
2.1.1. Tresnak eta euren artean duten lotura (LALko 2. art.) ....26
2.2. Lurraldearen Zatiko Planen lege-araubidea ....28
2.2.1. Lurralde-antolamenduko tresna mota honen legezko ezaugarriak ....28
2.2.2. LZPren eduki materiala eta formala ....29
2.2.3. LAA onetsi dituen Dekretuaren edukia, LZPk bete beharrekoa ....30
2.3. Aurreikusitako jarduketak: aurrerapena ....30
2.4. Ingurumen-babesa eta lurralde- nahiz hirigintza-antolamendua ....31
2.4.1. Faunari eta landarediari buruzko tresna sektorialak, natura kontserbatzeko politikaren barrukoak, eta lurralde-antolamenduan duten eragina ....32
2.4.2. Urkiolako Parke Naturala ....32

3. Erakundeen eta Gizartearen partaidetza LZP lantzeko prozesuan ....33
3.1. Partaidetza-tresnak ....34

4. Lurralde proiektu iraunkorra Durangorako ....35
4.1. Durangoko eskualde-egitura Uztai Atlantikoaren testuinguruan ....35
4.1.1 Sarrera ....35
4.1.2 Europako lurralde-estrategia ....37

4.1.3 Garapenerako itxaropenak Europaren ikuspegitik....39
4.2 EAEko LAAren irizpide orokorrak....44
4.2.1 Sarrera....44
4.2.2 Helburuak....44
4.2.3 Aplikazio zuzeneko arauak....45
4.2.4 Lurraldearen Zatiko Planetarako irizpideak eta norabideak....45
4.2.5 Laburpen-taula....59
4.3 Eskualde Egituraren lurralde-egitura....61
4.3.1. Oiz mendiaren gailurrak eta isurialdeak....61
4.3.2. Ibaizabal-Zalduren alubioi-hondoa....61
4.3.3. Durangaldearen hegoaldeko mendiak eta haranak....62
4.3.4. Ibaizabalen ezkerreko ertzeko landazabalak eta haranak....64
4.3.5. Zumelegi ibaiaren arroa....64
4.3.6. Ibaizabalen eskuineko ertzeko landazabalak eta haranak....65
4.4 Oraingo lurralde-eredua eta bilakatzeko bideak: arazoak eta aukerak....66
4.4.1 Eskualde Egitura nortasun handiko igarobide geografikoa eta funtzionala da....66
4.4.2. Eskualdean komunikazio onak daude Bilbo Metropolitarrarekin eta Gipuzkoako haranekin, eta azpiegitura asko biltzen dira....68
4.4.3. Eskualde Egiturak balio handiko aniztasun ekologikoa eta lurzoru-erabileren nahiz paisaien aniztasun handia dauka....70
4.4.4. Haran-hondoaren okupazioan sorturiko gatazkak, industria-erabileren, hiri-erabileren, landa-erabileren eta azpiegituren artean....72
4.4.5. Baserriak antolatu eta kontserbatu egiten du hiri-eremuek zuzenean okupatzen ez duten espazio zabala....77
4.4.6. Azpiegituren eta harrobien ingurumen-eragina....81
4.4.7. Industria-espezializazioaren jarraibidea eta egitura ekonomikoaren dinamismoa....88

5. Proposaturiko lurralde-ereduaren oinarriak....90
5.1. Durangoko Eskualde Egitura indartzea, funtsezko pieza baita Euskadiko eta Bizkaiko lurralde-egituran, bere posizio estrategikoaren eta irisgarritasun handiaren eraginez....90
5.2. Haran-hondoko hirigintza handiaren eta baserrian oinarrituriko nekazaritza-jardueraren kontserbazioaren arteko bizikidetza zaintzea....91
5.3. Lurraldearen zentzuzko erabileran oinarrituriko hiri-garapena sustatzea....92
5.4. Ibaizabalen igarobideko lehiakortasun- eta birkualifikazio-elementuak indartzea....102
5.5. Eskualde Egitura artikulatzen duten elementuak....110

5.6. Baliabide naturalen babes aktiboa eta baserriaren bideragarritasuna segurtatzea, paisaiaren kalitatea bermatzeko ....114

6. Natura- eta landa-ingurunea....117
6.1. Alderdi metodologikoak ....118
6.1.1 Ingurune Naturaleko Antolamendua....119
6.2. Helburuen zehaztapena ....121
6.3. Erreferentziako plan eta agiri nagusiak....123
6.4. Helburuen garapena: Antolamendu Proposamenaren Oinarriak ezartzea ....125
6.4.1. Babes Aparteko Lurzoruak kontserbatzea, hobetzea eta suspertzea, espazio natural babestuen eta balio bereziko beste batzuen arteko lotura bermatuz ....125
6.4.1.1. “Babes Aparteko Lurzoruak” deritzon antolamendu-kategoria ezartzea ....125
6.4.1.2. Estrategiak eta jarduketa-ildoak ....131
6.4.2. Lurrazaleko eta lurpeko uren kalitate maila mantentzea eta hobetzea, urok baliabide naturaltzat eta ingurumen-bektoretzat duten balioa modu integratuan hartuta ....135
6.4.2.1. Antolamendu-kategoriak eta gainjarritako baldintzak ezartzea ....137
6.4.2.2. Estrategiak eta jarduketa-ildoak ....141
6.4.3. Nekazaritza- eta abeltzaintza-jarduera mantentzea eta sustatzea, bai landa-ingurunearen bizitasunerako sektore ekonomiko garrantzitsua delako, bai baliabide naturalak erabiltzearen, paisaia kontserbatzearen zein kudeatzearen eta lurraldearen nortasuna zaintzearen arloan garrantzi handiko eginkizunak dituelako ....144
6.4.3.1. Babesturiko lurzoruen antolamendu-kategoriak ezartzea: baso-eremuak, nekazaritza- nahiz abeltzaintza-eremuak eta landazabalak....145
6.4.3.2. Estrategiak eta jarduketa-ildoak ....147
6.4.4. Produkzioko baso-jarduketa arrazionalizatzea eta hobetzea, landa-inguruneko lurzoruaren erabileren eta ekonomiaren osagai nagusienetarikoa baita; horretarako, mendiko baliabideen ustiapen iraunkorra eragiten duten irizpideak eta ekintzak sustatzea, alderdi ekonomikoa eta ingurumenekoa aintzat hartuz, eta higadura-arrisku handiko lurzoruei, espazio natural babestuetako lurzoruei eta espazio horien barruko biodibertsitatea zaintzeari arreta handia jarriz ....154
6.4.4.1. Baso Antolamendua kategoria ezartzea....155
6.4.4.2. Estrategiak eta jarduketa-ildoak ....157

6.4.5. Lurraldeko ingurumen-arrisku nagusiak ahalik eta gehien murriztea, batik bat higadura- eta uholde-arriskua .........................160
6.4.5.1. "Eremu higigarriak edo higadura-arriskukoak" eta "Eremu ureztagarriak" izeneko gainjarritako baldintzak ezartzea ........................................................................161
6.4.5.2. Estrategiak eta jarduketa-ildoak ....................................164
6.4.6 Erabilera publikoa lurralde-orekan oinarrituz sustatzea eta orientatzea, hobari ekonomikoak, sozialak eta ingurumenekoak ahalik eta gehien handitzea, eta eragin negatiboak ahalik eta gehien murriztea ..........................................................................164
6.4.7 Beste elementu batzuk zaintzea, adibidez, Ingurune Naturaleko Osagai Garrantzitsuak, eta horiek Udal Plangintzan jasotzea .......165
6.4.8 Natura 2000 Sarea Gainjarritako Baldintza ezartzea .....................165
6.4.9 Flora eta faunarako intereseko aldeak ezartzea.............................166
6.5. Landaguneak ..........................................................................................168
6.5.1. Aurrekariak ............................................................................168
6.5.2. Hirigintza-legeriarekiko koordinazioa..........................................168
6.5.3. Oraingo landaguneei buruzko informazioa eta diagnostikoa ......172
6.5.4. Estrategiak: udalerriak jabearaztea ...........................................180
6.5.5. Landaguneak ikuskatzeko irizpide orokorrak .............................180
6.6. Paisaiaren irisgarritasuna ..........................................................................184
6.6.1. Natura- eta landa-paisaia zaintzea, hobetzea eta suspertzea, eta paisaiaren irisgarritasuna errespetuz sustatzea, interes bereziko elementuak, egiturak eta eremuak kontserbatuz, eta horien behaketa, interpretazioa nahiz gozamena eragiten duten ekintzak garatuz.......................185
6.6.2. Paisaiaren aldetik interes berezikoak diren mugarriak, talaiak, eremuak eta ibilbideak ..................................................189

7. Ezarkuntza-sistema ..........................................................................................192
7.1. Demografia- eta egoitza-egoeraren azterketa eta diagnostikoa .................192
7.1.1. Hasierako biztanleria demografiko egonkorraren ondotik hazkundea izan da biztanlerian hurrengo urteetan .....................192
7.1.1.1. 1986-2006 aldia ............................................192
7.1.1.2. 1986-2008 aldia .....................................................194
7.1.1.3. 2008-2024 aldia .....................................................195
7.1.1.4. Biztanleria-eredu pilatua, egoitza-enpleguaren arteko nolabaiteko disoziazioarekin ........................196
7.1.1.5. Zahartze demografiorako joera nabaria...................197
7.1.1.6. Etxebizitza-parke zabala eta kalitatekoa..................198
7.1.2. Jarduketa-irizpideak.................................................................201

7.1.2.1. Eskualde Egiturako udalerri bakoitzean behar den egoitza-lurzoruaren erabilgarritasuna bermatzea, eta Ereduaren kuantifikazioa Eskaintzaren kuantifikaziotik bereiziko da, betiere eskaintza ereduaren burutzapena bermatzeko tresna hustzat hartuta ..........................202
7.1.2.2. Lurralde-egitura indartzea, kasuan kasuko lurraldearen harrera-gaitasunari egokituriko hazkundearen banaketa orekatua eginez................203
7.1.2.3. Hiri-hazkundeak natura- nahiz landa-baliabideetan eta hirigune historikoen nortasunean duen eragina ahalik eta gehien murriztea ...............................................................205
7.2. Proposaturiko egoitza-eredua...................................................................206
7.2.1. Ereduaren helburu orokorrak.........................................................206
7.2.1.1. “Lurzoru” baliabidearen kontsumoa mugatzea. ..........206
7.2.1.2. Espazioan integraturiko jarduera ekonomikoak eta egoitza-jarduerak osaturiko eredu mistoa sustatzea. ................................................................208
7.2.1.3. Biztanleria eta lurralde-oreka mantentzea. Hiri-sistema indartzea .......................................................209
7.2.1.4. Natura- eta landa-ingurunea kontserbatzea. ..............210
7.2.1.5. Garraio publikoari eta aukerako mugikortasun-ereduei loturiko irisgarritasuna. .................................212
7.2.1.6. Ingurumen-balioko hiri-inguruko landazabalak. .........213
7.2.2. EREDUA ETA ESKAINTZA. Egoitza-ezarkuntzetarako etxebizitzen kuantifikazioa ...........................................................214
7.2.2.1. Etxebizitzen kuantifikazioa kalkulatzeko metodoa ......214
7.2.2.2. Eskaintzaren mugak..................................................235
7.2.2.3. Biztanleria eskaintzaren betetze-maila.......................240
7.2.2.4. Egoitza Eredua kudeatzea .........................................242
7.2.2.5. Egoitza-ereduaren ezaugarriak..................................252

8. Jarduera ekonomikoa.........................................................................................262
8.1. Sektore ekonomiko desberdinen egoeraren azterketa eta diagnostikoa.....262
8.1.1. Industria-jardueraren eraginpeko garapen ekonomikoa................ 262
8.1.1.1. Lehen sektorea..........................................................263
8.1.1.2. Bigarren sektorea. Industria-eraldaketako jarduerak..........................................................................264
8.1.1.3. Merkataritza sektorea eta hirugarren sektorea ......... 269
8.1.2. Irizpideak eta jarduketa-ildoak ......................................................271

8.1.2.1. Lehen sektorea. Sektoreak ingurumenean eta lurraldean duen eginkizuna sustatzea ....................... 271
8.1.2.2. Bigarren sektorea, merkataritzakoa eta hirugarrena ............................................................ 275
8.2. Proposaturiko eredu ekonomikoa ........................................................ 285
8.2.1. Ereduaren helburu orokorrak ........................................................ 285
8.2.1.1. “Lurzoru” baliabidearen kontsumoa mugatzea ........... 285
8.2.1.2. Espazioan integraturiko jarduera ekonomikoaren egoitza-erabileraren eredu mistoa sustatzea ............ 286
8.2.1.3. Biztanleria eta lurralde-oreka galera saihestea. Eskualde Egiturako hiri-sistema indartzea .................. 287
8.2.1.4. Natura- eta landa-ingurua kontserbatzea .................... 287
8.2.1.5. Garraio publikoari eta aukerako mugikortasun-moduei loturiko irisgarritasuna .................................... 288
8.2.1.6. Ingurumen-balioko hiri-inguruko landazabalak .......... 289
8.2.2. Jarduera ekonomikoetarako lurzoruaren kuantifikazioa ................. 290
8.2.2.1. Kalkulu-metodoa ........................................................ 290
8.2.2.2. Eredu ekonomikoaren kudeaketa ............................... 307
8.2.2.3. Eredu ekonomikoaren ezaugarriak ............................. 318

9. Mugikortasuna ........................................................................................ 326
9.1. Oraingo egoeraren azterketa .................................................................. 327
9.2. Etorkizunaren diagnostikoa ..................................................................... 327
9.3. Aurretiazko oharrak ................................................................................. 332
9.4. Aukerako mugikortasunaren eta hiri-integrazioaren eredua ....................... 332
9.4.1. Motorduna ez den aukerako mugikortasun-sarea ........................ 332
9.4.2. Oinezkoak eta bizikletak ............................................................. 334
9.4.2.1. Sarrera ....................................................................... 334
9.4.2.2. Helburuak ................................................................... 337
9.4.2.3. Jarduketarako ildoak eta irizpideak ............................ 338
9.4.3. Talde-garraioa ............................................................................. 342
9.4.3.1. Sarrera ....................................................................... 342
9.4.3.2. Helburuak ................................................................... 342
9.4.3.3. Jarduketarako ildoak eta irizpideak ............................ 342
9.5. Garraio-azpiegiturak ................................................................................ 344
9.5.1. Bide-sarea ................................................................................... 344
9.5.1.1 Sarrera ....................................................................... 344
9.5.1.2 Helburuak ................................................................... 347
9.5.1.3 Jarduketarako ildoak eta irizpideak ............................ 348
9.5.1.4 Bide-sarearen gaineko jarduketa motak .................... 356
9.5.1.5 LZPko bide-sarearen hierarkizazioa ........................... 360

9.5.2. Trenbide-sarea ........ ....................................................................367
9.5.2.1 Sarrera ........................................................................367
9.5.2.2 Helburuak ....................................................................368
9.5.2.3 Jarduketa-irizpideak .....................................................368
9.5.2.4 Sarearen egitura ...............................................369
9.6. Komunikazio- eta garraio-sarean garatu beharreko estrategia-ikuspegia ..........................................................................................370

10. Zerbitzuetako oinarrizko azpiegiturak............................................................373
10.1. Helburuak...............................................................................................374
10.2. Uraren zikloa..........................................................................................374
10.2.1 Ur hornidura ....................................................................................375
10.2.2 Saneamendua .................................................................................376
10.3. Hondakin solidoak eta lurzoru kutsatuak ....................................................377
10.4. Energia .....................................................................................................379
10.4.1 Argindarra ..............................................................................380
10.4.1.1 Tentsio altuko lineen eraginak murriztea ...................380
10.4.1.2 Beste alderdi elektriko batzuk ....................................383
10.4.2 Gasa .............................................................................................383
10.4.3 Telekomunikazioak .........................................................................384

11. Durangoko Eskualde Egiturako biztanleriaren bizi-kalitaterako eta hiri-kalitaterako lurralde-ekimenak ......................................................................385
11.1. Hiri-berrikuntzako estrategiak ......................................................................387
11.1.1. Suspertze-espazioak .......................................................................388
11.1.2. Birmoldatze-espazioak ....................................................................389
11.1.3. Birgaitze-espazioak..........................................................................392
11.2. Ekipamenduak lurralde-ikuspegian ...............................................................395
11.2.1. Arazoen eta aukeren diagnostikoa ...................................................396
11.2.2. Irizpide, erreferentzia eta jarraibide orokorrak ..................................400
11.2.3. Ekipamendu-sistemaren lurralde-egituraren estrategiak ................401
11.2.4. Jarduketarako estrategia eta ildo sektorialak ..................................408
11.2.4.1 Hezkuntza-ekipamendua...........................................408
11.2.4.2 Osasun-ekipamendua ................................................424
11.2.4.3 Gizarte-zerbitzuko ekipamendua................................428
11.2.4.4 Kirol- eta kultura-ekipamendua ..................................442
11.2.4.4 Udalez gaindiko eta eskualdeko ekipamenduak .........452
11.3. Kultura-ondarearen antolamendua ..............................................................453
11.3.1. 7/1990 Legean oinarrituriko kultura-ondarea....................................455
11.3.2. Kultura-intereseko beste elementu batzuk ......................................465

12. Udal-planeamenduen bateragarritasuna ........................................................ 500
12.1. Irizpide orokorrak ........................................................................................ 501
12.2. Udal-planeamendua bateratzeko sistemak ................................................ 501
12.3. LZPren bateragarritasun-eremuen zehaztapena eta sailkapena ................ 502
12.4. LZPren bateragarritasun-eremuen identifikazioa ........................................ 503
12.4.1. Bateragarritasun-eremu orokorrak ................................................. 503
12.4.2. Bateragarritasun zehatzeko-eremuak ............................................ 504
12.4.3. Trazatuaren bateragarritasun-eremuak ......................................... 504
12.5. Bateragarritasun-egitamua zehaztea, formulatzea, tramitatzea eta onestea ........................................................................................................ 506

# 1. SARRERA. DURANGOKO ESKUALDE EGITURAREN LURRALDE GARAPEN IRAUNKORRERAKO JARRAIBIDEAK.

## 1.1 Lurralde Antolamenduaren ikuspegi berria.

“Garapen iraunkor” kontzeptua sortzearen ondorioz, planeamendu konbentzionala goitik behera jarri zen zalantzan, kontzeptu horrek beste modu batera formulatzen baitzituen gizarteen eta baliabide naturalen arteko harremanei loturiko printzipioak.

Jakina denez, kontzeptu berriaren funtsezko irizpideak Nazio Batuek Stockholmen 1972an egindako Konferentzian hasi ziren formulatzen; bertan, besteak beste, honako gai hauek aztertu ziren: a) gizakien eta ingurumenaren elkarmenpekotasuna; b) ekonomia- nahiz gizarte-garapenaren eta ingurumena babestearen arteko loturak; c) ikuspegi orokorraren eta printzipio komunen beharrizana. Ikuspegi hori asko garatu zen Nazio Batuen Ingurumenerako eta Garapenerako Mundu Batzordearen Txostenean (IGMB), eta hori 1987an argitaratu zen. Brundtland izeneko txostenak dei egin zion nazioarteari, epe luzerako garapen ekonomikoaren mugak aztertzeko, eta oraindik ere indarrean dagoen “ingurumen iraunkorraren” definizioa proposatu zuen: *oraingo beharrizanak betetzeko gauza den garapena, baina hurrengo belaunaldiek euren beharrizanak betetzeko gaitasuna arriskuan jarri barik*.

Kontserbazioaren Mundu Batasunak (Nazio Batuen Ingurumen Programa eta Naturaren Mundu Fondoa, 1991) emandako definizioak Brundtland txostenekoa osatu zuen: *garapen iraunkorrak bizi-kalitatearen hobekuntza ekarri behar du, ekosistemen mugen barruan*. Ikuspegi horren arabera, garapen ekonomikoa sistema naturalen harrera-gaitasunak zehazturiko esparruaren barruan soilik hedatu behar da. Ildo horretatik, Tokiko Ingurumen Ekimenen Nazioarteko Batzordeak dioenez, garapen iraunkorrak *oinarrizko ingurumen-, gizarte- eta ekonomia-zerbitzuak eskaintzen dizkie komunitateko kide guztiei, zerbitzu horien eskaintza baldintzatzen duten sistema naturalen, eraikitakoen eta gizarte-sistemen bideragarritasuna arriskuan jarri gabe*.

Nazio Batuek ondoren egindako mundu-gailurretan, batez ere Rio de Janeiron 1992an egindako gailurrean (Lurraren Gailurra) eta Istanbulen 1996an

egindakoan, gizarteari iraunkortasunaren eta gizarte-kohesioaren aldeko ekintza eskatu zitzaion, eta estatuei eta erakundeei eskabidea egin zitzaien garapen iraunkorraren irizpideen gauzapenean aurrerapausoak emateko.

Ildo horretan, Lurraren Gailurrean sinaturiko 21. Agenda erreferentziako eskuliburua da, garapen iraunkorrerantz joatea ahalbidetzen duten enpresa- eta gobernu-politikak erabakitzeko. Horretarako, 21. Toki Agenden lanketa toki-agintariek gehien erabiltzen duten prozedura da, politika orokor hori eremu jakinetako beharrizanetara egokitzeko.

Garapen iraunkorra, izan ere, politika ekologikoak garapen-estrategiekin integratzeko esparrua da. Giza beharrizanak betetzera eta bizi-kalitatea hobetzera bideraturiko garapentzat hartuta, garapen iraunkorra eraginkortasunez bateratu behar da natura-, giza eta ekonomia-baliabideekin.

Garapen iraunkorra kontzeptua, izatez, ingurumenaren babesa kontzeptua baino askoz ere zabalagoa da, etorkizuneko belaunaldiekiko eta ingurumenak epe luzera izango duen egoerarekiko konpromisoa adierazten baitu. Era beran, honako arlo hauetan ere hartuta dauka konpromisoa: bizi-kalitatea, pertsonen arteko oraingo berdintasuna (pobreziaren aurkako borroka ere barne), belaunaldien arteko berdintasuna (etorkizuneko biztanleek oraingoaren modukoa edo hobea den ingurumena merezi dute, ahal den neurrian) eta giza ongizatearen errespetu etikoa nahiz gizarte-errespetua. Ikuspegi horren arabera, baliabideen ustiapena eta ekonomia tradizionala guztiz berritu behar dira; izan ere, prozesuak epe luzera planifikatu behar dira eta, gainera, kontsumoaren benetako kostuak eta baliabide berriztaezinen narriadura islatzen duten politikak garatu behar dira.

Laburbiltzeko, garapen iraunkorraren funtsezko hiru elementuak honako hauek dira:

- **Bizi-kalitatea:** Gizarte-bizitzako alderdi guztiak baloratu behar dira, ekonomia- eta gizarte-garapena ere barne, baita ingurune naturalaren zaintza eta hobekuntza ere. Garapen ekonomikoa gizarte-berdintasunarekin eta ingurumen-kalitatearekin bateratu behar da.
- **Erabaki integratuak hartzea:** Garapena ingurumen-kalitatearekin bateratzeko, arreta handia jarri behar zaio erabaki-hartze integratuari. Ekonomia-, gizarte- eta ingurumen-helburuen arteko loturak adostu egin

behar dira, eta, gatazkak konpontzeko, tresnarik egokienak erabili behar dira; horretarako, informazioaren truke gardena eta erabatekoa behar da.

- **Berdintasuna:** Garapenaren kostuak eta hobariak gizarte taldeen, belaunaldien eta herrien artean banatu behar dira, modu orekatuan. Berdintasunerako, beharrezkoa da mundu guztiak oinarrizko beharrizanak beteta edukitzea eta funtsezko eskubideak edukitzea.

## 1.2 Espazioaren planifikaziotik lurraldearen gobernura.

Formulazio klasiko batean, Europako Gutunak definizio hauxe eman zuen Lurralde Antolamenduari buruz: “gizarte osoaren ekonomia-, gizarte-, kultura- eta ekologia-politikaren espazio-adierazpena”. Horren izaera konplexua nabarmendu zuen, aintzat hartuta zientzia-diziplina, administrazio-teknika eta lurraldearen “garapen orekatura” nahiz “espazioaren antolamendu fisikora (kontzeptu gidari baten arabera)” bideraturiko politika dela.

Toki nahiz Europako mailako hausnarketa estrategikoaren ekarpen metodologikoetan eta planeamendu espazialean oinarrituriko ekarpenen arabera, arazo espazialetarako hurbiltze konplexuagoaren funtsezko baldintzak identifikatu ahal dira:

- Prozesuak detektatzera eta arautzera bideraturiko ikuspegi “estrategikoa” hartzea; horrek espazioan izango duen eragina garrantzitsuagoa eta berritzaileagoa izango da, lurraldea berregituratzeko politika baterako. Horrenbestez, denboran eta espazioan, lehentasuna eman behar zaie eraldatzeko gaitasunik handiena duten ekintzei, eta “Plana” ez da lurraldean eragina duten erabakiak hartzeko prozesuak arrazionalizatzeko erreferentetzat soilik hartu behar, lurralde-politika sustatzeko elementutzat baizik.

  Planifikazio espazialaren ikuspegi estrategikoaren arabera, gainera, Planaren helburua ondo zehaztuta, mugatu egin behar dira horren bidez konpondu behar diren arazoak eta lurralde-gobernurako beste tresna batzuen bitartez konpondu beharrekoak. Horri dagokionez, Planak arauak ezarri edo ukaezinak edo negoziagarriak diren elementuak bereizi behar ditu, indartsuak edo ahulak, lotesleak edo orientagarriak. Bernardo Secchi hirigile italiarrak esan duenez: “Oraingo metropoli barreiatuaren lurraldean, beharrizanak betetzeko, dimentsionamendurako eta zonakatzerako

inbertsioak kalkulatzeko sistema guztiak alferrekoak eta, gainera, kaltegarriak dira. Arazoa ez da non eraiki behar den esatean oinarritzen, nola eraiki behar den esatean baizik; hau da, gramatika nahiz joskera zehaztu eta arauak ezarri behar dira, ez kantitateak bakarrik; matrizeak zehaztu behar dira, eta ez lurzorua kalifikatzeko planoak".

- Lurraldearen ulermenak dibertsitatea aintzat hartzea. Horretarako, lurraldea berori osatzen duten hiri- nahiz landa-piezen nortasun bereizgarria kontuan hartuta artikulatu behar da. Beste alde batetik, gainditu egin behar da planeamendu espaziala programa sektorialak (ingurumena, garraioa, etxebizitza, jarduera ekonomikoa,…) gainjartzean oinarritzen duen ideia, eta, beraz, hausnarketa integratzaileak egin behar dira eremu geografiko koherenteei buruz, irizpide "indartsuetan" oinarrituta.
- Planeamendua "hitzarmenerako" tresnatzat hartzea, bai lurraldearen gobernuan bai herri-botereen eta gizarte zibilaren arteko elkarrizketan. Bestalde, lurralde-esparru estrategikoa formulatzeak aukera ematen du herri-botereen inbertsio edo kontrol administratiboko ekintzen "ahalmena tasatzeko". Aldi berean, gardentasunaren nahiz partaidetza publikoaren eta ordezkaritza-organoen babes politikoaren legitimitatea dauka. Horrela, erakundeek nahiz gizabanakoek irismen handiagoko helburu partekatuetara orientatzeko ekintzak ahalbidetzen dituen gizarte-onarpena lor dezake planifikazio espazialak.

## 1.3 Europa barruko lurralde-garapen orekaturako eta iraunkorrerako irizpideak

Laurogeita hamarreko hamarkadaren hasieran, Europako Batzordearen "Europa 2000" agiriak agerian jarri zuen dagoeneko ezinezkoa dela planifikazio isolaturik egitea. Laurogeiko hamarkadako hiri-kulturaren ekarpena, izan ere, hiria "eraldaketaren" espazio bihurtzea izan zen; laurogeita hamarreko lurralde-arazo berriek, berriz, lurraldea eskala desberdineko integrazio-ikuspegietatik pentsatu beharra eragin zuten.

Lehenengo eta behin, Europa mailako integrazio-dinamiken garrantzia kritikoaren jabekuntza iritsi zen. Garapen-joeren eta lurralde-eragineko politiken diagnostikoak ("Europa 2000" eta "Europa 2000+" agirietan

laburbilduta) Europar Batasun handituaren etorkizun hurbilean konpondu beharreko funtsezko arazoak eta joera sozioekonomikoak identifikatu zituen:

- Jarduera ekonomikoaren mugikortasuna (gune geografiko tradizionaletatik kanpo), inbertsio-jarioen orientazio berria eta erabakiguneen aldaketa.
- Biztanleriaren zahartze gero eta handiagoaren eta aurreikusitako EBtik kanpoko migrazio-jario masiboen eraginezko aldaketa demografikoak.
- Aglomerazio handien eraginkortasunaren eta bizi-kalitatearen narriadura, bertako azpiegiturak asetzeko joeraren ondorioz.
- Garraio-azpiegituren eta informazioaren teknologia berrien garrantzia estrategikoa, lurralde-integraziorako aukera berriak irekitzen baitituzte, batez ere hiri-inguruko eskualdeetan.
- Agiri horien ikuspegitik, ingurumen-baliabideak zaintzea eta garapen iraunkorreko printzipioak garatzea ezinbesteko baldintzak dira epe luzerako edozein garapenerako, baldin eta garapen hori bateragarria izango bada bizi-kalitatearen baldintza onargarriekin. Hortaz, Europako politiken arteko lankidetza estuagoa behar da (lurraldean eragina duten politikak), eta gainera, Europar Batasunaren lurralde-garapenari buruzko ikuspegi estrategikoa inplementatu behar da.

Europako metropoli askok plangintza estrategikoaren formatu berria formulatzeak (laurogeiko eta laurogeita hamarreko hamarkadetan) aukera eman zuen eztabaida lurralde-antolamenduaren ikuspegi zabalagoa hartzea eragin duten gaietara zabaltzeko.

Lehenengo eta behin, planeamendu estrategikoaren eraginez, arlo espaziala hausnarketa zabalagoan eta gizarte-irismen handiagokoan sartu zen, eta eztabaida horretan hiriaren aukera-faktoreak, jarduketa-ildoak edo proiektu zehatzak aztertu ziren, gainera, gai sozioekonomikoak eta kulturalak ere jorratu ziren, hirigintza-planetatik nekez identifikatzeko eta formulatzeko modukoak, edo herri-administrazioen ikuspegi sektorial nagusitik kanpo gelditzen direnak. Aldi berean, gainditu egin zen toki-administrazioak hiriko biztanleentzako oinarrizko hiri-zerbitzu jakinak ematearen arlora mugatuta egotea, eta, horrela, irismen nahiz asmo handiagoko hiria nahiz gizartea garatzeko zein sustatzeko helburuak planteatu ziren.

Bigarrenez, agerian gelditu zen gizarte-hitzarmeneko “prozesuak” berehalako emaitza distiratsuen (proiektu bereziak betearazita lortutako emaitzak)

irudikeriarekiko zuen balioa. Metropoli bakoitzak planetan identifikaturiko lehentasunezko ekintza-ildo nagusietan aurrerapausoak emateko gaitasuna, neurri handian, gizarte- eta ekonomia-sektoreek honako honekin zuten konpromiso eta identifikazio mailaren araberakoa izan zen: proposaturiko helburuekin eta lehentasunezko proiektuak eraginkortasunez kudeatzeko gaitasun ekonomikoarekin nahiz antolaketa mailako gaitasunarekin.

Bi gai horiek, hau da, ikuspegi orokorrak eta gizarte-mobilizazioak, agerian jarri dute planeamendu espaziala gizarte-dinamismo berri batean euskarritu behar dela; dinamismo hori gauza izan behar da plan konbentzionalen ikuspegi arautzaile zorrotza gainditzeko.

Plan estrategikoak formulatzeko nahiz kudeatzeko esperientziaren eta planeamendu espazialaren ikuspegi konbentzionalari ikuspegi “estrategikoa” eranstearen eraginez, estatutu-planeamenduaren gai-agenda handitu egin zen, besteak beste, honako gai hauek sartuta: politika sektorialak integratzea; ingurumen-irizpideak (iraunkortasuna) ekintzen diseinuan sartzea; eta esparru espazial aldagarriaren Plana egokitzea, arazoak eta aukerak agerian gelditzeko. Arlo horiek aurrerago funtsezko arrazoibideak izan ziren, Europako Lurralde Estrategiaren (ELE) kontzeptu-egituran. Estrategia horren behin betiko bertsioa EBko Lurralde Antolamenduko ministroek formulatu zuten Postdamen, 1999ko maiatzean, eta urte horrexetan argitaratu zen.

Agiri horren arabera, lurralde-garapeneko politiken helburua Europar Batasuneko lurraldearen garapen orekaturako eta iraunkorrerako aurrerapausoak ematea da, EBko eskualdeek Europako politikaren hiru helburu nagusiak modu harmonikoan lortzen dituztela bermatzeko:

- Ekonomia- eta gizarte-kohesioa
- Natura-baliabideen eta kultura ondarearen kontserbazio eta kudeaketa iraunkorra
- Lehiakortasun orekatua Europako lurraldean.

ELEa Elkartean eta lurraldean eragina duten estatukideen politika sektorialak txertatzeko formulatu da, baita toki- nahiz eskualde-agintarien lurralde-estrategiak finkatzeko ere, eta horien guztien helburu komuna Europako lurraldearen garapen orekatua eta iraunkorra da.

## 1.4 Lurraldearen antolamendu iraunkorreko estrategiaren jarraibideak.

### a) Hiri-sistema orekatuagoa nahiz polizentrikoagoa eta hiri-landaren arteko harreman berria

– **Hiri handien eta txikien arteko osagarritasuna eta lankidetza:**

Eskualde metropolitarren, hiri taldeen ("klusterrak") eta hiri-sareen sistema orekatuagoa eta polizentrikoagoa indartzea, Europaz gaindiko sareen politikaren eta egitura-politikaren arteko lankidetza estuagoaren bidez, baita honako hauen arteko loturak hobetuta ere: alde batetik, nazio edo nazioarte mailako garraio-sareak, eta bestetik, eskualde zein toki mailakoak.

Ekonomia-oinarria, ingurumena eta zerbitzu-azpiegiturak hobetzea hirietan, batez ere eskualderik narriatuenetan, horiek inbertsio mugikorretarako erakargarriagoak izateko.

Jarduera-adar bakarrarekiko mendekotasun handiegia duten hirien ekonomia-oinarria dibertsifikatzea eta hiri txikien nahiz ertainen garapen ekonomikoa sustatzea, eskualderik narriatuenetan.

Hiri-garapeneko estrategia integratuak sustatzea, dibertsifikazio sozialerako eta funtzionalerako; batik bat, gizarte-bazterkeriaren aurkako borrokari eta bertan behera utzitako edo gutxi erabilitako zonak suspertzeari dagokionez. Hiri-ekosistemaren kudeaketa adimentsua bultzatzea.

Hirietan eta hiri-eskualdeetan irisgarritasun hobea sustatzea, kokaleku-politikaren eta lurzoruaren erabilera planifikatzearen bidez, horiek lagungarriak izan behar baitira hiri-funtzioak nahasteko eta garraio publikoak erabiltzeko. Neurririk gabeko hiri-hedapena eusteko metodo eraginkorrak sustatzea, baita egoitza-zonen gehiegizko presioa murrizteko metodoak ere, batez ere kostaldeko eskualdeetan.

### – Hiriaren eta landa-inguruaren arteko lankidetza

Garapen-estrategia dibertsifikatuak sustatzea; estrategia horiek landa-eremuetako ahalmenetara egokiturik egongo dira eta garapen endogenoa ahalbidetuko dute, nekazaritzaren funtzio anitzeko sustapena ere barne. Landa-inguruak sustatzea, hezkuntzaren eta heziketaren arloan, eta nekazaritza-sektoretik kanpoko enpleguak sortzea.

Landa-inguruan hiri txikiak eta ertainak indartzea, eskualde-garapena gauzatzeko gunetzat, eta horiek sareetan integratzea.

Landa- eta hiri-zonen arteko lankidetza zein trukea sustatzea eta bultzatzea, toki- eta eskualde-baldintzak aintzat hartuta (batik bat, natura- eta kultura-ondarea).

Hiriaren eta landa-inguruaren arteko lankidetza sustatzea, eskualde funtzionalak indartzeko.

Zerbitzu eta garraio publikoen oinarrizko zerbitzuak mantentzea, landa-inguruetako hiri txikietan eta ertainetan, batez ere gainbeheran doazen eremuetan.

Hiri handien inguruko landa-eremua integratzea, hiri-eskualdeen lurralde-garapeneko estrategietan, lurzoruaren erabileraren planifikazio eraginkorragoa egiteko, hiri-inguruko eskualdeen bizi-kalitateari arreta berezia jarrita.

Nekazaritza iraunkorra bermatzea, ingurumen-neurri berriak aplikatzea eta lurzoruen nekazaritza-erabilera dibertsifikatzea.

Landa- eta hiri-zonetan energia berriztagarrien ahalmena erabiltzea, toki- eta eskualde-baldintzak aintzat hartuta, batez ere natura- eta kultura-ondareari dagokionez.

Ingurumena errespetatzen duen turismoa garatzeko aukerak ustiatzea.

### b) Parekotasuna azpiegituren lorpenean eta ezagupenean

#### – Azpiegituren erabilera eraginkorragoa eta iraunkorragoa

Bigarren mailako garraio-sareak eta sare nagusiarekiko loturak indartzea; horren barruan, garraio publikoko eskualde-sistema eraginkorren garapena sartzen da.

Telekomunikazio-azpiegiturak eta horien erabilera errazago lortzea: biztanleria-dentsitate baxuko eskualdeetan zerbitzu unibertsalak ematea, tarifen antolamendu koherentearen bitartez.

Lurralde-garapeneko eta lurzoru-erabilerako politikak hobeto artikulatzea, garraioaren eta telekomunikazioen planifikazioa eginez; halaber, inguru-eraginaren ikerketak egitea, azpiegitura-proiektu handien espazio-ebaluaziorako tresnatzat, batik bat garraioen arloan.

Garraio publikoa hobetzea eta zerbitzuaren oinarrizko eskaintza egitea hiri txikietan eta ertainetan.

Trafiko-itoaldiak dituzten zonetako eragin negatiboak murriztea, kutsadurarik gutxien sortzen duten garraiobideak indartuta.

Merkantzia-garraioaren korapilo intermodalak sareetan integratzea, itsasoko eta ibaiko nabigazioari arreta berezia jarrita.

Azpiegituren kudeaketa nahiz planifikazio hitzartua eta integratua, inbertsio erredundanteak murrizteko eta oraingo garraio-azpiegituren erabilera eraginkorra bermatzeko.

#### – Berrikuntzaren eta ezagupenaren zabalkundea

Ezagupenari buruzko politikak lurralde-garapeneko estrategietan sartzea, baita berrikuntzaren sustapenean, hezkuntzan, lanbide-heziketan nahiz heziketa iraunkorrean, ikerketan eta garapen teknologikoan ere.

Berrikuntza-zentroen sorreran, goi-irakaskuntzan, ikerketa aplikatuan eta garapen teknologikoan laguntza ematea, sektore pribatuarekin lankidetzan.

Eskaintza eta eskaria sustatzeko neurriak garatzea, informazioaren eta komunikazioaren teknologien lorpena eta erabilera hobetzeko.

### c) Natura- eta kultura-ondarearen kudeaketa zuhurragoa eta garapena, garapen iraunkorraren ikuspegitik

#### – Natura-ondarearen kontserbazioa eta garapena

Biodibertsitatearen mantenamendua politika sektorialetan, nekazaritzan, politikan, garraioan, arrantza eta abarrean integratzea, Biodibertsitatearen Europako Estrategian ezarritakoaren arabera.

Lurralde-garapeneko estrategia integratuak sortzea, babesturiko zonetarako, ingurune zaurgarriko zonetarako eta biodibertsitate handiko zonetarako (adibidez, kostaldeko zonak, mendiko eskualdeak eta zona hezeak), babesaren nahiz garapenaren arteko oreka aintzat hartuta eta ingurumen- zein lurralde-eraginaren ikerketetan oinarrituz (interesa duten kideekin egindako ikerketak).

Babesturiko zonen eta ingurumen zaurgarriko zonen balio ekologikoa jakiteko tresna ekonomiko gehiago erabiltzea.

Energia gutxiago behar duten eta trafiko gutxiago sortzen duten hiri-egiturak sustatzea; bertan, baliabideen planifikazio integratua egitea eta energia berriztagarri gehiago erabiltzea, CO2aren isurpenak murrizteko.

Lurzorua babestea, oinarrizkoa baita gizakia, animaliak eta landareak bizitzeko; horretarako, higadura murriztu, lurzoruaren suntsipena ekidin eta eremu irekien gehiegizko erabilera saihestu behar da.

Toki, eskualde eta nazioz gaindiko hondamen naturalen mehatxupean dauden zonetako arriskuak kudeatzeko estrategiak lantzea.

– **Baliabide hidrikoen kudeaketa egokia**

Uraren horniduraren eta eskariaren arteko oreka hobetzea. Ura kudeatzeko tresna ekonomikoak garatzea eta aplikatzea, eta nekazaritza-ustiapeneko metodoak eta baliabideen erabilera murrizten duten ureztaketa-teknikak sustatzea.

Ur gehiegi ateratzearen edo hirigintzaren eraginez mehatxupean dauden zona heze handiak kontserbatzea eta suspertzea.

Ingurumen- eta lurralde-eragineko ikerketak aplikatzea, kudeaketa hidrikoari loturiko proiektu handi guztietarako.

– **Kultura-paisaien sormenezko kontserbazioa eta kudeaketa**

Kulturaren, historiaren, estetikaren eta ekologiaren aldetik balio handia duten kultura-paisaiak sormenez kontserbatzea eta garatzea, paisaia horiek lurralde-garapeneko estrategia integratuen barruan baloratuz.

Giza esku-hartzearen eraginez kalteturiko paisaiak sormenez suspertzea, horiek berriro laboratzeko neurriak aintzat hartuta.

Babesa merezi duten hiri-multzoak kontserbatzea eta sormenez eraldatzea, eta narriaduraren edo bertan behera utzita egotearen eraginez mehatxupean dagoen kultura-ondarea babesteko estrategia integratuak garatzea; horri dagokionez, arriskuak ebaluatzeko eta krisi-egoerak gainditzeko tresnak sortuko dira.

Lurralde- eta hiri-garapeneko politikaren pertzepzioa indartzea, etorkizuneko belaunaldien kultura-ondareari egindako ekarpentzat.




Iturria: Ingurumenaren eta Garapen Iraunkorraren Arloko Politikaren eta Ekintzaren Europako V. Programa

## 1.5 Durangoko Eskualde Egituraren LZPa egiteko irizpide metodologikoak

Durangoko Eskualde Egiturarako Lurralde Proiektu Iraunkorra zehaztearen helburua, izan ere, lurraldearen antolamenduaren eta egituraren oinarrizko elementuak ezartzea da, planifikazio sektorialeko eta udal-planifikazioko gainerako tresna guztien erreferentea izateko.

Lurraldearen Zatiko Plana ikuspegi estrategiko batetik sortu da, hirigintza-jarduera lurralde-proiektu koherente batean laburbiltzeko eta integratzeko, arauzko ikuspegi hutsera mugatu barik.

Lurralde-antolamenduaren ikuspegi “estrategiko” horren helburua, izatez, oraingo sinergiak aprobetxatzea eta ahalmenak koordinatzea da, lurralde-errealitatea gainean dugun etorkizun dinamikora eta aldakorrera egokitu ahal izateko (lehiakortasun eta osagarritasun espazialaren esparru orokorraren barruan egongo den etorkizuna). Ikuspegi horretatik begiratuta, LZPa hauxe izango da:

1. Lurraldea egituratzeko tresna, inbertsio-sektore pribatuak eta publikoak elkartuz, garapen iraunkorraren aukerak sustatzeko eta eskualdean ingurumenaren, gizartearen nahiz ekonomiaren aldetik dauden desorekak zuzentzeko.
2. Eskualde Egiturari finantziazio bideragarria duen eta planteaturiko helburuen arteko jarraibide koordinatuak finkatzen dituen proiektua eskaintzeko jarraibidea.
3. Gizarte-, ekonomia- eta administrazio-arloko indar guztien arteko adostasuna, konpromisoa eta partaidetza lortzeko prozedura.

Gizarte-, ekonomia- eta politika-indarrek garapen-proiektu beraren inguruko adostasun handia nahiz konpromiso irmoa lortzea eta planteamendu global honekin lurralde eragin koherentea duten politikak modu koordinatuan sustatzea, azken batean, planifikazio onaren ezinbesteko baldintzak dira eta horren benetako garrantzia adierazten dute.

Halako proiektu garrantzitsu bat formulatzeko aukera, izan ere, konpromisoko benetako talde-erronka da eta inguru jakinean kokaturik dago; horrenbestez, inguruak eta estrategiak funtsezko elementuak izan behar dira gizartearen heldutasunerako eta kohesiorako.

Administrazioak proposamen artikulatua baina aldebakarra planteatuta, ezinezkoa da lurralde-proiektuaren formulazioa gizarte-kohesiorako elementua izatea, horrek mugatu egiten baitu partaidetza-prozesua (komunitateak bere kezkak eta helburuak modelatzeko proiektua). Beraz, gizarte-, ekonomia- eta erakunde-arloko eragileen partaidetza berezko helburua da.

Horretarako, sormenezkoak eta, aldi berean, eragileak diren mekanismoak planteatu behar dira, hasiera-hasieratik gizarte zibil osoaren inplikazioa lortzeko, jarraibideak eta helburuak eztabaidatzeko eta zehazteko prozesuan; horrela, hartzen diren ondorioak eta ebazpenak guztiz onargarriak izango dira, eta horrek, gainera, horien garapena sustatuko du.

### 1.5.1. Lurralde-proiektu bat formulatzeko oinarri objektiboak: hirigintza-informazioa eta diagnostikoa.

LZParen proposamen-diagnostikoaren garapenean, funtsezko irizpide hauek hartu dira kontuan:

a) Lurraldeko informazioaren eta diagnostikoaren helburua (irizpide analitikoen eta teknikoen arabera landuta eta prozesatuta), izan ere, erabaki-hartzea eta lurralde-politiken ezarkuntza (Eskualde Egituraren eta udalerrien mailetan) oinarri objektiboetan euskarritzea dela ulertzea.

b) Jarduketa estrategien informazio-, diagnostiko- eta formulazio-faseen arteko elkarrekiko elikadura ezartzea. Informazioa horren garrantziaren arabera egituratu behar da, funtsezko lurralde-eraldaketak, egitura nahiz dinamika homogeneoa duten eremuak eta horri loturiko arazoak (Planeamenduak, Araudiak eta Lurralde Politikek konpondu beharrekoak) zehazteko, azpieskualde eta udalerri mailan.

c) Lurralde-errealitatearen eta Lurralde Antolamenduaren diziplinaren izaera konplexua aintzat hartuta, “zeharkako” ikuspegia behar da eta horrek bi ondorio ditu: lehenengo eta behin, lurraldeko ingurumen-, gizarte-, ekonomia-, hirigintza- eta lege-arloak elkarreraginean hartu behar dira; bigarrenez, komenigarria da zehaztapen sektorialak artikulatzea (babesturiko lurzoruen zehaztapena, lurralderako erabileren esleipena, azpiegituren diseinua, hiri-hazkundeen handitasuna, etab.), ikerturiko lurraldearen antolamendurako eta egiturarako estrategia koherente baten barruan.

Durangoko Eskualde Egituraren etorkizunerako lurralde-eredua zehaztea, izan ere, etorkizunari buruzko irudimen-hausnarketako talde-erronka da, eta hori ez da mugatzen egitura politikora edo ziklo ekonomiko txikietara. Administrazioak edo LZParen arduradun teknikoek proposamen itxia planteatzeak geldiarazi

egingo luke ideien sorkuntza, eta gainera, partaidetzakoa eta anitza izan behar den prozesua ere geldiarazi egingo luke.

Proposamen hau, bestalde, Lurraldearen Plana Durangoko Eskualde Egiturarako etorkizuneko proiektu baten hirigintza-adierazpentzat hartzean oinarritzen da.

Horrenbestez, Lurraldearen Zatiko Plana ezin da tresna hutsa izan, gizartearen borondatearen adierazpena baizik, etorkizuneko aukera nagusiei dagokienez, eta adierazpen hori, berriz, lurralde-antolamenduko aukera jakinaren hautapenean oinarritzen da. Beraz, hiritarren ezagupenak eta partaidetzak berebiziko garrantzia dauka Plana lantzeko eta kudeatzeko prozesuan, erantzukizun nagusia lurralde-administrazioek eduki arren: Bizkaiko Foru Aldundia, udalerriak eta Eusko Jaurlaritza.

Lurraldearen Plana, batez ere, lurraldeari buruzko kautela-neurri politikoen multzoa da, eta administrazio arduradunen borondatearen arabera ezarritako lehentasun-ordenari jarraituz garatu behar da denboran.

Planak, hortaz, helburu garrantzitsua baina mugatua dauka: “Lurraldearen gobernua gizarteak babesturiko proiektu baten arabera arrazionalizatzeko eta optimizatzeko tresna edo erreminta da”. Eraginkortasuna izatea, Plana erreferentzia komuna izan behar da, demokratikoki onartua, eta eragile publikoek eta pribatuek bertan oinarritu behar dituzte euren jarduketak.

Hirigintza- eta lurralde-planak, sarritan, norbanakoak mendean hartzen dituzten arau negatibo hutsak izaten dira, baina apurka-apurka botere publikoak lotzen dituzte. Gure ustez, aldiz, garrantzitsua da Planaren koherentziaren eta eraginkortasunaren ideia orokorra edukitzea, lurralde mailako aukeratzat eta eredutzat, ekintza pribatuen bideragarritasun juridikoaren nahiz ekonomikoaren eta inbertsio publikoen inguruko hitzarmenean eta konpromisoan euskarrituriko babes- eta hobekuntza-neurrien bitartez.

Administrazioaren kudeaketa-gaitasuna indartzea Lurraldearen Zatiko Planaren bideragarritasunaren alderdi erabakigarria da, lurraldea gobernatzeko tresna eragiletzat (ez tresna teorikotzat bakarrik).

Plana idazteko prozesuak berebiziko aukera ematen du lurraldea gobernatzeko estrategia modu esplizituan formulatzeko eta publikoki eztabaidatzeko, baina Durangoko Eskualde Egiturako ezaugarrietara eta baliabideetara ondoen egokituko diren tresnak eta administrazio-antolaketa baloratzeko ere baliozkoa izan behar da.

Lurraldearen Zatiko Plana borondate politiko baten adierazpena eta, aldi berean, administrazioen nahiz administratuen arteko elkarrekiko konpromisoa edo “ituna” da. Horrenbestez, funtsezkoa da Eskualde Egituraren lurraldean dauden erakunde publikoen eta pribatuen arteko hitzarmena sustatzea. Espazio horretan administrazio guztien aldibereko ekintza dago (Estatuko Administrazioa, Autonomikoa, Foru Administrazioa eta Tokikoa), baita erakundeen, lur-jabeen, hirigileen eta enpresaburuen aldibereko ekintza ere.

Testuinguru horretan, bakoitzaren eskumenak bideratzeko zentzuzko aukera bakarra “lankidetza” da. Egitamuaren formulazioa berebiziko unea da lankidetza-kultura sustatzeko eta islatzeko.

### 1.5.2. LZParen garapen metodologikoa.

### I. fasea: hirigintza- informazioa eta diagnostikoa

Metodologia Agiriak interes estrategiko handiko alderdiak identifikatu zituen, eta, horietan oinarrituz, lan-agiriak landu ziren horien ondorioek, ondo heldu eta jorratu ondoren, Lurraldearen Zatiko Planaren Aurrerapena formulatzeko aukera eman zuten.

Agiri horren helburuak eta irismenak elementu positiboak sortzen ditu ondorengo lanak garatzeko eta, horien bidez, politika desberdinak integratzeko nahiz gauzatzeko prozesuak artikulatzeko.

### Durangoko LZParen garapen metodologikoaren eskema orokorra




Orain arte lurralde-planari buruz egindako lanak eta emandako informazioa laburbildu eta aztertu egin da, eta osatu eta gaurkotu egin dira diagnostikoaren abiapuntuko kasuak garatzeko elementu interesgarriak. Era berean, ikerturiko sektore bakoitzaren arazoak, aukerak eta joerak ere aztertu dira.

### Durangoko LZParen garapen metodologikoaren eskema



Informazioa eta Diagnostikoa Agiriaren egitura:

- Informazioa sistematizatzea eta gaurkotzea, Geografia Informazioko Sisteman integratzeko. Informazioak tratamendu homogeneoa izan du eta GIS gisa tratatzeko prozesatu da.
- Lurraldearen Zatiko Planaren lege-eremua.
- Lurralde-azterketa:
  - Aktibo naturalak eta ingurune fisikoa.
  - Lurralde-egitura eta lurzoruaren erabilerak.
  - Garraio-azpiegiturak.
  - Oinarrizko azpiegitura-sareak.
  - Ekipamenduak.
- Azterketa sozioekonomikoa:
  - Dinamika demografikoa.
  - Egitura ekonomikoa.
- Hirigintza-azterketa:
  - Indarreko udal-planeamendua.
  - Kultura-ondarea.
  - Etxebizitza eta higiezinen merkatua.
- Partaidetza-arakapena: eragileek egindako diagnostikoa.

Elementu horiek aztertu ziren, garapeneko irizpideak nahiz lehentasunak eta ikerketa-eremuak identifikatzeko, eta, horrela, Lurraldearen Zatiko Planaren Aurrerapenaren diseinu metodologikoa garatzeko.

### 2. fasea: Lurralde-eredua. Lurraldearen Zatiko Planaren aurrerapena

Eskualde Egituraren oraingo lurralde-ereduaren diagnostikoan, ezarritako jarduketa-irizpideetan, zehazturiko helburuetan eta partaidetza-prozesuaren ondorioetan oinarrituz, aurreko fasean azterturiko sektore bakoitzaren proposamenak ezarri ziren.

Lurraldearen Zatiko Planaren formulazioa, izan ere, Bizkaiko Foru Aldundiaren helburuak eta politikak zehazteko prozesuaren barruko ekimena da:

- Lurraldearen artikulazio fisikoa garatzea, erreferentzia izatea eta garapen ekonomiko solidarioa, orekatua nahiz iraunkorra sustatzea.
- Bizi-kalitatea, gizarte-ongizatea eta natura- zein kultura-baliabideen erabilera iraunkorra hobetzea.

- Eskualde Egituraren gaitasunak eta balioak garatzen eta ustiatzen laguntzea.

Helburu horiekin Lurraldearen Zatiko Planaren aurrerapen-agiria eratu zen, eta hori zentzu bikoitzean ulertu behar da:

- Lurraldea antolatzeko proposamen-eskematzat (Egitamuren azken emaitza).
- Lurraldearen Zatiko Planeko estrategiak zehazteko eta garatzeko erreferente orokortzat, baita Eskualde Egituran garatzen diren jarduera sektorial publikoak eta pribatuak zehazteko erreferente orokortzat ere.

LZParen aurrerapen-agiriak funtsezko alderdi hauek garatu zituen:

- Durangoko Eskualde Egiturako lurralde-proiektu iraunkorra garatzeko jarraibideak azaltzea.
- LZPa egiteko irizpide metodologikoak.
- LZPa, Eskualde Egiturarako lurralde-proiektu iraunkorra: oinarrizko irizpide hauek proposaturiko lurralde-eredua:
    - Ingurune naturala eta landa-ingurunea
    - Ezarkuntza-sistema. Egoitza-lurzoruaren eta etxebizitzaren beharrizanen ebaluazioa
    - Azpiegiturak garatzeko irizpideak eta gomendioak
    - Ekipamenduen banaketa orekatua
    - Ekonomia- eta gizarte-garapen ereduaren aldaketa.

Egitamuaren testuinguruan, aurrerapen-agiriak esparru orokorra eskaini zuen eta horrek, aintzat hartuta lurralde-antolamenduaren helburu orokorrak eta egindako diagnostikoaren ondorioak, lurralde mailako helburu eta estrategia espezifikoagoak zehazteko aukera eman zuen.

LZParen aurrerapenak, batik bat, lurralde-integrazioaren irudia eman zuen, elementu bakoitzaren aukeretan eta prozesu gero eta konplexuagoak sortzeko nahiz horiei erantzuna emateko gaitasunetan oinarrituz. LZParen aurrerapen-agiria hauxe dela esaten da: “Eskualde Egituraren barruan harremanak sustatzeko eta finkatzeko proposamena: hiri-ezarkuntzen artekoak eta horien eta lurraldearen nahiz baliabide naturalen artekoak”.

### 3. fasea: LZParen aurrerapen-agiriaren jendaurreko azalpen- eta entzunaldi-tramiteen emaitzaren azterketa eta analisia

Fase honen barruan, jendaurreko informazioko eta agiriaren entzunaldiko tramiteetan egindako oharrak eta iradokizunak ikertzeko eta baloratzeko lanak egin dira, bertako xedapenak aberasteko.

Durangoko LZParen Aurrerapenari egindako hamahiru alegazio-txosten jaso ziren; horiek Herri Administrazioek eta inplikaturiko elkargoek egin zituzten, eta, bertan, Egitamuaren barruko zenbait alderdi aipatzen ziren, esaterako, etxebizitza, ingurune naturala edo azpiegiturak; gehienak balio eta garrantzi handikoak dira.

### 4. fasea: Lurraldearen Zati Planaren eta Ingurumeneko Eraginaren Ebaluazio Bateratuaren Azterlanaren lanketa zehatza

Aurreko prozesuan zehar baloratu diren ekarpenen kontsiderazioa izanik oinarri, Durangoko Lurraldeko Plan Partziala egin izan da, zeinari hasierako onarpena eman zaiola 2008ko apirilaren 8ko dataz, bere agirien artean sarturik Ingurumenko Inpaktuaren Baterako Ebaluazioaren Azterlana. Lurralde-politikaren neurri zehatzen bidez, eraldatu egin nahi ziren zenbait arlotako oraingo egiturak, aintzat hartutako elementu bakoitza (hiri-eremuak, lurraldea eta baliabideak) indartzeko eta aberasteko; horrela, eskualde osoa egituratu eta bertako garapen-ahalmenak aktibatu egingo ziren.

Ingurumen Eraginaren Ikerketa batera egiteko prozesuari esker, zuzendu egin dira LZParen hasierako onespen-agiriaren lehenengo zirriborroko proposamen ezegokiak, kontuan hartuta lurraldearen gaineko eragina eta kalitatea; sortutako agirian zuzentze horiek daude jasota, eta, horien eraginez, aurretiazko proposamenak ere aldatu egin behar izan ziren.

Etapa horretan, Eskualde Egiturarako proposaturiko lurralde-eredua birformulatzearekin eta sakontzearekin batera, Lurraldearen Zatiko Planeko proposamenak bideragarri egiteko kudeaketa- eta finantziazio-formulak ere aurkezten ziren, nahi den helburua lortzeko, Durangoko Eskualde Egiturako lurralde-proiektua.

Fase honetan, LZParen arauzko agiriak ere landu ziren, 4/1990 Legeko 12.3 artikuluan ezarritakoak, eta horietan, aurreko puntuetan jasotako edukiak aintzat hartuta, honako hauek sartzen dira: Informazio Ikerketak eta Planoak; Egitamuaren Azalpen Memoria; Ekonomia eta Finantza Ikerketa; Betearazpen Programa; Informazio eta Antolamendu Planoak; Antolamendu Arauak, eta, azkenik, uztailaren 22ko 183/2003 Dekretua dela bide, Ingurumen Eraginaren Baterako Ebaluazioaren agiria, Lurraldearen Zatiko Planek hori egin behar baitute:

- Hirigintza Informazioa eta Diagnostikoa; honen barruan, oinarrizko informazioko ikerketak eta elementuak sartzen dira, antolamendu-erabakiak hartu ahal izateko; lehentasunak Eskualde Egituraren arazoak mugatzea eta horren lurralde-ahalmenak jakitea dira.
- Antolamendu Memoria; egitamuak proposaturiko lurralde-eredua lortzeko hartzen dituen erabakien azalpen-agiria. Egitamuaren idazketarako irizpideak eta, gainera, barruko ekintza bakoitza azaltzen dira.
- Hirigintza-arauak; Egitamua antolatzeko eta kudeatzeko zehaztapenak jasotzen dira, Eskualde Egiturarako proposaturiko lurralde-proiektua lortzeko; zehaztapen horien ezaugarriak ere adierazten dira, zehaztapen bakoitzaren irismena bereizita: herri-administrazioetarako eta norbanakoentzat lotesleak diren aplikazio zuzeneko zehaztapenak, helburuen aldetik lotesleak diren zehaztapenak eta zehaztapen orientagarriak.
- Ekonomia eta Finantza Ikerketa eta Betearazpen Programa; Egitamuak abiaturiko ekintzak eta horiek garatzeko lehentasun-ordena; halaber, horiek garatzeko sekuentzia-ordenarik egokiena ezartzen da, proposaturiko lurralde-eredua lortu ahal izateko.
- Informazio eta Antolamendu Planoak; informazioaren, antolamenduaren eta proposamenaren oinarrizko kartografia, edukia ondo ulertu ahal izateko ulertzeko eskala egokiarekin.
- Ingurumen Eraginaren Baterako Ebaluazioaren Ikerketa; honen barruan, LZParen helburu estrategikoen eta horiek eraginpeko hiri-, natura- nahiz landa-ingurunean duten eraginaren zein elkarreraginaren azalpena egiten da; halaber, aukeren ingurumen-azterketa, sortutako ingurumen-eraginen balorazioa eta proposaturiko neurri zuzentzaileak ere jasotzen dira.

Egitamu hau hasieran onetsi ondoren, eta jendaurreko azalpenerako bidezko epea amaitutakoan, idazte-taldeak berriro aztertu eta agiriari egindako alegazioak jakinarazi ditu. Ondoren, bidezko aldaketak egin dira, orain aurkezten den LZParen behin betiko bertsioa lortzeko.

### LZParen garapen metodologikoaren laburpen-eskema

Ondoren, garapen metodologiko orokorraren eskema jaso dugu, eta bertan, aurreko paragrafoetan azaldutako faseak daude jasota.




II.FASEA
IRIZPIDE ETA HELBURU OROKORRAK
ETA SEKTORIALAK LURRALDE EREDUA
LURRALDE EREDUA
Babesturiko natura-eta landa-espazioak
Lurralde-sistemen antolamendua
Kudeaketa- eta finantziazio-estrategia
Udal-planeamenduaren jarraibideak
IV.FASEA
LURRALDEAREKIKO ZATI-EGITAMUA
(Ingurumen Eraginaren Baterako Ebaluazioaren Ikerketa)
Memoria
Arauak
Informazio-planoak
Antolamendu-planoak
Ikerketa ekonomikoa

# 2. DURANGOKO LZP EGITEKO ESPARRU JURIDIKOA

## 2.1. Euskadiko lurralde-antolamenduko lege-sistema.

Planifikazio-prozesuari zuzenen eta zehatzen aplikatu ahal zaion legeria autonomikoa da, lurraldearen antolamendua arautzen duena, eta arlo hori Euskal Autonomia Erkidegokoaren legegintza-eskumen soilekoa da. Legeria hori, gaur egun, lurralde-antolamenduari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legean agortzen da (aurrerantzean LAL).

Dena den, aintzat hartu behar da, Lege horretan ezarritakoaren arabera, otsailaren 11ko 28/1997 Dekretuak (bertan ezarritako tresnatzat) Lurraldearen Antolamendurako Artezpideak (aurrerantzean LAA) sortu eta onetsi dituela.

Halaber, aplikagarria da uztailaren 22ko 183/2003 Dekretua, 2003ko irailaren 5ean indarrean sartu zena, hain zuzen ere, bertako Bigarren Xedapen Iragankorra; dekretu horrek Lurraldearen Zatiko Planek egin behar duten Ingurumen Eraginaren Baterako Ebaluaziorako prozedura arautzen du, eta hori Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteari buruzko 3/1998 Lege Orokorrean ezarrita dago.

Arloari buruzko legeria izan ez arren, honako hauek ere aintzat hartu behar dira, antolamendu fisikoaren soluzioak baldintzatzen baitituzte: Europar Batasunaren arauak eta legezko nahiz arauzko arauak, bai Estatukoak eta bai autonomikoak, bakoitzaren eskumen-eremuetan ingurumenaren, naturaren zein ondare historiko-artistikoaren babesa, demanio-ondasun naturalak edo jardueren lurralde- edo espazio-antolamendua arautzen dituztenak.

Europako araudiaren barruan, aipagarria da Kontseiluak 1996ko abenduaren 9an emandako 96/82/EE Zuzentaraua, substantzia arriskutsuen partaidetza duten istripu larrien berezko arriskuak kontrolatzeari buruzkoa; horren manuen artean, aipagarria da hirigintza kontrolatzeari buruzko 12. artikulua; bertan ezartzen denez:

a) Estatukideek aintzat hartu behar dituzte istripu larriak aurreikusteko edo horien ondorioak murrizteko helburuak, bai lurzorua esleitzeko edo erabiltzeko politiketan eta bai bidezko beste politika batzuetan.

b) Estatukideek bermatu egin behar dute lurzorua esleitzeko nahiz erabiltzeko politikek edo bidezko beste politika batzuek, baita politika horiek aplikatzeko prozedurek ere, aintzat hartzen dituztela honako hauen arteko distantzia egokia epe luzean mantentzen direla: Zuzentarauko establezimenduen eta etxebizitza-zonen, jendeak erabiltzen dituen zonen eta interes natural bereziko zonen artekoa. Lehendik dauden establezimenduetarako, neurri osagarriak hartuko dira pertsonen arriskuak handiagoak ez izateko.
c) Estatukideek, halaber, segurtatu egin behar dute agintari eskudun guztiek eta arlo honetan erabakiak har ditzaketen zerbitzu guztiek kontsulta-prozedura egokiak ezartzen dituztela, politikak errazago aplikatu ahal izateko.

Gainera, lurralde-antolamenduaren edukiaren eraginez (lege horretan ezarritakoaren arabera), kontuan hartu behar dira, Lurraldearen Zatiko Planek ere aintzat hartu behar baitituzte, oraingo hirigintza- eta lurralde-antolamenduan eragina dutelako. EAEko lurralde- eta hirigintza-antolamenduaren barruan, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 legea ere sartzen da eta baita ekainaren 3ko 105/2008 Dekretu berria ere, aipatu Legea garatzeko Premiazko Neurriena.

Autonomiako ordenamenduak, gai esklusibo, eskumeneko, konstituzioaren eta estatutuaren aldetik definiturikoan jarduten badu ere (Euskal Autonomia Erkidegoaren Estatutuko 148.1.3 eta 10.31 artikuluak), Estatuko antolamendu orokorraren barruan sartzen da, eta horrek xedapen garrantzitsu batzuk ditu lurralde- eta hirigintza-antolamendurako.

Egoera hori Konstituzio Auzitegiak martxoaren 20an emandako 61/1997 Epaiaren eraginezkoa da, baita honako honen ondoriozkoa ere: alde batetik, lurralde- eta, batik bat, hirigintza-antolamenduko eskumen-tituluak mugatzea; bestetik, Estatuak arlo horretan eragiteko erabil ditzakeenak.

Lurraldearen Zatiko Planak barruan hartuko duen lurralde-antolamenduko sistema zehazten duten piezak eta logika honako hauek dira:

### 2.1.1. Tresnak eta euren artean dauden lotura (LALko 2. art.)

LALko 2. artikuluan lurraldea antolatzeko tresna hauek daude jasota:

a) *Lurraldearen Antolamendurako Artezpideak* (LAA); horien helburua Euskal Autonomia Erkidego osoko lurralde eremua batera antolatzea da (LALko 6. art.), honako honetarako erreferentzia-eremu orokorra ezartzeko: 1) lurraldea antolatzeko gainerako tresnak eta hirigintza antolatzeko planak formulatzeko; 2) lurraldean eragina duten egitamuak, programak eta ekintzak, erkidego-, foru- eta udal-administrazioek garatutakoak (LALko 4. art.).

b) *Lurraldearen Zatiko Planak* (LZP); horien helburua LALak garatzea da, azken tresna horrek mugaturiko udalerriz gaindiko eremuetan edo zonetan*,* bertan ezarritako irizpideak zehaztuz (LALko 11. art.).

c) *Lurraldearen Arloko Planak* (LAP); hain zuzen ere, Eusko Jaurlaritzako Sailek sortzen dituzten lurralde-eragineko egitamuak, baita Lurralde Historikoetako foru-organoek lantzen eta onesten dituztenak ere (LALko 16. art.).

LALen ezarritakoaren arabera, tresna horiek planifikazio-sistema zehatza eratzen dute, eta euren arteko harremana artikulatzen duten printzipioak honako hauek dira:

1. LAA tresna nagusiak dira, horien funtzioak honako hauek baitira (LALko 5. art.):

- Orokorrean, elkarri lotuta eta Euskal Autonomia Erkidegoko politikaren eta ekonomia-planen arabera, lurraldean diharduten eragile publikoen eta pribatuen ekonomia- nahiz gizarte-jarduerak arautzen eta orientatzen dituzten arauak eta irizpideak ezartzea, lurralde-oreka bermatzeko eta jarduera ekonomikoa lurralde-eremu egokietara erakartzeko baldintza egokiak sortzeko.
- Erreferentziako esparrua zehaztea, espazioak nahiz lurraldea antolatzeko eta erabiltzeko, eta, horrela, Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldean jardun behar duten herri-administrazio guztien politika sektorialak formulatzeko eta betearazteko, baita foru aldundien eta udalen hirigintza-jarduerarako ere; horren helburua, izan ere, jarduketa guztiak ondo koordinatzea eta bateragarriak izatea da.

- Estatuaren eta beste autonomia-erkidego batzuen baterako jarduketa behar duten lurralde-ekintzen aurreikuspena egitea, eta lankidetzarako behar diren hitzarmenetarako edo akordioetarako beharrezko oinarri guztiak ematea.

Lurraldearen Antolamendurako Artezpideen ondorioak ez dira mugatzen lurraldearen antolamendua planifikatzeko sistemara, eta hirigintza planifikatzeko sisteman ere eragina dute, udal-planeamendua lotuta (hirigintza-antolamenduko egitamu guztiak), LALko 8. eta 9. artikuluetan adierazitakoaren arabera: Egitamu Orokorrak eta Bereziak eta Planeamenduko Arau Osagarriak eta Subsidiarioak bertara egokitu behar dira, LAAren eraginezko baldintzetan.

Hori horrela izanik, lurralde-antolamendurako gainerako tresnei ere eraginkortasun bera eskatu behar zaie, baita LZPri ere, LAA garatzen dituen egitamua baita. LALko 15. artikuluan horixe dago ezarrita, eta, horren arabera, LZPk gainerako hirigintza-egitamu guztiak lotzen ditu; gainera, eragina izan dezake lehenagokoetan (aldatu egin ditzake), horiek eraginpean dituzten alderdiak zehaztuta, hirigintza-egitamuen ondorengo egokitzapenaren kalterik gabe.

2. Lurraldea antolatzeko gainerako tresnek, edo LAA garatzen dituzte eta, beraz, deribatuak dira (adibidez LZP: LALko 11. art.), edo Jarraibide horien esparruaren barruan txertatu behar dira (esaterako, LAP).

Beste tresna horien arteko erlazioa, berariazko arauketarik egon ezean, LAAtarako egokitzapen-printzioaren bidez arautzen dela ulertu behar da; beraz, bakoitzak lurralde-planifikazioaren sisteman duen egokizunaren arabera jardungo du. Hala eta guztiz ere, ezinbestekoa da xedapenak ezkutatzea, eta, hortaz, elkarrekiko harreman hori, lehiaren printzipioak ez ezik, Lurraldearen Zatiko Plana LAPri nagusitzeko printzipioak arautzen du, lehenengoa LAAak garatzeko tresna baita, LAP azken hauen aurkakoa ezin izatearen ondorioz (LALko 17.5 art.). Nagusitasun horren ondorioz, LAPko xedapen batzuk baliogabeak izan daitezke, kontraesankorrak izanez gero. Aintzat hartu behar da, dena den, lurraldearen planifikazio sektorialak, LALko 17.3 artikuluan ezarritakoaren arabera, zuzenketak eragin ditzakeela LAAetan

(interes publiko sektorial garrantzitsuak betetzeko beharrezkotzat hartzen direnak).

3. LZPren eta LAPren ezaugarri komuna, hala ere, LAArekiko mendekotasun hierarkikoa izatea da, baita lurralde-antolamendutik harago joatea ere, hirigintzan ere antolatzeko.

Lotura hierarkikoa honako arau hauetan gauzatzen da:
1. LAA garatzeko eginkizunera mugatzea, LZPren kasuan (LALko 11. art.).
2. LAA zehazturiko esparruan sartzea, LAPren kasuan (LALko 17.1 art.).

Bi kasuotan ere, ezinezkoa da LAAren aurkako xedapenik edukitzea.

Hirigintza-planeamenduaren barruko eragina honako honetan oinarritzen da:
a) Lotura positiboa, bertan ezarritakoaren arabera, xedapenak zuzenean aldatzeko aukerarekin (egokitzapen formala egin beharraz gain), LZPren kasuan (LALko 15. art.).
b) LZPren ondore bereko lotura, LAPren kasuan, baina LAAko edo LZP egokiko manuen arabera beti (LALko 22. art.).

## 2.2. Lurraldearen Zatiko Planen (LZP) lege-araubidea.

### 2.2.1. Lurralde-antolamenduko tresna mota honen legezko ezaugarriak.

LZPren lege-araubidea zehatzago aztertuta, hauxe ondorioztatzen da halako tresnei dagokienez:
a) Lehen esan dugunez, LAAren garapenean agortzen diren egitamuak dira, eta, beraz, horietara egokitu behar dira, lehen adierazitakoaren arabera (LALko 11. art.).
b) LZPren lerrun berekoak dira, baina horiek nagusitu egiten zaizkie, LAAren bitartez, eurok garatzeko tresnak baitira (LALko 17. art.).
c) Helburua, izan ere, LAA ezarritako irizpideen eraginezko antolamendua zehaztea da, jarraibide horiek mugaturiko udalerriz gaindiko eremu edo zona geografikoetan (LALko 11. art.).
d) Edukia, bestalde, toki-erakundeei bermaturiko eskumen-eremua errespetatuz ezarri behar da (LALko 12.2 art.).

e) Udaletako hirigintza-planak lotzen dituzte, lehen adierazitakoaren arabera eta azaldutako udal-eskumenen errespetua aintzat hartuta (LALko 15. art.).

### 2.2.2. LZPren eduki materiala eta formala.

LALek ez du legezko helbururik finkatzen, lurraldea antolatzeko tresna mota honetarako, baina zehatz azaltzen du horren xedapen-eta agiri-edukia.

LZP guztiek honako xedapen hauek ezarri behar dituzte (LALko 12.1 art.):

a) Antolamenduaren helburuak ezartzea, lurraldearen oraingo egoera, egoera sozioekonomikoa eta ebaluazio-aukerak aintzat hartuta.
b) Azpiegitura nagusiak euskarritzeko gaitasuna duten eremuak adieraztea, horien ezaugarriak kontuan hartuz.
c) Egitamuak aukeraturiko eremurako edo zonarako interes komunekoak diren ekipamenduen kokalekua zehaztea.
d) Hirigintza-antolamenduak bete beharreko irizpide, printzipio eta arau orokorrak ezartzea.
e) Birmoldatu, suspertu edo birgaitu behar diren eremuak zehaztea, horiek ez narriatzeko edo beste erabilera batzuetarako (lehengoen desberdinak diren erabilerak, guztiz edo neurri batean) suspertu ahal izateko; halaber, horretarako garatu behar diren programak eta horiek gauzatzeko hartu behar diren neurriak zehaztea.
f) Honako helburu hauetarikoren baterako erreserbatu behar diren lurzoru-azalerak kuantifikatzea:
    - Babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzeko (sustapen publikoa edo pribatua dutenak), edo etorkizunean arauketa bereziaren bidez murrizteko moduko prezioa izan dezaketenak eraikitzeko.
    - Industria-lurzoruaren sustapen publikoa egiteko, urbanizaturiko industrialdeak sortu ahal izateko.
g) LAAetan jasotako xedapenak garatzeko behar diren irizpideak, arauak eta printzipioak zehaztea.

LZP osoa formalizatzeko agiriak, izan ere, LALko 12.3 eta 12.4 artikuluetan adierazitakoak dira.

### 2.2.3. LAA onetsi dituen Dekretuaren edukia, LZPk bete beharrekoa.

Landu beharreko LZPk, indarreko LAA betetzeko, honako xedapen hauek ezarri behar ditu:

a) Antolaturiko eskualde-egituraren barruko udalerri bakoitzaren egoitza-erabileraren eskaintza kuantifikatzea (LAAren Dekretuko 5.1 art.).

b) Bigarren egoitzarako lurzoru-eskaintzaren gehieneko mugak finkatzea (LAAren Dekretuko 5.2 art.).

LZPk aurreikusita eduki behar du Euskal Autonomia Erkidegoko Ibai eta Erreka Ertzak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana idaztea, eta, behin betiko onetsi arte, EAEko Lurralde Antolamenduko Batzordeak formulaturiko eta aplikaturiko irizpideak egongo dira indarrean (LAAren Dekretuko 9. art.).

LZPk errespetatu egin behar du LAAren zuzeneko hirigintza-adierazpena; horren arabera, landa-lurzoruan debekaturik dago isolaturiko familia bateko edo biko etxebizitzak egitea, baldin eta nekazaritzako edota abeltzaintzako baliabideak ustiatzeari lotuta dagoela egiaztatzen ez bada. Eta, jakina, landa-inguruko familia bateko edo biko etxebizitza isolatuaren eskabidea landaguneetara edo erabilera horri edukitzeko hirigintza-kalifikazioa nahiz hirigintza-sailkapena duten eremuetara zuzendu behar da (LAAren Dekretuko 10. art.).

LZPren formulazioan, gainera, kontuan hartu behar da, LAAren Dekretuko 11. artikuluan ezarritakoaren arabera, udal planeamenduak erauzketa jardueren eraginpeko zonen mugaketa jaso behar duela, baita erabilera horietarako erabil daitezkeen zonen mugaketa ere.

## 2.3. Aurreikusitako jarduketak: aurrerapena.

Hasierako onespenaren bidezko onespen-prozedura hasi baino lehen, eta erabaki hori hartzeko behar den proiektu teknikoa landu orduko, honako hau egin behar da:

A) Aurrerapena idatzi eta onetsi (LALko 13.4 art.):

   a) Interesa duten herri-administrazio guztietara bidali, euren eskumenak kontuan hartuta.

b) Administrazio horiei bi hilabeteko epea eman, oharrak, iradokizunak, aukerak eta proposamenak aurkezteko.

B) Tramite horren emaitza aztertu, harturiko soluzioak berriro ikertuta, eta, beharrezkoa izanez gero, LZPren proiektua landu.

C) Egitamuaren proiektua hasieran onesteko proposamena formulatu, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduko Batzordearen manuzko txostenaren iritzipean jarri (LALko 13.5 art.).

## 2.4. Ingurumen-babesa eta lurralde- nahiz hirigintza-antolamendua.

Tresna horiek, sektorialen kasuan izan ezik, babesturiko eremuen planifikazioa eta adierazpena egiteko tekniketara bideratzen dira.

a) Planifikazioaren ardatza Baliabide Naturalak Antolatzeko Egitamua da eta horrek eremu jakina mugatzen du; beharrezkoa da babesturiko eremuen adierazpena egiteko eta horren arauzko edukiak irismen desberdina dauka; Eusko Jaurlaritzak onetsita dago (NKLko 4-7. artikuluak).

   Horren edukiaren ondorioak, izan ere, planeamenduak kasu bakoitzean modulatzeko modukoak dira; hala eta guztiz ere, xedapenak derrigorrezkoak eta lotesleak dira, EAEko Natura Kontserbatzeari buruzko ekainaren 30eko 16/1994 Legeak (NKL) arauturiko arloetan, izatez, muga bat da lurralde-antolamenduko edo antolamendu fisikoko gainerako tresna guztientzat; horien xedapenek ezin dituzte besteenak aldatu, eta, betiere, baliabide naturalak antolatzeko egitamuetara egokitu behar dira. Horrenbestez, natura kontserbatzearen planifikazioa ez da jarraibide positiboa, muga negatiboa baizik (bere eskumenen eremuan eta berezitasuna aintzat hartuta), lurralde- eta hirigintza-planifikazioari dagokionez.

   Baliabide Naturalak Antolatzeko Planen arloan, eremu natural babestuen adierazpena egin daiteke. Eremu horiek hiru motakoak izan daitezke: parke naturalak, babesturiko biotopoak eta zuhaitz bereziak.

b) Eusko Jaurlaritzaren Dekretuak adierazitako eremu naturaletan (NKLko 17. art.), ez dago gauza berririk, baliabide naturalak antolatzen dituen planeamenduko egoera juridikoari dagokionez; eremu horiei buruzko tresnen helburua, izan ere, planeamendua betetzeko behar den administrazio-kudeaketa egitea da.

### 2.4.1. Faunari eta landarediari buruzko tresna sektorialak, natura kontserbatzeko politikaren barrukoak, eta lurralde-antolamenduan duten eragina.

NKLko IV. tituluan, naturaren kontserbazioa arautzen da, landarediari eta faunari dagokionez. Arauketa horren barruan, tresna sektorialak daude, hau da, espazialak ez direnak, baita planifikazioak direnean ere; horrenbestez, ez da garrantzitsua LZPren formulaziorako, berorren funtzioa garatzea ekiditeko edo oztopatzeko xedapenak ez edukitzearen kalterik gabe.

### 2.4.2. Urkiolako Parke Naturala.

LZPren arloan, adierazitako eremu natural bat dago, Urkiolako Parke Naturala, eta horren adierazpena Eusko Jaurlaritzak abenduaren 29an emandako 275/1986 Dekretuaren bidez egin zen; dekretu hori, berriz, otsailaren 15eko 93/1994 Dekretuak aldatu zuen lehenengoz, eta apirilaren 25eko 252/1995 Dekretuak bigarrenez.

Parke Naturala kudeatzeko, Eusko Jaurlaritzak maiatzaren 30ean emandako 111/2006 Dekretuak Erabili eta Kudeatzeari buruzko Egitamu Gidaria onetsi zuen, eta abenduaren 5eko 505/1995 Dekretua indargabeturik gelditu zen.

Hortaz, LZPren edukian aintzat hartu eta errespetatu egin behar dira Egitamu Gidari horretatik erabileretarako eta jardueretarako ondorioztatzen diren mugak.

Bestalde, Durangoko Eskualde Egiturako eremu bat —azaleraren tamainari dagokionez oso garrantzitsua ez dena— Urdaibaiko Biosfera Erreserban dago (Urdaibai Biosfera Erreserba babestu eta antolatzeari buruzko uztailaren 6ko 5/1989 Legeak jo zuen halakotzat). Ondorioz, eremu hori Erabilpenerako eta Kudeaketarako Egitamu Gidariaren (EKEG) edukiaren mende dago, eta hau da hura garatzeko tresna: Jarduera Sozioekonomikoen Egokitzapenerako eta Garapenerako Egitaraua (PADAS).

## 3. ERAKUNDEEN ETA GIZARTEAREN PARTAIDETZA LZP LANTZEKO PROZESUAN.

Lurraldea etengabeko aldatze-prozesuan (gizakiaren ekintza aldatzailearen eraginezkoa) dagoen errealitatetzat hartzearen ondorioz, lotura bat ezarri behar da azterketaren eta hirigintza-errealitatearen artean. Azken hori, aldi berean, lurraldean eragina duten politiken eta estrategien ondoriozkoa da, eta horiek administrazioek eta gizarte- nahiz ekonomia-eragileek garatu dituzte.

Hori dela eta, beharrezkoa da diagnostikoa eta proposamenak gauzatzeko prozesuan, errealitatearen pertzepzioarekiko kontrastea eta eragileen estrategian sartu behar dira, bi helbururekin:

- Lurralde-nortasunaren dimentsio subjektiboa eta egitura-dimentsioa kontrastatzea, arakatze analitikoen helburua zabalduta, gizarte-eragileek arazoak eta aukerak hauteman ahala.
- Biztanleen parte-hartzearen eta inplikaziorik handieneko udalerrien bidez, arazoen identifikazioa eta estrategien formulazioa sustatzea. Lurralde-nortasunaren eta gizarte-kohesioaren jarraibideak, lurralde bera partekatzeaz jabetzearen eraginezkoak.

Ildo horretan, Lurraldearen Zatiko Planarekin erlazionaturiko jardueren jakinarazpena eta zabalkundea egitea ezinbestekoa da, eraginpeko ekonomia- nahiz gizarte-eragileen eta erakundeen parte-hartzea, inplikazioa eta adostasuna lortzeko, honako helburu hauetan oinarrituz.

- Eskualde Egiturako gizarteak eta enpresek Egitamuaren garapenarekin konpromisoa hartzea.
- Sektore ekonomikoen egoerari, horien bektore lehiakorrei eta pasibo nagusiei buruzko eztabaida sortzea.
- Ingurumen sentikortasuna sustatzea.
- Lurraldearen Zatiko Planaren aurrerakuntzei buruzko informazioa denbora errealean edukitzea.
- Egitamuan ezarritako jarduketen ezagupena sustatzea.
- Egitamuaren inguruan, erakunde eta elkargo publikoen eta pribatuen konpromisoa eta kohesioa sortzea.

## 3.1 Partaidetza-tresnak

Lurraldearen Zatiko Planeko lanak ondo garatzeko eta horrek administrazioen nahiz udalen helburuak lortuko dituela bermatzeko, koordinazio-bilerak egin dira inplikaturiko eragile guztiekin; bilera horietan, emaitza txarrak sor ditzaketen arazoak detektatzeko eta halakorik ez gertatzeko prebentzio-ekintzak garatzeko ahalegina egin da.

Horrela, lanen garapenean (informazioa bildu, aztertu, diagnostikoa egin, Aurrerapenaren agiria idatzi eta Egitamua idatzi, hasierako eta behin-behineko onespenetarako), bilera asko egin dira Foru Administrazioko, Eusko Jaurlaritzako eta Toki Administrazioko teknikariekin, honako honetarako:

- Udalerrien beharrizanak jakitea, interesatuek emandako informazioaren arabera, eta horiek eremuko lurralde-arazoei nahiz aukerei buruz duten ikuspegia jakitea, informazioa biltzeko eta Egitamuaren Diagnostikoa egiteko fasearen barruan.
- Udalek Lurraldearen Zatiko Planaren Diagnostikoari buruz eta Aurrerapen Agirian proposaturiko Lurralde Ereduari buruz egin nahi dituzte iradokizunak jasotzea.
- Udalek Egitamuaren agirian egindako iradokizunak eztabaidatzea eta jasotzea.

Prozesu osoan,LZPn eragina duten parametro guztiak etengabe ikuskatzeko, aldian behingo bilerak eta harremanak egon dira, LZPren eraginpeko eremu bakoitzean inplikaturiko gizarte-eragile eta erakunde guztiekin. Halaber, Diagnostikoaren nahiz Aurrerapenaren emaitzen aurkezpen publikoak egin dira, eta agiri guztiak interneten azaldu dira, jendeak edozein unetan kontsultatu ahal izateko.

LZP lantzeko prozesuaren zatitzat, inplikaturiko herri-administrazioei entzunez, txostenak eta alegazioak jaso eta horiek interes eta kontu handiz aztertu ziren.

# 4. LURRALDE PROIEKTU IRAUNKORRA DURANGORAKO

## 4.1 Durangoko eskualde-egitura Uztai Atlantikoaren testuinguruan.

### 4.1.1. Sarrera

Durangoko eskualde-egituraren artikulazioa, Uztai Atlantikoaren testuinguruan, Euskal Autonomia Erkidegoak Europar Batasunaren lurralde-antolamenduko estrategietan duen posizioaren bidez ulertu behar da. Estrategia horiek garapen-prozesuan daude eta hori Europako Batzordearen erantzukizunekoak diren zenbait agiritan islaturik dago.

Europa 2000 txostenean, zortzi eskualde talde ikertzen dira, hurbiltasun geografikoari eta elkarrekiko harremanak garatzeari loturiko irizpideetan oinarrituz. Euskal Autonomia Erkidegoa “uztai atlantikoa” izeneko taldean sartzen da, eta horren hegoaldeko muga diagonal kontinentala da. Banaketa horiek azterketa-kategorietan oinarritzen dira, eta horiek eskualde bakoitzean ñabardurak dituzte, zenbait parametroren arabera. Sistemak zortzi eskualde zehazten ditu eta horiek lurralde-dinamika desberdinak dituzte. Hazkunde-ardatza, gaur egun, “hiriburuen erdigunea” izeneko eskualdean dago, eta hori Londresen, Parisen, Amsterdamen eta Frankfurten arteko eremu zabala da. Eskualde horretan, “uztai alpetarraren” zati batekin batera, “Europako dortsala” dago; dortsal hori Londresetik Italiara doa, Bavaria zeharkatuz, eta munduko hiru megalopoli nagusien artekoa da.

Azpisistema berriagoa, izan ere, “Hegoaldearen Iparraldea” izenekoak osatutakoa da, eta, horren barruan, Alacantetik Genovarako eta Uztai Alpetarreko zati italiarrera doazen eskualde mediterraneoak sartzen dira. Mendebaldetik Aragoira heltzen den sistema horren dinamismoa bertan jarduera dinamikoak eta berriak ezartzearen ondoriozkoa da, eta, horren eraginez, megalopolia hegoalderantz lekualdatzen ari da. EAEko Lurraldearen Antolamendurako Artezpideetan planteaturiko helburua ardatz horrekin bat egitea da.

“Diagonal kontinentalaren” eremuan, Extremaduratik Frantzia erdialderako barne-eskualdeak sartzen dira; bertan, biztanleria-dentsitate txikiak daude,

gune isolatuen kasuan izan ezik (Madril, Zaragoza, Valladolid). EAEren hegoaldetik inguratzen duten eremuak hiri-egiturako landa-inguruak dira, edo neurri ertaineko hirien sareetan integraturik daude.

Euskal Autonomia Erkidegoaren posizioa ere ardatz handien ikuspegitik uler daiteke: Europako iparraldeko-hegoaldeko ardatzaren gurutzagunean dago eta horrek Penintsulako mendebaldea Frantziako iparraldearekin lotzen du; halaber, erlaitz kantabriar-mediterranoko ardatzean dago, eta horrek Ebroren harana zeharkatzen du, uztai mediterraneorantz.

Aipaturiko agirien arabera, EAE uztai atlantikoaren barruan dago. Makroeskualde horren barruan, Atlantikoaren kostaldeko lurraldeak sartzen dira, Andaluziatik Eskoziara bitartekoak, eta, bertan, aniztasun handia baina ezaugarri komuna dago: Batasuneko barizentroarekiko kanpoaldeko kokalekua, eta hori larriagotzeko arriskua dago, Batasunaren balizko handitzearekin, bertan Europa ekialdeko eta erdialdeko herriak sartuta.

Ekonomiek arazoak dituzte euren produkzio-oinarrien aldaketara egokitzeko; arrantza-sektorean arazoak daude; portu-sistemak garrantzia galdu du Ipar itsasokoari dagokionez, kontinenteen arteko trafikoetan, eta, gainera, nekez konpontzeko moduko industria-birmoldaketako prozesuak daude. Batasunaren multzo osoarekin konparatuz, biztanle gutxiko eskualdeak dira, baina zenbait kasutan, adibidez EAEn, ezaugarri hori ez da betetzen.

Eskualde atlantikoen 1994ko prospekzio-ikerketak, bestalde, eskualdeen araberako azterketak eta ikerketak egin zituen, eta horien barruan EAE sartu zuen, Kantabriarekin eta Asturiasekin batera. Oro har, Euskal Autonomia Erkidegoaren egoera onena da, hiru eskualde horiei dagokienez, bai industria-krisitik suspertzeko gaitasunari eta bai garraioen zuzkidurari dagokionez. Erlaitz kantabriarretik bide-ardatz indartsua eta ibilbide horretan trenbide-ardatza gauzatzeko zailtasunen eraginez, zaila da eremua artikulatzea; hala ere, EAEko “Y” deritzonaren proiektua eta Bilboko portua eta, neurri txikiagoan, Pasaiako portua handitzea datu positiboak dira. EAEren egoera telekomunikazio aurreratuen arloan ere positiboa da. Bilboko goi-mailako zerbitzuak eremu osokorik garrantzitsuenak dira, baina ahulak dira ikerketa egiteko unean konparatzeko modukoak ziren Europako beste hiri batzuetako

zerbitzuen aldean. Ingurumen-arazoek eta antzinako industria-paisaia aldatzeko arazoek, izan ere, ahultasuna dakarte eremura.

### 4.1.2. Europako lurralde-estrategia

Europar Batasuna estatukideen lurralde-antolamenduko politikak apurka-apurka koordinatzeko prozesua garatzen ari da, zenbait eremutan gero eta gehiago integratzearekin batera. Zenbait urtetako ikerketak egin ondoren, estatuek agiria egin dute, Europako Lurralde Estrategiaren Batzordearekin batera (ELE). Agiri horren helburua, izan ere, estatuen lurralde mugak gainditzen dituzten garapen-orientazioak proposatzea da. Bide horren bitartez, ez da Batasun mailako eskumen berririk ezartzen, baina bai estatuak, eskualde- nahiz toki-agintariak eta Batzordea orientatzeko esparrua, bakoitza bere eskumenen arloan. Estrategiaren filosofia apurka-apurka jardutean oinarritzen da, epemuga itxirik ezarri gabe, eta bertan aldaketak egin ahal izango dira, kasuan kasuko bilakaeraren arabera.

ELEren helburu nagusiak, estatu guztietan aldi berean bete behar direnak, hiru dira:

- Ekonomia- eta gizarte-kohesioa, edo lurralde-orekarako aurrerakuntza, lurralde guztietan hazkunde iraunkorra eta banaketa hobekoa lortzeko.
- Baliabide naturalen eta kultura-ondarearen kontserbazioa.
- Lehiakortasunaren oreka handiagoa, Europako lurraldean.

Europako tratatuak bilakatu ahala, bertako lurraldean eragina duten politika sektorialek eragin gero eta handiagoa izan dute, politika nazionalak lantzeko eta betearazteko orduan. Batzordeak Batasunaren lurralde-garapenean jardun dezake, honako mekanismo hauen bidez:

- Batasuneko Lehiaren Politika.
- Europaz gaindiko sareak.
- Egitura-fondoak.
- Nekazaritza-politika bateratua.
- Ingurumen-politika.
- Ikerketa- eta garapen-politika.
- Inbertsioen Europako Bankuaren mailegu-jarduerak.

Lurraldea garatzeko politikak, bestalde, hiru jarraibideen arabera garatuko dira, eta jarraibide horiek, berriz, Europako lurralde-garapenerako garratnzitsuak diren gaietan oinarrituko dira:

a) Hirien sistema orekatua nahiz polizentrikoa garatzea eta landa-eremuaren eta hiriaren arteko erlazio berria sortzea. Honako honetan arreta berezia jarriko da:
   - Aldaketa-joeren kontrola, hirien sisteman: alderdi hau osatu egin behar da hiri-sareak eratzearen ikuspegitik (EAEko hiriburuen arteko eta horien eta hurbileko beste hiriburuen arteko loturak —adibidez, Iruñea, Santander edo Baiona—), baita hazkunde barreiatua kontrolatzearen ikuspegitik ere, horrek garrantzi handia baitauka landako eta kostaldeko paisaiaren kontserbazioan zein hirien bizi-kalitatearen hobekuntzan.
   - Landa-inguruen eginkizunen eta zereginen barruko aldaketak: horri dagokionez, aipagarriak dira hiri- nahiz landa-inguruen elkar mendekotasun gero eta handiagoa, landa-inguruak garatzeko joera anitzak eta nekazaritzan zein basozaintzan egon diren aldaketak. Gai horiek Euskal Autonomia Erkidegoko LAAetako lurralde-ereduarekin lotu behar dira, eta jarraibide horietan bigarren egoitza kontrolatzeko neurriak proposatzen dira, baita jolasaldiko nahiz lurraldean sartzeko eremu-sistema bat ere. Lurralde Historikoak nahiko txikiak dira eta biztanleria-dentsitate handia dute, batik bat Bizkaiak; horren ondorioz, lurraldearen gaineko presioak kontrol berezia behar du.

b) Jakintzaren azpiegiturak eta garraio-sareak lortuko direla bermatzea. Azpiegiturak estatu mailan ikusten dira eta hori egokitu egin behar da lurraldearen eskala handiagoko ikuspegira. Muga-arazoak daude oraindik; esaterako, trenbide-sistemak, eta gainera, garraio-politika gero eta handiagoak diren jarioen eraginpean dago; jario horiek, kasu batzuetan azpiegitura itotzeko arriskuan jartzen dute. Irisgarritasunaren arloan dauden gabeziak azpiegituraren bidez zuzendu beharra ere hausnarketarako beste elementu bat da, baina EAEren kasuan parametro hori nahiko ona da.

Garapen iraunkorra, kudeaketa adimentsua eta naturaren nahiz kultura-ondarearen babesa. Arreta berezia jartzen zaie paisaien eta kultura-ondareen gaineko mehatxu gero eta handiagoei; mehatxu horien artean, aipagarriak dira

landa-inguruaren hirigintza lausoa eta hiri historikoen narriadura. Izan ere, Batasuneko lurraldeen kultura-aniztasuna babestu beharreko balioa da. Biodibertsitatea eta eremu naturalak galtzearen aurkako neurriak proposatzen dira, baita baliabide hidrikoak babesteko eta uholdeak kontrolatzeko neurriak ere. Kasu honetan, aipagarria da Eskualde Egiturako lurraldearen zati txiki bat Urdaibai Biosfera Erreserbaren barruan egotea, eta, beraz, babes berezia behar du.

### 4.1.3. Garapenerako itxaropenak Europaren ikuspegitik

“Europar Batasuneko eskualdeen egoerari eta bilakaera sozioekonomikoari buruzko Aldian Behingo Seigarren Txostena” 1999an argitaratu zen; txosten horretan, Europan lurraldea berrorekatzeko garatu diren politikak ebaluatzen dira. 1994ko agirian uztai atlantikoari buruz adierazitakoarekin konparatzeak aukera ematen du bere garaian aurreikusitakoarekiko bilakaera baloratzeko. Oro har, konbergentzia-politikek eragin ona izan dutela ikusten da; izan ere, eskualderik pobreenen eta aberatsenen arteko distantzia murrizten ari da, errentari dagokionez. Hala eta guztiz ere, birbanaketa hori ez da hain argi gauzatu lanaren aldetik.

Ikerketak hiru eskualde mota bereizten ditu, produkzio-egitura aintzat hartuta. EAE, sailkapen horren arabera, industria-eskualdea da. Eskualde horien etorkizuna bertako industrien egoeraren eta horiek enplegua nahiz aberastasuna sortzeko duten gaitasunaren araberakoa da, eta, lehiakortasuna lortzeko, bi faktore horiek bateratu beharra dago. Agirian jasotako irizpideen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko industria-eremuek egitura-fondoetako 2. helburuko laguntzak jaso ditzakete, eta landa-inguruak, berriz, 5b helburuan sar daitezke.

2. helburuak konpentsatu egin nahi ditu industria tradizonalaren gainbeheraren eraginezko arazoak, beste jarduera batzuk hedatuta. Orokorrean, lan-merkatuan arazoak daude. EAEren kasuan, aipagarria da enpleguak 1993tik aurrera izandako bilakaera ona, Batasuneko antzeko eremurik gehienetan gertatutakoaren alderantziz.

5b helburuaren bidez (landa-inguru zaurgarriak garatzeko helburua), nekazaritzaren ordezko enplegu-aukera berriak sortu nahi dira, eta helburu

hau, oro har, langabezia-tasak Europako batez bestekoak baino baxugoak dituzten zonetan aplikatzen da. Hala ere, Batasunaren barruan, zona horietako langabeziak gora egin du 1989tik 1997ra bitartean, eta, horrela, pentsa daiteke ekonomia-zikloekiko gero eta lotura urriagoa duen egitura-arazo bihurtzen ari dela. Ezaugarri komun horiek EAEn ere ikusten dira. Dena den, manufaktura industrian okupaturikoen kopuruak gora egin du 5b helburuaren barruko 41 eskualdeen multzoan, eta Batasunaren gainerako zatian, berriz, kategoria horrek behera egin du. 5b zonetan izandako hazkundearen zati handia, izan ere, gehienbat landa-ekonomiari lotuta dauden enpresa txikien eta ertainen eraginezkoa da.

1994ko ikerketak ikuspegiei buruzko bi hipotesi ezartzen ditu, bata joerakoa eta bestea boluntarista. Lehenengoari dagokionez, oraingo joerekin jarraituz gero, EAEk enplegu asko galduko luke sektorerik garrantzitsuenetan, eta, gainera, turismoak ez luke hazkunde handirik izango. Eskualdeen arteko gaitasun-desberdintasun gero eta handiagoen ondorioz, ardatz kantabriarra deseginda geldituko dela dago aurreikusita; horrek suspertze ekonomikoa, Frantziarekiko mugaz gaindiko lankidetza handiagoa eta Nafarroarekiko nahiz Gaztela-Leonekiko integrazio handiagoa eragingo du; Asturiasen eta Kantabrian, berriz, krisia larriagoa izango da.

Hipotesi boluntaristak joerako dinamika aldatzeko gauza diren hiru faktore ezartzen ditu:

- Aurrerakuntza teknologikoa.
- Integrazio eta artikulazio fisikoa nahiz logistikoa.
- Ingurumenaren hobekuntza.

Faktore horiek ez dira modu autonomoan aplikatu behar eskualde bakoitzean; garapen-bulkadak Bilbotik mendebaldera hedatu beharko lirateke, batez ere ikerketa teknologikoaren arloan eta traspaso-eginkizunetan, baita enpresetarako zerbitzuetan ere. Hedapen-eginkizuna errazagoa izango da EAEko lurraldea iparralde-hegoaldeko eta ekialde-mendebaldeko ardatzen arteko loturatzat egituratzen denean, eta, orduan, Europako integrazioaren arloan zeregin garrantzitsuak izango ditu. Komunikazioak mendebalderantz hedatzeko ahalegin hori, bestalde, bide- eta trenbide-azpiegiturak guztiz hobetuta gauzatu behar da.

Komunikazioen hobekuntza, berriz, Kantauriko gaitasun altuko bide-ardatza amaituta planteatzen da; horrek Kantabriarekin eta EAErekin lotuko du Atlantikoko autobidea, Galizia iparraldean. Trenbide-sistema abiadura handiko eta zabalera europarreko “Y” deritzonaren bidez egituratzen da, hiru hiriburuen artean, eta antzeko loturak ezarriko dira Frantziarekin eta Madrilekin; abiadura handiak ardatz mediterraneoarekin izango duen lotura, Iruñearen bidezkoa, ez da agertzen Europaz gaindiko aurreikuspenetan, Estatu bakarraren barruan garatzen baita oso-osorik. Portu-sistema Bilboko portuan oinarritzen da eta aurreikusitako jarduketek sustatu egingo dute hori.




Uztai Atlantikoa garatzeko hipotesi boluntarista


Los 14 proyectos prioritarios de la red transeuropea de transporte
1. Tren de alta velocidad / transporte combinado Norte-Sur
2. Tren de alta velocidad PBCAL
3. Tren de alta velocidad Sur
4. Tren de alta velocidad Este
5. Línea del Betuwe, ferrocarril convencional / transporte combinado
6. Tren de alta velocidad / transporte combinado Francia-Italia
7. Autopistas griegas Pathe y Vía Egnatia
8. Conexión multimodal Portugal-España-Europa central
9. Ferrocarril convencional Cork-Dublín-Belfast-Larne-Stranraer
10. Aeropuerto de Malpensa, Milán
11. Enlace fijo por ferrocarril y carretera del Øresund, entre Dinamarca y Suecia
12. Corredor multimodal del triángulo nórdico
13. Conexión por carretera Irlanda-Reino Unido-Benelux
14. Línea principal de la costa occidental
Ferrocarril
Carretera
Aeropuerto
Puerto
Fuente: Comisión Europea DG VII
Açores (P)
Madeira (P)
Canarias (E)
Guadeloupe (F)
Martinique (F)
La Réunion (F)
Guyane (F)
0
500 km

## 4.2 EAEko LAAren irizpide orokorrak

### 4.2.1 Sarrera

EAEko Lurralde Antolamenduari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legeak Lurralde Antolamendurako Tresnak zehaztu eta arautu ditu; lege horrek Lurraldearen Antolamendurako Artezpideak (LAA), Lurraldearen Zatiko Planak eta Lurraldearen Arloko Planak sortu ditu.

Lurraldearen Antolamendurako Artezpideek Lurralde eredurako irizpideak ezartzen dituzte, eta eredu horren helburua EAEko biztanleei garapena eta ongizatea eskaintzea da. Horretarako, gainerako garapen-tresnek (Lurraldearen Zatiko Planak eta udal-planeamenduko tresnak) bete beharreko jarraibide batzuk ezartzen dituzte.

LAAek ingurumenari loturiko balioak eta berezitasunak nabarmentzen dituzte, EAEko lurraldearen arazoetan eta aukeretan oinarrituz.

### 4.2.2. Helburuak

Oro har, LAAek honako lurralde-helburu hauek dituzte:

- Neurri ertaineko hirien sarea sustatzea, Eskualde Egiturak funtsezko piezatzat hartuta; horien eskala, izan ere, egokia da LZPk garatu beharreko lurralde-orekako estrategiak aplikatzeko.
- Landa-inguruaren balioa sustatzeko estrategia artikulatzea, inguru horien idiosinkrasia mantenduz eta horietan enplegua nahiz garapen iraunkorra sustatzeko baldintza egokiak sortuz.
- EAEko kanpoko eta barruko lotura-aukerak optimizatzen dituen garraio-sistema diseinatzea.
- Ekipamenduen sistema antolatzea, lurraldearen funtzionaltasuna egituratzeko eta, horrela, proposaturiko lurralde-eredua lortu ahal izateko.

Lurraldearen Antolamendurako Artezpideek zuzeneko aplikazioa duten zehaztapen lotesleak ezartzen dituzte Udal Planeamendurako, baita Lurraldearen Zatiko Planak eta Arloko Planak idazteko erreferentziazkoak diren beste batzuk ere.

### 4.2.3. Aplikazio zuzeneko arauak

Aplikazio zuzeneko zehaztapen lotesleak honako hauek dira:

1. Gainazaleko uren tratamendua. Ibilguak babesteko neurriak ezartzen dira.
2. Gainazaleko Uren Babeseko eta Babes Bereziko kategorien arauketa.
3. Udal-planeamenduak erauzketa-jardueren eraginpeko eremuak mugatu beharra.
4. Lurzoru urbanizaezinean, Familia Bateko edo Biko Etxebizitza erabileraren debekua, hori nekazaritzako edota abeltzaintzako ustiapenari lotuta dagoenean izan ezik.
5. Legez Babesturiko Eremuei buruzko guztia, Ingurune Fisikoaren 8. kapituluan jasotakoa.
6. Udalerri txikietan eta gune anitzekoetan, etxebizitza kopuru handiagoa sortzeko aukera, kopuru horrek lehendik daudenen kopurua gainditu ezean.

### 4.2.4. Lurraldearen Zatiko Planetarako irizpideak eta norabideak

Lurraldearen Zatiko Planak, LAAetan ezarritako lurralde ereduan oinarrituz, har dezakeen garapenaren arabera, ondoren bertan egokitu behar diren irizpideei eta norabideei loturiko alderdi guztiak jasotzen dira.

*1. LAAren Lurralde Ereduari buruz:*

#### 1.1 Ingurune fisikoa

a) Lurzorua

- Basoak optimizazio-irizpideen arabera antolatu behar dira, kontuan hartuta urtaro bakoitzaren ezaugarriak, bai produkturik handieneko basoetarako, bai hazkunde motelagoa dutenetarako. Antolamendu horren barruan, ustiapen-tekniken arauketa eta landaketa berriak sartuko dira.
- Oihaneztatze-jarduera publikoak, batez ere, arriskurik handieneko eta nekazaritza-hedapenik txikieneko eremuetan oinarrituko dira; eremu horiek aldez aurreko ikerketetan adierazita daude.

- Nekazaritza-produktibitateko lurretan, lur horiek arrisku-eremuetan daudenean, lurzoruaren harrotzerik eragiten ez duten laborantzako zonak zehaztu beharko dira.
- Lurraldearen Zatiko Planek aintzat hartu beharko dituzte lurzoruaren gaitasun agrologikoa eta ahultasuna, narriadura-prozesuei dagokienez, obrak eta azpiegiturak kokatzeko irizpidetzat; halaber, hiri- eta ekonomia-garapeneko prozesuetatik kanpo utzi behar direnak mugatuko dituzte, horrek euren balioetan eragina izan dezakeenean.

b) Landaredia
- Habitat, espezie eta ale berezien babesa EAE osora zabaldu beharko litzateke.
- Zaindu eta suspetu egin beharko lirateke habitat desberdinak lotzen dituzten igarobide ekologikoak, truke genetikoa bermatzeko.
- Lurralde-ekintza guztietan, aintzat hartuko da landarediaren zaintza, batez ere, masa autoktonoen kontserbazioa.

c) Fauna
- Ez da faunaren zirkulazio askea oztopatzen duen hesi artifizialik sortu behar.
- Tentsio altuko linea elektrikoen instalazioa egiteko, hegaztien elektrokuzioa ekiditen duten dispositiboak erabili beharko dira.

d) Gainazaleko uren tratamendua
- Uren aprobetxamendua egoteko, bermatu egin behar da gutxieneko ibilgu ekologikoaren mantenamendua.
- Hondakin uren tratamenduak errespetatu egin behar du hartzaileak bere burua arazteko duen gaitasuna; horrela, ondoriozko uren kalitatea kasuan kasuko erabileretarako eskatzeko moduko kalitate-arauen barruan egongo da.

e) Lurpeko baliabide hidrikoak
Lortu beharreko helburuak, izan ere, uren kalitatea mantentzea eta gehiegizko ustiapena ekiditea dira.

f) Itsasertza eta itsas ingurua

Lurraldearen Zatiko Planek indarreko legeriarekiko xedapen osagarriak ezar ditzakete, euren aplikazio eremuaren azterketa zehatza egin ondoren.

g) Paisaia

Lurraldearen Zatiko Planek eremu naturalen eta jabari publikoa duten eremuen paisaia-tratamendua ikertuko dute, baita lurzoru publikoaren zedarritzea eta susperraldia ere, eta gainera, bideen eta beste elementu publiko batzuen gaineko zortasunak ere zaindu beharko dituzte.

h) Zientziaren eta kulturaren aldetik interesgarriak diren aztarnategiak

Lurzoru urbanizaezinean dauden aztarnategi arkeologikoak eta paleontologikoak adierazita egongo dira lurralde- eta hirigintza-planeamenduan; halaber, EAEko Kultura Ondareari buruzko 7/1990 Legeak eta LAAek ezarritako babeseko arauak eta araubideak ezarriko dira.

i) Azpiegiturak

Azpiegitura berriak lurzoru urbanizaezineko kategorietan instalatzeko, beharrezkoa da Jarraibide Bereziek hori ez debekatzea, eta, betiere, bertan ezarritako arretak eta mugak errespetatu beharko dira.

j) Erauzketa-jarduerak

Harrobi Zonetako Lurraldearen Arloko Plana erreferentziako esparrua izan behar da, erauzketa-jardueren tratamendu homogeneorako.

k) Hirigintza- eta eraikuntza-jarduerak

Garapenak beste erabilera batzuekin orekatzeko oinarrizko aurrekontua erabiliz egin beharko lirateke, lurraldeko eremu naturalak, paisaia-eremuak eta produkzio-eremuak mantenduta, eta eraikuntza barreiatuko egoitza-erabilerei arreta berezia jarrita.

l) Hondakin solidoen hondakindegiak

Hondakin solidoen garraioa, tratamendua eta kontrola kokatzeko eta kudeatzeko erreferentzia-esparruak EAEko Hiri Hondakin Solidoen, Bizigabeen eta Segurtasunekoen Lurraldearen Arloko Planak izango dira.

m) Turismo- eta jolasaldi-jarduerak

Turismo- eta jolasaldi-jarduerak Lurraldearen Zatiko Planen edo kasuan kasuko udalerrien bidez arautu behar dira, batez ere motorreko ibilgailuetan oinarritzen direnak.

n) Nekazaritza-jarduerak

- Mantendu egin behar da nekazaritza-azalera erabilgarria.
- Oraingo nekazaritza-lurzoruetan garatzen diren erabilerek eta nekazaritza-jarduerek bete egin behar dute LAAetan eta Lurraldearen Zatiko Planetan ezarritakoa.
- Nekazarien errenta dibertsifikatzea iradokitzen da.
- Nekazaritza-ustiapenei loturiko eraikinek mendekotasun-lotura eta proportzio egokiak izango dituzte, ustiapenaren intentsitateari dagokionez.

### *1.2 Ezarkuntza-sistema eta lurralde-eredua*

a) Egoitza-lurzoruko politikarako orientazioak

Eskualde Egitura bakoitzeko Lurraldearen Zatiko Planak kuantifikatu egin beharko luke udalerri bakoitzari dagokion egoitza-lurzoruaren eskaintza, kontuan hartuta lurralde-ereduaren gaineko inplikazioak, aurreikusitako hazkunde demografikoa, familen batez besteko tamainan izan daitezkeen aldaketak, eskaintzaren zurruntasunaren zuzenketa eta bigarren egoitza.

b) Jarduera Ekonomikoetarako lurzoru-politikarako orientazioak

- Eskualde Egitura bakoitzeko Lurraldearen Zatiko Planak jarduera ekonomikoetarako lurzoruaren beharrizanak zehaztu behar ditu, halako jardueretarako lurzoru-eskariaren arabera, aintzat hartuta LAAetan ezarritako lurralde-eredua eta,

industria-jarduerari dagokionez, Industria Politikaren Esparru Egitamua.

- Eskualde Egitura bakoitzeko Lurraldearen Zatiko Planak, jarduera ekonomikoei dagokienez, honako alderdi hauek hartu beharko ditu kontuan:
  - Eskualde Egiturako jarduera ekonomikoetarako lurzoru-eskariaren azterketa kuantitatiboa eta kualitatiboa.
  - Eskualde Egiturako jarduera ekonomikoetarako lurzoruaren azterketa eta diagnostiko xehatua.
  - Lurzoru berria eskaintzeko eragiketa nagusien proposamena, horien gutxi gorabeherako kokalekuak eta ezaugarriak adieraziz.
  - Oraingo industria beste leku batean kokatzeko aukeren azterketa, baldin eta horren ezaugarriak aintzat hartuta komenigarria bada.
  - Proposaturiko jarduera ekonomikoko eremuen tipologiei eta gainerako baldintzei buruzko gomendioak, eta hori udal-planeamenduan zehaztu eta garatu beharko da.
  - Lurraldearen Zatiko Planak Jarduera Ekonomikorako Eremutzat hartu behar du Amorebieta-Etxano-Durango ardatza.

c) Lurraldearen Zatiko Planetarako orientazioak

- Lurraldearen Zatiko Planek jarduera ekonomikoetarako lurzoruaren multzo osoak dimentsionatzeko eta zehatz antolatzeko ardura izango dute.

  Bizkaian, industria-birmoldaketaren eraginez hutsik dauden eremuen kantitate handiak (batez ere, Bilbo Metropolitarrean) berebiziko aukera ematen du hiri-berrikuntzarako eta jarduera ekonomikorako eremuak sortzeko, itsasertzaren ondoan. Industria-eremu berri handiak hurbileko igarobideetan egon daitezke (Ibaizabalen igarobidea).

d) Bigarren egoitza eta turismo-baliabideak

Helburua bigarren egoitza eta turismoaren garapena sustatzea da, udalerrien idiosinkrasia mantenduta eta irisgarritasuna nahiz ekipamenduak hobetuz.

- Turismo-baliabideen antolamendua Eskualde Egitura bakoitzeko Lurraldearen Zatiko Planek garatu beharko lukete.
- Lurraldearen Zatiko Planek proposamenak egin beharko lituzkete gizartearen aldetik errentagarria den turismo-eskaintza optimizatzeko, eta hori, berriz, bigarren egoitzaren fenomenoarekin koordinatu behar da.
- Eremuak aukeratzeko, Lurraldearen Zatiko Planek aintzat hartu beharko lituzkete proposaturiko udalerrien erakargarritasuna eta harrera-gaitasuna, udalerri horien hiri- eta lurralde-erralitatearen behaketan eta zuzeneko azterketan oinarrituz.
- Baloratu egin beharko lirateke bigarren egoitza lehenengo etxebizitza bihurtzeko prozesua, asetasun handiko zonen presentzia, eskualde-egitura hartzailearen errealitate ekonomikoa eta bide-azpiegiturak hobetzeko planek eskainiko dituzten aukera berriak.
- Bigarren egoitzaren fenomenoa duten udalerriak aukeratu ahal izango lirateke, edo lurraldeko eremu erakargarrietatik hurbil dauden eta gainbeherako landaguneak dituzten udalerriak.
- Bigarren egoitza gune kopuru handian barreiatzea hobea da, lurralde gune jakinetako pilaketa handia baino.
- Bigarren egoitzaren eskaintza, batik bat, oraingo hiriguneak sustatzera bideratu beharko litzateke, eta, gainera, horietan integratu tipologiaren eta egituraren aldetik, horien hiri-egiturak osatuz eta zerbitzuen nahiz ekipamenduen maila egokia segurtatuz, etxebizitza iraunkor bihurtu ahal izateko.
- Bigarren egoitzarako lurzoruaren gehieneko mugak Lurraldearen Zatiko Planak ezarri beharko lituzke.

e) Turismo-azpiegitura.

Lurraldearen Zatiko Planek ikuspegi integraletik eta sinergikotik begiratuta aztertu beharko lukete turismoaren gaia, ekonomia eta ingurumena aintzat hartuta. Lurraldearen Zatiko Planek turismo-egitura egokia proposatuko dute eskualde-egitura bakoitzerako, honako elementu hauek kontuan hartuta, besteak beste:

- Eremu naturalen egokitzapena
- Lurraldean sartzeko guneen oreka berria
- Kirol-portuak

- Golf-zelaiak
- Kirol, jolasaldi eta aisialdiko instalazioak
- Parke tematikoak
- Hotel-azpiegitura
- Interes historiko-artistikoa edo monumentuak dituzten guneen balioa goratzeko estrategiak
- Bainu-etxeko eta osasuna nahiz edertasuna zaintzeko azpiegitura terapeutikoa
- Turismo-interesa duten ibilbideak
- Ibilbide tematikoak, baliabide naturalen, arkitektonikoen, kulturalen, gastronomikoen eta halakoen balioa goratzeko.
- Turismo berdeko eta landa-turismoko eremuak
- Kanpalekuak
- Turismoko kanpalekuak
- Beste elementu eta instalazio batzuk

f) Jolasaldi-eremuen eta lurraldean sartzeko guneen sistema.

Helburuak:

- Eskualdeko zerbitzuak eta ekipamenduak deszentralizatzea, telematikak eskainitako aukerak erabiliz.
- Udalerri hauetako biztanleak hiriguneetara heltzeko erraztasunak ematea.
- Landa-izaerako udalerriak integratzea.
- Biztanlerik gazteenak udalerrietan gelditzeari lehentasuna ematea, egoitza, heziketa, lana eta abar eskainiz.

Jolaseko eremuen antolamendua:

- Lurraldearen Zatiko Planek jolaseko eremuen behin betiko proposamena egin behar dute, eta horiek mugatu eta antolatu egin beharko dituzte.
- Lurraldearen Zatiko Plan bakoitzak jolaseko eremu bakoitzaren antolamendu xehatua egin lezake, edo bestela, geroago Plan Bereziak idatziko ditu eremu bakoitzerako.
- Jolaseko eremuak antolatzeko irizpide orokorrak:
    - Antolamenduak erantzuna eman beharko lioke aurreikusitako eskariari, zerbitzua jasoko duen biztanleria aintzat hatuta.

- Kontuan hartu beharko lirateke lurraldearen balioak eta berezko ahalmena.
- Lurraldearen erabilera anitza sustatu beharko litzateke, eta erabilera didaktikoek edo hezkuntzakoek eta kirolekoek (azpiegitura bakunekoak) leku garrantzitsua izango dute.
- Erabileraren intentsitatea planifikatu egin beharko litzateke, betiere harrera-gaitasunaren barruko bi alderdiak aintzat hartuta: ekologikoa eta pertzepziokoa-psikologikoa.

Lurraldean sartzeko guneen antolamendua:

- Lurraldearen Zatiko Planek behin betiko finkatu beharko lukete lurraldean sartzeko gunea, honako orientazio hauen arabera:
- Jolaseko eremuen bokazioa duten inguru naturaletatik hurbil egotea.
- Gune txikiak eta hiri-irudi erakargarrikoak izatea.
- Atzerakuntzaren eta gainbeheraren eraginpeko jokabide sozio-demografikoa duten guneak izatea.

Durangoko Eskualde Egituran proposaturiko jolaseko eremua:

1. Urkiola

- Lurraldearen Zatiko Planek aplikazio zuzeneko xedapenak edo udal planeamenduak garatu beharreko neurriak ezarri beharko lituzkete, lurraldean sartzeko guneen bideragarritsuna bermatu ahal izateko:
  - Hiri-irudia hobetzeko neurriak.
  - Eraikitako ondarea berritzeko eta horren balioa goratzeko neurriak.
  - Udalerrian bigarren egoitzaren fenomenoaren antolamendurako neurriak.
  - Azpiegituren eta ekipamenduen gaineko jarduketak.
  - Udalerria motorreko ibilgailuen, txirrindularien eta oinezkoen ibilbideetara lotzea (Eskualde Egituran proposatzen diren ibilbideak).
  - Tertziarizazio-estrategiak.

Durangoko Eskualde Egituran, lurraldean sartzeko proposaturiko guneak:

1. Elorrio
2. Mañaria

g) Etxebizitza-beharrizanak eta egoitza-lurzoru berriko eskaintzaren kuantifikazioa.
   - Lurraldearen Zatiko Planek LAAetan lortutakoak ez diren beste kuantifikazio batzuk ezarri ahal dituzte, udalerri bakoitzaren hazkunde-gaitasuna zehatzago aztertu ondoren.
   - Lurraldearen Zatiko Planek lurraldearen zentzuzko harrera gaitasunera eta udalerriaren hiri-egiturara egokitu beharko lukete LAAetako xedapenen eraginezko egoitza-kuantifikazioa.
   - Lurralde-kultura berria hedatu ahala, maiatzaren 31ko 4/1990 Legeak ezarritako lurralde-antolamenduko sistema berria garatuta, egoitza- eta ekonomia-jardueretarako lurzorua kuantifikatzeko funtsezko tresnak Lurraldearen Zatiko Planek identifikaturiko “eskaintza koherentea” kontzeptuaren ondoriozkoak izan behar dira.

   LAAetako kuantifikazio-irizpideak proposatzeko, modu analitikoan deskonposatzen dira hazkundearen osagaiak, baina garapeneko lurralde-planteamenduak egin behar du honako honen kuantifikazio xehatua: hazkunde hautakorra, aukerako habitata eta bigarren egoitza. Izan ere, horiexek dira LAAek proposaturiko ereduan gehien eragiten dutenak.

### *1.3 Garraio, komunikazio eta energiako azpiegiturak*

Helburu nagusia Lurralde Ereduaren eraginezko baldintzei erantzuna ematea da.

#### *1.3.1 Errepideak*

Bide-loturetarako 4 tipologia ezartzen dira:

1. EAEko hiriburuen gune anitzeko sistemaren kanpoko loturak.
2. EAEko hiriburuen gune anitzeko sistemaren barruko loturak. Honako hauek daude Durangoko Eskualde Egituran: 1.- Bilbo-Donostia, A-8 autobidearen eta 634 errepide nazionalaren bidez; 2.- Bilbo-Gasteiz, A-68 autobidearen eta 240 errepide nazionalaren bidez.
3. Eskualde Egituren barruko loturak.

Durangoko Eskualde Egituran:

1. Durango-Beasain ardatza indartuko da, honako udalerri hauek lotuta: Durango, Elorrio, Arrasate, Bergara, Zumarraga eta Beasain.
2. Plentzia-Elgoibar ibilbide osoa indartuko da, honako udalerri hauek lotuta: Plentzia, Mungia, Gernika-Lumo, Markina-Xemein eta Elgoibar -ez doa EEren barrutik-; honako errepide osagarri hauekin: Gernika-Lumo Amorebieta-Etxanorekin, Markina-Xemein Lekeitiorekin, Ondarroarekin, Durangorekin eta Eibar-Ermuarekin. Markina-Xemeinen eta Eibarren arteko lotura (Arratetik) interesgarria izan daiteke epe luzera, lurraldearen ikuspegitik begiratuta.

### *1.3.2 Trenbidea*

a) Abiadura handia
   - Nazioarteko trenbide-zabaleraren trazatu berria Bilbo-Irun igarobideak osatu beharko luke, eta hori nolabait ere paraleloa da Durangorainoko A-8 autobidearekin; gero, Zumarragarako C-6322 errepidetik hurbil jarraituko du, eta, bertatik, Iruneraino helduko da, Tolosatik eta Andoainetik igarota; igarobide nagusirako sarbidea Gasteizetik, Arlaban gainetik, eta lotura Elorrio inguruan.
   - Lurraldearen Zatiko Planek zehatz aztertu beharko lukete Iruñerako loturaren kokalekua. Halaber, geltokiak eta balizko geralekuak ere adierazi beharko lituzteke, halakoak sartu behar izanez gero.

b) Aldiriak

   Kalitate handiko aldiriko trenbide-zerbitzua (Bilborantz grabitatuz) proposatzeko ardatz nagusiak honako hauek dira:
   1. Bermeo, Gernika-Lumo, Amorebieta-Etxano, Galdakao, Bilbo
   2. Durango, Amorebieta-Etxano, Galdakao, Bilbo

### *1.3.3.Telekomunikazioak*

- Euskal Autonomia Erkidegoan arlo honetako azpiegitura oso aurreratuak sortzeko ahalegin berezia proposatzen da. Jarduketa-ildo nagusien artean, honako hauek aipa daitezke:
- Eskualde Egiturako errepide guztiak elkarrekin lotzea, zuntz optikoko zirkuitu baten bidez.
- Hiriarteko zentral automatikoa ezartzea, gutxienez Eskualde Egituraren barruko leku nagusi bakoitzean.
- Zentral sektorialak eta hirikoak edukitzea, gutxienez hamar mila biztanlerako bat.

### *1.3.4 Hiriko hondakin solidoak*

- Hiriko hondakin solidoak kudeatzeko sistema finkatu beharko litzateke, lurraldean horretarako aurreikusita dauden lekuetan kokaturiko azpiegiturek egindako eskaintzaren arabera. Hasierako proposamen hauek adierazten dira (Durangoko Eskualde Egituran):
  1. Durango (transferentzia-estazioa).

## *2. Ongizaterako eta berrikuntzarako lurralde-ekimenak*

### *2.1. Hiri-berrikuntzarako estrategiak*

a) Hiri-berrikuntzarako orientazioak
Honako hau nabarmendu nahi da:
   - Gutxi erabilita, zaharkituta edo aurrian dauden industria-eremuak berriro erabiliko dira.
   - Urbazterrak berreraiki eta tratatu egingo dira, hiri-eremu erakargarritzat.
   - Narriaturik dauden portuko espazioak suspertu egingo dira.
   - Jarduera ekonomikoen parkeak sortuko dira.
   - Antzinako etxebizitzak birgaitu eta antzinako hiri-egiturak berritu nahiz kontserbatu egingo dira.
   - Finkatuta dauden eta defizita duten hiriguneetan ekipamenduak hornituko dira.
   - Zerga-tratamendu egokia aplikatu behar da, proposaturiko jarduerak garatu ahal izateko.

- Hiri-irudi erakargarria sortu behar da, EAEko gizartea garatzeko etapa berriaren adierazpentzat.
- Lurraldearen Zatiko Planek hiriko guneak eta eremuak berritzeko ekimenen garapena proposatu beharko lukete. Horiek, berriz, Eusko Jaurlaritzak, Foru Aldundiak eta eraginpeko udalek idatziko dituzte.
- Adierazitako hiriko eremuak eta guneak iradokizunak dira, Lurraldearen Zatiko Planetarako, eta egitamu horiek proposatuko dute ekimen horiek zein udalerritan aplikatuko diren. Modu orientagarrian, Lurraldearen Zatiko Planek esku hartzeko eremuak mugatu, jarduketak identifikatu eta helburuak, irizpideak nahiz aplikazio-baldintzak zehaztuko dituzte.

Lehentasunen sistema.

- Lurraldearen Zatiko Planek lehentasunak ezarri beharko lituzkete, kasuan kasuko eragin-aldeetarako.
- Durangoko Eskualde Egituran proposaturiko guneak:
  1. Amorebieta-Etxano

b) Hirigune historikoak birgaitzeko orientazioak

- Lurraldearen Zatiko Planek, lehendik proposaturikoak ez ezik, beste udalerri batzuk ere proposatu ahal izango dituzte jarduketak egiteko.

Durangoko Eskualde Egituran proposaturiko guneak:

1. Durango (berroreka-ekimenak).
2. Elorrio (berroreka-ekimenak).

c) Industria-paisaiari loturiko orientazioak

- Lurraldearen Zatiko Planei industriako paisaia-multzo jakinak iradokitzen zaizkie, hobekuntza-ekimenak garatzeko, adierazitako muga eskematikoak aintzat hartuta.
- Lurraldearen Zatiko Planek jarduketa-zonak erabaki eta egokitu nahiz zehaztu egingo dituzte horien mugak, euren barruan inguruko espazioak ere sartzeko.
- Durangoko Eskualde Egituraren barruan, Ibaizabalen igarobideko CPI 3 industriako paisaia-multzoa ezarri beharko litzateke.

### 2.2 Kultura-ondarearen antolamendua

#### 2.2.1 Arkitektura-ondarea

- Industriako paisaia-multzoak zehazteko eta horietan esku hartzeko ekimenek, Lurraldearen Zatiko Planek garatu beharrekoek, kontuan hartu beharko lukete kultura-ondasuntzat babesa merezi duten elementuak daudela eta horiek lekuan bertan mantendu behar direla.

#### 2.2.2 Arkeologia-ondarea

- Lurraldearen Zatiko Planek atal berezia jaso beharko lukete ondare historiko arkeologikoaren tratamenduari buruz, Kultura Ondarearen Lurraldearen Arloko Planean adierazitakoari jarraituz. Atal honetan, hori antolatzeko eta babesteko estrategiak eta helburuak adierazi beharko dira.

### 2.3 Ekipamenduak

- Lurraldearen Arloko Planetan zehazturiko ekipamenduen kokalekurako proposamena kasuan kasuko Lurraldearen Zatiko Planek edo udal-planeamenduak erabakiko luke.
- Eskualde Egitura bakoitza nahikoa izan beharko litzateke irakaskuntzaren oinarrizko mailetarako eta kanpoko osasun-laguntzarako.

## 3. LAAek aplikatzeko gakoak eta erreferentziak

### Lurralde-planeamendua garatzeko eremuak

a) Planeamenduen bateragarritasuna.

- Planeamendurako tresnen sorrera koordinatu behar duten udalerri taldeak ezarri beharko lirateke, udalerriz gaindiko arazoak konpondu ahal izateko.
- Helburua, izan ere, udal-planeamenduaren koordinazioa da. Planeamendua bateratzeko mekanismoak aplikatu beharko lirateke, Durangoko Eskualde Egiturako udalerri hauetan: Durango-Abadiño-Izurtza-Iurreta.

Durango-Abadiño eta, azken horren barruan, Matiena, gaur egun, integrazio nahiko handiko hiri-eremua osatzen dute, eta euren tamaina funtzionala nahikoa da, polarizatze eraginkorra sortzeko eta udalerriz gaindiko zerbitzuak emateko, bertako Eskualde Egituraren barruko udalerriei. Bilbok eta Durangok berak Amorebieta-Etxanon sortzen duten hiri-eragin gurutzatuak aintzat hartuta (Bizkaiko lurralde-orekako estrategia orokorraren testuinguruan), komenigarria da Durango leku nagusitzat sustatzea, bere Eskualde Egituraren barruan. Horretarako, Durangoko eta Matienako hiriguneen integrazio funtzionala eta morfologikoa egin behar da, horiek tamaina, ordezkaritza eta zerbitzu- nahiz zuzkidura-eskaintza handiagoa edukitzeko, eta, horrela, udalerriz gaindiko funtzioak indartsuago garatu ahal izateko, Izurtzako udalerria Durangotik hurbil dago, baina eskala txikiagoa eta landa-inguruaren ezaugarriak ditu. Kasu honetan, garrantzitsua da Izurtzaren hirigintza- eta arkitektura-balioak mantentzea eta industria-instalazio batzuk eraldatzea, horiek jarraitasuna apurtu eta hiri-kalitatea kentzen baitiete bi guneak lotzen dituzten eremuei. Planeamenduak bateratzeko proposatzen den tresnak aukera eman behar du Durango bere ezaugarri bereizgarrien eta udalerri mugakideen hiri-egituraren arabera garatzeko. Halaber, Iurretak (Durangotik desanexionatuta sorturiko udalerria) Durangokoarekiko bateragarria den planeamendua behar du.

- LAAek planeamendua bateratzeko aukerako mekanismo hauek ezartzen dituzte:
  - Eraginpeko udalerrietako Egitamu Orokorren Aurrerapen Fasea edo Planeamenduko Arau Subsidiarioak batera idaztea.
  - Lurraldearen Zatiko Planak eraginpeko udalerrien planeamendu orokorrean hartu beharreko irizpideak proposatzea, euren hirigintza-estrategien integrazio eraginkorra lortzeko.
  - Bateragarritasun Proiektua idaztea, eta bertan, eraginpeko udalerri bakoitzaren planeamendu orokorrak bateragarritasun hori lortzeko jaso beharreko baldintzak adieraziko dira. Bateragarritasun Proiektu horren

formulazioa egiteko ekimena eraginpeko udalerriek edo, horien ordez, administrazio eskudunak garatu beharko du.

- Lurraldearen Zatiko Planek planeamenduen bateragarritasunerako aplikatu behar diren irizpideak eta edukiak ezarriko dituzte, euren jarduketa-eremuaren barruan.

b) Bilbo Metropolitarreko eta Eskualde Egitura mugakideetako Lurraldearen Zatiko Planen koordinaziorako baldintzak.

- Durangoko Eskualde Egiturako Lurraldearen Zatiko Planaren idazketa Bilbo Metropolitarreko Lurraldearen Zatiko Planean ezarritako estrategien eraginpean egon daiteke.
- Bilbo Metropolitarreko Lurraldearen Zatiko Planek aditzera emango ditu Durangoko Eskualde Egiturako Lurraldearen Zatiko Plana idazteko inplikazioak.

c) Durangoko Eskualde Egituran Interes Naturalistikoa duten Eremuen zerrenda.

| **Izena** | L e | **Lurralde Historikoa** | **Udalerriak** | **Balioak** |
|---|---|---|---|---|
| Udalaitz | y e n | Bizkaia | Elorrio Arrasate | P, G, F, B |

Balio ikurrak: P. Paisaia; G. Geologia; F. Fauna; B. Botanika

## 4.2.5. Laburpen-taula

Ondoko laburpen-taulan, Lurraldearen Antolamendurako Artezpideetan Durangoko Eskualde Egiturarako adierazitako irizpide eta orientazio guztiak daude jasota.

## LAAren lurralde-euskarria

Parke Naturalak eta Babesturiko Biotopoak — Urkiola

**Ezarkuntza Sistema**

| | |
|---|---|
| Eskualde Egiturako buruak | Durango |
| E. Egiturako bigarren mailako guneak | Amorebieta<br>Mañaria<br>Elorrio |

**Harreman-sistema. Oinarrizko azpiegiturak**

**EAEko hiriburuen gune anitzeko sistemaren barruko oinarrizko loturak**

1-Bilbo-Donostia A-8 autobidetik
2-Bilbo-Gasteiz A-8 autobidetik

**Eskualde-egituretako leku nagusien loturak**

1.Durango-Beasain ardatza finkatuko da, honako hirigune hauek lotuta: Durango, Elorrio, Arrasate, Bergara, Zumarraga eta Beasain.
2.Plentzia-Elgoibar ibilbide osotzat finkatuko da honako hirigune hauek lotzen dituena: Plentzia, Mungia, Gernika-Lumo, Markina-Xemein eta Elgoibar (azken hori ez doa Eskualde Egituratik); honako lotura osagarri hauekin: Gernika-Lumo Amorebieta-Etxanorekin, Markina-Xemein Lekeitiorekin, Ondarroarekin, Durangorekin eta Eibar-Ermuarekin. Markina-Xemeinen eta Eibarren arteko lotura (Arratetik) interesgarria izan daiteke epe luzean, lurraldearen ikuspegitik.

**Abiadura handiko trena**

Nazioarteko bide-zabalerako trazatu berria Bilbo-Irun igarobideak osatuko du (nahiko paraleloa Durangorainoko A-8 autobidearekin); hori, gero, Zumarragaraino doa c-6322 errepidetik, eta bertatik, Iruneraino, Tolosatik eta Andoainetik; igarobide nagusiaren sarbidea Arlabaneko gainetik, eta lotura Elorrioren inguruan.

**Aldiriko tren-zerbitzuaren oinarrizko ardatzak**

Bilborantz grabitatuz, kalitate handiko aldiriko trenbide-zerbitzua proposatzeko oinarrizko ardatzak honako hauek dira (Durangoko Eskualde Egiturari dagokionez):

1.Bermeo, Gernika-Lumo, Amorebieta-Etxano, Galdakao, Bilbo
2.Durango, Amorebieta-Etxano, Galdakao, Bilbo

**HHS (transferentzia-estazioa)**

Durango

**Lurralde-ereduak lurzoruaren politikan dituen inplikazioak**

**Jarduera ekonomikoetarako lurzorua**

Lurralde-ereduko industria-jarduerako eremuak — CPI 3, Ibaizabalen igarobidea

**Egoitza-lurzorua**

| | |
|---|---|
| Hazkunde hautakorra | Durango |
| Bigarren egoitza. Endogenoa. | Mañaria<br>Elorrio |

**Hiri- eta landa-birkualifikazioko eragiketak**

Planeamenduen bateragarritasuna: Durango-Abadiño-Izurtza-Iurreta
Hiri-berrikuntza (beste ekimen batzuk): Amorebieta-Etxano
Hirigune historikoa. Lurralde-eredua dinamizatzeko ekimenak : Durango (berroreka) eta Elorrio (berroreka),
Lurraldean sartzeko guneak: Elorrio eta Mañaria

## 4.3. Eskualde Egituraren lurralde-egitura

### 4.3.1. Oiz mendiaren gailurrak eta isurialdeak

Unitate honen mugak Oiz mendiaren gailurrak eta goi-isurialdeek fisiografiaren, paisaiaren eta lurzoru-erabileren aldetik duten berezitasuna aintzat hartuta finkatu dira,; isurialde horiek Gernika-Markinatik (iparraldean dagoena) banantzen baitute Eskualde egitura. Halaber, aintzat hartu dira mendi horrek merezi dituen ingurumen babesa eta hobekuntza ekimenak. , .

Multzo honen ezaugarri morfologiko nagusiak, alde batetik Ekialde-Mendebalde kokalekua da, Bizkaiko sinklinorioaren elementu tekntonikoaren norabideari jarraituz, eta bestetik, mendiaren gailur luzanga, laua eta isoaltitudinala; izan ere, gailur horrek hesi antzeko bat osatu eta argi ixten du Ibaizabalen haranaren erdialdeko sektorea, iparraldetik. Hegoaldeko isurialdeak, gainera, zenbait errekaren eragina dauka eta horiek trokak sortzen dituzte bertan; halaber, zelaigune edo maila batzuk ditu eta horiek iparraldetik baino itxura apurtuagoa ematen diote.

Oizen isurialdeetako goi-bazkaleku komunalak, ikazkintza eta suaren erabilera tradizionala kontuan hartuta, ondo ulertzen da txilarren, oteen eta iratzeen nagusitasuna, albitzekin eta belardiekin batera, baita zuhaitzen urritasuna ere, horiek gorengo zonako haritz- eta ametz-unada txikietara mugatzen baita.

Pinuek, beste eremu askotan bezala, gero eta eremu zabalagoa hartzen dute, eta eragin nabaria dute urrunetik ikusten diren goi-lur hauen paisaian eta morfologian. Baserririk ez dagoenez, nabarmendu egiten da paisaia horren mendi-izaera eta berezitasuna; izan ere, adierazitako arrazoiak aintzat hartuta, eta Durangaldeko paisaiarik garrantzitsuenetarikoa denez, babes maila handia behar du.

### 4.3.2. Ibaizabal-Zalduren alubioi-hondoa

Ibaizabal eta Zaldu ibaien alubioi-hondoa, edozein ikuspegitatik begiratuta, Eskualde Egitura eratzen duen ardatza da. Hidrogeomorfologiaren aldetik begiratuta, Bizkaiko Sinklinorioaren norabide eliptiko samarrari jarraitzen dion

eremu hau ia Eskualde Egitura osoko drainatze-ardatza da, eta horren ondoriozko eraginak ditu ingurumenean.

Ageriko arrazoi topografikoak eta litoedafikoak kontuan hartuta, alubioi-hondo honek eremuko lurzorurik onenak ditu, bai larreen nahiz zuhaitzen sorrerarako, bai nekazaritza-jarduerarako.

Lautasun eta nolabaiteko zabaltasuneko, Oizen nahiz Urkiolaren mendi-eremuen arteko jarraipeneko eta kontraste handiko bi mundu fisiografikoren, historikoren zein funtzionalen (Bilboko itsasadarra eta Gipuzkoako industria-haranak) arteko lotura fisikoko baldintza horien eraginez, eremuaren okupazioa handia izan da eta dinamika handia dauka hiriaren, industriaren eta azpiegituren aldetik.

Horrek guztiak, bestalde, erabilerek unitatean orain duten egoera eta okupazio handiko korridore honetako ingurumen-tentsio handiak (ez ekologikoak bakarrik) azaltzen ditu. Hiri- eta industria-lurzoruen pieza handien (orain paisaia zehazten dutenak) eta bide-sarearen artean, urbanizatu gabeko lurzoruak daude oraindik, eta horiek larredietarako, kasu batzuetan nekazaritza intentsiborako eta, zenbaitetan, otalurretarako erabiltzen dira. Halaber, harrigarria da ibai-tarte batzuetan urbazterreko zatiak mantentzea. Elementu horiek guztiek balio estrategiko handia dute, korridore osoan gutxieneko ingurumen-kalitatea bilatzeko orduan, eta, gainera, eginkizun garrantzitsua dute uholde-lautadako dinamika hidromorfologikoan, eremu hori kontu handiz tratatu behar baita lurraldearen ikuspegitik.

### 4.3.3. Durangaldearen hegoaldeko mendiak eta haranak

Eskualde Egituraren hegoaldeko mendi-itxieraren ezaugarri geomorfologikoak, ekologikoak eta paisaiakoak oso desberdinak dira iparraldeko ertzekoetatik. Durangaldeko bi mendi-multzo horien arteko desberdintasunok, bakoitzaren berezko balioekin batera, balio oso altuko ekologia- eta lurralde-erakargarritasunak dira, batez ere kontuan hartuta eremu honetan irudia eta ekimenetariko asko Ibaizabalen hiri- eta industria-igarobidearen ingurukoak direla.

Hegoaldeko multzo ikusgarria eta ederra, bestalde, EAEko banalerro atlantiko-mediterraneoko mendien berezko egitura geologikoen eraginezkoa da. Kareharrizko lodiera indartsuek osaturiko paisaian, bestalde, mendiguneen eta mendilerroen bolumen masiboei loturiko formak, prozesuak eta landare-estaldurak nagusitzen dira. Bestalde, mendiarteko haran karstikoak daude, hegoaldetik Ibaizabal inguratzen duten landazabaletara ireki baino lehen.

Hortaz, unitate honetako lurzoruaren erabileren mapan harkaitzen, hartxingadien eta horri lotutako landareen orban handiak nagusitzen dira. Era berean, pagadiek ere presentzia handia dute, batik bat oinarrizko substratuaren gainean, baita artadiek ere, eguteretan eta kareharrizko lurzoru harritsuetan nahiz lehorretan. Harkaitzez eta basoz beteriko mundu hori oso interesgarria da, eta, izan ere, Urkiolako Parke Naturala deritzon babes-kalifikazioa lortu du.

Haranek forma leunagoak dituzte, baina kareharrizko hesien nagusitasunarekin; bertan, belardiek eta biztanleriaren ezarkuntzek lurzoruaren eta lurralde osoaren erabilerak antolatzen dituzte. Hala eta guztiz ere, panorama horrek zenbait ñabardura ditu, eta, lurzoruaren erabilerei dagokienez, bi haran mota bereizten dira: bata, Atxarte eta Atxondo haranena, landatarra eta oso ederra da, komunikazio-ardatz nagusietatik kanpo gelditu da eta, hala ere, barreiaturiko edo auzoen inguruko eraikuntza-garapenak ditu, auzo horien erakargarritasunen ondorioz; Mañariako haranaren kasua bestelakoa da erdialdean, eta, mendiarteko-izaera eduki arren, hiri- eta industria-hazkundea izan du, Durango-Gasteizeko ibilbideak zeharkatzen duelako, eta gainera, haranaren sarrerako bi harrobi handien ingurumen-eragin kaltegarri gogorra dauka.

Goiko lurrek, Urkiolako Parke Naturalaren barrukoek, babesa eta erabileren nahiz jardueren arauketa dute, Parkean ezarritako zona guztien barruan. Landa-kontserbaziorik onena duten haranek ere (Atxondo edo Mendiola) babesa behar dute. Paisaiari eta kulturari loturiko arrazoibidea, izan ere, eremu hauen kontserbazio-irizpidea izan behar da, eta gainera, arrazoibide horretan oinarrituz, eremuoi lehentasuna eman behar zaie nekazaritzako eta ingurumeneko programetan, baserriko jarduerak sustatzeko. Hirigintza-

diziplina, aldiz, zorrotza izan behar da, inguruko paisaien ekologia- eta kultura-ondasunaren nortasuna zaindu ahal izateko.

### 4.3.4. Ibaizabalen ezkerreko ertzeko landazabalak eta haranak

Muinodun lurralde-zerrenda da, Ibaizabalen haran-hondoaren eta mendebaldeko mendi-multzoaren artean dagoena. Multzoa, bestalde, hegoaldetik kolektore nagusira jaisten diren erreka laburren eraginpean dago, eta, horrela, txertatze handiagoko edo txikiagoko haranen bidez banaturiko sorbaldaz eta zelaigunez beteriko erliebea osatzen da.

Oinarri topografiko honetan, lurzoruaren erabilerak jarraibide errazean eta errepikakorrean oinarrituz garatzen dira; horren arabera, gelditzen diren larre eta labore urriek harantxoen hondoa eta Ibaizabalen haranean esekitako zelauguneetariko batzuk okupatzen dituzte. Belardien kontrapuntua konifero-landaketa handiek osatzen dute; landaketa horiek, batzuetan, haritz-unadekin apurtzen dira, gorengo eremuetan, eta haltzadi baliotsuekin ere bai, erreka batzuen inguruan.

Landa-ezarkuntzak urriak dira unitatearen mendebaldeko sektorean, Amorebieta-Etxano udalerriaren barruan; aldiz, ugariak dira, bai auzotzat eta bai barreiatuta, Atxarteko eta Arrazolako berehengo zati irekietan.

### 4.3.5. Zumelegi ibaiaren arroa

Zumelegi ibaiaren arroa bereizi egin dugu, Elorrio inguruko izaera nahiko itxia duelako; hala eta guztiz ere, ikuspegi fisiografikotik eta lurzoruaren erabileren ikuspegitik begiratuta, lehenago aztertutako beste unitate batzuen ezaugarriak ditu.

Zumelegi ibaiak drainaturiko arro-izaera horren ondorioz, beraren barruan honako hau aurkituko dugu: haran-hondoko alubioi-lurrak, gehienbat Elorrioko hiri-industria garapenarekin okupatuta; landazabal atlantikoko lurrak, batez ere hirigunearen iparraldean, Zumelegi-Zaldu ibaiartean; eta mendiko lurrak, gehienbat ibaiak Elorriotik gora dituen uren ezkerreko ertzean, Udalaitz mendiaren isurialdeetan.

Alubioi-hondoak Ibaizabalekoaren antzeko ekologia- zein lurralde-balioak eta antzeko ingurumen-arazoak ditu. Belardien eta laboreen unadak Elorriotik gorako uretan bilatu behar dira; bertan, nekazaritzako eta abeltzaintzako alorra landazabal atlantikokoekin lotuta dago, eta horiek, berriz, Udalaitzen isurialdeetako beherengo zatietan eta Elgetako mendateko goiko bizkarretan daude. Elorriotik Berrizerako errepidearen inguruetan, belardi ugarik eta ezarkuntza-sare trinko batek osaturiko korridorea dago, bi biztanlegune horietako landazabaletan; horietan, eraikuntza-dinamika nahiko aktiboa dago, Santamañazar mendia Elorriorantz apurka-apurka jaisteko lekuan gertatzen den bezala, eta horrek indartu egiten du herri horrek erabileren eta paisaiaren antolamenduan duen eginkizun nagusia.

Baso-landaketen protagonismoa argia da arro osoan; hala ere, gorengo lekuetan, Udalaitzen oinean eta Kanpazar mendatearen jaitsieran pagadi-uneda interesgarriak daude, eta horiek, lurraldean, birlandaketa batzuen aurrerakuntzarekin lehiatzen dira.

Zumelegiren haranaren gaineko egoitza- eta industria-presio urriagoa, multzo osoaren ingurumen-balio handia eta landa-izaera nahiko garbiaren mantenamendua (Elegetarako eta Kanpazarrerako isurialdeetan) aintzat hartuta, beharrezkoa da haran-hondoko hirigintza-garapenak kontuz egitea. Garapen horiek berebiziko aukera dute ingurumen-kalitate handiko inguru batean (lehiakortasuneko elementu positiboa); baina, halaber, ondo integratu behar dira inguruan, Ibaizabalen zati handi batean dagoen hiri- edota industria-jarraipenaren sentsazioa saihesteko.

### 4.3.6. Ibaizabalen eskuineko ertzeko landazabalak eta haranak

Ibaizabalen haran-hondoa iparraldetik inguratuz, eta Oiz mendiaren oineko eskailera-maila balitz bezala, muinoz eta elementu geografikoz beteriko zerrenda hau dago, Oizen goi-isurialdeek sortzen dituzten haranetan.

Unitateak EAEko landazabal atlantikoen ezaugarri fisiografikoak eduki arren (Eskualde Egiturako 4. lurralde-unitaterako deskribaturikoak), eremu honek lurzoruaren erabileren banaketa berezia eta eraikuntza-dinamika handia du, lurzoru urbanizaezinean, eta hori aipagarria da.

Landazabal hauek haran-hondoan duten erortzea nahiko irekia da, Ibaizabalen adar batzuen (adibidez, Aiarza edo Arrua) higadura-ekintzaren ondorioz, batez ere Berrizeko eta Garaiko udal mugarteetan. Malda nahiko leunetan, lurrotan belardiak egon ziren, barreiaturiko auzo eta baserri ugarien inguruan. Belardiak eta ezarkuntzak, gaur egun, sektore osoan argi identifikatzen dira, baina erabileretan eta lurraldean eragina duten bi aldaketa garrantzitsu izan dituzte: alde batetik, belardiak murriztu egin dira, pinudiek eta sastrakek aurrera egitearen ondorioz, eta, gainera, higadura-prozesu larriak identifikatu dira, landa-lanean; bestetik, lurzoru urbanizaezinean eraikuntza-dentsifikazio nabaria egon da (Eskualde Egitura osokorik nabariena), eta horrek, leku batzuetan, aldatu egin ditu landazabaletako landa-paisaiaren ezaugarriak.

Landaguneen arloko hirigintza-diziplinak, handitze berrien murriztapenak eta paisaia-intereseko ibilbide nahiz eremu batzuen babesak bermatu egiten dute kalitateko eremu baten mantenamendua, Eskualde Egituraren multzo osoaren barruan.

## 4.4. Oraingo lurralde-eredua eta bilakatzeko bideak: arazoak eta aukerak.

### 4.4.1. Eskualde Egitura nortasun handiko igarobide geografikoa eta funtzionala da.

Durangoko Eskualde Egitura, bai ikuspegi fisikotik begiratuta, bai lurzoruaren erabileren nahiz jardueren antolamenduari dagokionez, batasun fisiografiko eta funtzional handiko eremu geografikoa da. Horrek erraztu eta sustatu egiten du lurralde-eredu integratzailearen eta bateratuaren planteamendua, multzo osorako, kontuan hartuta bera eratzen duten piezen aldetik (osagarritasun ekologikoa eta funtzionala duten piezak) lurraldea barrutik anitza izatearen aukerak eta bokazioak.

Eskualde Egituraren batasun geografikoa eta nortasun handia bere mugetatik kanpo hedatzen da, Euskal Autonomia Erkidegoko mugetaraino, batez ere horren isurialde atlantikoan; izan ere, horri dagokionez, Durangoko eremua beti izan da, eta aurrerantzean ere izango da, lotura- eta artikulazio-ardatz

garrantzitsua, Bizkaiko eta Gipuzkoako lurralde historikoetako eremu funtzionalen eta hiri- nahiz industria-eremuen artean; gainera, eremua ez dago inguruko eremuetan bezain itota, eta ertzek balio handia dute ekologiaren eta paisaiaren aldetik.

Durangoko Eskualde Egiturako erliebearen eraketa berezia, Bizkaiko Lurralde Historikoan eta Euskal Autonomia Erkidego osoan, bere batasun geografikoaren eta barruko aniztasunaren oinarrian dago. EAEko isurialde atlantikoaren zati handian nagusitzen den mendien, haranen eta landazabalen lotura konplexuaren kasuan ez bezala, Durangoko Eskualde Egitura (Ibaizabal ibaia den kolektore nagusiaren bidez Atlantikora drainatua), izan ere, Bizkaiko sinklinorioaren egitura tektoniko nabariaren norabideari jarraitzen dion korridore zabala da.

Ekialdean EIE norabideko eta mendebaldean MIM norabideko elipsetxoa sortzen duen igarobide honek mendi-ertzak ditu iparraldean eta hegoaldean. Hala eta guztiz ere, ertz horiek desberdinak dira formetan nahiz litologian, garapen altitudinalean eta jarraipenean (Okaren eta Ibaizabalen arteko banalerroa, Amorebieta-Etxanoko udalerrian, muinoduna da, nolabait ere), eta Durangaldeari egitura fisiografiko oso argia ematen diote.



*Ibaizabalen igarobidea, eta atzealdean Durango eta Anboto*

Bestalde, iparraldeko (Oiz mendia eta horren isurialdea) nahiz hegoaldeko (Aramotz-Urkiola-Anboto multzoko kareharrizko mendiguneak eta mendi zorrotzak) mendi-ertzen eta Ibaizabalen haran-hondoaren artean, muino txikiak dituzten erliebeak daude, goiko ertzetatik jaitsitako ibaiek modelatzen dituztenak; horrela, sorbaldakoen itxura duen landazabaleko paisaia sortzen da; horietan, haran-hondokoekin zerikusirik ez duten erabilerak eta ezarkuntzak garatzen dira. Mendi-itxieretan, egitura morfologiko eta harkaitz oso desberdinetan landutakoetan (Urkiolako kareharri indartsuak eta Oiz mendiko hareharri tertziarioak), kontraste oso handiko erabilerak eta paisaiak daude, eta horiek lagungarriak dira Eskualde Egiturak naturaren eta kulturaren aldetik duen aberastasunerako eta aniztasunerako (balio handiko lurralde-aktiboa).

Igarobidearen jarraitasun handia, behealdeko zona lauen zabaltasuna eta Ibaizabalen haranaren irisgarritasun ona aintzat hartuta (ez ekialde-mendebalde norabidean bakarrik, baita iparralderantz, Autzaganeko —Gernikarantz eta Urdaibairantz— eta Trabakuko —Markinarantz eta Artibairen haranerantz— gainen bidez, eta, neurri txikiagoan, Arabako Lautadarantz —Urkiolako mendatea— eta Debaren —Kanpazarreko mendatea— nahiz Arraiaren haranetarantz ere), Durangoko eremua, igarobidea ez ezik, bidegurutze-posizioaren eta industria- zein egoitza-erabilerak hartzeko gaitasunaren hobariak jasotzen dituen eskualde-egitura ere bada, lurzoruaren erabilgarritasun fisikoari esker, eta, horrela, nagusitasuna dauka inguruko eskualde-egituretako muga gogorrei dagokienez (muga fisikoak eta itotze-mugak).

### 4.4.2. Eskualdean komunikazio onak daude Bilbo Metropolitarrarekin eta Gipuzkoako haranekin, eta azpiegitura asko biltzen dira

Lurraldearen morfologiak, horren protagonista nagusia Ibaizabal ibaia izanik, mendebaldetik Bilbo Metropolitarreraino sartzen den ibaiaren ondoko ardatza eratu du; horrek, ekialdeko muturrean, Gipuzkoan sartzeko aukera ematen du, gehienetan klinometria handikoak diren mendate batzuen bitartez.

Apurka-apurka, haran-hondotik erlazioa finkatzen joan zen, bertako ezarkuntzak bilduta, eta hori bilakatu egin da oraingo A-8 eta N-634 bideak sortu arte.

Gero, ardatzean bertan, Bilbo eta Donostia lotzen dituen trenbide-azpiegitura sortu zen. Eta, epe laburrean, AHT ezarriko da, eta horren Frantziarako bidea haranetik igaroko da nahitaez; gaur egun, horren trazatua ondo zehaztuta dago.

Horren gainean, gune metropolitarrarekiko hurbiltasunaren eta kokaleku estrategikoaren eraginez ordenarik gabeko hiri- eta industria-hazkundeak izan dituzten guneak gainjartzen dira; horiek malda nahiko malkartsuetara eraman dituzte lehen sektoreko jarduerak.

Era berean, bide-ardatz nagusi horietatik, zeharreko noranzkoekin (iparraldeko kostaldeetarantz eta hegoaldeko nahiz ekialdeko haranetarantz), zenbait igarobide abiatzen dira, eta horiek A-8 eta N-634 bideekin dituzten loturek oraindik ere gehiago asetzen dituzte hiri-inguruko eremuak.

Eta, betidanik, Ibaizabal ibaiak inguru osoa eratu du; bere ezaugarri plubiometrikoen, morfologikoen, hidrografikoen eta abarren ondorioz, emari handikoa eta, batez ere, irregularra den erregimena dauka, eta horrek, modu ziklikoan, uholde handiak sortzen ditu, orain arteko hirigintza-prozesuek (batez ere, azken hamarkadotakoak) ez baitute hori kontuan hartu.

Era berean, bertako azpiegitura anitzak ere aintzat hartu beharrekoak dira; izan ere, euren lurralde-elementurik (Tentsio Handiko Sare Elektrikoak izan ezik, eta horiek eragin kaltegarri handia sortzen dute ingurumenean) gehienek (adukzioak, hustubideak, etab.), haran-hondoko zerrenda berberak okupatu behar dituzte (neurri handiagoan edo txikiagoan gehiegi asetuta).

Baina garrantzitsuena, izan ere, horrek guztiak, gainerako lurraldeek duten banaketarekin batera, lurralde-eremuari protagonismo berezia ematea da, EAEren lurralde-egituran, batez ere autobide-sarea osatzen denean, Gasteiz-Arrasate-Eibarreko A-1 autobidea zerbitzuan hasita.

Eraketa hori garrantzi handikoa da Bizkaiko kostaldeko lurraldeekin eta Gipuzkoako mendebaldeko haranekin, eta alderdi horiek garraioari buruzko ataletan aztertuko ditugu sakonago.

### 4.4.3. Eskualde Egiturak balio handiko aniztasun ekologikoa eta lurzoru-erabileren nahiz paisaien aniztasun handia dauka

Durangoko unitate geografikoa eta funtzionala ez da ekonomia- eta paisaia-homogeneotasunaren sinonimotzat hartu behar, guztiz aurkakoa baita. Izan ere, eremuko balio eta aktibo nagusienetariko bat, kalitateko edozein lurralde-ereduk onartu eta sustatu beharrekoa, ingurune fisikoaren, habitaten eta ekosistemen barruko aniztasuna da, baita paisaiaren aniztasuna ere; egin-eginean ere, horrek agerian jartzen du lurzoruaren erabilerak erliebearen formetara eta lurraldeak giza jarduerak garatzeko duen ahalmen ekologikora egokitu direla.

Lurzoru-erabileren eta paisaien aniztasuna, oro har, koherentea da oraingo bilakaera ekonomikoarekin eta egitura fisikoarekin; hori lagungarria da lurraldearen irakurgarritasun gegorafikorako, eta, aldi berean, lurraldea osatzen duten piezen gaitasunak nahiz bokazioak bereiztera behartzen du, pieza guztien arteko lotura ekologiko eta funtzional estua ahaztu barik.



Hiri- eta industria-erabilerak haran-hondoan

Erabileren eta paisaien koherentzia hori, lehen esan dugunez, egitura fisikoaren ahalmen ekologikoen aniztasunean oinarritzen da; hala eta guztiz ere, industrializazioaren eta urbanizazioaren eraginezko ekonomia- eta lurralde-aldaketak ere jasotzen ditu. Horrelaxe interpretatu behar da Ibaizabalen igarobideko hiri- eta industria-lurzoruen izaera ia jarraitua,

Elorriotik Amorebieta-Etxanora; izan ere, oraingo erabilera nagusitzat, ordeztu egin dituzte kalitateko nekazaritza- eta abeltzaintza-erabilerak, industrializazioa baino lehenagoko landa-izaerari dagozkionak. Hortik dator, besteak beste, ibarraren hondoan oraindik okupatu gabe dauden lurzoru urbanizaezinek ingurumenari dagokionez duten izaera estrategikoa.

Larredien eta labore batzuen banaketa ere koherentea da eremuko oinarri fisikoekin; horiek, gaur egun, urriak dira Ibaizabalen haranean eta, batik bat, trafikorik gutxieneko zeharreko haranetan (Atxondo edo Mendiola) nahiz igarobidearen ertzeko landazabaletan. Hemen, hala ere, EAEko isurialde atlantikoaren zati handian bezala, basoko landaketak dira protagonistak.



Hegoaldeko ertzeko belardiak eta kareharrizko mendiak

Koherentzia, halaber, egon diren aldaketa guztien gainetik, erabileren antolamenduan eta landa-ezarkuntzen egituran ikusten da, iparraldeko eta hegoaldeko mendi-eremuetan. Oiz deiadar-mendiko bazkaleku tradizionala, gaur egun, goiko isurialdeetan, landez, aurretxilardiz eta ametzeko hariztiz osaturiko mundua da; bertan ez dago baserririk eta pinuko edo haritz amerikarreko landaketak aurrerantz ari dira, otadien eta txilardien gainetik. Hegoaldeko mendigune masiboetako eta mendietako kareharrizko inguru karstikoan, harkaitzak, hartxingadiak, mendiko belardiak eta pagadi ilunak tartekatzen dira, nekazaritza- eta abeltzaintza-tradizioko haran estuekin;

bertan, koniferoen eta isolaturiko baserrien nahiz auzoen egoitza-funtzioaren hedapenak aldaketa morfologiko eta funtzional garrantzitsuak eragin ditu; dena den, haran horietariko batzuek (adibidez, Atxondo) mantendu egin dute landa-izaera eta edertasun paregabea.

Lurralde-ikuspegitik begiratuta, ekologiari eta gizakiari dagokienez, garrantzitsua da egon diren jarioak eta loturak azpimarratzea, Durangoko Eskualde Egiturako inguruen, habitaten eta paisaien aniztasun horretan. Uraren zikloak, Eskualde Egiturako berezitasun fisikoen ondorioz, integratu egiten ditu Urkiolako edo Oizeko goi-gailurrak Ibaizabalen, Zalduren edo Zumelegiren haran-hondoekin, eta horrek agerian jartzen du lurralde-planifikazio integratua behar dela, mendien ertzetatik haranetako hiri- nahiz industria-hondoetara.

Biztanleriaren jarioek nahiz mugimenduek eta jardueren dinamikak ere agerian jartzen dituzte giza ikuspegitik lurraldeko pieza guztiak lotzen dituzten erlazio funtzionalak: alde batetik, egoitza- eta industria-erabilera intentsiboa eduki baina natura-baliabide baliotsuetan zein urrietan eragina dutenak (lurzorua, ura, urbazterreko landaredia,…); bestetik, nekazaritza- nahiz abeltzaintza-erabilerak dituztenak, eta azkenik, goiko mendiguneak, babestu egin behar eta, aldi berean, gero eta erabilera publiko handiagoa dutenak. Durangoko Eskualde Egiturarako kalitateko lurralde-eredu batek aintzat hartu behar ditu zonako ahalmen naturalen eta lotura nahiz jario ekologikoen eta gizarte mailakoen aniztasun hori; gainera, erabilerak ondo antolatu behar ditu, lurraldearen harrera-gaitasun desberdinetan eta horiek artikulatzen dituen sistemaren ideian oinarrituz.

### 4.4.4. Haran-hondoaren okupazioan sorturiko gatazkak, industria-erabileren, hiri-erabileren, landa-erabileren eta azpiegituren artean.

Lehen esan dugunez, Durango Eskualde Egiturak honako hauen arteko kontraste argia dauka: alde batetik, nekazaritza- nahiz abeltzaintza- eta baso-erabilerak, iparraldeko zein hegoaldeko mendi-multzoetan eta horien inguruko landazabaletan nahiz haranetan; bestetik, bide-azpiegiturak, Ibaizabalen igarobidean eta Zalduren haranean (Berriz-Zaldibar) nahiz Zumelegiren haranean (Elorrio).

Eskualde Egiturako industria garapena eta horri loturiko demografia- nahiz hiri-hazkundeak, batez ere, azken 50 urteotan gertatu dira, Ibaizabalen, Zalduren eta Zumelegiren haran-hondoko baldintza topografiko egokien ondorioz; izan ere, horiek Bizkaiko isurialde atlantikoan dauden beste zona apurtuago batzuk baino egokiagoak dira azpiegiturak finkatzeko eta industria- zein hiri-lurzoruak garatzeko. Hala eta guztiz ere, horretan eragina izan dute eremuaren posizio geografikoak (EAEko azken mendeko industria-garapeneko ardatz nagusien arteko lotura, hau da, Nerbioi ibaiaren eta Gipuzkoako industria-haranen artekoa) eta bide-azpiegitura garrantzitsuen eraikuntzak (A-8 autobidea, Santander-Donostiako N-634 eta Bilbo-Gasteizeko N-240).

Hiri- eta industria-hazkundearen eragin nagusia, lurzoruaren erabileren arloan, hiri-garapenek lehen aipatu diren ibaien alubioi-lautadetako zona zabalak handitzea izan da, batez ere Durangon, Amorebieta-Etxanon eta, neurri txikiagoan, Abadiñon, Apatamonasterion eta Elorrioko mendebaldeko hedapenean; baina, batik bat, industria-jardueraren ezarkuntza, ibai horien ibarren gaineko ibilbide linealari jarraituz; horrek hiri- eta industria-paisaiaren izaera ematen dio Ibaizabalen igarobidearen zati handi bati, eta, bertan, egoitza- eta industria-eraketak daude, oraindik ere nekazaritzan nahiz abeltzaintzan diharduten edo otalurrak diren lursailekin etenda.



Hiri eta industria okupazioa Berrizen



Urbazterraren eta belardien zatiak dituen industria-eremua Zumelegiren haranean, Elorrio ondoan

Landa-izaerako hutsune horiek, egoitza- nahiz hiri-lurzoruen eta era guztietako azpiegituren (batez ere, bide-azpiegitura) pilaketaren mendeko igarobide batean, nekazaritza-balio estrategiko handia hartzen dute (*Nekazaritzako nahiz Basoko LAP*ek dioenez), baita ingurumen- zein lurralde-balio estrategikoa ere. Pieza horiek eremu etenak ezartzeko eta arrotzeko gaitasun handia dute, haraneko leku batzuetan dagoeneko itotze-ezaugarriak dituen hiri- eta industria-egitura batean. Pieza horiek, kasu zehatzetan eta aldez aurreko ingurumen-ikerketak eginez, kalitateko industria-ezarkuntzak eduki ditzakete, ingurumenean integratuta eta ibarreko landa-lurzoruari loturiko elementu natural jakinak errespetatuz; adibidez, urbazterreko landareak defendatzea eta suspertzea, horiek orain arte kontuan hartu ez eta modu sistematikoan suntsitu baitira, industria- eta azpiegitura-eredu nagusiaren ondorioz. Beste zenbait kasutan, batik bat uholde arriskuak handiak direnean edota balio biologiko handiak daudenean, babesa nagusitu egin behar zaie gainerako aukera guztiei; izan ere, horrela, balio handiko ondarea kontserbatu eta, aldi berean, ingurumen-kalifikazioa ematen zaio produkzioko erabileren nahiz jardueren presio handia duen eremu bati.

Hirigintzak eta industrializazioak sakon aldatu dituzte igarobideko hiriguneen eta auzoen neurria, egitura eta paisaia. Baina prozesu horren ondorioek gainditu egin dute iparraldeko ertzeko landazabalen eta haranen alubioi-

haranaren eredua, batez ere Berrizeko, Garaiko, Iurretako eta Amorebieta-Etxanoko auzoetara, baita Mañaria ibaiaren beheko tartean daudenetara eta Elorrioko iparraldeko landazabaletan daudenetara ere. Horietan guztietan, familia bateko edo biko etxebizitzak eraikitzeko eta baserri tradizionalak birgaitzeko zein handitzeko prozesuak ikusten dira; gainera, ezarkuntzen egitura tradizionalarekin loturarik ez duen urbanizazio berriren bat ere ikusten da.

Durango, Amorebieta-Etxano, Elorrio, Berriz, Zaldibar eta Abadiñoko hiriguneek, ageriko desberdintasun demografikoak, morfologikoak eta funtzionalak eduki arren, garaturiko eta egituraturiko hiri-morfologia dute, altuerako egoitza-hazkundeak dituzte eta eskualde edo udalerri mailako leku nagusiak dira, nolabait ere. Iurretaren kasua berezia da; izan ere, lurzoruaren erabileren ikuspegitik begiratuta, Durangokoarekiko hiri-hazkunde jarraitua dauka, eta, horri dagokionez, hiriguneen multzoaren barruan dago.



Elorrioko hirigunea mendebalderantz

Durangoko Eskualde Egiturako gune txikiak Apatamonasterio (Atxondo) eta Mañaria dira; horien hazkundeek, bertako errepide-ardatzen inguruan (BI-632/BI-4332, lehenengoaren kasuan, eta BI-623, bigarrenaren kasuan), guneko egitura sortu dute (kaleak eta plazak), eta altuerako nolabaiteko eraikuntza-garapena ere sortu da.

Ibaizabalen, Zalduren, Zumelegiren eta Mañaria behealdearen ibarretan, industria-lurzoruen garapen linealaren barruan honako industria hauek sartzen dira, batez ere: metalezko eraikuntzak, ibilgailuen nahiz garraioko materialaren fabrikazioa eta metalezko akaberako produktuak, zelulosarekin (Celulosas del Nervión) eta harrobiko produktuekin batera. Ugariak dira neurri ertaineko eta handiko faktoriak, eta horiek industria-egitura nahiko finkatuaren eta industrializazio zaharreko paisaiaren irudia ematen dute.

Amorebieta-Etxanon, industria-lurzoruak mendebalderantz garatzen dira, A-8 eta N-634 autobideen artean; hegomendebalderantz, Ibaizabalen ondoan, Astepe eta Markesasti auzoetatik, eta Durangorantz, Inespal enpresaren presentzia deigarriarekin, Ibaizabalen hegoaldean. Iurretako hirigunean, industria N-634 bidearen eta ibaiaren arteko ibarrean dago, eta, dimentsioak aintzat hartuta, aipagarria da Celulosas del Nervión.

Durangon (industria-tradiziorik handieneko hirigunea), industria hirigunearen ondoan eta Mañariarako nahiz Gastizerako (BI-623) eta Elorriorako (Zumelegitik) errepideen inguruan dago. Azken ardatz horretan industria-hiriko multzo bat finkatu da, Abadiñotik eta Apatamonasteriotik, eta hori ia Elorrioraino bertaraino heltzen da; multzo hori Anboto mendi ikusgarriaren inguruan dago eta, gainera, urbazterreko landaredia-unadak zein landa-egiturak ditu; horrenbestez, bertako lurzoruak ondo kontserbatu behar dira eta, aldi berean, industria garbiak (zonako industria tradizionalarekin zerikusirik ez dutenak) finkatzeko ingurumen-baliabidea da.

Azkenik, industria-lurzoruaren azken orban lineala Zaldu ibaiaren ibarrean dago, Durangoren jurisdikzioaren ekialdean eta Berrizeko lurretan, baita Zaldibarreko ezarkuntza txikiagoetan ere; udalerri horretan desegoitzapen bitxia dago hango demografia urriaren eta industria-garrantziaren artean; bertako industrialdea, hirigunearen ondoan, Solozabaleko errekaren alubioi-lautada txikian kokaturik dago (Zalduren goi-ibarrean), eta hirigunetik irteten diren enpresa tradizionalak jasotzen ditu, hirigune barruko ingurumen-arazoak murrizteko.

Azken urteotan ikusitako joera orain arte jarraituriko eredua finkatzera eta dentsifikatzera bideratzen da, bai industria-lurzoruei dagokienez, bai egoitza-lurzoruen garapenari dagokionez, eta azken horietarako eskari gero eta

handiagoa dago, neurri batean Eskualde Egiturako landa-inguru batzuetan (batez ere, Durango-Abadiñon), baina baita Bilboko Eremu Metropolitarrean ere.

Joera horrek, zenbait kasutan, hautsi egiten ditu udal-eremuari soilik lotutako planeamendu-mugak eta muga fisikoak. Horixe gertatzen da, esate baterako, Durangok eskualde mailan osatzen duen konurbazioaren (lurzoru erabilgarri gutxi eta egoitza-eskari handia, Zelaietatik Abadiñorantz hedatzen dena) eta Iurretako hiri-lurzoru asetuen kasuan (BI-634 eta A-8 bideen eraginez hertsatuta).

Amorebieta-Etxanok hedatzeko duen joerak, bestalde, lotura handiagoa dauka Bilbo Metropolitarrarekin; hori, orain arte, Galdakaora heldu da, baina azken urteotan Durangoko Eskualde Egiturako mendebaldeko zatiraino iristen da; horrela, Amorebieta-Etxanok topografia eta lurzoru-eskaintza ona dauka, kasuren batean kalitateko hirigintzarako modukoa (adibidez, Larrea).

Elorrioko haranaren kasua berezia da. Orain arte hiri- eta industria-garapenen presio urriagoa izan du; hala ere, lurzoruaren erabilgarritasuna, inguruaren ingurumen-kalitatea eta Durangotik Beasainerako autobiak irekitako itxaropenak aintzat hartuta, “berezko” hazkunde-ardatza da. Dena den, kasu honetan, beste haran atlantiko batzuetako eta Ibaizabalen haraneko esperientzia ikusita, zaindu egin behar dira eremu horretako ingurumen- eta paisaia-balioak, eta, aldi berean, kalitate handiko hiri- eta industria-garapen mugatuak egin beharko dira.

### 4.4.5. Baserriak antolatu eta kontserbatu egiten du hiri-eremuek zuzenean okupatzen ez duten espazio zabala.

Gaur egun, Durangoko Eskualde Egituran hiri-erabilerek zuzenean okupaturiko eremua %5 baino apur bat handiagoa da; lurraldearen gainerako zatian, Ibaizabalen igarobideko ertzetatik berori barruan hartzen duen gailur-lerroraino, protagonista nagusia baserria da, neurri batean; baserri hori ez da paisaiaren zati formal hutsa, eta paisaia hori sortzeko tresna da. Baserria ez da laborantza-etxe tradizionaltzat hartzen, etxea ez ezik horri eratxikitako lurrak ere badituen nekazaritza-ustiapentzat baizik; lur horien kokalekuak eta erabilerak, berriz,

landa-munduaren eta paisaiaren antolaketaren nahiz osaketaren funtsezko ezaugarriak sortzen ditu.

Lurren antolaketari dagokionez, eremu atlantikoan dauden beste nekazaritza-unitateekin konparatuz, baserriak etxearen inguru hurbilean antolatzen ditu lurrak. Hau da, baserriak unitate fisikoa gehitzen dio bere unitate juridikoari, *barruti biribila* osatuz, eta, horren eraginez, EAEko landa-eremu atlantikoaren antolamendu berezia sortzen da: baserriak "zelula txikietan" antolatzen du lurraldea eta zelula horiek "*tesela askoren mosaiko konplexua*" osatzen dute (García Fernández, 1975, 36. or.). "*Landazabaleko mosaiko*" horiexek dira *EAEko Lurraldearen Antolamendurako Artezpideetan* aipatzen direnak, eta lagungarriak dira batzuetan malkartsua izaten den mendi-eremuko paisaia naturala gizatiartzeko, gizakiarengandik hurbilago dagoen eskala baten arabera.



Baina, "*landazabaleko mosaikoak*" sortzeaz gain, baserriak horien kudeaketa egiten du, atxikitako lurrei erabilera jakinak emanez, lurren kalitatearen eta produkzio-helburuen arabera. Oro har, baserriaren lurrek duten erabilera mota jarraibide orokor bati lotuta dago, eta, horren arabera, *etxaldean* (etxetik hurbil dauden eta maldarik gutxien duten lurrak) larreak daude, familiako baratzerako lursail txikiaren kasuan izan ezik; bestalde, *mendietan* (urrunago dauden eta baldintza topografiko txarragoak dituzten lursailak) baso-ustiapena egiten da,

intsinis pinuan oinarrituz. Estatistika-datuek adierazi dutenez, Eskualde Egituran belardietarako erabiltzen den lurzoru-azalera %23 da, eta baso-erabilerarako, berriz, %65 erabiltzen da; zifra horiek agerian jartzen dute baserrien kudeaketak Durangoko Eskualde Egiturak okupaturikoa bezalako eremu batean (hirigintza-indize handiko eremua) duen garrantzia.

Lurraldearen Antolamendurako Artezpideetan *desideratuma* ikuspegi horrexetatik ulertu behar da: "*Euskal baserriak EAEko landa-paisaiaren zati osagarriak dira eta horien jardueraren iraupena sustatu behar da*" (1997, 123. or.). Hala eta guztiz ere, jakina da baserriak gaur egun bideragarritasun ekonomikoari loturiko arazo larriak dituela. Nekazaritzako enpleguak ez dauka garrantzi kuantitatiborik, ez Bizkaiko Lurralde Historikoan (%2) eta ez, hain zuzen ere, Durangoko Eskualde Egituran, eta azken horretan tasa oraindik ere baxuagoa da (%1,36), horren eraginez, nekazaritzaren errentagarritasun ezari lotutako arazoa, sarritan, bigarren mailan gelditzen da.

Hala eta guztiz ere, landa-munduak beste garrantzi bat hartzen du bertako produkzio ekonomikoa, *sensu stricto* barik *sensu lato* hartzen denean. Hau da, bertako oinarrizko produkzioa aintzat hartzeaz gain, baserriak kudeaturiko lurraldea eta lurralde horren gizarte- nahiz ingurumen-eginkizuna ere (industrializazio eta hirigintza itzeleko eremu baten testuinguruan) kontuan hartzen denean.



Ikuspegi horretatik begiratuta, baserriaren bideragarritasunaren arazoak aztertu beharreko beste dimentsio bat hartzen du. EAEko ekonomia atlantikoaren arazo nagusia, izan ere, baserriaren lurralde-oinarriaren tamaina txikia da (eskalako ekonomietan sartzeari dagokionez), eta gainera, horren soluzioa oso konplexua da. Izatez ere, ustiapen-unitateen nahitaezko dimentsionamendu berria geldiarazi egiten da lurraldean: nolabaiteko gaitasun agrologikoa duen lurzoruak tentsio itzelak jasaten ditu, hirigintzako birkalifikazio-itxaropenen ondorioz.

*"EAEko landa-inguruaren ezaugarri nagusienetariko bat, zalantzarik gabe, hiri-eremuan duen teilakatze handia da, horrek dakartzan mehatxuekin eta aukerekin"* (2001, 28. or.). Izan ere, *2007-2013 aldiko Euskadiko Landa Garapen Iraunkorreko Programak* aditzera eman duenez, hiri-inguruaren hurbiltasuna (Eskualde Egituran oso handia) mehatxu larria da, baina berebiziko aukera ere bai, lurraldeko eremurik itoenetan eginkizun garrantzitsua izango duen landa-inguru baterako:

*"EAEko lurralde-tamaina txikia eta dentsitate demografiko handia aintzat hartuta, landa-eremuen balio estrategikoa ez da mugatzen lehen sektoreko jarduerek produktu gordinean egiten duten ekarpenera. Landa-eremuak ezinbesteko osagarriak dira hiri- eta industria-ezarkuntza trinkoetarako, horiek etengabe hedatzen ari baitira Bizkaiko eta Gipuzkoako Lurralde Historikoetako igarobide nagusietatik (LAA, 98. or.).*

Modu inplizituan, LAAek landa-inguruek EAEko lurralde-ereduan izan beharreko eginkizun anitza adierazten dute:

a) Eginkizun ekonomikoa, nekazaritza-elikadurako lehengaiak hornitzeari lotutakoa, baina aisialdi, turismo eta atsedenaldiko zerbitzuak ere emanez.
b) Funtzio ekologikoa, eremu naturalen eta ondo kontserbaturiko paisaien euskarritzat.
c) Gizarte- eta kultura-eginkizuna, hiri- eta landa-biztanleriaren arteko harremanak estutzean oinarrituz.

Landa Eremuaren Europako Gutunak adierazitako hiru eginkizun horietan aurkituko du inguruak eta, hain zuzen ere, baserriak bere aukera; izan ere,

Eskualde Egitura honen etorkizuneko itotzerik eza, birkualifikazioa eta bideragarritasuna baserriaren bizitasunaren mende baitago.

### 4.4.6. Azpiegituren eta harrobien ingurumen-eragina.

Durangoko Eskualde Egiturak EAEn duen erdialdeko kokalekua eta Ibaizabalen igarobideak ematen dion izaera estrategikoa (komunikazioen sistema orokorreko derrigorrezko igarobidetzat), lehen bezala orain ere, konparazio-garapen nabariko iturriak dira. Hala eta guztiz ere, ez da ahaztu behar industrializazio azkarrak eta horri loturiko hirigintzak ingurumen- eta paisaia-kalte handia eragin zutela garapen azkarraren urteetan.

Ibaizabalen igarobidean ezarritako hiri-jarraipenaren eraginezko gizarte- eta ingurumen-itotze hori, neurri batean, arindu egiten da bertako isurialdeetan ezartzen den lasaitze-birikaren bidez. Izan ere, Aramotzeko, Urkiolako nahiz Udalaitzeko mendiguneetan (hegoaldetik) eta Oiz mendian (iparraldetik), EAEko Babesturiko Eremu Naturalik enblematikoenetarikoa dago, Urkiolako Parke Naturala, eta gainera, bertako kultura-paisaien multzoak lasaitze-birika hori osatzen du. Lasaitze hori ez da ingurumenekoa bakarrik (eremu berdeak diren neurrian), psikosoziala ere badelako; hau da, igarobidearen ondoan pilaturiko biztanleriak maldetara begiratu eta paisaia bukolioa aurkituko du bertan, egunero okupatzen duen paisaiarekin konparatuz.

Bestalde, etorkizun hurbilean Abiadura Handiko Trena eraikiko da, eta hori, proiektaturiko trazatuaren arabera, Ibaizabalen igarobidearen hegoaldeko maldatik joango da, Eskualde Egitura Elorriotik Amorebieta-Etxanoraino zeharkatuz. Halako ezaugarriak eta bide bikoitza dituen trenbidea eraikitzeko, 14 metroko zabalerako lur-berdinketa behar da, eta horiei, gainera, arekak eta ezpondak egiteko behar diren lekuak erantsi behar zaizkie. Beste alde batetik, maldak halako azpiegitura batean ezartzen duen mugaren ondorioz, gehienez %1,5eko desnibelak egon daitezke, eta beraz, tunelen maila altua da eta biaduktuak handiak dira, B.1 eta B.2 tarteetan (Durangoko Eskualde Egituran eragina duten tarteak).



Elorrio-Bergara-Aramaioko zonan “Y” deritzonaren trukagailuaren triangelua dago, eta horren zati handia, berriz, Udalaitzen eremu naturalaren azpiko tunel batetik doa. Trazatuak Ibaizabalen igarobidetik jarraitzen du, tuneleko eta gainazaleko zatiak tartekatuz (horietariko asko biaduktu handien bitartez gaindituta), eta Anboto nahiz Untzillaitzeko beheko malden oinetatik doa (Urkiolako Parke Naturalaren mugatik 2 kilometro baino gehiagora). Durangoren eta Iurretaren arteko ibilbidearen zati handia lurpetik doa.

Proiektuari dagokionez, egindako Ingurumen Eraginaren Adierazpenaren arabera, AHTren trazatuak ez du eraginik izango EAEko Babesturiko Eremu Naturalen Sarearen barruko ezein eremutan, ezta hostozabalen orban garrantzitsuetan edo zona hezeetan. Halaber, ez da eraginik sortuko ezaugarri geologiko interesgarrietan, eta, ikerketa geoteknikoek diotenez, ez da ezegonkortze nahiz higadura prozesu konponezinik eragingo. Hala ere, paisaiaren gaineko eragina eta larreen okupazioa handiak izango dira.

Hori arintzeko, aipaturiko Ingurumen Eraginaren Adierazpenari dagokionez, paisaiaren gaineko eraginak leku jakinekoak izango dira, eta ez da ikusmen-eragin handirik egongo, azpiegitura tarte txikietan soilik ikusiko delako (ez tarte luzeetan), topografia oso zatikatua izatearen eta tunelak eraikitzearen

ondorioz. Hala eta guztiz ere, Durangoko Eskualde Egituran, Apatamonasteriok, Iguriak eta Zornotza hegoaldeak ikusmen-eragin nabariak izango dituzte, biaduktuen handitasunaren eraginez.

Eraginaren Adierazpenean, babes- eta zuzentze-neurriak daude jasota, honako hau babesteko eta kontserbatzeko: lurzoruak nahiz landaredia, sistema hidrologikoak zein lurpeko uren kalitatea, fauna, ondare historikoa eta arkeologikoa, etab. Horiek guztiak eta beste batzuk ere beharrezkoak izango dira gizakiaren okupazioak gogor zigorturiko eremu honetan, okupazio horrek sarritan ez baitu errespetatu ingurua. Horrek, ingurumen-arazoak ez ezik, arazo ekonomikoak ere sortzen ditu. Izan ere, gaur egun, ingurumena egoera onean egotea edo paisaia-kalitate handia edukitzea garapeneko nahiz errentako faktore garrantzitsua da.

Horri dagokionez, AHTk Durangoko Eskualde Egituran ingurumen- eta paisaia-integrazio ona edukiko duela bermatzea, izan ere, lehentasunezkoa izan behar da; horrela, eremuak trena hartzearen hobariak ezin du galera kualitatiborik eragin, hau da, inguruak ezin ditu galdu ingurumenaren eta paisaiaren aldetik dituen balioak.

Eskualde Egiturak, lehen azaldutako arrazoien eraginez, dagoeneko jasan egiten ditu halako eragin kaltegarriak; hala ere, gizarte-errebindikazio garrantzitsu eta herritarrek egindako hainbat alegazioak harrobien gaiari buruzkoak izan dira, batez ere Mañariko harrobiari dagokionez.

Lurralde beraren gaineko eskumen administratibo ezberdinak aldi berean izateak gatazka ugari sorrarazten ditu, konponbide bat behar dutenak. Ateratzeko jardueren kasuan, LAAren zehaztapen lotesleak, 8 kapituluaren 5.3.B.b3 apartatua, udal plangintzei igortzen die aipatu ateratzeko jarduketek afektatzen dituzten guneen mugaketa sartzeko eskakizuna. Modu honetara, betebeharra hartzen du, Administrazio ezberdinetara, marko bakar batean joateko, hirigintzakoan alegia, udal mugartearen lurzoruko kategoria denetan erabilera onargarriak arautzen dena delarik

Mañariako kasu konkretuan, udalerri honetako Plangintzako Arau Subsidiarioek eskatzen diete Zallobenta, Muntxate eta Markomin-Goikoako ustiapenen titularrei, haien araudiaren 172 artikuluan adierazten den modura, beren Harrobien Plan

Bereziak izapidetzea. Hauek, beste zehaztapen batzuen artean, ustiapenon behin betiko mugaketa finkatu beharko dute, berau geratuz EHLABren aldeko txostenaren zain. Izan ere, eskakizun hau bat dator jarraian adieraziko den indarrean dagoen legeriarekin

Bestalde, kontuan izanik ateratzeko jarduera bakoitzaren ezarketak, ingurumenejko inpaktuaren aurretiazko norbanako ebaluazio bat behar duela, aplikatzekoa da, Lurzoru eta Hirigintzako 2/2006 Legearen garapenezko premiazko neurrien 105/2008 Dekretuaren 4.3 artikuluan (2008ko ekainaren 23ko EHAA) xedatua aplikatzea. Hortaz, beharrezkoa da plan berezi bat idaztea, aipatu Lurzoru eta Hirigintzako 2/2006 Legearen 59.2.c.7 artikuluan adierazi denarekin bat etorriz.

Azkenik, adieraz daiteke, egun indarrean dagoen legeriarekin eta, zehatzago, Euskal Herriko Lurzoru eta Hirigintzako 2/2006 Legearekin bat etorriz, aridoak ateratzeko eta harrobiak ustiatzeko jarduerak baldintzaturik daudela, sektoreen baimenei eta gorago aipatu den ingurumenezko inpaktuaren ebaluazioei gain, udal lizentzia ateratzera (aipatu legearen 207.1 artikulua).

Kareharriak erauzteko eremu hauen arazoa larriagotu egiten da, Urkiolako Babesturiko Eremu Naturalaren barruan eta horren inguru hurbilean daudelako.

Parke Naturalaren barruan, honako harrobi hauek daude: Atxartekoa, suspertze-prozesuan, Parkeko Kudeaketa Elkargoaren ikuspenarekin; Zalloventako harrobia martxan dago eta, horri dagokionez, Parkea Erabili eta Kudeatzeari buruzko Egitamu Gidariak ustiapenaren gehieneko mugak ezartzen ditu. Bertan behera utzitako beste harrobi batzuk ere badaude; esate baterako, Pol-Pol, Anbotoren oinean, eta Mañariko nahiz Zornotzako marmol-harrobiak.

LPP honek nahi du naturazko ingurunea mantentzea eta errespetatzea eta, batez ere, Urkiolakoa moduko horrela aitortua izan den Parke Naturalen barnean eta inguruan. Izan ere, espazio horien antolamendua bidaltzen die Naturazko Baliabideen Antolamenduzko Planei (PORN) eta Erabilera eta Kudeaketazko Plan Zuzentzaileari (PRUG).

Hori dela-eta, ekainaren 18ko 147/2002 Dekretuaren bidez (2002ko abuztuaren 9ko EHAA) onartu zen Urkiolako Parke Naturalaren Naturazko Baliabideen Antolamenduzko Planak (PORN) kontsideratu du, 1.2.16 apartatuan, Zalloventako harrobia sarturik dagoela Parke Naturalaren mugaketaren barruan. Halaber, "Jarduera industrial eta ateratzekoak" 5.2.7 apartatuan, PORNk zera xedatu du: "*Zehatzean, Zalloventako harrobiaren kasuan, Erabilera eta Kudeaketazko Plan Zuzentzaileak definituko ditu haren ustiapeneko gehienezko mugak, kontuan hartu beharko direnak Meategien Administrazioaren aldetik ustiapenezko eta zaharberritzeko planak onartzerakoan.*"

Bestalde, aipatu Urkiolako Parke Naturalaren Erabilera eta Kudeaketazko Plan Zuzentzailea onartu egin zen maiatzaren 30eko 111/2006 Dekretuaren bidez (2006ko abuztuaren 8ko EHAA), "Erauzketa eta industri jarduerak" bere 4.9 artikuluan xedatuz, Zalloventako harrobia mugatzeari dagokionez: "…*bere 4.9 artikuluan xedatuz beti ere bere jarduerak ez badu gainditzen ustiatutako aldea eta ez ustiatuaren arteko integrazio egokia ahalbideratzen duen lerro inguratzaile ez hautsiak definitutako muga espaziala. Lerro hori koordenatuen puntu hauetatik pasatu beharko da*:" EKPAk deskribatu du, jarraian, 7 puntu geografikoen kokapena, dagozkien UTM koordenadak ekarriz eta beronen V Eranskinean sarturik harrobi horren ustiapenerako koten mapa bat.

Ikusita Zalloventako harrobiaren jardueraren gehienezko mugaketa onartuari buruzko dokumentazio eskuragarria eta PORNk I Eranskin modura (EHAA 2002/08/09) sartu duen Antolamenduzko Planoaren zonakatzea sumatu egin da, harrobiaren zati bat, parke naturalaren barruan eta, beste bat, definitzen duen babeseko gune periferikoaren gainean kokatua dela, PORNk berak, 6.5 apartatuan "*Parke Naturalaren inguruko 100 metroko banda perimetrala da. Zona horretatik kanpo geratuko dira landa-nukleoak eta industria-lurzoruak".* Modura definitua dela. Aipatu babes-bandaren barruan, Parkearen Erakunde kudeatzaileak mugatu edo eten ahalko du, Patronatuaren aurretiazko txostenaz, Parkearen errealitate físico edo biologikoa afektatu edo alda dezakeen edozein jarduera (PORNaren 6.5.1 apartatua)

Egia esan, beharrezkoa izango litzateke, Parke Naturalaren babes-araubidea ziurtatzeko, modu konkretu eta determinatzailean arautzea PORNaren 6.5.1 aipatu apartatua, nola eta argiro eta ezbairik gabe bermatu ahal izateko

lurralde-eremua ezaugarritzen dituzten naturazko balioak zaintzea, horiek izan zirela, garai batean, parkea bera Parke Natural modura aitortzea

Durangoko alde funtzionalean badaude beste harrobi batzuk ere, bertan behera tusita daudenak: Pol-Pol, Anbotoko maldan, Abadiñon; Aldebaraietakoak: Goiko-kantera eta Olate, Askondo edo Venta Zaharra eta Urkioletakoa, denak Mañarian; Amorebieta, Atxondo, Iurreta eta Elorriokoa. Zerrenda horrek ez du osatzen inbentario bat, egun jarduerarik gabe egonik, LPPn aurkitu ez diren beste ustiapenak baztertu egiten dituena. Harrobi bertan behera utzitako guztiak, LPPn identifikaturik egon zein egon ez, eta baita balizko zabortegi kontrolik gabeak ere, behar dute beren eremuetan, lursailaren eguneko baldintzak hobetzeko jarduketak burutzea, aplikatzekoak izanik LPP honetan definitu den ingurumena hobetzeko baldintzapenerako adierazi egin diren eskakizunak.

Parketik hurbil, Markomin-Goikoa eta Mutxate harrobiak martxan ari dira.



Mañariko udal mugartean dagoen Markomin Goikoa harrobiak 1997tik dauka ustiapen-emakida (1997/10/29 EHAA), Meatzeei buruzko 22/1973 Legean ezarritakoaren arabera.

Mutxate harrobiaren ustiapenak, bestalde, Ingurumen Eraginaren Adierazpenean aldeko txostena jaso du, ingurumen-sailburuak 1993ko uztailaren 20an emandako Ebazpenaren bidez; bertan, harrobiaren goiko muga epe ahalik eta laburrenean suspertzeko gomendioa egiten da (Urkiolako Parke Naturalarekin lotzeko zona). Nahiz eta hori, Mañariako Arau Subsidiarioen 172 artikuluan adierazi den kontsiderazioa " Behin betiko mugaketa ezarriko du, kasu bakoitzean, Harrobien Plan Bereziak, Euskal Herriko Lurralde Antolamenduaren Batzordearen aldeko txostena lortu beharko duela" erabat indarrean dago. Industria eta Meatze Administrazioko zuzendariak 2000ko urtarrilaren 26an emandako ebazpenaren bidez, "C" ataleko baliabideen ustiapen zuzeneko emakida eman diote.

Nolanahi ere, Durangoko Eskualde Egituran ingurumena suspertzeko lanak ez dira harrobietara edo AHTren balizko eraginetara mugatu behar; izan ere, azpiegiturek, industria-instalazioek eta halakoek sorturiko eraginak asko dira eta horien gainean jardun beharra dago, Ibaizabalen paisaia- eta ingurumen-birkualifikazioa egiteko, eta beraz, gizarte- eta ekonomia-birkualifikazioa egiteko.

Zentzu honetan, jarduerarik gabe dauden harrobiak, eta baita zabortegi bertan behera utzitako edo legeztatu gabeak, ingurune naturalaren categoría emateari gain jarritako baldintza baten modura kontsideratuak dira LPPren aldetik, kaltetua izan den ingurua egokitzek jarduketen beharrizanean daudenak.

### 4.4.7 Industria-espezializazioaren jarraibidea eta egitura ekonomikoaren dinamismoa.

| SENDOTASUNAK | AHULTASUNAK |
|---|---|
| θ Kultura-nortasuna eta enpresa-tradizioa, metalurgian eta metalezko eraldatuetan.<br><br>θ Industria-egitura tradizionalak modernizazio-prozesua jarraitzen du, produkzio-segmentu askotan.<br><br>θ Know-how deritzona finkatzea, produkzio-metodoetan.<br><br>θ Inbertsio-esfortzu handia, eta horrek eragin ona izan du sektorearen barruko lehia-gaitasunean.<br><br>θ Berrikuntza-sistema, Teknologiaren Euskadiko Sarea, Europan erreferentziakoak diren berrikuntza eta teknologia kontzeptuak sustatzeko eta garatzeko.<br><br>θ Produkzio-sistemaren barruko pizgarrien ugaritasuna, trebaturiko laneskua hezteko.<br><br>θ Industria-egitura nazioartean sartzea, gero eta gehiago.<br><br>θ Klusterrak sortzea, lankidetza-proiektuen garapenerako foroetan finkatzeko aukera izateko.<br><br>θ Industria-kluster berrien sorrera, teknolgia-eduki handikoak (ekipo-ondasunak).<br><br>θ Posizio geoestrategikoa eta azpiegituren erabilgarritasuna.<br><br>θ Azpikontratazioko industria-egitura trebatua edukitzea.<br><br>θ Lankidetza-tresnen hedapenaren eraginezko kanpoko elementuak aprobetxatzea, eta baterako estrategiak zehaztea, eskalako | θ Produkzioaren dibertsifikazio urria eta Metalurgiako nahiz Metalezko Eraldatuen arloko gehiegizko espezializazioa.<br><br>θ Eskualde Egiturako industria-espezializazioa balio erantsi alturik gabeko jardueretan pilatzen da.<br><br>θ Enpresen tamaina atomizatua, zenbait enpresa-estrategietan eragina duten segmentuetan; esate baterako, nazioartean hedatzea, finantziazioa lortzea (baldintza lehiakorretan) eta inputak eskuratzea.<br><br>θ Truke-foroetako presentzia urria eta enpresa-estrategien azterketa komun mugatua.<br><br>θ Zenbait arlotan, zerbitzu publikoen zuzkidura urria; adibidez, informazioaren hornidura eta berrikuntzaren sustapena.<br><br>θ Industria-lurzoruaren urritasuna, Amorebieta-Etxanon izan ezik. Eskualde Egiturak Bilbo Metropolitarreko asetzea arintzeko duen eginkizunaren eraginez, epe ertainean beharrezkoa izan daiteke lurzoru gehiago kalifikatzea.<br><br>θ Zerbitzu aurreratuko enpresen zuzkidura txikiegia, bertako enpresa-oinarria indartu ahal izateko.<br><br>θ Enpresetan informazioaren teknologien erabilera mugatua. |

| | |
|---|---|
| ekonomiak sortzeko aukera duten eremuetan (I+G, nazioartean sartzea, merkaturatzea, inputak erostea, finantziazioa lortzea). | |

| MEHATXUAK | AUKERAK |
|---|---|
| θ EAEko enpresa guztiek ezin izango dituzte bete industria nazioartean sartzen joateko baldintzak (produkturik onena, kalitatea, prezioa, teknologia).<br><br>θ Lehia handiagoa egotea, pezetaren truke-tasa desagertzearen ondorioz.<br><br>θ Heziketaren eta teknologiaren arloko inbertsio prozesua geldiaraztea edo moteltzea, nazioarteko lehiarik gogorrena jasaten duten enpresetan.<br><br>θ Enpresa txikien teknologia informazioaren eta komunikazioaren teknologien garapenera egokitzeko zailtasunak.<br><br>θ Ziklo ekonomikoa aldatzea. | θ Teknologia egokitzea, sektoreko teknologia espezifiko berriak sartuta.<br><br>θ Langileen heziketa maila eta heziketa-egokitzapena funtsezko balio estrategikoa da sektorea lehiakorra izateko.<br><br>θ Batasuneko merkataritzarako funtsezko azken hesietariko bat ezabatzea; pezetaren truke-tasa eta horren aldagarritasunak sorturiko ziurgabetasuna.<br><br>θ Transakzioen kostuak murriztea, Euroaren Eremuko herriekiko eragiketetan.<br><br>θ Berrikuntza teknologikoak eskuratzea, informazioaren erabilera orokortzearen ondorioz.<br><br>θ Elementu eragiletzat jardun dezaketen Tokiko Taldeak egotea. |

## 5. PROPOSATURIKO LURRALDE EREDUAREN OINARRIAK

### 5.1 Durangoko Eskualde Egitura indartzea, funtsezko pieza baita Euskadiko eta Bizkaiko lurralde-egituran, bere posizio estrategikoaren eta irisgarritasun handiaren eraginez

Durangoko Eskualde Egiturak Bizkaiko eta Gipuzkoako Lurralde Historikoak komunikatzeko lurralde-eginkizuna dauka, eta, neurri txikiagoan, Bizkaiko Isurialde Atlantikoa eta Arabako Lautada komunikatzekoa ere bai. Eremuaren eraketa geografikoa eta komunikazio-sistema garrantzitsu baten garapena (Ibaizabalen igarobide naturala aprobetxatuz) daude errealitate horren oinarrian.

Baina azken mende erdiko bilakaera ekonomikoaren eraginez (industria-espezializazio handiko bilakaera), Durangaldeko igarobideak hobariak jaso ditu jarduera ekonomikoetarako zein hirigintzarako lurzorua edukitzetik eta EAEko beste haran batzuek (haran estuagoak eta lehenagotik industrializatuak) baino itotze txikiagoa edukitzetik. Durangoko Eskualde Egitura, horrela, igarobide hutsa izatetik hiri- eta industria-hazkundeko ardatz garrantzitsua izatera igaro da.

Durangoko Eskualde Egituraren Lurraldearen Zatiko Plana errealitate horretatik abiatzen da, horrek dakartzan arazo eta aukera guztiekin; bere helburua, izan ere, Ibaizabalen igarobideak Euskal Autonomia Erkidegoan eta, hain zuzen ere, Bizkaiko Lurralde Historikoan duen funtsezko piezaren izaera indartzea da. Eskualde Egiturarako eta herri-proiekturako kalitatezko lurralde-ereduaren ikuspegitik begiratuta, “indartzea” ez da egoitzaren eta jarduera ekonomikoetarako lurzoruaren arloan ikusten diren hazkunde-joerak sustatzea bakarrik.

Indartzea, proposaturiko ereduaren barruan, kalitatezko lurralde-garapena sustatzea da; horrek, alde batetik, hiri- eta industria-hazkundeen arteko oreka nahiz bateragarritasuna eragiten du, eta bestetik, jarduera ekonomikoetarako eta egoitza-eremu berrietarako azpiegituren, ekipamenduen zein zuzkiduren garapen paraleloa.

Eremuaren kalitate-irudia indartzea, era berean, haraneko isurialdeetan barreiaturik dauden egoitza-garapenak kontrolatzea da; horiek finkaturiko landaguneetara mugatuko dira, landa-idiosinkrasia mantenduta; baina, aldi berean, ezabatu egingo da eraikuntza-hazkundearen itxaropena, lehendik dauden guneak aldian behin handitzearen bidezkoa.

Eremuaren eginkizuna indartzea, azkenik, lurzoruaren erabilera desberdinen eta bertako paisaia-egituren arteko orekak bermatzea eta zaintzea da, baita hango ondare ekologikoa zorrotz babestea ere: Eskualde Egiturari kalitate eta nortasun handia ematen dioten mendi-inguruetan ez ezik, haran-hondoan dauden landa- eta natura-eremu batzuetan ere bai. Hori, gainera, lagungarria izango da hiri- eta industria-jarraipena eta itotzea ekiditeko (industrizalizazio zaharreko EAEko beste haran batzuek dutena) eta arrisku natural batzuk (batez ere, uholdeak) ekiditeko nahiz murrizteko (lurzoruaren erabilera desegokien eta urbazterrak suntsitzearen eraginezko arriskuak).

## 5.2 Haran-hondoko hirigintza handiaren eta baserrian oinarrituriko nekazaritza-jardueraren kontserbazioaren arteko bizikidetza zaintzea

Lehen esan dugunez, Durangoko Eskualde Egiturako lurralde-kalitatea indartzeko, zaindu egin behar dira lurzoruaren erabileraren eta paisaiaren arteko kontrasteak, haran-hondoko hiri- nahiz industria-espazioaren eta baserriko landa-munduaren artekoak; hori Ibaizabalek, Zalduk eta Zumelegik eratutako landazabaletatik zein isurialdeetatik hedatzen da, eta horiek Atxondoren, Mendiolaren, Mañariako goialdearen edo Oromiñoren alboko haranetako lurrralde osoan daude (azken hori Ibaizabalen iparraldeko isurialdean).

Baserriko erabileren eta paisaiaren zaintzak, hirigintzako dimentsioa ez ezik, nekazaritzako eta abeltzaintzako dimentsio sektoriala ere badu. Hirigintzaren ikuspegitik, baserriaren paisaiaren garbitasuna (baserria eraikitako elementutzat eta, batik bat, ustiapen motatzat hartuta) eraikuntza-garapen berrien arloan diziplina zorrotza ezarrita bermatzen da, eta garapen horiek, betiere, landaguneetarako eta barreiaturiko baserri berrietarako ezarritako araudia bete behar dute; izan ere, baimenduta egoteko, beharrezkoa da nekazaritza- eta abeltzaintza-jarduerari lotuta egotea, Lurzoruari eta

Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeko 31. artikuluan ezarritakoaren arabera. Lurraldearen Zatiko Planetik sortzeko moduko jarraibideak (baserrien tipologien, materialen, itxieren eta abarren arlokoak) edota udal-ordenantzak, izatez ere, eraikin berriak landa-paisaian ondo integratzeko tresnak izan behar dira.

Baina baserriaren landa-izaeraren zaintza, ondare mailakoa edo ia arkeologikoa den tratamenduan ez ezik (hori gune eta multzo itxi batzuetarako soilik izango litzateke baliozkoa), ustiapenaren funtzionaltasunean oinarritu behar da. Nekazaritzako nahiz abeltzaintzako eta basoko jarduera bultzatzeko eta sustatzeko (helburutzat produkzioa eta ingurumenaren zein paisaiaren hobekuntza hartuta), ustiapenaren egitura hobetu (tamaina eta lursailak, gehienbat) eta bideragarritasun ekonomikoa nahiz titularren arduraldi osoa duten enpresak sortu behar dira.

Aukera hori ez da, hala ere, hedatuena, era askotako zergatiak (gizartekoak eta landa-lurzorukoak) aintzat hartuta; beraz, jardueraren mantenamendua, kasurik gehienetan, jarduera anitzeko familia-unitateen arloan planteatu eta sustatu behar da; arlo horretan, abeltzaintza- jarduera eta, neurri txikiagoan, nekazaritza-jarduera laneko nahiz errentako beste iturri batzuk dira (sarritan, bigarren mailako iturria). Izan ere, nekazari tradizionalarekin batera, jarduera sustatzeko politiken barruan, arduraldi partzialeko baserritarra ere kontuan hartu behar da, nekazaritza- edo abeltzaintza-jardueran duen arduraldia txikia bada ere; izan ere, hori erabakigarria izan daiteke lurralde-kultura eta lurzorua erabiltzeko modu jakina mantentzeko, eta hori nortasunaren adierazlea eta kalitateko elementua da gero eta urbanizatuagoa den Eskualde Eremuko zona askotan.

## 5.3 Lurraldearen zentzuzko erabileran oinarrituriko hiri-garapena sustatzea

### a) Lurzoru-baliabidearen kontsumoa mugatzea: Eskualde Egiturako “harrera-gaitasuna”.

Durangoko Eskualde Egiturak ez du jasan EAEko beste eskualde-egitura batzuen itotze mailarik; hala eta guztiz ere, eremuko industrializazio handiaren eraginezko garapenak lurzoruaren kolonizazio iraunkorra sortu

du, eta horrek mugatu egin du baliabide oso urri baten erabilgarritasuna, gehienbat topografiaren berezko ezaugarriak ere aintzat hartuta, bertan lurzoruaren hiri-erabilera guztiak haran-hondoa lortzeko lehiatzen baitira.

Garapena gehien sustatzen duten ereduek beti ez dute kontuan hartu lurzorua baliabide urria dela; gainera, hori zuhurtasun- eta iraunkortasun-irizpideekin erabili beharrean, batzuetan alferrik galdu dute, eta, horrela, muga fisiko eta ekonomiko argiak dituen eremu baterako komenigarriak ez diren ezarkuntza-ereduak sortu dituzte.

Azpimarratu egin behar da lurzorua ondasun urria dela eta “baliabide honen kontsumoa murriztea” eragiten duten ereduak erabili behar direla.

Lan-ildo honetan, Lurralde Antolamenduaren, Hirigintzaren eta Ingurumenaren diziplinetan urte batzuetatik hona erabilitako “harrera-gaitasuna” kontzeptua hartu da aintzat, lurzoruaren erabilerak edo jarduerak (egoitza-erabilerak, jarduera ekonomikoak, turistikoak, etab.) edukitzeko eremuen edo zonen egokitasuna mugatzeko. Kontzeptu horren barruan, murriztapenaren edo mugaren ideia sartzen da, hortik aurrera baliabide baten ustiapena kaltegarria izan daitekeenean.

LZP honek ekonomia-irizpide hori aplikatu eta lurzoruaren kontsumoa mugatzen du, azken urteotako joera iraultzearen aldeko apustua eginez.

Horrela, finkaturiko hiri-lurzoruak mantentzearen nahiz berreskuratzearen edota eraikitako ondarea suspertzearen aldeko apustua egiten da, lehendik dagoena berriro erabiltzeko elementutzat, eraginpeko lurzoruak sailkapen berrietan sartu barik.

Erreferentziako beste elementu bat, izan ere, indarreko udal-planeamenduaren gaitasuna kalkulatzea da; hau da, etorkizun hurbileko baliozko hazkundeak non egingo diren eta lurzoruaren hiri-erabilerak non aurreikusten diren.

Azkenik, balizko okupazioko eremu berriak zehazten dira, beharrizanak eta oraingo lurzoruen erabilera berriak hartzen duten gaitasuna baloratu ondoren.

Orain arte hiri-erabilerarik izan ez duten lurzoruen kolonizazioa eragiteko proposamenek baldintza egokiak bete behar dituzte, honako honi dagokionez: komunikazioko nahiz garraioko azpiegiturak irisgarriak izatea, zerbitzuen oinarrizko azpiegitura-sareak egotea edo horiek ondo betearazteko aukera bermatzea, hiri-erabilera berriek natura- zein landa-inguruan sortzen dituzten eraginak murriztea eta paisaia mantentzea, eraikuntza iraunkorreko fatxada baten garapena saihestuz, gehienbat haran-hondoetan, hiri-erabilerek eremu horiek lortu nahi izaten baitituzte.

**b) Ezarkuntza tradizionalen nortasuna eta kultura-ondarea zaintzea, hazkunde-beharrizanak ere beteta.**

LZPk, lurraldearen antolamendua egitean, lurzoruaren erabilera tradizionalaren eredua aplikatu nahi du; hain zuzen ere, gizartearentzat aberasgarriak diren kudeaketa-moduak sustatzen dituen eredua, kudeaketaren elementu edo erabilera kaltegarriak ezabatu edo faktore positibo bihurtzen dituen eredua.

Hiri-garapenaren ikuspegitik begiratuta, Eskualde Egituraren ezarkuntza-eredua, diagnostikoaren fasean esan dugunez, lurraldearen topografiaren eraginpean dago erabat.

EAEko haran askotan gertatu den bezala, giza jarduerak lurraldearen okupazioan sortu duen ereduak, zenbait hamarkadatan funtzionala izan arren, gatazkak sortzen ditu iraunkortasunaren arloan.

Azken hamarkadako egoitza-garapenaren fenomenoa eredu tradizionala itxuragabetzen hasi da; horrela, gune tradizionalen balio fisikoa eta ingurumenaren nahiz kulturaren aldetik duten balioa galtzen ari dira.

Lurraldearen Zatiko Planaren bi helburu nagusietariko bat, izan ere, ezarkuntza tradizionalek lurraldearen antolamenduan protagonismoa edukitzea da; horretarako, horien egitura tradizionala itxuragabetzen duen gehiegizko hazkundetik babesteko neurriak hartuko ditu, hiri-jarraipenak haran-hondoan nekazaritzako landazabalekin banaturiko eta ibaiertzak egituraturiko ezarkuntzen oroimen historikoa ez suntsitzeko.

Horrela, hauxe lortu nahi da: Eskualde Egiturako ezarkuntza bakoitzak lurraldea egituratzearen arloan duen eginkizuna finkatzea, barreiaturiko biztanleriari nahiz landaguneei zerbitzuak hornitzea eta oraingo eskari endogenoari zein exogenoari erantzun egokia ematen dion hazkundea aurreikustea, landaguneen hazkundea ekiditeko eta lurzoruaren nahiz etxebizitzaren prezioa neurri barik ez garestitzeko.

Horretarako, oraingo ezarkuntzetan ekintzak gauzatu behar dira, ingurumena eta gizartea narriatzeko fenomenoak saihesteko. Lurralde-eredu berriaren barruan proposatzen diren jarraibideak, hiri-planeamenduaren barruko toki-autonomiari dagokionez, lagungarriak izango dira iraunkortasunaren helburu orokorrak lortzeko.

1. Erdigunearen susperraldia eraikinetatik espazio publiko berezien hobekuntzara hedatu behar da. Udal-egitamuek bi alderdi horiek integratu beharko dituzte, eraikitako eremuen eta hutsik dauden eremuen arteko oreka lortzeko. Horretarako, bateratu egin behar dira forma (hiri-eremua berrantolatzetzat hartuta) eta edertasunaren ideia. Ikuspegi horretatik begiratuta, erdiguneetako eremu publikoen hirigintza berria irismen handiagoz planteatu ahal da, plazen edo kaleen apaindura epidermiko hutsera mugatu barik, baldin eta azpiegituren hobekuntza, birgaitze nahiz suspertze funtzionala eta gizarte-kohesioa ere aintzat hartzen badira.

2. Hobekuntza-jarduketak hirigune historikoetatik finkaturiko gune osora hedatu behar dira, eta horren barruan kanpoaldearen hirigintza berria ere sartuko da.

3. Mugatu egin behar da ibilgailu pribatua erdigunean sartzea; horretarako, gune bakoitzaren egoerari egokituriko saiheste- edo disuasio-neurriak hartuko dira; kasu batzuetan, oinezkoen uharteak (mugatuak) sortuko dira, edota egoiliarren nahiz zerbitzuen ibilgailuetarako soilik diren eremuak.

4. Ondarea babesteko arauzko neurriak errealismo- eta zentzu-irizpideetan oinarrituz formulatu behar dira. Babesturiko eraikinen

katalogoak, berriz, egokitu egin behar dira higiezinak mantentzeko eta hobetzeko benetako aukeretara. Araudi luzeegiak eta lausoegiak egonez gero, hiria birgaitzeko kulturak ospe txarra hartzen du, edo bestela, oztopatu egiten da higiezinak biztanleriaren beharrizanetara egokitzea, turismo-erabileraren mesedetan.

5. Oso interesgarria da erabilera ezegokiak dituzten edo zaharkituta nahiz hutsik dauden higiezin eta instalazio publikoak zuzkidura erabilera publikoetarako suspertzea.

**c) Haran-hondoan hiri-jarraipenaren eraketa ekiditea, ibaibidearen inguruan dauden eremu naturaletako paisaiak suspertuta.**

Haran-hondo osoan hirigintza-orban bakarra eta jarraitua eratzea ekiditen duten ekintzak garatu behar dira, ingurumena eta paisaia ez narriatzeko, eta, batik bat, ibaiaren ibilguaren inguruko hiriguneen bitartez kolonizatu den lurralde honen oroimena ez galtzeko. Horretarako, LZPk **Paisaiaren Ibai-sistema** sortzea proposatzen du, ubideak eta horren ertzek osaturiko igarobidea; bertako ibilbideen helburua, izan ere, balio naturaleko espazio batzuk babestea eta horietaz gozatzea izango da, eta eremu horiei, berriz, ingurumen interes handiko hiri-inguruko landazabal izena eman zaie.

Proposamen hau, epigrafe honetan egin arren, Lurralde Ereduaren azalpen honen amaieran azaldutakoaren osagarria da, eta azken hori Durangoko Eskualde Egiturarako proposatzen da, bertako baliabide naturalen babes aktiboa bermatzeko, baliabideok paisaiaren kalitatea bermatzen baitute, zalantzarik gabe.

**d) Hazkunde barreiatua eta landagune berrien eraketa mugatzea.**

Eskualde Egitura guztiz gizatiarturiko lurraldea da, eta bertan, giza jarduera gehienbat igarobidean egon arren, ondoko maldetan eta haranetan ere eraikuntza asko daude sakabanatuta.

Eraikin horietariko gehienak baserriaren erabilera duten eraikinak dira, eta, inguruaren nekazaritza- eta abeltzaintza-eginkizuna galdu badute ere, lehenengo edo bigarren egoitzako etxebizitzatzat iraun dute.

Eraikin horiek lurzoru urbanizaezinean daude; bertan, legez ez dago baimenduta etxebizitzak eraikitzerik, baldin eta horiek nekazaritza- edo abeltzaintza-jarduerari lotuta ez badaude. Hala eta guztiz ere, sarritan beharrezkoa da eraikin kopurua handitzea edo belaunaldi berrietarako eraikinak egitea, eta, horrela, landaguneak kontrolik gabe hazi dira.

Landagunea ez da lurzoru urbanizaezineko eraikuntza kontrolatzeko tresna; izan ere, hori sustatzeko elementua izan da, lurzoru urbanizaezinean etxebizitza kopuru jakina eraikitzea ahalbidetu baitu; ahalbideturiko kopuru absolutua ez da handia, baina kopuru handia da landagunea hartzen duen udalerriaren errealitatearekin konparatuz gero.

Lurraldearen Zatiko Planak landaguneak kontrolik gabe haztearen fenomenoa kontrolatu nahi du; izan ere, Lurraldearen Antolamendurako Artezpideetan, Landa Eremuaren balioa handitzearen aldeko apustua egiten da, eta, horretarako, zalantzarik gabe, suspertu egin behar da landagunearen berezko izaera, bertako ingurumen- eta paisaia-balioak mantendu ahal izateko.

Helburua ez da toki-ekonomia itotzea, landaguneen hazkundea saihestuz edo toki-ekonomiaren iturriak moztuz. Aldiz, egindako diagnostikoaren arabera, landaguneen hazkundeak azkenean kostu itzela dauka udalerrian, guneko auzotarrek hirigintza-zerbitzu berriak eta hobeak eskatzen baitituzte.

Bestalde, egindako egiaztapenaren arabera, lurraldean gunearen egitura tradizionala errespetatu barik egiten diren eraikin berrien ikusmen-eraginak murriztu egiten ditu, neurri handian, eremu osoaren paisaia- eta ingurumen-balioak, eta horren ondorioz, azkenean, zalantzarik gabe, galdu egingo da guneak orain eskualdearen turismo-garapenerako duen erakargarritasuna.

Landaguneen gehiegizko hazkundea geldiarazteko funtsezko estrategiatzat, Lurraldearen Zatiko Planak lehentasuna ematen dio udalerrien barruko heziketa- eta informazio-lanari, landaguneen

fenomenoari dagokionez, baita horiek ikuskatzeko irizpideak ezartzeari ere.

### e) Etxebizitza publikorako lurzorua sustatzea.

EAEko Etxebizitzen Beharra eta Eskariari buruzko Inkestaren (2008) emaitzen arabera (Eusko Jaurlaritzako Herrilan eta Garraio Sailak egindako Ikerketa), EAE osoan etxebizitza lortu behar duten 74.461 gazte inguru daude, zifra honek murriztea suposatuz azken lau urteetan beharrizan haztatua izan duten 80.000-90.000 pertsonen bandari dagokionez, 90 hamarkadan izandako hazkunde handiaren ondoren (faktore demografikoen eraginezko hazkundea).

Aitzitik, lau urtetik hona beharrizan hau beherantz doa, eta bere balioa txikiena da 2001tik hona. Honen arrazoia ez da, bakarrik, azken urte hauetan izan den lehen etxebizitza eskuratzeko prozesu trinkoa, ezpada ere eguneko egoera ekonomiko larria.

Hala eta guztiz ere, beharrizanen bolumena oraindik ere maila altuan dago, gazterik gehienek etxebizitza askea lortzeko dituzten arazoen ondorioz.

Zehatzean, Durangoko alde funtzionalerako, eskuratu diren azken datuak dira Etxebizitzako Beharrizan eta Demandari buruzko Estatistikaren Emaitzak, 2007. urtekoak. Txosten horretan 2.043 etxebizitza behar direla kalkulatu da, eta urtebeterako eskaria 381 etxebizitzakoa da. Aldiz, aldaketa-beharrizanak erdira heltzen dira, hau da, 1.804 etxebizitza. Aldaketarako eta sarbiderako beharrizanek, multzoan, askogatik ere gainditu egiten dutenek, aurrekoen handitze bat suposatzen dute bigarrenen gehikuntzaren aurrean, aurreko urteetan erregistratuei dagokienez..

Halaber, beharrizan subjektiboa eta birgaitze-eskaria ere badago, 3.133 etxebizitzakoa, eta urtebeterako beharrizanak 845 etxebizitza ingurukoak dira.

Beharrizana zutenen beharrizan mota eta finantza gaitasuna kontuan hartuta 2005ean egindako txostenak ezartzen denez, aldatzeko beharrizana dutenen %13,3ra eta lortzeko beharrizana dutenen %47,6ra heltzen da.

Txostena aztertuta ondorioztatzen denaren arabera, talde batzuek, gehienbat gazteek, pertsona bakarrerako beharrizana dute (ezkontzeari edo bikotearekin bizitzeari lotu gabeko beharrizana), eta eurentzat ia ezinezkoa da etxebizitza erostea (euren diru-sarrera guztien %50 inguru).

Helburua babes-politikak beharrizana duten profil desberdinetara egokitzea da. Horri dagokionez, talderik baztertuenen aldeko laguntzak zehaztu ahal dira, horiei alokairuko etxebizitzaren eskaintza berezia eginez, eta, horrela, gainditu egingo dira halako lagapen motarekiko egoten diren mesfidantzak.

Bestalde, oraingo planteamenduen arabera, kalitate handiagoko (eta prezio garestiagoko) etxebizitza babestuetarako laguntzak ere aurreikusi behar dira, egoera ekonomikorik onenean dauden eta etxebizitza behar duten taldeentzat.

Lurzoruaren erabilgarritasuna funtsezko faktorea da etxebizitza-jarduketak garatzeko. Udalek, udal-planeamenduaren bitartez, lurzoru egokiaren kantitate nahikoa segurtatzeko ardura hartu behar dute, babesturiko etxebizitzen sustapena egiteko (sustapen publikoa edo pribatua).

Udalek, batez ere udalik handienek, eskumenak izan behar dituzte, euren etxebizitza publikoen ondarearen administrazioan eta sustapenean. Etxebizitza horien kudeaketa garrantzi handikoa da, parke publikoaren administrazio ezegokiaren edo kontserbazio txarraren ondorioz sortzen diren arazoak ekiditeko.

Eskualde Egiturako etxebizitza babestuaren etorkizuneko eskariaren balorazioan, esan behar da emantzipazioaren eraginezko beharrizanak kalkulaturiko etxebizitza-beharrizan guztien %75-80koak izan daitezkeela, eta horietatik %80 babes-araubideren bat duten etxebizitzetarako izan behar da, aintzat hartuta eskaria egiten duten familien errenta-gaitasuna.

Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeak aurrerakuntza handia ekarri du, ordura arteko legeria autonomikoari dagokionez, babes-araubide publikoren bati loturiko etxebizitzaren gutxieneko estandarrak betetzearen arloan. Horrela, lehengo arauak 7.000 biztanletik gorako udalerrientzat ezartzen zuen eskakizun hori, eta, beraz, horren eraginpean Abadiño, Durango, Zornotza eta Elorrio baino ez zeuden (Eskualde Egiturako udalerririk handienak, biztanle kopuruari dagokionez). Legezko arau berriak, berriz, 3.000 biztanletik gorako udalerri guztientzat ezartzen du eskakizuna, baita 2.000 biztanletik gorako hiri-lurzoruko gune jarraituak dituztenen udalerrientzat ere.

**f) Eskualde Egiturako ekipamenduak eta zerbitzuak modu orekatuan birbanatzea.**

LAAetan adierazitako planeamendu orokorren arabera, eskualdeetako leku nagusiek eta bigarren mailakoek funtsezko eginkizuna izango dute eskualde-lurraldearen antolamenduan eta artikulazioan, hori erreferentziako gunea baita zuzkidurak eta, batez ere, oinarrizko azpiegiturak banatzeko. Erdiguneko leku hauen eredua berebizikoa da Durangoko Eskualde Egiturako landaguneetarako, eta egokitu egin behar da Ibaizabalen hiri- eta industria-igarobidea ardatz nagusitzat hartzen duen lurralde-egiturara. Ardatz nagusi hori finkatu ondoren, artikulazioko beste nodo batzuk zehaztu behar dira:

- Durangok, Iurretak, Abadiñok eta Izurtzak osaturiko hiri-eremua. Horren demografia eta lurralde mailan duen garrantzia nahiz esangura aintzat hartuta, aglomerazio hau berebiziko erdigunea da eskualdeko erreferentziako lekuaren eginkizuna koherentziaz betetzeko, eta, horretarako, gainera, lagungarria izango da igarobidean duen erdialdeko posizioa.
- Amorebieta-Etxano eta Elorrio, igarobidearen muturretan, aintzat hartuta bertako demografia (Amorebieta-Etxanoren kasuan) eta lurralde-garrantzia (Elorrioren kasuan), eskualdeko bigarren mailako erreferentziak izan daitezke, eta nolabaiteko autonomia funtzionala izango dute.

Bestalde, kontuan hartu behar da Bilboko aglomerazio metropolitarraren hurbiltasuna, elementu horrek gogor polarizatzen baititu jarioak, ez bakarrik lanari dagokionez, baita oinarrizko beharrizanak betetzeari dagokionez ere (merkataritzako eta ekipamendu bereziko beharrizanak).

Horrenbestez, LAAek emandako Lurralde Eredua osatu eta eskualde-egitura bakoitzaren egiturara nahiz lurralde-errealitatera egokitu behar denez, eskualdeko erreferentziako leku nagusi bakarra aukeratzea proposatzen da (Durango eta horren hiri-eremua), eta eskualdeko bigarren mailako erreferentziako bi leku (Amorebieta-Etxano eta Elorrio); azken horiek, elkarri lotuta eta modu osagarrian, eskualde mailako eginkizunak zentralizatuko dituzte.

Hiri-eragineko eremu nagusien eta bigarren mailako eremuen mugaketa horren helburua, izan ere, zehazturiko gune bakoitzaren inguruan grabitatu behar duten udalerriak biltzea da, zuzkidura publikoak hobeto eman ahal izateko. Bigarren mailako eremuak eta erdigune funtzionalak zehazteko abiapuntua, izatez ere, Durangoko Eskualde Egituraren lurralde-egitura bera da, gehienbat bertako ezarkuntzak, baina beste irizpide batzuk ere baloratu eta haztatuko dira: lehendik dauden zona-banaketak (osasunekoa, hezkuntzakoa), udalerriz gaindiko ekipamenduak, etab. Helburua demografiaren aldetik orekatuak diren eremuak zehaztea da.

Irizpide horiek guztiak aztertuta ondorioztatzen denez, ekipamendu-sistemaren lurralde-egitura honako leku nagusi hauen eta euron eragin-aldeen inguruan egituratu behar da:

- Durango (eta bertan integraturiko hiri-eremua: Durango-Iurreta-Abadiño-Izurtza) eskualdeko erreferentziako udalerria izango da eta eragina izango du Eskualde Egiturako udalerri guztietan.
- Amorebieta-Etxano eta Elorrio, bestalde, eskualdeko bigarren mailako erreferentziako udalerriak dira, eta nolabaiteko autonomia funtzionala dute. Horien eragin-aldeen barruan udalerria bera baino ez da sartzen, eta, Elorrioren kasuan, Atxondo ere bai.

## 5.4 Ibaizabalen igarobideko lehiakortasun- eta birkualifikazio-elementuak indartzea.

### a) Bertako industria-klusterra indartzea, horren birkualifikazioa eginez, suspertze-eremuak adierazita.

Durangoko Eskualde Egituran industria tertziarizatzeko prozesua sortzen ari da, aldaketa teknikoa eta enpresa-estrategia berriak apurka-apurka gero eta gehiago sartzearen ondorioz. Durangoko Eskualde Egiturako industriaren joeren elementu nagusiak honako hauek dira, laburbilduta: alde batetik, industria-egitura espezializatua finkatzea, eta bestetik, produkzioa dinamika gogorreko adarretarantz dibertsifikatzea (berrikuntza eta aldaketa teknologiko gero eta handiagoko adarrak).

Eskualde Egituraren oinarri ekonomikoen barruko aldaketa horien eraginez, aldatu egin behar dira produkzio-aparatuaren kokatze- eta ingurumen-eskakizunak, eta, horretarako, hiri- eta lurralde-ingurua egokitu beharra dago.

Horrenbestez, orain zaharkituta dauden jarduera ekonomikoetarako eremuak **suspertzea** proposatzen da, industria-paisaia egokitzeko eta horren irudia hobetzeko, EAEko industrializazio masiboan sorturiko eremuetan; betiere, produkzio-erabilera mantendu egingo da, baina izaera berritzaileagoarekin eta teknologikoagoarekin.

Eszenatoki berri horrek industria-enpleguko profilak sortzen ditu, ekonomiaren enplegu osoaren batez bestekoetatik gorako hazkundeekin. Izatez ere, enplegu espezializatuko beharrizan gero eta handiagoak dira, eta, horiek, gaur egun, gainditu egiten dute lan-merkatuak erantzuteko duen gaitasuna. Lanbide-profilen berritasunaren eta horri loturiko ezagupenaren ondorioz, bestalde, pilaketa handia egon da ikaskuntza-ekonomia finkatuak eta heziketa-zentroak dituzten lurraldeetan.

Tokiko lanesku trebatuaren eskaintza egotea (halako jarduerak egiteko), izan ere, kanpoko ekonomia da Eskualde Egiturako enpresentzat, trebakuntza espezializatuaren eta soldata-kostuen arloan. Industria bereko enpresen pilaketak okupatu trebatuen lan-merkatu bateratua sortu eta

horrek mesede egiten die enpresen nahiz langileen interesei. Halako lan-merkatu bat egoteak murriztu egiten du ziurgabetasuna, urritu egiten baita langabezia-arriskua, enpresen lan-eskariak ez baitaude beti euren artean lotuta; hori ona da langileentzat. Era berean, enpresek irabaziak lortzen dituzte baterako lan-merkatua partekatzean, merkatuaren aldaketekiko lan-egitura malgua baitute.

Beraz, ezinbestekoa da neurri aktiboak har ditzaketen pertsonen gaitasuna eta kopurua hobetzea, pertsona horiek baldintza ahalik eta onenetan laneratzeko, Eskualde Egitamuan biztanleria aktiboaren hazkundea, izatez ere, lan-merkatuan orain aktiboan ez dauden pertsonak sartzearen eraginezkoa izango da: aktiboa izan daitekeen biztanleriaren bilakaera demografikoaren ekarpena negatiboa ere izan daiteke.

EAEn eta, hain zuzen ere, Durangoko Eskualde Egituran, ahalegina egiten ari da hezkuntza-sistema eta produkzio-sistema ahalik eta hurbilen egoteko, eta, horrela, giza baliabideen trebakuntzaren eta laneskuaren oraingo eskarien arteko egokitzapen handiagoa bermatu ahal izateko. Lurralde honetan dagoen zentro-multzoaren helburua hezkuntza-eskaintza hobetzea, gaitasun teknologikoa hobetzea zein gaurkotzea eta, oro har, irakaskuntzaren kalitatea hobetzea da. Era berean, Arrasatetik (industria-zentro nagusia eta, horren barruan, metalgintza-adarra), eta, hortaz, bertako heziketa- zein ikerketa-zentroetatik hurbil egoteak konparazio-hobariak eta kanpoko elementu positiboak eskaintzen ditu, Eskualde Egiturako lan-merkatuan.

Arrasatek “MONDRAGON UNIBERTSITATEA” sortzeko asmo handiko proiektua dauka; horren helburua eskualdeko oraingo unibertsitate mailako zentroak osatzea da (Arrasateko Goi Ingeniaritza Eskola, Oñatiko Enpresa Tekniken Eskola eta Eskoriatzako Irakasleen Eskola), diziplina tekniko, zientifiko eta humanistikoko fakultate eta eskola berrien bitartez. Udalerri horretan industria-jardueretarako hezkuntza-orientazioa dago.

EAEko Lanbide Heziketako Egitamuak, berori aplikatzeko eremuan instalaturik dauden ikastetxeekin batera, hobetu egiten du industria-enpresetako ikaskuntza-prozesu egituratuak nahiz sistematikoak jaso ahal dituzten pertsonen gaitasuna eta kopurua, eta horiek lanbide-kualifikazioko

ibilbideetan integraturik daude, lanbide-heziketako ikasketen, LHIko zentroen (Lanbide Hastapeneko Ikastaroetarako zentroak) eta Unibertsitateko praktiken bitartez.

**Durangoko Eskualde Egiturako industria-jarduerara bideraturiko heziketa-ikastetxeen direktorioa.**

| Izena | Udalerria | Ikastaroak |
|---|---|---|
| IES URRITXE-ZORNOTZA BHI | AMOREBIETA-ECHANO | Sistemen administrazioa: eraikineko instalazio-en mantenamendua; LH1-Administratiboa eta Komerziala; Batzilergoa; LH2 informatika, LH2 elektrizitatea. |
| DURANGALDEKO LANBIDE IKASTETXEA - CENTRO DE FORMACION OCUPAC. | ELORRIO | Metalezko erikuntzak, Zurgintza eta altzaria. |
| IURRETA GLHBI | IURRETA | Enpresen administrazioa; ekipo elektrikoak; fabrikazio elektromekanikoa; automozioa; sistema eta ekipo elektronikoak; LH1 metala; LH1 automozioa; Batxilergoa. |

Iturria : EGAILAN

Durangoko Eskualde Egiturako biztanleria aktiboaren heziketa maila ertaina-altua da, eta 1986tik 1996rako hamarkadan trebakuntzak aurrerapen handia izan zuen. Izan ere, 1986an ikasketarik gabeko biztanleria-ehunekoa %35 ingurukoa zen (EAEn %9,8) eta 1996an ehuneko hori EAEkoaren antzekoa zen (%2), oinarrizko ikasketak zituen biztanle kopuruak behera egitearen eraginez. Eskualde Egiturako espezializazio-jarraibideak eragin zuzen-zuzena izan du egoera horretan; izan ere, bertan, industria-jarduerak nolaibateko trebakuntza maila duten langileak behar ditu lanpostuetarako. Horrela, espezializazio-indize altuak daude esku-langileen kategorietan, batik bat industriako langileen eta makinen operadoreen artean.

Eskualde Egituran, oraindik ere, goi-ikasketak dituzten langileen kopurua EAEkoa baino txikiagoa da, arlo horretan giza kapitalaren zuzkiduran ahalegin handia egin den arren.

Eskualde Egiturako lan-merkatuaren ezaugarri nagusia, azken batean, epe luzean industriaren hazkunde-gaitasuna handitzeko oinarriak finkatzeko ahalmena duten egitura-ezaugarriak edukitzea da, ezagupena pilatzea sustatzen duen pizgarri-sistema bultzatzen baita. Industria-arloari loturiko kudeaketa eskolen, eskola teknikoen eta lanbide heziketako eskolen sustapena funtsezko balio estrategikoa da, lurraldeko industria-klusterren lehiakortasunerako.

**b) Enpresetarako kalitatezko zerbitzuak garatzea, hiriguneetan kokatzeko lehentasuna emanez.**

Azken urtekotako kokatze-prozesuen eta horietan eragina duten faktoreen ikerketak hauxe hartzen du abiapuntutzat: arazoak gero eta konplexuagoak izatea. Horrela, sustrai neoklasikoko kokatze-prozesuen ezaugarriak eraldatu dituen eszenatoki berria sortu da.

Geografia ekonomiko baten garapena egituratu duten ardatzak berrikuntza teknologikoa eta globalizazioa dira. Berrikuntza teknologikoak eragina dauka jarduerak kokatzeko faktore anitzen garrantzi erlatiboan, baita produkzio-sektoreek espazio geografikoarekin dituzten erlazioen multzoan ere. Horrela, sustaturiko logika espazial berriaren barruko aldaketek eragina dute establezimenduak kokatzeko jarraibideetan eta lurraldeen arteko jarioetan. Horren ondorioz, murriztu egiten da garraioaren kostuen eta baliabide naturalen eragin orokorra, eta, aldiz, azpiegitura teknikoei, produkzio-espazioaren kalitateari eta kapital ukiezinari gero eta garrantzi handiagoa ematen zaie, lerrun eta konplexutasun teknologikorik handieneko jarduerak erakartzeko faktore nagusitzat; soldata-kostuek eta lurzoruaren kostuek, berriz, kokalekura mugatzen dute euren eragin erabakigarria.

Lehia-esparru berriak hirien espezializazioa eragiten du, ezagupenaren arloko lan nahiz jarduera intentsiboetan eta balio erantsi handia sortzen duten jardueretan. Horren ondorioz, gero eta tertziarizazio handiagoa dago, bai industria jarduerak batera daudelako nahiz produkzioari zerbitzu aurreratuak eskatzen dizkiotelako, bai industria-enpresek fabrikazioaren aurreko zein ondorengo lanak bertan pilatzen dituztelako (erdigunean egon behar diren lanak). Horrek guztiak dimentsio berria eta garrantzitsua

sartzen du industria-errealitate metropolitarrean, eta, horrela, horrek gero eta lotura estuagoa dauka eraiki- eta berrikuntza-funtzioekin; horren eraginez, enpresa-eskariz eta hirigintza-gatazkaz beteriko espazioa sortzen da.

Amerikako hirien estrategiei buruzko ikerketa batek (Strategies for success: reinventing cities for the 21st century) aditzera eman duenez, 90eko hamarkadan hazkunderik azkarrena izan duten sektoreak bost izan dira: enpresetarako zerbitzuak, osasuna, ostalaritza, kudeaketa-zerbitzuak zein ingeniaritza eta, azkenik, eraikuntza-sektorean espezializaturiko zerbitzuak. Bost sektore horiek enplegu-sorkuntza berriaren %70 xurgatzen dute Amerikako 114 hiritan, eta, horien artean, enpresetarako zerbitzuak eta osasunekoak nagusitzen dira. Zerbitzuak hiriguneetan daude, zerbitzuen erabilgarritasunak hobariak sortzen baititu; adibidez, garraio-azpiegiturak, telekomunikazioak, etxebizitza, bulego-eraikinak (hiri-eremuetan) eta lan-faktorearen erabilgarritasuna nahiz kualifikazioa.

Antzeko zerbitzuak eta beste jarduera ekonomiko batzuk hurbil egotearen hobariak (inputak eman edo zerbitzu-enpresen bezeroak direnak) garrantzitsuak dira ziurgabetasunik eza murrizteko, kokatze-erabakiak hartzeko orduan. Inguru oso lehiakorrean diharduten zerbitzu-enpresa horietan, esperientzia eta espezializazioa hiriaren posizio erlatiboa hobetzen duten faktoreak dira. Unitate espezializatu guztien pilaketa geografikoari esker, enpresek produktibitatean irabaziak lortzen dituzte, multzoaren barruan ezarritako sinergien eraginez. Lehen adierazitakoak bezalako jarduera oso espezializatuetan ezagupena edukitzea, gainera, modurik onena da beste enpresa batzuekin lankidetza- eta estrategia-akordioetarako behar den informazioa eta esperientzia lortu ahal izateko.

Zerbitzu-enpresak kokatzeko faktoreen artean (lehen aipatutakoak), trebaturiko profesionalen zuzkidura nabarmentzen da. Jakina denez, zerbitzu-enpresek trebakuntza handiko zuzendariak, profesionalak eta teknikariak eskatzen dituzte, eta, jardueraren adar batzuetarako, horiek unibertsitate-heziketa oso altua eduki behar izaten dute. Baina, halaber, profesional talde horri malgutasun maila altua ere eskatzen zaio. Hau da, langileak egokitzeko eta aldaketak (batzuk oso azkarrak) barneratzeko gauza izan behar dira, informatika eta finantzak bezalako zerbitzu-eremu

batzuetan egoten diren aldaketak; hain zuzen ere, produktuak nahiz prozesuak berritzeari edo lehengo produktuen kalitatea hobetzeari loturiko funtsezko alderdietan ondo erantzuteko gaitasuna izan behar dute.

Hortaz, unibertsitateak eta lanbide-heziketako zentroak pilatuta, indartu egiten da hiriaren lehiakortasuna, eta, horri dagokionez, aipagarria da Eusko Jaurlaritzak hezkuntza-eskaintza zabaltzeko eta hobetzeko egin duen ahalegina.

Durangoko Eskualde Egituran, lan-merkatuaren egituraren osaketa aldatzen ari da (industrian eta nekazaritzan okupazioak behera egin du, zerbitzuen sektorearen mesedetan), eta horrek ezaugarri bereizgarriak ditu. Lehenengo eta behin, industria-sektorean lanaren galera handia da, batik bat metalen industrietan. Prozesu hori, neurri handian, zerbitzuen adarrean sorturiko lanarekin konpentsatu da.

**DURANGOKO ESKUALDE EGITURAKO LANDUNEN EGITURA**

| | Hazkundea | | | Okupatuen egitura | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 1991/1986 | 1996/1991 | 1996/1986 | 1986 | 1991 | 1996 | 1996-1986 |
| **EAE** | | | | | | | |
| Nekazaritza | -11.9% | -11.9% | -27.1% | 3.8% | 2.9% | 2.5% | -1.3 |
| Energia-ura | 38.8% | 38.8% | 48.1% | 1.1% | 1.3% | 1.4% | 0.4 |
| Industria kimikoa | -23.0% | -23.0% | -34.2% | 8.4% | 5.7% | 5.0% | -3.4 |
| Metalen industria | 5.6% | 5.6% | -10.2% | 20.9% | 19.5% | 16.9% | -4.0 |
| Beste industria batzuk | 2.7% | 2.7% | -13.0% | 10.9% | 9.8% | 0.0% | -10.9 |
| Eraikuntza | 42.7% | 42.7% | 28.6% | 6.0% | 7.6% | 7.0% | 1.0 |
| Merkataritza-hotela | 18.1% | 18.1% | 22.8% | 16.2% | 16.9% | 17.9% | 1.7 |
| Garraioa eta komun | 12.4% | 12.4% | 14.1% | 6.4% | 6.3% | 6.6% | 0.2 |
| Bankuak-aseguruak | 38.2% | 38.2% | 78.3% | 5.3% | 6.5% | 8.6% | 3.2 |
| Beste zerbitzu batzuk | 26.9% | 26.9% | 35.7% | 21.0% | 23.5% | 25.7% | 4.7 |
| DURANGOKO ESKUALDE EGITURA | | | | | | | |
| Nekazaritza | -13.1% | -13.1% | -35.6% | 2.4% | 1.9% | 1.4% | -1.0 |
| Energia-ura | 174.6% | 174.6% | 263.4% | 0.4% | 0.9% | 1.2% | 0.8 |
| Industria kimikoa | -25.6% | -25.6% | -18.3% | 7.0% | 4.7% | 5.1% | -1.9 |
| Metalen industria | -2.4% | -2.4% | -16.0% | 43.5% | 38.5% | 32.3% | -11.2 |
| Beste industria batzuk | 3.3% | 3.3% | 25.5% | 7.7% | 7.2% | 8.5% | 0.8 |
| Eraikuntza | 40.4% | 40.4% | 31.6% | 4.6% | 5.8% | 5.3% | 0.8 |
| Merkataritza-hotela | 34.1% | 34.1% | 42.2% | 12.7% | 15.5% | 16.0% | 3.3 |
| Garraioa eta komun. | 23.7% | 23.7% | 55.1% | 3.7% | 4.1% | 5.0% | 1.4 |
| Bankuak-aseguruak | 40.4% | 40.4% | 91.9% | 2.9% | 3.7% | 4.9% | 2.0 |
| Beste zerbitzu batzuk | 29.2% | 29.2% | 50.6% | 15.2% | 17.8% | 20.2% | 5.1 |

Iturria : **Eustat**

Jarduera ekonomikoaren tertziariazioa EAEn baino handiagoa izan da eta hori, berriz, okupazioak zerbitzurik gehienetan duen garrantzian ikusten da, Bankuen eta Aseguruen arloan izan ezik. Hain zuzen ere, merkataritza eta hotelak arloan eta beste zerbitzu batzuen arloan izan da dinamikoena lan-

merkatua, baina oraindik ere enpleguan egindako ekarpena EAEkoa baino txikiagoa da. Guztiarekin ere, enpleguei dagokienez, Durangon aberastasunik handiena sortzen duen sektorea industria da: 2001ean ia %43, eta ehuneko hori Euskal Autonomia Erkidegoko batez bestekoa (%28) baino askoz handiagoa da.

Enpleguaren %80 pilatzen duten udalerriek ez dute desberdintasun adierazgarririk enpleguaren egituran, eta bertan, industria nagusitzen da argi eta garbi. Nekazaritzak ia ez du garrantzirik herri horietan, Durangoko udalerrian zerbitzuen sektoreko espezializazio handia baitago, eta biztanleriaren ehuneko berrogeita hamarrek bertan egiten du lan. Hirugarren sektoreko jardueraren barruan, aipagarria da enpleguak beste zerbitzu batzuen arloan (enpresetarako zerbitzuak ere barne) duen garrantzia, eta 1996an sorturiko enplegu osoaren %24koa izan zen.

**LANDUNEN EGITURA DURANGOKO ESKUALDE EGITURAN (1996)**

| | Nekazaritza | Energia-ura | Industria kimikoa | Metalen industria | Beste industria batzuk | Eraikuntza | Merkataritza-hotela | Garraioa | Bankuak-aseguruak | Beste zerbitzu batzuk |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Durangoko E.E. | 1.4% | 1.2% | 5.1% | 32.3% | 8.5% | 5.3% | 16.0 % | 5.0% | 4.9% | 20.2% |
| Abadiño | 2.2% | 0.9% | 3.9% | 39.4% | 9.2% | 6.8% | 15.0 % | 5.6% | 2.7% | 14.4% |
| Amorebieta-Etxano | 1.4% | 1.3% | 7.6% | 27.5% | 7.8% | 6.8% | 16.0 % | 5.7% | 5.3% | 20.4% |
| Durango | 0.7% | 1.2% | 5.1% | 28.9% | 7.6% | 4.7% | 16.7 % | 5.0% | 6.2% | 23.9% |
| Elorrio | 1.0% | 1.1% | 2.3% | 42.9% | 6.9% | 3.6% | 17.0 % | 4.2% | 3.5% | 17.5% |

Iturria : **Eustat**

Durangoko udal mugartean, horrenbestez, espazio-eredua eraldatzen ari da, zerbitzu-industria hiria deritzonerantz. Gorakada eta beherakada sektorialeko prozesuak eta enpleguen zein lan-indarraren kokaleku berria aldi berekoak dira, eremu metropolitar berberen barruan, honako hau konbinatzen duen eredu konplexu batean: ordainketa handiko zerbitzu-sektoreetako lanpostu berrien sorrera, industria-sektore zaharkituko maila ertaineko enpleguaren suntsipena eta zerbitzuetako txarto ordindutako enplegu berrien ugaritzea.

Durangoko zerbitzu-sektorean enpleguak EAEn baino hazkunde handiagoa dauka; fenomeno hori, neurri batean, laneskuaren eskaintza eta eskaria egokitu beharrak azaltzen du, lurraldeak bizi izandako tertziarizazio-prozesua aintzat hartuta. Eskualde Egituran hogei mila langile inguru daude zerbitzu-sektorean (2000an informatika jardueretan, I+G deritzonean eta enpresetarako zerbitzuetan); gainera, jardueraren bilakaera kontuan hartuta,

esan daiteke adar batzuetan lanak gora egingo duela, adibidez, enpresetarako zerbitzuetan, eta hori ona izango da eta enpleguak hirugarren sektorean duen hazkundea baino handiagoa.

Izan ere, INEren zifrak aintzat hartuz, EAEko higiezinen eta enpresetarako zerbitzuen arloetan lanak, 1995etik, 4 puntu baino gehiagotan gainditu du enpleguak hirugarren sektorean duen hazkundea (%8,5 1999an, eta EAEko zerbitzu-sektorean lanpostuen hazkundea %2,1ekoa izan zen). Beraz, hurrengo 10 urteotan lanak enpresetarako zerbitzuen adarrean %3ko hazkundea izango duela jota, 2.500 lanpostu baino gehiago sor daitezke.

Zerbitzu-sektoreko jarduera oso trinkoa da laneskuan, eta eremu pilatuan garatzen da; eremu horrek, jarduera garatzeko, ez du lurzoru-kontsumo handirik behar. Estrategia fisikoari dagokionez, tertziarizazioaren berehalako ondorio bat kalitate oneko lurzorua eduki behar izatea da, Durangon kokatu nahi diren enpresentzat. Zerbitzu-jarduerei loturiko pilaketa-ekonomiek higiezinen eskari handia sustatzen dute eta horrek dinamizatu egiten du hirigunearen birgatzea zein modernatzea, baina desekonomiak ere sor ditzake (adibidez, gehiegizko prezioak). Hiriaren erdigunea kokalekurik onena da, urrunago dauden zonei dagokienez. Zerbitzu-enpresen kokatze-jarraibideei buruz oraintsu egin diren ikerketa batzuen arabera, horiek hirien erdigunearen inguruan kokatzen dira, bertan beste zerbitzu asko egotearen, erabakiguneak hurbil egotearen eta langile trebatuak erakartzeko aukeraren eraginez.

Jarduera ekonomikoetarako eta merkataritza-ekipamenduetarako lurzoruaren sorrera publikoko Lurraldearen Arloko Planak ere, bestalde, Durangoko udalerriak hirugarren sektorean dituen gabezia handiak aipatzen ditu; izan ere, beharrezkoa da udal mugarte horrek protagonismoa hartzea, Eskualde Egiturako hirugarren sektoreko jarduera polarizatu ahal izateko.

### c) Erabilera mistoak sustatzea: egoitza-lana oreka.

LZP honen Lurralde Ereduak apustua egiten du hirugarren sektoreko erabilerak eta egoitza-erabilerak hirigunean batera egotearen alde, eta horri, agiri honetan, *erabilera mistoen garapenak* izena ematen zaio; izan ere, kasu askotan, guneetan hiriko bizitza mantentzeko, hobetzeko nahiz suspertzeko eta guneok indartzeko elementua da.

Oraingo eredu ekonomikoak Eskualde Egiturako zona jakinetan pilatzen ditu jarduera ekonomikoak, eta eredu horren inertziaren eraginez (jarduera desberdinen artean sarritan gerta daitekeen sinergiarekin batera), ezarkuntza berriek leku tradizionaletan (bertako jardueren ondoan) bilatzen dituzte kokalekuak. Prozesu horrek espezializazio funtzional kaltegarria sortzen du; horrek zona batzuetatik besteetarako mugikortasun handia eragiten du, batez ere egoitza-lana motako lekualdatzeetan, eta horrek ondorio txarrak ditu ingurumenean eta funtzioetan.

Tamaina, hiri-egituraren diseinua, lurzoruaren erabilera mistoak eta hiri-hazkundea funtsezko elementuak dira tamaina ertaineko hirien (Eskualde Egiturakoak) ingurumenaren iraunkortasunean. Tamainaren eraginez, biztanleak gero eta urrunago eramateko gauza diren garraiobideak erabili beharra sortzen da, eta, horrela, erregai-kantitate handia kontsumitu eta, beraz, kutsadura handiagoa sortzen da.

LZP honek proposatzen duen jarduera ekonomikoaren eredua, bestalde, industria-jardueraren apurka-apurkako tertziarizazioaren logikan oinarritzen da; horretarako, industria-lurzoru zaharkituak hobetu eta jarduera ekonomikoetarako espazioak (hiri-erabileren barruan) ugaritu egin behar dira; hiriguneen barruan dauden jarduera ekonomiko horiei *erabilera misto* esaten zaie, horietan jarduera ekonomiko tertziarioa eta egoitza osagarriak baitira.

LZP honek, gainera, egoitza-erabilera orokorreko lurzorutzat proposaturiko lurzoru berrietan bateragarriak diren hirugarren sektoreko erabileren erreserbarekin osatu nahi du prozesu hau, jardueren eta egoitzaren kokalekuaren artean oreka lortzeko, hori estu lotuta baitago mugikortasun iraunkorra lortzearekin.

## 5.5 Eskualde Egitura artikulatzen duten elementuak.

Lurraldearen planifikazioarekin batera, lurraldea egituratzen duten garraio-modu desberdinetarako sareak aurreikusi eta diseinatu egin behar dira, finkaturiko hiri-lurzorua edo hazkunde eremuak (kanpoaldeko guneak, eremu metropolitarra, etab.) baino handiagoa den esparru batean. Lurralde-eredua eta mugikortasun-

nahiz garraio-eredua estu lotuta egon behar dira, bai hazkunde-prozesuetan eta bai hiriaren birgaikuntzan.

Automobila garraiobide nagusia da eta banakako askatasuna adierazten du, eta horrek eragin handia izan du gure lurraldeetan. Horri dagokionez, mugikortasunaren azpiegiturek, gehienbat autobideek, eragin fisiko oso handia dute eta gero eta trafiko handiagoa sortzen dute; izan ere, hiritarrak zirkulatzeko eskubidea eta ondasunak trukatzeko askatasuna erabili nahi ditu.

Eskualdeko egitura-elementuak bat datoz garraio-azpiegituren sareekin, bai bide-sareekin eta bai trenbide-sareekin, eta gauza bera esan daiteke aukerako garraio-moduak (garraio publikoei eta intermodalitateari lotutakoak) sustatzeko proposamenei buruz.

Motordun ibilgailuen erabilerak, industria-herrietako hirietan aurreko hamarkadetan izandako prozesuari jarraituz, gora egin du eta azken urteotan etengabeko hazkundea izan du.

Beraz, premiazkoa da automobil pribatuan egiten diren lekualdatzeak kontrolatzea; horretarako, arazorik handienak dituzten eta itoen dauden zonetarako sarbidea oztopatu egingo da, trafikoa lasaituz, hori bide egokiagoetatik bideratuz eta lurraldeko bide-sarea osatuz (ardatz nagusiak, ingurabideak, etab.).

Beharrezkoa da lekualdatze-modu desberdinak orekatzea; horretarako, garraio publikoko sare eraginkorrak, garbiak eta ingurumearen aldetik iraunkorrak sortu behar dira, ibilgailu pribatuaren ordezkotzat eta ikuspegi intermodala erabiliz.

Bestalde, geldiarazi egin behar da hiriak barreiatzeko joera gero eta handiagoa, baita erabilerak bereizteko joera ere (egoitzakoa, hirugarren sektorekoa, etab.), eredu trinkoagoak eta funtzio anitzagokoak ezarrita, garraio publiko eraginkorra ahalbidetzeko dentsitate nahikoak finkatuta eta, politika aktiboak nahiz eraginkorrak erabiliz, finkaturiko auzoen hiri-birgakuntza sustatuz.

Mugikortasun-fenomenoa LZP oinarritzen duten funtsezko alderdietariko bat da. Hala eta guztiz ere, Eskualde Egituran sorturiko mugimenduen arrazionaltasun handiagoa emateko irizpideen aplikazioa, nahitaez, lurralde-ereduaren

zehaztapen-eskalak eskainitako aukeretara egokitu behar da. LZP honek, hortaz, hiri trinkoaren printzipioak eta erabilera mistoen sorkuntza garatzea erabaki du, mugikortasun iraunkorraren aurkakoak diren oraingo hiri-garapeneko joera batzuk zuzendu ahal izateko.

Trenbide-azpiegituraren egokitasuna zalantzarik gabea da, garraio publikotzat, kontuan hartuta lehendik ezarrita dagoela (kostu oso handien murriztapena) eta horren zerbitzuak jasotzen dituzten zonak eremu metropolitar garrantzitsu batetik hurbil daudela. Durangoko Eskualde Egituran bete egiten dira bi baldintza horiek.

Hala ere, oraingo zerbitzu maila eta erabilera ez dira horren araberakoak, funtzionaltasuna nahiko baxua baita maiztasunetan, merkataritza-abiaduretan eta erosotasunean. Gainera, gehienbat industriakoa den lursail asko daude eta horiek, trenbide-trazatuarekin paraleloan egon arren, geltokien erakarpen-erradiotik kanpo daude; horrek agerian jartzen ditu azpiegitura horrek zerbitzu mailan dituen mugak.

Trebide-sarea garatzearen helburua, horrenbestez, Bilboko eremu metropolitarrarekiko komunikazioa ahalbidetzea da, eta, beraz, ezinbestekoa da Eskualde Egituraren barruko zerbitzu mugatuari irtenbidea aurkitzea.

Halaber, koordinazio eza handia dago ohiko beste garraiobidearekin, autobusarekin, eta esan daiteke, osagarritasuna baino gehiago, nolabaiteko lehia sortzen ari dela, eta horrek eragin kaltegarria dauka ibilbideetan, ordutegietan, etab.

LZP honen helburua egoera hori gainditzea eta hobetzea da, garraio publikoaren zeharreko ardatza sortuta; horren bidez, konpondu egingo dira Eskualde Egituraren barruko bidaia kopuru altuaren eraginezko arazoak.

Bizkaiko eta EAE osoko garraio-planifikazioek (batez ere, EAEko Trenbide Sarearen Lurraldearen Arloko Plana), hala eta guztiz ere, trenbide-garraioa sustatzearen aldeko apustua egiten dute; izan ere, Amorebieta-Eibar zati osoan trenbidea bikoizteko proposamena egin dute (Bilbotik gune horretaraino, bertan dagoeneko trenbide bikoitza baitago); era berean, aipagarria da Durangoko geltokia eta horren ondoko hiri barruko tarteak lurpean sartzea, ibilgailu

pribatuarena baino eskaintza askoz ere lehiakorragoa eginez (denborak, maiztasunak, etab.), eta hori lagungarria izango da Lehentasuneko Intereseko Sareetako ardatzen trafiko itzelak murrizteko (A-8 eta N-634).

Gainera, aprobetxatu egin beharko dira garraio-intermodalitatearen alde onak, trukagailuak ezartzeko ahalegina eginez, eraginkortasun funtzionala baitute; horretarako, Durangokoak bezalako ekintzak ez ezik, bazterturiko espazio jakinak egotea ere aprobetxatuko da (trenbide-azpiegituraren prototipoak diren espazioak).

Trukagailu horiek, bestalde, autobusaren “Plataforma Soila” ezartzeko proposamenarekin osatuko dira. Plataforma hori bateragarria izango da autobusez lurraldearen gainerako lekuetara egiten diren ibilbide osagarriekin (ondo koordinaturiko ibilbideak) eta ibilgailu pribatuen erabilerarekin; izan ere, automobilak Zumelegiren haraneko udalerrien erdigunean ez sartzeko elkarren atzeko iragazkiak izango dira.

Halaber, aintzat hartu behar da Bermeo-Amorebieta-Etxano adarrean aurreikusita dagoen bikoizketa, trenbideko LAPk ere proposatzen duena; izan ere, azken udalerri estrategiko horrek jarduera logistikoetarako bokazioa dauka, eta Bermeoko Portu Lehorra izateko bokazioa.

Jarduera berriek beharko dituzten jario horietan, merkantziek protagonismo berezia dute; horiei dagokienez ere trenbide-sistemak aukeratuko dira, eta, arlo horretan, azpiegiturak gauez erabiltzeko ahalegina egingo da, eta haran-orduetan gaitasun-lasaierak erabiltzeko ahalegina ere bai (merkantzien bagoi soilak edo konboi bereziak).

Bide-obrak Europako eszenatokian integratzearen azken eskala, izan ere, lurralde mailan esperimentatzen ari dena da, bertan, eraginkortasunaren eta segurtasunaren logikak espazioa irekitzen dio landa-paisaia suspertu behar izateari. Herriren baten berezitasunak agerian jarri behar dira, edo, Smets-ek dioenez, “paisaia eszenan jarri” behar da; horren eraginez, diseinuaren baldintzak ikuskatu egin dira, adibidez, Bernard Lassus-ek Crazannes-ko harrobietan egindako esku-hartzea; izan ere, horiek Frantziako Saintes-Rochefort ibilbideak (A-837) zeharkatzen ditu eta, harri-eraketak oztopotzat saihestu beharrean, hauxe egin da: ikuspegietara egokitu, bertako edertasun

geologikoa agerian jarri (ikuspegiak nabarmentzeko nahita egindako biraketekin), edukitze-hesiak ezabatu eta gaueko argiztapena sartu.

Azken batean, helburua Eskualde Egituran sartzeko aukerak hobetzea eta handitzea da, baita sartzeko baldintza egokiak bermatzea, irisgarritasuna segurtatzea eta lurraldea ondo komunikatuta egotea ere.

Lehenengo mailako sarea ere argitu egin behar da, ekialde-mendebalde aukerak ugarituta nahiz indartuta, eta, bigarren mailako egitura batean, elementu desberdinen integrazioa (ibilgailu, funtzio nahiz oinezko mailako integrazioa) lortzen duen sarea ere ezarri behar da, udalerrien arteko nahiz udalerri barruko luzera ertaineko ibilbideen bidez.

## 5.6 Baliabide naturalen babes aktiboa eta baserriaren bideragarritasuna segurtatzea, paisaiaren kalitatea bermatzeko.

LZP hau euskarritu duten printzipioetariko bat ingurune naturalaren tratamenduan jarrera aktiboa eta konpromisokoa izatea da; izan ere, ingurune hori gizartearen ongizaterako, garapen ekonomikorako eta bizi-kalitaterako gakoa da. Horrela, LAAren espiritua jasotzen da, ingurune fisikoaren tratamendua (planifikazioko agirietan) euskarritzen duten oinarriei dagokienez. Horrela, zehaztu egiten da ingurune fisikoak lurralde-ereduaren diseinuan izan beharreko eginkizuna, ingurunea eredu horren oinarria eta euskarria izan behar baita.



Durangoko Eskualde Egiturako ingurune naturalaren lehenengo diagnostikoak lurraldearen ezaugarriak zehazteko aukera ematen du; bertan, malda handiak faktore erabakigarriak dira lurraldearen harrera-gaitasunean, eta, gainera, biztanleria-dentsitate handiak erabilera-lehia gogorra ezartzen du espazio mugatuetan. Aramotz-Urkiola-Anbotoko (hegoaldetik) eta Oizeko (iparraldetik) hesi topografikoen barruko igarobide hau EAEko garapen-ardatzik garrantzitsuenetarikoa da; horrela, eremu hau Bizkaiko irrikatuenetariko bat da. Horren guztiaren eraginez, ingurumen-egoerak gabezia handiak ditu, bai haran-hondoetan (presiorik handieneko zonak) eta bai maldetan gorago dauden zonetan.

Eskualde Egiturak, bestalde, sistema naturalaren narriadurari loturiko arazoak ditu; horien artean, aipagarriak dira baso-masa autoktonoak urritzea eta, horien ordez, hazkunde azkarreko beste batzuk sartzea, eta, horrela, prozesu kaltegarriak garatu dira: paisaiaren eraldaketa handia, lurzoruen higadura eta, oro har, arrisku naturalen hazkundea.

Baliabideen kontserbaziorako, neurri batzuk abiatu behar dira ingurumen-galerak murrizteko. Hala ere, LZPk gainditu egin nahi ditu eragin kaltegarriak saihestean soilik oinarritzen diren jarrerak, eta, horrela, ekintza positiboko jarrerak bereganatzen ditu, hobekuntzako, babes aktiboko, suspertzeko eta halako estrategiak abiatzeko.

EAE osoaren kasuan, lehentasunezkoa da baliabide naturalak babesteko neurri aktiboak ezartzea, eta Eskualde Egituran horrek oraindik ere lehentasun handiagoa dauka; izan ere, bertako ingurune naturalak eta baliabideek beste erabilera errentagarriago batzuen lehia gogorra jasaten dute. Hirigintza gogorreko eta biztanleria-dentsitate handiko testuinguru horretan, garrantzi handikoa da ingurumen-baliabideak kontserbatzea. Horri dagokionez, eremu naturalen eskabidea funtsezkoa da EAEko oraingo biztanleen artean, biztanle horiek interes handia baitute ingurumen-gaietan; gainera, naturarekiko kontaktuari loturiko ohiturak dituzte, *Basoko Egitamuak* adierazten duenez; izan ere, egitamu horrek definizio hau ematen du EAEko biztanleriari buruz: “*izaera hiritar eta pilatu handia izan arren, mendia eta horren ingurua kulturaren eta balio-sistemaren zati osagarritzat hartzen dituen biztanleria*” (1994, 48. or.). Horrela, eremu babestuak eta interes naturaleko eremuak egotea (Urkiolako

Parke Naturala eta Udalaitz) aktibo ekologiko handia da, eta, zalantzarik gabe, aurrerakuntzarako aukerak eskaintzen ditu, baldin eta lurraldearen kudeaketa ingurumen-balioak errespetatuz egiten bada eta babes- nahiz kontserbazio-politikak modu integralean sortzen eta aplikatzen badira. Era berean, neurriak hartu behar dira Oizekoa bezalako eremu narriatuak suspertzeko.



Nolanahi ere, LZP honek gainditu egiten du lurraldea eta paisaia euskarri soiltzat edo eszenatoki aldaezintzat hartzen dituen ideia, eta, horren ordez, egitura jakinen arabera kudeaturiko eta euskarrituriko eremutzat hartzen ditu; egitura horien artean, garrantzitsuena baserria da. Horrenbestez, landa-eremu baliotsu honen mantenamendua eta, zergatik ez, hobekuntza baserria babestearen araberakoak dira.

Babes hori esangurarik zabalenean ulertu behar da; izan ere, baserriaren arkitektura zaintzea edo eraikuntza-parametroak nahiz parametro estetikoak errepikatzea ez da nahikoa. Batez ere, nekazaritza-ustiapentzat babestu behar da: baserriaren eginkizun ekonomikoa errespetuz sustatzearen mendekoak dira baliabideen aprobetxamendu integrala zein iraunkorra, ingurumenaren mantenamendua nahiz hobekuntza eta Euskal Herriaren nortasunaren ezaugarri berezigarrienetarikoa den paisaiaren kontserbazioa.

Ikuspegi hori aintzat hartuta, LZPk bermatu egin behar ditu baserriaren bideragarritasuna ahalbidetzen duten lurralde-baldintzak, baita nekazaritzako nahiz abeltzaintzako jardueraren ekologia- zein paisaia-bateragarritasuna ahalbidetzen dutenak ere. Ekologiaren eta kulturaren aldetik baliotsua den landa-eremua, izan ere, Durangoko Eskualde Egiturak baztertu ezin duen baliabidea da; hori lortzeko, LZP hau landa-irizpideetan eta, beraz, gizarte- nahiz ingurumen-irizpideetan oinarrituz ere planteatzen da.

## 6. NATURA ETA LANDA INGURUNEA

Natura- eta landa-ingurunearen barruan, Eskualde Egiturako lurzoru osoa sartzen da, Egitamuak zehazturiko lurralde-eredua euskarritzen duen elementua baita.

LZPk, LAAek (babes-irizpideak aintzat hartuta) hirigintzari lurzorua kentzeko ematen dioten ahalmenaren bidez, ildo horretan jarduteko gaitasuna dauka, lurzoru urbanizaezinaren zona-banaketa eginez. Antolatu beharreko espaziotzat jasotzen da, bestalde, indarreko planeamenduak hiri-lurzorutzat edo lurzoru urbanizagarritzat hartzen ez duena. Halaber, orain azpiegiturak, erauzketa-jarduerak, hondakindegiak eta udal planeamenduan hala aurreikusitako sistema orokorrak. Horrek guztiak ez dakar LZPk egungo plangintza finkatzea, Planeamendu Orokorraren Berrikuspenerako Tresnen gaitasuna dela-eta; izan ere, gaur egun hiriko lurzoru eta lurzoru urbanizaezin gisa sailkaturiko lurra murriztu dezakete.

Lurralde-antolamenduaren helburu nagusienetariko bat baliabide naturalen kudeaketa eta ingurumenaren babesa denez, EAEko Lurraldearen Antolamendurako Artezpideak (LAA), lurraldearen gaineko jarduketa sektorial guztietarako erreferentzia-esparrua izanik, konpromisozko jarrera etikoa hartzea proposatzen dute, landa-ingurunearen tratamenduari dagokionez, arazoak eta aukerak sentikortasun handiz aztertuta, ingurunearen gaineko eragin kaltegarriak ekiditean soilik oinarrituriko jarrera gainditũz eta jarrera nahiz proposamen positiboak garatuz.

Proposaturiko Lurralde Eredua lortzeko zehaztapenetariko bat, izan ere, natura- eta landa-ingurunea babestea da, eta, beraz, halako lurzoruen gaineko bereizi gabeko hiri-garapenak baztertzea, horiek LZPk proposaturiko **okupazioaren mugako eremuetan** soilik kokatu beharko baitira; horiek kapitulu honetan ezarritako kategoriak eta zehaztapenak mantenduko dituzte, udal-planeamenduak horretara bideratzen dituenean izan ezik.

Bestalde, Durangoko Eskualde Egiturako udalerrien hirigintza-errealitatearen ikerketan ezin da ahaztu lehen sektoreko jarduerarekin lotura sozioekonomikoa duten ezarkuntzak daudela (adibidez, landagunea), ezta

ezarkuntza horietan egin diren aldaketak ere; halako eremuek antolamenduaren barruko beste kategoria bat osatzen dute eta kapitulu honetako 6.5 atalean aztertuta daude.

## 6.1. Alderdi metodologikoak

Eskualde Egituran honako hauen arteko kontraste handia dago: alde batetik, hiri-industriako okupazio nagusia duen eredua, eta horrek asetzearen eta ordenarik ezaren zantzuak ditu, Ibaizabalen eta horren ibaiadarrak diren Zalduren nahiz Zumelegiren haran-hondoan; bestetik, horren inguruko landazabal-isurialdeak eta mendiak, eta halakoek interes berezia ematen diete azken lurzoru horiei, Eskualde Egituraren multzo osoaren ingurumen-kalitatearen bermetzat (berezko balio naturalak eta landa-balioak gainditutа).
Natura eta Landa Ingurunearen arloko lurralde-antolamenduko proposamenaren formulazioa, Durangoko Eskualde Egiturako (DEE) lurzoruei dagokienez, ondoren adierazitako eskema metodologikoaren arabera egin da.

1. Lurraldearen arazo eta aukera nagusiak identifikatzea.

2. Helburu orokorrak eta, bestela, natura- nahiz landa-ingurunerako helburu bereziak zehaztea, Eskualde Egiturarako aurreikusitako lurralde-ereduaren esparruan. Bidezkotzat hartu den bakoitzean, politika eta tresna sektorialen helburuak, estrategiak eta jarduketa-ildoak sartu dira, natura- eta landa-inguruneari dagokionez; horiek lurraldearen antolamendutik (Lurraldearen Arloko Planak) eta ingurumen mailako inplikazioak zein eskumenak dituzten beste politika publiko batzuetatik atera dira, betiere antolatu beharreko eremu geografiko bakoitzaren ezaugarriak eta LZPren lurralde-ereduaren helburuak aintzat hartuta. Gainera, ingurune fisikoari loturiko prozesu eta egitura askok Eskualde Egituraren eremua gainditzen dutenez, goragoko eskalei buruzko antolamendu-proposamenak egin behar dira.

3. Antolamenduko kategoriak ezartzea; eremu homogeneoak dira, euren ingurumen-ezaugarrien arabera, eta bakoitzari erabilera batzuk esleitzen zaizkio, bertako baliabideen iraunkortasuna kontuan hartuta.

4. Natura eta Landa Ingurua antolatzea, erabilerak eta jarduerak arautuz, Matrize egokiaren bidez, eta matrize hori, berriz, LAAekin homologazioa ezartzen saiatuta egingo da. Abiapuntutzat, bertan jasotako bost erabilera motak hartzen dira: Ingurumen Babesa, Jolasaldia eta Aisialdia, Oinarrizko Baliabideen Ustiapena, Azpiegiturak eta, azkenik, Eraikuntza Erabilerak. LZP honek horien azpizatiketa edo xehapena ezartzen du, eta, horrela, bakoitzaren zehaztapen handiagoa lortzen da.

### 6.1.1. Ingurune Naturaleko Antolamendua.

Jarraian, ingurumen naturalaren kategorizazioa, kategoria horretan gainjarritako baldintzatzaileak, ingurune naturalaren osagai nabarmenak eta paisaian sartzeko proposamena aztertuko dira.

#### *A. INGURUNE NATURALAREN KATEGORIZAZIOA*:

Balio naturalaren araberako antolamendu-kategoriak sistematizatu dira, eta lau talde identifikatu dira. Identifikazio horrek ez du esan nahi araudi erkideren batean bilduta daudenik.

1. ***Babes Aparteko Lurzoruak:***
   a. Eremu Naturalak eta Babesturiko Elementu Bereziak:
      i. Babesturiko eremu naturala (Urkiolako Parke Naturala)
      ii. Urdaibai Biosfera Erreserba
      iii. Zuhaitz Berezia: Garaiko Artea
   b. Interes Naturaleko Eremuak:
      i. LAAek proposaturiko interes naturalistikoko eremuak: Udalaitz.
      ii. Baso autoktonoak
      iii. Mendiko belardiak
   c. Interes Hidrologikoko Eremuak
      i. I. Multzo Hezeguneak

2. ***Gainazaleko Uren Babeseko Lurzoruak.***
      i. Lurazaleko uren babesa

3. ***Babeseko Lurzoruak: Basoko, Nekazaritzako nahiz Abeltzaintzako eta Landazabaleko Eremuak:***
    a. Nekazaritza nahiz Abeltzaintza eta Landazabala:
        i. Balio estrategiko handiko landazabalak
        ii. Trantsizioko landa-paisaiak
    b. Basoa
        i. Basoko landaketak
        ii. Sastrakak

4. ***Landaguneak***

Kategoria hau memoria honetako 6.5 atalean zehatz garatuta dago.

## B. GAINJARRITAKO BALDINTZATZAILEAK

Gainjarritako Baldintzatzaileen, Ingurumen Hobekuntzako Ekintzen, Izaera Batasunaren Baldintza Gainjarrien eta Flora eta Faunarako Interesdun Eremuen arteko bereizketa egiten da.

1. ***Gainjarritako Baldintzatzaileak***
    a. Akuiferoak Kutsatzeko Arriskua duten Eremuak
    b. Eremu Higagarriak edo Higadura Arriskukoak
    c. Eremu Ureztagarriak

2. ***Ingurumen Hobekuntzako Ekintzak***
    a. Ingurumen Hobekuntza Orokorreko Eremuak
    b. Jarduerarik gabeko Harrobietako eta Hondakindegietako Ingurumen Hobekuntza
    c. Ondo kontserbaturiko landaredia duten ibaiertzak
    d. Suspertu beharra duten ibaiertzak
    e. Hiriguneetan bermatu behar diren ibaiertzak
    f. Igarobide Ekologikoak

3. ***Izaera Batasunaren Baldintza Gainjarriak***
    a. Natura 2000 Sarea

4. ***Flora eta Faunarako Interesdun Eremuak***
   a. Faunarako Interesdun Eremuak.
   b. Flora ta Landaretzarako Interesdun Eremuak

### C. *INGURUNE NATURALEKO OSAGAI AIPAGARRIAK*

a. Interes Geologikoa duten Eremuak
b. Zuhaitz-ale interesgarriak

### D. *PAISAIAREN IRISGARRITASUNA*

a. Paisaia-interesdun eremuak, ibilbideak eta elementuak.
b. Paisaia-interesdun Ibai Sistema.

Kategorizazioari gainjarritako baldintzatzat agertu arren, Paisaiaren Irisgarritasunaren proposamena kapitulu honetako 6.6 puntuan garatu eta dagokion antolamendu-planoan grafikoki adierazita dago.

## 6.2. Helburuen zehaztapena

Durangoko Lurraldearen Zatiko Plana idaztean egindako diagnostikoari esker, Eskualde Egiturako arazo eta aukera nagusiak identifikatu dira. Horietan oinarrituz, ingurumenaren arloko helburuak, estrategiak eta jarduketa-ildoak formulatu dira, hau da, lurraldeko natura- eta landa-ingurunean esku hartzeko proposamena, Egitamuak helburu nagusitzat planteatzen duen lurralde-eredu iraunkorraren esparruan.

Proposamen hori, berriz, ondoren izaera integratzailez eta sinergikoz formulatzen diren helburu nagusien inguruan egituratzen da; horrela, helburu bakoitzaren lorpenak ondore positiboak izango ditu, zuzenak edo zeharrekoak, aipaturiko helburu guztien multzorako eta, azken batean, lurralde-eredu iraunkorra lortzeko, ekonomiari, gizarteari eta ingurumenari dagokienez, horixe baita (lehen esan dugunez) Lurraldearen Zatiko Planaren helburu nagusia; arlo horretan, natura- eta landa-inguruneak eginkizun garrantzitsua dauka.

Planteamendu horietan oinarrituz, honako **helburu** hauek formulatu dira:

1) Interes fisiko eta biologiko handiko espazio, elementu eta prozesu naturalak kontserbatzea, hobetzea eta suspertzea (Babes Aparteko Lurzoruak); izan ere, Eskualde Egituraren ondareko funtsezko zatiak dira, eta bertako lurraldearen aukera nagusienetarikoak; honen barruan, Eskualde Egituraren barruko nahiz kanpoko eremu naturalen eta baliorik handieneko habitaten arteko lurralde-lotura bermatzeko helburua sartzen da. Durangaldea, izan ere, lurralde mugakideen arteko lotura-eremu geografikoan kokaturik dago, eta lurralde horiek interes ekologiko handia dute, batik bat iparraldekoak eta hegoaldekoak.
2) Gainazaleko eta lurpeko uren kalitate mailak hobetzea eta suspertzea, urak baliabide naturaltzat eta funtsezko ingurumen-bektoretzat dituen bi dimentsioak modu integratuan hartuta.
3) Nekazaritza- eta abeltzaintza-jarduera mantentzea eta sustatzea, bai landa-inguruaren bizitasunerako funtsezko sektore ekonomiko delako, bai baliabide naturalak erabiltzearen, paisaia kontserbatzearen zein kudeatzearen eta lurraldearen nortasuna zaintzearen arloan eginkizun garrantzitsuak dituelako. Azken alderdi hori garrantzi handikoa da Durangoko Eskualde Egituran; izan ere, bertan, igarobidearen hondoko itotzea landazabaleko eta mendi-larrediko zonekin batera bizi da, eta horietan, landa-oinarria duten paisaia interes handiko guneak daude, produkzio-gaitasun handiko lurzoruetan.
4) Produkzioko baso-jarduera arrazionalizatzea eta hobetzea, ekonomiaren eta landa-eremuko lurzoruaren erabileren osagai nagusienetarikoa baita; horretarako, mendiko baliabideen ustiapen iraunkorra (ekonomiaren eta ingurumenaren aldetik) eragiteko irizpideak eta ekintzak aplikatuko dira, eta arreta berezia jarriko zaie higadura arrisku handiaren eraginpean dauden lurzoruei nahiz babesturiko eremu naturalen barruko lurzoruei eta, oro har, eremu horien barruko biodibertsitatea zaintzeari.
5) Arloan eskumena duen sailak instalaziorik behar ez duen basoko eta nekazaritza nahiz abeltzaintzako ikerketa sustatzea: egungo neurriez gain, kudeatzaile pribatuak esperientzia berritzaileetan eta ikerketa esperientzietan murgiltzeko neurriak.

6) Lurraldearen ingurumeneko natur arrisku nagusiak gutxitzea, eta bereziki landuko da higadura prozesuen kontrolean eta murrizpenean eta, modu egokiak erregulatuz, lurzoruaren erabilerak akuifero zaurgarriak dituzten aldeetan eta uholdeak izan litezkeen aldeetan.
7) Natura- eta landa-eremuetarako sarbide publikoa lurralde-oreka mantenduz sustatzea eta orientatzea, bertako balioek eta funtzioek kasu bakoitzean behar dituzten murriztapenekin; izan ere, naturarekin eta kalitateko landa-eremuekin kontaktua edukitzeak gizarte- eta ekonomia-hobariak eragiten ditu; beraz, ahalik eta gehien murriztuko dira eremu horien gaineko eraginak.
8) Interes handiko beste elementu batzuk zaintzea, udal-planeamenduan jaso eta antolatu beharreko gainjarritako baldintzatzat.
9) Natura- eta landa-paisaia zaintzea, hobetzea eta suspertzea, eta paisaia barruko sarbide errespetuzkoa eta ilustratua sustatzea, elementuak, paisaia-egiturak eta interes bereziko eremuak kontserbatuz eta horren behaketa, interpretazioa zein gozamena eragiten duten ekintzak garatuz.

## 6.3. Erreferentziako plan eta agiri nagusiak

Helburuak formulatzeko eta, batik bat, estrategiak nahiz jarduketa-lerroak zehazteko, lehen esan dugunez, aintzat hartu dira Eskualde Egituraren lurraldearen ezaugarriak eta diagnostikoan detektaturiko arazoak zein aukerak.

Proposamenen kapituluan, LZP honetarako funtsezkoak dira lurralde-antolamenduko eta antolamendu sektorialeko agirietan (baita onetsita ez daudenetan ere) jasotako planteamenduak, gomendioak eta jarduketak, baldin eta bidezkoak badira aurreikusitako lurralde-eremua lortzeko, eta bete egiten badituzte antolatu beharreko eremuaren berezko ezaugarri naturalak eta sozioekonomikoak. Horri dagokionez, natura- eta landa-ingurua antolatzearen arloan, LZP topaketa-eremu integratzailea eta sinergikoa da; bertan, baliabide naturalak kudeatzeko eta lurzoru urbanizaezinean garaturiko jarduerak arautzeko ekimen sektorialak jaso dira; horien barruan, babesturiko

eremu naturalei buruzkoak sartzen dira, kasuan kasuko antolamendu- eta kudeaketa-planetan adierazitakoak.

Euskal Autonomia Erkidegoaren Lurraldearen Antolamendurako Artezpideetan (1997) eta, hain zuzen ere, Inguru Fisikoaren Jarraibidean jasotakoan oinarrituz, honako agiri eta arau hauek ere hartu dira kontuan:

- Garapen Jasangarrien Euskal Ingurumen Estrategia (2002-2020) eta EAEko Ingurumeneko Esparru-Programa.
- Euskadiko Landa Garapen Iraunkorreko Plana (2007 – 2013).
- EAEko Basogintza Plana (1994 – 2030).
- Euskal Autonomia Erkidegoko Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Hezeguneen Lurraldearen Arloko Plana.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta basoak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana.
- Urdaibai Biosfera Erreserba Erabilpenerako eta Kudeaketarako Plan Gidaria.
- Jarduera sozioekonomikoen Egokitzapena eta Garapenerako Egitaraua.
- Urdaibai Biosfera Erreserbaren Ingurumen Plan Energetikoa.
- Urdaibai Biosfera Erreserbaren Inbentario Arkeologikoa.
- Urkiolako Parke Naturala Natura Baliabideak Antolatzeko Plana eta Erabilpenerako eta Kudeaketarako Plan Gidaria.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Uholdeen Prebentziorako Plan Integrala.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Energia Eolikoa Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana.
- Mendiei eta Babespeko Naturguneen Administrazinoari buruzko ekainaren 2ko 3/94 Foru–Araua, martxoaren 20ko 3/2007 Foru-Arauak eraldatua.
- 32/2002 Foru Dekretua, 2002ko otsailaren 26koa Bizkaiko Lurralde Historikoko basoak artatu eta garatzeko diru-laguntzen araubidea ezarri duena.
- Baso-kudeaketa iraunkorra eta basoen biodibertsitatea nahiz funtzio aniztasuna kontserbatzeko jarduerak sustatzeko Foru Dekretua (2003).
- Euskal Autonomia Erkidegoko Fauna Intereseko Eremuen Katalogoa.

- Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza-lanetan Egoki Jarduteko Kodea (390/1998 Dekretua).
- Eusko Jaurlaritzako 141/2004 Dekretua, uztailaren 6koa, abeltzaintzako ustiategietako arau teknikoak, higieniko-sanitarioak eta ingurumenekoak ezartzen dituena.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Akuiferoak Kutsatzeko Arriskuaren Mapa.

## 6.4. Helburuen garapena: Antolamendu Proposamenaren Oinarriak ezartzea.

### 6.4.1 Babes Aparteko Lurzoruak kontserbatzea, hobetzea eta suspertzea, espazio natural babestuen eta balio bereziko beste batzuen arteko lotura bermatuz.

Helburu orokorra bi helburu berezitan zehazten da: **(1)** lurraldeko elementuak, prozesuak nahiz balioak kontserbatzea eta mantentzea, eta **(2)** lurraldean narriatuta edo narriatze-prozesuan dauden elementuak, prozesuak eta balio naturalak hobetzea eta suspertzea. Babes Bereziko Lurzoruen barruan, kategoria egokiak sartu dira, baita Igarobide Ekologikoaren Ingurumena Hobetzeko Ekintza ere, azken hori eremu natural interesgarrien lurralde-lotura bermatzeko.

Formulaturiko jarraibide eta irizpide orokorrak ezartzearekin batera, beste helburu batzuen kasuan, garapeneko estrategiak eta jarduketa-ildoak ere identifikatu dira.

#### 6.4.1.1 “Babes Aparteko Lurzoruak” deritzon antolamendu-kategoria ezartzea

##### 6.4.1.1.1 “Babesturiko Ingurune Naturalak eta Elementu Bereziak”, “Interes Naturaleko Eremuak” eta “Interes Hidrologikoko Eremuak”.

Eskualde Egiturako elementu, prozesu eta balio natural nabarmenenak Babes Bereziko Lurzoruetan bildu dira. Erabilerak eta jarduera arautzeko matrizeak

eman dira eremu horietako legeria espezifikorik edo araudi propiorik ez dagoenean.

Halaber, Igarobide Ekologikoa Hobetzeko Ekintza ere aintzat hartu da; izan ere, hori lagungarria izan daiteke ingurumen- eta ekologia-prozesuak zentzu zabalean mantentzeko, inguru natural interesgarriak lotzen dituzten eremuetan.

**A) Antolamenduaren kategoriak honako talde hauetan ezartzea: “Babesturiko Eremu Naturalak eta Elementu Bereziak”, “Interes Naturaleko Eremuak” eta “Interes Hidrologikoko Eremuak”.**

Babes Aparteko Lurzoruak dira inguru desberdineko natura- eta ingurumen-baliorik handienak dituztenak, legezko babesa izan edo ez..

Babes Aparteko Lurzoruen barruan, honako hauek bereizi dira: **Babesturiko Inguru Naturalak eta Elementu Bereziak, Natura Intereseko Eremuak** eta **Interes Hidrologikoko Eremuak**.

Babesturiko Inguru Naturalen eta Elementu Berezien barruan, horiek Eskualde Egituraren eskalako babes-inguruen sistemaren gunetzat hartuta, honako eremu hauek daude eta horiek antolamendu- nahiz arauketa-tresna bereziak dituzte:

- Urkiolako Parke Naturala. Parkearen lurraldea bertako Baliabide Naturalak Antolatzeko Egitamuan eta Erabili eta Kudeatzeari buruzko Egitamu Gidarian ezarritakoaren arabera antolatu eta kudeatuko da, aintzat hartuta Natura 2000 Sarea osatzeko proposatu diren inguruak, Parkearen lurralde-eremuan daudenak (Urkiolako Parke Naturalaren GKL, ES2130006).
- Urdaibai Biosfera Erreserbaren zati txikia, DEEren ipar-mendebaldean; bertako lurraldea Erreserba Erabili eta Kudeatzeari buruzko Egitamu Gidariak (oraintsu aldaturiko Egitamua) antolatzen eta kudeatzen du, baita Natura 2000

Sarea osatzeko proposaturiko GKLak ere (Urdaibaiko Ibai Sarearen GKL, ES2130009).

- Aparteko zuhaitzak. 265/1995 eta 23/1997 Dekretuetan guztira 25 aparteko zuhaitz jaso dira EAEren eremuan. Horietako bat Durangoko Eskualde Egituraren barruan dago. Garaiko artea da.

Natura Intereseko Eremuen barruan, honako kategoria hauek daude: LAAek proposaturiko Interes Naturalistikoko Eremuak, Baso Autoktonoak eta Mendiko Larreak.

- Udalaitzeko Interes Naturalistikoko Eremua.
- Hostozabal autoktonoen landare-eraketak (hariztiak, haltzadiak, urkidiak, ameztiak, pagadiak eta artadiak).
- Mendiko Larreak: orokorrean, ekologiaren, kulturaren eta paisaiaren aldetik balio handia duten belardi-inguru oso ahulak dira; goiko kotetan kokaturiko belardi trinkoak, aprobetxamendu intentsua dutenak, artzaintza-kultura tradizionalari lotuta.

Interes Hidrologikoko Eremu bezala Hezeguneen Lurraldearen Arloko Planean I. taldeko gune hezetzat identifikatzen dituenak, Urkiolako tranpalak.

Babes Aparteko Lurzoru hauetan, Urkiolako Parke Naturalean eta Urdaibai Biosfera Erreserban daudenetan izan ezik (horiek BNAEk eta EKEGek antolatzen eta kudeatzen baitituzte), salbuespenez eta justifikaturiko arrazoiak egonez gero, **hostozabal autoktonoak** eta aipaturiko gainerako eremu natural interesgarriak aldatzeko jarduketak egin ahal izango dira. Agintari eskudunak baimendu beharreko jarduketa horiek honako irizpide hauen arabera justifikatu beharko dira: pertsonen nahiz ondasunen babesa, baso-masaren mantenamendua (izurriak, suteak) edo ondo arrazoituriko beste zergati batzuk.

**Gailurreko zonetako** larredien ezaugarri fisiko-biologikoak eta erabilera- zein kokaleku-ezaugarriak kontuan hartuta, justifikaturik daude LAAek eta, horiek garatuz, Nekazaritza, Abeltzaintza nahiz Basoko LAPk “**Mendiko Larreak**” izeneko kategoria espezifikoa ezartzea. Oro har, artzaintza-inguruko inguru hauek balio handia dute

ekologiaren, kulturaren eta paisaiaren aldetik, eta, gainera, oso ahulak dira. Horrek guztiak justifikatu egiten du inguruok Babes Aparteko lurzoruen atalean sartzea, euren balio naturalak aintzat hartuz. Durangoko Eskualde Egituran, larredi horietariko gehienak Urkiolako Parke Naturalaren barruan daude, eta, beraz, euren erabilera babesturiko eremu horren antolamendurako tresnek arautzen dute. Hala eta guztiz ere, Parketik kanpo ere orban txikiak daude, Atxondoko haraneko goi-isurialdeetan, Anbotorantz, eta Udalaitzen goi-maldetan.

Ekologiaren nahiz paisaiaren aldetik dituzten ezaugarriak eta bertako baliabideen ezaugarriak zein ahultasuna aintzat hartuta, lurzoru hauetan artzaintza estentsiboari eta larreen erabilerari loturiko jarduerak baino ez dira onartzen, baita erlategiak ere, eta berariaz debekaturik gelditzen dira abeltzaintza-ustiapenari loturiko eraikuntza eta azpiegitura berriak, abeltzaintza estentsibo tradizionalari lotutakoak izan ezik (adibidez, bordak, hesiak eta askak).

Zona horietarako oso komenigarria da larre-baliabideak jabe diren norbanakoek eta erakunde publikoek antolatzea eta arautzea, mendien foru-administrazioaren arabera; betiere, aprobetxamendu ordenatua sustatuko da, neurri gabeko aprobetxamendu estentsiboak saihestuz, horiek gehiegizko abeltzaintza-zamak sor ditzaketelako, leku eta urtaro jakinetan.

Era berean, babestu egingo dira larre horietan dauden hostozabal autoktonoen baso txikiak eta bakarrik dauden aleak, eta basoko artzaintza baimendu egingo da, hostozabalen etorkizuna arriskuan jartzen ez duenean. Mendiko harkaitzetan, bertan landarediaren berezitasuna eta arrarotasuna aintzat hartuta, eta mehatxupeko faunak aterpea hartzeko nahiz habia egiteko habitat garrantzitsuak direnez, artzaintza estentsiboa soilik dago baimenduta, ahuntzena izan ezik; eraikuntza mota guztiak debekaturik daude, baita larrediak erabiltzeko ekintzak ere. Basoaren arloa, baimendutako erabilera, besteak beste, egurra biltzea da, eta debekaturik daude basoko erabilerari loturiko azpiegitura guztiak.

Interes Hidrologikoko Eremuetan erabilerak eta jarduerak antolatzeko eta arautzeko, I. taldeko gune heze Urkiolako tranpalak, Urkiolako Parke Naturalean dagoenez, aplikagarriak dira Baliabide Naturalak Antolatzeko Egitamuan eta Erabili eta Kudeatzeari buruzko Egitamu Gidarian jasotako xedapenak, Euskal Autonomia erkidegoko Hezeguneen Lurraldearen Arloko Planak I. taldeko gune hezeetarako ezarritakoaren arabera.

Egitamu Sektorialaren barruan III. Taldeko Hezeguneen Inbentarioaren barruko Abadiñoko zingirei eta Aixolako urtegiari dagokienez, udal planeamenduak ezarri ahal izango du haien babesa azterlan zehatzen bidez, baita inguruko erabilerei buruzko araubideak ere. Horretarako, LAPn bertan zehazturiko antolamendu-kategoriak esleituko dira.

### B) “Igarobide Ekologikoa” deritzon Ingurumen Hobekuntzako Ekintza ezartzea.

Ekintzaren aplikazioa, formulatu ere, baliorik handieneko eremuen eta habitaten lurralde- eta ekologia-lotura errazteko helburu berezia lortzeko lagungarria delako formulatzen da; izan ere, organismo bizien jariorako eta funtsezko prozesu ekologikoen mantenamendurako lurralde-bermea da.

**Lurralde Igarobide Ekologikoak** formulatzen dira, *funtsezko prozesu ekologikoak mantentzeko esleituriko eginkizunaren* arabera zehaztuta. Eremu horien helburu orokorra hesiak detektatzea eta horiek gainditzeko jarduketak proposatzea da, baita azpiegitura-proiektu berrietan aintzat hartu behar diren zonak katalogatzea ere.

Igarobide ekologiko horiek sortzearen helburua, izan ere, Natura 2000 Sarea osatzeko proposatu diren antzeko espazioak lotzea da. Lotu behar diren espazio edo nodo horiek aukeratzeko irizpidetzat, berriz, basoko ekosistema naturalak egotea erabili da; horrela, baso autoktonoak dituzten GKLak eta HBBZak igarobide-sarea diseinatzeko oinarritzat hartu diren eremuak dira.

Gainera, aintzat hartu da baso autoktonoak dituzten beste Interes Naturalistikoko Eremu (INZ) batzuen lotura. INZ horietariko batzuen eta lotu beharreko GKLen nahiz HGGBen artean trazaturiko igarobideen arteko gurutzagunea egiaztatu da. Igarobideetan, batez ere euren erdiko zonan (“loturako korridorea”), paisaiaren lotura eta iragazkortasuna sustatzeko erabilerak sortu eta bultzatu nahi dira, faunaren lekualdatzeetarako.

Igarobide Ekologikoen Sarearen barruan, sarearen beraren bidez lotu beharreko espazioak daude. Horretarako, espazioen arteko paisaiaren gehieneko lotura edo iragazkortasuneko ibilbideen inguruan, zabalera aldakorreko bandak mugatu dira, espazioon arteko loturako korridoreak direnak hain zuzen. Loturako korridoreak ukitzen dituzten sektorerik nabarmenenak korridore horietatik bereizten dira eta loturako alde deritze. Hiru elementu horien inguruan, moteltze-alde bat mugatu da.

Elementuok zehaztu ondoren, loturako interes bereziko ubideko tarteak hautatzen dira sarearen koherentzia errazteko elementu gisa.

Lurralde Igarobide Ekologikoak Ingurumena Hobetzeko Ekintzen barruan sartu dira. Ekintza honen eraginpeko eremu geografikoetako erabileren eta jardueren arauketei ñabardurak nahiz zehaztapenak egin ahal zaizkie, euren osagaien izaera biofisikoaren arabera eta udal planeamenduak aurreikusitako hirigintza garapenekin, edo egon dauden hirigintza garapenekin.

Igarobide horietan, eremu natural interesgarrien arteko lotura ekologikotzat eta basoko faunaren babeslekutzat duten eginkizuna bermatzeko, mantendu egingo da hesietako, ezpondetako, basotxoetako eta urbazterretako landaredia. Halaber, landaredia naturaleko eta basotxoetako elementu linealak mantentzeko lanak sustatuko dira.

Era berean, azpiegiturak zeharkatzen dituzten igarobideetan, zeharreko iragazkortasuna hobetzeko neurriak hartuko dira, faunak bertatik igaro ahal izateko.

Halaber, hiri-jarraipentzat urbanizaturiko zonetan, beharrezko ekintzak garatuko dira espezieek bertatik igaro ahal izateko.

### 6.4.1.2 Estrategiak eta jarduketa-ildoak.

Kontserbazioko, hobekuntzako eta ingurumena suspertzeko helburuak lortzeko, lehenengo eta behin, atal egokian ezarritako jarraibideak eta arauketak aplikatu behar dira, zehazturiko ingurumen-hobekuntzako kategorietarako eta ekintzetarako.

Gainera, estrategia eta jarduketa-ildo batzuk planteatzen dira, eta horiek esku-hartze positiboko ekintzatzat hartu behar dira, eta balio estrategiko handia dute adierazitako helburuak bete ahal izateko.

Honako hauek hartu dira kontuan:

**a) Ingurune naturala babesteko eta kudeatzeko sistema finkatzea.**

LZPk, lurraldea antolatzeko eta jarduketa nahiz esku-hartze sektorialak (hain zuzen ere, baliabide eta espazio naturalak kontserbatzeari buruzko jarduketak) integratzeko agiria denez, indarreko babes-bideak jasotzen ditu (Urkiolako Parkea eta Urdaibai Biosfera Erreserba), baita proposamen irmoak ere (Natura 2000 Sarea), eta, beste espazio batzuekin batera, Babes Bereziko Lurzorutzat hartzen ditu.

**b) Eremu natural nagusien mantenamendu eta kontserbazio aktiboa egitea.**

Estrategia orokor hau jarduketa-ildo berezietan gauzatzen da, Babes Aparteko Lurzorutzat harturiko espazio mota nagusi bakoitzerako. Estrategia hau garatzen duten jarduketa-ildoetariko batzuk balio jakineko beste espazio natural batzuetan ere aplikagarriak dira, horiek babes multzo honen barruan egon ez arren. Kasurik gehienetan, ekintza positiboak dira.

Azaldutakoaren arabera, honako jarduketa-ildo hauek zehaztu dira:

- **Hostozabal autoktonoen masak kontserbatzea**. Hostozabal autoktonoen eta horien balio naturalen kontserbazioak (zentzu zabalean, euren funtzio ekologikoa ere aintzat hartuta) esku-hartze ekintza positiboen garapena eragin dezake, arlo horretan. Halako jarduketak finantzatzeko baliozko iturrien artean, aipagarriak dira LGIE eta beste agiri sektorial batzuk, besteak beste, EAEko Baso Egitamua; horren barruan, kontserbazioko eta hobekuntzako ekintza zehatzak jasotzen dira, bertako 1. helburuaren barruan: zuhaitzak dituzten mendien aniztasuna eta iraunkortasuna bermatzea, basoko lurraldea eta ekologia- nahiz paisaia-jarraipena mugatuz, antolatuz eta artikulatuz.

Honako ekintza zuzentzaile hauek formulatzen dira:

- **Espezie eta ale bereziak kontserbatzea.** EAEko Baso Egitamuan jasotako neurri hau lagungarria izan behar da aniztasun biologikoa kontserbatzeko eta espezie edota ale berezien onarpen formalerako zein mantenamendurako.
- **Zona hezeak kontserbatzea**. Eskualde Egiturako I. taldeko gune hezea kontserbatzeko ekintza berezien formulazioari dagokionez, egokitzat hartzen da Hezeguneen Lurralderaen Arloko Planean jasotako proposamena.

**c) Narriaturiko eremu naturalak hobetzea eta suspertzea.**

Planteamendu honen ardatz nagusia, izan ere, LZP honetan gure espazio naturalen funtzio-aniztasuna jasotzea da; hain zuzen ere, bertako funtzio ekologikoen kontserbazioa zein hobekuntza bateratu egin behar dira gizarte osoarentzat beharrezkoak diren ondasunen zein zerbitzuen sorrerarekin. Hamarkada honetan, eremu jakinari loturiko balio naturalen, sozioekonomikoen eta kulturalen integrazio gero eta handiagoa egon da, eta aipagarriak dira baliabide naturalen kontserbazioari, antolamenduari edo aprobetxamendu zentzuzkoagoari loturiko ekintzak.

Ekintza horien artean, aipagarriak dira **Ingurumen- hobekuntza eta Ingurumen hobekuntza lanik gabeko harrobietan eta zabortegietan izenekoak:**

- **Goi-isurialdeetan ingurumena suspertzeko eta hobetzeko ekintzak** planteatzen dira, **Ingurumen Hobekuntzako** gainjarritako baldintzaren bidez, narriaturiko eremuetan, lurzoru

gutxiko eremuetan edo higadura handikoetan (adibidez, Oiz mendiaren ingurua); horietan, ahalik eta lasterren, ekosistema suspertu egin behar da, baliabidea ez galtzeko.

- Halaber, **Ingurumen hobekuntza lanik gabeko harrobietan eta zabortegietan** gainjarritako baldintza ezartzen da eremu horiek suspertu ahal izateko. Hori bat dator erauzketa jardueren eraginpeko eremu naturala suspertzeari buruzko ekainaren 20ko 115/2000 Dekretuan ezarritako irizpideekin.

  Hondakindegiei dagokienez, ustiapenerako legez exijituriko izapidea jarraitu dutenek nahitaez bete behar dituzte Eusko Jaurlaritzaren azaroaren 2ko 423/1994 Dekretuaren (EHAA, 1994ko abenduaren 19koa) eta Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen sailburuaren 1995eko otsailaren 15eko Aginduaren (EHAA, 1995eko martxoaren 20koa) xedapenak.

  Legeztaturik ez dauden hondakindegiei dagokienez (ezkutukotzat jo genitzakeenak), horietako asko lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak jasan dituzten edo jasaten dituzten lurren inbentarioan daude sartuta, irailaren 30eko 165/2008 Dekretuaren bidez onetsitako erregistro horretan (EHAA, 2008ko urriaren 24koa). Gainera, Eusko Legebiltzarrak Lurraren kutsadura prebenitzeko eta zuzentzeko emandako 1/2005 Legean ezarritako prozedura aplikatu behar zaie.

  Jarduerarik ez duten harrobietako eta hondakindegietako Ingurumen-hobekuntzaren kokapena, LZPren kartografian agertzen dena, ez da zehatza, baizik eta EAEko Nekazaritza nahiz abeltzaintzaren LAPtik eta Foru Aldundiaren kartografiatik lorturiko datuetan dago oinarrituta. LZPren dokumentazio grafikoan identifikatu ez diren horrelako eremuak badaude, lehenago azaldutako baldintzak aplikatu beharko dira.

### d) Kalitatezko nekazaritza- eta abeltzaintza-produkzioak bultzatzea eta sustatzea.

- Nekazaritzako nahiz Abeltzaintzako eta Landazabaleko lurzoruetarako planteatu arren, hemen **tokiko abere-arraza batzuen mantenamenduan laguntzea** ere sartzen da.

Nekazaritza, abeltzaintza eta ingurumeneko neurri hau abere autoktonoen (behiak, ardiak eta zaldiak) arrazak modu aktiboan kontserbatzeko formulatzen da, baita “erdi naturalak” diren habitat motak (interes komunitarioa dutenak) mantentzeko eta hobetzeko ere (arraza horientzat funtsezkoak diren habitatak), eta horiek Habitaten Zuzentarauko I. eranskinean jasota daude; horrenbestez, hau lagungarria da espazio eta elementu naturalen kontserbazio-estrategia garatzen duen jarduketa-ildorako. Aplikagarria da interes komunitarioko habitatak jasotzen dituzten antolamendu-kategoria guztietan, eta lehentasunezko aplikaziokotzat hartzen da Mendiko Larreen kategorian.

**e) Ustiapenen ingurumen-konpromisoa eta nekazaritza- nahiz abeltzaintza-kudeaketa iraunkorra sustatzea.**

Helburua lortzeko, nekazaritzako eta abeltzaintzako teknika iraunkorrak sustatu eta ezarri behar dira, jarduerak ingurumenean izan ditzakeen eragin kaltegarriak ahalik eta gehien murrizteko eta, zentzu zabalean, ingurumen-hobariak sortzeko (aniztasun biologikoa, paisaia, etab.). Horrela, estrategia honen formulazioa justifikaturik dago, eta hori jarduketa-ildo eta ekintza zehatzen bidez garatzen da.

- **Laborantzako lurrak ongarriztatzean, konpostaturiko hondakin organikoak erabiltzea, kutsagarriak izan daitezkeen nekazaritza-hondakinak ongarritzat balio handia duten produktu bihurtzeko**. Nekazaritzako eta ingurumeneko neurri horrek bere gain hartzen du diru-laguntzak eta laguntza teknikoa zuzkitu beharra, nekazaritza-teknika horren ezarkuntzan, eta horren emaitzak, batez ere, epe ertainean eta luzean gelditSuko dira agerian. Aplikagarria da Eskualde Egituraren barruan, batez ere larretan eta belardietan; hau da, Nekazaritza nahiz Abeltzaintza eta Landazabaleko kategorian, eta, neurri txikiagoan, Mendiko Larreko kategorian.
- **Aprobetxamendu estentsiboa larreen zonan**. Nekazaritzako eta ingurumeneko neurri hau, batik bat, Mendiko Larreko kategorian da aplikagarria, baina baita xehetasun-eskalan ere, Balio Estrategiko Handiko Landazabaleko eta Trantsizioko Landa Paisaiako gune batzuetan; pizgarria da larreak eta belardiak

mantentzeko, horietariko batzuk bertan behera uzten joan baitira. Jarduketa hau aplikatzearen eraginezko ingurumen-hobariak anitzak dira; besteak beste, landa-paisaia tradizionalaren mantenamenduan egiten duen ekarpena, baita ingurune naturalaren babesa nahiz hobekuntza, batez ere sute- eta higadura-arriskuei dagokienez; hortaz, halako helburuak lortzeko ere lagungarria da.

- **Nekazaritza- eta abeltzaintza-ustiapenetako** eta landa-egiturako **elementu eta balio naturalak mantentzea eta hobetzea: mendiko larreen kontserbazio aktiboa**. Neurri honen helburua mendiko larreen erabilera iraunkorra segurtatzea da; izan ere, gehienak izen bereko antolamendu-kategorian sartu dira eta interes komunitarioko habitatak dira; horrenbestez, neurri honen aplikazioak eragin positiboa izango du halako habitatak dituzten zonetan. Natura 2000 Sareko Espazioak (eta horien babes-eremuak) eta Erabilera Publikoko Espazioak dituzten antolamendu-kategoria guztietan aplikatuko dira, eta Erabilera Publikoko Mendietan eta Erabilera Askeko Mendi Publikoetan ere bai.

### 6.4.2. Lurrazaleko eta lurpeko uren kalitate maila mantentzea eta hobetzea, urok baliabide naturaltzat eta ingurumen-bektoretzat duten balioa modu integratuan hartuta.

Helburu hau estu lotuta dago eremu batzuei buruzko proposamenekin, adibidez, eremu hezeekin. Arauketei dagokienez, zuzen-zuzen aplikatzekoak dira uraren kudeaketan eragina duten Lurraldearen Arloko Planetan jasotakoak: Ibai eta Erreken Ertzak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana eta Hezeguneen Lurraldearen Arloko Plana.

Gainazaleko eta lurpeko uren arazo nagusia, Eskualde Egituran, kutsadura da. Uren kutsadura-iturri ugarien artean, garrantzitsuenak honako hauek dira: nekazaritza-kutsadurako (barreiatua) prozesuak, produktu fitosanitario jakinak erabiltzearen eta abeltzaintza-jardueraren eraginezkoak, eta hiri- nahiz industria-jatorriko kutsadura. Bi arazo horiei aurre egiteko, kasu bakoitzerako estrategia egokiak erabili behar dira.

Lurraldearen Arloko Planak estrategiak, ekintzak eta arauketak ditu, gainazaleko nahiz lurpeko uren kalitate baxuaren arazoa konpontzen laguntzeko, prebentzio-printzipioa aplikatuz, kutsadura-prozesuei dagokienez. Antolamendu-kategoria hauetan jasotako jardueren eta erabileren arauketa LZPk uren kalitatea hobetzearen arloan egindako ekarpena da. Hain zuzen ere, aipagarriak dira Basoko, Nekazaritzako nahiz Abeltzaintzako eta Landazabaleko kategoriari buruzko arauketa batzuk, baita Babes Aparteko Lurzoruetan jasotako kategoriei buruzkoak ere.

Halaber, saneamenduko eta arazketako azpiegituren arloan ere ekintzak aplikatu behar dira, LZPk zerbitzuen oinarrizko azpiegiturei buruz ezarritakoarekin koherentzian.

Ildo beretik, uren kutsadurarekiko zona zaurgarriak adierazteko arauak eman dituen 390/1998 Dekretuaren xedapenak betetzea exijitu behar da, bertako nekazaritzako jarduerak sortzen dituen nitratoak direla-eta. Bestalde, Nekazaritzan Egoki Jarduteko Kodea onetsi da. Gainera, Eusko Jaurlaritzak abeltzaintzako ustiategien arau teknikoak, higienikoak eta sanitarioak ezartzeko emandako 141/2004 Dekretuan xedaturikoak ere izango dira exijitzeko modukoak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Ibai eta Erreken Ertzak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planean, **ondo kontserbaturiko landaredia duten ertzak** daude jasota; horiek ibilguen urbazterretan eta ertzetan dagoen landarediaren kontserbazio-egoera onaren arabera zehaztuta daude, eta landaredia hori babestu egin behar da berorren kontserbazioa eta mantenamendua bermatzeko; hirigintza-antolamenduaren Gainjarritako Baldintzatzailetzat hartzen dira, suspertze-ekintzak behar dituztenekin batera. Horiei, LZPk (horiek ere gainjarritako baldintzatzailetzat) hiriguneetan bermatu beharreko ertzak gehitzen dizkie, eta azken horiek, sarritan, hirigunea egituratzeko benetako ardatzak dira.

### 6.4.2.1 Antolamendu-kategoriak eta gainjarritako baldintzak ezartzea.

#### A) “Gainazaleko Uren Babesa” deritzon antolamendu-kategoria.

Ibaien eta erreken ertzak babestea helburu orokortzat lortu nahi da eta, beraz, Gainjarritako Baldintzatzaileak eta Ingurumen Hobekuntzako Ekintzatzat agertzen da; izan ere, ikuspegi ekologikotik zona oso ahulak dira eta interes handia dute biodibertsitatea kontserbatzeko eta higaduraren prebentziorako, eta, zeharka, uholde-episodioen eraginezko ondorioen prebentziorako ere bai. Ibaietako eta erreketako ahalezko landaredia osatzen duten habitatak Habitaten Zuzentarauko I. eranskinean jasota daude eta, hortaz, esan daiteke neurri hau abiatzeak ondorio onak izango dituela Natura 2000 Sarearen benetako ezarkuntzan.

Zehazkiago, Ibaizabaleko erreka tarteak, Erletxe eta Durango artean, eta Zornotzako hirigunearen aurreko eta atzeko erreka tarteak hobetu beharreko zatitzat jo dira Bisoi Europarra Kudeatzeko Planeko Bisoi Europarrarentzat zehazturiko Interes Bereziko Aldearen barruan (Plan hori 118/2006 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen, BAO, 2006ko otsailaren 6koa).

Bestalde, aipatutako babes-neurri honek eragin positiboa izan beharko luke uren kalitatearen helburu orokorra lortzeari dagokionez.

#### B) Gainjarritako baldintzatzaileak eta Ingurumen Hobekuntzako Ekintzak: “Akuiferoen Kutsadurarekiko Eremu Zaurgarriak”, “Kontserbazio-egoera oneko landaredia duten ibaiertzak” eta “Suspertu beharreko ibaiertzak” eta “Hiriguneetan bermatu beharreko ibaiertzak”:

Uren kalitatea hobetzeko nahiz mantentzeko helburu orokorra eta planteaturiko estrategiak zein jarduketa-ildoak aplikazio orokorrekoak dira lurralde osoan; hala ere, **Akuiferoak Kutsatzeko Arriskua duten Eremuak** deritzon gainjarritako baldintzatzailearen eraginpeko lurrak ere oso ahulak dira. Baldintzatzaile horri dagokionez,

lehenengo eta behin, bere ezaugarrien araberako arauketa bereziak egin behar dira.

Akuifero bat lurpeko ura kantitate handian biltzeko eta transmititzeko gaitasuna duen eraketa geologikoa da; horrela, ur hori berez azaleratzen da, iturburuen, jario-eremuen nahiz ibilguen bidez edo zuzen-zuzen doa itsasora; bestela, modu artifizialean ere azaleratu ahal da, putzuen, galerien eta beste mota batzuetako erakarpenen bitartez.

Lurpeko uren berezko ezaugarri kimikoak lurzoruaren eta akuiferoaren ezaugarri geologikoen araberakoak dira, baita horren funtzionamendu hidrogeologikoaren araberakoak ere. Hiriko, industriako, nekazaritzako nahiz abeltzaintzako eta halako jarduerek aldatu egiten dituzte uraren berezko ezaugarriak. Akuiferoek denbora luzea behar dute kutsadura erakusteko, besteak beste, lurpeko uraren zirkulazioa motela izatearen eta lurraren xurgatze-gaitasunaren ondorioz. Prozesu kutsagarriak ez dira zuzenean ikusten.

Oro har, akuiferoek arazketa-gaitasun handia dute; hala eta guztiz ere, akuiferoko lurpeko urak kutsatu ondoren, horien arazketa apurka-apurkakoa izaten da. Horrenbestez, LZPk garrantzi handikotzat hartzen du lurpeko uren babesa.

Horrela, zona hauetan Euskal Autonomia Erkidegoko Akuiferoen Lurraldearen Arloko Planeko agirian identifikaturiko erabileretarako eta jardueretarako jarraibideak aplikatu behar dira. Horietariko asko nekazaritzako nahiz abeltzaintzako eta basoko jarduerei buruzkoak dira, eta horiek, aldi berean, arau sektorialen eraginpean daude (Eusko Jaurlaritzaren 165/1999 Dekretua, ingurumenaren jarduerari eta babesari buruzkoa, jarduera lizentzia lortzeko salbuetsia; Eusko Jaurlaritzaren 390/1998 Dekretua, uren kutsadurarekiko zona zaurgarriak adierazteko arauak eman dituena nekazaritzako jarduerak sortutako nitratoak direla-eta. Gainera, hauxe onetsi da Dekretuaren bidez: EAEn Nekazaritzan Egoki Jarduteko Kodea eta Eusko Jaurlaritzaren 141/2004 Dekretua, nekazaritzako ustiategien

arau teknikoak, higienikoak eta sanitarioak ezarri dituena eta LZP honen indarraldian indarrean diren baterako legeria).

Baldintzatzaile honen eraginpeko lurzoruetan nekazaritzako, abeltzaintzako eta basoko jarduerak garatzean, aplikagarriak dira Nekazaritza Jardun Onen Kodeko irizpideak eta arauketak, herbiziden, fitosanitarioen edo ongarrien bidezko tratamenduaren arloan, akuiferoetarako kutsagarriak izan daitezkeen dosiak saihestuta.

Simaurtegi berrien, minda-hobien, lurperatze-hobien edo abeltzaintzako beste azpiegitura batzuen eraikuntzan, horiek kutsadura sortu ahal dutenean, aintzat hartuko dira administrazio sektorial eskudunak gaitasunari eta diseinuari buruz ezartzen dituen neurriak, akuiferoen kutsadura saihesteko, lehen aipaturiko legerian ezarritako beharkizunen eta gomendioen arabera.

Ibaiak suspertzeko ekintzen helburuak, izan ere, ibilguen nahiz urbazterren prozesu naturalak suspertzea (oreka geomorfologikoa lortzeko) eta ekosistematzat duten funtzionamendua berreskuratzea dira.

Behin betiko suspertzea, bestalde, ibaiak narriatu aurreko jatorrizko formak eta prozesuak berreskuratzen dituenean lortzen da. Hala ere, kasurik gehienetan, helburua prozesu naturalak suspertzea da, horiek uholde-lautadaren oraingo erabilerekin bateragarriak diren neurrian, horren funtzionamendu ekologikoaren zati bat berreskuratuz.

Ibaiaren funtseko bi elementu horiek suspertzea (ibilguen erregimena eta ibai-espazioa), izan ere, ibaiak suspertzean lortu behar den lehenengo helburua da, eta, horretarako, esleituriko inbertsio eta ahalegin guztiak erabiliko dira.

Ildo beretik, aldi batez ibai-espazio bat edukitzearen pribilegioaz jabearaztea da EAEko Ibai eta Erreka Ertzak Antolatzeko LAPn ezarritako **ondo kontserbaturiko landaredia duten ibaiertzak**

mantentzeko helburua, non haien osotasuna, egonkortasuna eta edertasuna mantendu nahi den datozen belaunaldientzat”.

**Ibaiertzak suspertzeko** ekintzaren helburua, izatez ere, ibaiek lurraldean beti izan duten protagonismoa berreskuratzea da. EAEko ibaien oraingo narriadura eragin duten prozesuak asko izan dira, denboran zehar, euren historia fisikoaren eta giza historiaren arabera. Betiere, batez ere ibaien kudeaketan nagusitasun teknologikorik handieneko azken mende erdi honetan, ikuspegi produktibista nagusi da, eta ibaiek honako honetarako duten balioa baino ez da aintzat hartu: ura hornitzeko, energia potentziala zein zinetikoa sortzeko edo uholdeak husteko. Izan ere, sarritan, ahaztu egin da espazio publikotzat duten balioa, baita bertan jarduera asko garatzeko aukerak ere.

LZP honek beste ingurumen-balio batzuen sortzailetzat hartzen ditu ibaiak; espezie aniztasunik handiena ematen die, baita oroitzapen-ahalmen handiko paisaiak ere. Halaber, aintzat hartzen dira sistemaren funtzionamendu hidrologikoa (uholde-lautadan akuiferoak kargatzeko), horrek uholdeen eraketa atzeratzeko gaitasuna, etab. Horrela, ibaiertzak suspertzeko ahalegina egindako proposamenen barruko funtsezko elementua da.

**Hiriguneetan bermatu beharreko ibaiertzak** hirigunea egituratzeko benetako ardatzak dira, inguruko egituran eragin handia dute eta, sarritan, hiri-kalitatearen zuzeneko eragileak dira; horren alderdi estetikoak, eremu hauetan, narriatu egin dira, uren kalitateak txarrera egin ahala. Kalitaterik eza horren eraginez, kasu askotan, hiriek (eratzeko orduan) bizkarra eman diete eremu hauei; izan ere, balio handiko espazio naturalak izan arren, hiri barruan hondakinezko espaziotzat hartu eta, halakotzat, “tratu txarra” jaso dute.

Hirigunean bideratzeko eta uholdeen aurkako defendatzeko lanetan azaldu diren arazo nagusienen artean, aipagarriak dira udal-planeamenduko integraziorik eza eta, batik bat, jarduketen zein etorkizuneko aprobetxamenduen aurreikuspenik ez egotea, obra hidraulikoek askaturiko ibilguko lurrei dagokienez, paisaiaren aldetik

balio handikoak diren hiri espazioak sortzeko (adibidez, parkeak, egoteko lekuak, etab.). LZP honen proposamenen helburua, izan ere, hiri-ahalmen handiko espazio horiei erreparatzea da.

### 6.4.2.2 Estrategiak eta jarduketa-ildoak.

Erabileren eta jardueren arauketak ezarri ondoren (uren kalitatea kontserbatzeko eta suspertzeko helburuei dagokienez), horiek garatzeko jarduketa-ildoak formulatzen dira, formulaturiko helburuak lortu ahal izateko laguntza emanez.

#### a) Lurraldeko eremu natural nagusiak mantentzea eta kontserbatzea: Ibai eta Erreka Ertzen Kontserbazioa.

Aplikagarriak dira Ibai eta Erreka Ertzen Lurraldearen Arloko Planean jasotako kontserbazio-proposamenak.

#### b) Narriaturiko eremu naturalak hobetzea eta suspertzea.

**Urbazterrak birlandatzea**, horiek lehentasunezko jarduketa-eremutzat hartuta.

**Suspertu beharra duten ertzak suspertzea eta hobetzea.** Zabortegiak, hondakindegiak, indusketak, betelanak, bideratze-obrak eta halakoak edukitzearen ondorioz narriaturik dauden eremuak dira, baita dena delakoagatik kalitate ekologikoa murriztuta duten eta modu aktiboan suspertu behar diren zonak ere.

**Hiriguneetako ertzak suspertzea eta hobetzea**. Hiriko egituran eta irudian eragin handia duten eremu narriatuak dira; aipagarriak dira, besteak beste, eraikin berezi batzuetan eta, oro har, ubidetik hurbileko eremuetan (narriaturiko eta hiri-tratamendurik gabeko espazioak, hormak arrakalatzea, zimendatze-arazoak, iragazpenak) narriadura nabarmentzea; hori, sarritan, ibaia dragatzeko lanen eta bideratze-hormak zimendatzearen eraginezkoa izaten da; halaber, aipagarriak dira aukeraturiko materialen ikusmen-eragin handia eta ertzen hazkundeak sorturiko arazoak.

**c) Gutxieneko emari ekologikoak zehaztea, horiek mantentzea eta kutsadurako eremu nahiz gune nagusiak zehatz identifikatzea eta ebaluatzea.**

Estrategia hau honako gai hauei buruzko ikerketa sektorialak egitean oinarritzen da:

- **Gutxieneko emari ekologikoak**, ekosistemen funtzionamendu ona segurtatzeko, baliabidearen iraunkortasunean oinarrituriko erabilerarekin bateragarria den funtzionamendua, gizakien hornidura bermatuz. Identifikaturiko ekintza nagusia bidezko ikerketa hauek egitea da.
- **Ikerketa baten bidez, isurketen jatorri zehatza adieraztea**, horien zati handia oraindik kontrolik gabea baita, eta egoeraren ebaluazio objektiboa egitea, jarraibideak eta arauketak formulatu ahal izateko.

**d) Saneamenduko eta arazketako azpiegiturak lehentasunez garatzea, arazorik gehien duten guneetan eta isolaturiko baserrietan.**

Eskualde Egiturako ibai-ardatz nagusienetariko batzuetan eragina duten ur-kutsadurako arazoak, zeharka, prebentzioaren bidez konpondu behar dira, uretako elementu kutsagarrien pilaketa handiak arautzeko eta baliabidearen egoera hobetzen joateko aukera ematen duten zuzkidurak sortuta. Zuzkidurak eta azpiegiturak egokitzeko lehentasunezko eremutzat ezarriko dira, orokorrean, Akuiferoen Zaurgarritasun Eremuen gainjarritako baldintzatzailearen eraginpeko eremuetan dauden hiriguneak nahiz landaguneak eta baserri isolatuak; dena den, Eskualde Egiturako lurralde osoan azpiegitura egokiak zuzkitu behar dira.

Honako jarduketa-ildo hauek sartzen dira:

- **Zuzkidurak eta azpiegiturak hiriguneetan eta landaguneetan**. Ahalik eta lehenen egin behar da saneamendu-sarea, Eskualde Egiturako benetako beharrizanetara egokituta, eta gainera, dinamizatu egin behar

dira planeamendu sektorialean jasotako hondakin uren araztegien proiektuak.

- **Zuzkidurak industria-eremuetan**. Lehentasuna eman behar zaio gehien kutsatzen duten industrietako kolektoreak eta araztegiak lotzeari, bertan arazte-sistema egokiak instalatzeko behar diren pizgarri ekonomikoak sustatuta eta aurreikusita; gainera, kontrolatu egin behar da (ingurumen-zaintzako mekanismoen ezarkuntza) horien funtzionamendu egokia.
- **Azpiegitura egokiak baserrietan eta nekazaritza-ustiapenetan,** Akuiferoen Zaurgarritasuna gainjarritako baldintzatzailearen eraginpeko zonetan, baina baita jarduera gehien intentsifikatu duten eremuetan ere.
- **Zaurgarritasun handiko eremuetan instalaturiko hondakindegiak beste leku batean instalatzea**, akuiferoetan lixibak iragazteko arriskua baitago; izan ere, horrek mehatxu larria sortzen du lurpeko baliabide hidrikoaren kontserbazio onerako (bidezko ikerketetan oinarrituriko kontserbazioa).
- **Hiriko ertzak berrerabiltzea eta hobetzea,** ibilguen aurreko hiriko fatxaden (egoitzakoak nahiz industriakoak) balioa handitzeko lagungarriak diren ekipamenduak eta oinezkoen bideak ezarrita, lorategiak eginez, urbazterreko landaredia kontserbatuz eta paisaiaren integrazioa bermatuz.

**e) Nekazaritza-kutsaduraren mailak murriztea, batez ere nekazaritza- eta abeltzaintza-jarduerako konposatu nitrogenatuak eta lixibak.**

Uren kutsadura-arazoak (nekazaritza- eta abeltzaintza-jarduerarekin loturikoak) konpontzeko estrategia bat garatu behar da.

Estrategia horren garapena estu lotuta dago nekazaritza- eta abeltzaintza-jarduera iraunkorra mantentzeari buruzko jarduketa-ildoetara eta ekintzetara. Hain zuzen ere, aipagarria da Eusko Jaurlaritzaren 390/1998 Dekretua, uren kutsadurarekiko zona zaurgarriak adierazteko arauak eman dituena nekazaritzako jarduerak sortutako nitratoak direla-eta. Gainera, Nekazaritzan Egoki Jarduteko Kodea dagoela esan behar da. Bestalde, nekazaritzaren

ustiapenaren mailako helburu espezifiko lez, ingurumen eraginerako arrisku handiena dakarten nekazaritza nahiz abeltzaintzako jardueren kontrol zorrotza aipatu behar da, abeltzaintzako ustiapenen arau teknikoak, higienikoak, sanitarioak eta ingurumenekoak ezarri dituena, Eusko Jaurlaritzaren 141/2004 Dekretuaren xedapenekin bat etorriz.

**f) Akuiferoak zaintzeko sistema ezartzea, batez ere nekazaritza- eta abeltzaintza-ustiapenetako putzu ugariak eta erakarpen txikiak zaintzeko sistema.**

Putzu eta erakarpen berriak sortzeko, indarreko legerian ezarritakoaren arabera, baimen bereziak behar dira. Halaber, maila piezometrikoen bilakaeraren jarraipena egin behar da, batik bat erakarpen-dentsitate handiko eremuetan eta Akuiferoak Kutsatzeko Arriskua duten Eremuak deritzon gainjarritako baldintzatzailearen eraginpeko eremuetan; izan ere, baliabide hidrikoaren kantitatea murrizteak elementu kutsagarrien pilaketa eragin dezake, hau da, eragin kaltegarria izan dezake uren kalitatean.

### 6.4.3 Nekazaritza- eta abeltzaintza-jarduera mantentzea eta sustatzea, bai landa-ingurunean bizitasunerako sektore ekonomiko garrantzitsua delako, bai baliabide naturalak erabiltzearen, paisaia kontserbatzearen zein kudeatzearen eta lurraldearen nortasuna zaintzearen arloan garrantzi handiko eginkizunak dituelako.

Nekazaritza- eta abeltzaintza-jardueraren mantenamendua, gehienbat baserriaren inguruan artikulatuta (Eskualde Egiturako oinarrizko ustiapen-unitatetzat), arrazoi ekonomikoetan eta enpleguari loturiko arrazoietan oinarritzen da, baita, batez ere, baserriak zenbait arlotan izan beharreko protagonismoan ere: lurzoruaren erabilera, baliabide naturalen kudeaketa, eraikitako ondarea, landa-paisaiaren oinarrizko egiturak (bideak, zedarriak, ustiapenaren ondoko eraikuntzak, lurzoruaren erabileren mosaikoa) eta lurraldearen nortasunaren zaintza, batik bat Durangoko Eskualde Egituraren ezaugarri geografikoak dituen espazio batean, bertan landa-eremua kontrapuntua eta oreka-elementua baita, lurzoruei eta hiri- nahiz-industria-jarduerei dagokienez.

### 6.4.3.1 Babesturiko lurzoruen antolamendu-kategoriak ezartzea: baso-eremuak, nekazaritza- nahiz abeltzaintza-eremuak eta landazabalak.

#### *A) “Balio estrategiko handiko landazabalak” eta “trantsizioko landa-paisaia” izeneko Antolamendu Azpikategoriak.*

Lurraldearen antolamenduan oinarrituz, eta aipaturiko helburua lortu ahal izateko, Durangoko Eskualde Egiturako LZPk, lehenengo eta behin, Akuiferoen Lurraldearen Arloko Planean ezarritakoaren arabera, Nekazaritzako nahiz Abeltzaintzako eta Landazabaleko kategoriaren barruan, “**Balio estrategiko handiko landazabalak**” eta “**Trantsizioko Landa Paisaia**” kategoriak sartzen ditu. Azpikategoria horien barruko lurzoru urbanizaezinak bidekotzat hartu direnak dira, aintzat hartuta Eskualde Egiturako nekazaritza- nahiz abeltzaintza-eremuko ezaugarri fisikoak, agrologikoak zein funtzionalak eta lurralde-dinamikak.

Antolamenduko azpikategoria horiek ezartzea eta erabilerak nahiz jarduerak arautzea (bidezko matrizea erabiliz) hirigintza-bermea da halako lurzoruen bokazioa eta nekazaritza- zein abeltzaintza-funtzioak mantentzeko. Horixe da LZPren eginkizun nagusia. Kalifikazio horrekin batera, Egitamuak estrategiak eta ekintzak ere jasotzen ditu, eta horiek, sarritan, politika sektorialetatik aterata daude; lagungarriak izan behar dira nekazaritzako nahiz abeltzaintzako produkzio-jarduera sustatzeko, kalifikazio hori duten lurzoruetan, baita halakoei dagozkien funtzio guztiak (produkziokoa, ingurumenekoa, paisaiakoa eta kulturakoa) mantentzeko zein garatzeko ere.

Larrek, belardiek eta laboreek okupaturiko lurzoruen balio agrologiko desberdina ikusita, “Balio estrategiko handiko landazabalak” (kalitate edafikorik handiena dutenak) gainerako “Trantsizioko Landa Paisaiak” bereizi dira. Lurzoru horien gaitasun agrologikoa zaintzeko, baina gehienbat ingurumenaren, kulturaren nahiz paisaiaren aldetik duten esangura kontserbatzeko, bi kategorien helburua baldintza

egokiak sortzea da (hirigintzaren ikuspegitik), oraingo nekazaritzako nahiz abeltzaintzako erabilerak eta aprobetxamenduak mantentzea, baita horiekin bateragarriak diren eta landazabaleko nahiz bertako ekosistemetako nekazaritza-paisaien kontserbazioa bermatzen duten erabilerak eta aprobetxamenduak mantentzeko ere.

Halako lurzoruen nekazaritzako eta abeltzaintzako produkzio-funtzioak eta nortasuna mantentzeko, komenigarria da nekazaritza- eta abeltzaintza-ustiapenari loturiko eraikuntza berriek euren beharrizana eta jarduera mota jakinerako berariazko lotura justifikatzea, nekazaritzaren arloko foru-administrazio eskudunaren ziurtagiria aurkeztuta.

Era berean, lurraldean eraikitako elementu txikien barreiaduraren eraginezko ondorio kaltegarririk ez egoteko (paisaian eta ingurumenean), komenigarria da ustiapenari loturiko eraikinik txikienak (adibidez, siloak edo minden biltegiak) eraikin nagusia duen lursailaren perimetro barruan egotea.

Abeltzaintzako instalazioei dagokienez, euren tamaina egokitu egin behar da ustiapen-aziendaren dimentsioetara, eta gainera, bizigarritasunaren, hondakinen tratamenduaren eta osasunaren aldetik, bete egin beharko da EAEko Ingurumena Babesteari buruzko 3/1998 Lege Orokorrak eta berori garatu duen 165/1999 Dekretuak eta abeltzaintzako ustiapenen arau teknikoak, higienikoak, sanitarioak eta ingurumenekoak ezarri dituen 141/2004 Dekretuan ezarritakoa.

Nekazaritza-lurzoruetan, belardietan eta larreetan mindak ongarri naturaltzat erabiltzeari dagokionez (sustrai handiko ohitura eskualdean), bete egin behar dira 390/1998 Dekretuak ezarritako irizpideak; dekretu horren bidez, uren kutsadurarekiko (nekazaritza-jardueran sorturiko nitratoen eraginezko kutsadura) Zona Zaurgarrien adierazpenerako arauak eman dira. Halaber, aplikagarriak dira Nekazaritza Jardun Onen Kodean jasotako kudeaketako irizpideak eta formulak, baita 165/1999 Dekretuan ezarritakoa ere, abeltzaintza-unitateen eta mindak zabaltzeko lurrak edukitzearen

arteko loturari dagokionez eta nekazaritza eta abeltzaintzako ustiapenen arau teknikoak, higienikoak, sanitarioak eta ingurumenekoak ezarri dituen 141/2004 Dekretuan ezarritakoari dagokionez.

Eraikinek paisaian duten ikusmen-eragina ahalik eta gehien murrizteko, landare-hesiak jartzeko eskatu ahal da, eta puntu honetan gomendio hori egin daiteke, batez ere paisaia defendatzeko helburua betetzeko.

### 6.4.3.2 Estrategiak eta jarduketa-ildoak.

Formulaturiko helburua garatzeko, estrategiak eta horiek garatzen dituzten jarduketa-ildoak ezarri dira. Era berean, planifikazio sektorialeko agirietan jasotako ekintzak identifikatzen eta integratzen saiatu dira, agiri horien artean, aipagarria da Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapen Iraunkorreko Plana (LGIP), 2000-2013 aldirakoa, aintzat hartuta agiri horretan aztertzen ari garen neurrietariko batzuen finantziazioa dagoela aurreikusita.

#### a) Landa-biztanleen bizi-kalitatea hobetzea, batik bat zuzkidura-irizpideak aintzat hartuta.

Landa-mundua bizia eta dinamikoa izateko, hobetu egin behar da bertako biztanleen bizi-kalitatea, eta alderdi hori funtsezkoa da biztanleriaren eta nekazaritzako nahiz abeltzaintzako jardueren mantenamendurako. Beraz, zuzkidura egokiak izan behar dira aintzat.

Identifikaturiko jarduketa-ildoak zehazteko, diagnostiko-fasean lorturiko emaitzak eta proposamen mailako agiri sektorial batzuk hartu dira oinarritzat.

Hain zuzen ere, honako jarduketa-ildo hauek zehaztu dira:

- **Landaguneetako zerbitzuak hobetzea**. Honen barruko ekintzen artean, aipagarriak dira landagune txikietarako ur-hornidura egitea nahiz hobetzea, landaguneen elektrifikazioa,

landa-saneamendua, landa-posta eta landagune txikien gasifikazioa.

- **Herrien berrikuntza zein garapena eta landa-ondarearen babesa nahiz kontserbazioa**. Horri dagokionez, eraikinak nahiz lokalak suspertzeko ekintzak, landaguneen egokitzapena, ingurunearen susperraldia, birgaikuntza eta landa-etxebizitzen egokitzapena egingo dira.
- **Baserriaren egoitza-kalitatea hobetzea**. Nekazariaren esku zerbitzuak jartzeko neurriak sustatuko dira (albaitaritza, osasuna, etab.), irisgarritasuna eta, oro har, garraioa hobetuta; horrela, nekazaritzako eta basoko azalerak hobeto ustiatu ahal izango dira, eta baserriak, berriz, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeko 30. artikuluan eta 2/2006 Legea garatzeko Premiazko Neurriei buruzko 105/2008 Dekretuko 9. artikuluan ezarritakoaren arabera berreraikiko dira.
- **Landa-inguruan informazioa eta gizarte-zerbitzuak sustatzea**, gehienbat emakumearen egoera hobetzera zuzendutakoak.

### b) Ustiapenen produkzio-egitura hobetzea eta jardueren dibertsifikazioa sustatzea.

Oraingo ekonomia-esparruan funtsezkoa da, lehiakortasun-helburuak lortzeko, ustiapenen (batez ere, baserriak) egitura hobetzeko ekintzak garatzea, baita nekazaritza- nahiz abeltzaintza-jarduera “tradizionalak” osatzen dituzten landa-jarduerak dibertsifikatzea ere: landa-turismoa, etab. Horri dagokionez, formulaturiko jarduketa-ildoetariko batzuek natura- eta landa-espazioarekiko sarbide publikoa sustatzeko helburua garatzen dute.

Jardueren dibertsifikazioa sustatzeko, Landa Garapeneko 2007-2013 Programaren landa ekonomiaren dibertsifikazioari eta landaguneen bizi-kalitateari buruzko III. ardatzaren barruan ezarritako neurriak aplikatu behar dira. Programa horren bidez, hainbat ekintza bultzatu nahi dira hala nola nekazaritza produktu eta landaketa propioak eta aukerakoak garatzea, nekazaritza ustiatepenen errenten dibertsifikazio

proiektuen inbertsioa eta nekazaritzaren eremuko eta horrekin lotutako eremuen jardueren dibertsifikazio proiektuak bultzatzea.

Honako jarduketa-ildo hauek zehazten dira:

- **Larrediak ustiatzeko akordioak** sustatzea, **baita abeltzain-elkarteen artekoak ere**, larredien ustiapenean mantenamendu-berme handiagoak ezartzeko, beste erabilera batzuetarako itxaropenak ahalik eta gehien murriztuz.
- **Bertan behera utzita** edo uzteko prozesuan **dauden lurrak suspertzeko ikerketak** egitea, gaitasun agrologikorik handienekoei lehentasuna emanez, horiek suspertu ahal izateko.
- **Nekazaritzako lurrak hobetzea**, finkak ustiapenaren ezaugarri berezien arabera egokitzeko, eta egitura-ezaugarriak hobetzea, ustiapenek errentagarritasun handiagoa eduki ahal izateko.
- **Naturako turismoari eta landa-turismoari loturiko jarduera osagarriak** martxan jartzeko dirulaguntzak ematea. Aplikagarria da turismo jarduerak sustatzeari buruzko Lan Garapeneko Programa antolamendu-kategoria guztietan, baldin eta lurraldeari dagokionez bat badatoz babesturiko eremu naturalekin eta Natura 2000 Sarerako proposaturiko eremuekin.
- **Kontserbazio-jarduerak** bultzatzea, zentzu zabalean, eta, horren barruan, ingurumena suspertzeko eta lehengoratzeko ekintzak sartzen dira. Jarduketarik gehienak nekazaritza-ustiapenen ingurumen-konpromisoa bultzatzeko estrategiaren barruan sartu dira.

### c) Kalitatezko nekazaritza- eta abeltzaintza-produkzioak bultzatzea eta sustatzea.

Kalitatezko nekazaritza-produktuek gero eta eskari eta kotizazio handiagoa dute, nekazaritza-elikagaien eta landare-lehengaien merkatuan, batez ere hirietan. Hortaz, justifikaturik dago produkzioaren kalitatea sustatzeko apustua egiten duen garapen-estrategia baten formulazioa, eta hori, berriz, merkaturatzea bultzatzeko neurriekin osatu behar da.

Honako jarduketa-ildo hauek adierazten dira:

- **Nekazaritza eta abeltzaintza ekologikorako** dirulaguntzak ematea. Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza-ingurumeneko neurrien multzoan, nekazaritza-produkzioari loturiko laguntza bat dago jasota. Neurri horren helburua halako nekazaritza sustatzea da, aintzat hartuta ingurumenean hobariak dituela eta ekonomia nahiz lehiakortasun mailako hobariak dituela (merkatu berriak). Eusko Jaurlaritzaren 229/96 Dekretuan jasotako nekazaritza-jardueraren arauketak aplikatu behar dira.
- **Kalitatezko nekazaritza-produktuak merkaturatzeko laguntzak ematea**. Kalitatezko produktuak eta ingurumen-bereizgarriak nahiz beste bereizgarri batzuk dituzten produktuak merkaturatzeko laguntza ematea funtsezkoa izan daiteke produktu horiek merkatuan sartzeko. Merkatuan sartzeko lehenengo uneetarako dirulaguntza partzialen bidezko dirulaguntza interesgarri osokoak izan ahal da.

**d) Ustiapenen ingurumen-konpromisoa eta nekazaritza- nahiz abeltzaintza-kudeaketa iraunkorra bultzatzea.**

Helburua lortzeko, benetan sustatu behar dira nekazaritza- nahiz abeltzaintza-teknika iraunkorrak, jarduerak ingurumenean sor ditzakeen eraginak ahalik eta gehien murrizteko eta ingurumen-hobariak lortzeko (aniztasun biologikoa, paisaia, etab.). Horrela, estrategia honen formulazioa justifikaturik dago, eta estrategia, berriz, jarduketa-ildo eta ekintza jakinen bidez garatzen da.

- **Laborantzako lurrak ongarritzean konpostaturiko hondakin organikoak erabiltzea**, kutsagarriak izan daitezkeen nekazaritza-hondakinak ongarritzat balio handia duten produktu bihurtzeko. Nekazaritza-ingurumeneko neurriak dirulaguntzak eta laguntza teknikoak behar ditu, nekazaritzako teknika horren ezarkuntzarako, eta emaitzak, bestalde, gehienbat epe ertainean eta luzean geldituko dira agerian. Eskualde Egituraren barruan aplikagarria da, batez ere larredietan eta belardietan, hau da, Trantsizioko Landa Paisaien antolamendu-

kategorian eta, neurri txikiagoan, Mendiko Larredien kategorian.

- **Larre-eremuetako aprobetxamendu estentsiboa egitea**. Nekazaritza-ingurumeneko neurri hau, batez ere, Mendiko Larreetan da aplikagarria, baina baita Trantsizioko Landa Paisaiako gune batzuetan ere; pizgarria da larreen eta belardien mantenamendurako, horietariko batzuk apurka-apurka bertan behera utzi baitira. Jarduketa hau aplikatzearen ondoriozko ingurumen-hobariak asko dira; aipagarriak dira landa-paisaia tradizionalaren mantenamendua eta inguru naturalaren babesa nahiz hobekuntza, batez ere sute- eta higadura-arriskuei dagokienez; beraz, horri loturiko helburuak lortzeko ere lagungarria da.
- **Higadura arriskuko laborantza-lurretan lurzoruak babestea**. Nekazaritza-teknika batzuek higadurari loturiko arriskuak eta arazoak eragiten dituzte, eta, horien ondorioz, lurzoruak galdu egin daitezke. Neurri honen helburua arazo horiek konpontzen laguntzea da, eta hori, aldi berean, lagungarria da landaredirako eta faunarako garrantzitsuak diren paisaia-elementuak mantentzeko. Finantzatzeko moduko jarduketak asko dira; aipatzekoak dira natura- eta landa-elementuen kontserbazioa (batez ere izaera linealekoak), eginkizun garrantzitsua baitute lurzoruen egonkortasunean eta prozesu ekologikoen mantenamenduan (zentzu zabalean). Neurri hau aplikagarria da Balio Estrategiko Handiko Landazabaletan eta Trantsizioko Landa Paisaietan, eta lehentasunezko aplikazioa dauka Eremu Higagarrietan edo Higadura Arriskukoetan.
- **Nekazaritza- nahiz abeltzaintza-ustiapenetako** eta landa-egitura osoko **elementu eta balio naturalak mantentzea eta hobetzea**. Jarduketa-ildo honen helburua nekazaritza- nahiz abeltzaintza-ustiapenetako balio eta funtzio ekologikoak sustatzea da, batik bat produkzio-unitateari dagokionez, baina baita landa-lurzoru osoari dagokionez ere. Honako ekintza hauek formulatzen dira:
    - **Biodibertsitatea kontserbatzea.** Neurriaren helburua biodibertsitatearen kontserbazioa sustatzea da, nekazaritzako nahiz abeltzaintzako ustiapenetan, eta, hain

zuzen ere, faunarako zein landaredirako garrantzi handia duten paisaia-elementuak (linealak, baina beste batzuk ere bai) mantentzea; horrela, lurraldearen egitura eta Natura 2000 Sarearen egitura ekologiko egokia lortzen da. Neurri hau betetzeko garatu behar diren ekintzak ugariak dira; besteak beste, ur-unaden eta landare-elementu linealen zein zehatzen kontserbazioa eta zenbait nekazaritza-jarduera, adibidez, laboratu gabeko finken zedarrietan zerrenda bat uztea eta zedarri horiek errespetatzea nahiz bertan surik ez erabiltzea.

- **Fauna babestea.** Helburua faunaren babesa sustatzea da, habitat naturala eta erdi naturala hobetzeko laguntzak emanez, baita basoko animalien elikadura erraztea ere. Honen barruko ekintzen artean, aipagarriak dira nekazaritza-lurren baldintzak hobetzeko ekintzak, faunari harrera egiteko, erlaitz kantabriarreko ustiapenetan. Eskualde Egituran, bisoi europarrarentzako interes bereziko aldeak agertzen dira. Espezie hori Kudeaketa Planaren xedea da, ekainaren 19ko 118/2006 Foru Dekretuak onetsia (galzorian dauden espezieen katalogoan ezarria).
- **Galtzeko edo higadura genetikoa izateko arriskuan dauden flora espezieak kontserbatzea**. Neurri honen barruan, galtzeko edo higadura genetikoa izateko arriskuan dauden espezieak kontserbatzeko ekimenak sartzen dira, baita galtzeko edo higadura genetikoa izateko arriskuan dauden espezieak sustatzeko neurriak ere. Neurria artikulatzen duten jarduketak Balio Estrategiko Handiko Landazabaletan eta Trantsizioko Landa Paisaietan garatu ahal dira, baina baita beste antolamendu-kategoria batzuetan ere. Batez ere, espezieak baturiko eremuetan aplikatuko da, hau da, Euskal Autonomia Erkidegoan Mehatxupean dauden Fauna eta Landaredi Espezieen Katalogoan jasotakoetan.

- **Nekazaritza-paisaiaren eta baserri-inguruaren kontserbazioa**. Jarduketa-ildo honen helburua nekazaritza-ustiapenetako paisaia-elementu nagusiak mantentzea da; aldi berean, bertako balio naturalak eta ekologikoak hartu nahi dira

aintzat. Jarduketa-ildo hau nekazaritza-ingurumeneko neurrian oinarritzen da, baita baserriaren ingurua kontserbatzeko neurrian ere. Bi neurri horien helburuak berdinak dira: nekazaritza-paisaia osatzen duten elementuak kontserbatzea (ingurumen dimentsioa zentzu zabalean hartuta). Landaredi-unadak, zuhaitzak dituzten hesiak, hormatxoak, haize-moztekoak eta gune hezeak kontserbatzeko jarduketak interes berezikoak dira, Eskualde Egiturako Balio Estrategiko Handiko Landazabaletan eta Trantsizioko Landa Paisaietan aplikatzeko, baina kontuan hartu behar da jarduketen finantziazioa barrukoa izan behar dela. Baserriaren ingurua hobetzeko nekazaritza-ingurumeneko neurriak (praktikan aurrekoaren oso antzekoa) aurre egin nahi die nekazaritza-jarduera bertan behera uztearen edo murriztearen eraginezko arazoei, baita gehiegizko ustiapenaren eragin kaltegarriei ere, eta eragin berezia dauka ustiapenen eta baserriaren (nekazaritza-unitate nagusitzat) paisaia-dimentsioan. Jasotako jarduketen barruan, landazabaleko paisaia egituratzen duten elementuak sartzen dira: harrizko hormak, lursailak banatzeko hesiak, basotxoak eta halakoak.

- **Ibaien eta erreken babesa**. Helburua erreken eta ibaien ertzak babestea da, zona horiek oso ahulak baitira ekologiaren aldetik, biodibertsitatea zaintzeko zonatzat, higadura eta, zeharka, uholdeen eraginezko ondorioak saihesteko. Ibaietako eta erreketako balizko landaredia osatzen duten habitatak, bestalde, Habitaten Zuzentarauko I. eranskinean jasota daude, eta beraz, neurri honek eragin positiboak izango ditu Natura 2000 Sarearen benetako ezarkuntzan. Bestalde, neurriak eragin positiboa izan beharko luke uren kalitatea lortzeko helburu orokorrean.

### e) Ustiapenen arduradunak trebatzea eta gaitzea, teknikaren eta ingurumenaren aldetik.

Nekazaritzako nahiz abeltzaintzako eta basoko sektoreak heziketa-beharrizan handiak ditu, nekazaritza-ingurumenaren arloko eginkizun eta jarduera berrien esparruan. Detektaturiko beharrizanen barruan,

ustiapenaren inguruko alderdi ekonomikoei eta teknikoei loturiko heziketa-ekintzak sartzen dira; horri dagokionez, aipagarriak dira landa-inguru iraunkorraren kudeaketara bideraturikoak, jardueraren ingurumen-eragin positiboak handitzeko eta jardueraren eragin kaltegarriak murrizteko. LZPren espirituaren arabera, eta horren funtsezko irizpidetzat kudeaketan ingurumen-alderdiak sartzea denez, garrantzitsuak dira ingurumeneko heziketari eta sentsibilizazioari loturiko ekintzak. Horien euskarri izan daitezke finantzen aldetik II. Ardatzean sartutako neurriak: ingurumenaren eta ingurune naturalaren hobekuntza, Euskal Herriko Landa Garapenerako Programakoak.

### 6.4.4. Produkzioko baso-jarduketa arrazionalizatzea eta hobetzea, landa-inguruneko lurzoruaren erabileren eta ekonomiaren osagai nagusienetarikoa baita; horretarako, mendiko baliabideen ustiapen iraunkorra eragiten duten irizpideak eta ekintzak sustatzea, alderdi ekonomikoa eta ingurumenekoa aintzat hartuz, eta higadura-arrisku handiko lurzoruei, espazio natural babestuetako lurzoruei eta espazio horien barruko biodibertsitatea zaintzeari arreta handia jarriz.

EAEko isurialde atlantikoaren zati handian bezala, koniferoen (batez ere, intsinis pinua) eta, neurri txikiagoan, laritzen nahiz beste espezie exotiko batzuen (adibidez, Lawson altzifrea eta haritz amerikarra) landaketa monoespezifikoetan oinarrituriko produkzioko baso-ustiapena errenta-iturri garrantzitsua da baserriaren landa-ekonomiarako; gainera, zura eraldatzeko sektorearen oinarrizko baliabidea da, eta presentzia dauka Eskualde Egiturako eta inguruko beste eskualde-egitura batzuetako zerrategi txikietan.

Mendiei eta babesturiko eremu naturalen administrazioari buruzko ekainaren 2ko 3/94 Foru Arauak, 3/2007 FAk horri buruz eginiko aldaketari eta arloari buruzko beste arau nahiz dekretu batzuk, EAEko Baso Egitamuak eta EAEko Nekazaritza eta Basoak Antolatzeko LAP bezala, LZPk aintzat hartzen du basoen funtzio aniztasuna eta baso-kudeaketa iraunkorra sustatu beharra. Aldi berean, Bizkaiko baso-administrazioaren diagnostikoekin bat eginez, LZPk badaki mugak daudela baso-landaketen ustiapen iraunkorrerako, eta, horren ondorioz, gehienbat titulartasun pribatukoa den minifundioan

oinarrituriko lursail-egitura sortzen dela. Halaber, kudeaketa-egitamu teknikoen ezarkuntza urria dago eta egitamu horiek basoen zur-produkzioa eta halako baso-estalduraren ingurumen-eginkizunak bermatu beharko lituzkete; hain zuzen ere, lurzoruen kontserbazioa nahiz uren kalitatearen hobekuntza eta, baldintza jakinetan, basoko landarediaren zein faunaren kontserbazioa.

Helburu horiek lortzeko, LZPk baso-antolamenduaren kategoria ezarri eta mugatzen du, eta, bertan, Basoko Landaketak eta Sastrakak azpikategoriak sartzen ditu, bakoitza bere arauketarekin; bestalde, estrategia eta jarduketa-ildoak jasotzen ditu, basoko, landako eta natura kontserbatzeko politika sektorialaren arabera, basoko jardun onak sustatzeko eta bultzatzeko.

### 6.4.4.1 Baso Antolamendua kategoria ezartzea

Lurraldearen antolamenduan oinarrituz, eta aipaturiko helburua lortzeko, DEEko LZPk, LAAetako Ingurune Fisikoaren Jarraibidearen arabera (1997) eta EAEko Nekazaritza eta Basoak Antolatzeko LAPko proposamen batzuk aintzat hartuta, **Basoa izeneko** kategoria ezarri du, babeseko lurzoruen barruan. “Baso” hitzak esangura oso zabala duenez (Estatuak mendiei buruz duen oraingo legeriaren eta gai horri buruzko Bizkaiko Foru Arauaren arabera), beharrezkoa da “baso” hitzaren esangura zehaztea, antolamendu-kategoriatzat. LAAetan ezarritakoaren arabera, Baso kategoriaren barruan daude euren oraingo erabileraren eraginez espezie aloktonoen **basoko landaketak** dituzten eremuak; horien artean, aipagarria da intsinis pinua (*Pinus radiata*).

Baso autoktonoak (pagadiak, hariztiak eta ameztiak, artadiekin, urkidiekin eta haltzadiekin batera), LZP honetan, Babes Aparteko Lurzoruen barruko Baso Autoktonoen antolamendu-kategorian sartzen dira; hori, lehenengo eta behin, LAAetan ezartzen denez, “ondo kontserbaturiko baso aloktonoei” aplikatzen zaie. Horrenbestez, ez da betetzen EAEko Nekazaritza eta Basoak Antolatzeko LAPko proposamena, bertan baso kategoriaren barruan baso aloktonoak eta autoktonoak sartzen baitira.

“Baso” kategoriaren ezarkuntza eta erabileren nahiz jardueren arauketa, matrize egokiaren bidez garatutakoa, lurralde-antolamenduaren ikuspegitik

berme egokiak dira halako lurzoruei eratxikitako produkzio- nahiz ingurumen-eginkizunak eta bokazioa mantentzeko.

Kalifikazio horrekin batera, LZPk estrategia eta ekintza batzuk ere jasotzen ditu, gehienak Eusko Jaurlaritzaren eta Bizkaiko foru-administrazioaren basoko, landako eta natura kontserbatzeko politika sektorialetatik ateratakoak; horien helburua, mendien produkzio-eginkizunaren kalterik gabe, euren ingurumen-funtzioa sustatzea eta bultzatzea da, hain zuzen ere, halako lurren higadura-arazoak kontrolatzea nahiz murriztea eta masak iraunkortasunez kudeatzea.

Basoko masak mantentzeko eta ondo garatzeko, Bizkaiko Mendiei buruzko Foru Arauak ezarritakoaren arabera, artzaintza (basoko artzaintza) zuhaitzei kalterik egiten ez dienean eta horiek suspertzea arriskuan jartzen ez duenean soilik baimenduko da. Era berean, ez da komenigarria zona horietan nekazaritza-ustiapenari loturiko eraikin eta azpiegitura berriak egitea, abeltzaintza estentsibo tradizionalari lotutakoak izan ezik (adibidez, bordak, hesiak edo askak).

Oro har, oraingo zuhaitz-azalera mantendu eta elkartze-formulak sustatuko dira, baita halako mendien ingurumen-funtzioak bermatzen eta hobetzen dituzten teknikak nahiz sistemak ere, batez ere higadura-prozesuak kontrolatzeko balio dutenak.

Gainera, %50etik gorako maldak dituzten edo higadura-arrisku handia duten lurrak zuhaitz-estalduraren azpian mantentzea bermatuko da. Irizpide hori lehentasunezkoa izango da, Eremu Higagarriak deritzon gainjarritako baldintzatzailea duten zonetan.

Basoko lanetan makineria astuna erabiltzeari dagokionez, horren erabilerak ingurumenean eragin kaltegarri ahalik eta gutxien sortzeko, aintzat hartuko dira Mendien Foru Arauak eta hori garatzen duten dekretu batzuek ezarritako mugak, maldaren arabera.

Saihestu egingo dira forma geometrikoegiak, moztu edo birlandatu behar diren zonetan; lerro zuzenak ere ekidin beharrekoak izango dira, ahal den neurrian, bai basoko masen mugetan eta bai espezie desberdinen erabileran;

adibidez, mozketetan eta suebakietan. Lerroen etengarritasuna sustatuko da, paisaiaren egituran oinarrituz, eta lurraldearen eraketa kontuan hartuta. Ez dira komenigarriak maila-kurbekiko muga paraleloak edo perpendikularrak, gehienbat luzera handikoak badira.

Kategoria honen barruan, **sastraka** kategoria bereizi behar da; izan ere, sastrakak mendi-inguruetako berezko landare-eraketak dira, gehienetan lore-aniztasun handia dute, habitat gisa eginkizun garrantzitsua dute eta basoko beste tesela batzuk lotzen dituzte; azken batean, kontuan hartu behar dira euren kultura-balioak, abeltzaintza-ekonomien elementu garrantzitsuak izan baitira, horiek halako eremuak talde-artzaintzako ingurutzat aprobetxatzen dituztelako.

Adierazitako irizpideetatik eta gomendioetatik ondorioztatzen denez, adierazitakoaren arabera egindako baso-kudeaketak eragin ona izango du higadura-arazoen soluzioan, eta formulaturiko helburu orokorretariko bat (helburu sektoriala) horixe da. Halaber, lor daitezkeen emaitza positiboak onak izango dira Babes Aparteko Lurzoru batzuen kontserbaziorako (adibidez, balio gehiengo hezeguneak, I. taldekoak); izan ere, ekarpen solidoen murriztapenak mesede egiten dio desagertzeko berezko dinamika duten guneen mantenamenduari.

Produkzioko baso-jarduera arrazionalizatzearen eta hobetzearen barruan (landa-inguruko lurzoruaren erabileren eta ekonomiaren osagai nagusienetarikotzat), Eskualde Egiturako Mendi Publikoak aipatu behar dira; horiek, berriz, Bizkaiko Mendiei eta Babesturiko Eremu Naturalen Administrazioari buruzko ekainaren 2ko 3/94 Foru Arauan eta Erabili eta Kudeatzeari buruzko Egitamu Gidarian ezarritakoaren arabera arautzen dira, (martxoaren 20ko 3/2007 Foru Arauaren bidez aldatua) eta ingurune naturalaren informazio-planoan bildu dira.

### 6.4.4.2 Estrategiak eta jarduketa-ildoak

Proposamenak bideratzen eta garatzen dituzten estrategien eta jarduketa-ildoen multzoa finantzatzeko, beste iturri batzuez gain, Landa Garapeneko Programan (Euskal Herria 2007-2013) ezarritako basoko lurren erabilera iraunkorrerako neurriak erabil daitezke.

Jasotako ekintzak honako hauek dira:

a) **Baso-kudeaketa iraunkorra sustatzea, ustiapenen ezaugarrien ondoriozko ingurumen-eragin kaltegarriak murriztuz.**

- **Basoko lurrak erosteko laguntzak ematea, lursailen tamaina handitzeko**, foru-administrazio eskudunak horri buruz ezartzen dituen baldintzekin.
- **Baso Antolamenduko Egitamu Teknikoak idazteko eta martxan jartzeko laguntza teknikoa eta ekonomikoa ematea**, bai mendi pribatuetan eta bai, lehentasunez, titulartasun publikoa duten baso-lurretan.
- **Ustiapenek elkartzeko eta baso-jabeak biltzeko formulak sustatzea**, baso-ustiapen pribatu oso atomizatu baten ingurumen- eta ekonomia-disfuntzioak arintzeko. Horrela, baso-erabileraren barruko alderdi batzuen baterako kudeaketa errazten da, eta, horren eraginez, murriztu egiten dira ustiapenaren kostuak eta baso-kudeaketaren lanak ingurumenean sortzen dituzten eraginak. Hain zuzen ere, jabe txiki mugakideak elkartzea sustatu behar da, basoko minifundismoaren arazoei modu eraginkorragoan eta eragingarriagoan egiteko aurre.
- **Kudeaketa iraunkorreko irizpideak betetzen dituzten produkzio-birlandaketen errentagarritasuna bultzatzea eta sustatzea**, baso-landaketa berriak ezartzeari dagokionez.
- **Instalaziorik behar ez duen basoko eta nekazaritza nahiz abeltzaintzako ikerketa bultzatzea,** sustapen neurrien bidez, kudeatzaile pribatua berrikuntza eta ikerketa esperientzietan parte hartzera bultzatzeko**.**

b) **Baso-kudeaketa iraunkorrerako sistemak hedatzea eta finkatzea, basoko lanetan eta zuraren lehenengo eraldaketan diharduten enpresei dagokienez.**

- Ekintza sektorial nagusia **baso-ziurtagiria lortzea** da, eta horrek eragin positiboak ditu lurralde osoan.

- Makineria erosteko laguntzak, zura arrastaka eramateko, basoa soiltzeko eta erauzketak egiteko lanak erraztu eta hobetu ahal izateko; halaber, makineria aldatzeko inbertsioak, lurzoruaren higadurak eta galerak ez eragiteko.
- Basoko izurrien eraginezko gaixotasunen eta izurrien prebentziorako dirulaguntzak.
- Makineriarako inbertsioetarako laguntzak, helburua basoko mozketen hondakinak biltzea eta, gero, energia sortzeko erabiltzea denean. Ekintza hau, aurreko bien kasuan bezala, basoko ustiapen iraunkorra garatzeko laguntzak arautu dituen 2003ko Foru Dekretuaren zirriborroan jasota dago.
- **Toki-erakundeen jabetzako landaketarako laguntzak.**

**c) Basogintzako teknika eta jardun onak benetan garatzea eta ezartzea.**

- **Basoko landaketen ingurumen- eta gizarte-balioa nabarmen handitzeko ekintzak lehentasunez sustatzea**, baldin eta bete egiten badira ezarritako arauketak (hostozabalen landarediari, birlandaketetan espezieen nahastea sustatzeari eta abarri dagokionez). Honako ekintza hauek adierazten dira:
    - **Hostozabal autoktonoen azalerak (hariztiak, haltzadiak, etab.) basoko landaketetan sartzea eta masak mantentzea.** Ekintza honen bidez, ugaritu egiten dira basoko landaketen elementu eta balio naturalak (paisaia-dimentsioa ere barne), eta, gainera, mantendu eta hobetu egiten da lurraldearen ingurumena. Estrategia garatzeko balizko finantziazio-iturrietariko bat da. Hori bat dator LGIEn jasotako ekintzak garatzearekin, hain zuzen ere, laguntzei buruzko VIIIc neurria garatzearekin, basoen funtzio ekologikoa eta babesekoa bermatzeko (Babes Aparteko Lurzoruen barruko zuhaitz-masetan ere aplikagarria).
    - **Basoko ustiapenetan paisaia-tratamenduak sustatzea;** lehenengo eta behin, horri buruz formulaturiko arauketak eta gomendioak bete behar dira.

- **Basoko ustiapenetan, ingurunean eragin handirik sortzen ez duten tekniken erabilera** bultzatzea, eta mozketen hondakinen suntsitze mekanikorako makineriaren erabilera sustatzea.
- **Basoko produktuak biltzea, eraldatzea eta merkaturatzea hobetzeko eta arrazionalizatzeko inbertsioetarako laguntzak ematea,** eta laguntza horiek hostozabalen basoetan eta beste mendi mota batzuetan ere aplikatu ahal izango dira.
- **Erregaitasun urriko landare-eraketak ezartzeko laguntzak** ematea; horiek, berriz, sute-arrisku handiko landarediak okupaturiko landaketa-eremu handietan txertatuta egongo dira. Neurri hau lagungarria da sute-arriskua murrizteko.
- **Zuhaitz-masetako basoko artzaintza-aprobetxamenduaren osagarritasuna** sustatzea, artzaintza dimentsio ekonomikoan eta ekologikoan ulertuta. Arauketen atalean, hala eta guztiz ere, aditzera ematen da debekaturik dagoela abereak suspertze-nahiz landatze-zonetan sartzea.
- **Hostozabal autoktonoak dituzten nekazaritza-lurrak oihaneztatzeko** laguntza berezia. Ekintza horretarako finantzazioa egin daiteke, Euskal Herriko Landa Garapen Jasangarriaren 2007-2013 Programako basoen aldeko neurriak aplikatuta.
- **Basoko kudeaketa iraunkorraren sustapen berezia, toki-erakundeen jabetzakoak diren landaketetan.**

### 6.4.5. Lurraldeko ingurumen-arrisku nagusiak ahalik eta gehien murriztea, batik bat higadura- eta uholde-arriskua.

Diagnostikoak agerian jarri duenez, ingurumen-arrisku batzuek (batik bat, higadura-arriskuak eta uholde-arriskuak) garrantzi handia dute Eskualde Egitamuan. Gainera, akuiferoak kutsatzeko arriskua eta eremurik zaurgarrienen identifikazioa ere aintzat hartu behar dira; hala ere, Lurraldearen Antolamendurako Artezpideetan jasotako gainjarritako baldintzatzaile honen helburua, aurreko atalean adierazi dugunez, uren kalitateari loturiko arazoak konpontzea da. Akuiferoen kutsadurari dagokionez zaurgarriak diren eremuetako lurzoru-erabilerak, beraz, uren kalitatea mantentzeko helburuari lotuta hartu

dira kontuan, baina helburu horren garapenean ere aintzat hartu behar da, ingurumen-arrisku handia baita.

Antolatu beharreko lurraldean garrantzi txikiagoa izan arren, aipagarriak dira sute-arriskuak eta horien eraginezko arazoak, kontuan hartuta erregaitasun handiko hostozabal-masek (eta beste espezie batzuk, adibidez, eukaliptua) lurraldean duten garrantzia. Sute-arazoak, gehienbat, beste helburu batzuetan identifikaturiko ekintzen bidez konpondu behar dira, batez ere baso-kudeaketa iraunkorraren helburuan identifikaturiko ekintzen bitartez.

#### 6.4.5.1 “Eremu higagarriak edo higadura-arriskukoak” eta “Eremu ureztagarriak” izeneko gainjarritako baldintzatzaileak ezartzea.

Higadura- eta uholde-arriskuak (neurri handian elkarri lotutakoak) ahalik eta gehien murrizteko helburua lortzeak, lehenengo eta behin, Lurraldearen Antolamendurako Artezpideetako gainjarritako bi baldintzatzaileren aplikazioa justifikatzen du: **Eremu Higagarriak edo Higadura Arriskukoak** eta **Eremu Ureztagarriak**.

##### A) Eremu Higagarriak edo Higadura Arriskukoak izeneko gainjarritako baldintzatzailea.

Gainjarritako baldintzatzaile hau aplikatzeko, aintzat hartu behar dira erabilera jakinetarako arauketa bereziak, antolamendu-kategoria bakoitzeko arauketa orokorrei dagokienez, horren arrisku handia duten lekuetan.

Baldintzatzaile honen eraginpeko lurzoruetan, Mendien foru-administrazioak arriskuaren intentsitatea ahalik eta gehien murrizteko kudeaketako jarduerak nahiz sistemak sustatu beharko ditu. Komenigarria da, horri dagokionez, suaren erabilera estentsiboa, sasi-kentze estentsiboak eta lur-mugimenduak ahalik eta gehien mugatzea; eskuz egindako landaketa sustatuko da, landaketa mekanizatuaren aurretik, eta apurka-apurka mozteko metodoak, adibidez, ateratzeak, baxoen mozketak edo elkarren atzeko soiltzeak, arraseko mozketak bigarren mailan utziz. Lan horiek

egiteko, administrazio eskudunaren baimena beharko da, eta horrek jarraibide zehatzak emango ditu lurzoruaren egitura mantentzeko eta baliabide hori ahalik eta gutxien galtzeko.

Halako lurzoruetan, lehentasuna eman behar zaio zuhaitzik gabeko zonak oihaneztatzeari, abeltzaintza-erabilera helbururen bat lortzearen baldintzapean jarrita. Zona hauetan, hazkunde ertaineko edo moteleko zuhaitzen ezarkuntza sustatuko da.

Eremu Higagarrietan arraseko mozketa egiteko edo zuhaitzik gabeko erabilera eragiteko salbuespenezko erabakiak, bestalde, kontu handiz hartu beharko ditu administrazio eskudunak, eta pertsonak nahiz ondasunak babesteari, baso-masa mantentzeari (izurriak, suteak) edo zentzuzko beste zergatiei lotuta justifikatu beharko dira.

### B) Eremu Ureztagarriak izeneko gainjarritako baldintzatzailea.

Diagnostiko-fasean identifikaturiko bigarren arriskua uholde-arriskua da, ibaiertzen okupazio handiko eta urbazterreko landarediaren suntsipen nabariko eremuetan; izan ere, jakina da eremu horiek eragin onuragarria dutela uholdeen ondorioei aurre egiteko. Hiri-okupazioa (etxebizitza, industria-erabilera, azpiegiturak, etab.), izan ere, itzultze-aldi nahiko laburreko uholde-lautadako zonetan ere egin da.

Lurraldearen Antolamendurako Artezpideek “Eremu ureztagarriak” izenekoa ezartzen dute gainjarritako baldintzatzailetzat; eremu horiek, euren kokalekua, erliebea eta ezaugarri topografikoak aintzat hartuta, uholde-arriskua dute, ohiko uholderik handienetan, Uholdeen Prebentziorako Egitamu Integralean (UPEI) ezarritako itzultze-aldien arabera, eta horiek, berriz, EAEko Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatzeko LAPn jasota daude, 10, 100 eta 500 urteko itzultze-aldietan.

Uholde-arriskuak gutxitzeko helburua lortze aldera, LAPn bildutako erabileren eta jardueren gaineko erregulazioak edo arauak (jarduera

onargarriak) ezarri ditu LZPk, LZP horretatik datozen mugak edozein direla ere.

Nolanahi ere, LZP honetan, okupazioaren mugako eremuetan, 10, 100 eta 500 urteko hiru itzultze-aldi hartzen dituen uholde-arriskuko eremu horri dagozkion lurrak zaintzen dira, hain zuzen ere aldez aurretik hiri erabileren balizko garapenetatik bazterturiko espazioak.

Uholde-arriskua duten eremuen mugaketa hori LZPren informazio grafikoan bildu da, EHLABren 2007ko urriaren manuzko txostenaren zehaztapenen arabera. Erakunde horrek berretsi egiten du Uren Zuzendaritzaren txostena, eremuok grafikoki eguneratzera behartu duena LZP. Hala, bat dator uholde-arriskuen kartografia hori gaur egun izapidetzen ari den Ibai eta Erreka Ertzak Antolatzeko LAPn aldaketan jasotakoarekin.

Uholde-arriskuko eremu horiek aldaraz daitezkeenez gero, horien etorkizuneko edozein aldaketa sartu eta egungoaren ordez jarriko litzatekeela ulertu behar da eta, hala denean, galarazita geldituko lirateke uholde-arriskua duten alde berriek ukituriko okupaziorako mugako eremuetan.

500 urteko itzultze-aldian uholde-arriskua izateko eremuak ukituriko lurrak bereizi egin dira okupazioaren mugarako eremuak zehazterakoan, planeamenduak ere erabil ditzakeenak haien balio edafologiko handia dela eta. Horregatik, Balio Estrategiko Handiaren kategorian sartu dira, hasieran onetsitako Nekazaritza nahiz Abeltzaintzako LAPrekin bat etorriz funtsean.

LZPk 10, 100 eta 500 urteko hiru epealdiak hartzen dituen uholde-arriskuko eremuari dagozkion lurren babesari dagokionez, aplikagarria izango da egun behin betiko onetsita dagoen udal planeamenduaren okupazioaren eremuen berrikuspenetan edo aldarazpenetan. Dagoeneko onetsita dauden planeamendu horiek uholde-arriskuko eremuei dagozkiela ulertu behar dira; izan ere, Uren Zuzendaritzak dagoeneko baloratu dituen planeamenduak eta

loturak sartu dira Euskal Herriko Lurraldea Antolatzeko Batzordearen manuzko txostenen bidez.

Edozelan ere, dagoeneko onetsita dauden udal planeamenduetan sartutako eremuen gaineko uholde-arriskuko eremu berri horien balizko eraginei dagokienez, organo eskudunak ebatziko ditu horiek guztiak.

#### 6.4.5.2 Estrategiak eta jarduketa-ildoak.

Higadura- eta uholde-arriskua ahalik eta gutxien murrizteko helburua lortzeko, batez ere, beharrezkoa da erabileretarako eta jardueretarako jarraibide nahiz arauketa egokiak ezartzea, gehienbat nekazaritzakoak eta basokoak aintzat hartuta. Nekazaritzako nahiz basoko kudeaketaren helburuei buruzko ataletan jasotako nekazaritza- zein baso-jarduueretarako jarraibideen, irizpideen eta arauketen benetako garapena, izan ere, LZPk adierazi diren arriskuak ahalik eta gehien murrizteko egiten duen ekarpen nagusia da. Jarduera horiei loturiko jarduketa-ildo batzuk garatzea, gainera, lagungarria izango da arriskuak ahalik eta gehien murrizteko. Testuinguru horretan, ez da estrategia eta jarduketa-ildo berezirik formulatzen; hala ere, aintzat hartu beharko dira antolamendu sektorialeko agirietan (Lurraldearen Arloko Planak) edo beste arau sektorial batzuetan identifikatzen direnak.

### 6.4.6. Erabilera publikoa lurralde-orekan oinarrituz sustatzea eta orientatzea, hobari ekonomikoak, sozialak eta ingurumenekoak ahalik eta gehien handitzea, eta eragin negatiboak ahalik eta gehien murriztea.

Natura- eta landa-ingururako sarbide publikoa eta aisialdikoa, izatez ere, lurraldea kontsumitzen ez duen jarduera nagusienetarikoa da, Durangoko Eskualde Egituran, batez ere aintzat hartuta kontserbazio-egoera oneko landa- eta natura-eremuek duten garrantzia.

Erabilera publikoa, aisialdikoa eta turistikoa Eskualde Egitura osora hedatzearen ondorioz (lurraldearen erabilera zehaztugabeko modalitatea deritzonean), esku hartzeko lurralde-estrategiak hartu behar dira, erabilera horiek ingurumenari dagokionez garapen egokia edukiko dutela bermatzeko.

Erabilera publikoak kontuan hartu behar ditu paisaiaren helburuak, gehienbat paisaia-ibilbideen proposamenak.

Helburua lortzeko jarduketa-ildo nagusiak honako hauek dira:

- **Beharrezko harrera-azpiegitura sustatzea eta sortzea**: ibilbideak, landa-ostatuak, etab.
- **Nekazaritza- eta landa-turismoko jarduerak sustatzea**, jarduera nagusitzat eta nekazaritza-ustiapenen errenten osagarritzat, helburuetan garaturiko estrategien eta helburuen arabera.

### 6.4.7. Beste elementu batzuk zaintzea, adibidez, Ingurune Naturaleko Osagai Garrantzitsuak, eta horiek Udal Plangintzan jasotzea

a) Interes geologikoa duten eremuak eta guneak.

Interes geologikoa duten eremuak eta puntuak, izan ere, ondare geologikoaren barruko elementu adierazgarrienetarikoak dira, kontuan hartuta euren arrarotasuna, ikusgarritasuna, edertasuna eta berezitasuna.

Orain arte ez da interes geologikoa duten eremuen eta guneen adierazpenik egin. Hala eta guztiz ere, Ikerketa Geomorfologiko Analitikoak egin dira, eta horiek EAEko Ingurumen Kartografian jasota daude.

b) Zuhaitz-ale interesgarriak.

EAEn orain izendaturik dauden 25 zuhaitz bereziak, eta horien artean dago Garaiko artea, euren ezaugarriak aintzat hartuta babesa merezi duten beste batzuk ere badira. LZPk horiek hortxe daudela dio, baina babes-araubidea bidezkoa den ala ez udal-planeamenduak ezarri beharko du, bere tresnen bitartez.

### 6.4.8 Natura 2000 Sarea Gainjarritako Baldintza ezartzea.

Natura 2000 Sarea arriskuan dauden espezieak edo habitatak dituzten tokien Europako sare ekologikoa da, eta sarearen helburua espezieak eta habitatak kontserbazio egoera egokian mantentzea da, haien egoerak okerrera egitea galaraziz (92/42/EEE Zuzentaraua edo habitatei buruzkoa, Espainiako ordenamendu juridikoan gainjarria

1997/1995 Errege Dekretuaren bidez eta Natur Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legearen bidez).

Komunitate Garrantziko Tokiek (KGT) dago osatuta sarea, harik eta Kontserbazioko Zona Berezi (KZB) eta Hegaztien Babes Bereziko Zona (HBZB) bihurtu arte.

### 6.4.9 Flora eta faunarako intereseko aldeak ezartzea.

#### 1. Fauna intereseko aldeak.

Durangoko Eskualde Egituran, Euskal Herriko Naturaren Kontserbazioari buruzko 16/94 Legearen bidez sortutako Galzorian dauden Fauna eta Flora Espezieen Katalogoko espezieen barruan daude. Espezie horien babesak neurri zehatzak behar ditu, kudeaketa planetan agerraraziak.

Faunari dagokionez, Bisoi Europarra galzorian dauden espezieen artean katalogatu da. Ekaitz-txori Europarra eta Ubarroi Mottoduna, berriz, espezie bitxien kategoriakoak dira. Hiru espezieok dituzte 2006ko ekainaren 26ko foru dekretuen bidez onetsitako kudeaketa planak (BAO, 2006ko uztailaren 6koa). Dekretuei erantsiko kartografiekin bat etorriz, Durangoko Eskualde Egituran arreta berezia jarri behar da bisoi europarra babesteko eginkizunean.

#### 2. Flora eta landarediarentzako intereseko aldeak.

Durangoko Eskualde Egituran eta Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak sustaturiko "Araban, Gipuzkoan eta Bizkaian arriskuan dagoen floraren kokapen geografikoa. I. fasea. 1/5000 eskala” izeneko proiektuan (2003) sortutako kartografia eta oraingo beste lan batzuk oinarri hartuta, arriskuan dauden faunako ondoko espezieak identifikatu dira, horietako zenbait **Urkiolako Parkearen edo Udaltzaitzeko AINen** barruan. Hori dela-eta, espazio horien plangintza eta kudeaketa espezifikoak nahikoa berme izan beharko luke espezieen populazioak babesteko:

- ***Aster alpinus***, bitxien artean katalogatua; bi aipamen ditu eskualde egituran.
- ***Barberis vulgaris***, bitxien artean katalogatua.
- ***Gypsophila repens***, bitxien artean katalogatua; bi aipamen ditu eskualde egituran.
- ***Ilex aquifolium***. Euskal Herriko Interes berezikoen artean katalogatua.
- ***Narcissu varduliensis***, interes berezikoen artean katalogatua.
- ***Narcisos varduliensis x pallidiflorus***, interes berezikoen arten katalogatua.
- ***Pinguicola lusitanica***, interes berezikoen artean katalogatua.
- ***Taxus baccata***, interes berezikoen artean katalogatua.
- ***Trichomanes speciosum***, interes berezikoen artean katalogatua

**Arriskuan dauden Espezieen Euskal Katalogotik kanpora** katalogaturiko zenbait espezie dago, floraren aldetik berezitasunak dituztenak bereziki mikroklimak sortu diren tokietan. Ondoko hauek dira:

- ***Armeria pubinervis***. Interes berezikoen artean katalogatua.
- ***Veratrum album***. Interes berezikoen artean katalogatua.
- ***Woodwardia radicans***. Interes berezikoen artean katalogatua.

**Eskualde Egituran sartuen dauden erreketan**, batez ere Amorebieta-Etxano eta Durangoko udal-mugarteetan, Areotzerrota, Berna, Zabalondo, San Antonio eta Leginetxe erreketan adibidez, tenperatura eta hezetasun baldintza egonkorretan daude arriskurik handiena duten zenbait euskal garo. Garo makaronesiarrak, errelikto paleotropikalak, oso eskakizun zorrotzak dituztenak. Horien artean, ondokoak nabarmentzen dira:

- ***Woodwardia radicans***
- ***Stegnogramma pozoi***

- ***Trichomanes speciosum***
- ***Dryopterus aemula***

Bizkaiko Foru Aldundiak, 2006ko ekainaren 16an, galzorian dauden ondoko espezieentzako kudeaketa planak onetsi zituen dekretu egokien bidez (BAO, 2006ko uztailaren 6koa), nahiz eta horietako batek ere ez izan habitata Durangoko Eskualde Egituraren eremuaren barruan:

- ***Rnunculus amplexicaulis L***
- ***Genista legionensis.***
- ***Diphasiastrum alpinum***
- ***Eriophorum vaginatum.***

## 6. 5. Landaguneak

### 6.5.1 Aurrekariak

EAEko LAAetan ezarritakoaren arabera, hirigintza- eta eraikuntza-jarduerak “beste erabilera batzuekiko oreka mantenduta egin behar dira, lurraldeko naturaren, paisaiaren eta produkzioaren balioak kontserbatuz. Arreta berezia jarri beharko zaie eraikuntza sakabanatuko egoitza-erabilerei, horiek lurzoruaren okupazioan eta ingurunean duten eragina ez baita mugatzen okupatzen duen espazio fisikora.”

Izan ere, landaguneen kategorizazioak garrantzi handia hartzen du; izan ere, berez okupazio handiko forma izanik (lurraldeari dagokionez), horren kontrolik gabeko garapenak eragin larria sor dezake ingurunean.

### 6.5.2 Hirigintza-legeriarekiko koordinazioa

Durangoko Eskualde Egiturako udalerrien hirigintza-errealitatearen ikerketak ezin du ahaztu landaguneari loturiko egoitza-garapeneko fenomenoaren presentzia.

Hirigintza-planeamenduak, udalerri ia guztietan, aurreikusita dauka eta aurreikusi egiten du egoitzako lurzoru urbanizagarria; dena den, landagunean baserriak eraikitzeko aukera handiak ematen ditu.

Hala ere, halako guneen presentzia ez da bertako hirigintza-garapena mantentzeko eta ekiditeko soilik aztertu behar; izan ere, helburua Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Artezpideetan adierazitako eta LZPren prestakuntzan zehazturiko aren  Eredua lortzea da.

Jarraibide horien helburu nagusienetariko bat EAEko landa-espazioa balioztatzea da; izan ere, “halako espazioak ezinbesteko osagarriak dira, Bizkaiko eta Gipuzkoako Lurralde Historikoetako igarobide nagusietan ia etenik gabe hedatzen diren hiri- eta industria-ezarkuntzetarako”.

Ibaizabalen igarobidean, azalera lauak hiriguneen ezarkuntzarako euskarriak izan ziren. Haraneko biztanleen jarduera nagusiak (nekazaritza eta abeltzaintza), halaber, guneen ondoko azalera lauak behar zituen. Merkataritza, bestalde, komunikazio-linea nagusiari lotuta egon da beti, eta linea hori, berriz, harana zeharkatzen zuen bide-ardatzak osatzen zuen. Maldetan eraikin bereziak zeuden (baserriak), eta horiek lurraldearen zatiak (pieza funtzionalak) kudeatzen zituzten.

Joan den mendeko industria-garapenak aldatu egin zuen okupazio-eredua, eta hori, alde onak eta txarrak izanik, oraingo ezarkuntza-eredua da.

Azalera handiko eta malda txikiko lurzoruaren eskariak (industria berri guztiak edukitzeko), beste alde batetik, Ibaizabalen igarobidean dauka eskaintzarik onena. Haraneko udalerrien arteko nekazaritza-lurzoru osoa okupatu eta industria-lurzoru bihurtzen da. Horrela, oinarrizko eta garraioko azpiegiturak behar dira, eta horiek, aldi berean, espazio erabilgarria behar dute. Industriaren garapenarekin batera, hirigintza-garapena ere egon da haraneko udalerrietan. Egoitza-lurzoruaren garapena modu eutsian eta iraunkorrean gertatu da. Lehengo eta oraingo lurzoru urbanizagarririk gehienak jatorrizko gunearen ondoan agertu dira beti; horrela, horien egitura mantendu eta malda erdiko landagune txikiek euren nortasuna mantendu dute.

Hala eta guztiz ere, azken hamarkadan sorturiko egoitza-garapeneko fenomenoa eredu tradizionala itxuragabetzen hasi da.

Landagunea, EAEko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legean emandako definizioaren arabera, seitik hogeita bostera bitarteko baserri kopuruaren pilaketa da, horiek bildu eta izaera berezia ematen dien espazio publiko baten inguruan, baina horrek ez du egoitza erabilerarako lurzoruaren benetako eskaintza izan behar, lurzoru urbanizaezina baita.

Landagunearen errealitate historikoa baloratu behar da (antzinatasuna, higiezinen balio arkitektonikoa, biztanleak lurraldearen kudeaketan jardutea, etab.); hain zuzen ere, gunean baserri kopuru jakina egotea soilik hartzen du aintzat.

EAEko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeak muga batzuk ezartzen ditu, oraingo landaguneen hazkundeari dagokionez:

a) Planeamenduak ezin izango du handitu, landaguneko lurzoru urbanizaezinean, eraikitako azalera; gainera, etxebizitza kopurua ezin izango da izan lehengoa baino %55 handiagoa. Halaber, lehengo eta aurreikusitako baserri kopurua ez da 25 unitatetik gorakoa izango.
b) Ezin izango da zuzkidura, ekipamendu edo eremu aske berririk zehaztu, ezta trazatu berriko bide publikorik ere, eta egin daitekeen gauza bakarra lehendik daudenen mugak eta lerrokadurak arautzea da.

Ondoko baldintza hauek guztiak betetzen dituzten eraikinei deritze baserri, landagunearen definizioari buruzko 29.1. artikuluan eta 2/2006 Legearen "Baserriak berreraikitzea" izeneko 30. artikuluan xedatu denaren ondorioetarako, lege horren garapenaren premiazko neurriei buruzko 105/2008 Dekretuaren 9. artikuluarekin bat etorriz:

a. Eraikin bakartu gisa eratzea, etxebizitzaren erabilera nagusi dela.
b. Oraingo etxebizitza bat edukitzea gutxienez, hori guztia bakoitzaren Jabetza Erregistroan xedatu denarekin bat etorriz.
c. Lehen okupazioko baimena edo 1950eko urtarrilaren 1a baino lehen etxebizitzan bizi izatea sinesgarriro egiaztatzen duen agiria edukitzea.

d. Udalak hirigintza planeamenduan edo udal ordenantzan ezarritako ezaugarri gehigarriak betetzea.

Baserria eta soilik egoitzakoa den eraikuntza bereizi beharko lirateke; izan ere, baserria lehen sektoreko jarduera ekonomikoarekin dago lotuta. Landagunearen kategoriaren izenak berak gunearen landa izaera du abiapuntua.

Bestalde, 2/2006 Legean ezartzen denez, landagune batek okupaturiko lurzoru-azalera hiri-lurzorutzat sailkatu ahal du egitamu orokorrak, baldin eta legearen arabera hori egokia bada; edo, bestela, landaguneko lurzoru urbanizaezintzat sailkatu beharko da.

Horren ondorioz, oraingo landaguneetariko batzuk hiri-lurzoru bihurtzeko arriskua dago, eta bertan lurzoru urbanizaezineko hirigintza-garapen barreiatuak ahalbidetzeko arriskua, kontuan hartu barik kokalekuaren, irisgarritasunaren, zerbitzuen eta harrera-gaitasunaren aldetik duten egokitasuna; gainera, landaguneak nortasuna galtzeko eta eraikigarritasuna (finkatu gabeko hiri-lurzoruan aurreikusitako gutxieneko eraikigarritasuna ere bai) handitzearen ondoriozko kaltea sortzeko arriskua ere badago. Horrek guztiak arriskuan jartzen du EAEko landagunearen funtsezko eginkizuna duen oraingo lurralde-eredua.

Horri dagokionez, landaguneak hiri-lurzorura eratxikitzearen ondorioak ondo aztertu behar dira, finkatu gabeko hiri-lurzoruan aplikatzeko moduko gutxieneko eraikigarritasunak eragina sortuko bailuke babeseko etxebizitzarako lurzoru-erreserbarik egin behar ez duten udalerrietan; bertan, halaber, eraikigarritasuna kasu guztien artekorik txikiena da (0,25 m2/m2-tik 0,4 m2/m2-ra), eta dentsitateak, berriz, 15-20 etx./ha. bitartekoak izan daitezke, aintzat hartuta oraingo landaguneen kasuan 5 etx./ha.koa dela, legerian eskatzen den lursailik txikiena 2.000 m2-koa baita.

Hori esanda, adierazi beharra dago ezen, landaguneko lurzoruaren sailkapenari dagokionez, hauxe ezarri dela 2/2006 Legearen garapenari buruzko premiazko neurrien 105/2008 Dekretuaren 5. artikuluan:

- Landaguneko lurzoru urbanizaezinak eta 5/1998 Legearen berrikuspenen arabera garatu badira, sailkapen beraren barruan izan

daitezke hemendik aurrera ere, betiere garapen gehiago ez badira egiten bertan. Hala denean, hiri-lurzorutzat edo lurzoru urbanizagarritzat sailkatu beharko da Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen arabera, **lurralde planteamenduan zehazturiko antolamendu ereduarekin bat etorriz**.

- Garapena 5/1998 Legearen xedapenen arabera osatu ez den landaguneko lurzoru urbanizaezinak lurzoruaren sailkapen beraren itzalpean osatu beharko dira, betiere lurzoruari eta hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 29. artikuluan xedatu denari lotuta.

Horrenbestez, landagunearen garapena 5/1998 Legearen xedapenen arabera osatu ondoren, soilik egin ahal izango dira hirigintza garapenak LZPk okupazioaren mugako eremuen barruan sartutako landaguneak eta hazkunde horiek udal ereduetan frogatuta daudenean.

LZPren lurralde antolamenduaren ereduaren oinarria oraingo hirien inguruko hirigintza garapena da, lurzoru urbanizaezinari eutsita, eta lurzoru mota horretan biztanle-guneak sortzea galarazten da, aurretik dauden hiriguneetako aparte eta, beraz, ez da ezartzen eskualde egiturako landagunea daukan mugako eremurik.

### 6.5.3 Oraingo landaguneei buruzko informazioa eta diagnostikoa

2/2006 Legearen garapenari buruzko premiazko neurrien 105/2008 Dekretuaren 7. artikuluan, foru aldundiek landaguneen inbentarioaren sorrera arautzen du. Hauxe ezarri da artikulu horretan:

- Foru aldundiek oraingo landaguneen inbentarioak egingo ditu euren lurralde historikoetan, prozedura honen arabera: hasierako onespena, entzunaldia ematea ukituriko udalerriei eta behin betiko onespena. Beharrezkotzat joz gero, mugaketa-proposamen bat gehitu dakioke inbentarioari.
- Hirigintza planeamenduan ezin ezar daiteke inbentarioetan landagune izaera ez duen landagunerik.
- Udalek landaguneko lurzoru urbanizagarrien sailkapenaren barruko lurzoruen azalerak mugatuko dituzte egitura planeamenduko dokumentuetan, betiere lurralde planteamenduan ezarritako

irizpideekin bat etorriz eta Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legean ezarritako mugei lotuta.

- Udal planeamenduak eskumena izango du landaguneko lurzoru urbanizaezinei buruzko gainerako zehaztapenak ezartzeko, Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legean xedaturiko mugei lotuta. Ondorio horietarako, landagunearen egungo egoerari buruzko informazioa bil dezake, baita baimendutako eraikuntzaren antolamendua proposatu ere, bai Hiri Antolamenduko Plan Orokorrean, bai horretarako idatzitako plan berezian.

Landaguneko finkak mugatzeko eta arautzeko prozedurari dagokionez, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 29.4. artikulua garatzeko 105/2008 Dekretuko 8. artikuluan xedatu dena beteko da.

BFAko Garraio eta Hirigintza Saileko Planeamenduko GISetik lorturiko informazioa da erabilitako landaguneetako mugaketa grafikoa, 2008ko abenduan eguneratua. Oraingo etxebizitzei eta udal planeamenduetan aurreikusitako etxebizitzei buruzko informazioari dagokionez, Udalplan 2008 hartu da oinarritzat.
Hortaz, udal planeamenduek ezarritakoa izango da landaguneen mugaketa, LZPren irizpideekin eta aurreikuspekin bat etorriz eta indarreko gainerako legeriaren arabera.

Durangoko Eskualde Egituran, gaur egun, 59 landagune daude, bertako hamaika udalerrietariko bederatzitan banatuta. Durangok eta Izurtzak ez dute landagunerik euren udal mugartean. Landagune kopururik handieneko udalerriak honako hauek dira: Amorebieta-Etxano, Garai, Elorrio eta Berriz (hurrenez hurren, hamasei, hamar, bederatzi eta zortzi).

| Zenb. | Udalerria | Landagune kopurua | Lehengo etxebizitza kopurua | Etxebizitza berrien kopurua | Aurreikusitako etxeb. guztiak |
|---|---|---|---|---|---|
| 1 | Abadiño | 3 | 23 | 13 | 36 |
| 2 | Amorebieta-Etxano | 15 | 120 | 74 | 194 |
| 3 | Atxondo | 4 | 55 | 34 | 89 |
| 4 | Berriz | 9 | 76 | 42 | 118 |
| 5 | Durango | | | | |
| 6 | Elorrio | 8 | 110 | 60 | 170 |
| 7 | Garai | 10 | 39 | 18 | 57 |
| 8 | Iurreta | 4 | 35 | 18 | 53 |
| 9 | Izurtza | | | | |
| 10 | Mañaria | 4 | 30 | 23 | 53 |
| 11 | Zaldibar | 1 | 19 | 14 | 33 |
| | | **58** | **507** | **296** | **791** |

Durangoko Eskualde Egiturako landaguneak
Iturria: Geuk landuta

Eskualde Egiturako landaguneetako etxebizitza kopuru osoa 579 etxebizitzakoa da; Eskualde Egitura osoko 28.344 etxebizitzetako %2 baino ez daude planeameamenduko kalifikazio motaren baten barruan. Hala ere, Berrizeko edo Garaiko udalerrietan, landaguneek eragin askoz ere handiagoa dute lurraldean, jatorrizko hiriguneek edo horien inguruko lurzoru urbanizagarriko hazkunde-aurreikuspenek baino.

Baserri berri baterako lizentzia-eskabidea, Udaletxean egiten denean, ekonomikoki ona da udalerriarentzat, baina landagunearen hazkundeak eta finkapenak, azkenean, kostu handia dakarkio udalerriari, epe ertainean eta luzean.

Hiri-lurzoruan eta lurzoru urbanizagarrian, lurzoruaren jabeek gainbalioak lortzen dituzte, hirigintza-garapenaren barruko lurzoruen balioak gora egitearen ondorioz. Beraz, legeak ezartzen duenez, garatu beharrek lurren hirigintzaren kostuak euren kontura izango dira. Hala eta guztiz ere, dirudienez, lurzoru urbanizaezina edozein hirigintza-prozesutatik kanpo dago, eta, beraz, legerian ez da esaten jabeei gainbalioak sortzen dizkienik.

Eskualde Egituran eta, oro har, EAE osoan detektaturiko errealitatea bestelakoa da. Landaguneetako lursailak, azkenean, egoitza-erabilera hutsak (1. eta, batik bat, 2. egoitza) dituzten eraikinekin okupatzen dira, ingurumen- eta paisaia-kalitate handiko lekuetan; hortaz, jabe berriek diru-kantitate handiak ordaintzen dituzte horiek lortzeko. Horrenbestez, gainbalioak sortzen dira, jabeek urbanizatu beharrik ez badute ere. Azkenean, epe luzean, Udalak egin behar izaten die aurre hirigintza- eta mantenamendu-kostuei.

Horren guztiaren ondoriozko diagnostikoan mehatxu larriak ikusten dira, oraingo ereduak ingurune fisikoa eta paisaia aldatzeari dagokionez; beraz, lurraldea eta horren erabilera nahiz gozamena aldatzen dituen fenomeno horri aurre egiteko neurriak hartu behar dira.

Ondoren, Eskualde Egiturako landagune guztien zerrenda egingo dugu, zenbait faktore aintzat hartuta: azalera, dentsitatea (geuk landuta), oraingo etxebizitzak nahiz planeamenduak aurreikusitakoak eta horien kopuru osoa; legeak adierazitako gehieneko 25 etxebizitza (oraingoak gehi aurreikusitakoak) gainditzen dituztenak gorriz adierazi dira.

Era berean, 105/2008 Dekretu horren 6. artikuluan exijitzen denez, lurzoruak hiri lurzorutzat hartzeko, bat etorri behar du lurralde planeamenduak zehazturiko antolamendu ereduarekin.

Aditzera ematen ditu dentsitate-parametroa, lurzoru urbanizaezinekoa ez dena, etxebizitza guztien arteko lotura eta landagune bakoitzaren mugan jasotako azalera, eta agerian jartzen du eraikinen **barreiadura**; horrek, kasu batzuetan, landagunearen zehaztapenarekiko inkoherentzia adierazten du; izan ere, orain arteko legerietan eta, hain zuzen ere, 5/1998 Legean esaten denez, “sei baserri edo gehiagoren pilaketak dira, horiek bildu eta izaera ematen dien espazio publiko baten inguruan kokatuta”. Oraingo legeriak ere mantendu egiten du irizpide hori.

## Landaguneen taula

| UDALERRIAK | LANDAGUNEAK | | | LANDAGUNEKO ETXEBIZITZAK | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | Azalera ha | Dentsitatea: etx./ha | Oraingo etx. Kop. | Egiteko etx. Kop. | Etx. Kop. guztira |
| | Irazola | 3,31 | 3,02 | 5 | 5 | 10 |
| | Mendiola | 3,22 | 4,66 | 10 | 5 | 15 |
| | Sagasta | 3,25 | 4,31 | 8 | 6 | 14 |
| **ABADIÑO** | **Guztira** | **9,78** | **3,99** | **23** | **16** | **39** |
| **DURANGO** | Ez dago 5/1998 L. A.rik | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| | Bakitxano | 4,24 | 2,59 | 6 | 5 | 11 |
| | Orozketa | 3,75 | 2,93 | 11 | 0 | 11 |
| | Oromino | 3,20 | 4,06 | 8 | 5 | 13 |
| | Goiuria | 3,95 | 4,56 | 12 | 6 | 18 |
| **IURRETA** | **Guztira** | **15,14** | **3,50** | **37** | **16** | **53** |
| **IZURTZA** | Ez dago informaziorik | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| | | **24,92** | **3,69** | **60** | **32** | **92** |

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | San Pedro Boroa | 7,05 | 2,55 | 9 | 9 | 18 |
| | Etxano | 4,16 | 4,33 | 10 | 8 | 18 |
| | San MIguel | 4,88 | 4,51 | 11 | 11 | 22 |
| | San Antonio | 5,46 | 5,13 | 16 | 12 | 28 |
| | Bernagoitia | 3,27 | 5,50 | 12 | 6 | 18 |
| | Arkotza | 7,94 | 3,78 | 16 | 14 | 30 |
| | Bernabeitia | 3,21 | 4,36 | 7 | 7 | 14 |
| | Epalza | 3,57 | 4,48 | 10 | 6 | 16 |
| | Ergoien | 3,33 | 4,80 | 8 | 8 | 16 |
| | Garita | 5,92 | 3,72 | 12 | 10 | 22 |
| | Leginetxe | 3,66 | 6,01 | 11 | 11 | 22 |
| | Santa lucia | 3,18 | 5,97 | 11 | 8 | 19 |
| | Saratzu | 5,92 | 2,70 | 8 | 8 | 16 |
| | Montorra | 7,87 | 3,68 | 15 | 14 | 29 |
| | Urrengoetxe Palazio | 5,58 | 3,58 | 12 | 8 | 20 |
| | Dudagoitia | 3,95 | 4,30 | 12 | 5 | 17 |
| **AMOREBIETA** | **Guzira** | **78,95** | **4,12** | **180** | **145** | **325** |
| | Berrio Zabaleta | 2,30 | 5,22 | 12 | 0 | 12 |
| | San Agustin | 3,80 | 2,63 | 10 | 0 | 10 |
| | Mendraka | 7,03 | 2,70 | 14 | 5 | 19 |
| | Zenita | 5,10 | 4,71 | 20 | 4 | 24 |
| | Gazteta | 2,10 | 2,86 | 6 | 0 | 6 |
| | Berrio | 6,10 | 4,10 | 21 | 4 | 25 |
| | Aldape | 3,90 | 4,10 | 11 | 5 | 16 |
| | Gazeta | 3,03 | 4,29 | 10 | 3 | 13 |
| **ELORRIO** | **Guztira** | **33,36** | **3,75** | **104** | **21** | **125** |

| UDALERRIAK | LANDAGUNEAK | | | LANDAGUNEKO ETXEBIZITZAK | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | Azalera ha | Dentsitatea etx./ha | Oraingo etx. Kop. | Etx. Kop. egiteko | Etx. Kop Guztira |
| | Axpe | 11,51 | 2,43 | 21 | 7 | 28 |
| | Arrazola | 14,84 | 2,02 | 22 | 8 | 30 |
| | Santiago | 6,57 | 3,2 | 19 | 2 | 21 |
| | Marzana | 2,11 | 9,48 | 10 | 10 | 20 |
| **ATXONDO** | **Guztira** | **35,03** | **2,83** | **72** | **27** | **99** |
| | Andikona | 3,78 | 1,85 | 6 | 1 | 7 |
| | Andikona Goiti | 4,92 | 2,44 | 7 | 5 | 12 |
| | Bidebarrieta | 7,48 | 3,07 | 19 | 4 | 23 |
| | Eitua | 5,60 | 2,68 | 8 | 7 | 15 |
| | Murgoitio-San Juan | 4,20 | 1,43 | 3 | 3 | 6 |
| | Sarria | 5,96 | 3,19 | 10 | 9 | 19 |
| | Sarria Goiti | 4,69 | 2,56 | 6 | 6 | 12 |
| | Olabe | 6,76 | 2,07 | 8 | 6 | 14 |
| | Okango-Uribe | 4,70 | 2,13 | 6 | 4 | 10 |
| **BERRIZ** | **Guztira** | **48,09** | **2,45** | **73** | **45** | **118** |
| | Arroita | 2,13 | 1,88 | 3 | 1 | 4 |
| | Oar | 2,25 | 2,22 | 5 | 0 | 5 |
| | Santa Catalina | 3,31 | 1,81 | 4 | 2 | 6 |
| | Zelai | 1,35 | 2,96 | 3 | 1 | 4 |
| | Duña | 6,79 | 1,33 | 5 | 4 | 9 |
| | Urien | 5,50 | 0,73 | 2 | 2 | 4 |
| | Barreko | 4,64 | 1,94 | 5 | 4 | 9 |
| | San Juan | 3,96 | 1,01 | 3 | 1 | 4 |
| | Aiartza | 4,42 | 1,81 | 7 | 1 | 8 |
| | Beratu | 1,62 | 2,47 | 4 | 0 | 4 |
| **GARAI** | **Guztira** | **35,97** | **1,58** | **41** | **16** | **57** |
| | Aldegoiena | 5,43 | 2,58 | 8 | 6 | 14 |
| | Arrueta I | 4,74 | 3,38 | 9 | 7 | 16 |
| | Arrueta II | 2,35 | 3,83 | 6 | 3 | 9 |
| | Urkuleta | 4,16 | 3,37 | 7 | 7 | 14 |
| **MAÑARIA** | **Guztira** | **16,68** | **3,18** | **30** | **23** | **53** |
| | Gazaga | 5,70 | 5,79 | 19 | 14 | 33 |
| **ZALDIBAR** | **Guztira** | **5,70** | **5,79** | **19** | **14** | **33** |
| | | **253,78** | **3,19** | **519** | **291** | **810** |
| | | | | | | |
| **DURANGOKO E.E.** | | **278,70** | **3,24** | **579** | **323** | **902** |

**ITURRIA: UDALPLAN 2008**

XXXXX: 25 etxebizitzatik (oraingoak eta aurreikusitakoak) gorako landaguneak.

XXXXX: 6 etxebizitzatik (oraingoak eta aurreikusitakoak) beheko landaguneak.

Udalerrietako landaguneak aztertzean, honako kasuistika hau aurkitu dugu:

- Gehiegizko muga duten landaguneak: oro har Abadiño, Iurreta, Amorebieta-Etxano, Atxondo, Berriz, Garai eta Mañaria udalerrietakoak.
- 6 unitatetik gorako etxebizitza kopururik (oraingoak gehi aurreikusitakoak) ez duten landaguneak: Arroitia, Beratu, Oar, San Juan, Santa Katalina, Urien eta Zelai (Garai).
- 25 etxebizitzatik (oraingoak gehi aurreikusitakoak) gorako landaguneak: San Antonio, Arkotza y Montorra (Amorebieta), Arrazola eta Axpe (Atxondo), eta Gazaga (Zaldibar)

Ondoren, udalerri bakoitzeko landagune horiek aztertuko ditugu:

**Amorebieta**:

San Antonioko landaguneari dagokionez, 2/2006 Legea indarrean sartzean baimendutako gehieneko etxebizitza kopurua aldatu egin denez, komenigarria da hori ikuskatzea, landagunearen espiritua mantentzeko (oraingo proposamenak duena), hori finkatu gabeko hiri-lurzorutzat hartzean nabarmen handituko balitzateke etxebizitza kopurua, Legeak ezarritako gutxieneko eraikigarritasuna aplikatuta bakarrik, eta, beraz, galdu egingo litzateke landagunearen nortasuna.

Era berean, Arkotzako eta Montorrako landagunearen kasuan, aintzat hartuta etxebizitza kopuru osoa (oraingoak gehi proposaturikoak) hogeita bostetik gorakoa dela, udal-planeamenduak hori ikuskatzea proposatzen da, landagunearen espiritua mantentzeko.

Edozelan ere, LZP honetan ez dago hirigintza garapen berririk aipaturiko hiru landaguneetan.

**Atxondo:**

Arrazolako eta Axpeko landaguneek dentsitate baxuak dituzte landaguneak izateko, 5 etx./ha.tik beherakoak; beraz, ikuskatu egin behar da lursailen oraingo tamaina, horien mugaketa murrizteko eta, horrela, lurzoru gutxiago kontsumitzen duten gune trinkoagoak eratzeko. Gainera, oraingo etxebizitza

kopuruak Lege berrian ere landagunetzat hartzeko aukera ematen du, baina proposamenak egiten badira ez, kontuan hartuta gunearen ondoriozko dentsitate oso baxutik ezin dela ondorioztatu benetako pilaketa denik; hori dela-eta, mugaketak berrikusi behar dira landagune izaera berresteko edo ez landaguneok biltzen dituen espazio publiko baten inguruan, edo bestela, sakabanaturiko etxe kopuru handia duten eremuak dira; izan ere, emaitzako datuak ikusita, halaxe dela esan daiteke.

Bestalde, bi guneak Paisaia Intereseko Eremu Bereziaren barruan daude, eta horrek agerian jartzen du landagunearen izaera mantendu eta horien ingurunea babestu egiten dela.

Edozelan ere, LZP honetan ez dago hirigintza garapen berririk aipaturiko bi landaguneetan.

**Berriz:**

Murgoitioko landaguneari dagokionez, hori landagunetzat hartzearen egokitasuna erabaki behar da, bertako etxebizitza kopurua (oraingoak gehi aurreikusitakoak) seikoa baita.

**Garai:**

Arroitia, Beratu, Oar, San Juan, Urien eta Zelaiko landaguneek ez dute landagune kalifikazioa behar, ez baitute Legeak ezarritako 6 etxebizitzako gutxieneko kopurua.

**Zaldibar:**

Gazagako landaguneari dagokionez, orain ez da 25 etxebizitzako kopurua gainditzen, baina gainditu egin daiteke, planeamenduan aurreikusitako etxebizitzak eginez gero, landagunearen izaera mantentzeko, beraz, muga eta aurreikuspenak murriztea proposatzen da, kontuan hartuta landagune horren kokalekua, irisgarritasuna eta zerbitzuak. Gainera, gune hau Paisaia Intereseko Eremu Berezian kokaturik dago eta horrek berretsi egiten ditu landagunearen izaeraren mantenamendua nahiz bertako ingurunearen babesa.

Edozelan ere, LZP honetan ez dago landagune horretako hirigintza garapen berrirako proposamenik.

### 6.5.4 Estrategiak: udalerriak jabearaztea

Lurraldearen Zatiko Planak EAEko Lurraldearen Antolamendurako Artezpideen edukia garatzen du. Horri dagokionez, bere eginkizuna eremu jakineko (Durangoko Eskualde Egitura) ereduaren xehapena eta zehaztapena egitea da.

Jarraibide horiek ezartzen duten ereduan, landagunearen okupazioa mantentzea eta hori ordenaturik gabeko eta oraingo guneekiko loturarik gabeko ezein hirigintza-prozesutik zaintzea bete egiten dira.

Hala eta guztiz ere, Lurraldearen Zatiko Planak adierazitako jarraibideak toki-administrazioek kudeatuko dituzte, landaguneak udalerri mailan hazten baitira. Izan ere, gaiaz ondo jabetuta dauden udalerrien kasuan, lizentzia oso gutxi eman dira, edo bat bera ere ez da eman.

Hori guztia aintzat hartuta, landaguneen fenomenoari buruzko estrategietariko bat informazioa eta heziketa izango da, hau da, udaleko gobernuen eta teknikarien jabearazpena, landagunearen irudia txarto erabiltzearen ondorioei dagokienez. Arazoari aurre egiteko, honako faktore hauek landu behar dira: higiezinen balio historikoa, eraikinen ezaugarri arkitektonikoak, lurraldearen barruko kokalekua nahiz paisaia-balioak eta udal-aurrekontuaren kudeaketak zerbitzaturiko biztanleria haztearen nahiz etxebizitzak ezartzearen kostuei buruzko informazio argia. Udalerriek arazoaren errealitatea ezagutu ahala, eta kudeatzen duten lurraldearen etorkizuna zaindu beharreko ondasun komuntzat hartzen duten neurrian, kontserbatu egin ahal izango dira bertako biztanleen bizi-kalitatea, ingurune fisikoa eta paisaia.

### 6.5.5 Landaguneak ikuskatzeko irizpide orokorrak.

Landaguneek EAE osoan lurraldea egituratzen duen entitate fisikoa, sozioekonomikoa eta kulturala osatzen dute.

Durangoko Lurraldearen Zatiko Planaren eginkizuna Eskualde Egituraren lurraldea antolatzea da; bertan, landaguneen aniztasuna eta horiek lurraldean duten kokalekua kontuan hartuta, ikerketa zehatzagoa egin behar da.

Ikuspegi horretatik begiratuta, Eskualde Egiturako landaguneei dagokienez, Lurraldearen Zatiko Planak honako ikuskapen-irizpide orokor hauek sartu nahi ditu udal-planeamenduetan.

Udalek Eskualde Egiturako landaguneak ikuskatzen dituztenean, ondoren adierazitako irizpideak hartuko dira aintzat:

1. Landagune bakoitzaren mugaketa, kasu askotan gehiegizkoa, ikuskatu egin behar da, euren azalera eta eraikitzeko gaitasuna landagunearen berezkoetara egokituta, Eskualde Egiturako landaguneen berezko nekazaritza- eta abeltzaintza-gaitasuna duten lurzoruak babesteko.
2. Baldin eta landagune gisa sailkaturiko eremua murrizten bada, askaturiko natura eta landa ingurunearen kategorizazio berriak bat etorri behar du ingurunearekin.
3. Landaguneek lehen sektorearen jarduera bermatu beharko dute, soilik egoitzakoak diren eraikuntzak egitea galaraziz.
4. Landaguneen historia eta nekazaritza izaera babesteko eta zaintzeko neurrien barruan txertatu behar da landaguneen mugaketa eta erregularizazioa.
5. 5/1998 Legeko xedapenen arabera garatu diren landaguneen kasuan, baserri kopurua 25etik gorakoa izan arren, egiaztatu egin behar da ea gune horiek landagunetzat hartzeko baldintzak betetzen dituzten ala ez; hain zuzen ere, ea etxebizitzak espazio publiko baten inguruan bilduta dauden edo eremu barreiatuak diren.
6. Landaguneen garapena 5/1998 Legearen aurreikuspenen arabera osatu ondoren, soilik egin ahal izango dira hirigintza garapenak LZPk okupazioaren mugako eremuen barruan sartu dituen landaguneak eta hazkunde horiek justifikatuta daudenean udal planeamenduetan.
7. LZP honetan ez dago hiri hazkunderako garapenik oraingo landaguneetan.
8. Landaguneetako eraikuntzen tipologia oraingoaren antzekoa izango da, eta landaguneetako berezko eraikuntzei eutsiko zaie, hots, taldeak osatzeko gai diren eraikuntzei.

Orokorrean aipaturiko irizpideak, oro har, aplikagarriak dira Eskualde Egiturako landagune guztietan. Egitamuak, landaguneen taulan, gorriz idatziz identifikatzen ditu arazorik handienak dituzten landaguneak, atal honetan azterturiko alderdiei dagokienez, eta horientzat egokitzapena lehentasunezkoa da.

Bestalde, landaguneak ikuskatzeko orduan, komenigarria izango litzateke udal-planeamenduan eta Egitamu Berezian gune bakoitzaren datu hauek jasotzea:

1. Kokalekua
   Landagunearen udalerria eta bertan duen kokalekua.
2. Irisgarritasuna
   Gunera iristeko modua eta erabilitako ibilgailu-bidearen egoera.
3. Antzinatasuna
   Gunearen antzinatasuna adieraziko da, baita bertako eraikin nagusien antzinatasuna ere.
4. Morfologia
   Landagunearen azalpen laburra emango da, jatorrizko forma eta aurreko hamarkadetan izandako bilakaera adierazita.
5. Hirigintza-datuak:
   Azalera
   Lursail-kopurua
   Oraingo baserri kopurua
   Aurreikusitako baserri kopurua
6. Ingurumena eta paisaia
   Gunearen ingurumen- eta paisaia-balioak zehaztuko dira; horretarako, aintzat hartuko da bertatik hurbil nekazaritza-interes handiko lurzorurik edo ingurumen-babeseko lurzorurik dagoen, Lurraldearen Antolamendurako Artezpideetan ezarritako eta Udal Planeamenduan jasotako kategorien arabera, baita Lurraldearen Egitamu honetan ezarritako kategorien arabera.
7. Hirigintza-zerbitzuak
   Ur-hornidura
   Gunea hornitzeko modua, sarearen ezaugarriak nahiz egoera, oraingo arazoak eta egiten ari diren jarduketak (halakorik egonez gero) adieraziko dira.
   Saneamendua

Ur zikinak tratatzeko modua, sarearen ezaugarriak nahiz egoera, egiten den arazketa, oraingo arazoak eta aurreikusitako ekintzak (halakorik egonez gero) adieraziko dira.

Hiri Hondakin Solidoak

Hiri-hondakin solidoak ezabatzeko erabiltzen den sistema azalduko da; bilketa egiteko modua eta isuri baino lehen duten tratamendua adieraziko dira. Halaber, zaborraren bilketa hautakorrik eta birziklapenik ote dagoen azalduko da, baita arlo horretan aurreikusita dauden ekintzak ere.

Elektrizitatea

Gunearen hornidura elektrikoa nola egiten den adieraziko da; halaber, jakitera emango dira oraingo arazoak eta aurreikusitako ekintzak, sarea lurperatzeko egitamua gauzatzeko aukerak adieraziz.

Gasa

Gas-sarea edo halakorik egoteko aukera aztertuko da, baita butano-gasaren hornidura ere, udalerrian hori zein mailatan erabiltzen den adieraziz.

Argiztapen publikoa

Argiztapen publikoaren oraingo sarea azalduko da, guneko biztanleek arlo horretan adierazitako gabeziak eta aurreikusitako ekintzak (halakorik egonez gero) nabarmenduta.

Telekomunikazioak

Azaldu egingo dira udalerriko telefonia-sistema, oraingo hornidura kopurua eta interneten sarbidearen maila; halaber, udalerrian zerbitzu hori erabiltzeari dagokionez nabaritzen den beharrizana ere adieraziko da. Azkenik, estaldura mugikorraren kalitatea azalduko da, halakorik egonez gero.

Eremu publikoen kalitatea

Gunearen zuzkidura azalduko da, plaza kopuruari, hiriko altzariei (paperontziak, iturriak, seinaleak), zoladuraren egoerari eta guneko beste alderdi garrantzitsu batzuei dagokienez.

Oraingo ekipamenduak

Udalerrian orain dauden ekipamenduak adieraziko dira.

8. Eraikinaren egoera

Eraikinaren egoera baloratuko da, 105/2008 Dekretuak ezarritako parametroen arabera aintzat hartuta eraikinen erabilera nagusia, kontserbazio-egoera, tipologia nagusia eta aurreikusitako birgaitze-jarduketak.

9. Jarduera ekonomiko nagusia

   Guneko jarduera ekonomiko nagusia identifikatuko da (nekazaritza, abeltzaintza, turismoa, zerbitzuak, mistoa, etab.).

Nolanahi ere, prebentzio-neurri batzuk ezarri nahi dira, landagune guztien kontrolik gabeko hazkundearen eta iraunkortasunik ezaren fenomenoa kontrolatzeko:

Prebentzio-neurriak

a) Informazioa:

   Udalerrietan informazio-hizketaldiak egingo dira, landaguneen arazoak argitzeko. Guneetako biztanleak jabearazi beharra dago, horiek gunea aldatzearen ondorioak jakiteko, ez landagunearen errealitatearen arloan bakarrik, baita udalerri osoaren hirigintza-kostuen arloan ere.

b) Kudeaketa hobetzea:

   Hirigintza-kudeaketako udal-zerbitzuen eraginkortasuna hobetzea, prozesua itzulgarria izatea oztopatzen duten eraikuntzen hasiera ekiditeko.

Landagune bakoitzari buruzko ikerketa xehatuan adierazitako datuen arabera, komenigarria da landaguneen hirigintza-tratamendua egitea, oinarrizko baldintzatzailetzat udalerriak lurraldean duen kokalekua eta balio naturaleko espazioen edo eremuen barruan duen kokalekua hartuta.

Natura- eta paisaia-balio handiko lurzoruak egotearen edo ez egotearen arabera, edo gunearen inguruan arriskuak dituzten lurzoruak egotearen arabera, neurri batzuk edo besteak hartuko dira, betiere, oraingo etxebizitza kopurua handitzeko aukera baztertuta.

## 6. 6. Paisaiaren irisgarritasuna

LZP honen Aurrerapeneko 6.3 epigrafean, DEEko paisaiaren lurralde-aniztasuna paisaia-unitateen identifikazioan eta karakterizazioan oinarrituz zehaztu zen, mapa egokiarekin lagunduta. Eskualde Egitura osorako, identifikaturiko paisaia-eremu bakoitzaren barruan, LZPk mugarrien, talaien, ibilbideen eta paisaiaren aldetik interes berezia duten lekuen zerrenda dauka jasota; horiei dagokionez, udal-planeamenduak arlo horretan garatzen dituen

ekimenen kalterik gabe, kontserbazio, sustapen, kudeaketa eta, halakorik egonez gero, narriadurako nahiz paisaiaren birkualifikazioko ekintzek izango dute eragina, paisaia ondaretzat eta lurralde-baliabidetzat hartuta.

### 6.6.1. Natura- eta landa-paisaia zaintzea, hobetzea eta suspertzea, eta paisaiaren irisgarritasuna errespetuz sustatzea, interes bereziko elementuak, egiturak eta eremuak kontserbatuz, eta horien behaketa, interpretazioa nahiz gozamena eragiten duten ekintzak garatuz.

Helburu honen garapena estu lotuta dago biztanleei lurraldearen iragazkortasuna eskaintzeari, biztanleek naturaz eta paisaiaz gozatu ahal izateko, espazio desberdinen bokazioarekin modu bateragarrian. Paisaiaren irisgarritasunaren tratamendua, izatez ere, Natura eta Landa Inguruaren kategorizazioari gainjarritako baldintzatzailea da, baina horri loturiko guztia epigrafe honetan garatuko dugu.

Paisaia “lurralde osoaren ezaugarritzat” hartzen den arren, Paisaiaren Europako Hitzarmeneko (Europako 2000ko Kontseilua) eta Europako Lurralde Estrategiako planteamenduen arabera, LZP honen paisaia-antolamendua (EAEko Nekazaritza eta Basoak Antolatzeko LAPeko jarraibide orokorrak eta gomendioak ere aintzat hartuta) bi alderdi nagusitan oinarritzen da, eta horiek paisaia-kalitatearen helburu nagusitzat har daitezke, hitzarmen horretan kontzeptu horri ematen zaio zentzuari dagokionez:

1) Talaiak, oraingo nahiz balizko behatokiak eta horien sarbideak, eta panoramika zabalagoak zein anitzak eskaintzen dituzten ibilbideak, orokorrean jendeak gehien erabiltzen dituenak eta irisgarrienak direnak. Elementu linealen eta zehatzen sarea da, eta elementuok funtsezko eginkizuna dute Eskualde egiturako paisaiara heltzeko, berori behatzeko eta horretaz gozatzeko orduan, bai biztanleei eta bai bisitariei dagokienez. Sare hori sustatzea, hobetzea, zabaltzea eta hedatzea lagungarria da Eskualde Egiturako lurraldearen kalitatea hobetzeko.

   Erlazio irekitzat hartu behar den **paisaia-sare** honen diseinuan, paisaia-interesa duten kulturako elementuak edo multzoak jaso bejar izango ziren, bai balio handikoak direlako (baselizak, landagune

batzuk, isolaturiko baserriak, historiaurreko monumentuak eta horien inguruak), bai paisaia-intereseko eremuen edota ibilbideen barruan daudelako, baita sarritan panoramika interesgarriak eskaintzen dituztelako ere, batik bat baseliza batzuen kasuan (bertako biztanleek oso barneratuta dituzte, hango nortasunaren elementutzat).

2) Berezko paisaia-balioen eta kontserbazio-egoera onaren edo topografiaren aldetik eremu garrantzitsuak nahiz oso ikusgarriak izatearen ondorioz **Paisaiaren Interes Bereziko Eremutzat** kalifikatu diren lurralde-zatiak.

Eremu hauek paisaia-tratamendu berezia behar dute balioak zaintzeko eta hobetzeko alde batetik, paisaian kalterik handiena egiten duten jarduerak eta ezarkuntzak kontuz arautu behar dira; bestetik, politika sektorialen (landakoa, ingurumenekoa, turistikoa, kulturakoa, etab.) dirulaguntzak, laguntzak eta ekimenak bideratuko dira bertara, paisaiaren nortasuna osatzen duten jarduerak eta elementuak mantentzeko eta hobetzeko.

Eremu horiek identifikatzeko, horrenbestez, baserriaren landa-irudiaren mendeko zona batzuen garbitasuna, harmonia, adierazgarritasuna eta ikusgarritasun handia hartu dira aintzat, baita lurraldeko eremu batzuen geomorfologia eta ikusmen-ezaugarriak ere (gehienbat, lurraldeko gune jakinak). Eremu horiek zaindu egin behar dira, bertako elementu naturalak, nekazaritzakoak nahiz artzaintzakoak eta eraikitakoak (baserriaren paisaiakoak) zaintzeko; halaber, laguntza publikoen eta baserritarrekin nahiz beste interesatu batzuekin egindako kontratuen bidez, sustatu egin behar dira paisaia kontserbatzeko jarduerak eta ekintzak; era berean, paisaiaren errespetuzko behaketa eta erabilera publikoa bultzatu behar da, paisaia lurralde-ondaretzat eta baliabide ekonomikotzat hartuta, eta horren guztiaren lehenengo onuradunak, izan ere, landa-ustiapenak izan daitezke, jardueren (besteak beste-landa-turismoko jarduerak) gaineko planteamendu irekian eta funtzio anitzekoan oinarrituz.

Eskualde Egiturako baserriko paisaiarik garbienei dagokienez, eta aintzat hartuta horiek “Balio Estrategiko Handiko Landazabalak” edo “Trantsizioko Landa Paisaia” antolamendu-kategorietan daudela, badirudi bidezkoa dela paisaia-interesa natura- eta landa-inguruari

gainjarritako baldintzatzat hartzea, hau da, egoera berezitzat (paisaiaren balio handiak); hori inguru jakinetan gainjartzen da eta horiek euren antolamendu-kategorietan sartuta daude. “**Paisaia-interes bereziko eremuak**” izenekoak horrelaxe ulertu behar dira.

Dokumentazio grafikoak dakartzan paisaia-intereseko ibilbideek, zehaztasunik ez badute ere, Eskualde Egiturako paisaien aniztasunen ikuspegi aberatsak eta hainbat eskalatako planoak ematen dituzte: multzoko panoramikak, plano ertainak eta hurbileko ikuspegi onak. Aldi berean, paisaiara hurbiltzeko eta horretaz errespetuz gozatzeko aukera ematen dute, neurri handian lursailak errespetatzen duten eta nekazaritzako nahiz abeltzaintzako jarduera oztopatzen ez duen oraingo bideak baitira. Ibilbide horien barruan, ahal denean, mugarri, behatoki eta elementu aipagarriak daude, aurreko ataletan aipatutakoak.

3) Ibaizabal, Zumelegi, Solozabal eta Mañaria ibaien erdialdeko ubidea aipagarria da meandro-formako trazatugatik eta urbazterren kontserbazioagatik; urbazter horien azalera nabarmen murriztu da eta, gaur egun, ez dute loturarik elkarrekin; kasu batzuetan, gainera, narriaturik daude, baina balio handia dute ekologiaren, paisaiaren eta bioklimaren aldetik. Ibaiko ubidearen eta horren inguruaren berezko paisaia-balio horiek kontuan hartuta, eta eremu topografiko aipagarria nahiz ikusgarria denez, **Paisaiaren Ibai Sistema** zehaztu dute. Eremuok honako espazio hauek osatzen dituzte:

a. **Ibaia eta horren ertzak,** baliorik handiena duen eta ibaiko ubidearen gunea osatzen duen elementutzat. Ahal dela ez dira errekaren habitat naturala eta bertan bizi diren espezieak ukituko. Ildo horretan, galzorian dagoen bisoi europarra espezieari buruzko 118/2006 Foru Dekretua errespetatuko da.

b. **Ingurumen-interesdun hiri-inguruko landazabalak**: Eskualde Egiturako ingurumenaren eta paisaiaren aldetik balio estrategiko handia duten landazabal-eremuak, agiri horrek mugatutakoak; neurri handian, ureztagarriak dira eta funtsezko eginkizuna dute hiri-jarraipena apurtzeko eta haran osoan zehar (batik bat, N-634 errepidearen inguruan) eraikitako fatxada bakarraren eraketa ekiditeko.

c. Landazabal hauek lotzen dituen **paisaia-intereseko ibai-ibilbidea**: gizarteak ibaiaren ezagupena eta gozamena (ibaitzat) berreskuratu behar du; gainera, eremuotako zuhaitz-espezie batzuen garapena oso ona da urbazterreko zona hauetan, eta ur-lamina egoteak eta eremu natural integratuak edukitzeko aukerak zentzumenen bidezko pertzepzioak aberastu eta inguru oso atsegina sortzen dute; eremu horietan, Landa eta Natura Inguruaren mantenamendua nagusitzen da, lehendik dauden lursailak apurtu barik, nekazaritza-ustiapenetan eraginik ez sortzeko ezta ubidea habitat naturaltzat duten espezieetan ere.
Ibilbide horietan, ez da ibarreko landaredia ukituko, eta nahikoa erretiroei eutsiko zaie landareak berritzeko jarduketak egiteko egun ez dagoen tokian.

LZPk paisaia kontserbatzearen eta horren behaketa zein gozamena sustatzearen arloan egiten dituen proposamenak (hori lurralde-ondaretzat eta baliabidetzat hartuta) honako atal hauetan zehazten dira:

a. Gizartea sentsibilizatzeko proposamenak, eta horiek inplikaturiko administrazioek zehaztuko dituzte.
b. Paisaiaren ikusmena hobetzeko proposamenak:
   - Oraingo behatokiak hobetzeko programa.
   - Paisaia-ibilbideak eta behatoki berriak zehaztea eta instituzionalizatzea.
c. Paisaia antolatzeko proposamenak:
   - Zonetarako irizpide bereziak eta paisaia-interes bereziko elementuak.
d. Paisaia hobetzeko eta birkualifikatzeko proposamenak:
   - Espazio eta elementu narriatuenak suspertzea (batez ere, harrobiak eta horien inguruak).
   - Komunikazio-bide nagusien inguruen tratamendua egitea.
   - Hirigune nagusien fatxaden tratamendua egitea.
   - Landaguneen ingurua.
e. Arlo hauetako irizpideak eta gomendioak:
   - Baserri berriak eta oraingoen birgaikuntza.
   - Nekazaritza-ustiapenen itxierak eta instalazio osagarriak.
   - Negutegien ezarkuntza.
   - Basoko ustiapena.

- Tentsio altuko, telefonia mugikorreko eta sare batzuetako lineak.
- Ekipamenduen ezarkuntza landaguneetan.

### 6.6.2 Paisaiaren aldetik interes berezikoak diren mugarriak, talaiak, eremuak eta ibilbideak

Aldeen arabera bereizten dira bidarriak, talaiak, begiratokiak, pasaia intereseko kultur osagaiak eta paisaia interes bereziko eremuak:

*Oiz mendiaren gailurrak eta isurialdeak:*

- Paisaia interes bereziko eremuak:
  - Astogane – Oiz – Zengotitagane eremua
- Behatokiak:
  - Oiz mendiaren gailurra
- Mugarriak eta talaiak:
  - Sarrimendi

*Durangaldeko mendiak eta haranak*:

- Mugarriak eta talaiak:
  - Belazkieta
  - Gaintzorrotz
  - Mugarra
  - Untzillaitz
  - Saibigain
  - Aitz – Txiki
  - Alluitz
  - Anboto
  - Urkiola
- Behatokiak:
  - Karobia
  - Txakurzulo
  - Urkiolako gaina
  - Saibigain
- Paisaia intereseko kultur osagaiak:
  - Urkiolako Santutegia
  - Atxarteko Kristo Santuaren ermita

- Axpeko Santa Barbara ermita

*Ibaizabalen ezkerreko ertzeko landazabalak eta haranak:*

- Paisaia-interes bereziko eremuak:
    - Atxondoko haranak
    - Bernagoitia auzoa eta horren ingurua

*Zumelegi ibaiaren arroa:*

- Paisaia-interes bereziko eremuak:
    - Iguria auzoa eta horren ingurua (Elorrio)
    - Gazeta auzoa eta horren ingurua (Elorrio)
    - Miñota auzoa eta horren ingurua (Berriz-Elorrio), Gaztelua – Aresti eremua
    - Urtiren harana
- *Behatokiak*:
    - Leitz auzoa (Elorrio)
    - Elgetako mendatea
    - Kanpazarreko mendatea
- Paisaia-intereseko kultur osagaiak:
    - Arginetako nekropolisa. (Elorrio)

*Ibaizabalen eskuineko ertzeko landazabalak eta haranak:*

- Paisaia-interes bereziko eremuak:
    - Garaiko landa-multzoa (Garai)
    - Andikoa-Sarria eremua (Berriz)
    - Etxano eta horren ingurua
- Behatokiak:
    - Bizkargi mendia
    - Goiuriako gaina
    - Durangaldeko begiratokia (Garai)
- Paisaiaren aldetik interesa duten kultur osagaiak:
    - Mormoitioko San Juan ermita (Garai)
    - Santa Kataliñe ermita eta Garaiko artea
    - San Juan ermita (Amorebieta-Etxano)
    - Gurutze Santuaren ermita (Amorebieta-Etxano)

Bestalde, paisaia-intereseko ibilbideak bi talde handitan banatzen dira, eta horiek ondo identifikaturik daude paisaian sartzeko planoan.

Lehenengo taldearen barruan, Durangoko Eskualde Egitura osoa zeharkatzen duten edo beste eskualde-egitura batzuekiko lotura ezartzen duten Ibilbide Handiak daude:

- GR 38 Ardoaren eta Arrainaren Ibilbidea
- GR 229 Mikeldi
- Beste ibilbide handi batzuk

Bigarren taldearen izena Beste Ibilbideak da, eta, horren barruan, toki-intereseko ibilbideak sartzen dira (Durangoko Eskualde Egiturako udalerri bat edo gehiago barruan hartzen dituztenak), baita bide batzuk suspertzea ere (adibidez, Arrazolako meatze-trenaren ibilbidea suspertzea).

Grafikoetan jasotako ibilbide hauek, izan ere, udalek ibilbideok garatzeko, horien babesa bermatzeko eta hobekuntza-proposamenak egiteko eskemak dira.

# 7. EZARKUNTZA SISTEMA

## 7.1 Demografia- eta egoitza-egoeraren azterketa eta diagnostikoa.

### 7.1.1. Hasierako biztanleria demografiko egonkorraren ondotik hazkundea izan da biztanlerian hurrengo urteetan.

#### 7.1.1.1. 1986-2006 aldia

Durangoko Eskualde Egiturako biztanleriak ibilbide positibo samarra dauka, baina hori egonkortasun demografiko baten ondoriozkoa da, aldaketa oso txikiekin, bai termino absolutuetan eta bai erlatiboetan; hala eta guztiz ere, azken aldian joera aldatu egin da. Bertako 72.314 biztanleak 2005eko abenduan (Biztanleriaren azken zentsuaren data, 2006ko urtarrilaren 1ekoa (Iturria: INE) %6 baino hazkunde apur bat handiagoa izan zuen, 1986ko biztanleriari zegokionez.

Durangoko Eskualde Egiturako udalerrien dinamika demografikoa eredu egonkortuari dagokiona da. Udalerrietan 1986-2001 aldian izandako aldaketak, ia beti, ehuneko bostetik beherakoak dira, eta biztanleria-hazkunde nabaria duten bakarrak Durango eta Amorebieta-Etxano dira (hazkunde begetatiboaren gainetik, argi eta garbi).

Esan daiteke Eskualde Egiturako biztanleriaren hazkundearen ezaugarri nagusia hazkunde hori txikia izatea dela. Urtean 100 biztanle gehiago baino ez daude; hori, etxeetara aplikatuz gero, 2001era arte balizko eskari demografikoa ez zen urteko 31 etxebizitzetara heltzen; hala ere, aipagarria da biztanle kopuruak azken bost urteotan izandako hazkunde handia, urte horietan zifrak askoz ere handiagoak izan baitira.

Durangoko Eskualde Egituran tamaina demografiko oso desberdineko udalerriak sartzen dira. Horietariko hiru ez dira 500 biztanleetara iristen, beste lau ez dira 5.000 biztanleetara heltzen, eta bik baino ez dute hiri-izaerarik (hamar mila biztanletik gorakoak). Azken horiexetan egin du gora biztanleriak, 1986ko kopuruari dagokionez.

Hiriko biztanleria, oso-osorik Durango eta Amorebieta-Etxano udalerrietan dagoena, ez da guztizkoaren ehuneko 60ra heltzen, eta goranzko joera dauka; landa-biztanleriak, ostera, beheranzko joera dauka.

Barreiaturiko biztanleria, bestalde, biztanleria osoaren ehuneko hamarra baino ez da, eta beheranzko joeratxoa dauka. Hori guztia dentsitate baxuei gehituta, egoera larriagoa da, hiriguneetatik kanpo gutxieneko eskaria egoteari dagokionez. Horrenbestez, ekintzak garatu behar dira ahultasun demografiko horren ondorioak zuzentzeko.

***BIZTANLERIAREN ALDAKETA 1986-2006***

| ***UDALERRIA*** | EUSTAT | | | | INE | ALDAKETA | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | **1.986 Apirila-ren 1a** | **1.991 Martxoa-ren 1a** | **1.996 Maiatza-ren 1a** | **2.001 Azaroa-ren 1a** | **2.006 Urtarrila-ren 1a** | **1.986-2.006** | |
| *Abadiño* | 7.136 | 7.070 | 6.897 | 6.843 | 7.163 | 27 | + |
| *Durango* | 21.953 | 22.627 | 23.909 | 25.003 | 27.040 | 5.087 | + |
| *Iurreta* | 5.199 | 4.901 | 4.483 | 4.144 | 3.901 | -1.298 | - |
| *Izurtza* | 276 | 269 | 277 | 266 | 251 | -25 | - |
| | 34.564 | 34.867 | 35.566 | 36.256 | 38.355 | 3.791 | + |
| *Amorebieta-Etxano* | 15.809 | 15.818 | 16.060 | 16.182 | 17.112 | 1.303 | + |
| *Elorrio* | 7.768 | 7.432 | 7.338 | 7.157 | 7.116 | -652 | - |
| *Atxondo* | 1.504 | 1.525 | 1.490 | 1.427 | 1.441 | -63 | - |
| *Berriz* | 4.197 | 4.216 | 4.099 | 4.312 | 4.676 | 479 | + |
| *Garai* | 245 | 256 | 244 | 252 | 279 | 34 | + |
| *Mañaria* | 525 | 504 | 473 | 453 | 459 | -66 | - |
| *Zaldibar* | 3308 | 3152 | 3.050 | 2.877 | 2.876 | -432 | - |
| | 33.356 | 32.903 | 32.754 | 32.660 | 33.959 | 603 | + |

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| ***Durangoko E.E.*** | **67.920** | **67.770** | **68.320** | **68.916** | **72.314** | **4.394** | + |

### 7.1.1.2. 1986-2008 aldia.

Ondorengo taulan, Eskualde Egiturako udalerrietako biztanleria eguneratua agertuko da, Eustatek informazioa duen urteetatik 2006. urtera artekoa. Informazioa osatzeko, 2008ko biztanleria agertzen da, INE iturriaren araberakoa.

1986-2008 aldia aztertuta ikus daitekeenez, % 9ko hazkundea izan da gutxi gorabehera, eta agerian gelditzen da berriz ere egoera demografiko egonkorra 1986-2001 aldian. Ondoren hazkundea agertzen da, ondoko epigrafean agerrarazi denez.

***BIZTANLERIAREN ALDAKETA 1986-2008***

| ***UDALERRIA*** | EUSTAT | | | | | INE | ALDAKETA | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | **1.986 Apirila-ren 1a** | **1.991 Martxoa-ren 1a** | **1.996 Maiatza-ren 1a** | **2.001 Azaroa-ren 1a** | **2.006 Azaroa-ren 1a** | **2.008 Urtarrila-ren 1a** | **1.986-2.008** | |
| *Abadiño* | 7.136 | 7.070 | 6.897 | 6.843 | 7.144 | 7.197 | 61 | + |
| *Durango* | 21.953 | 22.627 | 23.909 | 25.003 | 27.925 | 27.861 | 5.908 | + |
| *Iurreta* | 5.199 | 4.901 | 4.483 | 4.144 | 3.833 | 3.854 | -1.345 | - |
| *Izurtza* | 276 | 269 | 277 | 266 | 248 | 260 | -16 | - |
| | 34.564 | 34.867 | 35.566 | 36.256 | 39.150 | 39.172 | 4.608 | + |
| *Amorebieta-Etxano* | 15.809 | 15.818 | 16.060 | 16.182 | 17.197 | 17.626 | 1.817 | + |
| *Elorrio* | 7.768 | 7.432 | 7.338 | 7.157 | 7.075 | 7.165 | -603 | - |
| *Atxondo* | 1.504 | 1.525 | 1.490 | 1.427 | 1.435 | 1.456 | -48 | - |
| *Berriz* | 4.197 | 4.216 | 4.099 | 4.312 | 4.771 | 4.829 | 632 | + |
| *Garai* | 245 | 256 | 244 | 252 | 302 | 321 | 76 | + |
| *Mañaria* | 525 | 504 | 473 | 453 | 456 | 474 | -51 | - |
| *Zaldibar* | 3308 | 3152 | 3.050 | 2.877 | 2.864 | 2931 | -377 | - |
| | 33.356 | 32.903 | 32.754 | 32.660 | 34.100 | 34.802 | 1.446 | + |
| ***Durangoko E.E.*** | **67.920** | **67.770** | **68.320** | **68.916** | **73.250** | **73.974** | **6.054** | + |

### 7.1.1.3. 2008-2024 aldia.

Estatistikako Euskal Erakundeak (EUSTAT) Bizkairako planteatzen duen hipotesia oinarri hartuta, azken 22 urtean ikusitako joerari eustea da EEko udalerrietako biztanleen proiekzioetan aplikaturiko oinarrizko suposamendua, hots, eutsi egiten zaio 1986-2008 aldian ikusitako joerari. Ondoko taulan aurkezturiko egoera horretan, urtean % 0,39ko biztanleria-hazkundea aurreikusten da Eskualde Egituran, baina hain zuzen ere azken zazpi urtean ikus daiteke hazkunde handiagoa.

| *UDALERRIA* | EUSTAT | | | | | INE | ALDAKETA | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | **1.986 Apirila-ren 1a** | **1.991 Martxoa-ren 1a** | **1.996 Maiatza-ren 1a** | **2.001 Azaroa-ren 1a** | **2.006 Azaroa-ren 1a** | **2.008 Urtarrila-ren 1a** | **UHT (%) 1.986-2.008** | **Aurreik. 01/01/2024** |
| *Abadiño* | 7.136 | 7.070 | 6.897 | 6.843 | 7.144 | 7.197 | 0,039 | 7.242 |
| *Durango* | 21.953 | 22.627 | 23.909 | 25.003 | 27.925 | 27.861 | 1,089 | 33.134 |
| *Iurreta* | 5.199 | 4.901 | 4.483 | 4.144 | 3.833 | 3.854 | -1,351 | 3.100 |
| *Izurtza* | 276 | 269 | 277 | 266 | 248 | 260 | -0,271 | 249 |
| | 34.564 | 34.867 | 35.566 | 36.256 | 39.150 | 39.172 | 0,570 | 42.905 |
| *Amorebieta-Etxano* | 15.809 | 15.818 | 16.060 | 16.182 | 17.197 | 17.626 | 0,496 | 19.077 |
| *Elorrio* | 7.768 | 7.432 | 7.338 | 7.157 | 7.075 | 7.165 | -0,367 | 6.756 |
| *Atxondo* | 1.504 | 1.525 | 1.490 | 1.427 | 1.435 | 1.456 | -0,147 | 1.422 |
| *Berriz* | 4.197 | 4.216 | 4.099 | 4.312 | 4.771 | 4.829 | 0,640 | 5.348 |
| *Garai* | 245 | 256 | 244 | 252 | 302 | 321 | 1,236 | 391 |
| *Mañaria* | 525 | 504 | 473 | 453 | 456 | 474 | -0,463 | 440 |
| *Zaldibar* | 3308 | 3152 | 3.050 | 2.877 | 2.864 | 2931 | -0,548 | 2.684 |
| | 33.356 | 32.903 | 32.754 | 32.660 | 34.100 | 34.802 | 0,193 | 35.893 |
| | | | | | | | | |
| ***Durangoko E.E.*** | **67.920** | **67.770** | **68.320** | **68.916** | **73.250** | **73.974** | **%0,389** | **78.797** |

Ondoko formula hau erabiliz lortu dira 16 urterako biztanleriaren aurreikuspenak:

$$EH=OB\ (1+UHT)^{n}$$

Non UHT Urteko Hazkunde-tasa, EH etorkizuneko hazkundea (2024), OB proiekzioaren oinarrizko urteko biztanleria (2008) eta n etorkizuneko proiekzioko urtearen eta proiekzio urtearen arteko urte kopurua baitira (16 urte).

### 7.1.1.4. Biztanleria-eredu pilatua, egoitza-enpleguaren arteko nolabaiteko disoziazioarekin.

Biztanleria-eredua pilatua da, eta biztanleek apurka-apurka A-8 autobidearen igarobidean pilatzeko joera dute, batez ere Durangoko udalerrian; gainera, biztanlerik gutxieneko zonen demografia gero eta ahulagoa da, eta hori ez da ona.

Durangoko Eskualde Egituran, lurzoruaren hiri-erabilerak (egoitzak eta jarduera ekonomikoa), batez ere, A-8 autobidearen korridorean kokatzen dira, eta, horrela, “hiri linealeko” eszenatokia sortzen da; bertan, ahalegina egin behar da Eskualde Egiturako lurralde-artikulazioa sustatzeko eta, horrela, udalerri guztiek hirugarren sektoreko zentroekin lotura edukitzeko; gainera, aprobetxatu egin behar da Durangok lurraldearen eta jardueren arloan duen erdiguneko posizioa.

Azken hamabost urteotan, motorizazio-indizeek gora egin dute eta, gainera, Eskualde Egituratik hurbil gune metropolitar handi bat dago; horren ondorioz, lantokiaren eta bizilekuaren arteko disoziazio espazialeko egoerak sortzen dira. Mugimendu pendular horiek, beste mota bateko mugimenduak ere aintzat hartuta, interesa kendu ahal diote, agian, bizitzeko eremu administratiboaren azaleraren eta eskubideko biztanleen arteko zenbakizko erlazioen esangura teorikoegiari.

Hortaz, aintzat hartu behar dira loturaren arloan proiektaturik dauden hobekuntzak, mugikortasun pendularreko aukerak sustatzeko; izan ere, horiek egoitza-dinamikaren balizko katalizatzaileak dira, biztanleria bertan gelditzeko, batez ere landa-inguruetan.

Arrazoibide hori, ahal den neurrian, egoitza-dinamikaren eta enplegu-dinamikaren arteko zentzuzko oreka lortzeko helburuarekin uztartu behar da.

Telekomunikazioen aurrerakuntza ere, hurrengo urteotako gizarte- eta ekonomia-bizitzaren barruko benetako iraultza izango baita, aintzat hartu behar da, jarduera ekonomikoaren zerbitzu edo aukera asko edukitzeko behar den gutxieneko eskari demografikoa egoteko. Komunikazio-sarearekiko lotura onak edukitzeko aukerak, gainera, itxaropen berriak eta nekez neurtzeko

modukoak irekitzen ditu, biztanleria (lehenagoko garapen ekonomikoetatik baztertuta gelditzearen ondorioz) ingurumen-erakargarritasun handiko eremuetan kokatzeko, eta hori, jakina denez, balio gero eta garrantzitsuagoa da, egoitza-kokalekuari dagokionez.

Panorama sozio-demografikoaren edo dinamika ekonomikoaren panoraman ez dago beste faktorerik, demografiak azken bosturtekoetan ahultzeko izan duen joeran aldaketa handiak egongo direnik adierazteko.

Durangoko Eskualde Egiturako immigranteen piramideen profila, beste alde batetik, lanaren edo emantzipazioaren eta etxebizitzaren eraginezko jarioen ohiko profila da; 25-34 urte bitarteko pertsonen nagusitasun handia dago, eta sexuaren araberako egiturak agerian jartzen du bikoteen edo senar-emazteen migrazioak direla, gehienetan seme-alabarik izan orduko egindakoak, familia handitzeko fasean badaude ere.

### 7.1.1.5. Zahartze demografikorako joera nabaria

1986-2006 aldirako azterturik, Eskualde Egiturako udalerrietako biztanleriak adinaren eta sexuaren arabera duen egiturak zahartzeko joera nabaria dauka. Zahartze-indizea (gero eta handiagoa) ehuneko 13,4koa da, Espainiakoa, Europar Batasunekoa eta EAEkoa (%14,9) baino txikiagoa; horrenbestez, arreta berezia jarri behar zaie halako biztanleriaren beharrizan gero eta handiagoetarako gizarte- eta osasun-ekipamendu bereziak sortzeko programei.

Ugalkortasunak 1976tik izandako beherakadaren eraginez, “oinarriak” estutu egin dira, 0-20 urte bitarteko taldeetan galera handiak egon baitira (ia 10 puntukoak). Eskola-adineko biztanle-kopuruaren galera handiek aukera ematen dute ikasle-ratio hobeak edukitzeko, eta, horrela, eskaintzaren hobekuntza kualitatiboa egon da. Nolanahi ere, landa-inguruetan eta biztanleria sakabanatuko inguruetan, hezkuntza-zerbitzuaren bideragarritasuna nahiz kalitatea eta eskari demografikoaren ahultasun handia bateratzen duten soluzioak planteatu behar dira.

Ahalezko ama-taldeek adinaren arabera duten egiturak aditzera ematen du ugalkortasun-gaitasuna galtzen ari dela, eta, horrela, berezko hazkundea gero eta urriagoa da.

Eskualde Egiturako udalerrietako familien batez besteko tamainaren balio altuak, bestalde, bizikidetza-forma tradizionalen nagusitasunarekin lotu behar dira; nolanahi ere, etorkizunean ugaltzeko joera handiagoa egongo dela pentsa daiteke, Europako gainerako lekuetan gertatzen ari dena kontuan hartuta.

Beraz, pentsa daiteke etorkizunean ugalkortasunak gora egingo duela, eta 2010erako 1,25 inguruko Indize Laburtua egongo da, Eustaten proiekzioek diotenez, eta 2016rako 1,30ekoa; hipotesi horien euskarriak, dena den, oraingo balioak baxuegiak izatea eta EBko balioetarako zentzuzko konbergentzian egotea baino ez dira.

Nolanahi ere, hurrengo hamasei urteetarako, emantzipazio kopuruak eta, beraz, etxebizitza eskatu ahal duten familia berrien eraketak atzerako joera izango du.

### 7.1.1.6. Etxebizitza-parke zabala eta kalitatekoa.

Eustaten datuen arabera, Etxebizitza-parkeari dagokionez, aipagarria da 1996-2001 bosturtekoan Durangoko Eskualde Egituran 1.899 etxebizitzako eta 2.236 etxebizitza nagusiko hazkundea egon dela. Etxebizitza kopuru osoak hazkundetxoa izan du, familia kopuruak baino txikiagoa, eta udalerri batetik bestera desberdintasun handiak daude, huts dauden artean 709 etxebizitzen murriztea sortuz.

1996an, Eskualde Egituran 4.229 etxebizitzako “superabita” zegoen, bertako familia kopuruari zegokionez. Horrela, udalerririk gehienetan, familia bakoitzeko 1,2 etxebizitza zeuden.

Eskualde Egiturako etxebizitzen ehuneko 86 egoitza nagusitzat hartu behar dira, eta oraintsu eraikitakoen artean hutsik daudenen ehuneko aldiak, agian, agerian jartzen du eskaintza handiegia dela edo eskaria lehen baino txikiagoa dela, edo etxebizitza inbertsiotzat erosten dela, gero eta gehiago.

Epigrafe honetan EAEko Etxebizitza Hutsari buruzko Bi Urtez Behingo Estatistikaren agiria aipatu behar da; horren helburua hutsik dagoen etxebizitzaren fenomenoaren irismena zehaztea eta stock hori kuantifikatzea da, bilakaera konparatuaren azterketa eginez.

Ikerketa horrek Durangoko Eskualde Egiturarako eman dituen datuak honako hauek dira:

- *Etxebizitza guztiak 23.049.*
- *Okupaturiko etxebizitzak 21.871*
- *Hutsik daudenak 1.178*
  - *Denboraldia 115*
  - *Biztanlerik gabe 1.063*

Etxebizitza kopuruaren bilakaerak duen banaketa espazialak agerian jartzen du ezarkuntzen lurralde-eskema indartu egin dela. Etxebizitza berrien erdia baino gehiago Durangon dago, eta, horiei Amorebieta-Etxanon eta Elorrion daudenak gehituz gero, guztien ehuneko 90era heltzen dira. Etxebizitza horiek agerian jartzen dute Eskualde Egituran etxebizitza hutsaren garrantzia erlatiboak (lehenengo etxebizitzaren garrantzia erlatiboari dagokionez) beherakada handia izan duela; hala eta guztiz ere, bigarren egoitzara edo alokairura bideratu gabeko etxebizitza hutsa agertu da, eta hemen kudeatzeko moduko etxebizitza izena jarri zaio; horiek nekazaritza- edo industria-errenta jasotzeko ondare-baliotzat erabiltzen dira.

Talde-etxebizitzen kopuruak gora egin du eta bigarren etxebizitza kopuru urria, gehienbat, landa-izaerako zonetan dago, familia bateko tipologien ia erabateko nagusitasunarekin; bigarren etxebizitzen parkea, berriz, antzinako etxebizitzen aldi baterako erabilerari lotuta dago, sustapen berriei baino gehiago.

Etxebizitza-parkea ez da Bizkaikoa eta EAEkoa bezain antzinakoa.

Etxebizitza gero eta handiagoetarako joera dago, eta 91-120 m2 bitarteko etxebizitzen ehunekoak handiagoak dira; halaber, hortik gorako azalerak dituztenen kopuruak ere gora egin du. Eskakizun handiagoko prozesu hau

errenta maila handiagoari lotuta dago eta orokorra da Durangoko Eskualde Egiturako udalerri guztietan.

Pilaketa-indizeen batez besteko balioa, bestalde, gela bakoitzeko 0,7 pertsonakoa zen, 1996an, eta 2005eko azken ikerketetan lasaitasun handiagoetarako joera ikusi da.

Etxebizitzetako zerbitzuen batez besteko zuzkidura maila oso altua da; hala eta guztiz ere, udalerri batzuek (adibidez, Atxondo, Garai, Iurreta, Izurtza eta Mañaria) estandarretik beherako egoerak dituzte, eta, horrela, birgaitzeko edo hobetzeko ekintza zehatzak planteatu behar dira.

Durangoko, Elorrioko eta Amorebieta-Etxanoko etxebizitzen erosotasun maila oso handia da.

Lau solairutik beherako eraikinen tipologien nagusitasuna, izan ere, Eskualde Egiturako udalerrien paisaiako elementu garrantzitsua da.

Durangoko Eskualde Egiturako etxebizitza Bilbo Metropolitarrekoa baino merkeagoa da; dena den, egon den bilakaeraren ondorioz, prezioan dauden aldeak murriztu egin dira, azken bost urteotan prezioek ehuneko 50 inguruko hazkundea izan baitute (Bilbo Metropolitarrean ehuneko 25ekoa). Inguruko beste eskualde-egitura batzuei dagokienez, Durangoko Eskualde Egiturako Merkatua bitarteko mailan dago, bai prezioan eta bai dinamismoan.

Erabilitako etxebizitzaren prezioak Bilbo Metropolitarrekoekin berdintzeko joera dute, baina oraindik ere alde nabaria dago, etxebizitza-merkatuak biztanleria eta jarduerak kokatzeko faktoretzat jardun ahal izateko, batez ere distantzia funtzionalak gero eta txikiagoak badira, garraioen eta komunikazioen hobekuntzaren ondorioz. Durango prezioen hazkunderik handieneko bigarren Eskualde Egitura da.

Ondoko taulan, 2006ko informazioa bildu da, Eustatek emandako azkena eta Eskualde Egituran zenbaturiko etxebizitza nagusien eta hutsik dauden etxebizitzen kopuruari buruzkoa, baita tipologia bakoitzaren ehunekoak ere bi tipologien guztizko baturarekiko.

***ETXEBIZITZA NAGUSIEN ETA HUTSIK DAUDEN ETXEBIZITZEN ZERRENDA 2006AN***

| *UDALERRIAK* | **2.006** | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | Nagusiak | Etx. % Nagusiak | Hutsik | Etx. % Hutsik | Guztira |
| *Abadiño* | 2.570 | 87,50 | 367 | 12,50 | 2.937 |
| *Durango* | 10.177 | 76,38 | 3.148 | 23,62 | 13.325 |
| *Iurreta* | 1.375 | 84,51 | 252 | 15,49 | 1.627 |
| *Izurtza* | 79 | 68,10 | 37 | 31,90 | 116 |
| | 14.201 | 78,87 | 3.804 | 21,13 | 18.005 |
| *Amorebieta-Etxano* | 6.277 | 87,95 | 860 | 12,05 | 7.137 |
| *Elorrio* | 2.463 | 82,24 | 532 | 17,76 | 2.995 |
| *Atxondo* | 487 | 81,44 | 111 | 18,56 | 598 |
| *Berriz* | 1.753 | 83,72 | 341 | 16,28 | 2.094 |
| *Garai* | 95 | 75,40 | 31 | 24,60 | 126 |
| *Mañaria* | 170 | 65,64 | 89 | 34,36 | 259 |
| *Zaldibar* | 1012 | 82,88 | 209 | 17,12 | 1.221 |
| | 12.257 | 84,94 | 2.173 | 15,06 | 14.430 |
| | | | | | |
| ***Durangoko E.E.*** | **26.458** | % 81,57 | **5.977** | % 18,43 | **32.435** |

## 7.1.2. Jarduketa-irizpideak.

Egindako diagnostikoan oinarrituz, Durangoko Eskualde Egituraren Lurraldearen Zatiko Planak dimentsionatu egiten ditu egoitza-lurzoruaren eta etxebizitzaren beharrizanak; gainera, proposamen zehatzak egiten ditu, EAEko Lurraldearen Antolamendurako Artezpideekin eta eskualde Egiturarako proposaturiko Lurralde Ereduarekin koherentzian.

Eskualde Egiturako udalerri bakoitzean beharrezko lurzoruaren erabilgarritasuna bermatzeko helburu orokorraren barruan, lurralde **ereduaren** kuantifikazioa (eskaintzaren premia dakarrena) eta **eskaintzaren** kuantifikazioa bereizi dira, eta horrek berekin dakar lurralde eredua handitzea, zurruntasun-koefizienteak edo hanpatze-koefizienteak deritzenak aplikatzeagatik estutzerik edo gabeziarik gerta ez dadin.

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko Bosgarren Tituluan ezarritakoaren arabera, hirigintza-kudeaketaren nozioa desagertu egin da, hori hemeretzigarren mendekotzat kalifikaturik baitago. Planeamendua betearaztearen ardura publikoa da eta bermatu egiten da

partaidetza pribatua, zuzeneko hitzartzearen araubidean edo lehia askean, hirigintzako eta eraikuntzako agentearen bidez. Halaber, udalerri bakoitzean behar den lurzorua dagoela bermatzeko asmoz, kontuan izan behar dira 2/2006 Legearen egitura antolatzeko zehaztapenak, horien artean plangintza garapena egiteko eta onesteko eta lurzoruaren programaziorako epea finkatzea. Horrela, ekidin edo nabarmen murriztu ahal da zurruntasun kontzeptuaren erabilera tradizionala, planak eta garapenerako aurreikusitako lurzoruak erakunde publikoak dinamizatzen eta garatzen baititu.

Eskaintza kalkulatzeko, EHLABren manuzko txostenetan zeharka exijituriko gehieneko hanpatze-koefizienteak erabili ditu LZPk (8 urterako 3 eta 16 urterako 2).

Euskal Herriko Lurraldea Antolatzeko Batzordeak erabilitako eskaintzako gutxieneko koefizienteei dagokienez (8 urterako 2 eta 16 urterako 1,5), LZP honek murrizketa proposatu du, eta **eskaintzaren gutxieneko koefiziente** zuhurragoak ezarri ditu, 8 urterako 1,5 eta 16 urterako 1,25ekoa. Hala, hain hedakorrak ez diren ereduak proposatu ahal izango dira plangintzetan.

Praktikan, planak ezarritako epeetan erabakitako kuantifikazioa garatuko da. Hori dela-eta, eskaintzaren gutxieneko muga hobeto egokitu dakioke planeamenduen etorkizuneko errealitateari, eta eskaintzak desitxuratzeko arriskua ekidin egingo da. Horri dagokionez, gogoratu behar da ere 2/2006 Legeak askatu egiten dituela udal planak 8 urteko berrikuspen-aldi zehatzetik, eta berrikuspen hori planeamenduetan ezarritako epeetan egin daiteke.

### 7.1.2.1. Eskualde Egiturako udalerri bakoitzean behar den egoitza-lurzoruaren erabilgarritasuna bermatzea, eta Ereduaren kuantifikazioa Eskaintzaren kuantifikaziotik bereiziko da, betiere eskaintza ereduaren burutzapena bermatzeko tresna hustzat hartuta.

Lurraldearen Zatiko Planak idazteko zehaztapen lotesleen artean, LAAek hauxe dakarte “LAAen aplikatzeko arauei buruzko 22. kapituluko 2.2. II. B atalean: 9. kapituluko 3.2. atalaren zati bat.

Hauxe dio, hitzez hitz, atal horrek: lurraldearen zatiko planek Eskualde Egituraren eremuko udalerri bakoitzari dagokion egoitzako lurraren eskaintza zenbatu behar dutela.

Bestalde, zuzenean aplikatu beharreko zehaztapen lotesleen artean, LAAen 21. kapituluaren barruan, egoitza-lurren kuantifikazioaren behin-behineko aplikazio irizpideei buruzko eranskinak daude, harik eta lurraldearen zatiko planak onetsiko diren arte.

Hortaz, eranskin horiek behin-behinekoak dira harik eta LZPk Eskualde Egiturako etxebizitzen beharrizana zenbatzeko metodologia propioa ezarri arte, udalerritan banakatuta.

Udalerri bakoitzean egoitza-lurzoruaren eredua zenbatzeko LZPk ezarritako irizpideak nahikoa malguak dira, zeren eta balio finkoen edo berrikuspena egitean udalerriaren errealitateari egokitu dakizkiokeen balioen metodologia bat ezartzen baitute hala nola familiaren batez besteko tamaina eta biztanle kopurua. Halaber, eskaturiko eta egokituriko gehieneko eta gutxieneko hanpatze-koefizienteen ondorioz, hurrenez hurren, LZPk balio-tarte bat proposatzen du udalerri bakoitzari malgutasun handia ematen dion etxebizitza kopuruari dagokionez, hain zuzen ere tarte horren barruan ereduaren kuantifikazio bereizia egiteko. Era berean, LZP honek udalerri bakoitzerako proposamena hartutako eredua eskaintzaren kuantifikaziotik aparte ikustea da, LZPko etxebizitzen kopuruaren hazkunde nabarmena dakarrena.

### 7.1.2.2 Lurralde-egitura indartzea, kasuan kasuko lurraldearen harrera-gaitasunari egokituriko hazkundearen banaketa orekatua eginez.

Lurraldearen zatiko planen helburua, izan ere, Eskualde Egituraren barruko udalerri bakoitzari dagokion egoitza-lurzoruaren eskaintza kuantifikatzea da.

Aintzat hartu da, nolanahi ere, kuantifikazioa lurralde-ikuspegi ahalik eta zabalenetik egin behar dela, eta ikuspegi horrek gainditu egiten ditu udalerrien mugak, horien barrutik sarritan ez baitira nabaritzen aukera edo arazo batzuk, horiek lurralde-dimentsiotik begiratuta soilik nabaritzen direlako.

“Harrera-gaitasuna” kontzeptua urte batzuetatik hona erabili da Lurralde Antolamenduaren, Hirigintzaren eta Ingurumenaren arloetan, espazio edo zona jakinek jarduera edo lurzoruaren erabilera batzuk edukitzeko duten egokitasuna adierazteko; jarduera edo erabilera horiek egoitza, jarduera ekonomikoa, aisialdia, turismoa eta halakoak izan daitezke.

Funtsean, “harrera-gaitasuna” kontzeptuaren barruan, baliabide baten ustiapena kaltegarria izateko mugaren edo murriztapenaren ideia sartzen da.

Lurralde baten harrera-gaitasuna, jakina, handiagoa edo txikiagoa izan daiteke, mugak ezartzen dituzten parametroen arabera; LZPren arabera, parametroak honako hauek dira:

a) Muga fisikoak:
    a. Zona ureztagarriak hiru itzultze-aldietan (balio edafologiko handia dela eta), malda handiegiko zonak eta paisaiaren nahiz ekologiaren aldetik balio handia duten zonak ekiditea.
    b. Indarreko legerian ezarritakoak, adibidez, adierazitako babeseko lurzoruak.
b) Muga ekonomikoa:
    a. Hornidurako, saneamenduko, bide-sareko eta energiako azpiegituren urritasuna, egoitza-erabilera berriak ekiditen dituena.
    b. Oraingo eta aurreikusitako biztanleei eman beharreko ekipamenduen edo zerbitzuen urritasuna; esate baterako, eskolak, osasun-etxeak, zahar-etxeak, gizarte-zentroak, etab.
    c. Administrazioaren inbertsio-gaitasuna mugatzea.
c) Muga hori oraingo eta geroko biztanleriak hautemandako bizi-kalitatearen mailaren funtziotzat hautematen da gizartean. Elementu horrek biztanle berrien oraingo bizimoduaren barruko integrazioa eta bizitza publikoaren partaidetza adierazten ditu. Biztanle kopuruaren hazkundea eta lekuaren izaeraren nahiz oroimenaren galera nekez jakiteko modukoak dira, baina lurralde-planeamenduak aintzat hartu beharko du aldagai hori.

Horri dagokionez, LZPk lurzoruaren garapenak eta jarduerak aldi baterako arautzeko proposamena egiten du, behar diren azpiegituren eta ekipamenduen garapenaren arabera. Horrela, proposatzen den hazkundea orekatua izan daiteke.

LZP honek garatutako irizpideen helburua, izan ere, jarraibideetan planteaturiko lurralde-eredurantz aurrerapausoak ematea da; onartu egiten da, gainera, udalerri bakoitzaren aldi jakineko etxebizitza beharrizanak kalkulatzeari dagokionez (LZPk zehazturiko ereduaren arabera), etxebizitza-merkatuaren dinamikaren izaera espezifikoa eta abagunekoa aintzat hartuta, irizpideak egokitu egin beharko direla, demografiaren, ekonomiaren, hiriaren eta lurraldearen dinamikaren ezaugarrietara.

### 7.1.2.3. Hiri-hazkundeak natura- nahiz landa-baliabideetan eta hirigune historikoen nortasunean duen eragina ahalik eta gehien murriztea.

Egoitza-kuantifikazioa egokitu egiten da aurreko epigrafean azaldutako lurraldearen harrera-gaitasunera, eta horri, gainera, udalerriaren hiri-egituraren (horren barruan lurzoruaren kontsumoa) inplikazioak gehitzen dizkio. Kuantifikazio hori eskaintzaren gutxieneko eta gehieneko balioaren arteko hautaketa bati deritzo, nolanahi ere LZPk 16 urterako aurreikusitako kalkuluaren ereduaren arabera behar diren etxebizitzei buruzko eskaintzari dagokiona, etxebizitza horiek egoitzako garapen berrien emaitza diren ala ez aintzat hartu barik. Hartara, hutsik dagoen etxebizitza mugiarazi eta egon dauden etxebizitzak birgaituko dira eraikitako ondare optimazioaren ondorioz edo 2/2006 Legean ezarritako gutxieneko eraikigarritasun irizpideen araberako indarreko planeamenduaren dentsitatea berriz ezartzeko balizko eragiketen ondorioz.

Hain zuzen ere, mugatu egin behar da bigarren egoitzarako etxebizitza-eraikuntza bereizi gabea, batez ere landa-lurzoruko lurzoru urbanizaezinean. 2/2006 Legea bera, landagune batean aurreikusita dauden baserrien guztizko kopurua gehienez hogeita bost unitatekoa dela adierazita, baserriez ari da eta ez etxebizitzez. Hala eta guztiz ere, esan beharra dago egoitzen kuantifikazioan ez dela zenbatzen hazkunde hori, hain zuzen ere lurzoru urbanizaezintzat hartzen baita. Xedea, beraz, hirigintza garapenak galaraztea da.

Sortzen diren garapen ordenatuek, betiere, errespetatu egingo dute eurak euskarritzen dituen inguru naturala eta hiri-ingurua.

Jarduketa-ildo berean, landaguneen ezaugarri morfologikoei eusten saiatu beharra dago, haien landa izaera indartuz.

Etxebizitza-eskariak, beraz, nolabaiteko erantzuna emango dio oraingo ondarearen berrikuntzari, hiriguneen barruan eta kanpoan, eta, horrenbestez, lehentasuna izango dute birgaitzea eta berritzea sustatzeko programek, garapen berrien aurretik. Halaber, garrantzitsua da landa-guneen ezaugarri morfologikoak mantentzea, horien ezaugarriak eta erakargarritasuna sustatuz, baina irisgarritasuna eta ekipamenduak hobetuta.

Udalerrietan eta, hain zuzen ere, narriaturiko eremuak dituzten udalerrietan, esku-hartze estrategiak lehentasuna eman behar die hiriguneak birkualifikatzeko, berritzeko eta eraldatzeko barruko eragiketei.

## 7.2. Proposaturiko egoitza-eredua.

### 7.2.1. Ereduaren helburu orokorrak.

Proposaturiko egoitza-eredua ezartzeko, ezinbestekoa da honako helburu orokor hauek betetzea:

#### 7.2.1.1. “Lurzoru” baliabidearen kontsumoa mugatzea.

Garapen-ereduek beti ez dute aintzat hartu lurzorua ondasun urria dela, eta, hori iraunkortasun-irizpideekin erabili beharrean, lurzorua sarritan alferrik galdu egin da, muga fisiko eta ekonomiko argiak dituen eremu baterako komenigarriak ez diren ezarkuntza-ereduak inportatuz.

Azpimarratu egin behar da, hortaz, lurzorua ondasun urria dela lurraldean, eta lurraldea erabiltzeko eredu iraunkorrak erabili behar direla; hau da, “lurzoru” baliabidearen kontsumoan aurrezpen-irizpidea aplikatu behar da. Ekologiari, paisaiari, kulturari eta abarri loturiko zergatien ondorioz babesturiko lurzoruak

kenduta, lurzoruaren erabilgarritasuna pertsona bakoitzeko **lurzoru urbanizatuaren** azalera gordinaren arabera neurtzen da, eta aglomerazio batetik bestera aldagarria da, biztanle bakoitzeko 1.000-10 m2 bitartean; hala ere, praktikan, landa-gune oso txikietan izan ezik, 250-20 m2 bitartekoa da.

Adituek ez dute adostasunik lortu erreferentziako balio teorikorik onenari buruz. Klimak, erliebeak eta historiak baldintzatu egiten dute oszilazio-bitartea (gutxi gorabehera, biztanleko 100 m2). Balio horretatik urrunduta (gainetik), lurzoruaren urritasunaren mugetan sartzen gara, eta, horrela, gero eta zailagoa da hiriaren arazoak konpontzea.

LZPren helburua lurzoruaren kontsumoa geldiaraztea da, azken urteotako joera iraulita. LZPren estrategia, bestalde, oraingo etxebizitza-parkearen ahalmena aintzat hartzean oinarritzen da; izan ere, eraikitako ondarea optimizatzearen aldeko apustua egiten da, esku hartzeko lehentasunezko modutzat, lurzoru berriak okupatu barik, kontuan hartuta lurraldearen oraingo harrera-gaitasuna mugatua dela. Bestalde, sustatu egin behar da indarreko planeamenduaren optimizazioa, lurzorurik gehien kontsumitzen duten erabilera-intentsitateak ikuskatuz, horiek ingurura egokitzeko eta, horrela, lurzorua aurreztu ahal izateko.

Lurralde Antolamenduari buruzko 4/1990 Legean ezarritakoaren arabera, Lurraldearen Zatiko Planek zehaztu egingo dituzte birmoldatu, suspertu edo birgaitu beharreko eremuak, horiek ez narriatzeko edo guztiz suspertzeko (guztiz edo neurri batean desberdinak izan daitezkeen erabileretarako); gainera, horretarako garatu behar diren programak eta horiek sustatzeko neurriak ere zehaztu egingo dituzte.

Eraikitako ondarearen optimizazioa, oraingo egoitza-parkeari dagokionez, urbanizazioetan, eraikinetan eta etxebizitzetan egin beharreko birgaitzean oinarrituko da gehienbat, eta horren helburua, berriz, funtzioa, egitura edo bizigarritasuna egokitzea da, egoitza-erabilera mantenduta.

Gogoratu behar da etxebizitza asko hutsik daudela, eta horietariko asko “kudeatzeko modukoak” direla, EAEko etxebizitza hutsari buruzko 2005eko Bi Urtez Behingo Estatistikako datuen arabera.

Komenigarria izango litzateke hutsik dauden etxebizitza horietan esku hartzea, horretarako mekanismoak artikulatuz; mekanismo horien barruan, etxebizitzok alokairuko merkatura ateratzea, tipologiak aldatzea eta tipologia horiek oraingo eskariei hobeto moldaturiko moduluetara egokitzea sartzen dira.

Lurzoru berriaren kontsumoa ezinbestekoa izanez gero, LZP honek zehazturiko okupazioaren mugako eremuen barruko lurzorua erabili beharko litzateke. Hala eta guztiz ere, udalerri bakoitzaren Lurralde Ereduak Eskualde Egituraren garapen bikainerako beharrezkotzat hartzen dituen lurzoruak baino ez dira okupatuko, iraunkortasun-irizpideak aintzat hartuta; hala, gutxienekoen eredu bat hartzea gomendatzen da, gutxienekoen hazkundea, eta baztertu egiten da mugaturiko eremua nahitaez okupatzeko modukoa izatearen gaineko ideia. Alderantziz, udalerri bakoitzaren xedea okupazioaren mugako eremu horien balizko azalerarik txikiena aldatzen saiatzea izango litzateke.

### 7.2.1.2. Espazioan integraturiko jarduera ekonomikoak eta egoitza-jarduerak osaturiko eredu mistoa sustatzea.

Egoitza-erabilerarekin guztiz bateragarriak diren jarduera ekonomiko asko hiriguneen kanpoaldean kokatu nahi dira, bertan lurzorua merkeagoa delako. Horrela, zonen araberako espezializazio funtzional kaltegarria sortzen da; horrek zona batzuetatik besteetarako mugikortasun handia eragiten du, lantokitik bizilekurako joan-etorrietan oinarritua, eta horrek kalte larriak sortzen ditu ingurumenean eta funtzionaltasunean.

LZPk proposatzen duen Ereduaren arabera, egoitza-erabilera orokorra duten lurzoru berri guztiek, gutxienez, eremuan eraikitako egoitza-azaleraren %10eko erreserba eduki behar dute, jarduera ekonomikoak kokatzeko, eta horien artean, beste batzuekin bateragarria den industriakoa ez ezik, merkataritzako hirugarren sektoreko erabilera, bulegokoa eta zuzkidura pribatuko beste zerbitzu batzuk ere egon daitezke (adibidez, hezkuntza, osasuna, gizarte-zerbitzuak, kirola nahiz kultura eta horien antzeko beste batzuk), lagatako lurzoruak edozein izan arren.

LZPren helburua, beraz, jarduera ekonomiko bateragarrien erabilerak eta ekipamendua hirirako suspertzea da. Horrela, horiek ez dira hiriguneetatik

kanpoko eremuetan kokatuko, komenigarria baita kanpoaldean instalazio industrialagoak egotea, horiek ez direlako hain bateragarriak egoitzako hiri-egiturarekin, eta merkantzien trafiko astunarekiko lotura funtzional handiagoa dutelako.

### 7.2.1.3. Biztanleriaren jaitsiera saihestea eta lurralde-oreka mantentzea. Hiri-sistema indartzea.

Durangoko Eskualde Egiturako biztanleriak ibilbide demografiko positibo samarra dauka, eredu egonkorraren ohiko dinamika demografikoarekin. LZPk beharrezko lurzoruaren erabilgarritasuna bermatu nahi du Eskualde Egiturako udalerri bakoitzean; horrela, gutxienez, biztanle kopurua mantendu eta biztanleak ez dira beste leku batzuetara joango, Egitamuan aintzat hartutako aldiaren barruan.

Horretarako, udal bakoitzak udalerriak behar duen etxebizitza kopurua eraiki behar du, bertako biztanleria-segmentu desberdinen eskuratze-gaitasuna aintzat hartuta, eta, beraz, Babes Ofizialeko Araubidea erabiliz (lurzoruaren arauketa berrian zabaldu eta zenbait ñabardura egin zaizkio).

Biztanleriaren mantenamendua bermatzeko, aintzat hartu behar da, egindako aurreikuspenen arabera, hurrengo urteotan familien batez besteko tamaina apurka-apurka murriztu egingo dela. Horren arabera, LZPk defendatzen duen hipotesiari eutsita ere, hots, biztanleen galera ekiditeari, gehienbat azken urteotan joera hori izan duten udalerrietan, etxebizitza-eskaria gero eta handiagoa izango da, etxebizitza bakoitzean biziko den pertsona kopurua gero eta txikiagoa izango baita; hain zuzen ere, pertsona bakarreko eta guraso bakarreko etxebizitza kopuruak gora egingo du, EBko zenbait herrik (adibidez, Frantzia edo Alemania) arlo horretan dituzten estandarrekin konbergentzian.

LAAen Ereduak sustaturiko Lurralde Orekako Estrategiari erantzuna emanez, Eskualde Egiturako udalerriren batean, biztanleria mantentzeaz gain hazkunde hautakorra dago aurreikusita; hau da, beste eskualde-egitura batzuetatik (batik bat, Bilbo Metropolitarretik) prezioaren eraginez kanporaturiko biztanleriari harrera egiten dion etxebizitza kopurua egongo da. Horri dagokionez, esan beharra dago ezen, Durango udalerrian hazkunde

selektiboko kopuru zehatzik aurreikusi ez bada ere, funtsezkotzat jotzen dela Durangok duen buru izaera indartzea, eta eginkizun hori bermatutzat jotzen da planteaturiko gutxieneko eskaintza gauzatuta behinik behin.

Biztanleria kanporatzeko prozesu hori (joera-elementutzat), komenigarria ez bada ere, segurutik gertatu egingo da hurrengo urteotan, Eskualde Egituraren barruko udalerrietan, batez ere Amorebieta nahiz Durango udalerrien eta horien eragin-aldeko udalerrien artean. LZPk ekidin egin nahi du prozesu hori.

LZPren erantzuna LAAen lurralde-helburuaren araberakoa da; hau da, eskualde-egituren barruko neurri ertaineko hiri-sarea sustatu nahi da, horiek eskala egokiko piezatzat hartuta, LZPk garatu beharreko lurralde-oreka estrategiak handitzeko.

Nolanahi ere, familien batez besteko tamaina urritzeari eta hazkunde hautakorrari erantzuna ematen dieten etxebizitzak egokiak izan behar dira udalerriaren egitura sozio-ekonomikorako, eta segurtatu egin behar dira babes ofizialeko araubide guztiak, biztanleek udalerritik joan beharrik ez izateko, etxebizitza-merkatuan sartu ezin izatearen eraginez.

### 7.2.1.4. Natura- eta landa-ingurunea kontserbatzea.

Lurralde-antolamenduaren helburu nagusienetariko bat, izan ere, baliabide naturalen zentzuzko administrazioa eta ingurumenaren babesa da. Ikuspegi horretatik, EAEko Lurraldearen Antolamendurako Artezpideek (LAA), lurraldearen gaineko jarduketa sektorial guztien erreferentziako esparrua izanik, konpromisoko jarrera etikoa hartzea proposatzen dute, ingurumenaren tratamenduari dagokionez, ingurune fisikoaren nahiz naturalaren arazoez eta aukerez jabetzean oinarrituz, inguruaren gaineko eragin kaltegarriak saihestean soilik oinarrituriko jarrera gainditzeko.

LZPk garapen iraunkorrarekiko konpromisoa duenez, ingurumen-baliorik urrieneko lurzoruen erabilera proposatu du; horretarako, erabilitako irizpideetan, okupatu behar ez diren eta, hortaz, egoitza-ezarkuntzen proposamen berrietatik kanpo geldituko diren lurzoruak zehaztu dira; horien artean, hiru itzultze-aldietako edozeinetan ureztagarriak diren eremuak daude, balio estrategiko eta edafologiko handia baitute; horrenbestez, ugariagoak dira

Ibai eta Erreka Ertzen Antolatzeko LAPren eskakizunak eta Babes Berezikoa izeneko taldeko kategorien edo Gainazaleko Uren Babesaren kategoriaren baten barruan dauden lurzoruak.

Natura- eta landa-ingurua kontserbatzeko, horren erabilera mugatu egin da, okupazioaren mugako eremuak ezarrita; horietatik kanpo ezin da lurzoruaren hiri-garapen berririk egin, eta, beraz, ingurune fisikoaren eraldaketa babestu egiten da, bai balio estrategiko handiko nekazaritza-lurzoruetan bai natura- zein landa-inguruaren antolamendu-proposamenean jasotako gainerako kategorietan.

Okupaziorako ezartzen diren gehieneko mugek ez dute kolonizazioa eragiten, LZPren indarraldian. Okupaturiko balizko azalera Udal Planeamenduak zehaztuko du eta hori aipaturiko gehieneko mugen barrukoa izango da beti, malgutasuna eskaini ahal izateko; horiek okupatzeko, beharrizana justifikatu beharra egongo da, LZPk proposaturikoa aintzat hartuta. Dokumentu honen araudian ezarritako kategoriei eta zehaztapenei eutsiko diete lurzoru horiek udal plangintzak horretarako erabiltzea erabakitzen ez duen bitartean.

Udal Egitamuek, hazkunde berriko lurzoruak behin betiko mugatzen dituztenean, aintzat hartu beharko dute nekazaritza- eta abeltzaintza-ustiapenak daudela martxan; helburu nagusia horiek mantentzea eta hobetzea izango da, eta nekazaritzako nahiz abeltzaintzako eta basoko jardueren lehiakortasuna hobetzea, natura- eta landa-inguruaren kalitatea mantentzeko; elementu horiek mugatu egin ditzakete okupatu beharreko eremuak. Ildo horretan, oraingo nekazaritza nahiz abeltzaintzako ustiapenetako kalteei buruzko azterlan zehatz bat bildu beharko luke udal plangintzak okupazioaren mugako eremuetan proposatzen den edozein jarduketaren ingurumen eraginaren manuzko azterlanean. Hala, aukerak eta zuzenketa neurriak zehaztu ahal izango dira.

Nolanahi ere, nekazaritza- eta abeltzaintza-ustiapenen berrikuntza bermaturik egongo litzateke, gaitasun agrologikorik handieneko lurzoru guztiak balizko garapenetara lotu ezean, hau da, LZPk horien zati oso garrantzitsuaren kontserbazioa bermatuz gero.

### 7.2.1.5. Garraio publikoari eta aukerako mugikortasun-ereduei loturiko irisgarritasuna.

Mugikortasun-fenomenoa LZP hau euskarritzen duten funtsezko alderdietariko bat da.

“Hiri barreiatua” kontzeptua ez da landa-eremuak kontsumitzen dituen hirigintzaren bilakaera lineala bakarrik. Aldiz, gizarte-forma hori baldintza berezi batzuen eraginez sortu da (egitura ekonomikoa, egoitza-tipologia, hirirako emigrazioak, etab.), eta, gainera, automobil pribatuaren inguruko antolamendu-osagai garrantzitsua dauka.

Lurraldean zeharreko hiri-barreiadurako fenomeno honek garrantzi handia hartu du gaur egun. Gero eta intentsitate handiagoarekin, lurzoruak jasotzen dituen ekipamenduen eta azpiegituren eraginez hiriko erabilerak eta jokabideak hiri tradizionaletik urruneko eremuetara hedatzen dira, ikuspegi ekonomikotik begiratuta hain errentagarriak ez diren beste erabilera batzuk baztertuta eta leku berri horietako biztanleen jokabideak goitik behera aldatuz.

Mugikortasunak, kasu honetan automobil pribatuari lotuta, hiri-erabilerak lurralde osoan hedatzea eragin du, eta, horren ondorioz, erabilera horiek jasotzen dituzten hiri-espazioak ere hedatu egin dira. Autobia berriek hurbildu egiten dituzte espezializazio handiko eremuak, gehienbat lanpostuak eta zuzkidurak nahiz zerbitzuak dituztenak, eta denbora-balantze batean aurkezten dituzte; bertan, distantzia bigarren mailako arazoa da, gure eguneroko jokabideetarako; izan ere, pertsonek espazioan urrun dauden leku desberdinak zeharkatu ahal dituzte egunero, lehen hiri trinkoaren eremu hertsatuagoan (lekualdatzeak oinez egiten zirenean) egiten zen bezala.

LZPk, hortaz, hiri trinko horren printzipioak eta erabilera-nahastea erabiltzea aukeratu du, hiri-garapenaren oraingo joera batzuk zuzendu ahal izateko, horiek beharrezko mugikortasun iraunkorraren aurkakoak baitira.

Gaur egun, Zornotzak, Iurretak, Durangok eta Abadiñok osaturiko hiri-multzoa artikulatu gabeko eremu jarraitua da. Ibilgailuen bideria linealean oinarrituz sorturiko jarduera ekonomikoak eta horren ondoriozko irisgarritasuna (hiriaren berezko egitura ez duena), izan ere, irisgarritasunik gabeko uharteak dira orain, eta bertara ibilgailu pribatuarekin soilik heldu ahal da; izatez ere, bideak

eurak hesiak dira ordezko beste edozein irisgarritasun motatarako, eta, gainera, mugatu egiten dute ordezko garraio publikoa sortzeko aukera.

Egoera hori ikusita, egoitza-ezarkuntzak edo jarduera ekonomikoak edukitzeko moduko lurzoruak aukeratzeko orduan, LZPk aintzat hartu du eremu horiek hiriaren gainerako eremuekin duten artikulazioa, baita beste garraiobide batzuk (adibidez, oinezkoak eta bizikletakoak) edo plataforma soileko garraio publikoak (biztanlerik gehienak erabil ditzaketenak) erabiltzeko aukera ere. Horrenbestez, LZPk beharrezko azpiegiturak sortu nahi ditu, halako garraiobideak sustatzeko, ibilgailu pribatuaren kaltetan, horren erabilera ez baita beharrezkoa hiriguneen barruko eta horien nahiz ondoko industrialdeen arteko lekualdatzeetarako.

Hiri-garapenei loturiko alderdi horiek ez ezik, garraio publikoa sustatzea eta ibilgailu pribatuaren erabilera murriztea, izan ere, Eskualde Egiturako mugikortasunaren arazoari eman beharreko erantzunaren zati osagarriak ere badira.

### 7.2.1.6. Ingurumen-balioko hiri-inguruko landazabalak.

Durangoko Eskualde Egiturako ingurumen- eta paisaia-intereseko balio estrategiko handiko bi landazabalekin bat datozen eremu desberdinak mugatzen dira. Horietariko asko ureztagarriak dira eta hiri-jarraipena apurtzeko funtsezko eginkizuna dute; horrela, haran osoan eta, batik bat, N-634 errepidearen inguruan eraikitako fatxada bakarraren eraketa ekiditen dute.

Haran-hondoko hirigintza handiaren (lurzoruaren hiri-erabilerak eta azpiegiturak baliabide urria lortzeko lehian dabiltza, baserrian oinarrituriko nekazaritza-jarduera zainduta) eta lurralde antropizatu honetako oroimen historikoaren arteko bizikidetza ezartzen da irizpidetzat.

## 7.2.2. EREDUA ETA ESKAINTZA. Egoitza-ezarkuntzetarako etxebizitzen kuantifikazioa.

### 7.2.2.1. Etxebizitzen kuantifikazioa kalkulatzeko metodoa.

#### 7.2.2.1.a. Beharrizana eta eskaria.

Hitzaurretzat eta aldez aurreko irizpidetzat, gauza bat argitu behar da etxebizitzaren beharrizanari eta eskariari buruz. **Beharrizanaren** helburua etxebizitza okupatzea eta egoitza-jarduera garatzea da; **eskariaren** barruan, berriz, beste arrazoi batzuen eraginez behar diren etxebizitzak sartzen dira (adibidez, inbertsioa edo bigarren egoitza), eta horiek, azkenean, hutsik dauden etxebizitza kopuruaren barruan sartuta gera daitezke.

Azken batean, etxebizitza-beharrizanari eman behar zaio erantzuna, harrotze-irizpideak hartu arren, hori mugatua baita, espekulazioa ekiditeko, eskaintza urriegiaren ondorioz.

Aditzera eman behar da, hala eta guztiz ere, oso zaila dela etxebizitza-eskari osoaren barruan benetako beharrizana bereiztea.

#### 7.2.2.1.b. Ezarkuntzen lurralde-eredua, etxebizitza-beharrizanei erantzuna emateko

Etxebizitza-beharrizanera hurbiltzeko, LZPk proposaturiko kalkulu-metodoaren helburua egoitza-kuantifikazio egokia lortzea da, LZP honetan ezarritako etorkizuneko Lurralde **Eredurako**.

Kalkuluko metodo hori etxebizitzaren beharrizan endogenoaren zenbatespena egitean oinarritzen da, eta hori, berriz, biztanleriaren beharrizanak kalkulatuta egiten da, aintzat hartuta familien batez besteko tamaina gero eta txikiagoa dela eta, horren eraginez, etxebizitza gehiago behar direla.

Gainera, LAAek sustaturiko Ereduaren eraginezko Lurralde Orekako estrategiari erantzuna emanez, LZPk ezarritako Lurralde Ereduko kuantifikazioan Kanpoko Berroreka faktore bat sartzen da; hain zuzen ere,

Bilbo Metropolitarreko Eskualde Egiturak eta Deba Beheko Eskualde Egiturak kanporaturiko biztanleria hartzen duen etxebizitza kopurua.

Azkenik, eremuko ezarkuntza-eredua eratzeko, Lurraldearen Zatiko Planak jarduketa-ildo argia zehazten du, bigarren etxebizitzari dagokionez, halako erabilerak aintzat ez hartzea erabaki baitu, Eskualde Egitura honen barruan nekez hauteman daitezkeelako.

### 7.2.2.1.c. Gehieneko eta gutxieneko eskaintza.

Eremuaren erantzuna bermatzeko, LZPren helburua horixe baita, zeharka eskatzen zaigu EHLABren manuzko txostenean gehieneko eta gutxieneko hazkunde-koefizienteak erabiltzea. Gehieneko eta gutxieneko **eskaintza** da, teknikoa, eta horri esker, muga horien arteko balioa hautatuz, Eredurako lorturiko kopurua hanpatuta estaltzeko modua dago. Hanpatze deritzo hartutako lur-eremuaren gehikuntzari eta, aldi berean, lurraren balizko zurruntasunari nahikotasunez ekiteko aurreikusitako etxebizitzen kopuruari; izan ere, jabeek askotan lurren eremu handi bat nabarmen atxiki izanaren ondorioz gertatzen da zurruntasuna, eta lurren eskasia faltsua sortzen da. Hala ere, ez da galarazten hautaturiko eskaintzaren etxebizitza guztiak eraikitzea.

Eskaintza hori, gehienez ere, Ereduaren kuantifikazioaren bikoitza izango da, eta gutxienez, kantitate horren 1,25. Beraz, ereduaren erabakitik lorturiko kuantifikazioari **hamasei urterako hanpatze-koefizienteak** aplikatzea erabaki da (gehieneko baliotzat 2, COTPVek erabilitakoa, eta gutxienekotzat 1,25 LZPk hartuta).

Ereduak aurreikusitako kuantifikazioa baino eskaintza handiagoa egoteak ez du esan nahi hori betearazi behar denik; aldiz, LZPren helburua etxebizitza kopuruari erantzuna ematea da, proposaturiko ereduan oinarrituz.

Ondoren, zortzi eta hamasei urterako aldietarako hanpatze-koefizienteen arteko lotura azaltzen da. Bitarte jakinaren barruko hanpatze-koefizientea aukeratu behar izan denez, ulergarriak dira baimendutako bitartearen mugen muturretako kasuak, hau da, gehienekoa eta gutxienekoa.

16 urterako 2ko gehieneko hanpatze-koefizientea hartuta, 8 urteko aldirako hanpatze koefizientea, izan ere, aurreikusitako beharrizana baino 3 aldiz handiagoa da, ondoren azaltzen denez.

Horretarako, adibide bat jarriko dugu; horrek agerian jartzen duenez, 16 urterako beharrizanetarako 2ko gehieneko hanpatze-koefizientea ezarrita, bermatu egiten da, 8 urteko aldietariko bakoitzean, beharrizanak baino hiru aldiz gaitasun handiagoa duten lurzoruak proposatu ahal izatea.

Hipotesia

| Aldia | Etxebizitza-beharrizan erreala | Hanpatze-koefizientea | Hanpaturiko beharrizana |
|---|---|---|---|
| 16 urte | 200 | 2 | 400 |
| 8 urte | 100 | 3 | 300 |

Etxebizitzen banaketa




Era berean, 16 urterako 1,25eko balioa duen gutxieneko hanpatze-koefizientea hartuta, hanpatze-koefiziente hori, 8 urteko aldirako (udal-planeamenduetan ezarritako aldia), aurreikusitako beharrizana baino bat eta erdi handiagoa da.

### 7.2.2.1.d. Ereduaren kalkulua.

#### 7.2.2.1.d.1. LZPk 16 urtera egindako Esparru-Proposamena.

Beharrizanen zenbatespena, LZPren Ereduaren arabera, 16 urteko aldirako egin da, erreferentzia esparrua baita LZP guztietara eta 8 urteko epealdira egokitzeko.

##### 7.2.2.1.d.1.1. Ereduaren osagaiak.

LZPk Eskualde Egituraren barruko udalerrietarako hartutako hazkunde-ereduko lau osagai ezarri ditu, hartzeko modukoak izan beharko luketen etxebizitzen kopurua lortzeko. Osagai hauek batzea kalkulatzeko metodoaren oinarria:

1. Ereduaren hazkunde selektiboa (A), zehatza eta loteslea.
2. Barne oreka (B), zehatza eta loteslea.
3. Beharrizan endogenoak (C), 2008ko FBT eta biztanleria oinarri hartuta kalkulatuak, eta loteslea da familiaren batez besteko tamainaren urteko jaitsiera, 0,03koa.
4. Bigarren egoitza (D), zehatza eta loteslea.

##### 7.2.2.1.d.1.2. Ereduaren hazkunde hautakorra. A osagaia.

Udalerriko egoitza-kuantifikazioa lurralde-ikuspegi zabalago batetik egin behar da; ikuspegi horrek gainditu egin behar ditu udal-muga zorrotzak, horietatik, sarritan, ezin baitira hauteman aukera edo arazo batzuk, horien benetako dimentsioa lurralde mailatik aztertuta soilik hauteman daitekeelako. Lurraldearen Zatiko Planak lurralde-proiektu koherente batean laburbildu eta integratu behar du hirigintza-jarduera.

LAAen adierazitakoaren arabera, Bilbok eta Durangok gaur egun Amorebieta-Etxanon sortzen dituzten hiri-eragin gurutzatuak aintzat hartua, Bizkaiko lurralde-orekaren estrategia orokorraren testuinguruan komenigarria da Durangoko eskualdeko erdigunetzat sustatzea. Durango-Abadiñoko hiriguneek, izan ere, integraturiko hiri-eremua osatzen dute eta horrek

Eskualde Egituraren barruko udalerriz gaindiko zerbitzuen erdigunea izateko gaitasuna dauka.

Halaber, kontuan hartu behar da, udal-mugarteen mugaketak (lurraldea egituratzeko elementutzat) ikuspegi politikotik eta administratibotik duen garrantzia ahaztu barik, onartu egin behar dela higiezinen merkatua udalerriz gaindiko eremuetan eratzen dela gehienbat, eta eremu horiek, sarritan, Eskualde Egituraren mugak gainditzen dituztela.

Eskualde Egitura, “bitarteko” lurralde-eskalakoa izanik, eta horren hirigune nagusiak “funtsezko piezak” dira lurralde-orekako baliozko estrategiak aplikatzeko; izatez ere, zerbitzuen, zuzkiduren, ekipamenduen, hiri-leku garrantzitsuen, egoitza-lekuen nahiz lantokien eta abarren talde-gozamenerako estrategien protagonista nagusia hiri-sistema da.

Interesgarria da erreferentziako hiriguneen buruzagitza eta gune desberdintasunen arteko osagarritasuna lortzea, tamaina ertaineko hiriak indartuta, horiek orokorrean balio handiko hiri-egitura osatzen baitute, lurralde-orekako prozesuetan.

Adierazitako aldagaien ebaluazioan eta azterketan oinarrituz, LZP honek aditzera ematen du Eskualde Egiturak Bilbo Metropolitarretik iritsitako beste 600 etxebizitza eduki ditzakeela; zifra horrek gainditu egiten ditu udalerriotako beharrizan demografikoen arabera ebaluatzearen eraginezko zifrak, eta gainera, udalerririk txikienetako eskaintzaren zurruntasun handiagoaren ondoriozko eskaria xurgatzeko aukera ematen du.

600 etxebizitza horiek, izan ere, Bilbo Metropolitarreko Eskualde Egiturako LZPk (LAAetako jarraibideari jarraituz) Durango ondoko eskualde-egiturara hedatu nahi dituenak dira.

Bilbo Metropolitarretik iritsitako 600 etxebizitza horiek ez ezik, Durangoko Eskualde Egiturako Ereduaren arabera, beste 60 etxebizitza ere har daitezke, Deba Beheko Eskualde Egituratik iritsitakoak.

Etxebizitzen hazkunde horrek ereduaren **hazkunde demografikoa** ekarriko luke, hots, 1.472 biztanleko hanpatze-koefizienteak erabili barik Eskualde Egitura osoan.

Ez da ahaztu behar, Durangoko eta Abadiñoko udalerrietarako, LAAek bokazio zehatza adierazi zutela, egoitza-lurzoruari zegokionez; horrela, iradokitako etxebizitza kopuru osoa, oro har, askoz ere handiagoa da bat-batean itxaron daitekeena baino, baita eremu mugakideetako etxebizitza beharrizanei buruzko ikerketek eta ikerketa demografikoek adierazi dutena baino. LAAen esaten denez, Eskualde Egituraren Lurraldearen Zatiko Planak berak dimentsionatu behar du lurralde-eredura egokitzeko osagai hori, aintzat hartuta “hazkunde hautakorra” edo ordezko habitaten izendapena.

Lurralde Ereduaren eraginezko etxebizitza gehigarri horiei dagokienez, Bilboko Eskualde Egituratik iritsitakoak Abadiñon, Iurretan eta Zornotzan pilatu dira, eta Deba Beheko Eskualde Egituratik iritsitakoak, berriz, Zaldibarren. LAAen eta LZPren abiapuntuko aukera Durangoko udalerria eta horren eragin-aldea indartzea da, eskualdeko erreferentziako hirigunetzat eta EAEko hiri-sistemaren barruko gune garrantzitsutzat; hala ere, egungo planeamenduan mugaturikoan lur berria sartzeko ahalmena mugatu du, eta horrek zaildu egiten du aurreikuspen zehatza egitea, eskaintzaren gehieneko koefizientearen balizko aplikazioaren ondorioz bikoiztu egingo litzatekeena gainera, eta, beraz, etxebizitzarik gehienak Abadiñon (200) eta Zornotzan (300) daude.

Era berean, etxebizitzetariko batzuk (60) Zaldibarren daude, bertan harrera-gaitasun handiagoa baitago, eta horrek Deba Beheko Eskualde Egiturako biztanleriaren zati bat xurgatzeko joera izango du.

Eskualde Egiturako buru gisa Durango udalerriak duen eginkizunari eutsi zaio, zeren hala egin baita neurri batean ezarritako gehieneko eskaintza burututa, eta horri dagokionez, udal planeamenduak hautaturiko hanpatze-koefizientea gutxienez 1,5 izatea gomendatzen da 16 urterako eta 2koa 8 urterako, LZPk dakarren gutxienekoa baino handiagokoa, 1,25 eta 1,5ekoak hurrenez hurren. Oro har gainerako udalerrietarako ere gomendatzen da.

Etxebizitza horiek Zaldibarren sartzeko aukera, izan ere, ez da indarreko Planeamenduan lurzoru berriak sartzearen ondoriozkoa, bertako Ekipamenduen Sistema Orokorra aldatzeko aukeraren eraginezkoa baizik, horri egoitza-erabilera emanez, Planeamendu Orokorraren berrikuspena eginda.

Zornotzaren kasuan, A osagai hori 300 etxebizitzatan dimentsionatu da (Durangoren eragin-aldera bideraturiko kopuru bera); izan ere, Bilbo Metropolitarretik kanpoaldera lekualdaturiko etxebizitzaren hartzailea da eta erantzuna ematen dio lanpostu kopuru handiaren egoitza-kokalekuari (Boroako ekimen publikoko jarduera ekonomikoen industrialdean pilatuko dena).

Hazkunde hautakor edo kanpoko berroreka hori, aipaturiko osagai exogenoa eratzen duena, honako taula honetan adierazita dago, etxebizitza kopuruari dagokionez:

| UDALERRIAK | 16 URTE<br>**A. Ereduaren hazkunde hautakorra (etxebizitzak)** |
|---|---:|
| *Abadiño* | 200 |
| *Durango* | 0 |
| *Iurreta* | 100 |
| *Izurtza* | 0 |
| | 300 |
| *Amorebieta-Etxano* | 300 |
| *Elorrio* | 0 |
| *Atxondo* | 0 |
| *Berriz* | 0 |
| *Garai* | 0 |
| *Mañaria* | 0 |
| *Zaldibar* | 60 |
| ***Durangoko E.E.*** | 660 |

### 7.2.2.1.d.1.3. Barruko berroreka. B osagaia.

B osagai gisa definitu da Eskualde Egiturako etxebizitzen beharrizanen Barruko Berrorekari dagokiona. Ildo horretan, beren udal-mugartearen barruan nahiko lurrik ez duten udalerrien etxebizitzaren eskariak birkokatzearen ondorioz gertaruko litzateke barruko berroreka. Izan ere, lur horiek behar dituzte beharrizanen gaineko hanpatze-koefizienteak -lehenago aipatuak- erabiltzearen ondoriozko gehieneko edo gutxieneko eskaintzak proposatu ahal izateko. Kasu hori teorikoki ebatziko da gaitasunik ez hori hartzeko moduko soberakina duten udalerrietan.

Durangoko Eskualde Egiturari dagokionez, lur eskuragarriei eta horien ezaugarri naturalei buruz eginiko azterlanei esker, ondokoa esan daiteke: egitura osatzen duen udalerri bakoitzak nahikoa harrera-ahalmena duela bere beharrizanei erantzuna eman ahal izateko, eta baliorik eza edo zero balioa ematen dio Barruko Berrorekako B osagaiari. Hala ere, gerta liteke salbuespenezko zenbait kasutan zaila izatea gehieneko eskaintzara iritsi ahal izatea.

| UDALERRIAK | 16 URTE<br>**B Barruko Berroreka (etxebizitzak)** |
|---|---|
| *Abadiño* | 0 |
| *Durango* | 0 |
| *Iurreta* | 0 |
| *Izurtza* | 0 |
| | 0 |
| *Amorebieta-Etxano* | 0 |
| *Elorrio* | 0 |
| *Atxondo* | 0 |
| *Berriz* | 0 |
| *Garai* | 0 |
| *Mañaria* | 0 |
| *Zaldibar* | 0 |
| ***Durangoko E.E.*** | 0 |

### 7.2.2.1.d.1.4. Beharrizan endogenoak. C osagaia.

C osagaiak udalerrien beharrizan endogenoak adierazten ditu; osagai hau etxebizitza-beharrizan gero eta handiagoari lotuta dago, eta hori, berriz, familien batez besteko tamainak hurrengo urteetan izango duen apurka-apurkako txikitzearen eraginezkoa da. Horrenbestez, LZPren hipotesia mantendu arren, hau da, Egitamuaren indarraldian biztanle kopurua jarioa saihestu arren, edo kopuru hori murriztu egiten bada ere, etxebizitza-eskaria gero eta handiagoa izango da.

Horrela, pentsa daiteke hurrengo urteotan FBT etengabe eta asko murriztuko dela, Europako erreferentziako beste herri batzuetan gertatu den bezala; izan ere, herri horiek FBTan dituzten batez bestekoak etxebizitza bakoitzeko 2,1 pertsonakoak dira, pertsona eta guraso bakarreko etxebizitza kopuruak gora egitearen eta familia bakoitzeko kide kopuruak behera egitearen ondorioz, emakumeen ugalkortasunaren indizeek azken hamarkadotan izan duen murriztapenari estu lotuta.

FBT, bestalde, biztanleriaren eta etxebizitza nagusien arteko zatiduratzat kalkulatu da. 2006ko FBT errealean oinarrituz, etxebizitza nagusien kopuruari buruz eskuetan ditugun daturik eguneratuenetatik lortuta, Eustat iturriaren arabera, baita data horretarako biztanleriari buruzko datuetatik ere, iturri beraren arabera, FBTk 2024ra arte izango duen bilakaera kalkulatu da EAEko FBTk 1993etik 2000ra bitartean izandako urteroko murriztapen-tasa, LAAen adierazitakoaren arabera.

Adierazitako irizpideari jarraituz, eta lantzen ari diren gainerako LZPrekiko homogeneotasun-irizpideak ezarrita, urteko 0,03ko jaitsiera indizea kalkulatu da familiako batez besteko tamaina loteslean halako moldez non, 16 urteko epealdirako, 0,48ko jaitsiera izango baita aurreikuspenen arabera.

Ondoko taulan, Eskualde Egiturako udalerri bakoitzari dagokionez, honako datu hauek ematen dira: etxebizitza nagusien kopurua, 2006ko biztanle kopurua eta aurrekoen zatidura oinarri hartuta loturiko FBT. Jarraian 2006-2024 bitarteko aldiko urte guztietarako FBT emango da (0,03ko murriztapenaren hipotesian oinarrituz).

| **UDALERRIAK** | | ***Abadiño*** | ***Durango*** | ***Iurreta*** | ***Izurtza*** | ***Amorebieta-Etxano*** | ***Elorrio*** | ***Atxondo*** | ***Berriz*** | ***Garai*** | ***Mañaria*** | ***Zaldibar*** | *Durangoko E.E.* |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 2006eko zentsua | **Etxebizitza nagusiak** | 2.570 | 10.177 | 1.375 | 79 | 6.277 | 2.463 | 487 | 1.753 | 95 | 170 | 1.012 | 26.458 |
| | **Biztanleria** | 7.144 | 27.925 | 3.833 | 248 | 17.197 | 7.075 | 1.435 | 4.771 | 302 | 456 | 2.864 | 73.250 |
| | FBT 2006 | 2,78 | 2,74 | 2,79 | 3,14 | 2,74 | 2,87 | 2,95 | 2,72 | 3,18 | 2,68 | 2,83 | 2,77 |
| **Familien batez besteko tamainaren** (FBT) **hipotesia** **2007-2024 aldirako** | TMF 2007 | 2,75 | 2,71 | 2,76 | 3,11 | 2,71 | 2,84 | 2,92 | 2,69 | 3,15 | 2,65 | 2,80 | 2,74 |
| | TMF 2008 | 2,72 | 2,68 | 2,73 | 3,08 | 2,68 | 2,81 | 2,89 | 2,66 | 3,12 | 2,62 | 2,77 | 2,71 |
| | TMF 2009 | 2,69 | 2,65 | 2,70 | 3,05 | 2,65 | 2,78 | 2,86 | 2,63 | 3,09 | 2,59 | 2,74 | 2,68 |
| | TMF 2010 | 2,66 | 2,62 | 2,67 | 3,02 | 2,62 | 2,75 | 2,83 | 2,60 | 3,06 | 2,56 | 2,71 | 2,65 |
| | TMF 2011 | 2,63 | 2,59 | 2,64 | 2,99 | 2,59 | 2,72 | 2,80 | 2,57 | 3,03 | 2,53 | 2,68 | 2,62 |
| | TMF 2012 | 2,60 | 2,56 | 2,61 | 2,96 | 2,56 | 2,69 | 2,77 | 2,54 | 3,00 | 2,50 | 2,65 | 2,59 |
| | TMF 2013 | 2,57 | 2,53 | 2,58 | 2,93 | 2,53 | 2,66 | 2,74 | 2,51 | 2,97 | 2,47 | 2,62 | 2,56 |
| | TMF 2014 | 2,54 | 2,50 | 2,55 | 2,90 | 2,50 | 2,63 | 2,71 | 2,48 | 2,94 | 2,44 | 2,59 | 2,53 |
| | TMF 2015 | 2,51 | 2,47 | 2,52 | 2,87 | 2,47 | 2,60 | 2,68 | 2,45 | 2,91 | 2,41 | 2,56 | 2,50 |
| | TMF 2016 | 2,48 | 2,44 | 2,49 | 2,84 | 2,44 | 2,57 | 2,65 | 2,42 | 2,88 | 2,38 | 2,53 | 2,47 |
| | TMF 2017 | 2,45 | 2,41 | 2,46 | 2,81 | 2,41 | 2,54 | 2,62 | 2,39 | 2,85 | 2,35 | 2,50 | 2,44 |
| | TMF 2018 | 2,42 | 2,38 | 2,43 | 2,78 | 2,38 | 2,51 | 2,59 | 2,36 | 2,82 | 2,32 | 2,47 | 2,41 |
| | TMF 2019 | 2,39 | 2,35 | 2,40 | 2,75 | 2,35 | 2,48 | 2,56 | 2,33 | 2,79 | 2,29 | 2,44 | 2,38 |
| | TMF 2020 | 2,36 | 2,32 | 2,37 | 2,72 | 2,32 | 2,45 | 2,53 | 2,30 | 2,76 | 2,26 | 2,41 | 2,35 |
| | TMF 2021 | 2,33 | 2,29 | 2,34 | 2,69 | 2,29 | 2,42 | 2,50 | 2,27 | 2,73 | 2,23 | 2,38 | 2,32 |
| | TMF 2022 | 2,30 | 2,26 | 2,31 | 2,66 | 2,26 | 2,39 | 2,47 | 2,24 | 2,70 | 2,20 | 2,35 | 2,29 |
| | TMF 2023 | 2,27 | 2,23 | 2,28 | 2,63 | 2,23 | 2,36 | 2,44 | 2,21 | 2,67 | 2,17 | 2,32 | 2,26 |
| | TMF 2024 | 2,24 | 2,20 | 2,25 | 2,60 | 2,20 | 2,33 | 2,41 | 2,18 | 2,64 | 2,14 | 2,29 | 2,23 |

16 urterako C osagaia kalkulatzeko, ondorengo taulan jasotakoaren arabera, 2008ko biztanleria hartu da oinarritzat, INE iturriaren arabera, Egitamua idazteko unean zegoen informaziorik berriena kontuan hartuta; halaber, biztanle kopurua mantentzeko hipotesia hartu da aintzat, eta aldi horretarako kalkulaturiko FBTren murriztapena 0,48 da.

| UDALERRIAK | 16 urte<br>**C. Beharrizan endogenoa (etxebizitzak)** |
|---|---|
| *Abadiño* | 567 |
| *Durango* | 2.268 |
| *Iurreta* | 301 |
| *Izurtza* | 16 |
| | 3.152 |
| *Amorebieta-Etxano* | 1.435 |
| *Elorrio* | 525 |
| *Atxondo* | 100 |
| *Berriz* | 400 |
| *Garai* | 19 |
| *Mañaria* | 41 |
| *Zaldibar* | 222 |
| | 2.740 |
| ***Durangoko E.E.*** | 5.893 |

Ondoko formula hau erabiliz lortu dira taulako emaitzak:

$$C = P/ (BFT-0.48) – P/BFT$$

Non P eta BFT udal familien batez besteko tamaina eta populazioa diren 2008. urtean, ondoko taularen arabera.

LZPk biztanleen beharren arabera egiten dituen kalkuluak denbora jakin baterako dira, hain zuzen 16 urterako, Planak azterturiko denborarako. Hala ere, esan beharra dago hazkunde endogenoaren osagaia loteslea dela soilik **metodologiaren** aldetik; kalkulu zehatza egingo du udal planeamenduak

planeamenduaren berrikuspena egiten den urteari dagozkion biztanleen eta familiaren batez besteko tamainaren datu eguneratuekin.

Alabaina, etorkizunari begira, loteslea izango da familiaren batez besteko tamainaren 0,03ko urteko murrizketa baten hipotesia. Horregatik, koefizientea udal planeamendurako aurreikusitako denborarekin edo epealdiarekin biderkatzearen emaitza izango da guztizko jaitsiera.

### 7.2.2.1.d.1.5. Bigarren egoitza. D osagaia.

Eremuko ezarkuntzen eredua osatzeko, jarduketa-ildo argia zehazten du Lurraldearen Zatiko Planak bigarren etxebizitzaren aurrean; izan ere, bertan ezarritakoaren arabera, etxebizitza mota hori ez da hartzen eremuko etxebizitza nagusitzat, dela udalerri txikien harrera-gaitasuna txikiagatik, dela oso dentsitate txikiak saihesteko asmoagatik, betiere zenbait eremu zaintzeko helburu zehatza izanik hala nola Atxondoko bailara, Urkiola edo Garai.

Eskualde Egiturako biztanle-guneetako hiri izaera indartu nahi duen Lurralde Eremuarekin bat etorriz, ez dirudi egokia denik bigarren egoitzako eskaintza planteatzea, baizik eta ostatuen aukera indartzea hiriguneetan eta landa turismoa garatzea oraingo eraikinetan.

Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Antolamendu Sailaren irizpideekin bat etorrita, Durangoko Eskualde egitura ez da hartzen egoitzako turismo helmugatzat eta, beraz, ez da kontuan hartzen horrelako etxebizitzekin lotutako beharrizanik planteatzen den 16 urterako epealdian.

| UDALERRIAK | 16 URTE<br>**D. Bigarren egoitza (etxebizitzak)** |
|---|---|
| *Abadiño* | 0 |
| *Durango* | 0 |
| *Iurreta* | 0 |
| *Izurtza* | 0 |
| | 0 |
| *Amorebieta-Etxano* | 0 |
| *Elorrio* | 0 |
| *Atxondo* | 0 |
| *Berriz* | 0 |
| *Garai* | 0 |
| *Mañaria* | 0 |
| *Zaldibar* | 0 |
| | 0 |
| ***Durangoko E.E.*** | 0 |

### 7.2.2.1.d.1.6. Ereduko etxebizitzen kuantifikazioa, 16 urterako Esparru-Proposamenean.

Azaldutako osagai guztiak batuta (A, B, C eta D osagaiak), LZPren hazkunde-ereduak 16 urteko indarraldirako aurreikusitako etxebizitzen kopuru garbia lortzen da; beraz, horiexek dira Durangoko Eskualde Egiturarako LZPk erantzun beharko dituen aurreikuspenak.

Aurreikusitako etxebizitza kopuru garbi horri erantzuna emateko orduan, helburua ez da kopuru hori etxebizitza berrian oinarrituz bermatzea; hain zuzen ere, Udal Planeamenduak azaldutako estrategiak erabiliz bermatu behar du etxebizitza kopuru hori, eta, estrategia horien barruan, eraikitako ondarea optimizatzea sartzen da hutsik dauden etxebizitzak mugiaraziz eta oraingo eraikinak birgaituz, edo indarreko planeamenduan hutsik dagoen lurrari dentsitate handiagoa emateko balizko eragiketak eginez, hain zuzen ere berrikuspenaren ereduak desklasifikatuko ez dituenak, 2/2006 Legeak ezarritako gutxieneko eraikigarritasun irizpideen arabera behinik behin.

Egindako ebaluazioaren eta adierazitako aldagaiak aztertzearen ondorioz, etxebizitza kopuru garbiaren zenbatespen hauxe proposatzen da:

| | EREDUAREN KUANTIFIKAZIOA | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | 16 URTERAKO ETXEBIZITZA KOPURU GARBIA | | | | |
| UDALERRIAK | **A** Ereduaren hazkunde hautakorra | **B** Barruko berroreka | **C** Beharrizan endogenoa | **D** Bigarren egoitza | GUZTIRA |
| | | | | | |
| *Abadiño* | 200 | 0 | 567 | 0 | 767 |
| *Durango* | 0 | 0 | 2.268 | 0 | 2.268 |
| *Iurreta* | 100 | 0 | 301 | 0 | 401 |
| *Izurtza* | 0 | 0 | 16 | 0 | 16 |
| | 300 | 0 | 3.152 | 0 | 3.452 |
| *Amorebieta-Etxano* | 300 | 0 | 1.435 | 0 | 1.735 |
| *Elorrio* | 0 | 0 | 525 | 0 | 525 |
| *Atxondo* | 0 | 0 | 100 | 0 | 100 |
| *Berriz* | 0 | 0 | 400 | 0 | 400 |
| *Garai* | 0 | 0 | 19 | 0 | 19 |
| *Mañaria* | 0 | 0 | 41 | 0 | 41 |
| *Zaldibar* | 60 | 0 | 222 | 0 | 282 |
| | 360 | 0 | 2.741 | 0 | 3.101 |
| ***Durangoko E.E.*** | **660** | **0** | **5.893** | **0** | **6.553** |

### 7.2.2.1.d.1.7. Esparru-Proposamenetik ondorioztatuz kalkulaturiko biztanleria.

LZPren Lurralde Ereduak hazkunde hautakorreko edo demografia-hazkunde A osagaia sartzearen alde egiten duen apustuaren ondorioz, finkatu egiten da hazkunde demografiko positiborako oraingo joera.

Biztanle kopuruak udalerriren batean beheranzko joera izan arren, LZPk proposaturiko ereduaren estrategia biztanlerik ez galtzeko behar diren lurzoruak ematea da; beraz, etorkizuneko biztanleria kalkulatzeko orduan,

LZPren ustez ezein udalerritako biztanle kopuruak ez du behera egingo, behintzat modu iraunkorrean. Bestalde, Ereduak 2024erako kalkulaturiko biztanleria-hazkundea Hazkunde Hautakorraren eraginezkoa da; hain zuzen ere, Lurralde Ereduaren erabakiaren ondoriozkoa da (agiri honetan jasotakoa), eta hori, LALetan ezarritako irizpideekin bat etorriz, Eskualde Egiturako hirigune batzuek erreferentziako lekutzat duten eginkizuna indartzeko egiten da; hori, bestalde, bat dator azterturiko aldian (1986tik 2008era) agerian jarritako hazkunde positiboarekin.

Lehen adierazitakoaren arabera, 2024erako kalkulaturiko biztanleria-hazkundea, alde batetik, Ereduak zehazturiko hazkunde hautakorraren eraginezkoa da, eta bestetik, biztanleria mantentzearen hipotesia kontuan hartzearen ondoriozkoa. Hazkundea, oinarritu ere, beste eskualde-egitura batzuetatik iritsitako biztanleriaren harreran oinarritzen da, eta ez Eskualde Egiturako bertako jaiotza-tasan.

Hazkunde hautakorraren A osagaian, Bilbo Metropolitarretik iritsitako 600 etxebizitzako eta Deba Beheko Eskualde Egiturako 60 etxebizitzako (guztira 660 etxebizitza) egoitza-hedapeneko estrategien eraginak jasotzen dira. Etxebizitza horiek guztiak Durangoko Eskualde Egiturara esleiturik daude.

Lurralde Ereduaren eraginezko etxebizitza gehigarri horiek ondoren adierazitakoaren arabera pilatu dira: alde batetik, Bilboko Eskualde Egituratik iritsitakoak Abadiñon, Iurretan eta Amorebietan, eta bestetik, Deba Beheko Eskualde Egituratik heldutakoak Zaldibarren. LAAen eta LZPren hasierako helburua Durangoko udalerria eta horren eragin-aldea indartzea da, eskualde barruko erreferentziako lekutzat eta EAEko hiri-sistemaren barruko gune garrantzitsutzat. Mugatuta du egungo plangintzan dagoeneko mugaturikoaz gain lur berria sartzeko ahalmena eta, beraz, eskaintzaren zati bat gauzatzearen ondoriozko biztanle-gune nagusi lez duen eginkizunari kalterik egin barik, etxebizitza horietariko batzuk Iurretan daude (100) eta beste zenbait Abadiñon (200), eta, hurbiltasuna aintzat hartuta, esan daiteke baterako funtzionamendua duen hiri-egituraren barruan daudela.

Lehen esan dugunez, etxebizitza kopuruak Hazkunde Hautakorraren eraginez izan duen gorakadak biztanle kopuruaren hazkundea dakar. 16 urteko aldian hazkunde hautakortzat aurreikusitako 660 etxebizitzak okupatuko direla jota, horrek esan nahi du biztanleriak 1.472 biztanleko gorakada izango duela, 2024erako FBT aintzat hartuz, ondoko taulan adierazten denez:

BIZTANLERIA 16 URTEKO EREDUAREN ARABERA

| UDALERRIAK | *2008.1.1eko biztanleria* | *A H. Hautakorra* | *FBT 2024.1.1* | *2024.1.1eko biztanleria* |
|---|---|---|---|---|
| | Biztanleak | Etxebizitzak | Bizt./ etx. | Biztanleak |
| *Abadiño* | 7.197 | 200 | 2,24 | 7.645 |
| *Durango* | 27.861 | | 2,20 | 27.861 |
| *Iurreta* | 3.854 | 100 | 2,25 | 4.079 |
| *Izurtza* | 260 | | 2,60 | 260 |
| | 39.172 | 300 | 2,22 | 39.838 |
| *Amorebieta-Etxano* | 17.626 | 300 | 2,20 | 18.286 |
| *Elorrio* | 7.165 | | 2,33 | 7.165 |
| *Atxondo* | 1.456 | | 2,41 | 1.456 |
| *Berriz* | 4.829 | | 2,18 | 4.829 |
| *Garai* | 321 | | 2,64 | 321 |
| *Mañaria* | 474 | | 2,14 | 474 |
| *Zaldibar* | 2.931 | 60 | 2,29 | 3.068 |
| | 34.802 | 660 | 2,24 | 35.608 |
| ***Durangoko E.E.*** | 73.974 | 660 | 2,23 | 75.446 |

### 7.2.2.1.d.2. 8 URTEKO EREDUA.

Planeamendu orokorra berrikusten duen udalerri bakoitzak bere ereduko etxebizitzen kalkulua egin beharko du planean ezarritako zortzi urterako epealdirako, betiere LZP honetan ezarritakoa oinarri hartuta.

2/2006 Legeak 8 urteko berrikuspen-alditik askatzen ditu planak, eta nolanahi ere, planeamenduetan ezarritako epeak berrikus daitezke.

Lege horren 102.4 artikuluak dakarrenez, planetan ezarritako epeetan berrikusiko dira hirigintza planak eta horretarako bertan ezarritako kasuak edo inguruabarrak gertatzen direnean, edo lurraldearen antolamendu tresna lotesleetan eskatzen denean. Hartara, honako hau da LZPk ezartzen duen irizpide loteslea: C osagaia kalkulatzeko, biztanleriaren eta familiaren batez besteko tamainaren datu eguneratuak izango dira abiapuntua planeamendua berrikustean, eta etorkizunari begira, familiaren batez besteko tamainaren jaitsiera urteko 0,03koa izatea. Horrenbestez, koefiziente hori udal planeamenduan zenbatetsitako aurreikuspenaren epealdiarekin biderkatzearen emaitza izango da guztizko jaitsiera.

Udal planeamenduaren esparru-proposamenaren aplikazioa ahalbidetzeko, esparru hori planeamenduaren epealdi efektiboari egokitu behar zaio.

LZPk epealdi horretarako esparru-proposamenean emandako taulen itzulpena ahalbidetuko duen metodoa dakar, eta tauletan zortzi urteko kalkulua ematen da.

### 7.2.2.1.d.2.1. Ereduaren hazkunde hautakorra. A osagaia.

LZPk Hazkunde Hautakorraren edo Osagai Exogenoaren proposamena jasotzen duten udalerriak zehazten ditu. Hazkunde hautakor hori, izan ere, agiri honetan jasotako lurralde-ereduaren erabakiaren eraginezkoa da eta bat dator LAAetako irizpideekin; gainera, Eskualde Egiturako hirigune batzuk erreferentziako lekutzat duten eginkizuna indartzeko elementutzat garatzen da.

Osagai honek balio zehatz eta lotesle dauka eta hori, 8 urteko aldirako, 16 urteko aldirako aurreikusitako lurralde-orekatzat ezarritako etxebizitza bolumenaren erdia da.

Adierazitako osagai exogenoa osatzen duen hazkunde hautakor hau honako taula honetan adierazita dago:

| UDALERRIAK | 8 URTE<br>**A. Kanpoko berroreka (etxebizitzak)** |
|---|---|
| *Abadiño* | 100 |
| *Durango* | 0 |
| *Iurreta* | 50 |
| *Izurtza* | |
| | 150 |
| *Amorebieta-Etxano* | 150 |
| *Elorrio* | 0 |
| *Atxondo* | 0 |
| *Berriz* | 0 |
| *Garai* | 0 |
| *Mañaria* | 0 |
| *Zaldibar* | 30 |
| | 180 |
| ***Durangoko E.E.*** | 330 |

### 7.2.2.1.d.2.2. Barruko berroreka. B osagaia.

LZPk egoitza-lurzorua bermatzen du estutzerik gerta ez dadin; hazkunde mugak jartzen ditu eta espazioan banatzen ditu lurralde ereduarekin bat etorrita. LZPko aurreikuspenaren urteetako gehieneko eskaintza xurgatzeko udalerri bakoitzean nahikoa lur dagoela irizten zaio, eta ez da beharrezkotzat jotzen udal barruko berroreka egitea, hots, udalerri batzuetan konpondu beharreko gabeziak Eskualde Egiturako beste udalerri batzuetara mugiaraztea.

### 7.2.2.1.d.2.3. Beharrizan endogenoak. C osagaia

LZP honen egoitza-proposamena, aurreko puntuan azaldu denez, egitamuaren epealdirako ezarri da, hots, 16 urteko epealdirako. Udal planeamenduaren epealdi efektiboa, ordea, bertan legez baimendutakoa izango da.

Atal honetan erlazio bat ezarri nahi da, LZPko Ereduan proposaturiko kuantifikazioa 8 urteko epealdiari egokitzea ahalbidetuko duena.

Hazkunde endogenoa kalkulatzeko, familiaren batez besteko tamainaren bilakaera hartu behar da oinarritzat. Horretarako, urtean 0,03ko jaitsiera iraunkorreko hipotesi loteslea planteatzen da. Bere planeamendua berrikusten duen udalerri bakoitzaren abiapuntua aurreikuspenaren urteko udal FBT eta biztanleria izango dira, baita biztanleria horren galera saihesteko hipotesia ere. FBTren urteko jaitsiera 0,03koa denez gero, koefiziente hori udal planeamenduan zenbatetsitako aurreikuspenaren epealdiarekin biderkatzearen emaitza izango da guztizko jaitsiera.

Ondoren agertuko den taulako emaitzak lortzeko, 2008ko biztanleria eta familiaren batez besteko tamaina hartu dira abiapuntu, 8 urteko epealdiari dagozkionak eta 7.2.2.1.d.1.4 ataleko taulan adieraziak. FBTren guztizko jaitsiera 0,24koa da.

Formula hau aplikatuta kalkulatuko du bere C osagaia planeamendua berrikusten duen udalerri bakoitzak:

$$C = P / (FBT-0.03xn) – P/FBT$$

Non P eta FBT udalerriko biztanleria eta familiaren batez besteko tamaina diren berrikuspenaren urtean, eta n, berriz, udal planeamendua aplikatzeko aldiko urteen kopurua.

LZPk ez du lotesletzat hartzen honak taulan azaldutako C osagaia, baina bai hura kalkulatzeko metodoa. Emandako formula aplikatzeko, kontuan izan behar da ezen, planeamendu orokorreko tresnak izapidetu baino lehen, informazioa datu errealekin eguneratu behar dela, horrelakorik bada, eta berriz kalkulatuko dira LZPren emaitzak hipotesietan oinarrituta. Familiaren batez besteko tamainaren urteko jaitsiera da nahitaez aplikatu beharreko koefiziente bakarra; 0,03ko jaitsiera da.

| UDALERRIAK | 8 URTE<br>**C. Eskari endogenoa (etxebizitzak)** |
|---|---|
| *Abadiño* | 256 |
| *Durango* | 1.023 |
| *Iurreta* | 136 |
| *Izurtza* | 7 |
| | 1.422 |
| *Amorebieta-Etxano* | 647 |
| *Elorrio* | 238 |
| *Atxondo* | 46 |
| *Berriz* | 180 |
| *Garai* | 9 |
| *Mañaria* | 18 |
| *Zaldibar* | 100 |
| | 1.238 |
| ***Durangoko E.E.*** | 2.660 |

### 7.2.2.1.d.2.4. Bigarren egoitza. D osagaia

Bigarren egoitza lurralde ereduaren arabera ezarri da. Hortaz, haren zenbatekoa, kanpoko osagaiarena eta barne berrorekarena bezala, zehatza eta loteslea da.

Bigarren etxebizitzaren eskaria, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu Sailaren irizpideen arabera, nulua da, Durangoko LZPren eremua ez baita egoitza-turismoaren jasotzailetzat hartzen.

### 7.2.2.1.d.2.5. Ereduko etxebizitzak 8 urterako epealdirako zenbatzea.

Hurrengo taulan, 8 urteko Ereduaren etxebizitza kopuruaren kuantifikazioa islatzen da, eta kopuru hori, berriz, 8 urtera kalkulaturiko A, B, C eta D osagaien batuketa eginez lortu da.

Gogoratu behar da taula horretako A, B eta D osagaiak zehatzak eta lotesleak direla; hala ere, zenbateko osoa berriztatu egin beharko da udalerri

bakoitzaren planeamendu orokorra ikuskatzeko unean, C osagaia aldagarria izan daitekeelako, zehazturiko irizpideen arabera.

Aurreikusitako etxebizitza kopuru garbi horri erantzuna emateko orduan, helburua ez da kopuru hori etxebizitza berrien bidez betetzea; hain zuzen ere, kasuan kasuko Udal Planeamenduak segurtatu egin behar du okupatzeko moduko etxebizitza horiek daudela, proposaturiko ereduaren estrategiaren eraginez. Eredu horrek, etxebizitza berriaz gain, ondare eraikiaren optimizazioa ere badakar. Edozelan ere, gogorarazi behar da ezen, mugako eremu berrien ahalmenaz beraz gain, hutsik dauden etxebizitzak mugiaraziz eta egon dauden eraikinak birgaituz, edo indarreko planeamenduan hutsik dagoen lurrari dentsitate handiagoa emateko balizko eragiketak eginez: ez ditu berrikuspenaren ereduak desklasifikatuko 2/2006 Legeak ezarritako gutxieneko eraikigarritasun irizpideen arabera eta familiaren batez besteko tamaina txikitzearen ondorioz behinik behin.

| | KALKULU METODOLOGIA | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| UDALERRIAK | 8 URTERAKO GEHIENEKO ETX. KOP. | | | | |
| | **A** Eredua | **B** Barruko berroreka | **C** Beharrizan endogenoa | **D** Bigarren egoitza | GUZTIRA |
| *Abadiño* | 100 | 0 | 256 | 0 | 356 |
| *Durango* | 0 | 0 | 1.023 | 0 | 1.023 |
| *Iurreta* | 50 | 0 | 136 | 0 | 186 |
| *Izurtza* | 0 | 0 | 7 | 0 | 7 |
| | 150 | 0 | 1.422 | 0 | 1.572 |
| *Amorebieta-Etxano* | 150 | 0 | 647 | 0 | 797 |
| *Elorrio* | 0 | 0 | 238 | 0 | 238 |
| *Atxondo* | 0 | 0 | 46 | 0 | 46 |
| *Berriz* | 0 | 0 | 180 | 0 | 180 |
| *Garai* | 0 | 0 | 9 | 0 | 9 |
| *Mañaria* | 0 | 0 | 18 | 0 | 18 |
| *Zaldibar* | 30 | 0 | 100 | 0 | 130 |
| | 180 | 0 | 1.238 | 0 | 1.418 |
| ***Durangoko E.E.*** | 330 | **0** | **2.660** | **0** | **2.990** |

Nolanahi ere, Ereduaren etxebizitza kopurua da, eta etxebizitza horiek okupatzeko modukoak direla bermatu behar da, bermatu beharrekoa ez baita eskaintza; izan ere, eskaintza aurreikusitako etxebizitza kopuru garbia bermatzen duen teknika baino ez da (merkatuan horren inguruko esturarik ez egoteko), eta, horretarako, ezarritako hanpatze-bitartearen barruko balio bat aukeratzen du.

Gainera, Udal Planeamenduak lehentasunen oinarrizko ordena zehaztu eta programazio-baldintzak ezarri beharko ditu, bidezko eremuetarako, halako moldez non ereduaren arabera baimendutako gehieneko etxebizitzen kopurua lortu ahal izango baita Udal Plangintzari dagokion 8 urteko epealdirako.

### 7.2.2.2. Eskaintzaren mugak.

#### 7.2.2.2.a. LZPk proposaturiko esparrua.

Jakina da higiezinen merkatuko mekanismoak ez direla baliabideak esleitzeko sistema eraginkorrak. Gainera, kudeaketaren zailtasunen ondoriozko zurruntasuna ere aintzat hartuta, komenigarria da EAEko udalerrietako planeamenduak eskaini beharreko egoitza-lurzoru berria ez mugatzea aurreikusitako hazkundeei dagokien etxebizitza kopuru garbira.

Aldiz, hirigintza-planeamenduan egin ohi denez, espekulazio-teknika kaltegarriek hobaririk ez izateko, maniobrarako nolabaiteko bitartea ezarri behar da. Kontzeptuaren aldetik, helburua LAAen eskaintzaren zurruntasuna zuzentzeko faktorea deritzonaren bidez artikulatzen den printzipioa aplikatu behar da, eta hori, LZPn, hanpatze-prozedurarekin ordeztuta dago; koefiziente hori, berriz, gehieneko eta gutxieneko baten arteko bitartea da, eta Udal Planeamenduak azkenean aukeratzen duen hanpatze-koefizientea horren barruan egon behar da.

LZPren planteamendu metodologikoan ulertzen da hanpatze-koefizientea aplikagarria dela, ereduaren arabera aurreikusitako etxebizitza kopuru garbia kalkulatu ondoren, egoitza-lurzoruaren eskaintza bihurtzeko unean. Helburua

ez da aurreikusitako etxebizitza kopurua handitzea, lurzoru-aurreikuspen lasaiak egitea baizik, beharrezko etxebizitza guztiak eraiki ahal izateko, hiri-garapeneko prozesuak batzuetan zurrunak izan arren.

Gehieneko eta gutxieneko koefiziente horien arteko balio bat aplikatuta, LAAen espirituari jarraituz, maniobra-bitarte nahikoa bermatu behar da, eskarian aurreikusita ez dauden balizko inflexioei erantzuna emateko, plangintzaren ondoriozko aldaketa edota aurreikuspena gertatzen bada.

16 urteko denbora-garapena planteatuz, honako hanpatze-koefiziente hauek xedatu dira, gehieneko eta gutxieneko balioak kontuan hartuta, udalerri bakoitzak (bitarte horien barruan) bere hazkunde-eredua aukeratu ahal izateko:

- Udalerri bakoitzaren eskaintzaren gehieneko balioa, antolamendurik gabeko hirigintza-garapenik ez egoteko, lurzoruaren gehiegizko kalifikazioaren ondorioz.

  Hori ezin daiteke hamasei urterako etxebizitza kopuru garbia baino handiagoa izan, hori 2ko koefizientetik biderkatuz, hala exijituta zeharka EHLABren manuzko txostenetan.
- Udalerri bakoitzaren eskaintzaren gutxieneko balioa, kalifikaturiko lurzoruaren urritasuna ekiditeko, eta udalerri bakoitzak horixe bermatu behar du gutxienez.

  Horrek bermatu egin behar du hamasei urterako etxebizitza kopurua, hori LZPk proposatutako 1,25eko koefizientearekin biderkatuta.

Udalek eurek aukeratu beharko dute kopuru handiagoa edo txikiagoa muga horien barruan, garapen ereduaren arabera, udal plangintzaren aurreikuspenen kopurua emateko.

Gehieneko eskaintza kalkulatu ondoren, udalerriak balio txikiagoa hartzearen kalterik gabe (ezarritako gutxieneko mugatik beherakoa ez den balioa), eta Eskualde Egiturako Lurralde Azterketari kontrajarrita, lurraldearen okupazioaren mugako balioak aukeratzen dira, udalerriaren harrera-gaitasunaren arabera.

Gehieneko eskaintza baimentzen denez, helburua hori betearaztea ez bada ere (ereduan adierazitakoa bermatzea baizik), hazkundearen mugako eremuen mugaketa koherentea izan behar da zenbatespen horrekin.

Edozelan ere, gogorarazi behar da ezen, mugako eremu berrien ahalmenaz beraz gain, hutsik dauden etxebizitzak mugiaraziz eta egon dauden eraikinak birgaituz, edo indarreko planeamenduan hutsik dagoen lurrari dentsitate handiagoa emateko balizko eragiketak eginez: ez ditu berrikuspenaren ereduak desklasifikatuko 2/2006 Legeak ezarritako gutxieneko eraikigarritasun irizpideen arabera eta familiaren batez besteko tamaina txikitzearen ondorioz behinik behin.

Eginiko azterketen arabera, gerta daiteke udalerriren batean ezarritako okupaziorako mugako eremuekin ezin ematea proposaturiko gehieneko hanpatze-muga, 2 – 16 urte bitartekoan.

Nolanahi ere, horrek lasaiera txikiagoa dakar, ereduko etxebizitza kopuru garbia gauzatzeko orduan, eta hanpatze-ereduaren arabera beharrezkoak diren etxebizitzak sartzeko gaitasuna segurtatuta egongo da, 1,25eko koefizientea aintzat hartuta, eta, horrela, merkatuan baliozko esturak ekiditeko behar den lasaiera bermatuko da.

Horixe da Durangoko udalerriaren kasua. Izan ere, Planeamenduan aurreikusitako lurzoru urbanizagarriekin eta barruan egin daitezkeen berrikuntzekin, lortzeko moduko etxebizitza kopurua handitzen duen ikuskapena egiten ez bada, hazkunde berriak hartzeko lurzoruak kontuan hartuta, gerta daiteke 16 urterako eskaintzaren gehieneko muga bertan ez sartzea; eskaintza hori, berriz, ereduak egindako aurreikuspenak 2ko

gehieneko koefizientetik biderkatuta lortzen da, baina bestela ere baliozkoa izan daiteke, baldin eta ereduaren aurreikuspenei 16 urterako gutxienekotik (1,25) gorakoa den hanpatze-koefizientea aplikatuta lorturiko eskaintza bermatzen bada.

Lehenago esana dugunez, udalerri horretan gutxienez 1,5 – 16 urteko hanpatze-koefizientea aplikatzeko aholkua ematen da, gainerako udalerrietarako oro har adierazitako gutxienekoa baino handiagoa, Durangok eskualdeko buruari dagokion izaera indartzeko.

Hauxe da Eskualde Egiturako 16 urterako etxebizitzaren eskaintza kalkulatzearen ondoriozko emaitza:

| | ESKAINTZAREN MUGAK (16 URTE) | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| UDALERRIAK | **A *2** | **A *1,25** | **B*2** | **B*1,25** | **C*2** | **C*1,25** | **D*2** | **D*1,25** | **ESKAINTZA OSOA** | **ESKAIN. OSOA** |
| | **GEH.** | **GUTX.** | **GEH.** | **GUTX.** | **GEH.** | **GUTX.** | **GEH.** | **GUTX.** | **GEH.** | **GUTX.** |
| *Abadiño* | 400 | 250 | 0 | 0 | 1.134 | 709 | 0 | 0 | 1.534 | 959 |
| *Durango* | 0 | 0 | 0 | 0 | 4.536 | 2.835 | 0 | 0 | 4.536 | 2.835 |
| *Iurreta* | 200 | 125 | 0 | 0 | 602 | 376 | 0 | 0 | 802 | 501 |
| *Izurtza* | 0 | 0 | 0 | 0 | 31 | 19 | 0 | 0 | 31 | 19 |
| | 600 | 375 | 0 | 0 | 6.304 | 3.940 | 0 | 0 | 6.903 | 4.314 |
| *Amorebieta-Etxano* | 600 | 375 | 0 | 0 | 2.870 | 1.794 | 0 | 0 | 3.470 | 2.169 |
| *Elorrio* | 0 | 0 | 0 | 0 | 1.051 | 657 | 0 | 0 | 1.051 | 657 |
| *Atxondo* | 0 | 0 | 0 | 0 | 201 | 125 | 0 | 0 | 201 | 125 |
| *Berriz* | 0 | 0 | 0 | 0 | 799 | 500 | 0 | 0 | 799 | 500 |
| *Garai* | 0 | 0 | 0 | 0 | 37 | 23 | 0 | 0 | 37 | 23 |
| *Mañaria* | 0 | 0 | 0 | 0 | 81 | 51 | 0 | 0 | 81 | 51 |
| *Zaldibar* | 120 | 75 | 0 | 0 | 444 | 277 | 0 | 0 | 564 | 352 |
| | 720 | 450 | 0 | 0 | 5.483 | 3.427 | 0 | 0 | 6.203 | 3.877 |
| ***Durangoko E.E.*** | **1.320** | **825** | **0** | **0** | **11.787** | **7.367** | **0** | **0** | **13.106** | **8.191** |

### 7.2.2.2.b. 8 urterako eskaintzaren mugen udal aplikazioa.

Udal planeamendurako esparru-proposamenaren eskaintzaren mugak aplikatu ahal izateko, esparru hori planeamenduaren epealdi efektiboari egokitu behar zaio.

Ondoko taulan, Eskualde Egiturako udalerri bakoitzerako 8 urterako etxebizitza-eskaintzaren kuantifikazioa agertzen da, betiere EEk aurreikuspen-epealdi egokia ezartzeari kalterik egin gabe. Taularen abiapuntua Eskualde Egiturako udalerri bakoitzerako urterako ereduaren kuantifikazioa da, (7.2.2.1.d.2.5) atalean adierazia. Hala ere, muga aplikatzeko, atal honetan ezarri denez, udalerri bakoitzak biztanleriaren eta FBTren datuak planeamenduaren berrikuspena hasten den urteko datu errealei egokitu behar zaizkie.

Gogoratu behar da etxebizitza kopuru garbiarekiko hazkunde horrek, eskaintza ezartzeko orduan, ez duela etxebizitza-beharrizan handiagorik eragiten; izan ere, helburua beharrezko egoitza-lurzoruaren erabilgarritasunean zurruntasuna saihestea da.

8 urteko aldi horretarako, 16 urteko aldirako lorturiko hanpatze-koefizienteak aplikatu dira.

Eskaintzaren gehieneko eta gutxieneko balioak udalerri bakoitzak (bitarte horien barruan) bere hazkunde-eredua erabakitzeko, koefizienteok honako hauek dira:

- Udalerri bakoitzaren eskaintzaren gehieneko balioa, zortzi urterako etxebizitza garbien kopurua ezin gaindi dezakeena, 3ko koefizientearekin hanpatuta.
- Udalerri bakoitzaren eskaintzaren gutxieneko balioa, zortzi urterako etxebizitza garbien kopurua bete behar duena, 1,5eko koefizientearekin hanpatuta.

Lehenago esan denez, gutxieneko hanpatze-koefizientea 2 - 8 urtean aplikatzea gomendatzen da Durango udalerrian, oro har gainerako udalerrietarako ezarritako gutxienekoaren gainetik.

Eskualde Egiturako 8 urterako etxebizitza-eskaintza kalkulatzearen ondoriozko taula hauxe da:

| | ESKAINTZAREN MUGAK (8 URTE) | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| UDALERRIAK | A *3 | A *1,5 | B*3 | B*1,5 | C*3 | C*1,5 | D*3 | D*1,5 | ESKAIN. OSOA | ESKAIN. OSOA |
| | GEH. | GUTX. | GEH. | GUTX. | GEH. | GUTX. | GEH. | GUTX. | GEH. | GUTX. |
| *Abadiño* | 300 | 150 | 0 | 0 | 768 | 384 | 0 | 0 | 1.068 | 534 |
| *Durango* | 0 | 0 | 0 | 0 | 3.068 | 1.534 | 0 | 0 | 3.068 | 1.534 |
| *Iurreta* | 150 | 75 | 0 | 0 | 408 | 204 | 0 | 0 | 558 | 279 |
| *Izurtza* | 0 | 0 | 0 | 0 | 21 | 11 | 0 | 0 | 21 | 11 |
| | 450 | 225 | 0 | 0 | 4.265 | 2.133 | 0 | 0 | 4.715 | 2.358 |
| *Amorebieta-Etxano* | 450 | 225 | 0 | 0 | 1.941 | 970 | 0 | 0 | 2.391 | 1.195 |
| *Elorrio* | 0 | 0 | 0 | 0 | 714 | 357 | 0 | 0 | 714 | 357 |
| *Atxondo* | 0 | 0 | 0 | 0 | 137 | 68 | 0 | 0 | 137 | 68 |
| *Berriz* | 0 | 0 | 0 | 0 | 540 | 270 | 0 | 0 | 540 | 270 |
| *Garai* | 0 | 0 | 0 | 0 | 26 | 13 | 0 | 0 | 26 | 13 |
| *Mañaria* | 0 | 0 | 0 | 0 | 55 | 27 | 0 | 0 | 55 | 27 |
| *Zaldibar* | 90 | 45 | 0 | 0 | 301 | 151 | 0 | 0 | 391 | 196 |
| | | | | | 3.714 | 1.857 | 0 | 0 | 4.254 | 2.126 |
| ***Durangoko E.E.*** | **990** | **495** | **0** | **0** | **7.979** | **3.990** | **0** | **0** | **8.969** | **4.484** |

### 7.2.2.3. Biztanleria eskaintzaren betetze-maila

LZPren ereduaren hazkunde selektiboaren ondorioz -660 etxebizitzako hazkundea hain zuzen-, 1.472 biztanleko hazkunde demografikoa izango litzateke (7.2.2.1.d.1.7 ataleko taula). Eskaintzaren gehieneko koefizientea erabiltzearen eraginez (2), LZPren helburua ez bada ere, 2.944 biztanleko igoera izango litzateke, hots, 2024an 76.918 biztanle izango lirateke.

Nahiz eta LZPk bere ereduan udalerrien igoera edo jaitsiera demografikoa aintzat hartu ez, azken urteetako joera ikusita, hazkunde demografikoa aurreikusten du, esan denez, hazkunde selektiboa osagaia hartu izanaren ondorioz. Hortaz, betetzat jotzen da Lurralde Antolamenduaren Zuzendaritzak onetsitako txosteneko proposamenaren II.a puntuan adierazitako baldintza, LZPren hasierako onespena baino lehen. Proposamen hori EHALBk onetsi zuen urriaren 29ko 6/2007 bileran.

Bestalde, zilegia den eskaintzaren ondorioz, gutxieneko eta gehieneko eskaintzaren arteko tartean, etxebizitzen kopuruak nabarmen egingo du gora eta, beraz, horiek burututa aurreikusitakoa baino balizko hazkunde demografiko handiagoa xurgatuko litzateke. Ondoko taulak biztanleriaren gehikuntza dakar gutxieneko eta gehieneko betetze-mailan.

Alabaina, Durango udalerrian 16 urterako gutxienez 1,5eko hanpatze-koefizientea gomendatzen denez gero, oro har aplikatzen ez den bezalakoa eta ondoko taulan agerrarazia, udalerri horietako biztanleriaren gehikuntza, gutxieneko betetze-mailan, 7.484 biztanlekoa izango litzateke, 2024rako 35.345 biztanleriari dagokiona.

| UDALERRIAK | BIZTANLERIA | ESKAINTZAKO MUGAK 16 URTE | | TMF | BIZTANLERIA GEHIKUNTZA | | BIZTANLERIA | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 1.1.2008 Bizilagunak | ESKAINTZA GUZT. | ESKAINTZA GUZT. | 1.1.2024 Bizt./etx. nag. | 1.1.2024 Biztanle | 1.1.2024 Biztanle | 1.1.2024 Biztanle | 1.1.2024 Biztanle |
| | | GEHIEN. | GUTX. | Gutxi gorab. | GEHIEN. | GUTX. | GEHIEN. | GUTX. |
| *Abadiño* | 7.197 | 1.534 | 959 | 2,24 | 3.436 | 2.148 | 10.633 | 9.345 |
| *Durango* | 27.861 | 4.536 | 2.835 | 2,20 | 9.979 | 6.237 | 37.840 | 34.098 |
| *Iurreta* | 3.854 | 802 | 501 | 2,25 | 1.805 | 1.127 | 5.659 | 4.981 |
| *Izurtza* | 260 | 31 | 19 | 2,60 | 81 | 49 | 341 | 309 |
| | 39.172 | 6.903 | 4.314 | 2,22 | 15.300 | 9.562 | 54.472 | 48.734 |
| *Amorebieta-Etxano* | 17.626 | 3.470 | 2.169 | 2,20 | 7.634 | 4.772 | 25.260 | 22.398 |
| *Elorrio* | 7.165 | 1.051 | 657 | 2,33 | 2.449 | 1.531 | 9.614 | 8.696 |
| *Atxondo* | 1.456 | 201 | 125 | 2,41 | 484 | 301 | 1.940 | 1.757 |
| *Berriz* | 4.829 | 799 | 500 | 2,18 | 1.742 | 1.090 | 6.571 | 5.919 |
| *Garai* | 321 | 37 | 23 | 2,64 | 98 | 61 | 419 | 382 |
| *Mañaria* | 474 | 81 | 51 | 2,14 | 173 | 109 | 647 | 583 |
| *Zaldibar* | 2931 | 564 | 352 | 2,29 | 1.292 | 806 | 4.223 | 3.737 |
| | 34.802 | 6.203 | 3.877 | 2,24 | 13.872 | 8.670 | 48.674 | 43.472 |
| ***Durangoko E.E.*** | 73.974 | 13.106 | 8.191 | 2,23 | **29.172** | **18.232** | **103.146** | **92.206** |

### 7.2.2.4. Egoitza Eredua kudeatzea

#### 7.2.2.4.a. Eskaintza hautatzea

LZP honetarako aurretiazko eta funtsezko azalpen gisa, komenigarria da gogoraraztea eredutik lorturikoak direla garatu beharreko etxebizitzak eta ez eskainitako etxebizitzetatik. Izan ere, estutzeak ekiditeko xedea dago.

LZPk lurzoru berriaren kontsumoa geldiaraztea proposatzen du, hots, azken urteetako joerari buelta ematea. Horretarako, ikusitako beharrak alde batetik ondare eraikiaren optimizazioaren bidez estali beharko lirateke hutsik dauden etxebizitzak mugiaraziz eta oraingo eraikinak birgaituz, edo indarreko planeamenduan hutsik dagoen lurrari dentsitate handiagoa emateko balizko eragiketak eginez, hain zuzen ere berrikuspenaren ereduak desklasifikatuko ez dituenak, 2/2006 Legeak ezarritako gutxieneko eraikigarritasun irizpideen arabera behinik behin.

Udalek ezarri behar dituzte nahitaez garapen planeamendua egiteko eta onesteko eta lurzorua programatzeko proiektuak egiteko epeak, eta programazioaren helburua Ereduko etxebizitzak egitea da eta ez Eskaintzakoak. Hala, udalerriak hautatzean gehieneko eskaintzan, beharrezkoa baino askoz etxebizitza gehiago egingo lirateke.

Aldi berean, garapenaren sekuentzia logikoaren erantzuleak dira, planeamendurako lehentasunen oinarrizko ordena zehaztuko duten baldintza objektiboak ezarriz. Orubeak eraikitzeko eta egon dagoen eraikina birgaitzeko gehieneko epeak ere finka ditzakete.

#### 7.2.2.4.b. Ondare eraikiaren eta urbanizatuaren optimazioa etxebizitzaren ikuspegitik.

Honako dokumentu honen xedea hiri lurzoru finkatuen eta ondare eraikiaren arloko jarduketa aktiboa lehenestea da, egon dagoen egoitzako higiezinen parkea berreskuratzeko, halako moldez non haien baldintzak, betekizunak eta

etekinak etxebizitza eraiki berriekin bateratzeko joera izango baita. Hortaz, handitu egingo da egoitza eskaintza eta, beraz, lurraren kontsumoaren beharra txikiagoa izango da.

Ondare eraikiaren eta urbanizatuaren optimizazioaren ardatzak, funtsean, jarduketa-ildo hauek izango lirateke:

- Hutsik dauden etxebizitzen eta alokairuko etxebizitzen arloan jarduteko mekanismoak bideratzea.
- Etxebizitza birgaitzea. Egon dagoen eraikina zaintzea eta hobetzea.
- Tipologiak aldatzea eta egungo eskariekin bat datorren moduluei egokitzea.

### 7.2.2.4.b.1 Hutsik dauden etxebizitzen eta alokairuen etxebizitzen arloan jarduteko mekanismoak bideratzea.

Durangoko Eskualde Egituran, hutsik dauden eta berriro erabil daitezkeen etxebizitza asko daude. Hala eta guztiz ere, esku-hartze horren eraginezko etxebizitza okupagarrien gaitasuna berez ez da eskaintza eragilea, esku-hartze mekanismoak behar baititu, etxebizitza merkatura irteteko eta eskaintza bideragarria izateko.

Agerikoa da hutsik dauden etxebizitzen kudeaketaren konplexutasuna, neurri batean hutsik dagoen etxebizitzaren definizioa emateaaren ondorioz; izan ere, funtsean udalaren eta Eusko Jaurlaritzaren administrazioaren arloari dagokio definizioa, betiere etxebizitzon gaineko arauak Eskualde Egituraren mailan ez baizik eta EAEren mailan egin behar izateari begira.

Hutsik dauden etxebizitzei dagokionez, araudia hartu behar da kontuan, hauexek hain zuzen: Etxebizitza eta Gizarte Gaien sailburuak 2003ko apirilaren 22an emandako Agindua, “Hutsik dauden etxebizitzen programa” esleitzeko prozedurari eta lagapen baldintzei buruzkoa, eta hura aldarazi zuen 2004ko azaroaren 26ko Agindua.

Eusko Jaurlaritzak 316/2002 (eta ondorengo aldaketak) Dekretuaren bidez ezarri eta arauturiko “Hutsik dauden etxebizitzen programa” garatzen du

lehenengoak, eta besteak beste, hauexek arautzen dira: titularrek etxebizitzaren erabilera Alokairuko Etxebizitzak Kudeatzeko Sozietate Publikoaren alde lagatzeko eta hitzartzeko modua, balizko errentariak hautatzeko eta esleitzeko prozedura eta Eskatzaileen Erregistroan (Etxebide) izena ematearekin batera joan den “etxebizitza eskuragarrien poltsa” zabaltzea.

“Alokairuko Etxebizitzak Kudeatzeko Sozietate Publikoa” sortu da 126/2007 Dekretuaren bidez “Hutsik dauden etxebizitzen programa” kudeatzeko, 316/2002 Dekretuaren baldintzetan, baita hari atxikitzeko etxebizitzen gestioa egiteko ere, sozietatearen esku jar daitezen errentamendu araubidean.

Alokairua sustatzeko eta etxebizitza publikoaren ondarea bera kudeatzeko irizpideari dagokionez, bidezkoena da udal planeamenduak biztanleriaren beharrizanei buruzko azterlan bat egitea, jabetza edo alokairuko araubide motei dagokienez, eta horren arabera jokatu.

Bidezkoa da esatea 2006-2009ko Etxebizitzaren Plan Zuzentzaileak, Gobernu Kontseiluak 2006ko urriaren 3an onetsiak, horiek araubide guztiak dakartzala, Lurzoruaren Legean araututa ez daudenak, eta alokairuko etxebizitza babestuaren parke iraunkorra handitzeko helburu orokorra planteatzen du, alokairuko etxebizitza babestuaren sustapena bultzatuz nahiz erabilitako etxebizitzen alokairua babesturiko errenten mailetara iristeko neurriak sustatuz.

Plan horren xedea babesturiko bi alokairu-parke mota bultzatzea da: babesturiko alokairuko parke publikoa eta babestutako alokairuaren parke pribatua. Zuzkidura-etxebizitzek, gizarte etxebizitzek eta gobernuaren edo udalaren titularitateko alokairuan dauden babes ofizialeko etxebizitzek osatuta dago lehengoa eta, bigarrena berriz, herri administrazio batekin hitzarturiko titularitate pribatuko alokairuan dauden babes ofizialeko etxebizitzekin egongo da osatuta. Planaren barruan, Alokabide ezarri da Euskadiko alokairuko etxebizitzen parkearen ereduko kudeatzaile.

### 7.2.2.4.b.2. Etxebizitzaren birgaikuntza. Lehendik dagoen eraikina kontserbatzea eta hobetzea.

Lurraldearen Antolamenduari buruzko 4/1990 Legeak dakarren ondare urbanizatua eta eraikia zaintzeko eta hobetzeko estrategien barruan, Birmoldaketa, Birsorkuntza eta Birgaikuntza deritzen horien barruan (Berrikuntza estrategiei buruzko kapituluan azalduak), hiru Birgaikuntza-eremu proposatzen dira Durangoko Eskualde Egituran, dokumentazio grafikoan bilduak.

Horietako bik Eskualde Egituraren barruan berebiziko garrantzia duten bi alde zahar historiko hartzen dituzte, Durangoko alde zahar historikoa eta Elorrioko alde zahar historikoa, Birgaikuntza Integratuko Alde gisa hasiak, arkitekturaren edo hirigintzaren aldetik duten balio nabarmenagatik; balio horiek 317/2002 Dekretuaren bidez arautu dira.

Hirugarrena Errotatxo auzunea da, Berriz udalerrian; izan ere narriaturiko eremutzat hartu da, zeren, 317/2002 Dekretuan jasotakoaren araberakoa, bertako arkitektura- edo hirigintza-balioak nabariak izan ez arren, urbanizaturiko eta eraikitako ondarearen narriadura-egoera ikusita, hori egitea komeni baita.

Dokumentazio grafikoan jasotako eremu horiek ez ezik, Udal Planeamenduak beste eremu batzuk ere finkatu ahal izango ditu, horiek ere birgaitzeko.

Urbanizaturiko eta eraikitako ondarearen kontserbazioa eta hobekuntza, zalantzarik gabe, balio historiko berezirik gabeko ezein eremutan ez dauden lurzoru finkatuetara heldu behar da; gainera, bidezkoa bada, udal-planeamenduak askoz ere sentikortasun handiagoa izan behar du ondare-balio berezirik gabeko eremu horietan, eremuok sarritan erakargarritasun txikiagoa baitute ekimen pribaturako. Finkaturiko eremu horiek, oro har, hiri-kalitatean eta eraikuntzan gabezia nabariak dituztenak dira, eta bertan, berrikuntza integraleko eragiketak egin behar dira, eraikitako eta urbanizaturiko espazioa kontuan hartuta.

### 7.2.2.4.b.3. Tipologien aldaketa eta egungo eskariekin bat datozen moduluetara egokitzea.

Aurreko ataletan esan dugunez, familien batez besteko tamainak behera egin du azken urteotan, eta pentsa daiteke datozen urteotan ere joera horixe egongo dela; beraz, tamaina txikiagoko eta, hortaz, kantitate handiagoko etxebizitza-moduluak aukeratu beharko dira, bai oraingoetan eta bai gero egiten direnetan oinarrituz.

Agerian gelditu da lurzoru urbanizaezinean dauden eraikinen salbuespena, aintzat hartuta talde-etxebizitzaren tipologia ez dela lurzoru mota horretara egokitzen.

Erakinen beheko aldeak etxebizitzatzat erabiltzeari dagokionez, batik bat kale nagusietan eta finkaturiko hiriguneen barruan dauden eraikinetan, gure ustez, esku-hartze hori ez da jarduketa positiboa; izan ere, eredu mistoaren arabera, jarduera ekonomikoa eta egoitza espazioan integratuta, ez da komeni jarduera ekonomikoa hiriguneen kanpoaldera eramatea, azken horren ehuneko bat, merkataritza-erabileretarako ez ezik, etxebizitzarekin bateragarriak diren hirugarren sektoreko, zerbitzuetako edo industriako jarduera guztietarako ere erabili behar baita (zuzkidura publikoak eta pribatuak ere barne). Horri dagokionez, lehendik egindako eraikinetan, jarduera ekonomiko hori edukitzeko kokalekurik onenak beheko solairuak izan daitezke, eta horietan, gainera, eraikinaren beste solairu batzuetan zenbait kasutan funtzionamendu irregularra dutenak ere sartu ahal izango dira (batez ere, bere garaian goiko solairuetan —behekoak baino merkeagoak— kokatu ziren bulegoak, klinikak, akademiak eta beste jarduera liberal batzuk).

Hala eta guztiz ere, helburuak ez dira beheko solairuak bakarrik; izan ere, eremu bakoitzeko erabileren mistifikazioa lortzeko, eraikin osoak etxebizitzarekin bateragarriak diren halako jarduéretarako erabil daitezke.

### 7.2.2.4.c. Planeamenduak hutsik duen gaitasunaren optimizazioa.

Indarreko planeamenduaren gaitasunari dagokionez, horren optimizazioa egin behar da, LZPn eta Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legean ezarritako estrategiaren arabera, lehendik garaturiko eremuen erabilerari lehentasuna emanez, lurzoru berriak kolonizatu baino lehen.

Kontuan hartu behar da, 2/2006 Legea indarrean sartu zenean, bertako bigarren xedapen iragankorrean oinarrituz, gehieneko eta gutxieneko eraikigarritasunak ezarri zirela; plan orokorrek eta planeamenduko arau subsidiarioek, behin betiko onetsitakoak ere bai, nahitaez bete behar dituzte, baldin eta, horiei dagokienez, lege hau indarrean sartzeko egunean antolamendu xehaturik onetsita ez badago; horrenbestez, oraingo planeamenduaren gaitasuna handitu egin daiteke, gutxieneko eraikigarritasuna aplikatuta.

Horrela, Legeko 77. artikuluan, finkatu gabeko hiri-lurzorurako eta lurzoru urbanizagarrirako, sestra gainean ezartzen den gutxieneko eraikigarritasun fisikoa (zuzkidura publikoak ez diren erabileretarako), orokorrean, ez da honako indize hau aplikatzearen ondoriozkoa baino txikiagoa izango: eremuaren edo sektorearen azalerari lurzoruaren metro koadro bakoitzeko 0,4 metro koadroko indizea, sistema orokorretarako lurzorua kontuan hartu barik. Hirigintza-garapenen helburuko lurzoruek %15eko edo hortik gorako malda dutenean, indize hori 0,3 metro koadrokoa izango da, lurzoruaren metro koadro bakoitzeko. Babeseko etxebizitzarako lurzoru-erreserbarik egin behar ez duten udalerrietan, indizea sabaiko 0,25 metro koadrokoa izango da, lurzoruko metro koadro bakoitzeko.

Eraikigarritasunaren balizko hazkundeen ondorioz, LZPn ezarritakoaren arabera, indarreko planeamenduko etxebizitzen hazkunde egokia ekarriko lukete hazkundeok, egungo familia ingurunerako egokia den etxebizitza-moduluaren arabera.

Gehieneko eraikigarritasunari dagokionez, udal bakoitzak bere ingurura egokitu behar du eraikigarritasuna, udalerri bakoitzaren nortasunari eutsi ahal izateko.

Udal planeamenduaren berrikuspenak bere eredua berretsi edo berrikus dezake, edo indarreko planeamendutik desklasifikatu edo deskalifikatu. Horri guztiari kalterik egin gabe, LZPk, udal harrera-gaitasuna aintzat hartzeko, planeamenduan hutsik dauden eremuak ezarri ditu haien egungo egoeran.

Jarraian, hutsik dagoen planeamenduaren taula agertzen da.

***HUTSIK DAGOEN PLANEAMENDUA***

| Udalerria | Plangintza tresna | Behin Betiko Onespena | BOB Erabakia | BOB Arautegia | Planeamenduan dagoen etxebizitzen kopurua | Planeamenduaren edukiera betegabea |
|---|---|---|---|---|---|---|
| *DURANGOKO E.E.* | | | | | UR+UZ | UR+UZ |
| *Abadiño* | AS b | 06/02/1987 | 06/06/1987 | 29/05/1989 | 1.303 | 492 |
| *Durango* | AS b 1. berrik. | 12/09/2003 | 25/09/2003 | 25/04/2005 | 3.752 | 3.147 |
| *Iurreta* | AS b | 29/11/1999 | 26/01/2000 | 03/12/2001 | 778 | 674 |
| *Izurtza* | AS b | 17/01/1995 | 14/02/1995 | 23/09/1996 | 64 | 48 |
| | | | | | 5.897 | 4.361 |
| *Amorebieta-Etxano* | AS b | 15/07/1999 | 19/08/1999 | 29/01/2001 | 4.127 | 2.169 |
| *Elorrio* | AS b | 20/12/1991 | 17/01/1992 | 01/02/1993 | 1.134 | 586 |
| *Atxondo* | AS b 1. berrik. | 18/11/1998 | 14/12/1998 | 10/05/1999 | 203 | 117 |
| *Berriz* | AS b 1. berrik. | 16/09/1997 | 08/10/1997 | 02/02/1998 | 761 | 269 |
| *Garai* | AS b | 05/08/1992 | 01/09/1992 | 02/11/1992 | 47 | 12 |
| *Mañaria* | AS b | 22/12/1995 | 25/01/1996 | 23/10/2002 | 89 | 61 |
| *Zaldibar* | AS b 1. berrik. | 17/01/1995 | 14/02/1995 | 10/03/1997 | 804 | 289 |
| | | | | | 7.165 | 3.503 |
| **GUZTIRA** | | | | | **13.062** | **7.864** |

**UZ:** Lurzoru urbanizagarria
**UR:** Hiri lurzorua
**Iturria:** 2008ko abenduaren eguneraturiko GIS

Ondoko taulan, behin betiko onetsi diren udal planeamenduetako Ereduko hazkundeko etxebizitzak jaso dira, bai hiru lurzorukoak, bai lurzoru urbanizagarrikoak. Halaber, hutsik dagoen planeamenduko etxebizitzen kopurua azaltzen da, 2008ko abenduan burutzeke geratuko litzatekeena, hain zuzen ere "Planeamenduan hutsik dagoen gaitasuna" deritzona.

Udal planeamenduak, 2/2006 Legean ezarritako gutxieneko eraikigarritasunak aplikatu ondoren behinik behin, kontuan izango du etxebizitzen hazkundea, oraindik hustzat hartzen diren lurretan eraikigarritasuna egokitzeak ekarriko lukeen hazkundea, betiere harturiko eraikigarritasunaren arabera.

Horrenbestez, adierazitako irizpideen arabera, Udal Planeamenduaren esku uzten da hutsik dagoen ahalmena hobetzea. Hala ere, baimendutako gehieneko eraikigarritasunaren inguruko kezka adierazi da LZP honetan, zeren eta legezko posibilitate hori bolumenaren aldetik desegokia izan bailiteke hura finkatzen den ingurunearekin, eta nahi ez diren eraginak ekidin behar dira.

### 7.2.2.4.d. Okupazioaren mugako eremuak.

LZPren ondoreetarako, hirigintza-garapen berrien bidezko okupazioaren mugako eremuak izango dira Lurralde Eredua Planoan jasotako lurralde-eremuak; horietan, udal-planeamenduaren agiriek hurrengo 16 urteotarako proposaturiko hazkundeak egon daitezke, eta, horietatik kanpo, ez daiteke hirigintza-garapenik egin.

Okupazioaren mugako eremuak, izan ere, hurrengo urteotako hazkundea mugatzeko azalerak dira. Eremu horien ezaugarriak honako hauek dira:

1) Ez dira egokitzen eskaintzarako ezarritako gehieneko mugetara, eta udalei ordezko okupazioak ahalbidetzen dizkiete, adierazitako eremuen barruan; hau da, lasaiera bat dago lurzoru berriak hautatzeko, eta, hortaz, oso-osorik ere ezin daitezke okupatu.
2) Sistema orokorren sareko zuzkidura publikoak sartzeko ahalmena dute, hain zuzen ere, eremu askeak eta taldeko ekipamenduak,

beharrezkoak izanez gero, edo bestela, babesturiko egoitza-zuzkidurak.

3) Eremuak ezarri ondoren, lurzoru berri okupaziorako aukerak emateko asmoz, gerta daiteke, egoitzarako eraikitako eta urbanizaturiko ondarean egindako jarduketen ondorioz (Eskualde Egituran lurzoruaren kontsumoa geldiarazteko), eremu horietan beste ezein azalerarik okupatu behar ez izatea.
4) Azalerarik okupatu ezean, edo okupazioaren mugako eremuetariko batzuk soilik okupatzen badira, gainerako eremuan planoan ezarritako ingurune fisikoaren berezko kategoriak ezarriko ditu Udal Plangintzak.
5) Indarreko udal-planeamenduak (LZP idazteko unean) finkaturiko eremuekin edo garatzeko aurreikusita daudenekin jarraian proposatu dira, eta saihestu egingo dira hirigintza isolatuak eta oraingo hiriarekin loturarik ez dutenak. Hautapeneko beste irizpide garrantzitsu bat garraiobide publikoetarako hurbiltasuna da.
6) Eremurik hartzen ez bada edo okupazioaren mugako eremuen zati bat bakarrik hartzen bada, gainerako eremua lagungarria izan daiteke Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen IV. Tituluko I. kapituluko II. Sekzioan ezarritako lurren udal erreserbak sortzeko.

Lurralde ereduko planoetan adierazitako eremuak, eskala aldatzean, garapenerako udal-planeamenduak egokitzeak egin ditzake, errealitate fisikorako egokiena den zehaztapena ezarriz. LZPk grafikoki mugaturiko azalerak aldaketa txikiak ahal izango dira, honako honetara egokitzeko: lerrokadurak, lehendik dauden eraikinak, lurraldearen topografia, natura- nahiz eraikuntza-intereseko elementuen zaintza, bide-egiturarekiko egokitzapena, etab.

Hala ere, euskarri digitaleko egungo tresnek egokitzapen horiek errazten dituztela esan beharra dago, tresnok dakartzaten zehaztapenean ahaztu egin baitaiteke neurri handi batean aipaturiko eskalaren kontua.

Planeamenduak erabil ditzakeen okupazioaren mugako eremuak zehazteko orduan, okupazioko egokitasun-irizpide hauek erabili dira, ikuskatu beharreko udal-planeamenduan oinarrituz, iraunkortasuna sustatzeko:

1. %15etik beherako maldak, batez besteko malda txikiagoa duten eremu urriagoko azalera txikiagoen kasuan izan ezik.

2. Euskal Autonomia Erkidegoko Ibai eta Erreka Ertzen Antolatzeko Lurraldearen Zatiko Planak mugaturiko 10, 100 eta 500 urteko itzultze-aldietan Eremu Ureztagarrien eraginpean ez dauden lurzoruak.
   Eremu ureztagarrien muga hori LZPko informazio grafikoan bildu da, EHLABren 2007ko urriko manuzko txostenaren jarraibideekin bat etorriz, eta Uren Zuzendaritzaren txostena berresten da bertan. Izan ere, txosten horrek LZP behartu egiten du gune horiek grafikoki eguneratzera, egun tramitatzen ari den Ibai eta Erreken Antolamenduko LAPren aldaketaren arabera.
   Gune horiek aldaraz daitezkeenez gero, etorkizuneko edozein aldaketa sartutzat joko litzateke eta egungoen ordez jarriko litzateke eta, hala denean, galarazi egingo lirateke hirigintza garapenak zona berri urreztagarriek ukituriko okupazioaren mugako eremuetan.
   500 urteko itzultze-aldian eremu ureztagarriek ukituriko lurrak baztertu egin dira okupazioaren mugako eremuak zehaztean, eta plangintzak haien balio edafologikoagatik ere erabil ditzakeenez gero, balio estrategiko handiko kategorian sartu dira. Funtsean, bat dator hasieran onetsitako nekazaritza-basogintzako LAPrekin
   LZPk hartutako irizpide horiek berrikuspenetan edo egungo behin betiko onetsitako udal plangintzako okupazio eremuen aldaketan aplikatu beharko dira. Dagoeneko onetsita dauden plangintza horiek eremu ureztagarrien ingurukoak direla ulertu behar da; izan ere, Uren Zuzendaritzak eremuok baloratu eta haien loturak sartu ditu dagoeneko Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduko Batzordearen manuzko txostenen bidez.

3. Babes Aparteko Lurzoruak izenpean dauden kategorietan eta Gainazaleko Uren Babesa kategorian jasota ez dauden lurzoruak.

### 7.2.2.5. Egoitza-ereduaren ezaugarriak

#### 7.2.2.5.a. Etxebizitza bakoitzeko dentsitatea eta eraikitako azalera.

LZPk, hazkundearen mugako eremuak proposatzeko orduan, azterturiko lurralde-eremuaren harrera-gaitasuna aztertzen du, eraikuntza-bolumena lurraldearen morfologiaren araberakoa izateko.

Hala eta guztiz ere, aintzat hartu behar dira Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeak ezarritako gutxieneko eraikigarritasunak: irizpide orokortzat, lurzoruaren metro koadro bakoitzeko 0,4 metro koadro; %15etik gorako malda duten lurzoruetan, lurzoruaren metro koadro bakoitzeko 0,3 metro koadro; babes motaren bat duten etxebizitzetarako lurzoruaren erreserbak egin behar ez dituzten udalerrietan 0,25 m2/m2 (Eskualde Egituraren kasuan, udalerriok Garai, Izurtza, Mañaria eta Atxondo.

Halaber, egoitza-erabilera orokorreko lurzoru guztiek gutxienez %10eko erreserba (eremuko egoitza-azalera eraikiari dagokionez) edukitzearen aldeko apustua egiten da, jarduera ekonomikoak kokatzeko; horien artean, beste batzuekin bateragarria den industria-erabilera ez ezik, hirugarren sektoreko erabilerak ere egongo dira, adibidez, merkataritza, bulegoa eta zuzkidura pribatuko beste zerbitzu batzuk (besteak beste, hezkuntza, osasuna, gizarte-zerbitzuak, kirola, kultura eta antzeko beste batzuk).

Dentsitatearen parametroa (hektarea bakoitzeko etxebizitza kopurua) estu lotuta dago eraikinen tipologiarekin.

LZPk, okupazioaren mugako eremu bakoitzari, hektarea bakoitzeko etxebizitza-dentsitatea esleitzen dio, baita etxebizitza bakoitzeko eraikitako batez besteko azalera eta kasu bakoitzean egokitzat hartzen diren beste erabilera batzuetarako eraikigarritasun-ehunekoa.

Aitzitik, LZPk ez du ezarri beren beregi “dentsitate” parametroa, zeren eta balio-tarte batekin adierazten baitira tarteak, 2/2006 Legearen irizpideak osatu nahian, eraikigarritasunak, berez, ez baitu bermatzen lurzoruan nahi den

zentzuzko erabilera intentsiboa, eta eraikigarritasun berari egokitu dakizkioke oso dentsitate desberdinak erabilitako tipologiaren arabera. Hortaz, azterlantzat hartu behar da dentsitatearen, etxebizitzaren batez besteko tamainaren eta eraikigarritasunaren arteko erlazioa; izan ere, agerian uzten du dentsitate-hazkundeak ez dakarrela berekin eraikigarritasun-hazkunderik.

Horregatik, LZP honen lurralde eremua oso-osorik egiten du dentsitate ertain eta altuko tarteen aldeko apustua lurraldea hartzeko azterlan tipomorfologiko gisa. Ñabardura bat egin behar da ordea: garapen berrietan ere errespetatu behar dela horien eta ingurunearen arteko erlazioa eta, beraz, dentsitate horiek ere bateragarriak izan behar dute udalerri bakoitzaren berezko fisonomiari eustearekin eta egon dauden biztanle-guneetako proposamen berrien integrazioarekin.

Dentsitatea, nolanahi ere, sistema orokorretarako lurzorua aintzat hartu barik aplikatzen zaio lurzoru azalerari.

Durangoko Eskualde Egiturako okupazioaren gehieneko eremuetarako dentsitate egokia ezartzeko, honako balio hauek erabili dira:

| |
|---|
| A tartea (ertaina): 30 - 50 etx./ha. |
| B tartea (altua): 50 - 75 etx./ha. |

Dentsitateak ezartzeko, honako hau hartzen da kontuan:

- Hiriguneko ohiko eraikigarritasunak, horietan ohikoak ez diren edo oso baxuak nahiz oso altuak diren eraikigarritasunak baztertzeko, horiek aldaketa kaltegarria ekarriko lioketelako multzoari eta eraikitako eremu txikiagoa duen etxebizitzako erlazioa egokiagoa delako egungo egoerarako.
- Lurraldearen harrera-gaitasun urriko udalerrietan, okupazioaren mugako eremuetarako, horiek gutxieneko dentsitatea eduki behar dute, lurzorua alferrik ez galtzeko.
- Okupazioaren mugako eremu bakoitzak, hirigunearen erditik hurbil dagoenez edo ondoko garapenak dituelako, nolabaiteko dentsitate-bokazioa dauka.

Azken emaitza “okupazioaren mugako eremuak” deritzenen mugaketa grafikoa da, eta horietariko bakoitza dentsitate-bitarte batzuei lotuta dago (A eta B); hori gehienekoak eta gutxienekoak zehazten dute, eta, horien artean, Planeamenduak egokiena aukeratuko du.

Jarraian, erreferentzia gisa, proposaturiko tarteen azterketa bat emango da:

a) A tartearen barruan (dentsitate ertaina) hektarea bakoitzeko 30 etxebizitzatik gorako bitartea sartzen da (gehienez, hektarea bakoitzeko 50 etxebizitza); tarte hauxe esleitzen zaie gehienetan okupazioaren mugako eremuei, egokiena delako, aintzat hartuta dentsitate hau bat datorrela Eskualde Egiturako udalerri askoren dentsitatearekin.

   Tarte horren goiko mugan (hektarea bakoitzeko 50 etxebizitza), kasuan kasuko eremuari lotutako etxebizitza-azalera eraikia ez da 100 m2-tik gorakoa izan beharko, eta beraz, adierazitako batez besteko horretatik gorako eta beherako azalera duten etxebizitzak egon daitezke.

   Tartearen gainerako zatian, eremuko egoitza-azalera eraiki osoak ez du gainditu beharko goiko parametro hori (100 m2-ko azalera) hektarea bakoitzeko 50 etxebizitzako dentsitateari aplikatzearen ondoriozko emaitza.

   Bestalde, eremuko egoitza-azalera eraikia %10ean handituko da, etxebizitzarekin edota ekipamendu pribatuekin bateragarriak diren jarduera ekonomikoak kokatzeko.

b) B tartearen barruan (dentsitate altua), hektarea bakoitzeko 50 etxebizitzatik gorako bitartea sartzen da, hektarea bakoitzeko 75 etxebizitzako gehieneko mugarekin; hori, berriz, halako dentsitateak dituen finkaturiko hiri-egiturarekin jarraian kokaturiko okupazioaren mugako eremuei esleitzen zaie; edo neurri batean okupaturik dauden lurzoruen kasuan edo lurzoru-erabilgarritasun urriko kasuetan ere esleitzen da.

   Tarte horren goiko mugan (hektarea bakoitzeko 75 etxebizitza), eremura loturiko etxebizitza-azalera eraikiaren batez bestekoa ez da 90 m2-tik gorakoa izan beharko; horrela, aurreko ataletan esan

dugunez, batez besteko horretatik gorako eta beherako etxebizitza-azalerak egon daitezke.

Tartearen gainerako zatian, eremuko egoitza-azalera eraiki osoak ez du gainditu beharko goiko parametro hori (90 m2-ko azalera) hektarea bakoitzeko 75 etxebizitzako dentsitateari aplikatzearen ondoriozko emaitza.

Bestalde, eremuko egoitza-azalera eraikia %10ean handituko da, etxebizitzarekin edota ekipamendu pribatuekin bateragarriak diren jarduera ekonomikoak kokatzeko.

Amorebieta eta Durango udalerrietan, haien hirigintza ezaugarriak ikusita, hektareako 75 etxebizitzako gehieneko kopurua gaindi liteke, gehienez 120 etxebizitza hektareako, halako moldez non gehieneko eraikigarritasunak ez bailuke gainditu behar dentsitate horri etxebizitzen 90 $m^2$-ko eremu ertaina aplikatzearen ondoriozko emaitza, eta % 10 handituko litzateke eremua jarduera ekonomikoak edota ekipamendu pribatuak ezartzeko.

c) Dentsitate baxuak (hektarea bakoitzeko 30 etxebizitzatik beherakoak) sortzen duen lurzoru-kontsumoa ez da bateraezina iraunkortasun-irizpideekin. Izan ere, dentsitate baxuari loturiko tipologiak (etxebizitza isolatua, etxebizitza parekatua eta erantsitako txaleta, lorategi pribatuko lursail handiagoarekin nahiz txikiagoarekin batera) ez dira egokitzat hartzen LZPk zehazturiko intentsitate-bitarteetarako.

### 7.2.2.5.b. Egoitza-erabilerari loturiko tipologiak.

Tipologia bi irizpideren arabera aukeratuko da: lehenengo eta behin, zonako eraikuntza-jarraibide tradizionalak errespetatzea; bigarrenez, trinkoa den eta lurzoru gutxi kontsumitzen duen hirigintza-eredua sustatzea, lurzorua baliabide urria baita.

Tipologia egokiena izan behar da, aplikaturiko dentsitatea aintzat hartuta, eta, irizpide orokortzat, honako hauek gomendatzen dira:

a) Dentsitate ertaineko zonetan (A tartea):

Talde-etxebizitzako tipologien erabilera, eta hori, gehienetan, 3-4 solairu inguruko altuerekin garatu ahal da. Tipologia, ahal dela behintzat, herri-arkitekturan oinarrituko da.

b) Dentsitate altuko zonetan (B tartea):

Dentsitate horretarako egokiak diren talde-etxebizitzako tipologiak erabiltzea; eraikuntza motak, tartearen dentsitate ertainaren kasuan, 5 solairuko altuera izan dezake, baina ingurura egokiturik egongo da beti.

Amorebietan eta Durangon, ingurukoaren antzeko solairu kopurura egokitu beharko da eraikuntza, hektareako 75-120 etxebizitzako tartean.

### 7.2.2.5.c. Babes Publikoko Araubideren bati loturiko etxebizitzetarako erreserba.

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legean, biztanleriaren atari batzuk ezartzen dira eta, horien gainetik, udalerriek babes publikoko araubideren bati loturiko etxebizitza-erreserba egin beharra dute. Horri dagokionez, 82. artikuluan ezartzen denez, helburu horretarako lurzoru-erreserba, orokorrean, 3.000 biztanletik gorako udalerriek egin behar dute, baita 2.000 biztanletik gorako biztanleria duten hiri-lurzoruko gune jarraituak dituzten udalerriek ere.

Durangoko Eskualde Egituran Abadiño, Amorebieta-Etxano, Berriz, Durango, Elorrio eta Iurreta udalerriak daude lehen kasuan; izan ere, 3.000 biztanle baino gehiago dituzte. Zaldibar bigarren kasuan dago, zeren eta, 3.000 biztanle ez baditu ere, biztanlerik gehienak hiri lurzoruan baitaude, eta 2/2006 Legea garatzeko Premiazko Neurriei buruzko 105/2008 Dekretuaren etxebizitza babestuaren estandarra nahitaez aplikatu beharreko udalerrien zerrendan sartuta dago. Ez da iristen 2.000 biztanleko kopurura Garai, Izurtza, Mañaria eta Atxondo udalerrietan.

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeko 81. artikuluan, bestalde, zuzkidura-ostatuetarako erreserben gutxieneko zenbatekoak eta estandarrak ezartzen dira; horrela, 20.000 biztanleko edo hortik gorako biztanleria duten udalerrien hirigintza-planeamenduak kalifikatu egin beharko du, egoitza-

erabilera nagusia duten eremuetan (zuzkidura-ostatuetarako) 1,5 metro koadrotik beherakoa ez den lurzoru-azalera, egoitza-erabilerako 100 metro koadroko handitze bakoitzerako, edo bestela, planeamenduan aurreikusitako etxebizitza berri bakoitzerako, edo bestela, gutxienez bi lursail independente sortzeko ehunekoa ezarriko du.

Durangoko Eskualde Egituran, estandar hori Durangon soilik aplikatu ahal izango da. Izan ere, Durangok gainditu egiten du 20.000 biztanleko estandarra.

Udaleko hirigintza-planeamenduak, beste alde batetik, babes publikoko araubideren bati loturiko etxebizitzetarako lurzoru kalifikatuen erreserba ezarri beharko du, eta bertan, 80. artikuluan adierazitako estandarrak eta zenbatekoak beteko dira:

- Finkatu gabeko hiri-lurzoruan, horren betearazpena gehienbat egoitza-erabilerako jarduketa integratuen bidez egin nahi denean, egitamu orokorretako eta egitamu berezietako hirigintza-antolamenduak egoitza-erabilerako hirigintza-eraikigarritasunaren %40 (gutxienez, lehendik gauzatutakoari dagokionez) gauzatzeko lurrak kalifikatu beharko ditu babes publikoko araubideren bati loturiko etxebizitzetarako. Ehuneko hori honelaxe xehatzen da: %20 (gutxienez) araubide orokorreko zein bereziko babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzeko, eta gainerako ehunekoa (%40ra heldu arte), berriz, tasaturiko araubideko babes ofizialeko etxebizitzetarako.
- Gehienbat egoitza-erabilera duen lurzoru urbanizagarrian, egitamu orokorretako eta egitamu berezietako hirigintza-antolamenduak egoitza-erabilerako hirigintza-eraikigarritasunaren %75 (gutxienez, lehendik gauzatutakoari dagokionez) gauzatzeko lurrak kalifikatu beharko ditu babes publikoko araubideren bati loturiko etxebizitzetarako. Ehuneko hori honelaxe xehatzen da: %55 (gutxienez) araubide orokorreko zein bereziko babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzeko, eta gainerako ehunekoa (%75era heldu arte), berriz, tasaturiko araubideko babes ofizialeko etxebizitzetarako.

- Bi kasuotan, araubide tasatuko babes ofizialeko etxebizitzetarako onarturiko hirigintza-eraikigarritasunaren ordez, udal-etxebizitza tasatuak egin daitezke, Legean bertan ezarritakoaren arabera.

Lurzoru bereziaren erabilgarritasuna funtsezko faktorea da etxebizitza-jarduerak garatzeko. Horrela, udalek, udal-planeamenduaren bidez, epeak finkatuko dituzte garapeneko planeamendua egiteko nahiz garatzeko eta babeseko etxebizitza eskariari (sustapen publikoa edo pribatua) erantzuna emateko lurzorua programatzeko, ereduaren gehieneko etxebizitza kopurua aintzat hartuta (eta ez eskaintzaren barruko etxebizitza kopurua).

Hala eta guztiz ere, Eskualde Egiturako udalerri batzuek legez ez dute zertan halako lurrik erreserbatu, ez baitira ezarritako gutxieneko biztanle kopurura iristen. Dena den, udalerri txiki horiek jasaten dituzte, neurririk handienean, biztanleriaren lekualdatzeak, Eskualde Egiturako erreferentziako udalerrietara; izan ere, bertan etxebizitzak merkeago daude, batez ere lehenengo etxebizitza lortzeko. Horrenbestez, udalerri txiki horiek babeseko etxebizitza garatzeko ekimenak koordinatu eta sustatu beharko dituzte.

Horri dagokionez, 2/2006 Legeko 27.4 artikuluan ezartzen denez, bertan arauturiko batez besteko hirigintza-eraikigarritasunaren %10aren lagapena lursail eraikigarrian gauzatu beharko da. Babeseko etxebizitzarako erreserbarik zertan egin ez duten udalerriek, baldin eta eremua, sektorean edo, bestela, egoitza-erabilera nagusiko betearazte-unitatean horretarako lurzoru erreserbarik egiten ez badute, babes publikoko etxebizitzarako erabili beharko dituzte horrelaxe lorturiko lursailak.

Indarreko legeriaren aplikazioaren eraginpean ez dauden udalerrietan, komenigarria izango litzateke alokairu-araubideko etxebizitzen parkea edukitzea, hori gehienetan salerosketakoa baino malguagoa baita. Azken batean, udalerriak inplikatu egin behar dira helburu horretarako lurzoruaren udal-ondarearen sorreran, eta babes publikoko etxebizitzen parkea egonkor mantendu behar da, hori aske ez bihurtzeko; halaber, azalera-eskubidea erabili eta, orokorrean, alokairua sustatu behar da, bai lehendik dagoen nahiz

etorkizunean egingo den etxebizitzan, gazte-sektoreek egoitza-malgutasun handiagoa edukitzeko.

### 7.2.2.5.d. Egoitza Ezarkuntzetarako lurzoruan aplikatzeko zehaztapenak.

Lurralde-eredua Egoitza Ezarkuntzetarako lurzoruan ezartzeko, oro har, honako irizpide hauek aplikatuko dira:

a) Udal-planeamenduak ezarritako hirigintza-garapen berriek ez dituzte gaindituko okupazioaren mugak, LZP honetako Lurralde ereduaren planoan adierazitakoak, eta gainera, errespetatu egingo dute proposaturiko dentsitatea.
b) Hektarea bakoitzeko etxebizitza-dentsitatea, garapen-eremu bakoitzean, egoitza-sektorearen azalera da; okupazioaren mugako eremuek, berriz, Sistema Orokorrak hartzeko gaitasuna dute, eta, kasu horretan, dentsitatea lurzoruaren azalerara aplikatuko da, sistema orokorra aintzat hartu barik.
c) Egoitza-dentsitate ertaina edo altua duten okupazioaren mugako eremu guztietan, horien dentsitatea hektarea bakoitzeko 30 etxebizitzatik gorakoa denean , %10ean handituko da eremuko egoitza-eraikigarritasuna, jarduera ekonomikoak kokatzeko; horien artean, etxebizitzarekin bateragarria den industria erabilera ez ezik, hirugarren sektoreko beste batzuk ere egon daitezke, adibidez, merkataritza, bulegoa eta zuzkidura pribatuko beste zerbitzu batzuk (esaterako, hezkuntza, osasuna, gizarte-zerbitzuak, kirola, kultura eta antzeko beste batzuk).

### 7.2.2.5.e. Hiriko hazkunde- eta eraldaketa-prozesuak antolatzeko irizpideak.

Azkenik, hiriko hazkunde- eta eraldatze-prozesuak antolatzeko oinarrizko irizpide hauek eskaintzen dira, udal-planeamenduak kontuan hartzeko:

- Ekipamendu berrirako esku-hartzeak egitea, eremu trinkoetan, hutsik dauden lurzoruen eta higiezin publikoen presentzia aprobetxatuz.
- Ingurumen-hobekuntzako eta gizarte-integrazioko ekintzak konbinatzea, kanpoaldeko auzoetan. Horretarako, benetako talde-eremuak sortu eta ekipamendu publikoak (kultura- nahiz aisialdi-

zentroak, kirol-eremuak, zahar-etxeak gazte-egoitzak, etab.) kudeatzeko sistemak ezarri behar dira, gizarte-kohesioa sustatzeko.

- Hutsik dauden edo zaharkituriko jarduerekin (industria ezegokiak, etab.) okupaturik dauden guneak aprobetxatzea, baldin eta kokaleku ona badute jarduera-eremu berriak sortzeko, horiek lagungarriak izango baitira zuzkidura, zerbitzuak eta ekipamenduak sortu ahal izateko; horrela, konpentsatu egingo dira egoitza-erabileraren gehiegizko monotoniaren ondorio kaltegarriak (logela-auzoak). Halaber, garrantzitsua da merkataritza-jarduerak (komunikazio-arteria nagusiei loturiko guneetan isolatzeko joera) hirian integratzea, merkataritza gune irekien eta auzoko guneen (kanpoaldean) forman.
- Lurraldea erabiltzeko eredu iraunkorrak aukeratuko dira, urrun daudelako edo dentsitate baxua dutelako talde-garraioaren bidez zerbitzatu ezin diren egoitza-azalerarik ez sortzeko. Horri dagokionez, dentsitate handiek itotzea eta asetzea sortzen duten bezala, egoitza-dentsitate baxuegiek ingurumen- eta ekonomia-zamak sortzen dituzte epe ertainean, eta horiek, aldi batean, ez dira iraunkorrak, lurzoru-azalera handia (lurraldean baliabide urria) kontsumitzen baitute. Hau da, “lurzoru-azalera txikia” erabiltzeko irizpidea aplikatu behar da.
- Familia-ereduaren aldaketara egokituriko etxebizitza-tipologiak ikertzeko eta garatzeko proposamena egiten da; eredu hori, izan ere, pertsona edo guraso bakarreko familia sortzearen eta familien batez besteko tamaina murriztearen eraginezkoak dira.
- Gainera, egoitza-erabilerarako edo gogaikarria ez den industria txikirako sailkatzen diren lurrak, ahal den neurrian, oraingo guneari jarraituz kokatzeko ahalegina egingo da; horrela, perimetro-kontaktu ahalik eta handiena eta oraingo bide-sarearekiko zuzeneko lotura egongo da, eta gainera, guneko hiri-egiturarekiko garapen integratua ahalbidetuko da. Sektore, unitate edo industrialde berriak zuzeneko lotura ahalik eta handiena izango du oraingo hiri-egiturekin, baldintza topografiko bereziak daudenean izan ezik.
- Ahal izanez gero, saihestu egingo dira sortu beharreko eta oraingo nahiz aurreikusitako hiri-egituren arteko hutsuneak edo etenak, baldin eta eraikuntzarik gabeko espazioak zuzkidura-sistema orokorretara edo espazio askeen nahiz zona berde publikoen sistema orokorrera bideratzen ez badira. LZP honen lurralde-eredutik proposaturiko ezarkuntza-sistemarekin koherentzia mantendu behar da; bertan, gune

tradizionalak indartzeari lehentasuna ematen zaio, ezarkuntza berri barreiatuak sortzeari dagokionez; gainera, hazkunde berrien antolamenduak koherentzia espaziala izan behar du oraingo hiri-egiturekin.

- Betiere, lehentasuna emango zaie ingurumen-eragina ahalik eta gehien murrizten duten hirigintza-jarduketei eta LZPk babesturiko lurzoruak mugatzearen eraginez ezarritako baldintzei.

# 8. JARDUERA EKONOMIKOA

## 8.1. Sektore ekonomiko desberdinen egoeraren azterketa eta diagnostikoa.

### 8.1.1. Industria-jardueraren eraginpeko garapen ekonomikoa

Durangoko Eskualde Egiturak EAEn duen kokaleku estrategikoak (Bilbo Metropolitarreko Eskualde Egituraren itotze maila handiaren eta ingurumen-narriaduraren eragina duena), bertako inbertsio-dinamikak, landunen bilakaerak, hango produkzio-egituraren tertziarizazio-prozesu gero eta handiagoak eta sektore horrek ikuspegi estrategikotik duen garrantziak sortzen duten eszenatokia baliozkoa da Eskualde Egiturako dinamika ekonomikoaren garapena aukeratzeko, bertarako lurralde-eredutzat.

Eskualde Egiturako jarduera ekonomikoaren dinamikaren eta industriako nahiz hirugarren sektoreko jarduerek duten kokalekuaren ondorioz, erreferentziako lau udalerri dituen tokiko produkzio-egitura sortu da: Durango, Iurreta, Amorebieta-Etxano eta Abadiño, garrantziaren arabera ordenatuta. Izan ere, horiek Eskualde Egiturako BPG osoaren bi heren baino gehitxoago sortzen dute; gainerako udalerriek (industriako eta hirugarren sektoreko jarduera urriagokoak), nekazaritza- eta abeltzaintza-izaera dute.

Industria-jarduerak oso garrantzitsuak izan dira Durangoko Eskualde Egiturako garapen ekonomikoaren historian; horien protagonismoa, izan ere, zerbitzuek izan dutena baino askoz ere handiagoa izan da. Udalerrietako produkzio-espezializazioa, bestalde, industrialdeen hurbiltasunaren eta Eskualde Egiturako biztanle-gune garrantzitsuenaren (Durango) izaeraren eraginezkoa da: industrian produkzio-espezializazioaren maila oso altua da Amorebieta-Etxanon, Atxondon, Abadiñon eta Berrizen, eta hirugarren sektoreko jarduerak protagonistak dira Durangon, Iurretan eta Elorrion.

Lehen sektoreak garaturiko jardueraren garrantzia, horrek lurraldearen %80an eragina izan arren, txikia da, eta gehienbat abeltzaintzakoak diren ustiapenetan kokatzen da; ustiapenok lurraldean dibertsifikaturik daude, txikiak dira, familia-izaerako ustiapenak dira, produkzioa saltzera bideraturiko zatia urria da eta ezarkuntza maila oso desberdinak dituzte.

Ondoren, sektore ekonomiko bakoitzaren azterketa zehatzagoa egingo da:

### 8.1.1.1. Lehen sektorea.

Ikuspegi ekonomiko hutsetik begiratuta, lehen sektoreak (nekazaritza, abeltzaintza eta basoa) garrantzi txikia dauka Durangoko Eskualde Egiturako produkzio-egituran, Lurralde Historikoan eta EAE osoan dauden batez bestekoak baino askoz ere txikiagoa.

Azken urteotan intentsifikatu egin da lehen sektorearen garrantzia urritzeko joera, eta, hain zuzen ere, nekazaritzan diharduen biztanle kopuruak %40ko murriztapena izan du. Joera hori, neurri batean, EAEko landa-munduko egitura sozioekonomikoen dinamika komunen eraginezkoa da, eta, hain zuzen ere, nekazaritza-biztanleria zahartzearen, belaunaldi-txandarik ez egotearen eta lanaldi partzialeko nekazaritza gero eta gehiago orokortzearen eraginezkoa; izan ere, nekazaritza-errenta industriako edo zerbitzuetako lanaren diru-sarreren osagarritzat erabiltzen da.

Nekazaritza-sektorearen eragin ekonomikoa baxua bada ere, horrek eragin handia dauka lurraldean, paisaian eta ingurumenean, bertara loturiko erabilerek Eskualde Egituraren lurraldearen %88 betetzen baitute. Larreak eta baso-azalerak (zuhaitzak dituzten azalerak eta sastrakak nahiz belardiak dituztenak), euren ezaugarri topografikoak eta fisiografikoak aintzat hartuta, baso-erabileren barruan sartzen dira.

Nekazaritza-produkziorako soilik diren zonak, aldiz, lurraldearen %1era baino ez dira iristen; Ibaizabalen eta horren ibaiadar nagusien haran estuetan kokatzen dira; zona horietan, azpiegitura- nahiz industria-erabilerak lehiatu egiten dira udalerrietako egoitza-erabilerekin eta etorkizuneko hiri-erabilera gero eta handiagoekin. Nekazaritza-erabilerak, igarobide horietan, hirigintza- eta azpiegitura-aprobetxamenduen arteko bitarteetara bazterturik gelditu dira, baita alubioi-lautada inguratzen duten mendi-lerrokaduren maldetara bazterturik ere.

### 8.1.1.2. Bigarren sektorea. Industria-eraldaketako jarduerak.

1. Durangoko Eskualde Egituran, eraldaketa-jarduerek eragin handia izan duten garapen ekonomikoaren historian, eta zerbitzuek baino protagonismo handiagoa izan dute. Produkzio-egituraren erdigunean industria egon da eta horrek funtsezko eginkizuna izan du harreman ekonomikoetan eta errentaren sorreran. Horrela, industria-adarrek Eskualde Egituran izandako garrantzia, 1996an, eremuko produkzio osoaren %55,6koa izan zen; EAEn %35,9koa izan zen eta Bizkaiko Lurralde Historikoan %35,9koa. Eskualde Egiturako industriek, 1996an, Lurralde Historikoko BEG osoaren %13,9 sortzen zuten.

2. Produkzioaren dibertsifikazio urria eta Metalurgiaren nahiz Metalezko Eraldatuen espezializazio handiagoa dago, eta horixe da Eskualde Egiturako balizko hazkunde ekonomikoaren ahultasun nagusienetarikoa. Hain zuzen ere, 50 langiletik gorako enpresen %53,1 metalurgiaren eta metalezko produktuen sektorekoak dira; sektore tradizional horiek, berriz, merkatuko kuota tradizionala galtzeko arriskua dute, baina buruzagitza pilaturiko ezagupenean oinarrituz lortzeko eta berritzeko indarra izan dezakete.

3. Lurralde banaketari dagokionez, industria-jardueren espezializazioaren ezaugarri nagusia udalerri txikietan enpresa handiak egotea da, baita Eskualde Egiturako udalerri nagusien inguruan industria-eremuak eta industrialdeak egotea ere. Horrela, aipagarria da Abadiñon dauden enpresa handiak, metalurgian eta industria kimikoan espezializaturik daudenak, edo Atxondoko paperaren eta metalezko eraldatuen nahiz erreminten klusterra.

4. Industria-produkziorik handieneko udalerria Amorebieta-Etxano da. Udalerri horretan produkzioaren dibertsifikazio maila altua dago: metalezko eraldatuak, industria kimikoa, zuraren industria, makinen zein erreminten fabrikazioa, etab. Durangoko toki sektoreko industria-adar nagusiak, izan ere, metalurgiako eta erreminten fabrikazioko jarduera tradizionalak dira.




5. Lehen esan dugunez, Eskualde Egiturako industria-espezializazioa balio erantsi alturik gabeko jardueren inguruan biltzen da, baina jarduera horietan lanesku handia dago, gehienbat zonako giza baliabideekin elikatzen den laneskua.

6. EUSTATen datuen arabera, Durangoko Eskualde Egiturako industria-enplegua, 1996an, 3.034 langilekoa zen. 1986tik 1996ra 1.215 lanpostu galdu ziren Eskualde Egiturako industria-krisiaren eraginpeko industria-adarretan, azpisektore mailako mendekotasun handiegia izatearen ondorioz.

7. Jarduera-adar nagusiak aintzat hartuta, aipagarria da metalurgian eta industria kimikoan izandako galera erlatibo handia, enpleguari dagokionez, Durangoko Eskualde Egituraren barruan. Hala eta guztiz ere, metalurgian lanpostuen suntsipena argi eta garbi egon arren, industria kimikoan langile-jario handia ikusten da, Eskualde Egiturako sektore horren barruan, eta, horrela, Durangon eta Amorebieta-Etxanon enpleguaren gorakada handia ikusten da, beste udalerri batzuen kaltetan.

**ENPLEGUAK INDUSTRIA ADARRETAN DUEN EGITURA**




Iturria : EUSTAT

8. Jarduera Ekonomikoen Direktorioko industria-ezarkuntzen azterketak, Eskualde Egiturari dagokionez, %7,1eko hazkunde handia adierazten du ezarkuntza kopuruan, 1997-2000 aldian, 747 produkzio-zentrotik 800era igarota, eta horrek agerian jartzen du industria jarduerak Eskualde Egituran izandako dinamismoa. Industria-jarduerako zentroen kopuruak Eskualde Egituran izandako bilakaeratik, industria-sektore dinamikoa ondorioztatzen da eta horrek hazkunde iraunkorrak izan ditu ezarkuntza kopuruan; horrela, enpresa-proiektu berriak abiatu eta horiek lanpostu berriak sortzeko aukera eskaintzen dute; lanpostuok toki-enpleguaren eskariak bete ditzake. Lurralde-banaketari dagokionez, produkzio-zentro berririk gehienak Abadiñon, Amorebieta-Etxanon eta Iurretan pilatu dira.

9. Tokiko industria-egituraren presentzia handiena duten industria-adarrek jokabide desberdina adierazten dute, erreferentziako aldian. Zonan produkzio-zentro berriak irekitzearen aldetik, dinamikoenak metalurgia nahiz metalezko produktuak, makinaria zein ekipamendua eta papera, edizioa eta arte grafikoak dira.

10. Durangon dauden industria-ezarkuntzen erdia baino gehiago, izatez ere, metalurgiaren eta metalezko eraldatuen klusterrekoa da. Horri dagokionez, zonan halako industria jardueran dagoen espezializazio maila handia da; jarduera-adar horren barruko produkzio-zentroek industriako zentro guztien barruan izandako garrantzia %51,4koa zen, eta EAEkoa %31,6koa. Aipagarriak dira, halaber, makinerian nahiz ekipo mekanikoan eta garraioko materialetan diharduten industriak.



Iturria: Eustat: Jarduera Ekonomikoen Direktorioa

11. Eskualde Egiturako enpresa-egituraren ezaugarri nagusia enpresa txikiek eta ertainek osatuta egotea da, eta horiek dibertsifikatuak eta malguak dira; hori, azpikontratazioaren eta bitarteko inputen sorreraren aldetik, funtsezko merkatua da, zonako enpresa-egitura osatzen duten eta bertan diharduten enpresa handietarako.

12. Eskualde Egiturako industria-enpresa nagusia ETE da, eta hori hurbilago dago enpresa txikitik (0-10 langile) ertainetik baino (50 langile baino gehiago). Izan ere, zonako enpresa guztien %10 baino ez ziren 50 langiletik gorakoak, 2000n.




Iturria: Eustat: Jarduera Ekonomikoen Direktorioa

13. Nolanahi ere, zonak produkzio-espezializazio nabaria dauka metalurgian, metalezko eraldatuen jardueretan eta garraioko materialetan, eta, horren eraginez, enpresen batez besteko tamaina Bizkaiko Lurralde Historikokoa eta EAEkoa baino handiagoa da. Hain zuzen ere, Eskualde Egituran dauden 50 langiletik gorako enpresa kopurua Bizkaikoa eta EAEkoa baino bi aldiz handiagoa da. Izan ere, Lurralde Historiko osoan dauden tamaina horretako produkzio-zentroen %21 Durangon daude.

14. Produkzio-zentroen tamaina, bestalde, jarduera-adarraren arabera bereizita dago. Horri dagokionez, aipagarria da industria kimikoaren eta garraioko materialaren adarretako establezimenduen tamaina ertain-handia, eta honako adar hauetakoen tamaina txikia: larrugintza nahiz zapatagintza, manufakturak, ehungintza eta oihalgintza, janariak, edariak eta tabakoa.

15. Enplegu-bolumen handia duten enpresen presentzia ikusten da Abadiñon, Amorebieta-Etxanon, Durangon, Iurretan eta Elorrion, eta sektoreei dagokienez, metalezko eraldatuen eta erreminten fabrikazioaren adarretan.

16. Eskualde Egiturako lurraldean dauden jarduera ekonomikoak A-8 Bilbo-Behobia autobidean zehar hedatzen dira, berori baita zonako jarduera ekonomikoa egituratzen duen ardatz nagusia; mendebalde-ekialde norabidea

dauka. Ardatz horrexetan daude industria-establezimendurik gehien duten udalerriak, eta landunik gehienek bertan dihardute.

17. Amorebieta-Etxano, Durango, Iurreta, Abadiño, Berriz eta Elorrio udalerriek, Ermuarekin eta Galdakaorekin batera, tailerrez eta hirigunez beteriko komunikazio-igarobidea osatzen dute, eta bertan, landa-jarduerak industria- eta hiri-jarduerekin batera bizi dira.

### 8.1.1.3. Merkataritza sektorea eta hirugarren sektorea.

1. Eskualde Egiturako merkataritza-dentsitate handian, denda txikiak ugariagoak dira merkataritza-azalera handien baino. Eskualde Egituran, dentsitatea biztanleko 1,8 $m^2$-koa da, eta EAEkoa eta Bizkaikoa baino handiagoa da. Bestalde, 1.000 biztanletik gorako udalerriei dagokienez (Durango eta Amorebieta-Etxano, lurralderik dinamikoenak biztanleriaren eta jardueraren aldetik), aipagarria da euren merkataritza-dentsitatea. Baina, zalantzarik gabe, Iurretako udalerriak batez bestekoa handitzen du; izan ere, bertako dentsitatea Eskualde Egiturakoa baino bi aldiz handiagoa da, ibilgailuen kontzesionarioari loturiko txikizkako merkataritzak presentzia handia izatearen ondorioz.

2. Durangoko Eskualde Egiturako merkataritza-dentsitate altua elikadurakoa ez den sektorean biltzen da; gainerako jardueretan, berriz, merkataritza-dentsitatea oso txikia da, batzuetan nulua. Eskualde Egiturako erreferentziako udalerrietan baino ez daude merkataritza mistoa eta beste batzuk.

**Durangoko Eskualde Egiturako merkataritza-dentsitatea**
**2000. urtea**

| | Elikadura | | Elikadura ez dena | | M. mistoa eta b. batzuk | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | m 2 | Dentsitatea | m2 | Dentsitatea | m 2 | |
| **Durango** | 21,921 | 0.3 | 85,576 | 1.3 | 9703 | 0.1 |
| Abadiño | 2,054 | 0.3 | 4,701 | 0.7 | 70 | 0.0 |
| Amorebieta-Etxano | 5,921 | 0.4 | 25,326 | 1.6 | 378 | 0.0 |
| Atxondo | 228 | 0.2 | 252 | 0.2 | 24 | 0.0 |
| Berriz | 842 | 0.2 | 6,458 | 1.6 | 58 | 0.0 |
| Durango | 9,395 | 0.4 | 27,239 | 1.1 | 9,009 | 0.4 |
| Elorrio | 2,139 | 0.3 | 3,893 | 0.5 | 107 | 0.0 |
| Iurreta | 696 | 0.2 | 14,996 | 3.5 | - | - |
| Zaldibar | 646 | 0.2 | 2,711 | 0.9 | 57 | 0.0 |

Iturria: Eustat eta La Caixa-ren Merkataritza Urtekaria

3. Durangoko Eskualde Egiturako establezimendu kopuruaren beherakada iraunkorra izan da azken hamar urteotan, Lurralde Historiko osoan bezala, eta horrek agerian jartzen du sektoreak bizi duen egitura-dinamika.

**Durangoko Eskualde Egiturako establezimenduak**

| | 1997<br>Est. guztira Kop. | 2000<br>Est. guztira kop. | 1997/2000<br>Est. guztira kop. |
|---|---|---|---|
| **EAE** | 33,094 | 32,804 | % -0.9 |
| **Bizkaia** | 17,595 | 17,190 | % -2.3 |
| **Durango** | 940 | 931 | % -1.0 |

Iturria: Eustat. Jarduera Ekonomikoen Direktorioa

4. Merkataritza tipologia berrien sarrera, izan ere, eskainitako unitate kopuruak izandako beherakada azaltzen duen faktore nagusia da, eta bigarren mailan uzten du biztanleriak Eskualde Egituran izandako bilakaera, horren hazkunde tasa egonkortuta egon baita azken urteotan.

5. Tamaina handiko txikizkako merkataritza-establezimenduen presentzia urria dago. Hain zuzen ere, Eskualde Egituran azalera handien eta ertainen dentsitatearen zifrak ohikoak baino txikiagoak dira. Merkataritza-azalera handien zuzkidura urria dago, EAEko gainerako eskualdeei dagokienez, eta, horren eraginez, establezimendu tipologiaren araberako merkataritza-eskaintzaren osaketa desberdina zen EAEkotik eta Estatukotik.

**Azalera handien eta ertainen zuzkidura eskualdeka, EAEn. 1998 (1000 biztanleko m2)**

| | Hipermerkatu zuzk. | Maxi-supermerkatu zuzk. | Supermerkatu zuzk. | Azalera handien eta ertainen zuzk. |
|---|---|---|---|---|
| EAE | 68.5 | 4.3 | 92 | 164.7 |
| Durango | 31.4 | 0 | 75.6 | 107 |

Iturria: Eustat

Alabaina, egoera hori nabarmen aldatu da azken urteotan, eta zaharkituta gelditu dira aurreko zifrak eta diagnostikoa. Epealdi horretan, bi merkataritza zentro handi ireki dira, hipermerkatu gisakoak, Durangon eta Abadiñon, 9.000 m2 eta 9.250 m2-koak hurrenez hurren. Hala, 246,83 m2/1000 biztanleko zuzkidura izango litzateke Eskualde Egiturarako. Aipaturikoez gain, tamaina ertaineko beste lauzpabost ere zenbatu daitezke (700 eta 2000 m2 bitartekoak).

6. Txikizkako merkataritzak 2000n sorturiko lanpostu kopurua 1.640 pertsona ingurukoa izan zen, eta zifra horrek %9,3ko hazkundea izan du 1997tik; horrek agerian jartzen zuen merkataritza-sektoreak Eskualde Egituran etorkizun handia duela.

7. Ezaugarri orokor horien barruan, establezimendu motaren araberako desberdintasunak identifikatzen dira, Bizkaiari eta EAEri dagokienez. Merkataritzak Durangoko Eskualde Egituran jarduera-adarren arabera duen egitura desberdina da Lurralde Historikoan eta EAEn duen egituratik, hain zuzen ere, ibilgailuen eta erregaien txikizkako merkataritzaren salmentan, eta hori Durangon garrantzitsuagoa da.

### 8.1.2. Irizpideak eta jarduketa-ildoak.

#### 8.1.2.1. Lehen sektorea. Sektoreak ingurumenean eta lurraldean duen eginkizuna sustatzea.

Nahiz eta LZP honetan hiri egoitzako edo jarduera ekonomikoetako erabilerek nekazaritza-ekoizpeneko lurrak okupatzeko posibilitatea aintzat hartzen den, zenbait kasutan **okupaziorako mugako eremuak deritzenen barruan** daudela-eta, ahaleginak egin dira egun nekazaritza-ekoizpen handiena dutenei eusteko, haiek mantentzeko berme gisa eta, aldi berean, Eskualde Egiturako hiri erabileren eta zatiketen artean agertzen den landa paisaiako elementuen berme gisa. Beraz, horrelako lurrik egon ezik, ez lirateke hiri jarraipenik izango ordoki alubialean eta ibilbide osoan.

Eta, horrenbestez, Eskualde Egituran landutako eremua murriztuko dela aurreikus daitekeen arren eta, nolabait, landa paisaiei eusterik ez badago ere mendiko lerrokaduretan, haran-hondoko landa paisaia desagertzea galarazi nahi da, hirigintza eraldaketa debekatuta ondoko kategoria hauetan: “balio estrategiko altuko landazabalak” eta “trantsizioko landa paisaiak”.

Eskualde Egitura Bilbo Metropolitarretik hurbil egotearen, nekazaritza-jardueraren errentagarritasuna urritzearen eta langile asko behar izatearen eraginez (beste faktore batzuen artean), gehienak mistoak diren ustiapenak (nekazaritzakoak, basokoak eta abeltzaintzakoak) antolatzen dituzten *baserri* askok aldatu egin dute euren betiko lurralde-eginkizuna, eta, kasu batzuetan, bigarren eta lehenengo egoitzak dira orain; izan ere, nekazaritza-eginkizuna erabat galdu ez badute ere, oraingo nekazaritza-, baso- eta abeltzaintza-ustiapenak titularren jarduera nagusiaren osagarriak baino ez dira, eta titular horietariko askok aditzera eman dute nekazaritza-espazioaren narriadura ekiditeko soilik mantentzen dituztela halako jarduerak.

LZP honen helburua ez da ustiapenen produkzioa eta lehiakortasuna sustatzeko neurriak ezartzea; hala eta guztiz ere, bertan helburu eta estrategia batzuen ezarkuntza bultzatzen da, eta horiek, nekazaritza-jarduerak ingurumenean eta lurraldean duen eginkizuna sustatzeaz gain, lagungarriak dira lehen sektoreak ikuspegi ekonomikotik dituen mugak gainditzeko:

a) Lehen sektorea funtzio anitzeko sektore ekonomikotzat hartzea eta tratatzea, sektorearen eginkizun ekonomikoak (alde batetik) eta lurralde-, ingurumen-, gizarte- nahiz paisaia-eginkizunak (bestetik) bikoiztasunaren berezko konplexutasunari arreta berezia jarrita.
b) Europan, Estatuan eta Erkidegoan landa-sektoreari buruz dauden estrategiekin modu koherentean, nekazaritza-jardueren garapen iraunkorrerako eredua sustatzea, jarduera horiek ingurumenean integratzeko eta ingurumenaren gaineko zuzeneko zein zeharreko eraginak murrizteko; horretarako, ustiapenen erabilerak (kudeaketa-irizpidetzat) harrera-gaitasuna jasotzea bermatuko duten nekazaritza-jardun onak sustatuko dira, laborantza-sistemei, sargai kimikoen kontsumoari, lurzoruetan zein uretan ekarpen organikoak egiteari eta hondakinei loturiko parametro guztiak aldatuz. Horretarako, hauxe egingo da:
    - Biodibertsitateari, paisaien aniztasunari nahiz identitateari, horien kalitateari, lurzoruaren erabileren kudeaketari, iraunkortasunari, eta nekazaritzako, abeltzaintzako zein basoko erabilerak antolatzeari

buruzko irizpideak aintzat hartzea; horiek ingurunearekin duten erlazioa funtsezko elementuetariko bat izan behar da, aniztasun biologikoa eta paisaiaren aniztasuna kontserbatzeko, baita EAEko nekazaritza-nortasuna hurrengo belaunaldietara iristeko ere.

- Nekazaritza-ustiapenak bertan behera uzteko eta landa-paisaia sinplifikatzeko nahiz zuhaitzez betetzeko prozesuak geldiaraztea, EAEko nekazaritza-espazioetan halako prozesuak garatzen ari baitira.

c) Nekazaritza-jarduerak sustatzea, landa-eremuetako egitura sozioekonomikoaren zatitzat; izan ere, landa-eremuen garapenean eginkizun jakina duen ekonomiaren adarra osatzen dute; hain zuzen ere, nekazaritza-jarduerak sustatu behar dituzte, aintzat hartuta ustiapenen tipologia-aniztasuna, honako bi norabide hauetan:

- Ustiapen profesionalizatuen lehiakortasuna hobetu behar da, merkatuko eskarietarako egokitzapena hobetuta, kalitatea hobetzeko eta produktuak bereizteko neurrien bidez; horretarako, honako hau identifikatzeko aukera ematen duten tresnak erabiliko dituzte: I) zonako produktuen jatorria nahiz ezaugarriak; II) nekazaritza ekologikoa eta integratua, baita gazteak nekazaritza-ustiapenetan sartzeko politiken lehentasuna ere, horietan ezinbesteko belaunaldi-txanda egoteko, eta, horretarako, neurriak hartuko dira nekazarien trebakuntza hobetzeko eta merkatuen abagunean egongo diren aldaketetarako prest egoteko; gainera, berotegiko produkzioak sustatuko dira, errentagarriagoak direlako eta etorkizunean aukera handigoak eskainiko dituztelako.
- Nekazariek lanaldi partzialean kudeatzen dituzten baserriei lehentasunezko arreta berezia jarriko zaie, nekazaritza-jarduera kontserbatzeko; horretarako, hauxe sustatuko da: I) nekazaritza-produkzioen eta merkatuen arteko lotura; II) abeltzaintza-azienda txikien kontserbazioa, landa-paisaia eta jardueren nolabaiteko dibertsitatea mantentzeko, landa-ustiapenetan; III) lanaldi partzialeko ekoizleen arteko lankidetza, arduraldia murrizteko eta gutxieneko irabazi batzuk bermatzeko; eta IV) tokiko azokak eta merkatuak egitea,

profesionalizatuta ez dauden baserrien produkzio txikiak merkaturatzeko.

d) Baso-sektoreko lankidetza sustatzea, masen ustiapenak sorturiko ingurumen- eta ikusmen-ondorioak murrizteko, hauen bidez: I) baso-jarduera iraunkorrak eta hostozabalen bidezko oihaneztatzeak sustatuta (lurraldearen aniztasuna eta ingurumen-kalitatea handitzen duten hostozabalak), II) basoko jarduerak denen arteko lanaren bidez egitea, inausketetan eta basoko gainerako tratamenduetan (adibidez, mozketetan).

e) Kanpokoak diren basoko teknikarien eta enpresen sarrera bultzatzea, landaketetako produktibitatea handitzeko eta horien erabilera ona sustatzeko.

Helburu horiek betetzeko, honako irizpide eta jarraibide hauen araberako jarduketak bidezkoak eta aukeraturiko lurralde-eredura egokituak izango dira:

- Nekazaritza-produkzioen kalitatea hobetzeko politikei laguntzea.
- Nekazaritza ekologikoa bultzatzea.
- Gazteak nekazaritza-ustiapenetan sartzeko laguntza ematea.
- Tokiko azokak eta merkatuak sustatzea, baserriko produktuak merkaturatzeko bidetzat.
- Nekazaritzako elkartegintza eta kooperatibismoa bultzatzea.
- Hostozabalen bidezko oihaneztatzeak sustatzea.
- Basoko ustiapenen erabileraren kudeaketa iraunkorrerako mekanismoak bultzatzea.
- Basoko ustiapenen titularren arteko lankidetza bultzatzea, kanpoko zerbitzu teknikoak kontratatzeko.
- Ustiapenetan basoko eraginkor jarduerak eta lanak egiteko laguntza ematea.

### 8.1.2.2. Bigarren sektorea, merkataritzakoa eta hirugarrena

***"Natura- eta landa-ingurua errespetatzen duen zerbitzu- eta industria-gizarterantz: zerbitzu-sektorea, lehiakorra eta finkatua den industria hazteko eta horri laguntza emateko eragiletzat".***

Durangoko Eskualde Egituran egitura-aldaketa handiak gertatzen ari dira, eta horiek eragina dute lurralde-eredua harreman ekonomikoen egituratze-beharrizanetara egokitzean, baita bertako produkzio-sistemaren funtzionamenduan ere. Aldaketa horiek, bestalde, Durangoko Eskualde Egiturako espezializazio ekonomikoaren eredua eraikitzeko oinarritzat erabili diren parametroetan biltzen dira, eta, Eskualde Egituran, produkzio-egituraren ardatzak Metalurgia eta Metalezko Eraldatuak dira.

Dinamika horretan, industria tertziarizatzeko prozesu bat identifikatzen da, eta hori, izan ere, apurka-apurka aldaketa teknikoa sartzearen eta enpresa-estrategia berrien eraginezkoa da. Durangoko Eskualde egiturako industriaren joera berri horien elementu nagusiak, alde batetik, industria-egitura espezializatua finkatzea eta, bestetik, produkzioa dibertsifikatzea dira; dibertsifikatze hori, berriz, dinamika indartsuko adarretara bideratzen da eta horiek gero eta berrikuntza eta aldaketa teknologiko handiagoa sartzen dute. Eszenatoki berri horrek sortzen dituen industria-enpleguko profilen hazkundeak, izan ere, ekonomiaren okupazio osoaren batez bestekotik gorakoak dira. Industria-enplegu espezializatuko beharrizan gero eta handiagoak dira, eta enplegu horrek pilaketa handia dauka lurralde honetan.

Eraldaketak egon diren arren, industria-sektorearen garrantziak behera egin du, azken urteotan, Durangoko Eskualde Egituran; horren adierazle nagusia, izatez ere, jarduera horren garrantzi erlatiboak enpleguaren eta establezimenduen arloan izan duen beherakada da, lurraldeko industria-espezializazio handiagoko produkzio-adar batzuetan (adibidez, metalurgian). Industriako produkzio-dibertsifikazio handiko udalerriak, hau da, industria indartsua duten udalerriak (esaterako, Amorebieta-Etxano), nolanahi ere, berezi egin behar dira industria-adar nagusitzat metalurgia nahiz erreminten fabrikazioa duten udalerrietatik, azken horien etorkizuneko itxaropenak ez baitira hain onak.

Industria, aurrerantzean ere, produkzio-egituraren erdigunea izango da, eta funtsezko eginkizuna izango du harreman ekonomikoen artikulazioan eta

errentaren sorkuntzan; hala ere, dirudienez, hurrengo urteetan ez du garrantzirik irabaziko Eskualde Egiturako produkzio-egituran. Izan ere, Durangoko Eskualde Egituran aldatzen ari da lan-merkatuaren egituraren osaketa, eta industria-sektorean enplegu-galera handia ikusten ari da, batez ere metalen industrietan.

Enplegua galtzeko prozesu hori, neurri handian, zerbitzuen adarretako okupazioak gora eginez konpentsatu da. Hain zuzen ere, lan-merkatuan eginkizunik dinamizatzaileena izan dutenak merkataritzaren nahiz hotelen adarrak eta beste zerbitzu batzuen adarrak izan dira. Durangoko Eskualde Egiturako zerbitzu-sektoreko enpleguaren hazkundea EAEkoa baino handiagoa da; dena den, oraindik ere, enplegu-sorkuntzan egiten duen ekarpena Euskal Autonomia Erkidegokoa baino txikiagoa da. Eskualde Egituran 14.875 langile daude (iturria: EUSTAT, 2001) zerbitzu-sektorean, eta, jardueran bilakaera ikusita, esan daiteke adar batzuetan (adibidez, enpresetarako zerbitzuetan) enpleguak hazkunde oso handia izango duela eta hirugarren sektore osoko okupazioaren hazkundea baino handiagoa izango dela. Gainera, Eskualde Egiturako enpresa batzuek arazoak dituzte zerbitzuen profil batzuk betetzeko (administrazioa, klinikako laguntzailea, garbiketa, etab.); izan ere, horiek eskaintza urria izan arren, eskatzaile kopurua oso altua da.

**DURANGOKO ESKUALDE EGITURAKO LANDUNEN EGITURA**

| | Hazkundea | Egitura | | |
|---|---|---|---|---|
| | 1996/1986 | 1986 | 1996 | 1996-1986 |
| **E.A.E.** | | | | |
| Nekazaritza | -27.1% | 3.8% | 2.5% | -1.3 |
| Energia-ura | 48.1% | 1.1% | 1.4% | 0.4 |
| Industria kimikoa | -34.2% | 8.4% | 5.0% | -3.4 |
| Metalen industria | -10.2% | 20.9% | 16.9% | -4.0 |
| Beste industria batzuk | -13.0% | 10.9% | 0.0% | -10.9 |
| Eraikuntza | 28.6% | 6.0% | 7.0% | 1.0 |
| Merkataritza/hotela | 22.8% | 16.2% | 17.9% | 1.7 |
| Garraioa eta komunikazioak. | 14.1% | 6.4% | 6.6% | 0.2 |
| Bankuak/aseguruak | 78.3% | 5.3% | 8.6% | 3.2 |
| Beste zerbitzu batzuk | 35.7% | 21.0% | 25.7% | 4.7 |
| **DURANGOKO ESKUALDE EGITURA** | | | | |
| Nekazaritza | -35.6% | 2.4% | 1.4% | -1.0 |
| Energia-ura | 263.4% | 0.4% | 1.2% | 0.8 |
| Industria kimikoa | -18.3% | 7.0% | 5.1% | -1.9 |
| Metalen industria | -16.0% | 43.5% | 32.3% | -11.2 |
| Beste industria batzuk | 25.5% | 7.7% | 8.5% | 0.8 |
| Eraikuntza | 31.6% | 4.6% | 5.3% | 0.8 |
| Merkataritza/hotela | 42.2% | 12.7% | 16.0% | 3.3 |
| Garraioa eta komunikazioak | 55.1% | 3.7% | 5.0% | 1.4 |
| Bankuak-aseguruak | 91.9% | 2.9% | 4.9% | 2.0 |
| Beste zerbitzu batzuk | 50.6% | 15.2% | 20.2% | 5.1 |

Iturria: Eustat

Zerbitzu-sektoreko jarduera oso intentsiboa da laneskuan, eta, gainera, lurzoru-kontsumo handirik behar ez duen eremu pilatuan garatzen da. Estrategia fisikoari dagokionez, tertziarizazioaren berehalako ondorio bat kalitate oneko lurzorua eduki behar izatea da, Eskualde Eremuan instalatu nahi diren industrietarako. Zerbitzu-enpresak kokatzeko jarraibideek aditzera ematen dutenez, halako industriak hirien inguruan instalatzen dira, bertan beste zerbitzu batzuk ere badaudelako, erabakiguneak hurbil daudelako eta trebakuntza handiko langileak hartzeko aukera dagoelako. Zerbitzu-jarduerei loturiko pilaketa-ekonomiek higiezinen eskari handia sustatzen dute, eta horrek birgaitu eta modernatu egiten du hirigunea, baina desekonomiak ere eragin ditzake, gehiegizko prezioetan oinarrituz.

A-8 Bilbo-Behobia autobidetik doan igarobidea sustatzeak aukera emango du espazio dinamiko handia sortzeko, eta, bertan, Durango eskualdea lotzeko eta dinamizatzeko gune nagusia izan daiteke. Aldi berean, udalerri hori indartu egin behar da, Abadiño eta Amorebieta-Etxano udalerriek eraturiko hiri-sare dinamikaren bidez. Horrela, sortuko den espazioan Durango zerbitzuen eta gerentziaren erdigunea izango da, eta industria-berrikuntzako jarduerak sustatuko ditu; Amorebieta-Etxanok industria-sektoreak landuko ditu, eta Abadiñon industria-jardueraren zati handia pilatuko da. Sare horrek hiri-zerbitzuen estaldura ona bermatu behar du Eskualde Egiturako lurralde osoan, eta gainera, antolatu eta bultzatu egin behar ditu lurralde-aldaketako prozesuak, kasuan kasuko eragin-aldeetan.

- **Lurraldearen ikuspegitik, industria-jardueraren sustapena Amorebieta-Etxano eta Abadiño udalerrietarantz hedatu behar da, horiek eskualde Egiturako gainerako zonetan sartzeko ardatzak baitira**. Amorebieta-Etxano industria-produkziorik handieneko lurraldea da. Udalerri horretan, produkzioaren dibertsifikazio handia dago: metalezko eraldatuak, industria kimikoa, zuraren industria eta makinen nahiz erreminten fabrikazioa. Okupatu gabeko lurzoruaren erreserba handiena udalerri horrexetan dago (108,08 ha., Udalplan 2006k emandako datuen arabera), eta horren barruan Boroa (EAEko erreserba) eta Zubieta sartzen dira (biak sustapen publikokoak). Bestalde, aipagarria da Abadiñon enpresa handi asko egotea, eta horiek, batik bat, metalurgian eta industria kimikoan espezializaturik daude. Hala eta guztiz ere, udalerri horrek lurzoru erabilgarri gutxiago dauka (9,48 ha., Udalplan 2006k emandako datuen arabera).

- **Lurraldeko hiri-sistema gidatuko duen hiria, segurutik, Durango izango da.** Hiri hori indartzea funtsezkoa da eremuko espazio osorako, eta, beraz, bertan egon behar dira lurraldeko ekipamendurik eta zerbitzurik gehienak, baita garapeneko eta berrikuntzako tresnak ere, bertako biztanleen eta beste espazio batzuetan bizi diren erabiltzaile askoren beharrizanak betetzeko. Horri dagokionez, Durangoko udalerriak oraindik ere gabezia handiak ditu hirugarren sektorean, eta beharrezkoa da udal mugarte horrek bere gain hartzea Eskualde Egiturako hirugarren sektoreko jarduera polarizatzeko aukera ematen duen protagonismoa. Durangok 48,60 ha. ditu, Udalplan 2006k emandako datuen arabera. Alderdi horretatik, garrantzitsua da Euskotren lurperatzeari loturiko eragiketa; izan ere, horrela, hirugarren sektoreko erabilerak izango dituzten lurzoruak (posizio-balioa dutenak) askatuko dira. Bestalde, zientzi parkea proposatzen du LZPk Abadiño udalerriarekiko mugan.

UDALERRIETAKO ESTABLEZIMENDUAK, JARDUERA ADRRAREN ARABERA. 2000

| | Industria eta energia | Eraikuntza | Merkataritza, ostalaritza eta garraioak | Bankuak, aseguruak eta enpresetarako zerbitzuak | Beste zerbitzu jarduera batzuk |
|---|---|---|---|---|---|
| | Guztizkoaren % | Guztizkoaren % | Guztizkoaren % | Guztizkoaren % | Guztizkoaren % |
| Abadiño | 23.4 | 14.1 | 44.0 | 8.7 | 9.8 |
| Amorebieta-Etxano | 10.9 | 11.2 | 49.1 | 14.8 | 14.1 |
| Atxondo | 29.7 | 13.5 | 41.4 | 6.3 | 9.0 |
| Berriz | 35.9 | 5.7 | 37.5 | 8.7 | 12.2 |
| Durango | 6.1 | 9.0 | 46.7 | 18.4 | 19.9 |
| Elorrio | 14.8 | 10.5 | 49.9 | 10.3 | 14.5 |
| Garai | 0.0 | 18.2 | 45.5 | 9.1 | 27.3 |
| Iurreta | 26.5 | 11.0 | 45.1 | 4.5 | 13.0 |
| Izurtza | 40.8 | 6.1 | 40.8 | 8.2 | 4.1 |
| Mañaria | 22.9 | 16.7 | 37.5 | 42 | 18.8 |
| Zaldibar | 38.5 | 4.3 | 39.7 | 6.6 | 10.9 |
| DURANGOKO E.E. | 16.4 | 10.0 | 45.8 | 12.8 | 15.0 |
| BIZKAIA GUZTIRA | 8.3 | 10.6 | 49.5 | 17.3 | 14.3 |
| EAE GUZTIRA | 9.4 | 11.8 | 47.5 | 16.7 | 14.6 |

Iturria: Eustat

Garapen ekonomikoaren eragilea, izan ere, iturri endogenoetan oinarrituriko enpresa-ekimena izan da; hala ere, gaur egun, ekintza batzuk aplikatu behar zaizkio, Eskualde Egiturako kokalekuaren hobariak sustatzeko. Jarduketen konbinazioa baliozkoa izango da tokiko enpresa-dinamismoa indartzeko.

Printzipio horietan oinarrituz, abiatu beharreko ekimenen kokalekua azaltzean euskarrituriko estrategia planteatzen da; hain zuzen ere, lurralde horrek hedapen mugatua dauka eta bertako produkzio-egitura zonako giza baliabideekin elikatzen da. Landunen %40-50ek udalerrian bertan egiten dute lan, eta %30-40k, berriz, Eskualde Egituraren barruko beste udalerri batzuetara joan behar izaten dute lanera. Jarduera ekonomikoaren zentro nagusiak, izatez ere, erakarpeneko gunerik garrantzitsuenak dira, bertan kokatzen baitira garrantzirik handieneko enpresak. Hori argiago ikusten da Abadiñon, Amorebieta-Etxanon eta Durangon; izan ere, hiru udalerri horiek erraz gainditzen dute eskualdetik Bilbora edo industria-dinamismo handiko beste udalerri mugakide batzuetara (adibidez, Arrasatera) lekualdatzen den langileen ehunekoa.

**LANDUNEN MUGIKORTASUNA DURANGOKO ESKUALDE EGITURAN. 1996**

| UDALERRI HAUETAN BIZI DIREN LANDUNAK: | UDALERRIAN BERTAN EGITEN DUTE LAN: | UDALERRITIK KANPO BAINA ESKUALDE EGITURAREN BARRUAN EGITEN DUTE LAN: | | | | | ESKUALDE EGITURATIK KANPO EGITEN DUTE LAN: | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | DURANGO | AMOREBIETA | ELORRIO | ABADIÑO | BESTE UDALERRI BATZUK | BILBAO | ARRASATE |
| Abadiño | %46.7 | %13.5 | %1.5 | %4.7 | | %18.9 | %3.0 | %0.9 |
| Amorebieta-Etxano | %52.9 | %4.5 | | %0.8 | %1.9 | %4.0 | %9.6 | %0.3 |
| Atxondo | %44.8 | %8.9 | %2.2 | %16.0 | %7.5 | %8.1 | %3.2 | %1.6 |
| Berriz | %46.2 | %7.7 | %1.2 | %3.1 | %9.6 | %12.5 | %3.3 | %0.6 |
| Durango | %41.6 | | %2.5 | %3.7 | %11.4 | %20.3 | %5.7 | %0.9 |
| Elorrio | %61.7 | %4.0 | %1.4 | | %5.1 | %8.2 | %2.6 | %4.8 |
| Garai | %20.8 | %23.8 | %2.0 | %0.0 | %12.9 | %16.8 | %5.0 | %1.0 |
| Iurreta | %33.0 | %26.1 | %3.2 | %3.6 | %10.1 | %10.8 | %3.8 | %0.4 |
| Izurtza | %7.8 | %28.1 | %4.2 | %2.1 | %4.2 | %14.6 | %7.3 | %0.0 |
| Mañaria | %40.5 | %19.0 | %2.6 | %2.0 | %6.5 | %15.7 | %7.8 | %2.0 |
| Zaldibar | %44.6 | %4.7 | %1.2 | %2.0 | %9.5 | %15.1 | %2.3 | %0.7 |

Iturria: Eustat

Industriak udalerri batzuetan (adibidez, Amorebieta-Etxanon eta Abadiñon) duen garrantzi handia (Eskualde Egiturako industria produkzio osoaren %42,2 eta produkzio-zentro berrien sorrera), bestalde, biztanleriaren mugikortasunean islatzen da, biztanleok produkzio-adar horretan lan egitera lekualdatzen baitira. Aldiz, Bilbok eta Durangok gehienbat zerbitzu-sektoreko landunak jasotzen dituzte.

Gainera, egoitzako eta laneko udalerrien arabera okupaturiko biztanleriaren ikerketan agerian jarri denez, Eskualde Egituran superabita dago; hau da, Durangoko Eskualde Egituratik kanpoko udalerri horietarako jarioak daude, lanaren eraginezkoak. Ikerketa hori udalerrika xehatuta ikusten denez, enplegu-jarioek Eskualde osokoaren moduko jokabidea dute, udalerri oso txiki batzuen

kasuan izan ezik, horietan ia ez baitago jarduera ekonomikorik; Durango ere salbuespena da horretan, bertako landunen %25 udalerritik kanpo joan behar izaten baitira lanera. Enpleguaren izaera hartzaileari dagokionez, aipagarria da Abadiño eta Iurreta udalerriek jasotako landun kopurua bertako biztanle kopurua baino %50 handiagoa dela.

LANDUNEN MUGIKORTASUNA
1996

| | Sorturiko lanpostuak | Biztanleria Landuna | Lan-jarioak |
|---|---|---|---|
| **Durangoko Eskualde Egitura** | 24569 | 22794 | 1775 |
| Abadiño | 3641 | 2365 | 1276 |
| Amorebieta-Etxano | 4975 | 5319 | -344 |
| Atxondo | 728 | 493 | 235 |
| Berriz | 1824 | 1412 | 412 |
| Durango | 6226 | 8279 | -2053 |
| Elorrio | 2904 | 2530 | 374 |
| Garai | 28 | 101 | -73 |
| Iurreta | 2361 | 1420 | 941 |
| Izurtza | 351 | 96 | 255 |
| Mañaria | 200 | 153 | 47 |
| Zaldibar | 1331 | 626 | 705 |

Iturria: Eustat

Bestalde, aipagarria da Eskualde Egituran deskonpentsazio handia dagoela lanaren eta bizilekuaren kokalekuari dagokionez. Hain zuzen ere, Jarduera Ekonomikoetarako eta Merkataritza Ekipamenduetarako Lurzoruaren Sorrera Publikorako LAPren adierazitakoaren arabera, gaur egun, Eskualde Egiturako bigarren sektorean lan egiten duten pertsonen artean, 2.841 pertsona Eskualdetik kanpo bizi dira. Komenigarria izango litzateke deskonpentsazio hori zuzentzea, horrek eragiten dituen garraio-kostu handiak ekiditeko eta, gainera, langileen bizi-kalitatea hobetzeko.

Lanaren eta bizilekuaren kokapena, Durangoko Eskualde Egiturako bigarren sektorean

| UDALERRIA | Landunak big. sektorean | Enpleguak big. sektor. | Enpleguen balantzea |
|---|---|---|---|
| **ABADIÑO** | 1.728 | 3.941 | 2.213 |
| **DURANGO** | 4.753 | 3.048 | -1.705 |
| **IURRETA** | 941 | 961 | 20 |

| | | | |
|---|---|---|---|
| **IZURTZA** | 52 | 374 | 322 |
| **Guztira** | **7.474** | **8.324** | **850** |
| **AMOREBIETA-ETXANO** | 3.301 | 2.816 | -485 |
| **ELORRIO** | 1.745 | 3.014 | 1.269 |
| **ATXONDO** | 357 | 621 | 264 |
| **BERRIZ** | 987 | 1.544 | 557 |
| **GARAI** | 41 | 1 | -40 |
| **MAÑARIA** | 118 | 181 | 63 |
| **ZALDIBAR** | 811 | 1.174 | 363 |
| **DURANGOKO E.E.** | **14.834** | **17.675** | **2.841** |

Iturria: Jarduera Ekonomikoen LAP.

Aditzera eman behar da udalerririk gehienek enplegu-soberakina dutela. Enpleguari dagokionez, defizita duten bakarrak Durango, Amorebieta-Etxano eta Garai dira. Durangoren kasuan, defizit hori dirudienez konpentsatu egiten da mugakidea den Abadiño udalerriarekin, eta beraz, bi udalerri horien arteko joan-etorriak ez ziren Durango barrukoa baino garestiagoak; hortaz, ez da zentzuzkoa udalerri guztietan oreka lortu nahi izatea. Amorebieta-Etxanoren kasuan, enplegu-defizitaren eraginezko joan-etorriak urrunen dauden Eskualde Egiturako udalerrietara egiten dira, edo hurbileko beste eskualde-egitura batzuetara (adibidez, Bilbo Metropolitarrera).

Hala eta guztiz ere, enpleguaren balantzea positiboa da, eta horrek aditzera ematen du, Eskualde Egituran enpleguaren eta bizilekuaren arteko oreka handiagoa egoteko, zentzuzkoa dela Eskualde Egitura osoan egoitza-lurzorua sortzea.

### 8.1.2.2.1. Bigarren sektorea bultzatzeko estrategiak eta jarduketa-ildoak.

Eskualde Egituran produkzio-sistema eratzeko, hau da, lehia edota lankidetza harremanen bidez kanpoko ekonomiak hedatzen dituzten industria- eta zerbitzu-enpresen egitura sortzeko, enpresaz gaindiko aplikazioa duten tresna ukigarriak eta ukiezinak diseinatu behar dira. Durangoko industria-errealitatearen ezaugarriak, izan ere, jarduerak espazioan nahiz sektoreka pilatuta egotea eta lehia-hobarien trantsizioa egotea dira, eta ezaugarri horiek honako honetara bideraturiko politika publikoari irekitzen diote atea: ezaugarri horien eraginezko pasiboak konpentsatzea eta aktibo horiek merkatuko akatsak konpontzeko erabiltzea, zerbitzu espezializatuen hornidurari dagokionez.

Jarduketa publikoa aukeratzeak ez du enpresetarako zerbitzuak eta hornidura (kasu bakoitzean aztertu beharrekoa) sortzerik eragiten, ahultasunen identifikazioa eta akatsak konpentsatzeko tresnen diseinu eraginkorra baizik (bertsio desberdinetan, pribatua, publiko-pribatua eta publikoa). Hori abiatzeko, partaidetza pribatua behar da nahitaez, eta hori, atzeraelikadurako eskema dinamikoan oinarrituz, Eskualde Egiturako enpresa-estrategietan integratu behar da.

Kontsulta-taldearen iritziz, Eskualde Egituraren barruko egitura, gaur egun, inflexio-puntuan dago, eta bertan, oso garrantzitsuak izan daitezke lehia-hobarien garapena eragiten duen ingurua sortzera bideraturiko industria-politikaren ondorioak. Horri dagokionez, aukera hori osatu egingo litzateke diagnostikoan detektaturiko beharrizanarekin, hau da, enpresari eragiten dioten esfera batzuetan jardutearekin.

Horrenbestez, politika ekonomikoan aukeraturiko lurralde-eredua ondo integratzeko, bigarren sektoreari dagokionez eta eredu horretara egokituta, honako helburu hauek planteatzen dira:

- I+G politika: produktuak, produkzio-prozesuak, materialak, instalazioak eta ingurumena hobetzearen aldeko apustu iraunkorra.
- Internazionalizazioa, toki-enpresekin aliantzak sortuta, eremu geografiko desberdinetan negozioko zentroak sortuta eta kanpoko merkatu berezietan parte hartzeko ekimenak sustatuz.
- Lankidetza: zenbait arlotan enpresen arteko lankidetza-espiritua sustatzea; esate baterako, merkaturatzean, teknologian, ikerketan, makroproiektuen garapenean, etab.
- Heziketa: enpresa-kudeaketako eskolak eta eskola teknikoak nahiz lanbide-heziketakoak sustatzea.

Ikuspegi sektorialetik begiratuta, helburu horiek betetzeko, ekintzak sustatu behar dira honako jarduketa-ildo hauetan:

1. **Herri Administrazioen eginkizuna indartzea, honako arlo hauetan:**
   - Durangoko Eskualde Egituraren ahultasunetariko bat, izan ere, industria-espezializazioa balio erantsi alturik gabeko jarduеretan pilatuta egotea da. Beraz, **lehentasunezkoa da metalaren sektoreko produktuen eraldaketan teknologia berriak sartzea**.

- **Enpresa-jardueran kalitatea** sustatu behar da, ingurumen-baldintzetan, prozesuen nahiz produktuen kalitate-baldintzetan eta halakoetan ziurtagiriak emanez.
- **Gaitasun ekintzailea sustatu behar da**, Eskualde Egituran jarduera berriak garatzeko, horiek lagungarriak izango baitira produkzio-egituraren dibertsifikaziorako; izan ere, Durangok ez dauka zuzkidura nahikorik zerbitzu aurreratuen enpresetan, eta horiek beharrezkoak dira bertako enpresa-oinarria indartzeko.
- **Finantziazio iturri egonkorrak lortu behar dira**, ekipoak modernatzeko eta ordezteko.

2. Teknologia **kudeaketa-estrategikoan** oinarrituz garatzea, **baterako merkaturatze-sistemetan baliabideen kudeaketa optimizatuz, kalitate-sistemetan euskarrituta**. Neurri hori ezinbestekoa da, kontuan hartuta Eskualde Egiturako enpresen tamaina; izan ere, sektore batzuetan tamaina hori oso atomizatua da eta eragina dauka zenbait enpresa-estrategiatan; adibidez, internazionalizazioan, finantziazioa baldintza lehiakorretan lortzean eta inputen lorpenean.
3. Zonako enpresek **zuzenean aholkatzeko** ekintzak garatzea, elkartegintzan oinarrituz. Trukeko foroen eta enpresa-estrategiak denen artean aztertzearen arloan, presentzia urria dago.

#### 8.1.2.2.2. Merkataritza-sektorea eta hirugarren sektorea bultzatzeko estrategiak eta jarduketa-ildoak.

Politika ekonomikoan aukeraturiko lurralde-eredua ondo integratzeko, merkataritza sektoreari eta hirugarren sektoreari dagokienez, honako helburu hauek finkatzen dira, eredu horren araberakoak baitira:

- Inbertsio publiko handiagoa, merkataritza-jarduera suspertzen laguntzeko, hiri-azpiegiturak egokituta eta espezializazio sektoriala nahiz enpresa-lankidetza sustatuta, enpresen eraginkortasuna hobetzeko.
- Berrikuntza sustatzea, merkataritzak sektorea modernatzeko aktiboak nahiz metodologiak lortzeko eta merkataritza-banaketarako I+G zentro bat sortzeko.
- Lehiakortasuna handitzea, inbertsio pribatuaren bidez, merkataritza-enpresen eraldaketa sustatzeko eta informazioaren teknologia berrien garapena eragiteko.

- Gizarte osoari zerbitzua emango dion hirigintza-merkataritza eremu bat sustatzea, hiriko merkataritza eta udalerrien bizitasuna indartzeko eta lurra bereizi gabe kontsumitzeak ingurumenean dakartzan ondorio kaltegarriak ekiditeko eta erabiltzaileen mugikortasuna handitzeko.

Aurreko artikuluan aipaturiko helburuak betetzeko, honako irizpide eta jarraibide hauen araberako jarduketak bidezkoak eta egokiak dira aukeraturiko lurralde-eredurako:

- Kudeaketa-baliabideen nahiz informazioaren teknologien erabileran, bezeroaren arretan, marketinean eta euroa sartzearen eraginezko inplikazioei zein aukerei buruzko informazioan trebatzea. Durangoko txikizkako merkataritzaren erronka nagusienetarikoa da, lehiakortasuna irabazteko eta merkatuko kuotarik ez galtzeko, hiri-inguruko oraingo azalera handiei dagokienez.
- Elkartegintza sustatzea, merkataritzarako nahiz ondasunen erosketarako (erosketa-zentralak partekatzea) elementu lehiakorren kudeaketa integratuko tresnatzat; hornidura bermatzea, merkataritza-garapena mugatu barik, edo kalitate-irudia sortzea, identifikazio-elementuen eta marketin-teknika komunen bitartez.
- Prezio- zein salmenta-politikei (zona jakineko merkataritza sustatzeko argitalpena) edo leialtze-tresnei (honako honetarako puntuak pilatzen dituen erosketa-txartela: eskaintzetarako eskubidea, lehentasunezko zerbitzuak, kalitatezko parametroak, opariak, etab.) buruzko informazioa hedatzeko tresnak garatzea, izan ere, funtsezko beste elementu bat da, merkataritzaren lehiakortasuna eta modernatzea sustatzeko.
- Hirugarren sektoreko erabilerak eta merkataritzakoak hiri-lurzoruen barruan eta egoitza-garapen berrietan sartzea. Horretarako, hiriguneen ohiko jarduerak suspertzeko proposamena egiteaz gain, lurzoru mistoak (hirugarren sektorea eta egoitza) sortzeko proposamena ere egiten da.

## 8.2. Proposaturiko eredu ekonomikoa.

### 8.2.1. Ereduaren helburu orokorrak.

Proposaturiko eredu ekonomikoa ezartzeko, funtsezkoa da honako helburu orokor hauek lortzea:

### 8.2.1.1. “Lurzoru” baliabidearen kontsumoa mugatzea.

Industria-jarduerek eragin handia izan dute Durangoko Eskualde Egiturako garapen ekonomikoaren historian, eta horien protagonismoa zerbitzuek izandakoa baino askoz ere handiagoa izan da; horrela, lurzoruaren okupazio handia egon da, tamaina handiko enpresak udalerri txikietan kokatu direlako eta Eskualde Egiturako udalerri nagusien inguruko industriak nahiz industria-eremuak daudelako. Horrek guztiak murriztu egin du lurzoruaren erabilgarritasuna.

Berriro esan behar da, egoitza-ezarkuntzen kapituluan bezala, lurzorua ondasun urria dela Eskualde Egitura honetan eta lurraldea erabiltzeko eredu iraunkorrak erabili behar direla; hau da, “lurzoruaren kontsumoa aurreztu” beharra ezartzen duen irizpidea aplikatu behar da.

LZPk, lurzoruaren kontsumoa geldiarazteko, eraikitako eta urbanizaturiko ondarearen optimizazioa sustatu behar du, udal-planeamenduan jasotako eremuak **suspertuta**, oraingo irudia hobetzeko eta paisaia egokitzeko, EAEko industrializazio masiboaren garaian sorturiko hiri-eremuei dagokienez.

Lurzoru berria kontsumitu behar izanez gero, LZPn jasotako okupazioaren mugako eremuen barrukoa erabili beharko litzateke. Hala eta guztiz ere, udalerri bakoitzaren ereduak Eskualde Ereduaren garapen bikainerako beharrezkotzat hartzen dituen lurzoruak soilik okupatu behar izango dira, iraunkortasun-irizpideak aintzat hartuta; hau da, Gutxienekoen Eremua gomendatzen da, mugaturiko eremua nahitaez okupagarria izatearen ideia baztertuz; aldiz, Udal Planeamenduak proposatzen duen ereduak mugaturik dagoen eremu horretako azalera ahalik eta txikiena eraldatzeko ahalegina egin behar du.

### 8.2.1.2. Espazioan integraturiko jarduera ekonomikoaren egoitza-erabileraren eredu mistoa sustatzea.

Oraingo eredu ekonomikoak Eskualde Egiturako zona batzuetan pilatzen ditu jarduera ekonomikoak, eta, eredu horren inertziaren eraginez, ezarkuntza berriak leku tradizionaletan kokatu nahi dira, lehendik dagoen jardueraren ondoan. Hortaz, egoitza-erabilerarekin guztiz bateragarriak diren jarduera ekonomiko asko, hirugarren

sektorearenak bereziki, hiriguneen kanpoaldean kokatzen dira, bertan lurzorua merkeagoa baita. Hala, zonaldeen araberako funtzioen espezializazioa gertatzen da, nahi ez den espezializazioa, hirugarren jarduerak eta hiriko industrialdeak baztertu eta mugikortasun handia sortzen da alde batetik bestera, eta ondorio larriak dakartza horrek ingurumenean eta funtzioetan.

LZP honetan proposatzen den jarduera ekonomikoaren eredua, bestalde, industria-jarduera apurka-apurka tertziarizatzearen oinarrian euskarritzen da, baita egon dagoen industri jarduera birsortzea ere, zaharkiturik dauden industria-lurzoruak hobetuta eta hiriguneen barruan integraturiko jarduera ekonomikoen espazioak handituz (hirugarren sektoreko jarduera ekonomikoa eta egoitzak bateratzen dituzten erabilera mistoak)

Gainera, dentsitate ertaineko edo altuko egoitza-erabilera orokorreko lurzoru berri guztiek eremuko eraikigarritasunaren %10eko erreserba edukitzearen aldeko apustua egiten da; jarduera horien artean, etxebizitzarekin bateragarria den industria-erabilera ez ezik, hirugarren sektoreko beste batzuk ere badaude; adibidez, merkataritza-erabilera, bulegokoa, zuzkidura pribatuko beste zerbitzu batzuk beste zenbait erabilera (esaterako, hezkuntza, osasuna, gizarte-zerbitzuak, kirola nahiz kultura eta antzeko beste batzuk).

LZPren helburua, beraz, hirian jarduera ekonomikoen eta ekipamenduen erabilera suspertzea da. Horrela, horiek ez dira hiriguneen kanpoaldean kokatuta egongo, komenigarria baita kokaleku horiek instalazio industrialagoetarako uztea, horiek ez baitira hain bateragarriak egoitzako hiri-egiturarekin, eta lotura funtzional handiagoa baitute merkantzien trafiko astunarekin.

### 8.2.1.3. Biztanleria eta lurralde-oreka galera saihestea. Eskualde Egiturako hiri-sistema indartzea.

LZPk beharrezko lurzoru-erabilgarritasuna bermatzearen aldeko apustua egiten du, Eskualde Egiturako udalerrietariko bakoitzean, biztanleek etxebizitza lortzeko dituzten beharrizan endogenoak betetzeko, eta, horrela, Egitamuaren indarraldian beste leku batzuetarako exodoa ekidin ahal izateko.

Udal bakoitzak bertako biztanleek behar dituzten etxebizitza guztiak egin behar ditu, kontuan hartuta biztanleria-segmentu guztiek etxebizitza eskuratzeko duten gaitasuna eta orain indarrean dagoen Babes Ofizialeko Araubidea erabiliz.

LAAek zehazturiko Eremuak sustatzen duten Lurralde Orekako Estrategiari erantzunez, Eskualde Egiturako udalerri batzuek, biztanleria mantentzeaz gain, hazkunde hautakorra egingo dute, beste eskualde-egitura batzuetatik iritsitako biztanleak hartzeko, batik bat Bilbo Metropolitarretik iritsitakoak.

### 8.2.1.4. Natura- eta landa-ingurua kontserbatzea.

Lurralde-antolamenduaren helburu nagusienetariko bat, izan ere, ingurumena babestea eta baliabide naturalak zentzuz administratzea da. Horri dagokionez, EAEko Lurraldearen Antolamendurako Artezpideek (LAA), lurraldearen gaineko jarduera sektorial guztietarako erreferentziako esparrua izanik, konpromisozko jarrera etikoa hartzea planteatzen dute, ingurumenaren tratamenduari dagokionez, inguru naturalaren arazoekiko eta aukerekiko sentikortasun berezia edukita, eta hori ez da inguruan eragin kaltegarriak ekiditera soilik mugatu behar.

LZP honen garapen iraunkorrerako konpromisoaren ondorioz, ingurumen-baliorik txikieneko lurzoruen erabilera proposatzen da; horretarako, ezarri diren irizpideetan, okupatu behar ez diren eta, beraz, jarduera ekonomikoen proposamen berrietatik salbuetsita geldiko diren lurzoruak zehazten dira; horien artean, hiru itzultze aldietariko edozeinetan uholde arriskua duten eremuak daude, balio estrategiko eta edafologiko handia baitute; hortaz, handitu egiten dira Ibai eta Erreka Ertzen LZPko eskakizunak eta Babes Aparteko izendatuko taldearen kategoria baten edo Gainazaleko Uren Babeseko kategoriaren barruko lurzoruak.

Natura- eta landa-ingurua kontserbatzeko, mugatu egin da horren erabilera, okupazioari gehieneko muga batzuk jarrita, eta horietatik kanpo ezin daiteke lurzoruaren garapen berririk egon; horrela, ingurune fisikoaren eraldaketa babestu egiten da, bai balio estrategiko handiko lurzoruak eta bai natura- zein landa-ingurumena antolatzeko proposamenaren barruko gainerako kategoriak.

Ezarritako okupaziorako gehieneko mugak ez dute horien kolonizazioa nahitaez eragiten, LZPren indarraldian. Okupaturiko balizko azalera Udal Planeamenduak zehaztuko du eta hori aipaturiko mugetatik beherakoa izango da beti, muga horiek gehieneko eremutzat hartzen baitira, malgutasuna eskaini ahal izateko; gainera, berez ez dira okupatu behar justifikazio egokirik egon ezean, LZP honek proposaturikoaren arabera. Dokumentu honetako araudian ezarritako kategorizazioari eta zehaztapenei

eutsiko diete lurzoru horiek, udal planeamenduak horretarako erabiltzen ez diren bitartean.

Udal-egitamuek hazkunde berriko lurzoruak behin betiko mugatzean, aintzat hartu behar da, lanean dihardutén nekazaritza- eta abeltzaintza-ustiapen batzuen kasuan, helburua horiek mantentzea eta hobetzea dela, baita nekazaritzako nahiz abeltzaintzako eta basoko jardueren lehiakortasuna hobetzea ere, natura- eta landa-inguruaren kalitatea mantendu egingo dela bermatzeko, eta elementu horiek ere mugatu egin ditzakete okupatu beharreko eremuak. Ildo horretan, egon dauden nekazaritza-abeltzaintzako ustiategiei eragindako kalteei buruzko azterlan espezifiko bat sartu behar da okupazioaren mugako eremuetan proposaturiko edozein jarduketaren ingurumen eraginari buruzko manuzko azterketan. Horri esker, aukerakoak eta zuzenketa neurriak zehaztuko dira.

### 8.2.1.5. Garraio publikoari eta aukerako mugikortasun-moduei loturiko irisgarritasuna.

LZP honek hiri trinkoaren eredua eta erabilera mistoen garapena jarraitu ditu, mugikortasun iraunkorraren aurkakoak diren hiri-garapeneko oraingo joera batzuk zuzentzeko ahalegina eginez.

Gaur egun, Amorebietak, Iurretak, Durangok eta Abadiñok osaturiko hiri-multzoa eremu jarraitu desartikulatua da. Ibilgailuen bideei jarraituz eta hiriaren berezko egitura lortu barik sortu diren jarduera ekonomikoak uharte iristezinak dira orain, ibilgailu partikularrak ez diren gainerako garraiobideetarako; izan ere, bideak eurak ere hesiak dira gainerako irisgarritasun mota guztietarako. Desartikulazio hori gainditu nahi da egoitzako eta jarduera ekonomikoko lurralde piezak egituratuko dituzten ardatz jarraituen bidez, aldarazitako ingurune fisikoa errespetatzeko eta kontserbatzeko. Ardatz horiek kaleak dira eraldaturiko lurretan eta egon dauden bideetan oinarrituriko zati bigunetan lurzoru urbanizaezinean. Aipatutako ekintza, erabileraren ikuspegitik begiratuta, guztiz bideragarria da, aintzat hartuta eremuetarikoren baten eta hiri-ezarkuntzen hurbiltasuna, bai oinezkoei eta bai bizikletei dagokienez, kontuan hartuta benetako distantziak eta topografia.

Egoera hori ikusita, egoitza-ezarkuntzetarako eta jarduera ekonomikoetarako lurzoru berriak aukeratzeko orduan, LZPk aintzat hartu du eremu horiek artikulazioa (hiriaren gainerako zatiarekin) eta ordezko garraiobideekiko iragazkortasuna (oinezkoak eta

bizikletak), horiek biztanle guztien eskura baitaude. Beraz, beharrezko azpiegiturak garatu behar dira halako garraiobidea sustatzeko eta garraio publikoa bultzatzeko, ibilgailu pribatuaren kaltetan, horren erabilera ez baita beharrezkoa hiriguneen barruko eta ondoko industrialdeetarako joan-etorrietan.

### 8.2.1.6. Ingurumen-balioko hiri-inguruko landazabalak:

Durangoko Eskualde Egiturako ingurumen- eta paisaia-interesa duten balio estrategiko handiko landazabalekin bat datozen eremuak mugatzen dira, neurri handian ureztagarriak, horiek funtsezko eginkizuna baitute hiri-jarraipena apurtzeari dagokionez; horrela, haran osoan zehar eta, batez ere, N-634 errepidearen inguruan eraikitako fatxada bakarraren eraketa saihestu nahi da.

Irizpidetzat, haran-hondoko hirigintza biziaren (hiri-erabilerak eta azpiegiturak elkarrekin lehian, lurzorua lortzeko) eta baserrian oinarrituriko nekazaritza jardueraren arteko bizikidetzaren zaintza ezartzen da, lurralde antropizatu hau sortzearen oroimen historikoa ere aintzat hartuta.

### 8.2.2. Jarduera ekonomikoetarako lurzoruaren kuantifikazioa.

#### 8.2.2.1. Kalkulu-metodoa.

##### 8.2.2.1.1. Beharrizanak eta eskaria.

Hitzaurretzat eta aldez aurreko irizpidetzat, egoitza-ezarkuntzen kasuan bezala, gauza bat argitu behar da jarduera ekonomikorako lurzoruaren **eskariari** eta **beharrizanari** dagokionez. Jarduera ekonomia behar bezala garatzeko objektiboki behar den kopurua izango litzateke beharrizana, eskaintzarena ez bezalakoa, beste kausa batzuk tarteko jarduera ekonomikoetarako behar izango litzatekeen lurra sartzeko. Azken batean, jarduera ekonomikorako lurzoruaren beharrizanari eman behar zaio erantzuna, eskaintza mugatua ekiditeko hanpatze-irizpideak hartu arren.

Aditzera eman behar da, hala eta guztiz ere, eskariaren barruan beharrizana kuantifikatzea zaila dela.

##### 8.2.2.1.2. Eredua.

Jarduera ekonomikoetarako lurzoruaren beharrizanera hurbiltzeko, LZPk proposaturiko kalkulu-metodoaren helburua jarduera ekonomikoetarako lurzoruaren kuantifikazioa egitea da, hori LZPk ezarritako hazkunde-**ereduari** egokituta, Eskualde Egitura osorako.

Kalkuluko metodo hau Eskualde Egituran azken urteotan Jarduera Ekonomikoetarako kalifikaturiko lurzoruaren kontsumoan oinarritzen da, etorkizunari begira ezarria eta, aldi berean, kopuru hori txikiagoa izango dela hartzen da aintzat, azken urteotan egoitzako erabilerarekin bateragarriak diren jarduera tertziarioak industrialdeetan ezartzeko joera nabarmena dela eta. Dinamika hori zuzendu nahi da proposamenean erabilera mistoak bateratzea sustatuz: tertziarioa eta egoitzakoa. Halaber, tertziarizazioaren pixkanakako aurrerapena (m2/enpleguko ratio txikiagoekin) lagungarria izango da jarduera ekonomikoetarako behar den eremurako.

### 8.2.2.1.3. Eskaintzaren mugak.

Egoitzako ezarkuntzetan bezala, LZPren xedeko Ereduari eman beharreko erantzuna bermatzeko, **eskaintza** bat aintzatesteko kontzeptua ezarri da, gehieneko eta gutxieneko kopuruen tarte bat. Muga horien arteko balio bat hautatuta, Ereduan hanpatuta ezarritako beharrizanen kuantifikazioa estal daiteke, betiere merkatuko balizko murrizpenak saihestuz.

Eskaintza hori lortzeko, egoitza-ezarkuntzekin analogiaz, **hamasei urterako hanpatze-koefizienteak** aplikatzea aukeratu da (gehieneko balioa 2koa eta gutxieneko 1.25ekoa) ereduaren erabakitik lorturiko kuantifikazioari. Beraz, gehienez, Eskualde Egitura osorako, eskaintza hori Ereduaren kuantifikazioaren bikoitza izango da, eta gutxienez, kantitate hori eta laurden.

Ereduan aurreikusitakoa baino kuantifikazio handiagoa egoteak ez du esan nahi horren betearazpena egin nahi denik; aldiz, esana dugunez, LZPren helburua ziurtatzeko bide bat besterik ez da eskaintza, hots, proposaturiko ereduan ezarritako jarduera ekonomikoetarako lurren beharrizanak betetzea.

16 urterako 2ko balioa duen gehieneko hanpatze-koefizientea hartzeak aukera ematen du hanpatze koefiziente hori, **8 urteko** aldirako (udal-planeamenduen ohizko aldia); beraz, epe horretarako eskaintza aurreikusitako beharrizana baino 3 aldiz handiagoa izateko, egoitza-ezarkuntzen kasuan azaltzen denez.

Era berean, gutxieneko hanpatze-koefizientea hartzeak (16 urterako 1.25eko balioa) aukera ematen du hanpatze-koefiziente hori, 8 urteko aldirako (udal-planeamenduen ohizko aldia), aurreikusitako beharrizana baino 1.5 aldiz handiagoa izateko.

### 8.2.2.1.4. Eredu ekonomikoaren oinarriak.

LZP honek bi aldagai bereizi dituen Eredu Ekonomikoaren aldeko apustua egiten du: alde batetik, hiriguneetatik bereizitako zonei loturiko industria-erabilera lurzoruen garapena (erabilera horiek egoitza-erabilerekin bateraezinak direlako); bestetik, egoitza-erabilerekin bateragarriak eta horiei lotutakoak (hiri-inguruetan kokaturik daudenak) diren erabilera mistoen garapena.

Egoitza-erabilerekin bateraezinak diren zonetako okupaziorako mugako eremuei dagokienez, horiek industria-jardueretarako edo jarduera logistikoetarako erabiltzen dira, trafiko astunari edo merkantzien trafikoari lotuta, eta udal-planeamenduari uzten zaio horien behin betiko erabilera aukeratzen aipaturiko erabileren artean. Hala, tamaina aparte utzita, egoitzako erabilerekin bateragarri izan daitezkeen merkataritza jarduerak bereizten dira. Esku-hartze horiek aintzat hartzen dituzte Eskualde Egitura osoaren beharrizanak.

Hiri-eremuetako edo horiekin mugakideak diren eremuetako esku-hartzeei dagokienez, ereduaren barruan hirugarren sektoreko erabilerak, merkataritza-erabilera eta enpresa-parkea edo zientzia-parkea sartzen dira, guztiak egoitza-eremuetan sartuta, espezializazio funtzional kaltegarria ekiditeko, zonen, logela-hirien eta hiritik isolaturik dauden jarduera ekonomikoko eremuen arabera, horrek kalte egiten baitu ingurumenean eta funtzioetan.

Bestalde, suspertze-eragiketetarako ez da kuantifikaziorik ezarri; izan ere, horien garapena duten lurzoruak lehendik okupaturik daude edo udal-planeamenduak jarduera ekonomikoetarako lurzorutzat kalifikaturik ditu.

Jarduera Ekonomikoetarako eta Merkataritza Ekipamenduetarako Lurzoruaren Sorrera Publikorako LAPren arabera, 1990-2002 aldian Durangaldean okupaturiko industria-lurzoruaren hazkundea 125/150 ha.koa izan da, eta horrek urteko 10 ha.ko batez besteko okupazioa adierazten du; hori, 16 urteko aldirako (LZPren indarraldia) 160 ha.koa izango litzateke. Halaber, 16 urteko aldian jarduera ekonomikoetarako lurzoruari dagokionez egon daitekeen eskarian oinarrituz, komenigarria da Durangoko Eskualde Egituran 385/535 ha. inguruko lurzoru bideragarria eta erabilgarria lortu behar da (planeamenduak kalifikatu duen eta hutsik dagoen lurzoru bideragarria ere barne); horrenbestez, agiri horretan aipaturiko hanpatze-koefizienteak oso zabalak dira, 2,5 eta 3,3 ingurukoak, eskualdearen kokaleku estrategikoaren eraginezko aukerak ere aintzat hartuta.

Bestalde, LAP horren Antolamendu Arauetako 9. artikuluan ezarritakoaren arabera, jarduera ekonomikoetarako lurzoruaren eskaintza osoaren dimentsionamendu orokorra loteslea da, eta hori eskualde-egitura edo eskualde-azpieremu bakoitzeko lurralde-antolamenduko tresnetan ezarriko da; hain zuzen ere, gehieneko eta gutxieneko balioak ezarriko dira. Horrenbestez, alde batetik, gutxieneko balioak nahitaez bete beharrekoak dira, eta bestetik, gehieneko balioak, gainditu ezin badira ere, LAPn

adierazitakoak baino txikiagoak izan daitezke. Hala eta guztiz ere, LAPk hanpatze-koefiziente oso altuak erabiltzen dituenez, adierazitako gutxienekoak betetzea ere oso zaila da.

LZP eta LAPren arteko ustezko erlazioari dagokionez, esan beharra dago lurralde zatiko planak egitamu sektorialen gainetik daudela ezarri dela Lurralde Antolamenduari buruzko 4/90 Legearen 17. artikuluan.

Nahiz eta LZPk, LAPk bezala, soilik jarduera ekonomikoetarako ezarritako azalerak dakarren eskaintzan, egun hiriguneen aldirietan dauden jarduera ekonomikoen erabilera berreskuratzea ere proposatzen da ereduan hiriguneetarako, egoitzako erabilerekin bateratuz.

Horrela, LZPk jarduera ekonomikorako lurzoruaren eskaintzaren gehieneko eta gutxieneko mugak ezartzen ditu (194,68/311,48 ha., eta LAPk, berriz, 385/535 ha.). Dena den, LZPren ereduan, hirugarren sektoreko erabilera egoitza-eremuetan integratuta jasotzen da, eta horrek industria-erabilerak baino lurzoru-azalera txikiagoa kontsumitzen du, enplegu kopuru bera sortzeko.

### 8.2.2.1.5. Ereduaren kalkulua.

#### 8.2.2.1.5.1. 16 urterako esparru-eredua.

Ereduak Durangoko Eskualde Egituran aukeraturiko jarduera ekonomikoetarako lurzoruaren kuantifikazioa kalkulatzeko erreferentziatzat, lurzoruaren kontsumoak Eskualde Egituran 1990etik 2002ra bitarteko aldian izango duen prozesua hartzen da oinarritzat, kontuan hartuta beharrizanen hazkundea aurreko epigrafeetan adierazitako datuen eta joeren araberakoa izango dela (urteko 10 ha.); industria-lurzoruaren eskabiderik handienak Abadiñon eta Amorebieta-Etxanon egongo dira, eta hirugarren sektoreko erabileretarako lurzoru-eskabiderik handiena, berriz, Durangon, Abadiñon eta Amorebieta-Etxanon.

Beharrizan horiek, azken urteotan erabilera horietarako gordetako lurzoruaren kontsumotik kenduta, moteldu egin behar dira lurzoruaren kontsumoaren patroi horren gaineko aldaketaren zenbatespenarekin; izan ere, egon dagoen ekoizpen eredua aldarazi egiten da, Eskualde Egituran aurreikusita dagoen industri sektorearen bilakaera naturalari datxezkion tertziarizaziora egotituta. Hala ere, azken aldagai hori

zenbatzeko zailtasuna dela-eta, zenbatespena saihesten da hanpatze-koefiziente batek ukituriko kopuru gisa, eta proposaturiko kopuruak hertsiki beharrezkoak diren kopuruak baino handiagoak izan direla irizten zaio. Beraz, urteko 10 ha-ko lurzoruaren beharrizana ezarri da jarduera ekonomikoetarako, eta 16 urteko epealdirako, 160 ha izango lirateke guztira.

Eredu ekonomiko honetan, hirugarren sektorearen garrantzia gero eta handiagoa izango da Egitamuaren indarraldiko urteetan, eta beraz, lurzoru-azalera urriagoa kontsumitzeko tipologiak garatu behar dira. Honekin batera Eskualde Egituran Lurralde Historiko osoko industria-lurzoruko eragiketa publiko garrantzitsuenetarikoa, azalera handiko Boroako industrialdea, jarduera ekonomikoko lurzoruko guztizko 155,74 ha-ko eremua ziurtatzen duen esparru-proposamena proposatzea ahalbidetzen duena (industri lurzoruko 149,08 ha eta erabilera tertziarioko edo misto-tertziarioko 6,66 ha, eta dagoeneko 201,04 ha-ko lurzoru librea dagoen udal planeamenduan), zeren eta erabilera batean kontsumituriko lurzoruko azalera nabarmen txikiagoa baita erabilera tertziarioetan industri erabileretan baino.

Jarduera ekonomikoarekin mantendu nahi dira Eskualde Egiturako udalerri guztiak, Garai izan ezik, horrek landa-izaera nabaria baitauka, udalerri bakoitzaren oraingo bokazioa kontuan hartuta.

Halaber, egoitzako erabilerako azalera berriaren % 10 (tertziarioa) egoitzarekin bateragarriak diren jarduera ekonomikoetarako gordetzen da. Horri dagokionez, nabarmentzekoa da pertsona kopuru berari enplegua emateko beharrezko jarduera ekonomiko tertziarioaren eremua txikiagoa dela bigarren sektorean baino. Izan ere, industri erabileran enpleguko 100 m2 eraiki behar direla zenbatetsi da eta erabilera tertziarioan 60 besterik ez (edo bestela esanda, erabilera tertziarioan eraikitako metro koadro bat, enplegu-harreran, industri erabilerako 1,66 m2-ko azaleraren baliokidea izango litzateke). Ratio horiek lurzoruaren erabileren dentsitateekin eta tipologiekin alderatuz, erabilera bakoitzari dagokion lurzoru baliokide gordina kalkulatzeko modua izango litzateke. Geroago (Jarduera ekonomikoen eskaintzaren gehieneko kuantifikazio globalari buruzko 8.2.2.1.9 atalean) berriz aztertuko dugu gaia, baina puntu honetan hauxe baino ez da erakutsi nahi: ereduan aurreikusitako azalera, egia esan, tauletan bildutako hektareen kopurua baino nahikoa handiago izango litzatekeela.

Esate baterako, eta zenbatespen hutsa baino ez den horretan zehaztasun gehiegirik emateko asmorik izan gabe, 983 enplegu hartzeko gai izan den erabilera tertziarioko

azalera emango luke Eskualde Egitura osoko ereduan aurreikusitako 6.533 etxebizitza egiteak, eginiko kalkuluen arabera eta manuzko % 10 aplikatuta. Enplegu kopuru berak eskaini dezakeen industri lurzoru gordinaren azalera baliokidea 24,56 ha-koa izango litzateke.

LZPk proposaturiko ereduaren barruan, oso ezaugarri ezberdineko lurzoru tertziarioen beste bi proposamen ere badaude. Eginiko zenbatespenen arabera, Abadiñoko Zientzi Parkeari dagokion lurzoru tertziarioak gutxi gorabehera 100 enplegu har ditzake hektareako, betiere ingurunearen eraikigarritasuna kontuan izanik. Amorebieta-Etxanoko egoitzako eta erabilera tertziarioko dentsitate altuko erabilera mistoko lurzoruaren barruko erabilera tertziarioaren azalerak, aldiz, gutxi gorabehera 150 enplegu hartuko lituzke hektareako, aurreikusitako eraikigarritasuna kontuan izanik. Baldin eta industri lurzoru gordineko hektarea batek (0,4 m2c/m2-ko eraikigarritasuna) 40 enplegurentzako euskarria ematen duela aintzatetsita, gutxi gorabehera 2,5 eta 3,75 koefizienteak eman daitezke, hurrenez hurren, proposaturiko erabilera tertziarioko azalerak erlazionatzeko, ondoko taulak dakarrenez.

| ERABILERA | AZALERA (ha.) | ENPLEGU KOP. | KOEFIZIENTEA |
|---|---|---|---|
| **Industriakoa** | **1** | **40** | **1** |
| **Hirugarren Sektoreko DE (Abadiño Zientzi parkea)** | **1** | **100** | **2,5** |
| **Hirugarren Sektoreko DA (Amorebieta-Etxano)** | **1** | **150** | **3,75** |

Hurrengo taulan ikus daitekeenez, aipaturiko koefizienteak aplikatuz, Ereduan proposaturiko 155,74 hektareak industri lurzoru gordineko 167, 93 Ha-ren baliokideak izango lirateke gutxi gorabehera. Horri gehitu beharko litzaizkioke aurreko zenbatespenei dagozkien 24,56 hektareak LZPren manua aplikatzeagatik, hots, egoitza lurzoruaren % 10 erabilera tertziariorako gordetzea, 192,49 Ha baliokideak guztira, eta Jarduera Ekonomikoen LAPk aurreikusitako eskari gisa aintzat harturiko 160 hektareak askoaz gainditzen dira.

**JARDUERA EKONOMIETARAKO LURZORUA**
**LZP-REN 16 URTERAKO EREDUAREN KOPURUA INDUSTRI LURZORU BALIOKIDEAREN AZALERA PAREKATZEA**
**(> 160 Ha-ko eskaera. Jarduera Ekonomikoetarako LAP)**

| | **Ha. LZP** | **Industriala 1,0 Koef.** | **Hirugarren S. DE 2,5 Koef.** | **Hirugarren S. DA 3,75 Koef.** | **Industria-Lurzoruko baliokide Ha.** |
|---|---|---|---|---|---|
| Industria-Lurzoru eta Jarduera Ekonomietarako bete gabekoa | 149,08 | 149,08 | | | 149,08 |
| Hirugarren S. DE Abadiñoko Z-P | 4,90 | | 4,90 | | 12,25 |
| Hirug. S. - Mistoa DA Amorebieta | 1,76 | | | 1,76 | 6,60 |
| Egoitzarako lurzoruaren %10 6553 etxebizitza | | | | | 24,56 |
| **Guztira** | **155,74** | | | | **192,49** |

Ondoren, LZPren 16 urterako esparru-proposamena (jarduera ekonomikorako lurzoruari dagokionez) jasotzen duen taula ikusiko dugu. Jarduera Ekonomikorako lurzoruaren kantitatea, udalerri bakoitzari esleitzen zaiona, udalerriaren harrera-gaitasunaren araberakoa da. Aipagarria da ereduaren 16 urterako kantitate osoa, izan ere, oraingo indarreko planeamenduaren gaitasuna (lehen adierazitakoa) baino txikiagoa dela. Hortaz, ereduaren beharrizanak hertsiki betetzeko, ez litzateke beharrezkoa izango LZPn aipaturiko lurzoru berria sartzea.

| JARDUERA EKONOMIKOETARAKO LURZORUA<br>ESPARRU-EREDUA<br>16 URTERAKO EREDUAREN KUANTIFIKAZIOA | | | |
|---|---|---|---|
| | **Guztira (Ha.)** | **Industr. (Ha.)** | **Mistoa-H. sekt. (Ha.)** |
| ABADIÑO * | 9,35 | 4,90 | 14,25 |
| DURANGO | 26,28 | 0,00 | 26,28 |
| IURRETA | 20,00 | 0,00 | 20,00 |
| IZURTZA | 4,00 | 0,00 | 4,00 |
| GUZTIRA | 59,63 | 4,90 | 64,53 |
| AMOREBIETA-ETXANO ** | 61,30 | 1,76 | 63,06 |
| ELORRIO | 11,24 | 0,00 | 11,24 |
| ATXONDO | 3,57 | 0,00 | 3,57 |
| BERRIZ | 10,50 | 0,00 | 10,50 |
| GARAI | 0,00 | 0,00 | 0,00 |
| MAÑARIA | 2,09 | 0,00 | 2,09 |
| ZALDIBAR | 0,77 | 0,00 | 0,77 |
| **DURANGOKO E.E.** | **149,08** | **6,66** | **155,74** |

***** Abadiñon, funtsean, erabilera tertziarioko lurra (Zientzi parkea).
****** Amorebieta-Etxanon, dentsitate handiko lur mistoari dagokion tertziarioaren zatia

### 8.2.2.1.5.2. 8 urterako esparru-eredua.

Bere Planeamendu Orokorra ikuskatzen duen udalerri bakoitzak kalkulatu egin beharko du Lurraldearen Zatiko Egitamuak udal planeamendu horretan ezarritako legezko epealdirako, hain zuzen LZP honetan soilik erreferentziatzat hartutako epealdirako. 16 urterako esparruaren azalera erdia dela esan daiteke.

Jarduera ekonomikoetarako lurzoruaren kantitate horri erantzuna emateko orduan, helburua ez da kantitate hori industrialde berriekin lortzea; izan ere, Udal Planeamenduak bermatu egin behar du lurzoru-kantitate hori lehen azaldutako estrategien bidez lortzen dela, eta, estrategia horien artean, aipagarria da eraikitako eta urbanizaturiko ondarearen optimizazioa.

Edozelan ere, Ereduan ezarritako beharrizanen kopurua da garatu nahi dena; planeamenduan hutsik dagoen gaitasunarekin bete liteke kopuru hori zenbait udalerritan. Horrenbestez, gutxieneko eta gehieneko hanpatzearen arteko balioen tarte

bat ezarri du eskaintzak, halako moldez non udal planeamenduak muga horien arteko kopuru bat hautatuta ziurtatu egingo baita beharrizanak estaltzeko gai izan den eremu bat lortzea, merkatuaren balizko estutasunak saihestuz.

Hortaz, Udal Planeamenduak lehentasunez oinarrizko ordena zehaztu eta programazio-baldintzak ezarri beharko ditu, bidezko eremuetarako, planeamenduan aurreikusitako eperako jarduera ekonomikoetarako lurzoru-azaleraren erabilgarritasuna (Ereduan ezarritakoa) lortu ahal izateko.

Hurrengo taulan, 8 urterako ereduaren kuantifikazioa azaltzen da, ohiko epealdia baita udal planeamenduan, eta epe horretan garatu beharko liratekeen jarduera ekonomikoetarako lurzoruaren eremua ezarri da esparru-ereduaren aplikazio lez.

| **JARDUERA EKONOMIKOETARAKO LURZORUA EREDUAREN UDAL APLIKAZIOA EREDUAREN 8 URTERAKO KUANTIFIKAZIOA** | | | |
|---|---|---|---|
| | **Guztira (Ha.)** | **Industr. (Ha.)** | **Mistoa-H. sekt. (Ha.)** |
| ABADIÑO * | 4,68 | 2,45 | 7,13 |
| DURANGO | 13,14 | 0,00 | 13,14 |
| IURRETA | 10,00 | 0,00 | 10,00 |
| IZURTZA | 2,00 | 0,00 | 2,00 |
| **GUZTIRA** | 29,82 | 2,45 | 32,27 |
| AMOREBIETA-ETXANO ** | 30,65 | 0,88 | 31,53 |
| ELORRIO | 5,62 | 0,00 | 5,62 |
| ATXONDO | 1,78 | 0,00 | 1,78 |
| BERRIZ | 5,25 | 0,00 | 5,25 |
| GARAI | 0,00 | 0,00 | 0,00 |
| MAÑARIA | 1,04 | 0,00 | 1,04 |
| ZALDIBAR | 0,38 | 0,00 | 0,38 |
| **DURANGOKO E.E.** | **74,54** | **3,33** | **77,87** |

***** Abadiñon, funtsean, erabilera tertziarioko lurra (Parke Zientifikoa).
****** Amorebieta-Etxanon, dentsitate handiko lur mistoari dagokion tertziarioaren zatia

### 8.2.2.1.6. Lurzoru-eskaintzaren mugak.

### 8.2.2.1.6.1. 16 urterako esparru-eskaintza.

Egoitza-ezarkuntzen kasuan bezala, kudeaketaren arazoen ondoriozko zurruntasuna aintzat hartuta, komenigarria da EAEko udalerrietako planeamenduak jarduera ekonomikoetarako eskainiko den lurzoru berria kasuan kasuko eskarira ez mugatzea.

LZPren planteamendu metodologikoan, eskaintzaren gutxieneko eta gehieneko mugak ezarri dira, Eskualde Egitura osorako modu globalean hanpatze-koefizienteak aplikatzearen ondorioz, betiere ereduaren arabera eta eskaintza bihurtzean jarduera ekonomikoetarako aurreikusitako lurzoru-azaleraren gainean kalkulatu ondoren. Kontua ez da garatu beharreko aurreikusitako azalera handitzea, baizik eta nahikoa lurzoru aurreikuspen zabalak ahalbidetzea, jarduera ekonomikoetarako behar den lurzorua izateko moduan, hiri garapeneko prozesuek duten balizko zurruntasuna gorabehera.

Gehieneko eta gutxieneko koefiziente hauek aplikatzearen helburua, LAAen espirituari jarraituz, maniobra-bitarte nahikoa bermatzea da, eskarian aurreikusi gabeko inflexioei erantzun egokia eman ahal izateko, planeamenduaren aldaketa gertatzen den bitartean.

16 urteko aldiko denbora-garapena planteatuz, egoitza-ezarkuntzen kasuan bezala, honako hanpatze-koefiziente hauek aplikatu dira, gehieneko eta gutxieneko balioak aintzat hartuta, udalerri bakoitzak (balio horien artean) bere hazkunde eredua erabaki ahal izateko.

- Eskaintzaren gehieneko balioa hamasei urterako kuantifikazioa, 2ko koefizientearekin biderkatuta baliokidea da.
- Udalerri bakoitzaren eskaintzaren gutxieneko balioa, hamasei urterako kuantifikazioa, 1,25eko koefizientearekin biderkatuta baliokidea da.

Gehieneko eskaintza kalkulatu ondoren, udalerriak balio txikiagoa hartzeari kalterik egin gabe, betiere ezarritako gutxieneko muga baino txikiagoa ez bada eta Eskualde Egiturako Lurralde Azterketarekin bat etorriz, lurraldearen okupaziorako mugako eremuak aukeratuko dira, udalerri bakoitzaren harrera-gaitasunaren arabera. Baina kontuan hartu behar da dagoeneko badela hutsik dagoen gaitasuna udal planeamenduetan eta soilik nahikoa gaitasuna ez bada.

Gehieneko eskaintza baimentzen denez, helburua horren betearazpena ez bada ere (ereduaren kantitatea bermatzea baizik), hazkunderako mugako eremuen mugaketa koherentea izan behar da egindako kalkuluarekin, eta nahikoa eremu handiak eskaintzen dira planeamenduaren malgutasuna ahalbidetzeko.

Eskualde Egiturako jarduera ekonomikorako gehieneko eta gutxieneko lurzoru-eskaintzaren mugak kalkulatzearen ondoriozko laukiak honako hauek dira:

| JARDUERA EKONOMIKOETARAKO LURZORUA. ESPARRU-ESKAINTZA 16 URTERAKO ESKAINTZAREN GEHIENEKO MUGA | | | |
|---|---|---|---|
| | **Industriala (Ha.)** | **Mistoa-Hirug.S.* (Ha.)** | **GUZTIRA (Ha.)** |
| ABADIÑO * | 18,70 | 9,80 | 28,50 |
| DURANGO | 52,56 | 0,00 | 52,56 |
| IURRETA | 40,00 | 0,00 | 40,00 |
| IZURTZA | 8,00 | 0,00 | 8,00 |
| TOTAL | 119,26 | 9,80 | 129,06 |
| AMOREBIETA-ETXANO ** | 122,60 | 3,52 | 126,12 |
| ELORRIO | 22,47 | 0,00 | 22,47 |
| ATXONDO | 7,13 | 0,00 | 7,13 |
| BERRIZ | 21,00 | 0,00 | 21,00 |
| GARAY | 0,00 | 0,00 | 0,00 |
| MAÑARIA | 4,17 | 0,00 | 4,17 |
| ZALDIBAR | 1,53 | 0,00 | 1,53 |
| **DURANGOKO E.E.** | **298,16** | **13,32** | **311,48** |

***** Abadiñon, funtsean, erabilera tertziarioko lurra (Zientzi parkea).
****** Amorebieta-Etxanon, dentsitate handiko lur mistoari dagokion tertziarioaren zatia

| JARDUERA EKONOMIKOETARAKO LURZORUA. ESPARRU-ESKAINTZA 16 URTERAKO ESKAINTZAREN GUTXIENEKO MUGA | | | |
|---|---|---|---|
| | **Industriala (Ha.)** | **Mistoa-Hirug.S.*** | **GUZTIRA (Ha.)** |

| | | (Ha.) | |
|---|---|---|---|
| ABADIÑO * | 11,69 | 6,12 | 17,81 |
| DURANGO | 32,85 | 0,00 | 32,85 |
| IURRETA | 25,00 | 0,00 | 25,00 |
| IZURTZA | 5,00 | 0,00 | 5,00 |
| GUZTIRA | 74,54 | 6,12 | 80,66 |
| AMOREBIETA-ETXANO ** | 76,63 | 2,20 | 78,83 |
| ELORRIO | 14,04 | 0,00 | 14,04 |
| ATXONDO | 4,46 | 0,00 | 4,46 |
| BERRIZ | 13,13 | 0,00 | 13,13 |
| GARAI | 0,00 | 0,00 | 0,00 |
| MAÑARIA | 2,61 | 0,00 | 2,61 |
| ZALDIBAR | 0,96 | 0,00 | 0,96 |
| **A.F. DURANGO** | **186,37** | **8,32** | **194,69** |

***** Abadiñon, funtsean, erabilera tertziarioko lurra (Zientzi parkea).

****** Amorebieta-Etxanon, dentsitate handiko lur mistoari dagokion tertziarioaren zatia

### 8.2.2.1.6.2. Eskaintza 8 urtera aplikatzea.

Udal Planeamenduaren eskaintzaren esparrua aplikatzea ahalbidetzeko, Planeamenduaren epealdiari egokitu behar zaio esparrua; 8 urteko epealdia izan ohi da.

Hurrengo taulan, jarduera ekonomikoetarako lurzoru-eskaintzaren kuantifikazioa agertzen da, Eskualde Egiturako udalerri bakoitzerako eta 8 urteko aldirako; berori lortzeko, 8 urtean betearazi beharreko azalera biderkatu egin behar da aldi horri dagozkion hanpatze-koefizienteekin.

8 urteko aldi horretarako, 8 urterako esparru proposamenean sarturiko lurzoru-azalerei, 16 urteko aldikoetan oinarrituz lorturiko hanpatze-koefizienteak aplikatu zaizkie, atal egokian azaltzen denez.

Udalerri bakoitzak bere hazkunde ekonomikoaren eredua aukeratzeko gehieneko eta gutxieneko balioak aintzat hartuta, koefizienteak honako hauek dira:

- Udalerri bakoitzaren eskaintzaren gehieneko balioa ez da izango ereduaren zortzi urterako kuantifikazioa 3ko koefizientearekin biderkatuta ateratzen dena baino handiagoa.
- Udalerri bakoitzaren eskaintzaren gutxieneko balioak bete egin behar du ereduaren zortzi urterako kuantifikazioa, hori 1.5eko koefizientearekin biderkatuz.

Eskualde Egiturako 8 urterako jarduera ekonomikoetarako lurzoru-eskaintzaren gehieneko eta gutxieneko mugak kalkulatzearen ondoriozko laukiak honako hauek dira:

| JARDUERA EKONOMIKOETARAKO LURZORUA.<br>ESKAINTZAREN UDAL APLIKAZIOA<br>8 URTERAKO ESKAINTZAREN GEHIENEKO MUGA | | | |
|---|---|---|---|
| | **Industr. (Ha.)** | **H. Sekt. (Ha.)** | **Guztira (Ha.)** |
| ABADIÑO * | 14,03 | 7,35 | 21,38 |
| DURANGO | 39,42 | 0,00 | 39,42 |
| IURRETA | 30,00 | 0,00 | 30,00 |
| IZURTZA | 6,00 | 0,00 | 6,00 |
| GUZTIRA | 89,45 | 7,35 | 96,80 |
| AMOREBIETA-ETXANO ** | 91,95 | 2,64 | 94,59 |
| ELORRIO | 16,85 | 0,00 | 16,85 |
| ATXONDO | 5,35 | 0,00 | 5,35 |
| BERRIZ | 15,75 | 0,00 | 15,75 |
| GARAI | 0,00 | 0,00 | 0,00 |
| MAÑARIA | 3,13 | 0,00 | 3,13 |
| ZALDIBAR | 1,15 | 0,00 | 1,15 |
| **DURANGOKO E.E.** | **223,63** | **9,99** | **233,62** |

***** Abadiñon, funtsean, erabilera tertziarioko lurra (Parke Zientifikoa).

****** Amorebieta-Etxanon, dentsitate handiko lur mistoari dagokion tertziarioaren zatia

| JARDUERA EKONOMIKOETARAKO LURZORUA.<br>ESKAINTZAREN UDAL APLIKAZIOA<br>8 URTERAKO ESKAINTZAREN GUTXIENEKO MUGA | | | |
|---|---|---|---|
| | **Industriala (Ha)** | **Tertziarioa * (Ha)** | **GUZTIRA (Ha)** |
| ABADIÑO * | 7,01 | 3,68 | 10,69 |
| DURANGO | 19,71 | 0,00 | 19,71 |
| IURRETA | 15,00 | 0,00 | 15,00 |
| IZURTZA | 3,00 | 0,00 | 3,00 |
| GUZTIRA | 44,72 | 3,68 | 48,40 |
| AMOREBIETA-ETXANO ** | 45,98 | 1,32 | 47,30 |
| ELORRIO | 8,43 | 0,00 | 8,43 |
| ATXONDO | 2,67 | 0,00 | 2,67 |
| BERRIZ | 7,88 | 0,00 | 7,88 |
| GARAI | 0,00 | 0,00 | 0,00 |
| MAÑARIA | 1,56 | 0,00 | 1,56 |
| ZALDIBAR | 0,57 | 0,00 | 0,57 |
| **DURANGOKO E.E.** | **111,81** | **5,00** | **116,81** |

***** Abadiñon, funtsean, erabilera tertziarioko lurra (Parke Zientifikoa).

****** Amorebieta-Etxanon, dentsitate handiko lur mistoari dagokion tertziarioaren zatia

### 8.2.2.1.7. Tertziarizazioa.

Zerbitzu-sektoreak garrantzi gero eta handiagoa dauka ekonomia garatuetan, eta industria-sektorearen txanda hartu du, produkzio- eta enplegu-kuotarik handiena sortzen duen jarduera-multzotzat. Europar Batasuneko herrietan, sektore horretan enpleguaren %70 inguruko kuotak daude.

Aurreko epigrafeetan aipaturiko datuetan, berretsi egiten da sektoreak apurka-apurka gero eta garrantzi handiagoa duela, Eskualde Egiturako produkzio-jardueraren multzo osoaren barruan.

Hiri txikietan eta ertainetan, tertziarizazioaren fenomenoa kontsumoak eta bizi-kalitateak izandako hazkundeari lotuta dago; hori, oro har, merkataritza- edo zerbitzu-jardueretan oinarritzen da, eta jarduera horietariko bakoitzak bere espazio-testuinguruan duen garrantziak hiri barruan duen forma eta funtzionamendua azaltzen ditu.

“Ekonomia berriaren” garapenak bultzada handia eman dio zerbitzu-sektoreari; izan ere, jarduera asko lan-adar horrexetan sortu dira (informazioa eta komunikazioak), eta aldaketak, berriz, beste zenbait arlotan egon dira (adibidez, finantzak, garraioa, turismoa, merkataritza, etab.).

Beharrezkoa da LZPk garapenerako joerako eredua aintzatestea eta lurralde horretarako etorkizuneko proposamenen artean txertatzea. Ildo horretan, zientzi parke bat proposatzen da Abadiñoko lurretan, Durango alboan. Zentralitate eremu horretan, jakintzarekin, ikerketa zientifikoekin eta teknologia berriekin lotutako jardueren gune bat bultzatu nahi da, trebakuntzarekin eta irakaskuntzarekin lotuta egin daitezkeenak eta informazioa, kalkulua edo datu-prozesua, softwarearen garapena, sistema informatikoak, laborategiko materiala eta, oro har, ikerketa, garapen eta berrikuntzaren aroko jarduerak ekar ditzakeena.

### 8.2.2.1.8. Sustapen publikoko jarduera ekonomikoetarako lurzorua.

Industria-lurzorua sustatzeko jarduera publikoak BIZKAILUR, S.A. sozietatean pilatu dira; hori UI-13 Boroa Sektoreko industrialdeak sustatu du, Amorebieta-Etxanoko udal mugartean, eta bertako hirigintza-obrak 2001eko azken hiruhilekoan esleitu eta

dagoeneko amaituta daude; bertan sorturiko lurzoruak merkaturatzen ari dira. Halaber, Zubietako industrialdea ere sustatu du (berori ere Amorebieta-Etxanon); bertan, berriz, merkataritza- nahiz gizarte-erabilerak nahasten dira, eta esleituta dago. Eskualde Egituran dimentsio handiak dituzten bi industrialde horiek, izan ere, jarduera ekonomikoak edukitzeko kalitatezko lurzoruak garatzeko sustapen publikoko apustua osatzen dute.

Jarduera Ekonomikoetarako eta Merkataritza Ekipamenduetarako Lurzoru Publikoa Sortzeko Lurraldearen Arloko Planaren barruan, Durangorako eta Abadiñorako jarduera ekonomikoetarako eta merkataritza-establezimenduetarako lurzoru sorkuntza publikoa jasotzen da, lehenengo kasuan jarduera ekonomiko orokorrerako industrialde-sarea eta bigarrenean garraio-zerbitzuen sarea sortzeko.

Ildo horretan, SPRILURen ekimen bat bildu da LZPn, Elorrioko Pulla eremuan industri lurzoruaren sustapen publikoa burutzeari buruzkoa. Oraingo industri lurzoruen alboko lurrak dira, saihesbidetik hurbil, eta horrek erraztu egingo luke ibilgailu astunak sartzea. Bestalde, Elorrion hutsik dagoen lur gutxi dago; lurrak ez dira alubialak eta ez dute balio agrologiko handirik: zatirik handienak belar-bazkako larreek okupatuta daude, kalitate paisajistiko handirik gabeko larreek. Mugaketaren barruan, presuntzio arkeologikoko zona bat sartu da, Ibarguen dorretxearekin bat datorrena, eta hori zaindu egin beharko da indarreko legerian ezarritakoarekin bat etorriz. .

Aditzera eman behar da harturiko ereduaren berezko bilakaerak aintzat hartzen duela erabilera mistoen sorrera (jarduera ekonomikoa/egoitza), indarreko planeamenduak orain kalifikaturik dituen egoitza-lurzoruetan. Horien artean, aipagarria da Euskotren lurperatzeko hirigintza-eragiketa, Durangon; bertan, hiri-erabileretarako askaturiko eta susperturiko azalera 55.401 m2-koa da eta horrek 1,4 m2/m2-ko erabilgarritasuna dauka (gehieneko azalera 77.561 m2-koa). Egoitza-erabilera nagusiko eremu honetan, erabilera osagarrien (hirugarren sektorekoak ere barne) erabilgarritasun osoaren %25 ahalbidetzen da.

LZPren ustez, ez da beharrezkoa sustapen publikoko jarduera ekonomikoetarako lurzoru-azalera berririk erreserbatzea; izan ere, LZPren indarraldirako nahikoak dira proposaturik daudenak.

### 8.2.2.2. Eredu ekonomikoaren kudeaketa.

Aldez aurreko argibidetzat, gogoratu behar da garatu nahi den jarduera ekonomikoetarako lurzorua ereduan aurreikusitako lurzorua dela, eta ez eskaintzan hanpatutako lurzorua, horren eginkizuna itotzeak saihestea baita.

LZPk lurzoru berriaren kontsumoa geldiarazteko proposamena egiten du, azken urteotako joera iraulita. Horretarako, lehentasunez estali beharko lirateke ikusitako beharrak, jarduera ekonomikoen eremuak birsortuz eta hutsik dauden lurrak okupatuz, salbu eta planeamenduaren berrikuspenak jarduerak deskalifikatzea ezarri badu eta bakarrik behar-beharrezkoa denean, okupazioaren mugako eremuen barruko garapen berriekin.

#### 8.2.2.2.1. Jarduera ekonomikoen eremuak suspertzea.

Eraikitako eta urbanizaturiko ondarearen optimizazioa, jarduera ekonomikoen eremuetan, **suspertzea** behar du; horren helburua oraingo industria-paisaia egokitzea eta irudia hobetzea da, EAEko industrializazio masiboaren garaian sorturiko hiri-espazioetan.

Jarduera ekonomikoetara (gehienbat, industriakoak) eratxikitako lurzoruak suspertzeko eragiketetan, honako irizpide hauek hartu beharko dira aintzat:

Industriako hiri-espazioen oraingo irudia (LZPren grafikoetan jasotakoa) egokitu egin beharko da, honako honetarako:

i. Finkaturiko lurzoru okupatuak hobetzeko.
ii. Barruko egitura-ardatz jarraituak sortzeko, eta, horrela, hiri-egitura koordinatua eta autonomoa edukitzeko, barruko komunikazioetan.
iii. Industria-eremu zaharkituak suspertzeko.
iv. Industria-kalifikazioa duten okupaziorik gabeko lurzoruak garatzeko eta horietan tipologia berriak integratu ahal izateko; bertan, ezaugarri nagusiak inguru atsegina edukitzea, eraikitako espazioak erakargarriak izatea eta faktore kualitatiboen nagusitasuna (kuantitatiboei dagokienez) izango dira.
v. Ingurumeneko neurri zuzentzaileak ezartzeko, beharrezkoa izanez gero.

LZPk funtsezkotzat jotzen du oraingo industrialdeetan jarduketak egitea, funtzio, egitura edo bizigarritasun egokitzapena egiteko, urbanizazio hutsuneengatik edo haietako batean zuzenketa neurketak ezartzeko posibilitateagatik. Horri dagokionez, 4/1990 Legearekin bat etorriz, lau Suspertze Eremu proposatzen dira Amorebieta-Etxanon eta Iurretan, dokumentazio grafikoan jasotakoak; dena den, Udal

Planeamenduak beste eremu batzuk zehaztu ahal ditu suspertzeko. Gainera, horietariko zenbaitetan, hiriguneetan kokaturik daudenez, neurri zuzentzaileak hartu beharko dira, ingurumenean sortzen duten eragina ahalik eta gehien murrizteko.

### 8.2.2.2.2. Planeamenduaren gaitasuna.

Lehen esan dugunez, Udal Planeamenduak ereduaren arabera ezarritako gehieneko kantitatea segurtatu behar du. Helburua ez da kantitate hori industrialde berriekin soilik lortzea, lehen azaldutako estrategiak erabiltzea baizik, eta, horien artean, aipagarria da eraikitako eta urbanizaturiko ondarearen optimizazioa.

Jarduera Ekonomikoetarako kalifikaturiko lurzoruari dagokionez, kasu honetan Udalplan 2008 deritzoneko datuak erreferentziatzat hartuta, Durangoko Eskualde Egiturak kalifikaturiko lurzoruko 748,74 hektarea ditu, eta horien %73 okupaturik daude.

Okupatu gabeko lurzoru-erreserbarik handiena Amorebieta-Etxanon dago, 89,07 hektarearekin; azalera horren barruan, Boroako eta Zubietako industrialdeak bateratzen dira (orain garapen-fasean). Bestalde, Garai jarduera ekonomikoetarako soilik ez den lurzorurik gabeko udalerri bakarra da.

Eskualde Egiturako gune ekonomiko nagusietan (Durango, Amorebieta-Etxano eta Abadiño), lurzoru-erreserbak nahikoak dira barruko eskariari erantzun egokia emateko, epe laburrean eta ertainean. Hala ere, kontuan hartuta Eskualde Egiturak Bilbo Metropolitarreko itotzea arintzeko gunetzat duen eginkizuna eta beste eskualde-egitura batzuetako langileak erakartzeko gunea dela, epe ertainean jarduera ekonomikoetarako lurzorua prestatzeko etengabeko prozesua garatu behar da, eta horretarako, zaharkituriko industria-eremuak suspertu eta, aldi berean, lurzoru berriak sor daitezke.

Honako taula honetan, Jarduera Ekonomikoetarako planifikaturiko lurzoruaren datuak daude jasota (2008ko abendua).

| JARDUERA EKONOMIKOETARAKO LURZORUA. INDARREKO PLANEAMENDUA | | | |
|---|---|---|---|
| | **Lurz. Kalifikatua** | **Lurz. okupatua** | **Lurz. hutsik (Ha)** |

| | (Ha) | (Ha) | |
|---|---|---|---|
| ABADIÑO | 112,28 | 102,80 | **9,48** |
| DURANGO | 90,13 | 41,53 | **48,60** |
| IURRETA | 83,91 | 61,11 | **22,80** |
| IZURTZA | 17,57 | 9,57 | **8,00** |
| **GUZTIRA** | **303,89** | **215,01** | **88,88** |
| AMOREBIETA-ETXANO | 294,79 | 205,72 | **89,07** |
| ELORRIO | 53,88 | 49,44 | **4,44** |
| ATXONDO | 26,61 | 19,48 | **7,13** |
| BERRIZ | 42,56 | 36,74 | **5,82** |
| GARAI | 0,00 | 0,00 | **0,00** |
| MAÑARIA | 5,80 | 1,63 | **4,17** |
| ZALDIBAR | 21,21 | 19,68 | **1,53** |
| **DURANGOKO E.E.** | **748,74** | **547,70** | **201,04** |

Iturria: Udalplan 2008

### 8.2.2.2.3. EHLABren oharrak. Jarduera ekonomikoen LAP.

Euskal Herriko Lurraldea Antolatzeko Batzordearen manuzko txosten loteslean, LZPren hasierako onespena baino lehenago, ondoko oharrak bildu dira, LZPren aurreikuspenak eta jarduera ekonomiko eta merkataritza-ekipamenduetarako lurzoruaren sorkuntza publikoaren Lurraldearen Arloko Planaren aurreikuspenak alderatzean:

*"…eskaintza bideragarri gisa zenbatu daitekeen lurzoru libreko 200 Ha izan arren, LAPk beharrezkotzat jotzen du lurzoru eskaintza bat, egitamuaren epealdirako aurreikusi beharrekoa eta 100/150 Ha-koa, egitamuan planteaturiko sustapen publikoko eragiketak garatzeko beharrezko kalifikazio berri gisa, baita 100/200 Ha-koa ere 16 urterako egitamuan aurreikusitako lurzoru kalifikatuaren beste erreserba batzuen gisa. Ondorioz, hutsik dagoen lurraren eskaintza 400 – 500 Ha-koa da. LZPk eskaintzen duena, berriz, 189 – 303 Ha-koa da."*

*Zifra hori, ikus daitekeenez, 50,3 Ha-koa da (Abadiñoko planeamenduan kalifikaturiko lurzorua, Batzordearen aldeko txostena duena eta behin betiko onesteko zain dagoena), eta handitu egingo luke planeamenduan hutsik dagoen azalera erreala, 253,8 Ha-ra hain zuzen. Ondorio gisa esan daiteke, beraz, LZPk gehienez 303 Ha-ko azalera proposatzen badu, bakarrik 50 Ha inguruko azaleran geldituko liratekeela soilik jarduera mota horretarako kalifikazio berrien posibilitateak LZPren 16 urteko indarraldirako. Azalera hori doitua izan litekeela pentsa daiteke."*

*"1994-2006ko epealdian, 223,58 Ha-ko azalera kontsumitu da, hots, batez beste 17,20 Ha/urtea, baina egia da ere 1999-2006ko epealdian azalera txikiagoa izan dela, 51,72 Ha, hots, batez beste 7,4 Ha/urtea gutxi gorabehera. Horrek berretsi egiten du lehenago ateratako ondorioa: horrelako lurzoru motaren kuantifikaziorako abiapuntuko datua, 10 Ha/urtea, doitua dela, zeren eta, LAPren premisa bada ere, LAPk hanpatze handiagoa ematen baitio eskari garbiari, proposamen berriez gain (250/350) planeamenduek hutsik dagoen lurzoruaren gaineko 200 Ha-ko azalera ematen dutelako."*

Egia esan, Batzordeak bere argudioetan darabiltzan elementuekin, interpretazio pixka bat desberdina egin daiteke, Jarduera Ekonomikoen LAPren beraren ezaugarri batzuk edo besteak azpimarratuz gero. Horretarako, Eskualde Egitura honek garapen berriak hartzeko duen gaitasun erreal mugatua izan beharko litzateke kontuan.

Izan ere, Antolamenduari buruzko Legearen arabera LZP plan sektorialen gainetik egotea baino harago joanda, jarduera ekonomikoetarako lurzoruaren beharrizanari erantzuna emateko lur-eremuak mugatzen saiatzen da LZP, betiere hainbat aukera aztertuta. Hala eta guztiz ere, Lurralde Ereduaren hainbat alderdiren orekari ere erreparatu behar dio: ereduaren iraunkortasun irizpideak; eremuak agrologiaren, naturaren, ingurumenaren, paisaiaren eta abarren aldetik duen balioa; etab. Zehazkiago, Eskualde Egiturarena bezalako topografia malkartsuan, lurzoru alubial apurrak babestu nahi dira garapen berrietatik, lurzoruon balio agrologiko altua dela-eta.

Bestalde, LAPk ez bezala, LZPk industri lurzoruaren beharren gainean egiten duen kuantifikazioak ez du soilik aintzat hartzen erabilera horiek aurreko hamabi urtean hartzeko erabilitako lurzoruaren kontsumoa, baizik eta ekoizpen ereduaren pixkanakako aldaketa, erabilera tertziarioa nagusi deneko eredu baterako aldaketa, eta erabilera tertziario eta egoitzako erabilera mistoak txertatzea. Ereduaren aldaketa

horrek moteldu egiten du epe ertainerako eta luzerako joera eta LZPtik lurzoruaren beharren murrizketa aurreratzea ahalbidetzen du.

Ereduaren proposamenean, egoitzarekin bateragarriak diren erabileren kokapena errazten da egoitzako lurzoruetan edo mistoetan, inguruko industrialdeak trafiko astunerako irisgarriak utziz jarduera industrial edo logistikoagoetarako. Aldi berean, industri gune zaharkituak eta bertan behera utzita dauden industri guneak berritzeko lana jaso beharko dute industri lurzorua eta jarduera ekonomikorako lurzorua handitzeko posibilitate erreal bisa, betiere lehentasuna izanik lurraldean jarduera berriak kokatzearen aurrean.

Hala, azken urteetan garaturiko eredua berriz bideratzen saiatzen ari da LZP, egoitza guneetarako erabilera tertziarioak eta zerbitzuetako erabilerak berreskuratuz eta hiri trinkoagoa sustatuz. Horrexegatik proposatzen du jarduera ekonomikoen kopuru bat egoitzako lurzoru berrietarako, logela-hiriak galarazteko.

Proposaturiko ereduan sartutako kopuru horiek industri lurzoruaren ez bezalakoak dira, arlo kuantitatiboan zein kualitatiboan, baina hori ez da aintzatesten txostenean; izan ere, azterketaren epealdiaren ondoriozko zifra kontinuistei eusten die behin eta berriz. Edozelan ere, badirudi Batzordeak LAPren ezaugarri batzuei garrantzi handiagoa ematen diela beste batzuei baino, ondoren ikusiko denez.

Horretatik guztitik ondoriozta daitekeenez, beharrizanen inguruan emandako zifra, 10 Ha/urtea, ez da guztiz doitzat hartu behar, gutxi gorabeherakotzat baino. Eta horren froga dugu lurzoru-kontsumoan azken urteetan izandako pixkanakako joera: zifra horretatik beherako zifrak izan dira, eta horrek LZPren ereduaren iragarpenak berretsiko lituzke.

Ildo horretan, txostenaren arrazoibideak zalantzan jartzen du LAPk emandako beharrizanen kopurua, eta LAPk eskari garbiari hanpatze handiagoa ematen diola ohartarazten du. Interpretazio zorrotzago batek, ordea, ontzat emango luke ezarritako beharrizanen kopurua, eta zalantzan jarriko luke LAPk emandako eskariaren hanpatze handiago hori, baina egitamu horretan ez dira azalpenak ematen eta ez da zehaztapenik argitzen.

Horretaz gain, LZPren ikuspegitik ez da adostasunik agertzen jarduerak hartuko lituzketen eta hutsik dauden lurzoruen minorizazioaren inguruan, bereziki sustapen

publikoa denean. Izan ere, lurzoruaren sailkapena eraginkorra ez bada, orduan zentzukoa eta koherentea izango litzateke udal planeamenduek posibilitateak berriz aztertzea bideragarria den eskaintzan islatzeko.

Nolanahi ere, LZPk ahaleginak egin ditu, egokitzapenaren aldetik, LAPk egitamuaren 16 urteko epealdirako kalifikaturiko lurzorurako jarraibide gisa ezarritako kuantifikazio globala betetzen saiatzeko (A+B+C+D); izan ere, eskualde egitura honetarako, guztira 900/1000 Ha-koa dela ezarri da. Irizpide horren arabera, hauexek izango lirateke batugaiak:

- A (Okupaturiko lurzoru kalifikatua): 547,70 Ha.
- B (Hutsik dagoen lurzoru kalifikatu bideragarria): onesteke dagoen Abadiñoko planeamenduaren berrikuspenean EHLABk ontzat emandako 40,82 hektareak gehitu behar zaizkie 241,86 Ha (Udalplan 2008 delakoan agertzen diren 201,0 hektareei; hektarea horiek kontuan izan dira Batzordearen txostenean).
- C (sustapen publikoko eragiketak garatzeko lurzoruak): 18,03 Ha.
- D (Egitamuan aurreikusi beharreko lurzoruaren erreserba berriak): 92,41 Ha (horietatik 13,32 lurzoru tertziarioei edo mistoei dagozkie eta 79,09 industriakoei).

Baina, gainera, eta lehenago aurreratu denez (8.2.2.1.5.1. atalean, proposaturiko ereduaren zenbatekoari dagokionez) ekarpen bikoitza izan behar da kontuan jarduera ekonomikoen lurzoruaren guztizko eskaintza kalkulatzeko: batetik, LZPren manua, egoitza erabilerako azalera berriaren % 10 egoitzarekin bateragarria diren jarduera ekonomikoetarako ezartzea, eta bestetik, enplegua hartzeko gaitasunaren terminoetan, lurzoru tertziarioko aldeak industri lurzoruko azalera gordin handiagoei dagozkiela.

Izan ere, kontuan izan behar da ezen pertsona kopuru berari enplegua emateko behar den jarduera ekonomiko tertziarioa bigarren sektorean baino txikiagoa dela (eginiko zenbatespenaren arabera, 100 m2c/enplegu industri erabileran eta 60 m2c/enplegu tertziarioan). Ratio horiek lurzoruaren erabilera mota eta dentsitateekin erlazionatu behar da lurzoru gordin baliokidea kalkulatzeko kasu bakoitzean, enplegua hartzeko gaitasunaren terminoetan.

Zenbatespenean, dentsitate ertainak (30-50 etx./Ha) eta altuak (50-75 etx./Ha) hartzen dira aintzat proposaturiko egoitzako okupazioaren mugako eremu berrietan, eta etxebizitza elkartuei dagokienez batez beste eraikitako azalerak 100 eta 90 m2-koak

dira hurrenez hurren. Hala, 0,55 eta 0,74 m2c/m2-ko eraikigarritasunak sortuko lirateke tarte bakoitzean. Industri lurzoru gordinekin konparazioa egiteko, 0,4 m2c/m2-ko eraikigarritasuna izango lukete lurzoruok.

Zenbatespen hutsa denez eta zehaztasun gehiegi izateko asmo barik kalkulaturikoaren arabera, Eskualde Egitura osoan 13.106 etxebizitzen gehieneko kopurua erabilera tertziarioen azalera eraikia eman lezake manuzko % 10 aplikatuta, 1.965 enplegu hartzeko gai izango litzatekeena. Enplegu kopuru bera eskaini lezakeen industri lurzoru gordineko azalera baliokidea, guztira, 49,15 Ha-koa izango litzateke. Era berean eta proportzio berean, Eskualde Egituran aurreikusitako egoitza eskaintzaren gutxieneko mugak (8.191 etxebizitza) industri lurzoru gordineko 30,72 Ha-ko azalera emango luke.

Abadiñoko Zientzi Parkeari dagokion lurzoru tertziarioak, inguruko eraikigarritasuna kontuan izanik, gutxi gorabehera 980 enplegu har litzake gehieneko mugan (9,80 Ha), hots, industri lurzoruko 24,50 Ha. Gutxieneko mugan (6,12 Ha) 612 enplegu har litzake, hots, industri lurzoruko 15,30 Ha.

Amorebieta-Etxanoko egoitzako edo erabilera tertziarioko dentsitate altuko lurzoru mistoaren barruko erabilera tertziarioaren azalerak, aurreikusitako eraikigarritasuna kontuan izanik, gutxi gorabehera 528 enplegu har litzake gehieneko mugan (3,52 Ha), hots, industri lurzoruko 13,20 Ha. Gutxieneko mugan (2,20 Ha) 330 enplegu har litzake, hots, industri lurzoru gordineko 8,25.

Hori guztia laburbilduz, jarduera ekonomikoetarako lurzoruaren guztizko eskaintza zentzu handiagoz kalkulatzeko, kopuru homogeneoak batu beharko lirateke, azalerak bereganatuz enpleguaren sorrerari dagokionez. Ildo horretan, lurzoru tertziarioek industri lurzoruekiko eskaintzan duten ekarpen handiagoa homogeneizatzeko, kalkulaturiko azalera gehikuntza baliokidea gehitu beharko litzaioke lehen ezarritako kuantifikazio globalari. Beraz, eskaintza handituko litzateke: 49,15 + (24,50-9,80) + (13,20-3,52) = 73,53 Ha, egoitzako %10i, Abadiñoko zientzi parkeari eta Amorebieta-Etxanoko dentsitate altuko lurzoru mistoari dagozkien lurzoru tertziarioen aparteko ekarpenaren ondorioz, hurrenez hurren.

Horrenbestez, jarduera ekonomikoetarako lurzoruaren gehieneko kuantifikazio globalak, hasieran azaldutako batugaiei, (A+B+C+D: 547,70+241,86+18,03+92,41= 900,00 Ha), industri lurzoru gordinaren azalera baliokidearen gehikuntza ezarri behar die (73,53 Ha, enplegu-harreraren terminoetan handiagoa den lurzoru tertziarioarekin

eskaintzaren homogeneizazioaren emaitza). Lorturiko guztizko batura, 973,53 hektarea, 900/1000 Ha inguruko gorengo tartean kokatzen da, hektarea kopuru hori ezarri baita aipaturiko LZPk Eskualde Egiturarako kuantifikazio globaltzat. Ondorioz, egiaztatu ahal izan denez, LZPn jarduera ekonomikoetarako bildutako lurzoruaren eskaintzak askoaz betetzen du jarduera ekonomikoetarako eta merkataritza ekipamenduetarako Lurraldearen Arloko Planak finkaturiko jarraibidea, azken egitamu horren aurreikuspenak gehiegizkoak direla iritzita ere, erabiltzen duen eskari netoaren gehiegizko hanpatzeagatik, koefizienterik zehaztu barik eta justifikaziorik eman barik.

Jarraian, LZP honek Durangoko Eskualde Egitura osorako proposaturiko jarduera ekonomikoetarako lurzoruaren gehieneko kuantifikazio globala dakarren taula doa, betiere LZPk ezarritako jarraibidearekin eta aurreko oharbideekin bat etorriz, eta udalerrien eskaintza banakatuta ematen da:

| DURANGOKO JARDUERA EKONOMIKOETARAKO LURZORUA (Kuantifikazio globala / L.Z.P.ren jarraibideak) | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Kalifika-turiko guztizko lurzorua | Okupa-turiko lurzoru kalifikat. A* | Hutsik dagoen lurzoru bidera-garria B* | Sustap. Publik. Lurzo-rua | Aurreik. lurz. tertz. D1 | Aurreik. indust. lurz. D2 | GUZTIRA A+B+C+D + (**) LZP | Kuantif. globala A+B+C+D PTS |
| ABADIÑO | 112,80 | 102,80 | 9,48 (*50,30) | | 9,80 (**24,50) | 9,22 | 131,30 (**186,82) | |
| DURANGO | 90,13 | 41,53 | 48,60 | | | 3,96 | 94,09 | |
| IURRETA | 83,91 | 61,11 | 22,80 | | | 17,20 | 101,11 | |
| IZURTZA | 17,57 | 9,57 | 8,00 | | | 0 | 17,57 | |
| AMOREBIETA-ETXANO | 294,79 | 205,72 | 89,07 | | 3,52 (**13,20) | 33,53 | 331,84 (**341,52) | |
| ELORRIO | 53,88 | 49,44 | 4,44 | 18,03 | | 0 | 71,91 | |
| ATXONDO | 26,61 | 19,48 | 7,13 | | | 0 | 26,61 | |
| BERRIZ | 42,56 | 36,74 | 5,82 | | | 15,18 | 57,74 | |
| GARAI | 0 | 0 | 0 | | | 0 | 0,00 | |
| MAÑARIA | 5,80 | 1,63 | 4,17 | | | 0 | 5,80 | |
| ZALDIBAR | 21,21 | 19,68 | 1,53 | | | 0 | 21,21 | |
| **EGOITZA LURRAREN % 10. 13.106 ETXEBIZITZA | | | | | | | (**49,15) | |
| **A. F. DURANGO** | **784,74** | **547,70** | **201,04 (*241,8)** | **18,03** | **13,32 (**37,70)** | **79,09** | **859,18 (**973,53)** | **900/1000** |

* Iturria: Udalplana 2008

(*) 40,82 Ha-ko azalera gehitu da, EHLABk aldeko txostena jaso duena Abadiñoko planeamenduaren berrikuspenean. Berrikuspen hori behin betiko onesteke dago.

(**) Industri lurzoru gordinaren hektarea baliokideak, Abadiñoko Zientzi Parkeari dagozkion erabilera tertziarioek Amorebieta-Etxanoko dentsitate altuko lurzoru mistoari eginiko ekarpenengatik, baita egoitza lurzoruko lur berriaren % 10i ere (Gehieneko eskaintza: 13.106 etxebizitza).

#### 8.2.2.2.4 Okupazioaren mugako eremuak

LZP honen ondorioetarako, jarduera ekonomikoetarako okupazioaren mugako eremutzat hartuko dira -egoitzako mugako eremuen antzera- Lurralde Ereduaren Planoan mugatuko aldeak, udal planeamenduaren hazkundeak datozen 16 urtean hartzeko gai direnak, eta horietatik kanpora ezinezkoak dira jarduera ekonomikoen hirigintza garapenak.

Okupazioaren mugako eremuak, horrenbestez, hurrengo urteetako hazkundea mugatzen duten azalerak dira. Eremu horien ezaugarriak honako hauek dira:

1) Ez dira egokitzen eskaintzaren gehieneko mugetara (ezarritako mugak), eta udalei ordezko okupazioak egiteko aukera ematen diete, adierazitako mugen barruan; hau da, lasaiera bat dago lurzoru berriak aukeratzeko, eta, beraz, oso-osorik ere ezin daitezke okupatu.
2) Sistema orokorren sareko zuzkidura publikoek barnean edukitzeko ahalmena dute, hain zuzen ere, eremu askeak eta talde-ekipamenduak, beharrezkoak badira, halako eremuen barruan egon behar dira.
3) Eremuak lurzoru berriaren okupazioari aukerak emateko asmoz ezarri ondoren, gerta daiteke, Eskualde Egiturako jarduera ekonomikoen eraikitako eta urbanizaturiko ondarean lurzoru-kontsumoa geldiarazteko jarduketen ondorioz, eremu horietan azalerarik okupatu behar ez izatea.
4) Azalerarik okupatu ezean, edo okupaziorako mugako eremuetariko batzuk soilik okupatzen badira, gainerako azaleran, planoan ezarritako ingurumen fisikoaren berezko kategoriak ezarriko ditu udal planeamenduak.
5) Jarraipenean planteatzen da kokapena udal-planeamenduak finkaturiko eremuekin edo garatzeko aurreikusita daudenekin, eta saihestu egingo dira isolaturiko hirigintzak eta oraingo ereduaren araberakoak ez direnak.
6) Baldin eta azalerarik hartzen ez bada edo bakarrik okupazioaren mugako eremu batzuk, gainerako azalera lagungarria izan daiteke Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen IV. tituluko I. kapituluko III. atalean aurreikusitako lurzoruaren udal erreserbak sortzeko.

Lurralde Eredua planoetan adierazitako eremuetan, eskala aldatzean, garapeneko udal-planeamenduak egokitzapenak egin ditzake, errealitate fisikora ondoen egokitzen den zehaztapena ezarrita. Horrela, LZPk grafikoki mugaturiko azalerak egokitu egin daitezke, horiek honako honetara moldatzeko: lerrokadurak, oraingo eraikinak,

lurraldearen topografia, natura-interesekoak edo eraikitakoak diren elementuen kontserbazioa, hiri-egiturarako egokitzapena, etab.

Hala ere, euskarri digitaleko egungo tresnek egokitzapen hori errazten dutela esan beharra dago, zeren ematen duten zehaztapenak neurri handi batean aipaturiko eskalaren gaia ahaztaraz baitezakete.

Mugako eremuak zehazteko orduan, okupazioaren egokitasun-irizpide hauek erabili dira (planeamenduak erabil ditzakeen irizpideak), ikuskatu nahi den udal-planeamenduan oinarrituz, iraunkortasuna sustatu ahal izateko:

1. %15etik beherako maldak dituzten lurzoruak, batez besteko malda txikiagoko eremu handiagoetako azalera txikiak direnean izan ezik.
2. Euskal Autonomia Erkidegoko Ibai eta Erreka Ertzen Lurraldearen Arloko Planean adierazitako 10, 100 eta 500 urteko itzultze-aldietako Eremu Ureztagarrien eraginpean ez dauden lurzoruak.

   Babes Bereziko Lurzoruen eta Gainazaleko Uren Babeseko kategorietako batean sartuta ez dauden lurzoruak. Alde ureztagarri horien mugaketa LZPren informazio grafikoan bildu da, EHLABren 2007ko urriaren manuzko txostenaren jarraibideen arabera; izan ere, txosten horrek berretsi egiten du Uren Zuzendaritzaren txostena, hain zuzen orban horiek gaur egun izapidetzen ari den Ibai eta Erreken LAPren aldaketaren arabera grafiatzean behartzen duena LZP.

   Orban horiek aldaraz daitezkeenez gero, horien etorkizuneko edozein aldaketa egungoetan sartu eta egungoak ordeztuko lituzkeela ulertu behar da eta, hala denean, galarazita geldituko lirateke alde ureztagarri berriek ukituriko okupazioaren mugako eremuetako hirigintza garapenak.

   500 urteko itzultze-aldian alde ureztagarriek ukituriko lurzoruak baztertu egin dira planeamenduak okupazioaren mugako eremuei buruz ematen duen definiziotik, hori ere lurzoruon balio edafologikoa dela-eta. Beraz, funtsean hasieran onetsitako Nekazaritza-abeltzaintzako LAPrekin bat datorren Balio Estrategiko Altuaren kategorian sartu dira lurzoru horiek.

   LZPk hartutako irizpideok aplikagarriak izango dira egungo indarreko udal planeamenduko okupazioaren mugako eremuen berrikuspenetan edo aldaketetan. Alde ureztagarriei dagokienez, onetsitako planeamendu horiek dagoeneko Uren Zuzendaritzak baloratu eta horren loturak Euskal Herriko Lurralde Antolatzeko Batzordearen manuzko txostenen bidez sartu direla ulertu behar da.

3. Babes Aparteko izenpean dauden kategorietan eta Gainazaleko Uren Babeseko kategorian jasota ez dauden lurzoruak.

Bestalde, jarduera ekonomikoen erabilerarako eta erabilera mistorako okupazioaren mugako eremuen barruan marrazturiko azaleratik, gutxieneko beharrezko azalera baizik ezin izango litzateke okupatu eta, gehienez, LZPk ezarritako eskaintzaren gehieneko muga, taula honetan agerrarazia: “Jarduera ekonomikoetarako lurzorua. Esparru-eskaintza. 16 urterako eskaintzaren gehieneko muga.

### 8.2.2.3. Eredu ekonomikoaren ezaugarriak.

#### 8.2.2.3.1. Jarduera ekonomikoaren erabilerari loturiko tipologiak.

LZPn, funtsezko irizpidetzat, jarduera ekonomikoak garatzeko euskarri fisikotzat hirigintza-prestakuntzadun lurzorua behar duten eragile ekonomikoen multzoak sorturiko balizko eskariak hartzen dira aintzat, bai jarduera ekonomikoak zuzenean produktiboak direnean edo bai hirugarren sektorearen barruan daudenean.

LZPk proposaturiko okupazioaren mugako eremuetan, jarduera ekonomikoen erabilera espezifikoak proposatzen dira, betiere premisa baten pean: egoitza erabilerarekin bateragarriak diren zerbitzuak industri erabilerako kokapenetan ezartzea ekiditea. Udal planeamenduek dagoeneko onetsita dituztenez euren ereduak, horiek berrikustean ere jarraituko da ondoko irizpide hau: egoitzakoekin bateragarriak diren erabilerak, ahal dela, egoitza erabilera orokorra duten biztanle-guneetan edo egonlekuetan kokatu behar dira eta, hala, hiri inguruko jarduerako eremuak industria eta logistikako jardueratarako liberatuko dira, zeren eta haien ezaugarriak edo ibilgailu astunekiko duten mendekotasuna dela-eta egoitza erabilerarekiko ondorio baterazinak baitituzte.

Hori guztia dela-eta, jarduera ekonomikoaren erabileren xehetasun hau ezarri du LZPk proposaturiko eredu ekonomikoa lortzeko:

a) **Industriakoa**: ondasunak ekoizteko jarduerak biltzen ditu, industri produktuak lortzeko, konpontzeko, egiteko, transformatzeko edo berrerabiltzeko, baita hondakinak edo azpiproduktuak aprobetxatzea, berreskuratzea edo desagerraraztea ere, edo handizkako bilketari eta banaketari dagokiena ere, bai ekoitzitako produktuena, bai ekoizpen prozesua egiteko beharrezkoak diren lehengaiena ere.

Honako hauek bereizten dira:

- Produkzioko industriakoa: erabilera honen barruan, ondasunak sortzeko edo biltzeko jarduerak sartzen dira; horretarako, leku bereziak behar dira, egoitza-erabileretatik urrun, etxebizitzentzat gogaikarriak baitira. Erabilera logistikoarekin bateragarritzat jotzen da.
- Maila teknologiko handiko produkzioko industriakoa: I+G deritzenetan oinarrituriko produkzio-jarduerak hiriguneetatik hurbil egon daitezke eta, jarduera kaltegarria ez denean, egoitza erabilerarekin bateragarriak izan daitezke.

b) **Logistikoa**: sorturiko ondasunen eta produkzio-prozesurako behar diren lehengaien handizkako nahiz txikizkako zaintza, zatikatzea eta banaketa, merkantzien garraioari lotuta. Produkzioko Industria erabilerarekin bateragarria da.

Funtsean trafikoaren eta merkantziak gordetzearen mende daudenez gero, lur eremu handiekin eta horiek osatzen dituzten garraio azpiegiturekiko lotura zuzenekin daude lotuta: trenbidea edo gaitasun handiko bide sare egituratzailea.

c) **Enpresa-parkekoa**: gehienbat teknologia berrietan oinarrituriko jarduerak; produkzioaren helburua informazioa erabiltzea, datuak kalkulatzea edo prozesatzea, softwarea zein sistema informatikoak garatzea eta, oro har, ikerketako nahiz garapeneko jarduerak egitea da. Egoitza-lurzoruaren ondoan kokatuko dira, edo egoitza erabilerarako edo erabilera tertziarioko lurzoruen barruan daudenak, erabilera horiekiko bateragarritasunaren arabera. Honako hauek bereizten dira:

- Parke teknologikoak: teknologia aurreratuari loturiko jarduerak hartzen dituzte (I+G izenekoen sorkuntza eta hazkundea), baita balio erantsi handiko zerbitzuak ere.
- Enpresa-parkeak: industriako zerbitzu teknikoak eta beste enpresa batzuetarako zerbitzuko enpresa-jarduerak hartzen dituzte.

d) **Zientzi parkea**: gehienbat jakintzarekin, ikerketa zientifikoekin eta teknologia berriekin lotutako jardueren gune bat bultzatu nahi da, trebakuntza eta irakaskuntzarekin lotuta egin daitezkeenak eta informazioa, kalkulua edo datu-prozesua, softwarearen garapena eta sistema informatikoak, laborategiko

materiala eta, oro har, ikerketa, garapen eta berrikuntzaren aroko jarduerak ekar ditzakeena.

e) **Erakusleiho-enpresa (tertziarioa-erakusketa)**: halako eremuetan, erakusketa- eta salmenta-azalera handiei loturiko merkataritza-erabilerak behar dituzten produkzio-jarduerak kokatzen dira, eta horiek, gehienetan, bateragarriak izaten dira egoitza-erabilerekin; beraz, horiekin integratu beharko lirateke.

f) **Hirugarren sektorekoa**: eremu hauetan egoitza-erabilerekin bateragarriak diren eta horietan integraturik dauden zerbitzuak kokatzen dira (administratiboak, teknikoak, finantzakoak, merkataritzakoak, higieniko pertsonalak, osasunekoak, etab.).

g) **Txikizkako merkataritzakoa**: halako eremuetan, merkantziak jendeari zuzenean hornitzeari loturiko jardueretarako hirugarren sektoreko zerbitzuak kokatzen dira. Batez ere, hiriguneetan egoten dira kokatuta, horiek suspertu ahal izateko.

h) **Mistoa**: jarduera ekonomikoetarako lurzoru hauetan, etxebizitzarekin bateragarriak diren industria-erabilerak ez ezik, enpresa-parkekoa, zientzia-parkea, hirugarren sektoreko erabilerak (adibidez, txikizkako merkataritza nahiz bulegoak) eta zuzkidura pribatuko zenbait (esaterako, laguntza, osasuna, aisialdia, gizartea nahiz kultura eta antzeko beste batzuk), baita egoitzarakoa, kokatu ahal dira.

### 8.2.2.3.2. Jarduera ekonomikoetarako lurzoruaren kokalekuari buruzko orientazioa.

Lehen esan dugunez, jarduera ekonomikoetarako oraingo lurzoru erabilgarriak bete egiten ditu lurzoruaren epe laburreko eta ertaineko beharrizanak, Eskualde Egituran. Hala eta guztiz ere, lurzoru bideragarriko eskaintza bermatzeko, LZPk jarduera ekonomikorako okupazioaren mugako eremu berriak proposatzen ditu; horiek ez dira nahitaez edo oso-osorik zertan okupatu izaera murriztaileaz baizik, hots, beharrezkoa den neurrian, betiere jarduera ekonomikoen eremuen birsorkuntza eta hutsik dauden

lurzoruen okupazioa lehenetsiz, salbu eta planeamenduaren berrikuspenak lurren desklasifikazioa badakar.

Jarduera ekonomiko berriak edukitzeko gaitasunik handieneko lurzoruak Amorebieta-Etxano, Durango eta Iurreta dira, eta lurzoru-beharrizanik handienak lehenengo bietan daude.

Beraz, halako erabilerak kokatzeko, honako eremu hauek iradokitzen dira:

1. Amorebieta – Etxano – Durango – Abadiño – Elorrioren arteko igarobidea
2. Durangoko zeharreko ardatza.

Bestalde, erabilera mistoen garapenari garrantzi handia ematen zaio; hortaz, udalerriei eskabidea egiten zaie jarduera ekonomiko mistoko erabileren ezarkuntza ikertzeko; horrela, egoitza-erabilerekin bateragarriak diren jarduera ekonomikoen tipologiak hartu ahal izango dituzte, besteak beste, goi-teknologiako produkzioko eta hirugarren sektorekoak.

Ondoren, jarduera ekonomikoek memoria honetan adierazitako tipologien arabera izan dezaketen kokalekua aztertuko dugu.

#### 8.2.2.3.2.1. Industria-jarduera.

- **Produkzioko industriakoa: Iurreta**. Arriandi B eta Mallabiena industrialdeetan, espazioan eta kapitalean intentsiboak ez diren industria-enpresak instalatzeko gaitasuna dago. Hau da, neurri txikiko eta ertaineko industria-enpresak instalatu ahal dira, espezializazio-sektore desberdinetakoak, bigarren belaunaldiko industria-espezializazioko eremuak finkatzeko. Gainera, hirigunetik kanpo kokatuta dagoenez, eskala txikiko erabilera logistikoa ere instalatu ahal da.

- **Produkzioko industriakoa: Amorebieta – Etxano.** Boroan industrialde bat proposatzen da, udalerrian funtsezko eginkizuna duten klusterrak finkatzeko eta eduki teknologikorik handiena dutenak sustatzeko. Udalerri hori maila ertaineko eduki teknologikoa (metalezko eraldatuak eta metalurgiako klusterra) eta trebakuntza ertaineko nahiz esperientziako biztanleria duten adarretan espezializatzea, izan ere, Eskualde Egitura dinamizatzeko elementua izango da aurrerantzean ere. Erabilera logistikoa ere sartzen da, aintzat hartuta Eskualde

Egiturako bide-ardatz nagusitik hurbil dagoela, baldin eta industrialderako sarbidea bermaturik gelditzen bada.
Bestalde, udal-planeamenduak zehatz aztertu behar ditu Amorebieta-Etxanoko jarduera ekonomikorako lurzoru berriak, hirigunean integratzeko; horrela, artikulatu egingo dira orain hirigunearekin loturarik ez duten industrialde guztiak, jarduera ekonomikorako igarobidea finkatu ahal izateko.

#### 8.2.2.3.2.2. Beste jarduera ekonomiko, tertziario eta komertzial batzuk

- **Zientzia jarduerari loturiko jarduera tertziarioak.**

– **Zientzi parkea: Abadiño.**
Matiena aldean, Durango udalerriaren alboan eta LZPk okupaziorako hautaturiko mugako eremuen barruan, zientzi parke bat jartzea proposatzen da industri jardueraren osagarri lez, ikerketarako eta enpresen zerbitzurako teknologietarako eraikinekin, prestakuntza edota irakaskuntzarako zentroekin, etab. Haren kokapena dela-eta, aukera interesgarria da: hirirako sarbide onak eta tokiko eta eskualdeko irisgarritasun ona, lehen mailako hainbat sistema orokorren bidez.

- **Landa gunearekin lotutako jarduerak.**

– **Eskualdeko hiltegia: Berriz.**
LZP idaztearekin batera, aldaketa hau tramitatu du Berrizko Udalak: “Berrizko planeamenduko arau subsidiarioen aldaketa zehatza, Berrizburuko inerteen hondakindegiko azpiegituren sistema orokorra kentzeko”, behin betiko onetsia 2009ko apirilaren 24ko Foru Aginduaren bidez. Aldaketaren dokumentuan, 8,92 Ha-ko azalera bat mugatu da azpiegituren sistema orokor gisa, eta horietatik 6,62 Ha gune libreen tokiko sistemarako dira eta 2,30 Ha eskualdeko etorkizuneko hiltegia eta jarduera osagarriak jartzeko. LZPk aldaketa horretan proposatzen dena baino pixka bat eremu handiagoa dakar hiltegia jartzeko, jarduera ekonomikoen okupazioaren mugako eremu berri baten zati gisa, halako moldez non balizko egokitzapenak egin ahal izango baitira planeamenduan.

Halaber, interes berezikotzat hartzen da natura eta landa ingurunearekin lotutako jardueren ikerketa, garapen eta berrikuntzarako eremu bat jartzeko hainbat alegaziotan eginiko proposamena, hiltegi berriaren sinergia aprobetxatuz.

Horretarako, jarduera ekonomikoen okupazioko mugako eremua udalerriko mendebalderantz handitu da.

- **Basogintzako ikerketa. Pellet planta**

  Ereduaren irizpideen artean, basogintzaren sektorean ikerketa sustatzea aurreikusten da, besteak beste egurra transformatzeko eta erabilera berriak emateko eta biomasa aprobetxatzeko (pelleta egitea eta energiaren baterako sorkuntza biomasaren bidez). Helburu horietarako transformazio jarduera zehatzak ezarri behar direnez gero, instalazioak jarduera ekonomikoen eremuetan kokatu beharko dira.

▪ **Merkataritza-jarduera.**

- **Merkataritza**: LZPk merkataritza hiriguneetan (egoitza-erabileren ondoan) instalatzearen aldeko apustua egiten du, horiek suspertzeko; horren barruan, zenbait segmentutan espezializaturikoak sartzen dira, adibidez, automobila, altzariak eta etxeko ekipamendua, erakusleiho-industria deritzonaren barruan. **Halako jarduera ekonomikorako lehentasunezko udalerriak Durango, Amorebieta-Etxano, Abadiño eta Elorrio dira.**

- **Merkataritzako zentroa**: Azalera handiko merkataritzari dagokionez, dagoen eskaintza ikusita, ez da beharrezkoa Durangoko Eskualde Egituran elikadurako merkataritza-zentro berririk proposatzea.

▪ **Erabilera mistoen jarduera ekonomikoa.**

- Hiri-eremuetan *erabilera mistoak* proposatzen dira, egoitzako erabilerarekin nahasita Amorebieta-Etxano udalerrian. Jarduera ekonomikoen lurzoru horietan, etxebizitzarekin bateragarria den industria-erabilera ez ezik, enpresa-parkekoa eta hirugarren sektoreko batzuk ere egon daitezke (adibidez, txikizkako merkataritza eta bulegoak), baita zuzkidura pribatuko beste zenbait ere, esaterako, laguntzakoak, osasunekoak, jolasekoak, kulturakoak nahiz gizartekoak eta antzeko beste batzuk.

  Aukeraturiko ereduaren berezko bilakaerak aintzat hartzen du erabilera mistoen sorrera (jarduera ekonomikoa/egoitza), indarreko planeamenduak orain

kalifikaturik dituen egoitza-lurzoruetan. Horien artean, aipagarria da Euskotren lurperatzeko hirigintza-eragiketa, Durangoko hirigunetik igarotzeko lekuan.

#### 8.2.2.3.3. Jarduera ekonomikoetarako lurzoruan aplikatzeko irizpideak.

Jarduera ekonomikoen lurzoruan lurralde-eredua ezartzeko, oro har, honako irizpide hauek aplikatzen dira:

1. Jarduera ekonomikoaren ezarkuntza berriak, hiriguneetatik kanpokoak, oinezkoen eta bizikleten ordezko garraioaren bitartez artikulatu behar dira, eta gainera, bidaiarien garraio publiko zerbitzuak eduki behar dituzte.
2. Eskualde Egituraren barruan, desegokitzat hartzen da merkataritza Azalera Handi berririk instalatzea, eta merkataritza hiriguneetan begi onez ikusten da, horiek suspertzeko.
3. Hondakinen bilketa hautakorraren ezarkuntza bultzatuko da, jarduera ekonomikoa duten eremuetan.
4. Udal-planeamenduak energia sortzeko zentro txikien instalazioa ahalbidetuko du, hondakinen edo energia berriztagarrien tratamenduaren bidez, eta, horretarako, beharrezko lurzoru guztien erreserba egingo du, baldin eta jarduera nagusiarekiko bigarren mailako jarduera bada.
5. Dokumentazio grafikoan “Erabilera mistoaren okupaziorako mugako eremuak” gisa adierazitako azalerak mugatu egin daitezke, planeamendu orokorreko tresna egokietan, egoitza-erabilerak eta jarduera ekonomikoak dituzten eremu berezitzat, jarduera ekonomikoen gehieneko eta gutxieneko eskaintzaren arabera; bestela, mugaketa berezirik gabeko eremuak izango dira eta, horietan, bi erabilerak baimenduko dira, modu mistoan.
6. Egoitzako dentsitate ertaineko edo altuko edo hektarea bakoitzeko 30 etxebizitzatik gorako dentsitateko okupaziorako mugako eremu guztietan, eremuko eraikigarritasun osoaren %10 erreserbatuko da jarduera ekonomikoak instalatzeko; horien artean, etxebizitzarekin bateragarria den industria-erabilera ez ezik, enpresa-parkekoa eta hirugarren sektoreko batzuk ere egon daitezke (adibidez, txikizkako merkataritza eta bulegoak), baita zuzkidura pribatuko beste zenbait ere, esaterako, laguntzakoak, osasunekoak, jolasekoak, kulturakoak nahiz gizartekoak eta antzeko beste batzuk.

## 9. MUGIKORTASUNA

Kapitulu honi dagokionez, oraingo egoera azaldu nahiz aztertu, horren diagnostikoa egin eta aldez aurreko iritziak eman ondoren, proposamen-alderdiak antolatuko ditugu; aukerako mugikortasuna sustatzeko jarduketa-irizpideak (oinezkoak zein bizikletak lekualdatzeko moduak eta talde-garraioaren inplementazioa) eta oraingo azpiegitura-sareetan aurreikusitakoak (bide-sarea nahiz trenbide-sarea) bereiziko ditugu.

LZPk proposatzen duen mugikortasun ereduak aintzat hartzen ditu garraiobide bakoitzaren ezaugarriak, sendotasunak zein ahultasunak (eraginkortasunari dagokionez), lekualdatze bakoitzerako energia-kontsumoa eta, horrenbestez, bakoitza erabiltzearen arriskuak nahiz aukerak. Eredu honen helburua garraiobide desberdinen erabilera arrazionalizatzea, horiek integratzea eta intermodalitatea hobetzea da; azken helburua, izan ere, horien erabilera erraztea da, eraginkortasunaren ikuspegitik ondoen datorkien lekualdatzeetan.

Mugikortasun-eredu hau, bestalde, Eskualde Egiturako biztanleen bizi-kalitatea hobetzeko printzipioak gidatzen du; espazio publikoa gizarte- eta bizikidetza-erabileretarako suspertu nahi da, eta, aldi berean, hiritarren jardueren astia hobeto antolatu nahi da, hiri barruko eta hiri arteko lekualdatzeetan erabiltzen duten denbora laburtuta.

Azkenik, ez dugu ahaztu beharrezko gizarte-kohesioa, eta, hortaz, espazio publikoen kopurua eta kalitatea handitzearen aldeko apustua egiten da, bizikidetza espazio horietan garatzen baita.

Laburpentzat landu dugun azken epigrafean, proposaturiko ekintza eta esku-hartze estrategiko guztiak daude jasota.

## 9.1. Oraingo egoeraren azterketa.

LZP hau idazteko, Durangoko Eskualde Egiturako garraio-sarea eta mugikortasuna aztertu dira. Lan horrek Eskualde Egituran mugikortasunaren arloan orain duen egoera jakiteko aukera eman digu, eta, gainera, lagungarria izan da LZPren agiria zehazteko prozesuan erabilitako aurreikuspenetan oinarrituz finkaturiko garapen-eszenatokiek bertan sor dezaketen eragina ikusteko.

Ikerketa horren arabera, gaur egun, Eskualde Egituran sorturiko lekualdatzeen artean, %45 ibilgailu pribatuan egiten dira, %42 oinez eta %7 baino ez dira garraio publikoan egiten. Ehuneko handia (%79) eremuaren barruan egiten dira. Halaber, barruko lekualdatzeetariko gehienen kasuan, ibilgailu pribatuaren erabilera zonako ezaugarriei lotuta dago (batik bat, erabilera desberdinek espazioan duten banaketari lotuta), eta garraio publikoa, berriz, hiriguneei zerbitzua emateko diseinaturik dago, eta ez dio zerbitzurik ematen hiri inguruetako industrialdeetarako lekualdatzeari.

Kontuan hartu da LZPn aurreikusitako garapenek sorturiko mugikortasuna, eta arazoak detektatu dira N-634 errepidean, batez ere Durango-Iurreta tartean. Errepide horrek egoitzako eta jarduera ekonomikoetako lurzoruetarako sarbidea ahalbidetzen du (Eskualde Egitura ekialde-mendebalde norabidean zeharkatzen duen ardatzean zehar dauden lurzoruak), eta, gaur egun, bide-ardatz gisa baino ez dago egituratuta; ez dago egokituta bizikletekin ibiltzeko eta oinezkoek ez dute inolako aukerarik.

## 9.2 Etorkizunaren diagnostikoa.

LZPk Eskualde Egiturako oraingo garraio-eskeman aurreikusitako garapenek eta horiek euskarritzen dituzten azpiegiturek era guztietako eragin kaltegarriak sortzen dituzte:

a) Azterturiko eszenatokirik gehienetan, ikusi da N-634 errepideak ez duela gaitasunik muturreko orduan sorturiko mugimenduak xurgatzeko

(2015ean). Egoera hori ekiditeko neurrien artean, aipagarria da bidaien zati bat desbideratzea, bai talde-garraiora (oraingo planeamenduaren ikuskapen sakona), bai A-8 autobidera, sarbideko gune berriak eginez.

b) Trenbide-sareak, Euskotrenek aurreikusitako azpiegitura-hobekuntzak kontuan hartuz, ondo xurgatuko ditu garapen berrien eraginezko bidaiak; hala eta guztiz ere, zerbitzu honek, geltokien kokalekuaren ondorioz, eremu jakinei ematen die zerbitzua, lotura metropolitarrean, eta ez da nahikoa Eskualde Egituraren barruko erlazio askotan.

c) Autobusak inplementatu egin beharko du bere zerbitzua, batez ere Elorrio-Durango igarobidean. Garraiobide horrek Eskualde Egiturako mugikortasun orokorrean protagonismo handiagoa edukitzea nahi bada, beharrezkoa izango litzateke jauzi kualitatiboa zerbitzuaren eskaintzan, eta ahaleginak egingo dira gaur egun garraio publikoaren bidez iristeko modurik ez dagoen eremuetara hurbiltzeko. Hala, hiri arteko oraingo zerbitzuak mantentzeko posibilitatea planteatzeaz gain, hiri barruko ibilbideak sartu behar dira Durangon eta horren inguruan, baita eremuko industria-jarduneraren zatirik handiena biltzen duen luzetarako igarobidean ere, Boroaraino.

Eskualde Egituraren etorkizunak eredu integratzailea behar du, biztanle-guneetatik garapen-eremu desberdinetara iritsi ahal izateko, garraiobide desberdinak erabiliz; batez ere, motordunak ez direnak eta taldeko garraioa sustatuko dira, orain ibilgailu pribatuan egiten den barruko mugikortasun oso garrantzitsua berbideratzeko.

## 9.3 Aurretiazko oharrak.

N-634 eskualde-errepideak funtsezko eginkizuna dauka egoitza- eta jarduera-eremu desberdinetarako irisgarritasunean, eta aldibereko hiru funtzio ditu:

- Aipaturiko eremuak barrutik egituratzea.

- Behin betiko irisgarritasuna sustatzea, autobidea erabili eta Eskualde Egituratik kanporako edo barrurako bidaiak egiten dituztenentzat.
- Ordainlekuko autobidea erabiltzen ez duten igarotze-bidaietarako bide-ardatza izatea.

Igarotze-mugimenduak, gutxi dira, Eskualde Egituratik kanpora edota barrura egiten diren bidaia guztiei dagokienez, eta esan daiteke N-634 errepidearen ezaugarri nagusia barruko egiturarako ardatza izatea dela. bide horrek, hortaz, garraio publikoaren eta motordunak ez diren mugikortasun-sareen arloan dauden proposamenekin konbinatuz, Egitamuak ezarri beharreko barruko mugikortasun-eredua euskarrituko duen elementu-multzoa osatzen du.

Garapen berriak sortzearen ondorioz (beti haran-hondoan), bide horretan trafikoaren intentsitateak gora egin du, eta saihestu egin behar da etorkizunean itotzerik egotea; horretarako, balizko bi jarduketa-ildo daude:

- Trafikoaren zati bat A-8 autobidera desbideratzea. Handitu egin da sekzioa autobidean, eta, beraz, lekualdatze hori egingarria izango da, baldin eta autobidearen funtzionaltasuna arriskuan jartzen ez bada. Sarbide berriren bat eginda, murriztu egingo lirateke N-634 errepidean zeharreko ibilbideen luzerak, Eskualde Egituratik kanporako eta barrurako mugimenduetan.
- Talde-garraioaren mugikortasuna handitzea. Trenbideak ordutegi-fidagarritasun maila handiz bermatzen du komunikazioa, eskaintzen duen irisgarritasunari dagokionez; baina bere gaitasuna mugatuta dago, geltoki kopuruaren eta horien kokalekuaren eraginez. Arlo honetako zerbitzuak, oraingo eta geroko industrialderik gehienetarako, trenbidekoa osatzen duen talde-garraioko modu bat behar du eta horrek, gainera, prestazio egokiak eskaini behar ditu, ibilgailu pribatuari benetan nagusitu ahal izateko.

N-634 bidearen espezializazioak (Eskualde Egiturako barruko bidaiarien banatzailetzat) ez du ezabatzen, aurreikusitako garapenak ikusita, bere gaitasun funtzionala agortzeko aukera. Lekualdatzeen intentsitateak gora egingo du, eta, beraz, beharrezkoa da sekzioa handitzea. Horrek, hala eta guztiz ere, ez du esan nahi beste errei bat egin behar denik, horrek (indukzioz) ibilgailu kopuruaren hazkundea eragin dezakeelako; izan ere, talde-garraioaren aldeko apustua aintzat hartuta, sekzio berria garraiobide horri loturiko plataforma bat ezartzeko erabili beharko litzateke. Horrela, oraingo errepidea hiriguneak artikulatzeko, elkarren artean eta inguruko jarduera eremuekin, elementua izango litzateke, Eskualde Egiturako iraunkortasunari eta ibilgailu pribatuaren bidezko mugikortasunaren murriztapenari erantzun egokia emateko.

Boroako industrialdean garatu beharreko jarduera berriek indarra hartzen dute, eta bertako sarbideek inguruan dauden hainbat ezaugarri berrikusi beharra dakarte. N-634 eta A-8 errepideetatik sarbidearen hobekuntzaz gain, bai Boroa bai N-240 errepidearekiko aurreikusitako lotura berriarekin erlazioa, Arratia eta Arabarekin lotzeko zuzeneko bidea dela eta . Bestalde, industrialderako sarbideak hartu beharko lirateke kontuan, motorrik gabeko garraiobideekin, Zornotzako hirigunetik.

Iurretan, erdiko hirigunearen hedapena N-634 errepideraino iristen da, eta agerian gelditzen da errepide horren bestaldean dagoen hiri-bilbearekiko jarraipena ezarri beharra, Durangoko hirigunearen alboan.

Durangok, beste alde batetik, A-8 eta N-634 bideekin perpendikularrak diren igarobide batzuk euskarritzen ditu. Gainera, udalerri horren eta berorren inguruaren bolumena eta dinamismoa aintzat hartuta, berori da bide-arazorik gehien sortzen duen eremua. N-634 bidearen (Iurretan) eta Durangoko ertzeko bideriaren bidezko soluzioa, baita udal-planeamenduak proposaturikoa ere (hegoaldeko ertzean), baliozkoak izango dira udalerriaren erdigunea guztiz inguratzen duen eta igarotze-trafikoak ertzetik berbideratzen dituen hiri-erronda sortzeko.

Berrizen, Olakuetan zehazki, A-8 autobidearen, N-634 errepidearen eta trenbidearen trazatuek bat egiten dute eta eragin txarra dakar horrek egungo zein etorkizuneko hirigunearen gainean.

Zaldibarko hirigunea N-634 errepideak baldintzatuta dago eta, gainera, arazotsua da hirigune horren kanpoko aukerako beste ibilbide bat planteatzea bertan.

Lebario eta Apatamonasterio arteko bidea eginda, igarotze-trafikotik askatuko da egungo N-636 errepidea, Durangoko HE, Zelaietako biztanle-gunetara, Muntsaratzera, Apatamonasteriora eta Elorriora zabaltzearen euskarria den ardatzean zehar.

BI-623 errepideak, mesetarako igarotze-trafikoak liberatzeko aurreikuspena izanik ere Boroa eta Lemoa arteko lotura hobetuta, Izurtzako industri jarduerek eta Mañariko harrobiek eragindako trafikoaren intentsitateari eutsiko dio hasierako tartean.

Kontuan hartu behar dira, baita ere, bizilekuko eta laneko eremu desberdinen kokaleku-baldintzak (haranetan zeharreko distantzia laburreko paketeak sortuta), baita Eskualde Egituraren barruko lekualdatzeen bolumena ere. Garraio publikoaren arloan aipatu den iraunkortasunaren zentzu berean, oinezkoen eta bizikleten moduen erabilera inplementatzeko, sustatu egin behar dira halako lekualdatzeak ahalbidetzen dituzten azpiegiturak. Izan ere, barruko mugikortasuna ahalbidetzeko sareen garapen handiagoak, gainera, baldintza hobeak sortuko lituzke egiturako bide-sarearen erabileran, eremu barrurako mugimenduen eta igarotze-mugimenduen arteko bereizketa handiagoa ahalbidetuko bailuke.

Azkenik, truke modalekin lotutako aparkalekuen guneei dagokienez, tren geltokien edo autopisten sarrerekin lotutako disuasiozkoak hartu behar dira kontuan atal honetan; izan ere, udalaz gaindiko beste eremu batzuetako bidaiariak hartzen dira, hain zuzen udalerriek euren biztanle, bisitari edo

zenbait ekipamendutarako aurreikus ditzaketenak ez bezalakoak eta kamioietarakoak aurreikusitakoak industri lurzoruetan.

## 9.4 Aukerako mugikortasunaren eta hiri-integrazioaren eredua.

Mugikortasun-fenomenoa iraunkortasunera hurbiltzearen eremu orokorrean, beharrezkoa da Eskualde Egiturako oraingo garraio-eredua (automobilean oinarritzen dena) aldatzea, gaur eguneko egoeraren eraginezko ingurumen-arazoak ekiditeko.

LZPren oinarrizko helburua, izan ere, lurzoru desberdinen hiri-integrazioa da, egoitza-eremuen eta industria jarduerako eremuen arteko lotura sustatuz, motordunak ez diren lekualdatze-moduen eta garraio publikoaren bidez.

### 9.4.1 Motorduna ez den aukerako mugikortasun-sarea.

Mugikortasun iraunkorra, izan ere, oraingo eta etorkizuneko beharrizanak betetzeko gauza dena da, oraingo baliabide naturalak arriskuan jarri barik. Beraz, estrategiak eta neurriak garatu behar dira, hiriko eta hiri-inguruko espazioaren kalitatea suspertzeko; horretarako, baliabide naturalik gutxien kontsumitu eta ingurumen-kosturik gutxien sortzen duten garraiobideak bultzatuko dira. Azken batean, mugikortasunaren beharrizanak nahiz eskubideak bateratu egin behar dira biztanleek kalitatezko ingurumena edukitzeko duten eskubidearekin.

Printzipio horretan oinarrituz, ingurumena gehiago errespetatzen duten garraiobideak sustatu behar dira; esate baterako, oinez eta bizikletaz egindako lekualdatzeak. Gainera, garraio publikoaren erabilera bultzatu behar da, motordunak diren ibilgailu pribatuen aurretik.

Aukerako Mugikortasun Sarearen helburua, izan ere, Eskualde Egiturako espazio guztietara irisgarritasun ahalik eta onena ahalbidetzea da, azpiegitura-zuzkidurei edo zerbitzuei loturiko arazoak gaindituta, horiek

gabeziak sortzen baitituzte leku jakinetarako irisgarritasunean; gainera, lurralde mailako desorekak eta espazio horien nahiz euren erabiltzaileen kalitatean gabeziak sortzen dituzte.

Plan honetan planteatzen den sarea, halaber, proposaturiko lurralde-ereduaren irisgarritasun-eskarien araberakoa da; izan ere, oinezko eta bizikletako moduak erabil daitezke, proiektu mailako diseinuaren eraginezko betearazpen mailaren ezaugarriak edozein izan arren.

Lurraldearen Zatiko Plan honen ondoreetarako, motorduna ez den Aukerako Mugikortasun Sarea izango da oinezkoen eta bizikleten zirkulaziora bideratzen dena. Sare hori lekualdatze-modu horien erabileran oinarrituz garatzen da, hiri-garapeneko eremuetan dauden jarduera-, lan- edo aisialdi-eremu nagusien eta bizilekuaren arteko komunikazio-modutzat. Lehendik dauden bideak eta suspertu beharreko hiri-eremuak nahiz garapen berrietatik sortuko den bideria aprobetxatuz, haran-hondoetan kokatzen da, zeharkatzen dituen guneen arteko komunikazio ahalik eta zuzenena bilatuz.

Aukerako Mugikortasun Sarea izen bereko antolamendu-planoan grafiatu da. Sare hori, funtzionaltasunari dagokionez, alde batetik, banaketako bide-sarearen eta sare kapilarraren tarteek osatzen dute, eta bestetik, lurraldean sartzeko ibilbideek; horietan, oinezko eta bizikletako erabilerak lekualdatzeko beste modu batzuekin batera ahalbidetzen dira.

Egitamu honetan proposaturiko sarea, neurri handian, lehendik dauden edo aurreikusitako garapen berrien ondoriozkoak diren trazatuetan euskarritzen da, eta horiek, berriz, ezarkuntza berriko lotura-tarte batzuekin osaturik daude.

Tarte horiek honako egoera hauetarikoren baten eraginezkoak dira:

- Finkaturiko hiri-lurzoruen gaineko ezarkuntza, bidegorriak ezartzeko dimentsioak edo motordun trafikorako debekua duten kaleak aprobetxatuz.
- Garapen berrien gaineko ezarkuntza, finkaturiko ibilbideen jarraitasunari loturiko proiektuetan bidegorriak jasota.

- Landa inguruaren gaineko ezarkuntza. Lehendik dauden bideak aprobetxatu eta horiek inguruaren ezaugarrien arabera egokituko dira.

Aukerako Mugikortasun Sarea, azkenik, sarea euskarritzen duten eremuetara (finkaturiko hiri-eremua, garapen berrikoa edo landakoa) gehien egokitzen diren tipologiak eta materialak erabiliz sortuko da.

### 9.4.2 Oinezkoak eta bizikletak.

#### 9.4.2.1 Sarrera.

Gaur egun, zenbait kasutan jardueraren eremu batzuetarako irisgarritasuna errepide-sarearen bidezkoa baino ez da. Bestalde, haran-hondoetako ezarkuntzek eta horien arteko distantziak aukera handia ematen dute motordunak ez diren lekualdatze-moduak erabiltzeko.

**a) Bizikletak**

LZPren helburuen ikuspegitik, bizikleten sektorea beste garraio-modu bat da, baina ez du izan (eta oraindik ere ez du) merezi duen garrantzia.

Jakina, beste ikuspegi batzuk ere badira, batez ere hori kirolerako erabiltzera mugatzen duena, aukera osasuntsua baita; baina ikuspegi horrek arlo ludikora mugatzen du, eta horietan bide-sareen erabilera planteatzen da, batez ere bigarren mailakoa eta ingurumen-kalitatekoa.

LZPetarako alderdirik interesgarriena, izatez ere, bizikleta motordun bidaien aukeratzat erabiltzea da, batik bat laneko lekualdatzeetan edo lekualdatze laburretan, garraio publikoko geralekuren batera iritsi arte.

Horri dagokionez, gaur egun, Bizkaian bizikletan egiten bidaien %4,3 baino ez dira lanerako, eta emaitza horiek oraindik ere txarragoak dira, guztizko mugikortasunekin konparatuz gero.

LZP honek bizikleta garraiobidetzat eta hiri-integrazioko elementutzat ahalik eta gehien sustatzearen aldeko apustua egiten du, batik bat bizilekutik lanerako eta bizilekutik ikastetxerako joan-etorrietan; hala ere, hasierako ohar batzuk egitea komeni da:

- Lehenengo eta behin, aipagarria da halako bidaiak luzera ertaineko ibilbideetarako (0,5 kilometrotik 5-7,5 kilometrora) direla egokiak, laburragoak gehienbat oinez egin eta luzeagoek nekatu egiten baitute, esperientzia handiko txirrindularien kasuan izan ezik.
- Bizikletak, garraiobide nahiko antzinakoa izan arren, automobilari utzi dio protagonismo ia osoa.
- Horren eraginez, hiri-diseinuak eta, batez ere, bideen diseinuak automobilean oinarritu dira, hiritarrean oinarritu beharrean, berori baita industria osteko gizarte kontsumistako protagonista nagusienetarikoa.
- Hala eta guztiz ere, automobilaren aldean bizikletak alde on asko ditu, energiaren, ingurumenaren, ekonomiaren eta gizartearen arloan. Dena den, automobilaren kulturan bizirik irauteko zailtasuna txikia izan da, eta ia beti alderdi ludikoetara eta aisialdira lotuta gelditu da.

Bestalde, bizikletak aintzat hartu beharreko muga batzuk ditu; esate baterako, lehen aipatu diren batez besteko distantzia laburrak (5-7,5 km), maldak (hiri-inguruetan ez oso handiak), meteorologia nahiz jasan beharreko kutsadura, karga-gaitasun txikia (oro har, 7-10 kg-tik beherakoa), segurtasunik eza (gidatzeari edo lapurretei dagokienez), etab.

Sektoreak arauketa urria dauka eta tragediaren bat gertatzen denean soilik agertzen da komunikabideetan. Aipagarria da, Bizkaian, Bizikletaren eta Garraio Publikoaren Intermodalitatea Sustatzeko Lankidetza Protokoloa, Bizkaiko Foru Aldundiko Herri Lan eta Garraio Sailak, Metro Bilbaok, RENFEk, Fevek eta Euskotrenek 1999ko ekainean hitzartutakoa.

Hori guztia eta LZPk egindako proposamenak kontuan hartuta, ahalegina egin behar da bizikleta garraioko bideetan eta sistemetan koherentziaz integratzeko; hain zuzen ere, erabiltzaile bakarreko motordun ibilgailuen

aukeratzat eta truke-elementutzat sartu behar da. Dirudienez, inkestek diotenaren arabera, biztanleriaren erdiak (batez ere, gazteak) oraingo garraiobidea aldatu eta horren ordez bizikleta erabiliko luke, baldin eta hori erabiltzeko baldintzak hobetuko balira.

Kontuan hartu behar da, gainera, Eskualde Egiturako udalerri nagusien tamaina eta industria-jarduerako lurzoruen kokalekua (egoitzako guneen inguruan) berebizikoa dela bizikleta erabiltzeko (udalerri txikietan oinez egindako bidaiak nagusitzen dira eta udalerri handietan distantzia luzeek saihestu egiten dute bizikletaren erabilera). Bizikleta azkarra da ibilbide laburretarako eta ertainetarako, batez ere bideak itota badaude.

Hiritarrak sentsibilizatzeko eta gaiaz jabearazteko lan handia egin behar da; hala ere, Eskualde Egituran berebiziko aukera dago horretarako; besteak beste, honako arrazoi hauek aintzat hartuta:

- Hiriko eta hiri arteko trafikoaren oraingo asetze mailak.
- Garraio publikoaren eskaintzaren hobekuntza handia.
- Saihesbideen aurreikuspena; horiek hiri-izaera handiagoa emango diete oraingo zeharbideei.

Aisialdiko joan-etorriei dagokienez, zailtasun handiagoko eta txikiagoko bideak prestatuko dira, bide- eta abelbide-sare handia sustatuz. Bestalde, bizikleta aisialdirako eta kirolerako erabiltzeari dagokionez, hori asteburuetako kontua izaten dela aintzat hartuta (trafiko gutxi), balizko ibilbide anitzak zailtasun handiagoaren edo txikiagoaren arabera banatuko dira. Mendiko bizikletarako ere abelbideak eta landa-bideak egokitu ahal dira; nolanahi ere, horren guztiaren antolamendua egin beharko da, LZPn jasotako Inguru Fisikoaren kapituluan zehaztuta dagoen paisaiaren irisgarritasunean oinarrituz.

**b) Oinezkoak**

Industria-jarduerako lurzoruak egoitza-eremuen inguruan kokaturik daudenez, aurrekoaren antzeko hausnarketa egin daiteke, oinez egiteko moduko lekualdatzeei buruz.

Gaur egun oinez egiten den bidaia-kopuru handiak agerian jartzen du garraiobide horrek nolabaiteko kultura eta tradizioa duela oraindik, Eskualde Egiturako biztanleen artean; beraz, ikuskatu egin behar dira industria-jarduerako lekualdatzerik gehienen irisgarritasun-baldintzak, gaur egun ez baitago eremu horietarako oinezko loturarik, eta motordun ibilgailuen bidezko irisgarritasuna baino ez duten uharteak baitira.

Horrenbestez, oinez egiteko moduko lekualdatze guztiak sustatu beharko dira, lanera, ikastetxera, etab. Halako kasuetan, oinezkoen eremuak sustatuko dira, horietan kalitate onak bermatuz, bai zoladuretan eta bai bertako hiri-altzarietan; halaber, hiriguneen inguruan dauden industria-lurzoruetarako oinezko irisgarritasuna bermatu beharko da.

### 9.4.2.2 Helburuak.

Garrantzi handikoa eta Egitamuaren oinarrizko helburua da (garraioaren arloan) motordun mugikortasunaren ordezko sareak sustatzea, hiri-integrazioa eragiteko, bizilekuetara eta jarduera-eremuetara oinez eta bizikletaz egindako lekualdatzeen bidez heltzeko, erosotasun- eta segurtasun-baldintza egokietan.

LZPk oinezko eta bizikleten bidezko moduetarako planteatzen dituen gutxi gorabeherako trazatuek, sarearen ikuspegi ludiko hutsa gaindituta, sare horri gaitasuna eman nahi diote, bizilekuaren eta lanaren arteko lekualdatzeak ahalbidetzeko; kasu bakoitzerako, bi lekualdatze modu horien arteko bateragarritasunik egokiena finkatu beharko da. Egitamuaren helburuak, arlo honetan, honako hauek dira:

- Bizikletaren integrazio koherentea, garraiobideen multzoaren barruan; erabiltzaile bakarreko motordunen ordezkotzat eta trukeko elementutzat integratuko du.
- Oinezko eta bizikleten bidezko moduen irisgarritasuna, hiriguneen inguruko industria-lurzoruetara.

- Paisaiaren irisgarritasuna, oinez eta bizikletaz.
- Oinezkoen eremuen inplementazioa hiri-eremuetan.

### 9.4.2.3 Jarduketarako ildoak eta irizpideak.

Adierazitako helburuetan oinarrituz, LZPk jarduketa-ildo orokor hauek ezartzen ditu:

- Motorduna ez den mugikortasun-sare egituratuaren ezarkuntza, oinezkoek eta bizikletek erabiltzeko; Eskualde Egitura osoa zeharkatuko du eta gauza izango da bizilekuko nahiz laneko eremu guztiei zerbitzua emateko.
- Hiriko eta hiri-inguruko ibilbide egituratzaileak; egoeraren arabera, bide-ardatzen alde batean edo bietan egongo dira, eta euren ezarkuntzak saihestu egingo ditu lekualdatze-modu desberdinen arteko interferentzia kaltegarriak.
- Landa-inguruaren bidezko ibilbideak, zailtasun handiagokoak edo txikiagokoak; bide- eta abelbide-sare luzea sustatuko da.
- Kalitate onak, mugikortasun mota honi lotutako zoladuretan eta hiri-altzarietan.
- Automobilen trafikoaren eta oinezkoen eta bizikleten bideen sareen arteko erlazio egokia horiek elkartzen diren tokietan.

Horrela, hirien arteko lekualdatzeetarako, oinezko eta bizikleten bidezko moduak erosotasun handiz erabili ahal izango dira; baita eremu metropolitarrarekiko lekualdatzeetarako ere, eta horietan trenbiderako trukeak erabiliko dira, zenbait geltokitan.
Jakina, azken horretarako, zaindutako aparkalekuak egokituko dira, garraiobide horren alde txar nagusienetariko bat ahalik eta gehien murrizteko: bizikleta lapurtzeko beldurra.

Jarduketa-ildoak ez ezik, erreferentziako irizpide zehatzagoak ezartzen dira egin beharreko ekintzetarako. Honako hauek dira, laburbilduta:

### 9.4.2.3.1 Bizikletak.

Helburu nagusia bizikletak ohiko erabilera duten garraiobideen barruko partaidetza handitzea da; horretarako, beharrezko azpiegiturak, trafikoaren kudeaketa eta bide-hezkuntza garatu beharko dira, bizikletaren erabilera sustatzeko. Udal administrazioek garatzeko edo, hala denean, udalaz gaindi garatzeko, jarduketa ildo hauek planteatu ziren:

- Bidegorri-sare segurua (eremu babestuak eta seinaleak) diseinatzea; irisgarritasuna izango du udalerriko bidaia-erakarpeneko leku nagusietara eta merkataritza- zein turismo-kale nagusietara.
- Hiriko ibilbideen eta hiri-inguruko edo hirien arteko bideen lotura-sarea diseinatzea.
- Leku-multzo nahiko zabala sortzea, bizikletak aparkatzeko; kokaleku eta ekipamendu egokia izango dute, bizikletak segurtasun-baldintza egokietan aparkatzeko.
- Semaforoen zikloetan jardutea, bizikletak igarotzeari lehentasuna emanda, motordun ibilgailu pribatuei dagokienez.
- Aldagelak eta dutxak hartzeko sustapen neurriak, bizikleta garraiobide gisa erabiltzeko.

### 9.4.2.3.2 Oinezkoak.

Oinarrizko edukia, lehenago esan denez, oinezkoen mugikortasunerako baldintzak erraztea da, eta eremu handiagoa gordeko da herri guneetarako eta kalitate handiagoa emango zaie eremuei (irisgarritasunaren eta segurtasunaren aldetik), oinez egiten diren joan-etorrietarako. Udalerrientzat eginiko proposamenen artean, hauexek nabarmentzen dira:

- Oinezkoen eremuak (oinezkoen uharteak) eta alderantzikaturiko lehentasun-zonak (beste garraiobide batzuekiko bizikidetza) sortzea, batez ere hiri-jardueraren bat duten lekuetan (adibidez, merkataritza-jarduera trinkoa).
- Oinezko guztientzat seguruak eta irisgarriak diren ibilbideen sarea sortzea.

- Gainerako garraio-moduetatik bereiztea, interferentziak ahalik eta txikienak izateko.
- Oztopo arkitektonikoak ezabatzea; horretarako, irisgarritasun-neurri egokiak hartu beharko dira, oinezkoaren espazio publiko osorako irisgarritasun unibertsala bermatzeko.
- Espaloiak gainerako trafikotik babestea, neurri arkitektonikoen bidez: espaloiak handitzea, oztoporik gabeko gutxieneko zabalera zehaztuta; espaloietako oztopoak ezabatzea nahiz hiri-altzariak ordenatzea; espaloiak kalitatezko zoladurarekin konpontzea; oinezkoentzako zebra-bideak espaloien mailan gaitzea.
- Ibilbidean zuhaitzak landatzea, ahal izanez gero.
- Oinez egindako lekualdatzeetarako atsedenleku egokiak egitea, ibilbideetan dauden lorategidun eremuak integratuz (plazak eta parkeak).
- Oinezkoari hiriko bide-arteria nagusietatik ibiltzeko erraztasunak ematea, horiek mailako zebra-bide nahikorekin zuzkituta, hurbileko auzoen arteko lotura sustatu ahal izateko.
- Oinezkoaren bidea erraztea, semaforoen zikloetan esku hartuz, itxarote-aldia laburtzeko eta kalea zehartzeko aldia luzeagoa izateko.
- Espazio publikoan eragina duten obrak egiten direnean, beharrezko neurri guztiak hartzea, oinezkoen lekualdatze duinak eta seguruak ahalbidetzeko, behin-behineko zebra-bideetan eta espaloietan seinale egokiak jarrita.

#### 9.4.2.3.3 Durango-Elorrio .

Durangoko Eskualde Egituran, bertako gune nagusian (Durango-Iurreta-Abadiño, etab.), bide-sarearen gaineko jarduketa batzuk daude aurreikusita, oraingo N-634 eta N-636 bideak hiri-bide bihurtzeko, Apatamonasterioraino; horrela, halako mugikortasunerako euskarritzat erabili ahal izango dira.

Gainera, Durangoko gunean oinarrituz eta bertan barruko biderien arteko lotura tarteak txertatuz (inguruko industrialdeetarakoak), lurzoru desberdinak ibilbideen sistema jarraitu berean integratzea planteatzen da, euren arteko loturaren arazoa motordunak ez diren bideak erabiliz konponduta eskualde egiturako Ibaizabal-Zumelegiko erdiko ardatz nagusian zehar. Bestalde, loturak ezarri dira ardatz horretan ez dauden udalerrietako biztanle-guneekin: Izurtza-Mañaria, Iurreta-Garai eta Berriz-Zaldibar.

Ibilbide hauek Mugikortasun Aukera izeneko Antolamendu Planoan jasota daude.

#### 9.4.2.3.4 Amorebieta.

Amorebietaren inguruari dagokionez, antzeko zerbait esan behar da. Trenbide-ekintza garrantzitsuak oraingo bi geltokiak lotu eta lurzoru garrantzitsuak askatuko ditu; horietan ere komenigarria da bidegorria egitea, hirigunetik lanerako nahiz egoitzarako (haranean zehar kokatuta) joan-etorrien irisgarritasuna bermatzeko:

- Goiko uretan Eubaraino.
- Beheko uretan Lemoarekin bat eginez.
- Beste adar bat ere bai, N-634 errepidearen inguruko garapen desberdinetatik, Boroako industrialdearen lurzoruetaraino.

### 9.4.3 Talde-garraioa.

#### 9.4.3.1 Sarrera.

LZP honek trenbidearen aldeko apustua egiten du, bidaiariak modu masiboan garraiatzeko, Eskualde Egituraren barruko gune nagusien artean, baita Eskualdea eta ondoko eremuak lotzeko ere, batez ere Bilbo Metropolitarrarekin lotzeko, kontuan hartuta bertan bikoizteak eta geltokiak egingo direla.

Hala eta guztiz ere, Eskualde Egituraren barruko garraioari dagokionez, lurzoruen okupazioaren ezaugarri bereziak (oraingo eta aurreikusitako okupazioa) eta espazio-banaketak behar duen zerbitzu mota kontuan hartuta, muga batzuk jartzen zaizkio trenbidearen funtzionaltasunari.

Garapenak modu nahiko bateratuan banatzeko joera dute, gune nagusien arteko eremuetan; hortaz, lurzoru guztietarako irisgarritasun egokiak barreiadura behar du, garraio publikoaren geltokietan, eta hori ez dator bat trenbideak eskaini ahal duenarekin. Horrenbestez, trenbidearen osagarria den garraiobideren bat behar da.

#### 9.4.3.2 Helburuak.

Beharrezkoa da garraiobide berriak, errei soileko ibilbideak zerbitzuan eskaintzen duen fidagarritasuna kontserbatuz, trazatuaren eta geralekuen aldetik malgutasun handiagoa edukitzea, baita ezarkuntzarako erraztasun handiagoa ere, gaur egun halako zerbitzurik ez duten zonetan.

#### 9.4.3.3 Jarduketarako ildoak eta irizpideak.

LZPk, oraingo bide-sekzioa berrituta eta, kasu batzuetan, handituta, errei soileko garraiobide publikorako plataforma ezartzea planteatzen du Amorebietan, Durangon eta Elorrion; hori, hasieran, autobusa izan daiteke, baina gero trenbide bilakatu ahal izango da. Izan ere, sistema horrek,

hiriguneen arteko lurzoru guztiei zerbitzua emateaz gain, trenbidearen oraingo erabiltzaileetariko batzuk jaso ditzake; horrela, trenbideak, geralekuetako eta zerbitzuko bolumenik txikieneko geltokietan zerbitzutik askatuta, hobetu egin ahal izango ditu ondoko eremuen arteko lokailutzat dituen prestazioak (batez ere, Bilbo Metropolitarrari dagokionez), eta ibilgailu pribatuaren benetako lehiakidea izan daiteke lekualdatzeetan. Horrela, oraingo errepidea hiriguneak artikulatzeko elementua izango litzateke, Eskualde Egituran iraunkortasuna sustatzeko eta ibilgailu pribatuaren bidezko mugikortasuna urritzeko. Trazatuaren mailako lehen hurbilketa gisa eginiko proposamena 4. antolamendu planoan bildu da, “Aukerako mugikortasuna” izenekoan, baita balizko soluzioen zenbait sekzio tipo ere 4.1.etik 4.8.era arteko antolamendu-planoetan.

Hori guztia aintzat hartuta, orokorrean, komenigarria da lehendik dauden garraioak sustatzea edo plataforma esklusiborako zerbitzu berriaren proposamena denerako garraio espezifikoak sortzea; horrela, Eskualde Egiturari dagokionez (ondoko eskualdeekiko loturak kontuan hartuz), garraioak ondo kudeatzeko aukera ematen duten garraio-politikak garatuko dira; helburuak honako hauek izango dira:

- Bidaiarien garraio publikoa, batez ere trenbidekoa, Durango-Amorebietaren eta Eskualde Egiturako kanpoaldearen artean.
- Erakarpeneko gune nagusietan (Amorebieta, Durango, etab.), trukagailu garrantzitsuak ezartzea.
- Hiriguneen barruko lurzoruetarako irisgarritasuna, Eskualde Egituraren barrutik, Boroaren eta Elorrioren artean autobus-errei soileko plataforma sortuta.

Horrenbestez, eta garraioen kudeaketa egokiarekin koordinatuta, proposamenak honako honetan oinarritu ahal izango dira:

- Eskualde Egituran garraioaren kudeaketa integratua sustatzea, eta Bilbo Metropolitar osoarekin koordinatzea.
- Durangon eta Amorebietan trukagailuak ezartzea, oraingo geltokiak lurpekoak izango direla aprobetxatuz; bertan, trenbidearen eta

autobusaren bidezko garraio publikoak koordinatu eta elkarren osagarriak izango dira.

- Ukituriko inguruan eragindako ibilgailu pribatuen mugimendua onargarri deneko tokietan dauden tren geltokiekin lotutako disuasio-aparkalekuak ezartzea.
- Garraio publikorako (autobus-erreia) plataforma soila ezarriko da, eta jarraitasuna izango du Boroaren eta Elorrioren artean.
- Trenbidearen zerbitzurik ez duten eremuekiko lotura autobuseko garraio publikoaz bultzatzea.
- Trenbide-zerbitzuaren hobekuntza eragitea, oraingo aurreikuspenetan oinarrituz, trazatuak hobetzeari eta trenbidea bikoizteari dagokionez, Amorebieta-Eibar eta Amorebieta-Bermeo tarteetan; halaber, funtzio eta ordutegi mailako koordinazioa lortzea, trenbide-sarearen eta autobus-erreiko zerbitzu berrien artean.
- Udalaz gaindiko eremuko garraio erakunde bat sortzea, hiri garraioko zerbitzu bat sortzeko lana egingo duena garraio publikoko plataforma esklusiboak zerbitzaturiko biztanle-guneen artean.

## 9.5 Garraio-azpiegiturak.

### 9.5.1 Bide-sarea.

#### 9.5.1.1 Sarrera.

Durangoko Eskualde Egiturako bide-sarea Bilboren eta Gipuzkoaren arteko lotura-ibilbidearen inguruan eratuta dago, eta hori erlaitz kantabriarraren eta Frantziaren arteko berezko lotura da. Eremu horien arteko trafiko-jarioen zatirik handiena bi bide-azpiegiturek biltzen dute: ordainlekuko A-8 autobideak eta N-634 errepide nazionalak. Bi bide horietan, trafikoa itota egoten da eta, gainera, hiri-inguruko gatazkak sortzen dituzte, kanpoaldean finkatuta dituzten guneetan.

Haran-hondoa okupatzen duen igarobide nagusi horretatik (hirigune nahiz industria-lurzoru nagusiak eta trenbide-linea dituen igarobidea), Eskualde Egitura ondoko eskualdeekin komunikatzen duten bide perpendikularrak abiatzen dira:

- Arratiarako eta Gasteizerako N-240 errepidea. Gaur egun Eskualde Egituraren kanpoaldetik joan arren, N-634 errepidearen lotura berriari buruzko aurreikuspenek Boroan kokatzen dute; horrela, Eskualde Egiturak zuzeneko lotura izango du mesetarekin, Arratiako haranaren bidez. Beste muturrean nolabait ere bat dator Urkiolako igarobidearekin (Gasteizerako lotura), eta N-240 bidea hobetzearen ondorioz aurreikusten den trafiko-erakarpenak Urkiolako zonaren kontserbazioa erraztuko du.
- Lemoatik Gernikarako (Amorebietatik) BI-635 errepidea; trafiko itotze handiak eta ibilgailuen trafiko handiak ditu, ezaugarri geometriko nahiko baxuekin, batik bat Autzagana mendatean. Igarobidea, gainera, Urdaibaiko ezaugarrien baldintzapean dago erabat. Urdaibaiko eremuak bigarren lotura bat dauka, bigarren mailakoa, BI-3332 errepidearen bidez, Arranditik eta Muniketa mendatea zeharkatuz.
- Durangotik Gasteizerako BI-623 errepideak Arabarekiko lotura sustatzen du, Urkiolako mendatetik eta Otxandiotik; azpiegitura-arazoak ditu, batik bat trazatu geometrikoan, eta gainera, ingurumen-baldintzak ditu; horrenbestez, oraingo trafiko-bolumena murriztea komeni dela pentsa daiteke.
- Durangotik Elorriorako N-636 errepidea, eta, Kanpazar mendatea zeharkatuz, Deba garairakoa; bigarren mailako beste lotura bat dago Berrizetik (BI-3321 errepidea).
- Lebariotik Ondarroarako BI-633 errepidea, gehienbat Gernika-Markinako Eskualde Egituratik doana; Lea-Artibaiko eremuarekiko lotura sustatzen du, Trabakua mendatetik, eta, bigarren mailan, horrekiko paralelotara joanez, BI-3340 errepideak sarbidea ematen dio Berrizeko goiko aldeari; horrela, bertatik, Areitioko mendatearekiko lotura ahalbidetzen da, N-634 bidean, Eskualde Egituratik kanpo.

Eremu honetan, horren ezaugarriak egokiak direla esan behar da, Berriz-Markina bitarteko tartean hobekuntzak egin baitira oraintsu,.

- Toki mailan, BI-3341 errepidea Garaira doa, Iurretatik eta Abadiñotik.

Bide egitura beste errepide batzuekin osatzen da, eta horien jatorria lehen aipatu direnetarikoren batean dago:

- BI-2632 errepideak Elorrio eta Bergara lotzen ditu, Pagatza mendatetik.
- BI-3323 errepideak, Abadiñon, Zelaieta eta Matiena lotzen ditu, eta horiek N-636 eta N-634 bideetan kokaturik daude, hurrenez hurren.

Planifikazio mailan, Durangoko Eskualde Egiturari dagokionez, EAEko Errepideen 2. Egitamu Orokorraren (1999-2010) barruan dauden bakarrak A-8, N-634, N-240, BI-623, N-636, BI-633 eta BI-635 dira; Horien artean LZPn jasotako oraindik betearazi barik daudenak bertan adierazten dira:

- Lebarioko lotura.
- N-240, Boroa-Lemoa autobia.
- N-636, Iguriaren eta Kanpazarren arteko autobiatzat egokitzea.

Bizkaiko Errepideen LAPk, Erkidego mailan egindako aurreikuspen horiek jasotzeaz gain, Foru Sarea osatzen duten errepideak finkatu eta sare horren garapena ezartzen du, jarduketa mota desberdinak programatuz. Jarduketa horiek, Durangoko Eskualde Egituran, honako hauek dira:

- Galtzada destolestea Montorretaren eta Zelaietaren artean.
- A-8, Basauriren eta Iurretaren arteko hirugarren erreia.
- A-8, Lebarioko lotura (EAEZEOren garapena, 1999-2010).
- N-240, Boroa-Lemoako autobia (EAEZEOren garapena,1999-2010).
- N-634, Boroaren eta Erletxeren arteko hirugarren erreia.
- N-634, sarbideen berrantolaketa Amorebietaren eta Zaldibarren artean.
- N-634, Zaldibarren eta Ermuaren arteko abiadura moteleko erreia.
- N-636, galtzada bikoiztea (proiektuaren garapenean, azpiegitura berria sortu da), Lebarioren eta Atxondoren artean.

- N-636, trazatua zuzentzea (proiektuaren garapenean, azpiegitura berria sortu da), Iguriaren eta Kanpazarren artean (EAEZEOren garapena, 1999-2010).
- BI-635, trazatua hobetzea eta plataforma handitzea, Amorebietaren eta Autzaganeren artean.
- BI-2632, zabalgunea eta egokitzapena Elorrioren eta Elgetaren artean.

Jarduketa horietariko askok EAEko Errepideen 2. Egitamu Orokorrean (1999-2010) ezarritakoa garatzen dute, eta beste batzuk, berriz, LAPko aurreikuspenak dira.

LZPk, bestalde, gainditu egiten du ikuspegi sektorial hutsa, eta lurraldearen ikuspegitik heldu nahi dio errepide-sareari; ikuspegi hori, berriz, bide-sareak inguru naturalarekin duen loturari buruz egindako azterketan oinarritzen da, baita oraingo eta aurreikusitako garapenetan ere.

Inguru naturalari dagokionez (horren barruan, antropizatuta baina nekazaritza- nahiz baso-erabilerari lotuta dauden azalerak sartuta), helburua horren aurkako erasoak ahalik eta gehien murriztea da, bide-azpiegitura berrien ezarkuntzak sarritan halako erasoak eragiten baititu. Hiri-inguruen aldetik, horien zatikatzea aztertzen da, halako bideen eraginezkoa, baita bertan jasotzen diren jarduera mota desberdinen irisgarritasuna ere. Ikuspegi horren ondorioz, bide-egitura hierarkizatu egiten da.

### 9.5.1.2 Helburuak.

LZPk, A-8 autobidean (Basauriren eta Lebario-Gerediagaren artean) aurreikusitako sekzio-handitzean oinarrituz, eta igarotze-jarioetan nahiz LZPn aurreikusitako garapenen ondoriozko jarioetan euskarrituriko bide-azterketa aintzat hartuta, barruko egitura baten beharrizana detektatu du, industria-jarduerako igarobide nagusietan garaturiko lurzoruen artean. N-634 bidearen prestazioak optimizatzeko eta horren funtzionaltasuna mantentzeko, ahalik eta gehien murriztu behar da igarotze-trafikoen eta barruko erlazioko trafikoen arteko interferentzia. Horri dagokionez, Deba Garaiarekiko lotura (Kanpazar

mendatearen bidez) indartzeko aurreikuspen sektorialak kontuan hartuta, aztertu egin beharko litzateke sarearen baldintzak hobetzeko aukera (Bilbo Metropolitarraren eta Gipuzkoako eremuen arteko igarotze-bidaiei eskaini beharrekoak).

Adierazitako guztiak planteatzen duen jarduketa-eredua, oraingo baldintzen arabera N-634 bidearen inguruko lurzoruetan aplikatzeko egokia izan arren, beste eremu batzuetan ere aplikatu ahal da, horietan, denborarekin, antzeko arazoak sor daitezkeelako; hain zuzen ere, honako helburu hauek lortu behar dira:

- Hiriguneetatik eta industria-jardueratik guztiz independentea den egitura osatzea; horrek Eskualde Egituraren eta inguruko eredurik dinamikoen (Bilbo Metropolitarra, Deba Garaia eta Behea) arteko igarotze- eta lotze-trafikoak euskarritu beharko ditu.
- Industria-jarduerako igarobide nagusietan garaturiko lurzoruak egituratzea.
- Ahal den neurrian, Eskualde Egiturako igarotze-mugimenduen eta barrukoen arteko interferentziak ekiditea.

### 9.5.1.3 Jarduketarako ildoak eta irizpideak.

Adierazitako helburuen arabera, LZPk honako jarduketa-ildo hauek ezartzen ditu:

- A-8 bidearen eta Deba Garaiko lotura berriaren arteko jarraitasuna sustatzea, funtzionaltasun maila egokiarekin eta Eskualde Egiturako eremuetatik A-8 biderako sarbidea erraztea, Lebariotik bertarako sarbide berria erabiliz.
- Elkarren ondoko industrialdeen arteko barruko biderien arteko lotura ezartzea.
- Durangoko saihesbidea hegoaldetik guztiz ixtea, N-634 bideak Iurretaren eta Matienaren artean duen derrigorrezko igarobidea deskargatzeko.

- N-634 zeharbidearen soluzioa, Iurretako udalerrian, bide horren bi aldeetan dauden guneen arteko hiri-jarraitasuna ahalbidetuz.
- Oraingo N-636 errepidea birmoldatzea, Lebario-Apatamonasterio-Kanpazar lotura berria egin ondoren, horrek zeharkaturiko guneen arteko barruko komunikazio-bide batean.

Gainera, lurraldean dauden elementu baliotsuak kontserbatzeko, LZPk irizpide eta jarraibide orokorrak ezartzen ditu, gainerako politika sektorialak aintzat hartzeko, eta horiek aurreikusitako azpiegitura berriekin bateragarriak izateko.

Bide-azpiegitura berrien planteamenduan, horiek LZPk ezarritako lurralde-eredura eta ingurumenera ondo egokitzeko, jarraibide orokortzat honako hauek ezartzen dira:

- LZPk jasotako aurreikuspenak, gehienbat garapen berriei eta motorduna ez den sareari buruzkoak.
- Landaredia autoktonoaren mantenamendua.
- Kultura-intereseko lekuen kontserbazioa.
- Ibai-sistema orokorra.
- Ingurumen hobekuntza behar duten igarobideak.
- Oinezkoen eta bizikleten zirkulazioarekiko erlazioa zaintzea.

Hain zuzen ere, egitura-sarearekiko loturetan, LZPk hauxe proposatzen du gune horietan:

- Ingurumenean sortzen duten eragin kaltegarria ahalik eta gehien murriztea.
- Azpiegitura berrien igarotzea ondo konpontzea, euren forma eta eginkizuna errespetatuz.

Aurreikusitako jarduketei dagokienez, Administrazio sektorialak eta LZPk irizpide batzuk ezartzen dituzte, aintzat har daitezen.

### 9.5.1.3.1 A-8 autobia sustatzea ibilbide luzeetarako.

Sektoreko proposamen nagusienetariko bat, izan ere, A-8 bidea ibilbide luzeetarako ardatz nagusitzat sustatzea da, N-634 errepideko trafikoa bertan deskargatuz; hain zuzen ere, Durangoko Eskualde Egiturako lurraldearen ikuspegitik eta eremua egituratzearen ikuspegitik begiratuta, barruko artikulazioko elementua izan behar da eta, ahal den neurrian, saihestu egin behar da hori igarotze-bide bihurtzea (Eskualde Egituratik kanpoko jatorria eta helmuga izanik).

A-8 autobidearen sekzioa handitzea kontuan hartuta, trafiko-jario ahalik eta handiena bertara desbideratzea proposatzen da. Jario-aldatze horretarako, neurriak hartu behar dira, bidaia-helmugak hurbiltzeko ibilbideak murrizteko, azpiegitura horretan sarbide berriak sortuz.

Beste alde batetik, A-8 autobidearen eta Lebario-Apatamonasterio lotura berriaren arteko bilgunea aintzat hartuz, horrek (Kanpazarren egingo diren hobekuntzen bitartez) Deba Garaiarekiko lotura ona ahalbidetuko baitu, ibilbide luzeko sare horren funtzionaltasuna hobetzeko, Lebario-Gerediagan autobiderako sarbide berria sortzea proposatzen da. Era berean, Artibaiko igarobidea abiatzeko lekuaren hurbiltasunak (BI-623) aukera emango du eremu desberdinen arteko trukeak leku txikian egiteko, Eskualde Egituraren barruko komunikazioetan eraginik sortu gabe.

Puntu honetan, eta oro har autopistan sartzeko toki guztietan, komenigarri irizten zaio disuasio-aparkalekuak ezartzeari, bus espres zerbitzuekiko intermodalitatea edo ibilgailuen okupazio indize handiagoa sustatzeko.

### 9.5.1.3.2 N-634 errepidea, barruko mugikortasunaren banatzailea eta bideratzailea.

N-634 bideko trafiko deskargak aukera emango luke horrek hiri-inguruko eta hiri arteko espezializazioa lortzeko, LZPn aurreikusitako garapenen arabera; horrela, erantzuna emango litzaieke Errepideen LAPk detektaturiko arazoei;

horren aukera bakarra, izan ere, bideriari loturiko arrazoibideetan oinarrituz, aurreikusitako sarbide-berrantolaketa egitea zen. Horri dagokionez, LZPn N-634 bidean, Boroa eta Iurretaren artean, garraio publikorako plataforma soila sartuko da, eta hori, ezarkuntzaren lehenengo fasean, autobuserako errei soiltzat eratzea proposatzen da. Horretaz gain, Matiena eta Zaldibarko sekzioa egokitu beharko litzateke, alboko industri erabilerekiko bere funtzionaltasuna hobetzeko.

Bestalde, erabilera-baldintza ahalik eta onenak dituen bizikleta-sarea ezartzea komenigarria izango litzateke, eta beraz, hori errepide orokorrarekiko modu independentean garatzea komeni da, berorren zerbitzua jasoko duten eremuen barruko bide-egituretan eta euren arteko lotura-tarteetan euskarrituz.

Planteamendu horren eraginez, toki-bideriak egituratu egingo dira, bai oraingo hirigintza-garapenetan eta bai proposatzen direnetan. Aldi berean, bermatu egin behar da hiri-jarraitasuna, oraingo hesi-efektuak ezabatuz edo mugatuz; era berean, etorkizuneko hesi-efektuak aurreikusi behar dira, eta, horrela, maila desberdineko soluzioak derrigorrezkoak direnean, goiko lerruneko bidearen lurraldearen kota askatu egingo da, ondoko eremuekiko lotura urriagoa duenean.

Ekintza horiek aprobetxatuz, hanpatze batzuk segurtatu behar dira, bai ondoko udalerriekiko erlazioetan eta bai hurbileko A-8 autobidearekiko erlazioetan.

Hain zuzen ere, aipagarria da Iurreta Durango zeharbideari LZPn emandako soluzioa: N-634 bidean zeharreko erlazioak sustatzen dituen tratamendua, bai motorduna ez den mugikortasunari eta bai barruko trafikoei dagokienez. Horrela, lur lauak askatu egingo dira, egoitza-garapenerako bokaziorik handiena dutenak baitira, eta, aldi berean, gunean euskarritzen ez den jarraitasuneko hiri-garapena ahalbidetuko da.

Era berean, aipatzekoa da N-634 errepideko zeharbidea Berriz-Olakueta hirigunean, non soluzioa aurkitu behar baitzaie toki horretako elkarreragiteei,

ez bakarrik hiri-bilbearen eta errepidearen artekoei; A-8 autobidearen eta trenaren artekoei ere bai.

#### 9.5.1.3.3 Durango inguruko bideen berrantolamendua.

Durango inguruan, Bilboren eta Gipuzkoaren arteko berezko loturaren gainean hiru igarotze perpendikular biltzen dira (Elorrio, Artibai eta Urkiola); bertan, ikuskatu egin behar dira horien guztien arteko loturak egiteko baldintzak, batez ere bide-azpiegituren eta hiri-garapenen (oraingoak nahiz etorkizunekoak) arteko erlazioa aintzat hartzen duen planteamenduan oinarrituz.

A-8 autobideak eta N-634 errepideak euskarrituriko trafikoaren intentsitatea murrizteko, eta Durango inguruan trafiko-mugimenduak arrazionalizatu ahal izateko, hirigunearen hegoaldetik saihesbide-erronda bat ixtea planteatzen da, udalerriaren hirigintza-planifikaziotik sorturiko tarteak erabiliz, banaketako hiribidearen izaerarekin; lehendik egindakoa osatu eta itxi egingo da, A-8 autobidearekin loturiko BI-623 errepidearekin batera, Montefuerteren eta Montorretaren artean egindako tartea, baita N-634 bidearen (Iurretan) tratamendua ere (lehen aipatu duguna).

Durango inguruan biltzen diren bideak hierarkizaturik geldituko lirateke, ondoko eremuekin aurreikusitako erlazioen garrantziaren arabera, eta, horretarako, euren arteko lotura-irizpide hau aplikatuko da:

a) A-8 autobideak, LZPren egitura-sarean jasotakoak, ibilbide luzeko erlazioak bereganatzen ditu, bai Eskualde Egituraren eta kanpoaldearen eta bai igarotze-lekuen artean.
b) Deba Garaiarekiko lotura, LZPren egitura-sarean jasotakoa, Lebarioren eta Apatamonasterioren arteko azpiegitura berrian oinarrituz eratzen da, Kanpazar mendateko hobekuntzarekin jarraitzeko. Ibilbide luzeko sarea osatzen du, A-8 autobidearekin batera, eta horrekin Lebarion egiten du bat; gainera, Artibaiko igarobidearekiko eta banaketa-sarearekiko zuzeneko lotura ahalbidetzen du.

c) N-634 errepidea, LZPren banaketa-sarean jasotakoa, aurreko atalean adierazitako proposamenekin eta funtzionaltasunekin.
d) Durango hegoaldeko erronda; horrek, N-634 errepidearen tartearekin batera (A-8 autobiderako sarbideetan), Durangoko saihesbide osoa eratuko luke, banaketa-bideriaren lerrunarekin.
e) Igarotze-trafikotik askatuta, egungo N-636 hiri garapen berrien balizko kokapenerako baliatzen ari da. Garapen horiek sortu ahala eta horien kanpoko perimetroan zehar, ertzeko hainbat hiri-bideren jarraipen berri bat planteatzen da, Durangoko hegoko ingurabide berriarekiko lotura ahalbidetzeko. Hala, egungo errepidetik nahitaez igaro beharra saihestuko litzateke, zeinaren gainean hiriko tarte berria egituratzen baita. Lebario-Apatamonasterioren arteko lotura berriak, era berean, BI-3323 errepidea askatuko luke eta, horri esker, barne loturako elementu gisa egokituko litzateke Abadiñoko biztanle-gune nagusien artean.
f) BI-633 errepidea, LZPren egitura-sarean jasotakoa. Eskualdearen eta Gernika-Markinako Eskualde Egituraren arteko lotura nagusia eskaintzen du, eta, lehen esan dugunez, A-8/N-634 bideekiko loturak, Lebarioko lotunean, lotura bermatzen du egitura-sarearekin eta banaketa-sarearekin.
g) BI-623, LZPren banaketa-sarean jasotakoa. Estrategikoki ezarrita dago horrek Durangaldea Arabarekin lotzeko elementutzat duen garrantzia murriztea. Badirau, ordea, Mañaria eta Izurtzea eskualde egiturako buruarekiko lotura funtzioak. Durangoko hirigunea inguratzen duen tartea, bestalde, udalerriaren hegoaldeko ertzetik osatu beharreko errondaren zatia da orain. BI-623 errepidea, horren ondorioz, Durangoko hiri-egitura osoa (banaketa-bideriaren lerrunarekin) guztiz inguratzen duen perimetro-eraztunarekin lotuta gelditzen da. Bide horren eta inguruaren ezaugarriak direla-eta, bereziki zaindu beharko litzateke autoen trafikoaren eta oinezkoen eta bizikleten bideen arteko erlazio egokia, horiek elkartzen diren tokietan.

#### 9.5.1.3.4 Boroan oraintsu finkatu diren jarduera ekonomikorako lurzoruen lotura bermatzea.

Lehentasunezkoa da, kontuan hartuta Boroako industrialdearen oraingo ezarkuntza maila eta horri buruz epe laburrean dauden aurreikuspenak, oraingo irisgarritasun-baldintzak egokitzea N-240 Bilbo-Gasteizetik, eta hori aztertu beharko litzateke, A-8 eta la N-240 arteko fluxu zuzenak lortzeko, betiere N-634 ukitu barik.

#### 9.5.1.3.5 Igarotze-trafikorik gabe utzitako bideen tratamendua.

- N-634 errepideak oraingo lurretatik duen zeharbideak, enbor nagusia lurperatu ondoren, hiri-ardatz gisa suspertzeko, erabateko birmoldaketa behar du; horren barruan, errepideko elementuen ezabaketa eta zeharreko erlazioak sustatzeko tratamendua sartzen dira, bai motorduna ez den mugikortasunari eta bai barruko trafikoei dagokienez. Dena den, horren nortasun berriak behar duen hiri-espazioaren diseinuaren tratamendua ere egin beharko da.

- N-636 errepidea, igarotze-trafikotik askatu ondoren, hiri-bidetzat egokitu ahal da, Durangoren eta Elorrioren artean lerrokatzen diren jarduera-eremu desberdinetan zehar non sekzioa edo, hala denean, albokoak egokitu egin beharko liratekeen garraio publikoko plataforma esklusiboari bidea emateko. Antzeko egoera dugu BI-3323 errepidean; izan ere, Matiena eta Zelaieta arteko lotura funtzioa beteko luke. Bide horien tratamendua egokitu egin behar da, tarteen arabera, zeharkaturiko ingurura, hiriguneetara eta hiri-ingurukoak edo ia landakoak diren eremuetara; halaber, hirigintza bigunean oinarrituz aurkitu behar da soluzioa, guneak egituratzeko ardatz gisa, azken kasu horietan.

- Olakueta-Berrizen (N-634) eta Izurtzan (BI-623), proposaturiko bideak egina, hiria leheneratzeko ekintzak burutuko beharko lirateke, garrantzi handikoak biztanle-gune horientzat.

#### 9.5.1.3.6 Ondoko lurraldeekin komunikaturiko Egitura Ardatzak sustatzea.

- Arratiako igarobidearen (N-240) iparraldeko tarte berria (Boroa-Lemoa lotura) Eskualde Egitura honen barrukoa da. Lehen esan dugunez, tarte berri luzeak aukera emango du A-8 autobideko mugimendu batzuk aldatzeko, N-634 errepidearekin, eta horrela, lurzoru interesgarria askatuko da; gainera, ezabatu egingo da Zornotzako zeharbidea eta gune horretako trafikoa berrantolatu egingo da.

- Lebariotik Apatamonasteriorako ekialdeko saihesbidea egingo da, Durango-Abadiño hiri-ardatzaren birgaikuntza sustatuz.

- Elorrioko igarobidean jardun behar da (N-636), horrek Arrasaterekin duen loturaren baldintzak hobetuz, Kanpazar mendateko saihesbidea eginda.

- Hobetu egingo da Amorabieta-Gernika errepidearen egoera (BI-635), batez ere Autzagana gaineko saihesbidearekin, baina astunen trafikoa ahalik eta gehien murriztuz eta gainerako trafikoa ere urrituz; bi horiek, ahal dela behintzat, Bermeo-Mungia-Bilboko etorkizuneko igarobidea erabili beharko dute, Urdaibai Biosfera Erreserban igarotze-trafiko gehiegirik (ibilgailuak eta astunak) ez egoteko.

- Zaldibarren, N-634 errepidea hirigunearen barrutik igarotzearen eraginezko egoerak jarduketa bat behar du, motordun ibilgailua eta hirigunea hobeto bateratu ahal izateko; izan ere, trafikoa moteltzeko neurriak ezarri beharreko liratekeela irizten zaio, betiere etorkizunean aukerako igarotze-bidea aztertzeko aukera baztertu barik eta bideak dakarren ingurumen eragina onartzeko modukoa bada.

#### 9.5.1.3.7 Bide Sarearen (Banaketakoa eta Kapilarra) irisgarritasunak kontrolatzea, bigarren mailako igarobideak eratzen dituztenak, horiek eskualdeen arteko ibilbideetan gutxiago erabiltzeko, aintzat hartuta bertako natura-inguruak zaindu egin behar direla.

- Durango-Urkiola-Otxandio-Araba igarobidearen (BI-623) kategoria apurka-apurka murriztea, ingurumen-kalitate handia duelako eta Arratiaren igarobidea sustatu behar delako (Amorebieta-Lemoa-Ubide-Araba), Barazarreko mendatetik, eta Deba haranetik A-1 autobidea zerbitzuan jartzea. Izurtzaren kasuan, aurreikusita egon behar da BI-623 errepiderako aukerako ibilbidea egitea, barruko erabilerarako oraingo zeharbidearen hiri-espazioa suspertzeko. Mañariko biztanle-gunea, bestalde, ia osorik askatuko da ibilgailu astunen trafikotik, Zallobentako harrobiaren ustiapenari uzten zaionean.

- BI-2632 errepidearen inguruaren izaera zaintzea, Pagatzako mendatearen igoeran eta Elorrio-Berrio bitarteko zatian jarduketa zehatza eginez.

- Bigarren mailako gainerako errepideak ahalik eta gehien zaintzea, ingurumen-kalitate handia dutelako.

Aurreko proposamenak plano egokian adierazita daude

### 9.5.1.4 Bide-sarearen gaineko jarduketa motak

LZPn bide-sarearen gaineko jarduketa mota desberdinak hartzen dira kontuan:

**Bide-azpiegitura berriak ezartzea**

Halako jarduketetarako, azpiegitura berriak egin behar dira, oraingo sarearen funtzionamendua hobetzeko, bai aurreikusitako trafiko-jarioek prestazio

berriak eskatzen dituztelako, bai hirigune desberdinetan elkarreraginak ekiditeko. Lurraldearen Zatiko Plan honetan honako jarduketa hauek daude aurreikusita:

Bide tarte berriak

- N-240, Boroa-Lemoa autobia.
- Lebarioren eta Apatamonasterioren arteko lotura berria.
- N-636, Iguriaren eta Kanpazarren arteko trazatu berria.
- BI-635, Autzaganeko tunela.

Lotura berriak

- A-8, N-240 bidearekin lotura (aurretik azterlana izanda).
- A-8, Lebarioko lotura.

A-8 autobiarekin lotutako aparkaleku berriak

- Lebario-Gerediaga.
- Boroa.

**Oraingo azpiegiturak hobetzea.**

- A-8, Iurretaren eta Lebarioren arteko hirugarren erreia.
- BI-635, Amorebietaren eta Autzaganaren arteko trazatua hobetzea eta plataforma handitzea.
- N-634, Boroa-Iurreta eta Matiena-Zaldibar tarteetan sekzio bihurtzea.
- N-634 zeharbideko jarduketa Iurretan, eta Durangorekiko hiri-jarraipena ahalbidetuz.
- N-634, ibilgailu moteletarako erreia garatzea Areition.
- Sarearen gainerako zatian, egokitzeko eta zabaltzeko ekintzak, euren artean, BI-2632 Elorrio-Elgeta errepidean, trazatua hobetzea Pagatza mendatean.

**Perimetroko hiri-bide berriak ezartzea.**

Halako jarduketen helburua aukerako ibilbideak sortzea da, hiriguneetan bertan, horien zona batzuetan motordun trafikoa murriztu edo ezabatu ahal

izateko. Lurraldearen Zatiko Planean zehazturiko sareak eratzeko, jarduketa mota hauek aurreikusten dira:

- Udal planeamenduan aurreikusitako garapenen barruan, eta bertan zehazturiko bide-eskema gisa, hauxe sartzen da: Durangoko hegoaldeko erronda ixtea, Montorretaren eta BI-623 errepidearen artean.
- Konponbideei buruzko azterlan-eremuak zehaztuta, hain zuzen egon dauden zeharbideetako arazoen aukerako ibilbideak erabiliz, Izurtzako BI-623 eta Olakueta-Berrizko N-634 errepideko kasuak hartzen dira aintzat.
- Okupazioko mugako eremuen barruko aldean urbanizaturiko alde berrien balizko agerpenaren ondorioz eta zentralitate handiagoko bideetako trafikoa arintzeko, ondoz ondoko bide perimetralak proposatzen dira Durango eta Zelaieta artean izan litezkeen hirigintza garapenetan.

**Igarotze-trafikotik askaturiko bideak tratatzea.**

Bi jarduketa mota planteatzen dira, ukituriko tarteek izan litzaketen ezaugarrien araberakoak:

a) Hiri-inguruko zonetan. Sekzioari, ondokoetarako sarbideei eta halakoei loturiko arazoak konpontzeko jarduketak. Ez dago jasota bizikletek eta oinezkoek erabiltzeko zerrenda bereziak egitea, eta horien ibilbideek, halako eremuetan, segurtaturik izan behar dute jarraitasuna, Aukerako Mugikortasun Sarearen bidez. Jarduketa hori honako kasu hauetan dago aurreikusita:
   - N-636, Zelaieta eta Apatamonasterio artean.
   - BI-3331, Elorrioko esparruan.

b) Hiri-zonetan (hiriko tarteak eta zeharbideak). Jarduketek halako eremuen ezaugarriak emango dizkiote bideari; hobetu egingo dituzte ibilgailuen trafikoaren eta hiri-bizitzaren arteko bizikidetzaren baldintzak, trafikoa moteltzeko eta diseinua nahiz materialak tratatzeko neurrien bidez. Oinezko eta bizikleten bidezko lekualdatzeak, Aukerako Mugikortasun Sarearen trazatua edozein izan arren, horretarako zerrenda berezietatik

egiten dira, bidearen sekzioan. Hiriaren erdiguneko zonetan, jarduketen helburua oinezkoen eta bizikleten erabilerak sustatzea izango da, ibilgailuen trafikoa baldintzatuz, trafiko hori motelduta eta, aukerako ibilbideak aurreikusten badira, trafiko hori garraio publikora edo oinezkoen erabilerara mugatuta. Jarduketa hau honako kasu hauetan dago aurreikusita:

- N-634, hiri-bide bihurtzea Iurretan.
- N-634, gaur egungo zeharbide hiri-bide bihurtzea Olakueta-Berrizen.
- BI-623, gaur egungo zeharbide hiri-bide bihurtzea Izurtzan.
- N-636, hiri-bide edota hiri-inguruko bide bihurtzea Durangoren eta Zelaietaren artean.

**Finkatu beharreko beste jarduketa mota batzuk.**

Antolamendua finkatuta edo finkatzeko bidean diren eremuetan, eta ondoren hirigintza planeamenduak azterlan zehatza egite aldera, ondoko jarduketa mota hauek hartzen dira aintzat:

a) Errepideen foru sareko zeharbideak eta hiri-tarteak. Trafiko intentsitate txikia denean, ukituriko biztanle-guneko hiri-bizitza eta autoen trafikoa bateratzeko baldintzak hobetzea planteatzen da, trafikoa moteltzeko neurrien bidez eta kasuan kasuko bideko diseinuaren eta materialen tratamendu zehatzaren bidez. Hala gertatzen da zeharbide hauetan: BI-3323 (Matienan), BI-635 (Amorebietan), BI-3321, BI-3331, BI-2632 eta BI-3321 (Elorrion), eta BI-3341 (Garain). Kasu bereziak dira BI-623 errepidekoak Mañarian eta, batez ere, N-634 Zaldibarren, non, trafiko-fluxu nabarmenak aurreikusten badira ere, oraingo zeharbideen aukerako ibilbidea planteatzeak dakartzan arazoak direla-eta, lehenago aipaturikoaren antzeko neurriak hartu behar baitira.
b) Jarduera ekonomikoak nagusi direneko esparruak. N-634 errepidearen inguruko garapenen funtzionaltasun hobea izan dadin, zenbait bide planteatzen dira elkarren ondoko industrialdeak hobeto lotzeko, barne-ibilbideen jarraipena bideratzeko, betiere ibilbideen arteko lotura

erraztuz eta esparru horiek errepide nagusiarekiko duten mendekotasuna gutxituz.

### 9.5.1.5 LZPko bide-sarearen hierarkizazioa.

Eskualde Egituraren ikuspegitik, bai barruko erlazioei eta bai kanpoko eremuekiko erlazioei dagokienez, eta lurralde-antolamendua egiteko, bide-sarea hierarkizatzeko proposamen orokorra egin nahi da, ikuspegi morfologikoan oinarrituz, lurraldea egituratu ahal izateko, bera osatzen duten errepideen izaera eta funtzionaltasuna ere aintzat hartuz.

Sailkapen honi loturiko ezaugarri tipologikoak gainjarri eta modu loteslean baldintzatzen dute bide-azpiegituren arloko ekintzen (lurralde-planeamendu sektorialak eta udal-planeamenduek proposaturiko ekintzak) garapena nahiz betearazpena.

Sailkapen hau ez da Bizkaiko Errepideen Egitamuan ezarritakoaren aurkakoa, eta bere helburua, izan ere, lurralde-antolamenduaren araberakoagoa den ikuspegi berria ezartzea da.

Hierarkizazio horren ondorioz, etorkizunean egin beharreko jarduketei dagokienez, erreferentziako bide-eredu batzuk sortzen dira. Sailkapen horren arabera, honako bide-sare hauek bereizten dira:

#### 9.5.1.5.1 Egitura-sarea.

Sartzeko eta igarotzeko mugimenduetarako egokiak diren igarobideek osatzen dute, baita igarobide horien eta eskualde-egituretako erreferentziako lekuen arteko barruko lotura ahalbidetzen duten errepideek ere.

a) Funtzionaltasuna: Eskualde Egiturak kanpoaldearekin dituen erlazioetarako luzera handiko ibilbideetako ibilgailuen trafikoa. Igarotze-trafikoak egituratzeko ardatzaren eginkizuna ere badu.

b) Tipologia: Sare honen barruko bideak bi eredu desberdinekin lotuta gelditzen dira:

1- Bizkaiko Errepideen Foru Arauan (8/1999 FAko 3.4 art.) ezarritako ereduaren araberako autobiak; honako ezaugarri hauek dituzte:

- Zirkulazioaren noranzko desberdinen arteko banaketa-elementuak dituzte, baimendutako gehieneko abiadura orduko 100 km-koa da eta loturak desnibelean dira.
- Lurzoruaren erabilerak baldintzatzen dituzte, eta ez dago mugakideetarako sarbiderik.
- Motordun trafikoa bakarrik. Debekaturik dago bizikletan eta oinez ibiltzea.
- Ibilbide luzeko eta espres erako autobus-lineak, geralekurik gabe.

2- Errepide konbentzionalak, Bizkaiko Errepideen Foru Arauan (8/1999 FAko 3.7 art.) errepide konbentzionaletarako ezarritakoaren arabera; honako ezaugarri hauek dituzte:

- Galtzada bakarra dute, baimendutako gehieneko abiadura orduko 90 km-koa da eta gurutzagunean mailakoak dira (glorieten bidezkoak edo lehentasunezkoak).
- Lurzoruaren erabilerekiko koordinazioa eta sarbideen kontrola dago.
- Motordun trafikoa; bizikletak bidegorrietan edo bazterbide egokietan.
- Ibilbide luzeko autobus-lineak eta espres erakoak, horretarako erreserbaturiko lekuetako geralekuekin.

c) Proposaturiko jarduketen zerrenda:

- A-8, Iurretaren eta Lebarioren arteko hirugarren erreia.
- A-8, Boroa eta Lebario-Gerediagako sarbideekin lotutako aparkalekuak
- A-8, N-240 bidearekin lotura (aurretik azterlana izanda).
- A-8, Lebarioko lotura.
- N-240, Boroa-Lemoa autobia.
- Lebarioren eta Apatamonasterioren arteko lotura berria.

- N-636, Iguriaren eta Kanpazarren arteko trazatu berria.
- BI-635, Amorebietaren eta Autzaganaren arteko plataforma handitzea eta trazatua hobetzea.
- BI-635, Autzaganeko tunela.

d) LZPk Eskualde Egiturarako duen bide-proposameneko egitura-bideen zerrenda:
   - A-8 autobidea.
   - N-240, Boroa-Lemoa lotura (autobia).
   - N-636, Lebarioren eta Kanpazarren artean (errepide konbentzionala).
   - BI-633, Matienaren eta Trabakuaren artean (errepide konbentzionala).
   - BI-635, Amorebietako hirigunearen eta Autzaganeren artean (errepide konbentzionala).

### 9.5.1.5.2 Banaketa-sarea.

Hiri-eremuetan, hiriko bideek osatzen dute, eta, euren gaitasuna eta zentralitatea aintzat hartuta, bide horiek ardatz nagusiak dira; gainera, egokiak dira lekualdatze-modu desberdinek erabiltzeko eta, halaber, euskarri egokiak dira garraio publikoko linea nagusietarako. Hirikoak ez diren eremuetan, Eskualde Egiturako udalerrien arteko edo horren nahiz inguru hurbilen arteko loturen egitura osatzen duten errepideek eratzen dute, eta, horrela, eskualde-egitura desberdinen arteko lotura ahalbidetzen da.

a) Funtzionaltasuna: luzera ertaineko ibilbideen ibilgailuen trafikoa. Oinarrizko sareko jarioak lurraldean banatzen ditu. Hiri-eremuetan, kolektoretzat dihardu.

b) Tipologia: egokia da ondo bereizitako bi eremurako, baina betiere lurzoruaren erabilerekin koordinazioan, eta ez dago mugakideetarako sarbideen kontrolik.

1.- Hiri-esparrua: hiriko bideak, Bizkaiko Errepideen Foru Arauan (2/1993 FAko 60. art.) ezarritakoaren arabera, edo hiriko tarteak nahiz zeharbideak, Bizkaiko Errepideen Foru Arauan (2/1993 FAko 55-59. art.ak) ezarritakoaren arabera; honako ezaugarri hauek dituzte:

- Baimendutako gehieneko abiadura orduko 50 km-koa da, eta gurutzaguneak mailakoak dira, semaforoen edo glorieten bidezkoak.
- Garraio publikoko lineen bide nagusiak, errei bereziarekin edo halakorik gabe; geralekuak dituzte horretarako erreserbaturiko lekuetan.
- Motordun trafikoa, eta bizikletak ere bai, bidegorrietan edo bazterbide egokietan. Oinezkoentzako espaloiak.

2.- Hirikoa ez den esparrua: mugakideetarako sarbideetan mugarik ez duten errepide konbentzionalak dira, Bizkaiko Errepideen Foru Arauan (8/1999 FAko 3.7 art.) errepide konbentzionaletarako ezarritakoaren arabera; honako ezaugarri hauek dituzte:

- Galtzada bakarra, eta baimendutako gehieneko abiadura orduko 70 km-koa; gurutzaguneak glorieten bidez edo lehentasunez egiten dira.
- Garraio publikoaren lineen bide nagusiak; geralekuak dituzte horretarako erreserbaturiko lekuetan.
- Motordun trafikoa; bizikletak bidegorrietan edo bazterbide egokietan. Oinezkoentzako espaloiak edo bazterbideak.

c) Proposaturiko jarduketen zerrenda.

1.- Hiri-esparrua:

- N-634, Boroa-Iurreta eta Matiena-Zaldibar tarteetan sekzio bihurtzea..
- N-634 errepideko zeharbideko jarduketa, Iurretako udal-mugartean, Durangorekiko hiri-jarraipena ahalbidetuz.
- N-634, hiri-bide bihurtzea Iurretan.
- N-634, gaur egungo zeharbide hiri-bide bihurtzea Olakueta-Berrizen
- N-634, ibilgailu moteletarako erreia garatzea Areition.

- Durango hegoaldeko erronda ixtea, Montorretaren eta BI-623 errepidearen artean.
- BI-623, gaur egungo zeharbide hiri-bide bihurtzea Izurtzan.

2.- Hirikoa ez den esparrua:

- Sarearen gainerako zatian, irisgarritasunen kontrola, kasuan kasuko ingurune naturalak babesteko.

d) LZPk Eskualde Egiturarako duen bide-proposameneko banaketa-bideen zerrenda:

- Durango hegoaldeko erronda.
- N-634 autobiaren hiri-bidea, Iurretan.
- Hiri-bidea BI-635 errepideko oraingo zeharbidean, Amorebietan.

e) Hirikoak ez diren banaketa-bideen zerrenda (errepide konbentzionalak), LZPk Eskualde Egiturarako duen bide-proposamenari dagokionez:

- N-634, Amorebietaren eta Zaldibarren artean, Iurretako hirigunea izan ezik.
- BI-635, Amorebietaren eta Lemoaren artean.
- BI-623, Durangoko hegoaldeko saihesbidearen eta Otxandioren artean.

### 9.5.1.5.3 Sare kapilarra.

Lurralderako irisgarritasunik handiena ematen duten bideriek eratzen dute. Hiri-eremuetan, hori osatzen duten kaleak, hiri-eremutik kanpo irtetean, errepide bihurtzen dira (LZPk azaldutako sareetarikoren baten barruko errepideak). Hirikoak ez diren esparruetan, Sare Kapilarra toki-irisgarritasuneko errepideen egiturak osatzen du, eta errepide horiek, berriz, beste sare batzuen zerbitzurik ez duten garapen-eremuetara eta Eskualde Egiturako landa-gune guztietara hedatzen dira.

a) Funtzionaltasuna: ibilbide laburreko ibilgailuen trafikoa, oinezkoen eta bizikleten bideekiko paraleloa eta horietatik bereizia, guneen arteko loturarako.

b) Tipologia: egokia da ondo bereizitako bi eremurako, baina betiere lurzoruaren erabilerekin koordinatuz; ez dago mugakideetarako sarbideen kontrolik:

1.- Hiri-esparrua: hiri-bideak, Bizkaiko Errepideen Foru Arauan (2/1993 FAko 60. art.) ezarritakoaren arabera; edo, trafiko-intentsitate oso urriko errepideen, zeharbideen edo hiri-tarteen kasu batzuetan, Bizkaiko Errepideen Foru Arauan (2/1993 FAko 55-59. art.) ezarritakoaren arabera.

- Galtzada baten abiadura moteleko bidea (~30 km/h), mailako gurutzaguneekin (semaforodunak edo lehentasunezkoak).
- Garraio publikoa, horretarako erreserbaturiko espaziorik gabe.
- Motordun trafikoaren eta bizikleten trafikoaren arteko bizikidetza. Oinezkoentzako espaloiak.

2.- Hirikoa ez den esparrua: foru- edo udal-titulartasuneko errepideak, Bizkaiko Errepideen Foru Arauan (8/1999 FAko 3.7 art.) errepide konbentzionaletarako ezarritakoaren arabera; honako ezaugarri hauek dituzte:

- Galtzada baten abiadura moteleko bidea (~50 km/h), mailako gurutzaguneekin (glorietadunak edo lehentasunezkoak).
- Garraio publikoa, horretarako erreserbaturiko espaziorik gabe.
- Trafiko mota guztien arteko bizikidetza, eta oinezkoentzako nahiz bizikletetarako bazterbideak.

c) Proposaturiko jarduketen zerrenda.

1.- Hiri-esparrua:

- N-636, hiri-bide eta hiri-inguruko bide bihurtzea Durangoren eta Zelaietaren artean
- BI-3323, hiri-bide eta hiri-inguruko bide bihurtzea Matienaren eta Zelaietaren artean

- Durango eta Zelaieta artean izan litezkeen hirigintzako garapenetako bide perimetralak.
- Hiri-birmoldaketa, eraginpeko gune desberdinetako zeharbideetan.

2.- Hirikoa ez den esparrua:

- N-636, Zelaieta eta Apatamonasterio arteako birmoldaketa.
- BI-3331, Elorrioko esparruko birmoldaketa.
- Sarearen gainerako tokietan, Irisgarritasunen kontrola, horien berezko inguruak babesteko, BI-2632 errepidea ere barne (Elorrio-Elgeta), bertan egokitzeko eta zabaltzeko jarduketak egingo baitira.

d) Hiriko bide kapilarrak, LZPk Eskualde Egiturarako duen bide-proposamenean jasotakoak, honako hauek dira:

- Hiri-bidea, Durangoren eta Zelaietaren arteko N-636 errepidearen oraingo zeharbidean.
- Perimetroko hiri-bidea, Durangoren eta Zelaietaren artean, izan litezkeen hirigintzako garapen berriak.
- BI-3323 (Matienan), BI-3321 (Elorrion eta Berrizen), BI-3331 eta BI-2632 (Elorrion), BI-3342 (Berrizen) eta BI-3341 (Garain) errepideen zeharbideak.

e) Hirikoak ez diren bide kapilarrak (errepide konbentzionalak, kasu guztietan), LZPk Eskualde Egiturarako egin duen bide-proposamenean jasotakoak:

- N-636, Zelaieta eta Apatamonasterio artean, Lebario-Apatamonasterio lotura egin eta gero.
- BI-3331, Apatamonasterioren eta Iguriaren artean, Elorrioko biztanle-gunea izan ezik.
- BI-3323, Matiena izan ezik.
- BI-3321, Elorrio eta Berriz izan ezik.
- BI-3341, Garai izan ezik.
- BI-3332, Arriandi eta Muniketa izan ezik.

- BI-3342, Berrizen, gunea izan ezik.
- BI-2632, Elorrioren eta Pagatzaren artean.
- Garrantzi urriagoko gainerako errepideak dokumentazio grafikoan jasota daude.

### 9.5.2 Trenbide-sarea.

#### 9.5.2.1 Sarrera.

Trenbide Sareko LAPk zabalera metrikoa (Euskotren) hobetzeko proposamena egin du; horretarako, bide bikoitza ezarriko da, oraindik halakorik ez duten tarteetan, eta horrek eragina izango du Eskualde Egiturako tarte guztietan. Bestalde, trazatuan aurreikusi diren zuzenketek nabarmen murriztuko dute bidaietarako behar den denbora; gainera, Amorebietako eta Durangoko geltokiak lurperatu eta beste leku batean kokatuko dira, eta horrek nabarmen hobetuko du zerbitzuaren kalitatea, bai Bilborantz eta bai Eibarrerantz.

Eskualde Egiturako barruko eremuetarako irisgarritasunak, 8.2 atalean esan dugunez, trenbidekoa osatzen duen talde-garraioren bat behar du. Ibaizabalek zehazturiko ardatzean, garraio publikoaren balizko eskaririk handieneko eremurik gehienak bertan biltzen baitira, plataforma soila ezartzeko proposamena egitea aukeratu da; hori hasieran autobuserako bakarrik den erreitzat planteatu arren, ez da baztertu behar etorkizunean tranbia bihurtzeko aukera, baldin eta zerbitzuaren beharrizanak aintzat hartuta komenigarria bada.

Abiadura handiko trenari dagokionez, Eusko Jaurlaritzak aurreikusitako trazatu loteslea bildu baino ez du egiten LZPk, gaur egun burutzen ari dena, baita Euban Euskotren-AHT geltoki intermodala premiaz ezartzeko posibilitatea ere, Trenbide Sarearen LZPn zehazturikoarekin bat etorriz. LZPk ez du azpiegitura horren inguruko proposamenik egiten, eskualde egituraren barne mugikortasunerako funtzionaltasunik ez duelako eta, bestalde, azpiegituraren xedeak eta ezarpenak planean antolaturiko lurralde eremua

gainditzen dutelako. Bestalde, Zornotzako portu lehorraren aurreikuspena, zabalera metrikoko linearekin lotua, dokumentuan ezarri da, zeren eta aurreikuspen hori loteslea baita Trenbide-sarearen LAPn. Hala ere, horren ezarpena zalantzan jar liteke, Bermeoko portua errepide-sarean Sollubeko portuaren bidez lotzeko posibilitateagatik.

Administrazio sektorialaren esku gelditzen da bi azpiegituren burutzapena, eta burutzapen horretan, nolanahi ere, ingurumenean izan litezkeen eraginen indarra zaindu behar da, hain zuzen ere garapen-plangintzen edota trazatu eta burutzapen proiektuen gainean egin beharreko ingurumen eraginaren ebaluazio-prozeduren bidez baloratu beharrekoa.

### 9.5.2.2 Helburuak.

Lurralde-ereduaren oinarrizko helburua garapen iraunkorrerako neurriak hartzea izanik, garraioari dagokionez, trenbidearen bidezko garraioa sustatzea planteatzen da. Eskualde Egituraren ezaugarriak eta bertan sorturiko mugikortasuna aintzat hartuta, indartu egin daitezke bidaiarien trenbide-garraioaren bidezko lekualdatzeak, bai Eskualde Egiturak inguruarekin dituen erlazioetan, bai horren barruko gune nagusien arteko erlazioetan, eta azken horiek dagoeneko trenbide-zerbitzua dute.

Garraiobide honen erabilera inplementatzeko, hala eta guztiz ere, ibilgailu pribatua gutxiago erabiltzeko neurriak behar dira; izan ere, bidaiari berriak ibilgailu pribatua erabiltzen ez dutenak izango dira, eta trenbide-zerbitzua hobetzeko neurriek ere eragina izango dute horretan, lekualdatze-denborak eta maiztasunak optimizatzeko aukera ematen baitute.

### 9.5.2.3 Jarduketa-irizpideak.

Ezarkuntza berriko prozesuetan arintasun ahalik eta handiena proposatzen da, eta hori honako honetan gauzatzen da:

Zabalera metrikoa duen trenbide-sarean segurtasun- eta zerbitzu-baldintzak hobetzeko, honako jarduketa hauek egingo dira:

- Bilbo-Donostia linea destolestea, Amorebieta-Eibar tartean (Bilbo-Amorebieta tartea dagoeneko destolestuta dago), horixe baita Trenbide Egitamuaren ekintza nagusienetarikoa.

Trenbide-azpiegitura hiriguneetan hobeto integratzeko, horren irisgarritasuna errazteko eta, beraz, bidaiarien erakarpena hobetzeko, honako jarduketa hauek jasotzen dira:

- Durangoko etorkizuneko lurpeko geltokia (hiri barruko oraingo trenbide-trazatuaren zati handia bezala); horrek garraiobideen arteko truke askoz ere handiagoak ahalbidetu eta, gainera, hiri-birgaitze handia lortuko du, hobekuntza nabariak behar dituzten lekuetan. Hori guztia optimizatu egingo da, lehen aipaturiko zeharbideak murriztuz. Beraz, Durangok protagonismo nagusia izango du, hiri-birrantolamenduari dagokionez.
- Bideak berregituratzea eta oraingo geltokiak bateratzea, Amorebietako etorkizuneko lurpekoa eginez. Eragiketa horren bitartez, hiri-inguruko lurzoru kantitate handia askatuko da (posizio-balio handikoa), eta hori ondo antolatu beharko da.
- Lurpeko aukerako igarotze-ibilbidearen azterlanaren proposamena Berrizko biztanle-gunean.

Proposamen hauek plano egokian jasota daude.

#### 9.5.2.4 Sarearen egitura.

Euskotrenen oraingo lineak, zabalera metrikoa duenak, Durangoko Eskualde Egitura zeharkatzen du; Ibaizabalen harana Durangoraino zeharkatu eta, bertatik, ekialderantz, Matienatik, Berrizetik eta Zaldibarretik igarotzen da, Eibarrerantz. Linea horrek honako eremuen arteko lotura ahalbidetzen du :

a) Bilbo, jarduera metropolitarreko hirigune nagusitzat; beste garraiobide batzuekiko truke-sorta handia dago, beste helmuga batzuk ere lotzeko.

b) Bermeo, Zornotzatik iparralderantz; Urdaibaiko eremuak egindako aisialdi-eskaintza.

c) Mallabia-Ermua eta Gipuzkoako eremua, ekialderantz: lan- eta merkataritza-eremu nagusiak.

Planifikazio mailan, eta betearazpenaren hasierako prozesuan, aintzat hartu behar da nazioarteko zabalerako trenbide-sarea (UIC), abiadura handikoa; izan ere, Eskualde Egituratik joan arren, ez dauka geltokirik bertan. Horrenbestez, igarotze-linea da eta EAEko hiru hiriburuak egituratzeko eginkizuna dauka; halaber, hiriburu horiek kanpoaldearekin lotzen ditu.

## 9.6 Komunikazio- eta garraio-sarean garatu beharreko estrategia-ikuspegia.

Lehen azaldutakoa gogoratuz eta laburbilduz, komenigarria da proposaturiko ekintzak nabarmentzea, garraioekin edota horien azpiegiturekin lotutakoak, lurralde- eta hirigintza-arloan garrantzitsuenak izan daitezkeenak; eta bereizi egiten da komunikazio-sareen multzoan sartzen dutenetatik. Hala, arduradun sektorialen arteko koordinazioa behar da:

- Amorebieta

  Hirigunea birmoldatzea, Euskotrenen sarea lurperatuz; horrela, hiri-egitura eratu eta zona berdeak nahiz eraikuntzakoak sartuko dira. Eremu horretan, autobus-geltokia nahiz trenbide-autobus trukagailua instalatu.

  Orain gainazalean dagoen trenbide-trazatua desagertuta, Boroako lotura egitearekin batera, hirigune osoa igarotze-trafikorik gabe geldituko litzateke.

  Hiriguneari hego-ekialdetik lotuta, portu lehor bat jartzea aurreikusi du trenbideen administrazioak, Bermeoko merkantzien mugimenduari lotua.

- Iurreta

  N-634 errepideko jarduketa: Kapanaga, Olalde eta Francisco de Ibarra kaleen arteko lotunea hobetzea. Motordun ibilgailuen

trafikoaren mailako abantailez gain, hiriguneko oinezkoen eta bizikleten arteko lotura ahalbidetuko da errepide nazionalaren bidez eta Durangoko erdiguneko jarraipen naturalaren bidez.

- Abadiñoko

  Lebarion A-8 autobiderako irteera berria instalatuko da, eta hori bateragarria izango da Euskotrenek eremu horretan egin nahi dituen kotxe-tokiekin; gainera, Trañako geltokiaren eremua berriro antolatuko da, tren-autoa intermodalitatea, beste udalerri batzuetako bidaiariak ere hartzeko soluzio egokia eta jarraipen-soluzioa Matiena eta Zelaietako biztanle-guneen artean, betiere motorrik gabeko mugikortasun-sarearen ezarpena euskarri hartuta, baita garraio publikorako plataforma esklusiboa ere.

  Lebario eta Apatamonasterio arteko lotune berriak igarotze-trafikoak askatuko ditu N-636 eta BI-3323 errepideen egungo trazatuan, bereziki trafiko astuna. Horri esker, birmoldatu ahal izango da, eta garraio publikoaren plataforma esklusiboaren azken definizioan aintzat hartu beharreko funtsezko erreferentzia izango dira.

- Berriz

  Garraioko azpiegitura-sareak igarotzeko soluzio berria Olakuetan. N-634 errepiderako aukerako ibilbideari buruzko azterlana, 3. Antolamendu-planoan zehazturiko eremuan konpondu beharrekoa, betiere A-8 autobidearen hegoaldetik. Hala, egungo zeharbidea tokiko bide gisa birmoldatuko da. Trenbide trazatu berriaren azterlanaren oinarrizko ideia A-8 autobidepetik zeharkatzea da, Eitua industrialdearen parean, eta ondoren lur azpitik hiriguneraino. Hirigune horretan, lur azpiko geltoki bat egingo litzateke, eta ondoren berriz ere aire zabalean joango litzateke egungo trazatuarekin bat egin arte Torretxuko trenbide-pasagunea baino pixka bat lehenago.

- Durangoko esparrua: hirigunea birmoldatu egingo da, Euskotrenen linea lurperatuta, eta hiri-egitura osatuko da, zona berdeak eta eraikinak eginez; horien artean, autobusaren eta trenaren arteko trukagailua egon behar da aurreikusita.

  Lebario eta Apatamonasterio arteko lotura berriak igarotze-trafikoa kenduko dio N-636 errepidearen egungo trazatuari, bereziki trafiko astuna. Horri esker, hiri-bide gisa birmolda daiteke, eta funtsezko gakoa da garraio publikoaren plataforma esklusiboaren azken definizioan.

  Durangoko hegoaldeko ingurabidea egingo da, BI-623 eta N-636 errepideen artean, Eguskitza II industrialdeko ertzetik, Durango eta Izurtza arteko hiri-jarraipenarekin bateragarria. Horri esker, perimetro-ibilbide bat itxi ahal izango da hirigunearen inguruan eta igarotze-trafikoetatik askatu.

# 10. ZERBITZUETAKO OINARRIZKO AZPIEGITURAK

## 10.1. Helburuak.

Baliabideen, energiaren eta sorturiko hondakinen zentzuzko aprobetxamenduak zenbait faktore eragiten ditu, adibidez, borondate politikoa, Administrazioaren diru-inbertsioak eta enpresa ekimena, baita biztanleria jabearaztea ere.

Helburua baliabide naturalen kontsumoa murriztea da, horretarako teknikak ikertuz, eta, gainera, lehenengo zerbitzua eman dutenak berriro erabili behar dira.

Europako herririk garatuenetan gero eta gehiago erabiltzen den ikuspegi horixe sartzen da garapen iraunkor kontzeptuaren barruan. Jarrera berri horren ekintzak orain dela gutxi arte pentsaezinak ziren mailetaraino iristen dira; esate baterako, ohiko erabilera duten materialen bizitzaren ziklo osoen zientzia-azterketak egitea, fabrikatzearen, erabiltzearen eta ezabatzearen eraginezko kostu guztiak ere barne, bai barruko kostuak (lehengaiak, energia, manufaktura, garraioa) eta bai kanpokoak (kutsadura, osasun-arazoak, paisaiaren suntsipena).

Estatuko eta EAEko herri-administrazioek barneratu egin dute baliabideak erabiltzeko ikuspegi berri hori, eta helburu horiek lortzeko neurriak (batik bat, kontrolekoak) ezartzen dituen legeria sortu dute.

EAEko Lurraldearen Antolamendurako Artezpideek (lurraldearen gaineko jarduketa sektorial guztietarako erreferentziako esparrua) konpromisozko jarrera etikoa hartzea proposatzen dute, ingurumenaren tratamenduari dagokionez, inguru fisikoaren nahiz naturalaren arazoekiko sentikortasun berezian oinarrituz, inguru horren gaineko eragin kaltegarriak ekiditera mugatzen duen jarrera gaindituz.

Aipaturiko agiriak adiera eman duenez, lurraldeko sistema natural garrantzitsuak apurka-apurka narriatzen ari dira, jarduerak bertan ezartzeko moduaren ondorioz, eta prozesu hori geldiarazteko proposamena egin du,

inguru fisikoa oinarrizko azpiegituratzat hartuz; horren kalitateak gero eta eginkizun garrantzitsuagoa izango du produkzio-jarduketak kokatzeko erabakietan.

2002ko ekainaren 4an, Eusko Jaurlaritzako Gobernu Kontseiluak EAEko Ingurumeneko Esparru-Programa (2002-2006) onetsi zuen, eta bertan, Garapen Jasangarriaren Euskal Ingurumen Estrategia (2002-2020) planteatzen da, Ingurumena Babesteari buruzko 3/1998 Legean adierazitakoa.

Agiri horren helburua, izan ere, EAEko herri-administrazioa osatzen duten erakunde guztiek garatu eta aplikatu beharreko ingurumen-politika planifikatzea da, bost helburu lortzeko:

1. Aire, ur eta lurzoru garbiak eta osasuntsuak bermatzea.
2. Baliabide naturalak eta hondakinak arduraz kudeatzea.
3. Natura eta biodibertsitatea babestea.
4. Lurralde oreka eta mugikortasuna: ikuspegi komuna.
5. Aldaketa klimatikoaren gaineko eragina mugatzea.

E.A.E.ko Ingurumeneko II. Egitarau Markoak (2007-2010) Eusko Legebiltzarreko Lurraldearen Antolamendu, Garraio eta Ingurumen Batzordeak 2007ko urriaren 10ean egin zuen bileran onetsi zituen ebazpenak jaso ditu.

## 10.2. Uraren zikloa.

Foru Aldundiko Ingurumen Sailak 2004-2007 aldirako duen ur-politika, bestalde, Urari buruzko 2000/60/EE Esparru Zuzentarauaren eta Hiriko Hondakin Uren Saneamenduari buruzko 1991/271/EE Zuzentarauaren barruan sartzen da. Ezarritako lege-esparru horren helburuen artean, honako hauek daude:

- Ur kontinentalen kalitate ekologikoa babestea eta hobetzea.
- Uretako sistemen narriadura gehigarria ekiditea.
- Uraren erabilera iraunkorra sustatzea.
- Uraren hornidura nahikoa bermatzea, aintzat hartuta urari loturiko zerbitzuen kostua suspertzeko printzipioa, kutsatzen duenak ordaindu egiten du printzipioaren arabera.

- Lehorteen eta uholdeen ondorioak murriztea.
- 2.000 biztanletik gorako udalerri guztiek uren tratamendu egokia egitea, isurketak Europar Batasunak ezarritako kalitate-helburuak betetzeko.

Uraren zikloaren barruan, ibilguen eta ertzen ezaugarriei loturiko alderdiak ere sartzen dira. Horri dagokionez, Lurraldearen Zatiko Planaren kartografian, EAEko Ibai eta Erreken Ertzak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planaren proposamenak daude jasota, oraingo eta aurreikusitako bideratzeei buruzkoak.

### 10.2.1 Ur hornidura.

Bizkaiko Foru Aldundiak ura integratzeko zikloari dagokionez lortu nahi dituen helburuak, bizkaitar guztiek kantitate eta kalitate oneko ura edukitzeari lotutakoak, honako hauek dira laburbilduta:

- Oraingo azpiegitura sareen ezagupena hobetzen duten inbentarioak eta ikerketak sustatzea, beharrezko inplementazioak errazteko eta, horrela, biztanleria nahiz enplegua garatzeko aurreikuspenen zein proposamenen zerbitzu maila egokiak bermatzeko.
- Azpiegitura horren funtzionamendua optimizatzea, iruzurrak saihestuz, galerak urrituz eta, batik bat, kontsumoko jarraibideak aldatzen saiatuz, uraren aurrezpena eta zentzuzko erabilera sustatuta, ondasun urria baita.
- Eskualde Egituraren Ardatza hornidurako sistema metropolitarrean apurka-apurka integratzen joatea, gehienbat mendebalderen dauden eremuetan.
- Hain zuzen ere, Zornotza-Eubako, Iurreta-Durangoko eta abarreko eremuetako Sistema Orokorrak indartzea, horien inguruetan segurutik egongo diren garapenak aintzat hartuta.
- Halaber, LZP honek aurreikusitako gainerako garapenek behar dituzten inplementazioak ezartzea.

Proposamen horietariko batzuk 5.1 Antolamendu Planoan (“Oinarrizko Azpiegiturak. Hornikuntza”) jasota daude, eskema eran, erabilitako lan-eskalaren eraginez. Udal-planeamenduek lurzoruaren kalifikazioa eta

mugaketa egin behar dute, erakunde arduradunek aurreikusitako etorkizuneko azpiegiturak betearazteko proiektuekin bat etorriz.

### 10.2.2 Saneamendua.

Azpiegitura honetan, proposamenak dibertsifikatu egin daitezke, bai oraingo egoera onargarriaren hobekuntza erlatiborantz, bai aurreikusteko moduko garapenen inplementaziorantz.

Lehenengo kasuan, kontrolik gabeko isurketak gehiago bilatu eta zuzendu behar dira, barreiaturiko kutsadura apurka-apurka erregulatzeko, hurbileko hiri-inguruko eremuak Saneamendu Sistemetan sartzeko, etab.

Bigarren kasuan, etorkizuneko efluenteak oraingo sistemetan sartu beharko dira, kontuan hartuta hustubideen nahiz araztegien gaitasunak zein lasaierak, bikoizketen edota ordezpenen aukerak, arazketa-lerroen modulazioak, etab.

Horrenbestez, honako ekintza hauek proposatu ahal dira:

- EEko hondakin-ur guztiak araztea, landaguneetakoak ere barne.
- Saneamendu banatzaileko sistemak erabiltzea, bai hustubideetara nahiz araztegietara bideraturiko ibilguak murrizteko, bai horien funtzionamendua errazteko.
- Sistema Orokorren inbentarioa egitea, horien gaitasunak eta lasaierak zehatz jakiteko.
- Ibaizabal ibaiaren eta horren adarren berezko Arazketa Jokabidea ezagutzeko ikerketak egitea.
- Hain zuzen ere, Zornotza-Euba, Irurreta-Durango eta halako eremuetako Sistema Orokorrak indartzea, horien inguruetan egon daitezkeen garapenak aintzat hartuz.
- Era berean, LZP honek proposaturiko gainerako garapenek behar dituzten inplementazioak aurreikustea.
- Industria-kontsumitzaile handietarako ur-sarea ezartzea, Elorrioko, Iurretako eta Amorebietako araztegietan trataturiko hondakin-uren zuzeneko berrerabileran oinarrituz.

Proposamen horietariko batzuk 5.2 Antolamendu Planoan (“Oinarrizko Azpiegiturak. Saneamendu-Hondakinak”) jasota daude, eskema eran,

erabilitako lan-eskalaren eraginez. Udal-planeamenduek lurzoruaren kalifikazioa eta mugaketa egin behar dute, erakunde arduradunek aurreikusitako etorkizuneko azpiegiturak betearazteko proiektuekin bat etorriz.

## 10.3. Hondakin solidoak eta lurzoru kutsatuak.

Luzaro, gizarteetan hondakinak desagerrarazi beharreko gauza gogaikarritzat hartu dira. Baina, hondakin horien oraingo bolumena kontuan hartuta, ezabatze hori ia ezinezkoa da, naturaren oreka apurtu barik.

Garapen iraunkorraren ereduan, hondakinak baliabidetzat hartu eta birziklatu egiten dira, lehengaiak aurrezteko eta ingurumen-kalteak murrizteko. Esate baterako, hondakin solidoek energia sor dezakete (gasa, beroa), eraikuntzan erabil daitezke (obra-hondakinak, metalak) edo arazketen eraginezko lokatzekin konbinatu ahal dira, ongarri organikoak sortzeko.

LAAek, hondakin kantitate handiegia sortzeko arazoari dagokionez, sortze hori jatorrian urritzeko politikak hartzea sustatzen dute; halaber, hondakinak birziklatu eta ondo kudeatu behar dira, behar diren azpiegitura guztiak sortuta.

Gaur egun, Bizkaiko Hiri Hondakinak Kudeatzeko II. Plan Integrala (2005-2016) dago indarrean; horren helburu nagusia oinarrizko hondakinik ez isurtzea da, hondakindegietara heltzen den guztia aldez aurretik tratatuz; gainera, bigarren mailako hondakinak ere tratatu beharra planteatzen du, hain zuzen ere, oinarrizko hondakinen araztegietan ukapentzat sortzen diren hondakinak: ontziak banatzeko nahiz sailkatzeko araztegiak, konposta egiteko araztegiak, aldez aurreko tratamendu mekaniko-biologikoko araztegiak eta tratamendu termikorako araztegiak. Horri dagokionez, egitamu horretan hondakinak erraustea ere aurreikusita dago, energia berreskuratzeko.

Eskualde Egituran, Berrizko hondakin bizigabeen hondakindegia dago. Hondakindegi hori 2008ko urtarrilaren amaieran itxi zen eta une hauetan behin betiko zigilatzeko eta lehengoratzeko prozesuan dago baita Zaldibarrekoa ere, arriskutsuak ez diren hondakinak suspertu eta tratatzen dituena. Durangon, hiri-hondakin solidoen transferentziarako araztegia dago eta horrek zerbitzua ematen die Eskualde Egiturako udalerriei. Zornotzan (Zubieta industrialdea),

ontziak banantzeko planta dago irekita (Bizkaiko Zabor Berziklategia), eta plastikoak errausteko beste bat ere bai (Bizkaiko Plastiko Berziklategia).

Iraunkortasunerako joera aintzat hartuta, hauxe lortu behar da: biltegietan dibertsifikazio eta aldez aurreko hautapen handiagoak egitea, birziklapenetan errendimendu hobeak lortzea, industria-jardueren hondakinak gehiago integratzea, etab.

Halaber, nekazaritzako eta abeltzaintzako hondakinak askoz ere gehiago kontrolatu behar dira; izan ere, erdi barreiatuak izan arren, kalte larriak sortzen dituzte gainazaleko eta lurpeko baliabide hidrikoetan.

Horri dagokionez, komenigarria da jabearazte-kanpainak sustatzea, jokabideak hobetzeko, batik bat landa-inguruetan.

Proposamen zehatzagotzat, komenigarria da Eskualde Egiturako gune nagusietan Bilketa Hautakorreko Zentroen (*garbiguneak*) ezarkuntza sustatzea, baita bilketako eta tratamenduko beste elementu batzuk ere, modu eraginkorrean eta nahikoan banatuta, udalerrietan edo mankomunitate mailan, hiritarrek hondakinak errazago banandu ahal izateko.

Halaber, komenigarria da jarduera ekonomikoetako industrialdeetan bilketa hautakorreko espazioak ezartzea, hirikoetara asimilatzeko modukoak diren hondakinen edukiontziak instalatzeko eremuekin.

Era berean, eraikuntza-prozesuetan sorturiko lurrak nahiz zaborrak ezabatzeko orduan arauketa handiagoa behar da.

Hondakin horiek edo beste hondakin bizigabe batzuk, bestalde, lurraldeko elementu kaltegarriak ezabatzeko erabili behar dira (ongarriztaturiko harrobiak, zuloak, etab.).

Azkenik, gure geografiako leku batzuetan lurzoru kutsatuak egotearen eraginezko arazoa ikusita, udal-planeamenduak aintzat hartu behar du lurzoruaren kalitatearen aldagaia, Hori lurzorua kutsatzeko jarduerak edo instalazioak jasaten edo jasan dituzten lurzoruen inbentarioari buruzko Eusko Jaurlaritzaren 165/2008 Dekretuan ezarri dena betez egingo da eta arazo horri,

industrialde zaharkituen lehengoratzerako eragiketen eta aipatu den legean ezarri diren gainerako inguruabarren definizioa egiterakoan lurzoruaren kutsadura prebenitu eta zuzentzeko 1/2005 Legearen zehaztapenak aplikatuz

## 10.4. Energia.

Energia zentzuz erabiltzeko helburu orokorraren barruan, aipagarriak dira Garapen Iraunkorreko Euskadiko Energia Estrategiak (3E-2010) lortu nahi dituen helburu hauek:

- Energiaren aurrezpena eta zentzuzko erabilera ahalik eta gehien sustatzea.
- Energia-eraginkortasuneko jarduketak nabarmentzea, sektore guztietan, kontsumoa murriztuz (energia-intentsitateari dagokionez).
- Ingurumena gehiago errespetatzen duten energiak erabiltzea.
- Energia geure kabuz hornitzen saiatzea, baliabide berriztagarri autonomoen aprobetxamendua handitzeko eta hobetzeko ahaleginak eginez.
- Energia-iturriak dibertsifikatzea eta gas naturala nahiz ordezko energiak sustatzea.
- Energia-azpiegiturek paisaian eta ondare naturalean sortzen dituzten eragin kaltegarriak murriztea.

Helburu horiek lortzeko jarraitu behar diren estrategien artean, honako hauek aipa daitezke:

- Kontserbazioko eta aurrezpeneko jarduketak sustatzea, hain eraginkorrak ez diren erabilerak murriztuta, industria-instalazioak berrituta nahiz modernatuta, eta baterako sorkuntzako egitamuak sustatuz. Halaber, langileen trebakuntzarako programak ere garatu behar dira, ekipoetan eta instalazioetan energia-eraginkortasuneko hobekuntzak lortzeko; eraikinetako eta instalazioetako isolamenduak hobetzeko neurriak ere garatu behar dira, etab.
- Jendea jabearazi egin behar da energiaren arazoari eta hori zentzuz erabili behar izateari buruz, kontsumo-jarraibideak apurka-apurka aldatzen dituzten informazio-kanpainen bitartez.
- Bitarteko berriztagarrien aprobetxamendua sustatzea, berariaz horiek atzemateko moduko gaitasunak dituzten lurretan. Horrela, paisaiaren

babesari men eginez, kokapenik ahalik eta gutxienetan sortaraziko dira eraginak..

Tamaina handikoak ez diren instalazioen bidez bitarteko energetiko berriztagarriak aprobetxatzearena udal planeamenduek aztertu eta landu beharko duten gaia da. Bitarteko hauek aukera eman dezakete energia ekoizteko zentro txikien instalazioak egiteko, hain zuzen ere hondakinen tratamenduaren edo energia berriztagarrien aplikazioaren bidez; horretarako, lurzoruaren erreserbak egingo dituzte, jarduera ekonomikoetarako kalifikaturiko eremuen barruan, sorkuntza horretarako behar diren elementuek inguru naturalean edo paisaian sor dezaketen eraginaren aurretiazko balorazio zehatza egin ondoren. Instalazio horiek jarduera ekonomikorako instalazioei lotuta egongo dira, baldin eta bigarren mailako jarduera bada, jarduera nagusiari dagokionez

Alde funtzionalaren esparruaren eskala baino gorago energia ekoizteko azpiegitura batzuk daude: Oizko parke eolikoa eta Boroan (Amorebieta-Etxanoko udal mugartea) dagoen gas naturaleko ziklo konbinatuko zentrala.

### 10.4.1. Argindarra.

Argindarrari dagokionez, Tentsio Oso Altuak eta hirietako Tentsio Altuak nahiz Ertainak ingurumenean sortzen dituzten kalteak aintzat hartuta, komenigarria da Aireko Sare Elektrikoen Eraginak Murrizteko Egitamua idaztea, atzeraemangune edo lurperatze bidez ustiapen berme falta duten edota trazatu errepikakorrak izan daitezkeen linea batzuk bateratzeko, eta arazorik larrienak murrizteko,.

Jarraian ez-ohizkotasun erlatiboaren arabera alderdi hauek zehazteko atal bat sartu da.

#### 10.4.1.1. Tentsio altuko lineen eraginak murriztea.

EAEko Tentsio Oso Altuko Lineen Sarea hiru hiriburuen arteko zentzuzko loturari jarraituz garraiatzen da lurralde osoan; edo, hobeto esateko, hiriburu horien inguruko azpiestazioen arteko zentzuzko loturari jarraituz (Gatika, Güeñes eta Santurtzi Bilbon, Azpeitia eta Hernani Donostian, etab.).

Horiek guztiak elkarri lotuta daude 400 kW-ko (Penintsulako tentsiorik handiena) lineen bidez, eta horiek, berriz, 220 kW-ko beste batzuekin osatuta daude, eta, lurralde-eremu txikiagoetarako, 132 kW-ko beste batzuekin.

Tentsio Oso Altuko Lineen Eraginak Murrizteko Egitamuari dagokionez, lotura ezaren lehenengo aukera linea batzuk desmuntatzea da, horiek errepikakorrak direnean; horrela, horiek ezabatuta euren eraginak ere desagertu egiten dira.

Lurraldearen Zatiko Planari loturiko lineei erreparatuta ikusten denez, lineen errepikakortasuna oso urria da, ustiatzeko eta garraiatzeko sistemak aldatu ezean, eta alderdi horrek gainditu egiten ditu ikerketa hauen xedapenak.

Ohar orokor batzuk eginez, ingurumenaren eta, batik bat, paisaiaren ikuspegitik begiratuta, komenigarria da linea horien (hurbil nahiz urrun dauden lineak) ikusmen-eraginak murriztea.

Hala eta guztiz ere, hori muturreraino eramanez, ia ezinezkoa izango litzateke aireko edozein linea egitea. Eta Tentsio Oso Altuko Lineak ezin dira lurpetik joan; beraz, irtenbiderik gabeko egoera batera iritsiko ginateke.

Izan ere, linea horien trazatuetan ia ez ziren aintzat hartu paisaiari edo naturari loturiko alderdiak (orain dela hamarkada gutxi arte ia “ezezagunak”), eta irizpide elektroteknikoak eta desjabetze-erraztasunak nagusitu ziren.

Tentsio altuko linea elektrikoen baldintza teknikoei eta segurtasuneko bermeei buruzko Arautegiak eta horren agindu tekniko osagarriek, ITC-LAT 07, otsailaren 15eko 223/2008 Errege Dekretuaren bidez oraintsu onetsi direnak, linea elektriko baten diseinurako oinarrizko beharkizunen artean ingurumeneko baldintzekiko eta paisaiarekiko begirunea ezarri dituzte.

Ondorioz, horien finkapen maila kontuan hartuta, tentsio altuko lineak gaur egungo *igarobide elektriko* moduan jo daitezke eta bereiztu egingo dira horiek eta etorkizunean *nahi izan daitezkeenak,* eta horien trazaketetan eraginak gutxitzeko ahaleginak egingo dira.

*Korridore elektriko* horietatik soilik joan ahal izango dira etorkizuneko lineak, eta gaur egun horien barruan ez daudenetan zentzuzko kontserbazio-lanak soilik baimenduko dira.

Oraingo lineen finkapenari dagokionez, horiek kalte larririk sortzen ez duten bitartean, ahalegina egin behar da linea horiek korridore bihurtzeko; halako korridoreetan zirkuitu bikoitzak edota hirukoitzak nagusituko dira, laguntzako dorreetan.

Eragin handiak dituzten tarteetan, ordezko trazatuak bilatuko dira, eraginok murriztu ahal izateko, eta, ekonomikoki bideragarria bada, kasuan kasuko tarteetan atzeraemanguneak edo desbideratzeak egingo dira. Bestela, itxaron egin behar da linea inplementatu arte, apurka-apurka kasuan kasuko *korridorera* atxikitzeko.

Agerikoak eta ezkutukoak simulatzeko ikerketa zehatzak egin behar dira, barruko haran asko aprobetxatuz (E-M orientaziokoak, batez ere, eremu hauetan), eta ahalegina egingo da gailurretako eta banalerroetako trazatuak ahalik eta gehien murrizteko, baita biztanlerik gabeko eta ingurumen-kalitate handirik gabeko zonak erabiltzeko.

Hain zuzen ere, halako lanetarako sentikortasun handia beharko da, eta, gainera, koordinazio handia beharko da enpresa elektrikoekin, trazatuaren beharrizan teknikoak ingurumen- nahiz paisaia-irizpideekin bateratu ahal izateko.

Durangoko Lurraldearen Zatiko Plan honi dagokionez, honako ohar hauek egin behar dira:

- Eraginik handienak sortzen dituena linea 400 kW-koa da, iparraldeko banalerroen hegoaldeko maldatik doana. Horren arazo nagusia Oiz mendiko mendebaldeko malda osoan gertatzen da; bertan, atzeraemanguneak egin beharko lirateke, zeharreko (E-M) haran txikiagoak erabiltzeko; izan ere, trazatuak Garaiko kalitatezko inguruetaraino jaistea ere ez da komenigarria.
- 220 kW-ko linea, haranetik doana, hiri-ingurukotzat har daiteke gehienbat, eta alderdi hori aurrerago aztertuko dugu.

- 220 lineak, Abadiñotik Araban (Urkiolatik) sartzen denak, kalitate handiko eremuetan dauka eragina, baina Atxondo haranetik desbideratzeak baino eragin urriagoa sortzen du.
- 132 kW-ko linea ere, Ibaizabalen hegoaldeko maldatik (ezkerrekoa) doana, aztertu egin beharko litzateke, baliozko atzeraemangune partzialak egiteko, ikusmen-eraginik handienak sortzen dituen lekuetan.

Lehen esan dugunez, hiri-inguruko arazo batzuk daude eta horietan, gainera, hiritarren segurtasunari loturiko arazoak daude. Arazo horiek ebatzi egin behar dira biztanguneen kasuan linea elektrikoen eragin negatiboak eta/edo arriskutsuak saihesteko, hain zuzen ere xehekapen azterlanak eginez hirigintza- eta birgaitze-prozesuen barruan; horrenbestez, kostu gehigarria onartu beharko da herrien garapenen barruan.

### 10.4.1.2. Beste alderdi elektriko batzuk.

Modu osagarrian, ikerketak egin beharko dira (segurutik, oraingoa baino eremu handiagoetarako) oraingo eta aurreikusitako baterako sorkuntzen eraginak aztertzeko, garraioko eta banaketako Linea Elektrikoetan, ikuspegi elektroteknikoetatik begiratuta.

Hori guztia, berriz, orain arteko ikerketekin bateratu beharko da, batik bat ingurumen- nahiz hirigintza-eraginei dagokienez.

### 10.4.2. Gasa.

Gas-azpiegiturari dagokionez, proposamen nagusia hori hiri- eta industria-eremuetan apurka-apurka ezartzea da, aukera energetikotzat hobari handiak dituelako.

Ezarkuntza komenigarri horren zati baterako, bidezkoa izan daiteke hiriak birgaitzeko edota azpiegiturak berritzeko ekintzak aprobetxatzea.

Hain zuzen ere, Zornotza-Euba, Iurreta-Durango eta halako eremuetako Sistema Orokorrak indartzea proposatzen da, horien inguruan segurutik egongo diren garapenak kontuan hartuta; halaber, LZPk proposaturiko

gainerako garapenek behar dituzten inplementazioak ere aurreikusi egin beharko dira.

Proposamen horiek 5.3 Antolamendu Planoan ("Oinarrizko Azpiegiturak. Elektrizitatea-Gasa-Telekomunikazioak") jasota daude.

### 10.4.3. Telekomunikazioak.

Azpiegitura honi dagokionez, aurreko atalean behin eta berriro adierazi diren alderdi orokorrak nabarmendu behar dira.

Azpiegitura hau, azken hamarkadatan izandako bilakaera teknologiko azkarraren eraginez, zerbitzuko bereizgarritasunik gehien izan ditzakeena da.

Beraz, proposamen orokorra zuntz optikoko enbor-sareen hedapena sustatzea da, eta, horri dagokionez, Eskualde Egiturak kokaleku estrategiko oso ona dauka.

## 11. DURANGOKO ESKUALDE EGITURAKO BIZTANLERIAREN BIZI KALITATERAKO ETA HIRI KALITATERAKO LURRALDE EKIMENAK.

Durangoko Eskualde Egiturarako Lurralde Proiektu Iraunkorra zehaztearen helburua, izan ere, lurraldea antolatzeko eta egituratzeko oinarrizko elementuak ezartzea da, planifikazio sektorialeko eta udal-planifikazioko gainerako tresna guztien erreferentea izateko.

Hiriguneen suntsipenaren esperientzia traumatikoaren ondorioz (hirigune horien artean, produkzio-erabilerak baztertu zituenak), aurreko hamarkadetan hiriguneak zaintzearen aldeko ikuspegiak indar handia hartu du.

Izan ere, hiri-kulturak, lehendik dagoena “berritzearen” edo eraldatzearen inguruko iritzi modernistetan oinarrituz, “babesaren” ideia sortu zuen, ideia hori ordura arteko suntsipen-jarduketei erantzuna emateko aukeratzat, baina horren konnotazioak gehienbat defentsakoak ziren, proposamenen mailakoak baino gehiago.

Gaur egun, hala eta guztiz ere, aurrera egin behar da “babesaren kulturan”; hain zuzen ere, gainditu egin behar da defentsa hutsean oinarrituriko planteamendua, eta kontserbazioaren inguruko ikuspegi konplexuagoa eta asmo handiagokoa garatu behar da; horren barruan eraikin nahiz espazio publikoak sartuko dira, erdialdekoak eta kanpoaldekoak, zuhurtasun-printzipioaren eta hiri-hobekuntzako esku-hartze positiboaren arteko oreka berria lortzeko.

Hiriaren arazoa, beraz, ezin daiteke mugatu bertako gune historikoak zaintzera, eta horren barruan kanpoaldeak ere oso kontuan hartu behar dira. Aldi berean konpondu behar dira hiri-narriadurako adierazpen guztiak, hiriaren multzo osoan, egin beharrekoa ez baita arazoak eremu batzuetatik besteetara eramatea, “muga-efektuak” sortuz.

Epigrafe honetan garatzen eta lurraldean kokatzen diren irizpide orokortzat (lurralde-ereduaren ezarkuntzarako zehaztu diren irizpideen artekoak), udal-planeamenduak honako hauek hartu beharko ditu kontuan, hiria aldatzeko prozesuak antolatzeko:

- *Ekipamendu berriak* jartzeko esku-hartzeak garatzea, dentsitate handiko eremuetan, hutsik dauden lurzoruen eta higiezin publikoen presentzia aprobetxatuz.
- *Ingurumen-hobekuntzako eta gizarteratzeko* ekintzak konbinatzea, kanpoaldean dauden auzoetan. Horretarako, benetako talde-espazioak sortu eta ekipamendu publikoak (kultura- nahiz aisialdi-zentroak, kirol-eremuak, zahar-etxeak eta gaztelekuak, etab.) kudeatzeko sistemak ezarri behar dira, gizarte-kohesioa sustatzeko.
- Hutsik edo zaharkituriko jarduerekin (industria ezegokiak, etab.) okupaturiko guneak aprobetxatzea, baldin eta horien kokalekua jarduera eremu berriak sortzeko egokia bada; jarduera-eremu berri horiek zuzkiduren, zerbitzuen eta ekipamenduen ezarkuntza sustatu behar dute, egoitza-erabileraren gehiegizko monotoniaren (logela-auzoak) ondorio kaltegarriak konpentsatzeko. Halaber, garrantzizkoa da merkataritza-jarduerak (komunikazio-arteria nagusiei loturiko guneetan isolatzeko joera) hirian integratzea, hiriko zentroen eta kanpoaldeko auzoetako zentroen merkataritza-zentro irekiak eratuz.
- Lurraldea erabiltzeko eredu iraunkorrak erabiltzea, talde-garraioaren zerbitzurik jaso ezin duten (urruntasunaren edo dentsitate urriaren eraginez) egoitza-azalerak sortu barik. Horri dagokionez, dentsitate handiek itotzea eta asetzea eragiten duten bezala, egoitza-dentsitate txikiegiek epe laburrean eutsi ezin diren ekonomia- eta ingurumen-zamak sortzen dituzte, eta gainera, lurzoru-azalera handia behar dute, eta ondasun hori oso urria da lurraldean. Hau da, “lurzoru gutxiago kontsumitzearen” irizpidea aplikatu behar da.

LZPk badaki garaturiko hiri-zaintzako esperientziak garrantzitsuak direla, eta hiriko historiaren eta inguruaren aldeko sentikortasun handia dagoela; horrenbestez, eraikuntzak eta eraikitako ondareak finkaturiko hiri-lurzoruetan esku hartzeko hiru proposamen egiten ditu, hiriko **Berrikuntzako** estrategiak izenekoaren barruan: Suspertzea, Birmoldatzea eta Birgaitzea.

Kapitulu honen barruan, Lurraldearen Egitamu honek sustatu nahi duen hiri-kalitatean eta biztanleen bizi-kalitatean eragin handia duten hiru atal sartu dira; aipagarriak dira Hiri Berrikuntzako estrategiak (lehen aipatutakoak), Kultura Ondarearen antolamendua (biztanleen oroimenaren eta gizartearen erreferentetzat, gehienbat oraingo hirien bizitasuna mantentzeari lotuta) eta

ekipamenduen antolamendua (oinarrizko ekipamendu komunitarioak hiriaren zerbitzurako eremu asketzat, bide-eredutzat eta azpiegituratzat egokitzeko lurralde-ikuspegitik), baita eraikin publikoen edo pribatuen egokitzapena ere (gizarte-, kultura- edo hezkuntza-ekipamendurako).

## 11.1 Hiri-berrikuntzako estrategiak.

LAAn ezarritako Ongizaterako eta Berrikuntzarako Lurralde Ekimenei dagokienez, LZP honek honako esku-hartze modu hauek ezartzen ditu: **Suspertzea**, **Birmoldatzea** eta **Birgaitzea**.

Horrela, bakoitza nahitaez aplikatzea behar duten eremuak zehaten dira, horiek ez narriatzeko, behin betiko ez galtzeko edo suspertu ahal izateko; horrela, euren berezko erabilera guztiak edo batzuk eduki ahal izango dituzte, eta gainera, horretarako garatu beharreko programak eta garapen hori sustatzeko laguntza-neurriak ere gauzatu ahal izango dira.

***Suspertzea***: Jarduera Ekonomikoetarako esku-hartze modua da, oraingo industria- eta produkzio-paisaia hobetzeko sortutakoa. Suspertze-eremuen helburua kalitatea hobetzea da, jarduera ekonomikorako erabilerak dituzten lurzoruetako dentsitateei, ekipamenduei, azpiegiturei eta abarri dagokienez, horiek beharrezko kalitate-parametroetan parekatzeko eta euren erabilera mantentzeko; horrela, bertan garatzen diren jardueren beharrizan berrietara egokitu ahal izango dira.

***Birmoldatzeak*** eta ***Birgaitzeak***, beste alde batetik, eragina dute, batez ere, urbanizaturiko eta eraikitako ondarearen optimizazioan, oraingo higiezinak suspertu ahal izateko; horrela, euren baldintzak eta hobariak parekatu egingo dira eraikuntza berrikoek dituztenekin. Lehendik dagoena kontserbatuta garatu ahal da, funtzioak, egitura edo bizigarritasuna egokituz. Birgaitzeari dagokionez, esku hartzeko modu hori ez dago etxebizitzara soilik bideratuta, hori alderdi garrantzitsua izan arren; esku-hartze horren eremuak, izan ere, eraikitako espazioak, ekipamenduak eta hirigintza barruan hartzen dituzten multzoak dira.

Era berean, hiriko kanpoaldean daudenak ere birmoldatu eta birgaitu beharreko eremuak izango dira, batez ere eremurik narriatuenak; horri dagokionez, hiria birkalifikatzeko eta oinarrizko ekipamendu komunitarioak egokitzeko (hiriaren zerbitzurako eremu asketzat, bide-eremutzat eta azpiegituratzat) obrak ere birmoldatzeak eta birgaitzeak izango dira, baita gizarte-, kultura- edo hezkuntza-ekipamendurako eraikin publikoen edo pribatuen egokitzapena ere, kapitulu honen sarreran esan denez.

7.1 zenbakiko antolamendu-planoan (“Suspertzeko Estrategiak”) ageri diren eremu batzuetan esku-hartzea egin behar da, eta eremu horiek, berriz, bakoitzak behar dituen esku-hartze estrategien arabera bereizita daude.

Esku hartzeko modu horiek ez ezik, eta birgaitzeko modu bereziari lotuta, kapitulu honetan Higiezinen Kultura Ondarearen antolamendua ere jasotzen da.

### 11.1.1 Suspertze-espazioak.

Esku hartzeko modu hau oraingo industria paisaia egokitzeko eta horren irudia hobetzeko sortu da, EAEko industrializazio masiboaren garaian sorturiko hiri-eremuetan, horiek birgaitu egin behar baitira proposatzen den lurralde-ereduan integratu ahal izateko.

LZPk grafikoki jasotzen duen esku hartzeko modu honen eraginpeko lurzoruen eremuan, egokitu egin behar da oraingo irudia, honako helburu hauek lortzeko:

- Finkaturiko lurzoruak hobetzea eta zaharkituriko industria-eremuak suspertzea.
- Zatikatzaileak ez diren barruko egitura-ardatzak sortzea, barruko komunikazioetan hiri-sare autonomoa sortzeko.
- Okupatu gabeko lurzoruak garatzea, industria-kalifikazioa dutenak, horiek gauza baitira tipologia berriak integratzeko; tipologia horietan, lehentasunezko ezaugarriak honako hauek izango dira: kalitatezko ingurumena, eraikitako espazioen erakargarritasuna eta faktore kualititatiboen nagusitasuna, kuantitatiboei dagokienez.
- Ingurumen-neurri zuzentzaileak ezartzea, beharrezkoa izanez gero.

Halaber, esku hartzeko modu hori LZPn berariaz aurreikusita ez duten udalerriek ekintzak hasi ahal dituzte, suspertu beharrekotzat hartzen dituzten beste espazio batzuetan, eta bertan, helburu berberak ezarri ahal izango dituzte. Horretarako, Jarduera Ekonomikoen LAPk "lehentasunezko interesekotzat" hartzen dituzten udalerri guztietan esku-hartze modu hori aplikatzea gomendatzen du LZPk.

Mendebaldetik ekialdera, esku hartzeko adierazi diren eremuak honako hauek dira:

**Amorebieta**

- Tantorta auzotik hurbileko industria-lurzoruak, dokumentazio grafikoan adierazitakoak.
- Montorra auzoan dauden industria-lurzoruak, dokumentazio grafikoan adierazitakoak.

**Iurreta**

- Mallabienan dauden industria-lurzoruak, dokumentazio grafikoan adierazitakoak.
- Arriandin dauden industria-lurzoruak, dokumentazio grafikoan adierazitakoak.
- Santa Apolonia auzotik hurbil dauden industria-lurzoruak, dokumentazio grafikoan adierazitakoak.

### 11.1.2 Birmoldatze-espazioak.

**Birmoldatze-espazioak**: erabilera duten zona hauek tokiko hirigintza-jarduketak behar dituzte, euren oraingo egoera hobetzeko; lehentasunezko espazioak izango dira hiriguneetan dauden zeharbideak, Egitamuaren indarraldean hirigunearekiko elkarreraginik gabeko aukerako ibilbideekin ordeztuko direnak direnak eta trenbideen tarteak lurperatu osteko hiriguneen barruan aske geratuko diren eremuekin.

LZP honetatik udalerriaren eta azpiegitura ukituaren erantzukizuna duen administrazioaren arteko koordinazioa planteatu da. Azalerari dagokionez aske gera daitezkeen esparruen azaleren dimentsioa gorabehera, birmoldatuko diren espazioak hiriguneari lotuta egongo dira eta, hori ez ezik, baita hiri errealitateak eskatuko duen apurka apurkako transformazioaren arabera hiri aldeak eskatuko duenari ere. Birmoldaketaren xedea motoredun ibilgailuen trafikoaren mugaketa izango litzateke edo baita trafiko hori ezabatzea ere hirigunearen erdietan. Horrelakoetan lehentasuna

izango dute, ahal den neurrian, oinezkoek, bizikletek eta, bereziki, herri garraioak eta lurzoruari tratamendu partikularizatua emango zaio diseinuari, materialei eta inkorporatu diren arbolei dagokienez.

Adierazitako eremuak honako hauek izango lirateke:

**Izurtza**

- Gaur egungo BI-623 errepidea, hirigunea zeharkatzen duen tokian eta gaur egun bertatik igarotzen den trafikorik ez dagoenean, lehengoratu egingo da eta aukera emango du gaur egungo errepidearen bi ertzen arteko jarraipenari ekiteko. Susperturiko espazioa gune txikiaren hiri-bizitzaren ardatza izango da, eta, horrela, erdialdeko kokalekuari dagokion izaera hartuko du.

**Abadiño**

- Ezarri den azpiegitura berriak, Apatamonasterioren eta Lebarioren arteko lotura zuzena ahalbidetzen duenak, igarotze-trafikoetatik askatuko du BI-632 errepidea Durango eta Elorrio artean kokatuta dauden jarduera esparruen artean eta gauza bera BI-3323 errepideari dagokionez ere, kasu honetan Matiena eta Zelaieta artean.. Gainera, Abadiñoko eta Durangoko egiturak hedatu egingo dira, hiri-jarraipena sortzeko joerarekin; horrenbestez, beharrezkoa da errepide hauek berritzea, hiri-ardatz nagusia izan daitezen.
- Helburua, N-636 errepidearen kasuan eta mugikortasun eragingarria lortzearen ondoreetarako, sortzen joango den bilbadurek ere, hiri garapen berriak sortzen joango diren neurrian, euren ertzetatik ibilbide perimetralak eskaintzea da, hau da, barruko lekualdaketen kasuan berariaz erdiko ardatzetik egiten diren lekualdaketekiko nahitaezko menpekotasuna saihestuz eta, aldi berean, Durangoko hegoaldeko saihesbidearekiko konexio erosoagoak sustatzea. BI-3323 errepidearen kasuan helburua lekualdatzeko modalitate guztien arteko konexioen hobekuntza da, hau da, udalerriko hirigune nagusienen kasuan (Matiena eta Zelaieta).
- Bide hauen tratamendua, trafikotik askatu ondoren, zeharkatzen den esparruari egokituko zaio; hiri guneak eta hiri aldeko esparruak edo ia landakoak diren esparruak, eta horiek guztiak urbanizazio bigun moduan ebatziko dira, gunean egituratzeko ardatz moduan erabiliz aipatu diren azken kasu horietan.
- Guneen eta jarduera ekonomikoen esparruen arteko egituratze hori lortzearekin batera herri garraio zerbitzua egituratu behar da. Ondore

horretarako berariaz hiri garraiokoa izango den plataforma bat aurreikusi da Durango eta Elorrio artean, arestian aipatu diren bide horiek erabiliko dituena.

**Iurreta**

- Iurretako udalerria zeharkatzen duen gunean N-634 errepidearen tratamenduak, hots, bere barruko zeharkako erlazioak ere bideratuko dituenak, bidea emango du hiri gunetik trafiko kopuru oso handia kentzeko eta, horren barruan, gaur egun errepide hori erabiltzen duten ibilgailu astunak azpimarratu behar dira.
- Berebiziko aukera dago zeharbidea birmoldatzeko hiriko erabilera eta zirkulazio berrietara egokitzeko, Iurreta orain banatzen duten bi guneen integrazioa erraztuz, zeharreko erlazioak nabarmenduta, horiek orain ukatuta baitaude errepidearen eraginez; horretarako, bide-espazio berriak diseinatu eta sortuko dira, baita horiei loturiko eremu aske publikoak ere.

**Amorebieta**

- Hirigunea zeharkatzen duten trenbideak lupertzeak aukera emango du hiriaren erdigunean espazio berria suspertzeko; hori birmoldatu ondoren, eta lurperaturiko trenbide-sarean sartzeko trukagailu berria egin ondoren, espazio hori hiri-erreferentziako espazioa izango da udalerrian.
- Lurzoru horien antolamendu xehatua, trenbidearen eraginetik askatu ondoren, Egitamu Bereziaren bitartez egin beharko da.

**Durango**

- Hiriaren erdigunea zeharkatzen duten trenbideak luperatuta, espazio bikaina berreskuratuko da udalerrirako, eta proiektu hori udalerriaren planeamenduko Arau Subsidiarioen bigarren berrikuspenean aurreikusita dago.
- Antolamendu xehatua Durangoko Trenbidearen 1. PERI deritzonaren bidez garatu da; hori 2006ko ekainaren 21ean onetsi zen behin betiko, eta bertako araudia, berriz, 2006ko azaroaren 24an argitaratu zen. Proiektu horren barruan, hirugarren sektoreko merkataritza-eremu garrantzitsu batekin osatzen den geltoki berria sartuko da.

**Berriz**

- N-634 errepideak irisgarritasun egokia eskaintzen du eskualdeko industri ezarpenei dagokienez eta esan daiteke horien agerpena errepide hori egoerari esker gertatu dela. Hiri esparruari dagokionez, dena dela, lehen mailako hirigintzako eragozpena edo langa eratu da eta horrek eragin oso argia du bere alderi baxuenaren egituraren eraketari dagokionez (Olakueta).
- N-634 errepidearen paraleloan doan trenbideak bikoiztu egiten du sortarazten den hirigintzako eragozpen hori.
- N-634 errepidea eta trenbidea igarotzeko irtenbide berriak, hain zuzen ere 9. kapituluan aurreratu denaren ildotik, hiri dinamika lehengoratzea ekarriko luke, hirigintzako eragozpenik gabekoa, Olakueta aldean. Halaber, aukera emango luke Euskotrenen geltokia erdirago eta toki eragingarriagoan kokatzeko hiri multzoari dagokionez.

### 11.1.3 Birgaitze-espazioak.

Birgaitzea, esku hartzeko modutzat, honako alderdi hauetan oinarritzen da: eraikitako eta urbanizaturiko ondarea kontserbatzea, babestea eta hobetzea. Aldi berean, espazio eta zuzkidura berriak sortuko dira, birgaitze-ekintza integratzailearen barruko elementutzat (elementu dinamizatzaileak, osagarriak eta ezinbestekoak).

Atal honetan, esku hartzeko bi modu bereizten dira: Birgaitze Integratua, eraikitako eta urbanizaturiko ondarea birgaitzeko babes-jarduketei buruzko 317/2002 Dekretuak araututakoa, eta zuzkidura-estrategiarekin zuzeneko lotura duen birgaitzea.

### Birgaitze Integratua

Kapitulu honen sarreran esan dugunez, esku hartzeko modu honen helburu bakarra ez da etxebizitza, hori alderdi oso garrantzitsua izan arren; esku hartzeko modu horren jasotzaileak izango diren eremuak, hain zuzen ere, eraikuntza eta hirigintza osoa (ekipamenduak ere barne) barruan hartzen duten multzoak dira.

Bestalde, LAAn esaten denaren arabera, hirigune historikoak suspertzeko, hain zuzen ere, Eskualde Egituran Durangoko hirigune historikoa eta Elorrioko hirigune historikoa suspertzeko (biak Birgaitze Integratuko Eremutzat hartuta,

urbanizaturiko eta eraikitako ondarea birgaitzeko babes-jarduketei buruzko abenduaren 30eko 317/2002 Dekretuan ezarritakoaren arabera), egoitza- eta gizarte-aprobetxamendua ahalbidetzen duten birgaitze-irizpideak erabili behar dira, hiri-egitura berezi hori bizikidetza-eremua izateko. Gainera, Birdoitze Plan Berezia duten hirigune historikoak direnez, Durangoko Hirigune Historiko eta Elorrioko Hirigune Historiko BPB, 643/2006 eta 1339/2006 Foru Aginduen bidez behin betiko onespena izandakoak, hirigune historikoen jarduketa exogenoak eragiten dituzten ekimenak ere abiatu behar dira, horiek ere beharrezkoak baitira inguru osoa birgaitzeko; gainera, kasuan kasuko egitamu berezietan ezarritako jarduketa endogenoak osatzen dituzte.

Era berean, Berrizeko Errotatxo auzoa suspertu beharra ere adierazi behar da; izan ere, auzo hori Eremu Narriatu izendatu da, abenduaren 30eko 317/2002 Dekretuan oinarrituz. Balio nabarmenekoa izan ez arren, bertako arkitektura- eta hirigintza-ezaugarriak aintzat hartuta, komenigarria da hori suspertzea, narriadura-egoeran baitago.

### Zuzkidura-estrategiarekin zuzeneko lotura duen birgaitzea

LZPk bere gain hartzen ditu garaturiko hiri-zaintzako esperientziak, eta gainera, onartu egiten du hiriko inguruarekiko eta historiarekiko sentikortasun handia dagoela sustraiturik. Lurralde-eredu berriaren proposamenaren eremu zehatzaren barruan proposatzen diren jarraibideak, udalerriak hiri-planeamenduaren arloan duen autonomiari dagokionez, lagungarriak dira iraunkortasuneko helburu orokorrak lortzeko.

Zuzkidura Estrategiarekin eta kalitatea nahiz zerbitzuak (hiriguneek biztanleei eskainitakoak) hobetzeko estrategiarekin loturiko birgaitze-elementutzat, honako hauek aipa daitezke (antolamendu-planoan jasotzen diren lehenengoak, gainerakoak gomendiotzat gelditzen baitira, udal-planeamenduek aintzat hartzeko):

- Enpresetarako zerbitzuetara bideraturiko hirugarren sektoreko erabilerak Eskualde Egiturako hiriguneetan kokatzea.
- Hiriguneko merkataritza-erabilerak mantentzea, sustatzea eta birgaitzea, hiriko bizitza garatzeko elementutzat eta hiri-bizitasuna mantentzen duten elementutzat.

- Ostatu- eta ekipamendu-erabilerak sartzea, hiriguneak eta hirigune historikoak suspertzeko, eta bertan eraikitako ondarea zentzuz eta errespetuz ustiatu ahal izateko.

Udal-planeamenduek onartu beharreko gomendiotzat, ondoren adierazitakoak zehazten dira; horietan, hiriguneak mantentzeari eta bertan ondarea zein kultura-balioak errespetatzen dituzten erabilerak sustatzeari buruzko ideia nagusiak biltzen dira. Honako hauek dira:

- Hirigunea suspertzea eraikinetatik eremu publiko berezien hobekuntzara hedatu behar da. Udal-planeamenduak eraikitako espazioen eta hutsik dauden espazioen arteko ulertze osoan integratu beharko ditu bi alderdi horiek. Hortaz, hiri-espazioa berrantolatzearen eta edertzeko ideiaren arteko adiskidetzea egon behar da.

  Ikuspegi horretatik begiratuta, erdiguneko eremu publikoen hirigintza berriaren irismena ez da zertan mugatu plazen edo kaleen apaindura epidermikora, baldin eta erdigunearen hiri-ulermenari lotuta badago, hau da, gainerako ildoekiko modu integratuan pentsatzen bada (azpiegiturak hobetzea, suspertzea nahiz birgaitzea eta gizarte-kohesioa sustatzea).
- Hobekuntza-jarduketak hirigune historikoetatik finkaturiko hiri osora hedatu behar dira; horien barruan, kanpoaldea berriro urbanizatzea, hiria birgaitzea nahiz birmoldatzea, horren morfologia birmoldatzea edo hutsune interstizial ugariak amaitzea (lurraldeko ezarkuntza-ereduan nagusitzen direnak) sartzen dira.
- Egoitzaren iraupena defendatu behar da, ingurumen-kalitaterik handieneko kale batzuetan, beste erabilera batzuekin bizikidetzan (adibidez, merkataritza eta enpresetarako zerbitzuak). Helburu hori lortzeko, nahikoa izan daiteke eraikuntza-araudien erabileretan arauketa batzuk egitea (egoitzaren iraupena defendatzen duten arauketak), eta hori, berriz, neurri positiboekin osatuko da, adibidez, suspertu beharra duten auzoetan jarduera-eremu berrien aukerako sustapenarekin.
- Beharrezkoa da “pobrezia-poltsen” birgaitze publikoari heltzea (eremu narriatuetan sortzen diren poltsak); horri dagokionez, arreta berezia jarriko zaio gazteentzako alokairuko etxebizitzak sustatzeari, etxebizitza horiek sustatu egingo baitute udalerrietan adineko pertsonarik gehien dituzten eremuetako demografia. Erdiguneko

eremuen narriadura ez da gainbehera fisikoaren eraginezkoa soilik; izan ere, bertako gizartea eta ekonomia suspertzeko eta sustatzeko neurriak ere ezinbestekoak dira. Garrantzitsua da udal-egitamuek gaiari buruzko neurri positiboak jasotzea, administrazioen arteko lankidetza-printzipioan oinarrituz. Beraz, garrantzizkoa da gune tradizionalak suspertzeari eta birgaitzeari lehentasuna ematea, bertan biztanleria eta jarduerak galtzea ekiditen duten ideia praktikoak eskainiz; esate baterako, orubeak eta eraikinak erostea, horietan alokairuko babeseko etxebizitzak eraikitzeko, gazteentzat, eta oraingo etxebizitza-parkea hobetzeko.

- Mugatu egin behar da ibilgailu pribatuaren sarbidea (hirigunera), udalerri bakoitzaren egoerara egokituriko moteltze-neurrien bidez; behar izanez gero, oinezkoen uharteak (mugatuak) edo egoiliarren nahiz zerbitzuen ibilgailuak soilik sartzeko eremuak sortuko dira. Oro har, indartu eta hobetu egingo da talde-garraioaren zerbitzua, batez ere kanpoaldeko egoitza-auzoetatik.
- Ondarea babesteko arauzko neurriak errealismoan eta zentzunean oinarrituz hartu behar dira. Babesturiko Eraikinen Katalogoak, bestalde, higiezinak mantentzeko eta hobetzeko benetako aukeretara egokituko dira. Araudi luzeegiak eta lausoegiak egonez gero, hiria birgaitzearen kulturak ospe txarra hartzen du, edo higiezinak nekezago egokitzen dira egoiliarren beharrizanetara, turismo-erabileraren mesedetan.
- Oso interesgarria da erabilera ezegokiak dituzten edo zaharkituta nahiz hutsik dauden higiezin eta instalazio publikoak zuzkidura publikoko erabileretarako suspertzea, kultura- edo hezkuntza-ekipamenduak edukitzeko gaitasun handia baitute.

Hiriaren arazoa, nolanahi ere, ez da hirigune historikoak zaintzera mugatzen, kanpoaldeetan ere eragin handia baitauka. Horrenbestez, hiri osoko hiri-narriadurako adiezpenak konpondu behar dira, arazoak eremu batzuetatik besteetara aldatzen ez ibiltzeko, “muga-efektuak” sortuz.

## 11.2 Ekipamenduak lurralde-ikuspegian.

Diagnostiko-fasetik ateratako ondorioetan oinarrituz, eta ondorio horiek inplikaturiko erakundeekin aztertu ondoren, Durangoko Eskualde Egiturako

Lurraldearen Zati-Egitamua aztertuko da (DEE-LZP), ekipamenduei dagokienez. Kapitulu honetan, estrategiak eta jarduketa-ildoak zehaztu nahi dira, ekipamendu-sistemaren lurralde-egituraren arloan, baita berori osatzen duten azpisistema bakoitzaren arloan ere (hezkuntza, osasuna, gizarte-ongizatea, kirola eta kultura); hori guztia, berriz, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamenduko Jarraibideekin (aurrerantzean, EAE-LAA) eta DEErako proposaturiko Lurralde Ereduarekin koherentzian egingo da.

Zuzkidura-eskaintza biztanleriaren beharrizan aldakorretara (gizarte-jokabideko jarraibidearen eta dinamika demografikoaren eraginezkoak) egokitzeko helburuak erronka gehigarria dauka DEEn; hain zuzen ere, biztanleriaren egitura argi eta garbi disoziatuta dago, eta, bertan, kontrajarri egiten dira, alde batetik, Ibaizabalen haraneko hiriko nahiz industriako igarobideko egitura guztiz pilatua, eta bestetik, berori iparraldetik eta hegoaldetik inguratzen duten landazabal atlantikoen zein mendien multzoak (barreiadura maila handia). Horri dagokionez, LZPk berebiziko aukera eskaintzen du, sistema hau udalerriz gaindiko esparruan antolatzeko aukerei buruzko gogoetak egiteko, EAE-LAAn planteaturiko Lurralde Ereduan oinarrituz (zuzkidura-sistemaren aukeren bidez sustatu nahi den eredua, lurraldea egituratzeko elementutzat).

Agiri honen edukiaren zatirik handiena, batez ere, proposamen mailakoa da; hain zuzen ere, irizpide, erreferentzia eta jarduketa-jarraibide orokorrak finkatzen dira, eta horiek informazioa eman behar dute administrazio maila desberdinetan (Eusko Jaurlaritza, Foru Aldundia, Udalak) inplikaturiko sail sektorialei buruz (osasuna, hezkuntza, gizarte-ekintza, kultura, kirolak). Beraz, erreferentzia eta koordinaziorako marko bat irekitzeko ustea du. Horregatik edozein ekipamendu motarako beharrezkoak izan daitezkeen aukera alternatiboak onartzeko irekita aurkeztu da .

### 11.2.1 Arazoen eta aukeren diagnostikoa.

EAE-LAAn ekipamenduen tratamendua zuzkidura mailakoa da (biztanleei zerbitzua ematea), baita lurralde mailakoa ere (lurraldea egituratzeko elementua, zehazturiko eskualde-egituren eremuan). Beraz, aukeren eta arazoen diagnostikoa bi ikuspegi horietatik egin behar da.

Hurbiltze sektorialetik hasita, EAE-LAAn esaten denez, “ekipamendu-sistemaren eraketak aurre egin behar dio azpiegitura maila nahiko malgua eta dinamikoa sortzeari, horrek gizartean gertatzen diren etengabeko aldaketei erantzun egokia eman ahal izateko”. Gaur egun, zuzkiduren ikuspegitik begiratuta, DEEko lurraldearen oinarrizko beharrizanak nahiko ondo beteta daude, biztanleei zerbitzuak emateko sistema desberdinen bitartez (osasuna, hezkuntza, gizarte-ongizatea, kirola eta kultura). Zonan lortzen diren estandarrak, azpisektorerik gehienetan, mendebaldeko Europakoekin homologatzeko modukoak dira.

Hala eta guztiz ere, egitura demografikoaren ezaugarriek zalantza batzuk sorrarazten dituzte, oraingo sistemaren etorkizunari buruz, eta horiek, berriz, erronkatzat hartu behar dira, sistema horren funtzionamendua egokia izateko. Gertaerarik kezkagarrienak, dinamika demografikoaren azterketan jasotakoaren arabera, honako hauek dira:

1. Biztanlegoaren dinamika demografikoaren zeinua apur bat positiboa da, egonkortasun demografiakoa adierazten duen berezko egoera, alegia, eta aldaketa oso azalekoak dira hala termino absolutuetan nola erlatiboetan. Udalerri nagusiekin batera, Durango eta Amorebieta-Etxano, biztanleei dagokienez hazkuntza nabarmenak adierazten dituzte Abadiño, Berriz eta Garai udalerriek.
2. Kontraste handiko biztanleria-egitura. Durangoko Eskualde Egituran tamaina demografiko oso desberdineko udalerriak daude. Horietariko hiru ez dira 500 biztanleetara heltzen, beste lau ez dira 5.000 biztanleetara heltzen, eta bik baino ez dute hiri-izaera (hamar mila biztanletik gora). Biztaleriak azken horiexetan soilik egin du gora, 1986koari dagokionez.
3. Landa-izaerako udalerrien ezarkuntza-sarearen ahultasun demografikoa, eta lurraldearen zatirik handienaren biztanleria-dentsitate baxua.
4. Ezarkuntza-sistemaren antolamendu berezia, bertan populatze sakabanatuak garrantzi handia baitauka lurraldean (Durango, Iurreta, Amorebieta-Etxano, Elorrio, Berriz, Zaldibar eta Abadiño) eta Apatamonasterio (Atxondo) eta Mañaria udalerri txikiak pilatutzat har daitezke. Udalerri txiki horien azpitik landa-ezarkuntzak (auzoak) daude, DEE osoan banaturiko talde oso ugaria: batik bat, Ibaizabalen iparraldeko landazabaletan eta Zaldu-Zumelegi ibaien artean; Ibaizabalen hegoaldean, landazabalek iparraldean baino garapen urriagoa dute, Amorebieta-Etxanoko eta Durangoko auzo gutxi batzuekin; hala ere,

Iturriotzeko eta Mañariako haranetan ugariak dira, baita Sagastakoan eta Atxondokoan ere.

Horren guztiaren ondoriozko egoeran, arazo nagusia gutxieneko eskarietara heltzea da, zerbitzuak gehiegizko kosturik gabe eta irisgarritasun onargarriarekin emango direla bermatzeko, landa-ezarkuntzen egitura horretan bizi diren biztanleentzat. Horri dagokionez, Eskualdearen lurralde-artikulazioa sustatu behar da, udalerri guztiek Ibaizabalen igarobideko zerbitzuguneekin duten lotura bultzatuz.

Bestalde, ekipamendu-sistema egokitu egin behar da gizarte-jokabidearen jarraibideetara, batik bat horren egiturak adinen arabera duen bilakaerara, eta arlo horretan ere gai garrantzitsuak aztertu behar dira. Besteak beste, honako hauek:

1. Ugalkotasunaren beherakada eta biztanleriaren apurka-apurkako zahartzea. Ugalkortasunak 1976tik izandako beherakadaren eraginez, murriztu egin dira 0-20 urte bitarteko biztanleak. Aldiz, adin nagusien taldeek gora egin dute, bai balio erlatiboetan eta bai biztanle kopuruan; beraz, pentsa daiteke gizarte- eta osasun-ekipamenduen beharrizan gero eta handiagoa egongo dela.
2. Jaiotza-tasaren bilakaera negatiboa larriagotu egingo da, hurrengo urteotan (migrazio-jario handirik egon ezean), ugalkortasun-adinetan belaunaldi gero eta urriagoak egongo baitira. Horren ondorioetariko bat eskola adineko biztanle kopuruaren murriztapena izango da.

Baldintza demografiko horietan oinarrituz, DEErako etorkizuneko planteamenduek aintzat hartu behar dute zuzkidura-sistemaren hobekuntza kualitatiboa, gizarte-eskari berriei aurre egiteko, eta horiek, oinarrian, honako honetan gauzatuko dira:

- Errealitate demografiko berriari (biztanleria zahartzea) egokituriko gizarte-ongizate sistema finkatzea eta garatzea, eta horrek erantzuna eman beharko dio gizartearen eskari maila gero eta handiagoari (arazo eta talde berezien arreta). Halaber, zahartze horren eraginezko osasun-beharrizanak aurreikusi behar dira.
- Aisialdiko eta astialdiko ekipamenduen (kirola eta kultura) garrantzi gero eta handiagoa. Horri dagokionez, Durangon eskaintza berezia sustatu behar da, DEEren kanpoaldearekin lotzeko eta barrualdea integratzeko

elementutzat. Era berean, aurrerapausoak eman behar dira zerbitzu horien funtzionamendu mankomunatuan, udalerri txikietarako kalitatezko eskaintza ahalbidetzeko.

- Hezkuntza-sistema gero eta urriagoa den eskola-biztanleriaren errealitate berrira egokitzeko (gai oso larria, guztiz zatikatua den hezkuntza-ereduan. Hezkuntza publikoa/pribatua eta hizkuntza-eredu desberdinak, barreiadura demografiko handiko zonan), baliabideak berrantolatu egin behar dira lurraldean, gutxieneko eskarira iritsi ahal izateko.

Lurraldearen ikuspegitik, EAE-LAAk nabarmendu egiten dute hirien sistemak zerbitzuen, zuzkiduren eta ekipamenduen talde-erabileran duen protagonismoa, batez ere toki-eremuan (udalerri txikiak eta ertainak) bete ezin diren beharrizanei dagokienez. Udalerriz gaindiko zerbitzuak sustatzeko proposamenen formulazioak, berriz, LAAk zehazturiko Lurraldeko Eskualde Egituretan dauka jarduketa-eremu egokia.

Horri dagokionez, bitarteko eskala duten hirien sareak garrantzi handiko eginkizuna dauka zerbitzuen eskaintza orekatuan, demografia urriko eremuetarako; eskaintza eskualdean zentralizatu eta eskualde-lerruneko eskaintzan parte-hartze partziala dauka. DEEren kasuan, eginkizun hori Durangori eman zaio, hala ere, eginkizuna ez dago erreferentziako udalerri horren esku bakarrik, gune horren inguruan osaturiko hiri-eremu osora hedatzen baita (Durango-Iurreta-Abadiño-Izurtza). Bestalde, Ibaizabalen hiri- eta industria-igarobidearen eraketa lineala aintzat hartuta, komenigarria da lurralde-egitura horren muturretan beste bi nodo sustatzea, Amorebieta-Etxano eta Elorrio; horietan, nolabait ere, autonomia funtzionala lortu behar da, euren udalerriz gaindiko garrantzia sustatzeko.

Hori guztia kontuan hartuta, eta zuzkidura-eskaintza ondo egitearen ondoriozko beharrizanak ahaztu barik, ezinbestekoa da jarduketako azpieremuak zehaztea, zerbitzu batzuetarako gutxieneko eskariak ezarri ahal izateko. Ekipamendu batzuen (gizarte-ongizatea, kirola eta kultura) funtzionamendu mankomunatua jarduketaren funtsezko ardatza izan behar da, honako bi arrazoi hauen ondorioz: eginkizunaren aldetik, zerbitzuak ematearen antolamendua eta eraginkortasuna hobetzeko; lurraldeari dagokionez, Eskualde Egituran integratzeko elementutzat.

### 11.2.2 Irizpide, erreferentzia eta jarraibide orokorrak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduari buruzko 4/1990 Legeko 16. artikuluan ezarritakoaren arabera, lurraldean eragina duten nazioko edo eskualdeko ekipamenduen antolamendua, Eusko Jaurlaritzako eta Lurralde Historikoetako sailek egiten dutena, Lurraldearen Egitamu Sektorial izango da. Bestalde, EAE-LAAk ezartzen dutenez, ekipamenduei buruzko xedapenen helburua, izan ere, politika sektoriala proposaturiko lurralde-ereduaren arabera orientatzea da, aintzat hartuta eragin handia duela lurraldearen funtzionaltasunean eta ereduaren eraketan. Hala eta guztiz ere, politika sektorial hori desbideratu egin daiteke EAE-LAAk planteaturiko erreferentzietatik; dena den, kasu honetan, "sortzen diren desegokitzapenak berariaz adierazi eta arrazoien bidez justifikatu beharko dute aplikazioa bidezkoa ez izatearen zergatia".

EAE-LAAk, era berean, ekipamenduen antolamendurako idazten diren Lurraldearen Egitamu Sektorialek jaso beharreko alderdiak adierazten dira:

1. **Ekipamendu mota bakoitzerako egokiena den eskala identifikatzea**. Horretarako, ekipamenduaren izaera, hori kokatzeko aukeratu den lekuaren garrantzia eta horren eragin-aldea (lurraldea eta demografia) lotu behar dira.
   LAAk, erreferentziatzat, hiru eskala eragile erabiltzen dituzte lurralde-antolamendurako: naziokoa, Lurralde Historikokoa eta Eskualde Egiturakoa (edo eskualdekoa). Ekipamendu nazionalak Hiriburuen Gune Anitzeko Euskal Sistemari esleituko zaizkio.
2. **Helburua tamaina ertaineko hirien sarearen sustapena izatea**, EAEko hirigune nagusietatik urruneneko zonetan bizi diren biztanleei zerbitzuak, ekipamenduak eta zuzkidurak eskaintzeko. Horretarako, "eskualdeko zuzkidura-sistemen integrazioa sustatu behar da, Lurraldeko Eskualde Egituretako erreferentziako eta azpierreferentziako udalerrietan".

Lurraldearen Egitamu Sektorialak oraindik idatzita ez daudenez, osasun- nahiz hezkuntza-planifikazioak (Eusko Jaurlaritzako sailek egindakoa) eta Gizarte Ongizateko planfikazioak (Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Aldundiko sailek egindakoa) lerrun horixe hartzen dute. Abiapuntu horretatik, Lurraldearen Zati-Egitamua honako honetara orientaturiko ikuspegi estrategikoan oinarrituz sortu da:

- Sail sektorialen planifikazio-jarduera koordinatzea, lurralde-proiektu koherente batean.
- Planifikazio-jarduera hori orientatzea, erreferentzia-esparru komuna eskainiz; esparru hori egokitu egingo da lurralde-egituraren errealitatera eta DEErako planteaturiko Lurralde Eredura. Horri dagokionez, azpieremuen zehaztapena eta mugaketa da garrantzirik handieneko ekarpena.
- Halakorik egonez gero, planifikazio sektorialetan (osasuna, hezkuntza eta gizarte-ongizatea) zehazturiko ekipamenduen kokaleku-proposamena.

DEE-LZPn jasotako ekipamendu-sistemari buruzko proposamenak lotesleak edo orientagarriak izateari dagokionez, EAE-LAAn ezarritakoa garatu behar dutenez, “Administrazio sektorialetarako orientaziotzat eta erreferentziako puntutzat hartu behar dira, bai zuzeneko jarduketaren eta bai Lurraldearen Egitamu Sektorialak idaztearen bidezko jarduketaren kasuan”. Kolaleku-proposamenei dagokienez, udal-planeamendurako orientazioak eta erreferentziako puntuak izango dira.

### 11.2.3 Ekipamendu-sistemaren lurralde-egituraren estrategiak.

EAE-LAAn ezarritako lurralde-ereduak, Lurraldeko Eskualde Egituren zehaztapenean, aditzera ematen du eskualdeko eta azpieskualdeko erreferentziako guneak daudela, hau da, Eskualde Egitura osoko eragin-eremua duten leku nagusiak. DEEren kasuan, LAAk ezartzen dutenez, eskualdeko erreferentziako udalerria Durango da eta horren eragin-aldea Eskualde Osoan hedatzen da.

LAAn adierazitako planteamendu orokorren arabera, gune horiek funtsezko eginkizuna izan behar dute lurraldearen antolamenduan eta artikulazioan, eta zuzkidurak eta, batik bat, oinarrizko ekipamenduak banatzeko erreferentziako guneak izan behar dira. Leku nagusien eredu hau berebizikoa da landa-eremuetarako (DEEko zatirik handiena), eta, berori integratzen duen lurralde-egituran, Ibaizabalen hiri- eta industria-igarobidea, oro har, zentralitate-ardatz gisa interpretatu behar da. Zentralitate-ardatz hori aintzat hartuta, artikulazioko nodoak zehaztu behar dira :

a) Durangok, Iurretak, Abadiñok eta Izurtzak osaturiko hiri-eremua. Horren demografia- eta lurralde-garrantzia kontuan hartuta, aglomerazio hori lekurik egokiena da eskualdeko erreferentziako gunearen eginkizuna koherentziaz betetzeko.
b) Amorebieta-Etxano eta Elorrio, igarobidearen muturretan; horien demografia (Amorebieta-Etxanoren kasuan) eta lurralde-garrantzia (Elorrioren kasuan) kontuan hartuta, eskualdeko azpierreferentziako gunetzat hartu behar dira.

Bestalde, aintzat hartu behar da Bilboko aglomerazio metropolitarra, elementu horrek guztiz polarizatzen baititu jarioak, ez bakarrik lan-jarioak, baita oinarrizko beharrizanak betetzeari lotutakoak ere (merkataritza eta ekipamendu bereziak).

Horrenbestez, eta aintzat hartuta LAAk zehazturiko Lurralde Eredua Eskualde Egitura bakoitzeko lurraldearen egiturara nahiz errealitatera egokitu eta osatu egin behar dela, Eskualdeko erreferentziako leku bakarra (Durango eta horren hiri-eremua) eta azpierreferentziako bi leku (Amorebieta-Etxano eta Elorrio) aukeratzea proposatzen da; horiek, lotura egokiak ezarrita eta modu osagarrian zentralizatu egingo lituzkete eskualde mailako eginkizunak.

Hiri-eragineko eremuak eta azpieremuak mugatzearen helburua, izan ere, leku bakoitzaren inguruan grabitatu behar duten udalerriak biltzea da, zuzkidura publikoak hobeto eskaini ahal izateko. Azpieremuak eta erdigune funtzionalak zehazteko abiapuntua DEEren lurralde-egitura bera da, hain zuzen ere, bertako ezarkuntza-sistema; gainera, beste zenbait irizpide ere baloratu eta aztertuko dira:
1. Orain funtzionalak diren zuzkidura mailako zona-banaketak (hezkuntza, osasuna), edo udalerriz gaindiko antolamendu-ekimenak, zerbitzuak emateko (gizarte-ongizatea).
2. Oraingo eskualde edo azpieskualde mailako ekipamenduen banaketa.
3. Eredu demografiko orekatuen zehaztapena.

Eusko Jaurlaritzak irakaskuntza-zerbitzuak antolatzeko eta planifikatzeko ezarritako eskola-maparen arabera, DEE Bigarren Hezkuntzako bi zonatan banatuta dago, eta erdigunea Amorebieta-Etxanon eta Durangon dute. Lehen Hezkuntzako (gehienbat udalerri mailakoa, lurralde-ezarkuntzan) eta Bigarren Hezkuntzako (gehienbat eskualde mailakoa) ikastetxeen artean ezarritako

ibilbideak Durango-Iurreta-Berrizen, Amorebieta-Etxanon eta Elorrion biltzen dira; gune horien eragin-aldea Bigarren Hezkuntzako zentrorik ez duten udalerrietara hedatzen da.




Osasunaren arloko zona-banaketak, eskualde mailan, ondo zehaztuta dagoen eskualdeko erreferentziako gune bat dauka: Durango-Iurreta-Abadiño-Izurtza aglomerazioa (anbulatorioa eta bi osasun-etxe zentralizatzen dituena); halaber, azpierreferentziako leku bat dago, Amorebieta-Etxano, eta bertan osasun-etxea dago. Osasuneko oinarrizko zonak ondoren adierazitakoaren arabera banatuta gelditzen dira:

- ***Abadiño-Berriz-Elorrioko oinarrizko osasun-zona***. Honen barruan Abadiño, Atxondo, Berriz, Elorrio, Garai eta Zaldibar udalerriak sartzen dira (Eskualde Egituraren barruan), baita Otxandio ere (bertatik kanpo).
- ***Amorebieta-Etxanoko oinarrizko osasun-zona***. Udalerri horixe bakarrik.
- ***Durangoko oinarrizko osasun-zona***. Durango, Iurreta, Izurtza eta Mañaria udalerriak sartzen dira barruan.

Gainera, Durangori eginkizun nagusia ematen zaio, eta espezialitateen anbulatorioa bertan dago.

Osasun-sistemak lurraldean duen banaketa




Udal-eskumenekoak diren gizarte-zerbitzu batzuk emateko orduan, toki-ekimenak antolamendu mankomunatu interesgarria planteatu du (Durangoko

Merindadearen Mankomunitatea), zenbait prestazio partekatzeko. Hori oso interesgarria da; izan ere, zona-banaketa horrek, guztiz osatu barik egon ez arren (udalerri guztiak ez baitira barruan sartzen), ez du foru- edo nazio-administrazioak goitik egin (osasunaren eta hezkuntzaren kasuan bezala): behetik planteaturik dago, udalerrien ekimenez. Durangoko Merindadearen Mankomunitate horren barruan Abadiño, Atxondo, Durango, Elorrio, Garai, Iurreta, Izurtza, Mañaria eta Zaldibar udalerriak sartzen dira (Eskualde Egituraren barrukoak guztiak). Amorebieta-Etxano eta Berriz udalerriak ez daude gizarte-zerbitzuen ezein mankomunitatetan sartuta.

Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak



Kirol-ekipamenduen kasuan, Durangoko Merindadearen Mankomunitateak eskualde mailako instalazioa kudeatzen du: Berrizeko belodromoa. Kiroleko eta kulturako gainerako ekipamenduetan, halako zuzkidurak modu mankomunatuan antolatzeko ahaleginak egin dira. Hala eta guztiz ere, udalerri txikietako biztanleak instalazio nahiko konplexuak erabili ahal izateko, beharrezkoa da udalerriz gaindiko antolamendua. Hori bat-batean gertatzen da, euren ezaugarrien eraginez udalerri maila gainditzen duten zuzkidura hauek udalerri jakinetan instalatzen diren unetik.

Kirol-instalazioen kasuan, eskualdekoak/azpieskualdekoak (polikiroldegiak) direnek, edo berezitasunaren nahiz espezializazioaren ondorioz DEEren eremua gainditzen dutenek (Durangoko frontoia, Berrizeko belodromoa), Ibaizabalen igarobiderantz eta bertako gune nausietarantz pilatzeko joera dute: Amorebieta-Etxano, Durango-Abadiño-Berriz eta Elorrio.

Kultura-jarduerak hedatzeko eta sustatzeko instalazioen kasuan ere antzeko zerbait gertatzen da. Kultura-etxeak (eginkizun antzekoak eta koplexuak direnez, landa-inguruetako udalerri maila gainditu behar baitute) hirigunen batzuetan daude (Amorebieta-Etxano, Abadiño eta Elorrio).

Bestalde, Kultura-eskaintzak nazio mailako gune garrantzitsua dauka Durangon.

Irizpide horiek kontuan hartuta, esan daiteke ekipamendu-sistemaren lurralde-egitura honako leku nagusi hauetan eta euron eragin-aldeetan kokatu behar dela:

- DURANGO (eta horren hiri-eremua: Durango-Iurreta-Abadiño-Izurtza) erreferentziako lekua da eskualdean, eta eragina dauka Eskualde Egiturako udalerri guztietan.
- AMOREBIETA-ETXANO eta ELORRIO, bestalde, azpierreferentziakoak dira eskualdean, eta nolabaiteko autonomia funtzionala dute.


EKIPAMENDU SISTEMA.
ESKUALDEKO ERREFERENTZIAKO ETA AZPIERREFERENTZIAKO GUNEEN PROPOSAMENA.
HORIEN ERAGIN ALDEAK.
Amorebieta-Etxano
Iurreta
Garai
Berriz
Zaldibar
Durango
Izurtza
Abadiño
Mañaria
Elorrio
Atxondo
Amorebieta-Etxanoren eta Elorrioren eragin-aldeak
Durangoren eragin-aldea
Eskualdeko erreferentziako lekua
Eskualdeko azpierreferentziako lekuak

### 11.2.4 Jarduketarako estrategia eta ildo sektorialak.

#### 11.2.4.1 Hezkuntza-ekipamendua.

EAE-LAAk, hezkuntza-ekipamenduari dagokionez, aukera estrategiko argiak planteatzen dituzte, eta horiek honako puntu hauetan oinarritzen dira:

1. Hezkuntza-ekipamenduari buruzko proposamenak oraingo ekipamenduak berrerabiltzean euskarritu behar dira.
2. Eskualde Egitura bakoitzak unibertsitatetik kanpoko irakaskuntza maila guztiak eskaini behar ditu. Unibertsitate-ekipamenduen banaketa maila nazionalean planteatu behar da, hiriburuen gune anitzeko euskal sistemaren barruan.
3. Irakaskuntzaren lehenengo mailetarako lurralde-eskala egokia (Haur eta Lehen Hezkuntza) udalerrikoa da. Bigarren Hezkunta (derrigorrezkoa edo derrigorrezkoaren ostekoa) eskualde edo azpieskualde mailan planteatu behar da.
4. Irakaskuntza-eskaintza kirol- eta kultura-zuzkidura egokiekin osatu behar da.

DEEko hezkuntza-sistemaren etorkizuneko garapena, Hezkuntza Sistema Antolatzeari buruzko 1/1990 Lege Organikoa (LOGSE) ezarri ondoren, iritzi batzuetan oinarrituz egin behar da, EAEko errealitatearen ezaugarriak aintzat hartuta (gure eremuan eragina duten ezaugarriak); hain zuzen ere, elementu batzuk hartu behar dira kontuan: ikasle kopuruaren beherakada, ikaslerik gehienen pilaketa elkarrekin lehian ari diren bi eredutan (publikoa eta pribatu hitzartua), eta irakaskuntza elebidunaren apurka-apurkako ezarkuntza.

Arazorik kezkagarriena, zalantzarik gabe, ikasle kopuruaren beherakada da. Matrikularen bilakaerak, 1997/98 ikasturtera arte hazkunde iraunkorra izan ondoren, ikasturte horretatik aurrera beherakadatxoa izan du, eta 2000/01 ikasturtean matrikulaturiko ikasle kopurua (Haur eta Lehen Hezkuntza) ia guztiz bat dator 1994/95 ikasle kopuruarekin.




| IKASTUR. | A EREDUA | B EREDUA | D EREDUA | GUZT. |
|---|---|---|---|---|
| 1994-95 | 303 | 2526 | 3577 | 6406 |
| 1997-98 | 79 | 1943 | 4584 | 6606 |
| 2000-01 | 12 | 1374 | 5019 | 6405 |
| 2005-06 | 0 | 1219 | 6279 | 7498 |

*Iturria: EUSTAT*

Hala eta guztiz ere, matrikularen egonkortasun hori itxurazkoa baino ez da, honako honen konpentsazioaren eraginezkoa: ikasle kopuruak derrigorrezko hezkuntzako mailetan (lehen maila) izandako beherakada eta haur-hezkuntzako mailetan (derrigorrezkoak ez direnak) izandako gorakada, 0-6 urte bitarteko haur gero eta gehiago eskolatzearen ondoriozkoa. Etorkizunari begira, pentsa daiteke jaiotza-tasak bilakaera negatiboa izango duela (migrazio-jario handiak egon ezean), ugalkortasun-adinak gero eta urriagoak baitira, eta hori oso kezkagarria da, oraingo eskari mailak mantendu ahal izateari dagokionez, kontuan hartuta maila horiek berez ere baxuak direla, ikastetxeen gaitasuna aintzat hartuz.


MATRIKULAREN BILAKERA, IRAKUNTZA ZIKLOEN ARABERA, 1994-2001
Ikasle Kopurua
7000
6000
5000
4000
3000
2000
1000
0
1994-1995
1997-1998
2000-2001
Irakuntza-zikloak
7-12 URTE (L. Hezkuntza)
1-6 URTE (H. Hezkuntza)




Ikasleak elkarrekin lehian ari diren bi saretan banatzen dira eta, horren eraginez, arazoa larriagoa da. Unibertsitatetik kanpoko ikasleen irakaskuntza gehienbat fondo publikoekin finantzatu arren, hezkuntza hitzartuaren garrantzi absolutua eta erlatiboa oso handia da. DEEn, hitzarturiko sarean, gutxi gorabehera, Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasle guztien %56 dago eskolatuta, eta hizkuntza-ereduen araberako banaketa publikoan dagoenaren antzekoa da (B ereduaren proportzio handitxoagoa bakarrik). Adin-taldeen arabera, ikastetxe hitzarturik gehienek Haur eta Lehen Hezkuntzako irakaskuntzak ematen dituzte; hala ere, gaur egun, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzakoak ere ematen dituzte, eta askok ez dute derrigorrezkoaren osteko irakaskuntza-eskaintzarik.




Irakaskuntza elebidunaren bilakaerak (eredu bakoitzean eskolaturiko ikasle kopurua) jarraibide jakinak izan ditu DEEn. 1994/95 eta 2000/01 ikastuteetako zifrak konparatuta, ondorio hauexek atera daitezke:

- A eredua ia guztiz desagertu da, ikasle nagusien artean 1994/95 ikasturtean presentzia garrantzitsua izan ondoren;
- B ereduak beherakada iraunkorra izan du; etorkizunean urrituriko eredua izango da, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako lehenengo zikloetako ikasleen zifrak aztertuta ondorioztatzen denez.
- D ereduaren eskaintzak gorakada handia eta iraunkorra izango du; eredu nagusia da, batez ere irakaskuntza publikoan.


MATRIKULA 1994-95 (HIZKUNTZA EREDUEN ARABERA)
IKASLE KOPURUA
450
400
350
300
250
200
150
100
50
0
1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14
ADINA
A EREDUA
B EREDUA
D EREDUA


2000-2001IKASTURTEKO MATRIKULA, HIZKUNTZA EREDUEN ARABERA
IKASLE KOP.
600
500
400
300
200
100
0
1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12
ADINA
A EREDUA
B EREDUA
D EREDUA

Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe sare publikoaren eta pribatuaren ezarkuntza ia erabatekoa da Durangoko Eskualde Egituran, eta hiru udalerri txiki baino ez dira gelditzen bertatik kanpo: Garai, Mañaria eta Izurtza. Udalerriok Eskualde Egiturako hiriburuarekiko (Durango) mendekotasun funtzional handia dute.

Sare publikoak pribatuak baino barreiadura handiagoa dauka, eta hori gehienbat biztanlerik gehieneko udalerrietan biltzen da: Durango, Amorebieta-Etxano eta Elorrio.

Hizkuntza-ereduari dagokionez, D ereduaren ezarkuntza nagusitu da, bai Hezkuntza Sailaren mendeko ikastetxeetan eta bai pribatu hitzartuetan: kategoria horretako eskola-ekipamendua duten udalerri guztietan du presentzia. Aldiz, ez dago B eredua soilik eskaintzen duen udalerririk.

## Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoak

| ***IKASTETXEA*** | ***HELBIDEA*** | ***UDALERRIA*** | ***UNITATE K.*** | ***Eredua*** | ***H.H.*** | ***L.H.*** |
|---|---|---|---|---|---|---|
| CEP TRAÑA MATIENA LHI | TRAÑAETXOSTE 10 | ABADIÑO | 27 | B, D | 1 | 1 |
| CEP ZELAIETA LHI | SAN TROKAZ Z/G | ABADIÑO | 11 | D | 1 | 1 |
| TRAÑA-MATIENA HAURRESKOLA | TRAÑA--MATIENA AUZOA | ABADIÑO | | D | | |
| ZELAIETA HAURRESKOLA | ZELAIETA AUZOA | ABADIÑO | | D | | |
| CEP APATAMONASTERIO LHI | FORUAK Z/G | ATXONDO | 3 | D | 1 | 1 |
| CEP LEARRETA-MARKINA LHI | LEARRETA-MARKINA Z/G | BERRIZ | 15 | D | 1 | 1 |
| CEP LANDAKO LHI | MURUETA TORRE 20 | DURANGO | 40 | B, D | 1 | 1 |
| CEP ELORRIO LHI | SAN ROKE 12 | ELORRIO | 28 | D | 1 | 1 |
| ELORRIO HAURRESKOLA | GOIETA 20 | ELORRIO | | D | | |
| CEP MAIZTEGI LHI | OLABURU 4 | IURRETA | 17 | D | 1 | 1 |
| CEP ZABALARRA LHI | SAN ROKE 4 | DURANGO | | D | | |
| DURANGO HAURRESKOLA JULENE AZPEITIA | ZABALARRA ERAIK.-SAN ROKE 4-BE | DURANGO | | D | | |
| CEP ZALDIBAR LHI | ELIZONDO Z/G | ZALDIBAR | 16 | D | 1 | 1 |
| CEP AMOREBIETA-LARREA LHI | LARRA Z/G | AMOREBIETA-ETXANO | | B,D | | |

*H.H. = HAUR HEZKUNTZA*
*L.H. = LEHEN HEZKUNTZA*

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerketa Saila.

Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoak



## Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe pribatuak

| *IKASTETXEA* | *HELBIDEA* | *UDALERRIA* | *UNITATE K.* | *Eredua* | *H.H.* | *L.H.* |
|---|---|---|---|---|---|---|
| CPEIPS ANDRA MARI IKASTOLA HLBHIP | LARRA | AMOREBIETA-ETXANO | 15 | D | 1 | 1 |
| CPEIPS EL CARMELO HLBHIP | KALBARIO 4 | AMOREBIETA-ETXANO | 9 | D | 1 | 1 |
| CPEIPS KARMENGO AMA HLBHIP | SABINO ARANA 24 | AMOREBIETA-ETXANO | 22 | D | 1 | 1 |
| CPEIPS LAUAXETA IKASTOLA HLBHIP | SAN MIGUEL DE DUDEA (EUBA) | AMOREBIETA-ETXANO | 28 | D | 1 | 1 |
| CPEIPS KURUTZIAGA IKASTOLA HLBHIP | GALTZARETA 13 | DURANGO | 23 | D | 1 | 1 |
| CPEIPS SAGRADO CORAZON HLBHIP | BRUNO MAURICIO ZABALA 6 | DURANGO | 15 | B | 1 | 1 |
| CPEIPS SAN ANTONIO-STA. RITA HLBHIP | BALBINO GARITAONAINDIA 3 | DURANGO | 17 | B, D | 1 | 1 |
| CPEIPS SAN JOSE-JESUITAK HLBHIP | KURUTZIAGA 1 | DURANGO | 21 | B, D | 1 | 1 |
| CPEI MARIA MEDIADORA HIP | URARKA 2 | ELORRIO | 4 | D | 1 | 0 |
| CPEIPS ELORRIOKO TXINTXIRRI IKASTOLA HLBHIP | SAN PIO X-3 | ELORRIO | 12 | D | 1 | 1 |
| CPEPS NTRA. SRA. DE LOURDES LBHIP | LOURDES 8 | ELORRIO | 6 | D | 0 | 1 |
| CPEPS MARIA GORETTI LBHIP | SANTA MAÑA 23 | IURRETA | 6 | B | 0 | 1 |

*H.H. = HAUR HEZKUNTZA*
*L.H. = LEHEN HEZKUNTZA*
iturria: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerketa Saila.

Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe pribatuak




Bigarren Hezkuntzako ikastetxeek pilaketa handiagoa dute Eskualde Egiturako aglomerazio nagusian (Durango eta Iurreta) eta Amorebieta-Etxanon; hain zuzen ere, derrigorrezkoaren osteko Bigarren Hezkuntza leku horietan soilik ikas daiteke.

DBHko ikastetxe-sarea, jakina, derrigorrezkoaren osteko hezkuntzakoa baino trinkoagoa da, gehienbat sare publikoaren eraginez. Ikastetxe pribatu hitzartuak (gehienetan Haur eta Lehen Hezkuntza ere bai) askoz ere pilatuago daude biztanle kopururik handieneko udalerrietan (Amorebieta-Etxano, Durango, Elorrio).

Hizkuntza-ereduari dagokionez, ikastetxeen araberako eskaintza EAEn ikusitako jarraibide orokorren araberakoa da. Hau da, A eta B ereduen presentzia handiagoa dago Haur eta Lehen Hezkuntzan baino (batez ere, pribatu hitzartuan); baina, aldi berean, D ereduak gero eta ezarkuntza handiagoa dauka.

**Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publikoak.**

| ***IKASTETXEA*** | ***HELBIDEA*** | ***UDALERRIA*** | ***UNIT. K.*** | ***Eredua*** | ***DBH*** | ***BAT.*** | ***ELH*** | ***GLH*** |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| IES ABADIÑO BHI | TRAÑAETXOSTE 10 | ABADIÑO | 10 | B, D | 1 | 0 | 0 | 0 |
| IES URRITXE-ZORNOTZA BHI | URRITXE Z/G | AMOREBIETA - ETXANO | 35 | A,B,D | 1 | 1 | 1 | 1 |
| IES BERRIZ BHI | ELIZONDO PL. 7 A | BERRIZ | 12 | D | 1 | 0 | 0 | 0 |
| IES DURANGO BHI | FRAY JUAN DE ZUMARRAGA 23 | DURANGO | 16 | A, B, D | 1 | 0 | 0 | 0 |
| IES FRAY JUAN DE ZUMARRAGA BHI | FRAY JUAN DE ZUMARRAGA Z/G | DURANGO | 26 | A, B,D | 1 | 1 | 1 | 1 |
| IES ELORRIO BHI | SAN ROKE 12-2 | ELORRIO | 13 | D | 1 | 0 | 0 | 0 |
| IEFPS IURRETA GLHBI | OLABURU 19 | IURRETA | 20 | A, D | 0 | 1 | 1 | 1 |
| IES JUAN OROBIOGOITIA BHI | OLABURU 3 | IURRETA | 18 | D | 1 | 0 | 0 | 0 |

DBH = DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA
BAT = LOGSE BATXILERGOA (LOGSE)
ELH = ERDIKO LANBIDE HEZIKETA (LOGSE)
GLH = GOIKO LANBIDE HEZIKETA (LOGSE)

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerketa Saila.

**Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publikoak**



## Bigarren Hezkuntzako ikastetxe pribatuak

| IKASTETXEA | HELBIDEA | UDALERRIA | UNIT. K. | Eredua | DBH | BAT. | ELH | GLH |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| CPEIPS ANDRA MARI IKASTOLA HLBHIP | LARRA | AMOREBIETA-ETXANO | 5 | D | 1 | 0 | 0 | 0 |
| CPEIPS EL CARMELO HLBHIP | KALBARIO 4 | AMOREBIETA-ETXANO | 12 | D (*) | 1 | 1 | 0 | 0 |
| CPEIPS KARMENGO AMA HLBHIP | SABINO ARANA 24 | AMOREBIETA-ETXANO | 16 | B, D | 1 | 0 | 0 | 0 |
| CPEIPS LAUAXETA IKASTOLA HLBHIP | SAN MIGUEL DE DUDEA (EUBA) | AMOREBIETA-ETXANO | 22 | D | 1 | 0 | 0 | 0 |
| CPES ORUE ESKOLA BHIP | SAN MIGUEL DUDEA Z/G | AMOREBIETA-ETXANO | | D | | | | 1 |
| CPEIPS KURUTZIAGA IKASTOLA HLBHIP | GALTZARETA 13 | DURANGO | 11 | D | 1 | 0 | 0 | 0 |
| CPEIPS SAGRADO CORAZON HLBHIP | BRUNO MAURICIO ZABALA 6 | DURANGO | 12 | B | 1 | 0 | 0 | 0 |
| CPEIPS SAN ANTONIO-STA. RITA HLBHIP | BALBINO GARITAONAINDIA 3 | DURANGO | 9 | B,D | 1 | 0 | 0 | 0 |
| CPEIPS SAN JOSE-JESUITAK HLBHIP | KURUTZIAGA 1 | DURANGO | 22 | B, D | 1 | 0 | 0 | 0 |
| CPES IBAIZABAL KOOP. E. IKASTOLA BHIP | INTXAURRONDO 54 | DURANGO | 2 | D | 0 | 1 | 0 | 0 |
| CPES SAN JOSE-MARISTAK BHIP | FRAY JUAN ANTONIO ABASOLO 6 | DURANGO | 25 | B, D | 0 | 1 | 1 | 1 |
| CPEIPS ELORRIOKO TXINTXIRRI IKASTOLA HLBHIP | SAN PIO X-3 | ELORRIO | 5 | D | 1 | 0 | 0 | 0 |
| CPEPS NTRA. SRA. DE LOURDES LBHIP | LOURDES 8 | ELORRIO | 4 | D | 1 | 0 | 0 | 0 |
| CPEPS MARIA GORETTI LBHIP | SANTA MAÑA 23 | IURRETA | 7 | B | 1 | 0 | 0 | 0 |

(*) DBHko B eta D ereduak DBH = DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA
BAT = LOGSE BATXILERGOA (LOGSE)
ELH = ERDIKO LANBIDE HEZIKETA (LOGSE)
GLH = GOIKO LANBIDE HEZIKETA (LOGSE)
iturria: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerketa Saila.

Bigarren Hezkuntzako ikastetxe pribatuak




EAE-LAAk planteaturiko estrategietan eta agiri honetan adierazitako estrategietan oinarrituz (ekipamendu-sistemaren lurralde-egiturari buruzko estrategiak), honako jarduketa-ildo hauek planteatzen dira, hezkuntzako zuzkidura-sistemaren oinarrizko helburuak betetzeko, bai biztanleei eman beharreko zerbitzuari eta bai lurraldea egituratzeko elementua izateari dagokionez:

1. **Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoen sarea mantentzeko ahalegina egin beha da.** Gaitasuna eskaria baino askoz ere handiagoa izan arren, eta aurreikusitako bilakaerak egoera hori nabarmendu egingo

badu ere, biztanleria-segmentu oso sentikor baterako duen zuzkidura-eginkizuna aintzat hartuta, proposamen horren aldeko jarrera izan behar da. Horri dagokionez, gogoratu egin behar da EAE-LAAn ezarritakoaren arabera, toki-eskala egokiena dela zerbitzu hori emateko; jakina, hori nekez defenda daiteke DEEko zati handi baten ezarkuntza-egituran oinarrituz (udalerri txikiak eta zahartzeko joera duen adinen araberako egitura). Oraingo sareak udalerriz gaindiko pilaketa eragiten du eta udalerri batzuk ez dute ikastetxerik; hurrengo urteotan, segurutik, dinamika horrexekin jarraituko dugu.

2. **Araubide bereziko irakaskuntzak sustatzea (hizkuntzak, arte plastikoak, helduen hezkuntza,…), oraingo ekipamenduak berrerabilita**. Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe askoren bideragarritasuna, batez ere biztanleria-dentsitaterik txikieneko udalerrietan (baina ez horietan bakarrik), araubide bereziko beste irakaskuntza batzuekin partekatuta bermatu ahal da.
3. **Haur Hezkuntzako eskaintza publikoa 0-3 urteko bitartera hedatzea**, oraingo instalazioak berrerabilita eta horiei errentagarritasuna aterata, orain gutxi erabiltzen baitira. Derrigorrezko Hezkuntzaren barruan egon ez arren, gizartean adin talde horretarako dagoen eskaria gero eta handiagoa da. LOGSEren arabera, biztanle horien arreta ez da laguntzako prestaziotzat hartu behar, irakaskuntzako prestaziotzat baizik.
4. Bigarren Hezkuntzari dagokionez, oraingo bi zonak hartu behar dira aintzat (Amorebieta-Etxano eta Durango). Bi zona horietariko bakoitzean bermatu egin behar da Bigarren Hezkuntzako eskaintza publiko osoa, derrigorrekoa eta derrigorrezkoaren ostekoa, gutxieneko aukera batzuk eskainiz (gutxienez Batxilergoko bi modalitate eta bi lanbide-familiako nahiz bi hizkuntza-ereduko heziketa-zikloak).
5. **Oraingo kultura- eta kirol-zuzkidurek ikastetxeekiko integrazio funtzionala izan behar dute**. Eskualdeko erreferentziako gunea (Durango-Iurreta-Abadiño-Izurtza, Berrizekin batera) eta azpieskualdeko errreferentziako guneak (Amorebieta-Etxano eta Elorrio) DEE egiturako guneak izan behar dira eta zuzkidura-eskaintza integratua planteatu behar dute (hezkuntza-kirola-kultura). Eskaintza horren integrazioak errentagarritasuna atera behar die oinarrizko kirol- eta kultura-instalazioei (liburutegiak), gutxien erabiltzen diren ordutegietan eta egunetan (astegunean, goizekok ordutegian eta arratsaldeko lehenengo orduetan); aldi berean, ikastetxeetako baliabide erabilgarriak hobetu behar dituzte.

### 11.2.4.2 Osasun-ekipamendua.

EAE-LAAk, osasun-ekipamenduari buruzko planteamenduetan, oinarrizko bi baldintza adierazten dituzte, eta lurralde-planifikazioak sorturiko proposamenak horietan euskarritu behar dira:

1. Zuzkidura-sistema horrek emandako zerbitzuak, batik bat, oraingo ekipamenduaren berrerabileran oinarritu behar dira.
2. Lurralde-antolamenduak (LAAk eta LZPk) bere gain hartu ahal du osasun-planifikazioaren eraginezko filosofia eta zehaztapenak, eta horiek Lurraldearen Egitamu Sektorialaren lerruna izango lukete, eskumenari dagokionez, baita osasun sarea eratuko duten zentroen dimentsionatzeari dagokionez ere, beti ere horien kokapena LZPn ezarri diren lurraldearen antolamendurako irizpideekin bat badator.

Hala eta guztiz ere, eta osasun-sistemak Lurralde Ereduaren eraketan duen garrantzia baloratuz, LAAk zuzkidura-sistema horren lurralde-antolamenduari buruzko helburu batzuk adierazten dituzte:

1. Lurraldearen Eskualde Egitura buruaskia izan behar da kanpoko arretaren arloan.
2. Kanpoko arretako baliabide bakoitzerako eskalarik egokiena hauxe da: anbulatorioa (eskualdea), kontsultategia edo osasun-etxea (udalerria), sendagilearen etxea (toki maila).

DEEko antolamendua eta baliabideak aztertzetik nahiz horien diagnostikoa egitetik ondorioztatzen denez, planeamendu horiek nahiko ondo egokitzen dira ekipamendu-sistemaren errealitatera.

Izan ere, Osakidetzan integraturiko laguntza-dispositiboak hiritar guztien laguntza-estaldura bermatzen du, unibertsaltasunaren printzipioa beteta: administrazioa gauza izan behar da osasuna babesteko sistema unibertsala, bidezkoa eta kalitatezkoa bermatzeko. Lurraldearen ikuspegitik, gogoratu behar da EAE, bertako gizarte- eta osasun-egoeraren arabera, hiru mugape geografikotan banaturik dagoela (osasun-eremuak): Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa. Eremu bakoitzean, oinarrizko laguntzaren antolamendu egokia eta laguntza espezializatuarekiko koordinazioa bermatzen da; horretarako, osasun-

eremu horiek osasun-eskualdetan banatzen dira, eta horiek, aldi berean, osasun-zonatan.

DEE, bestalde, *Barruko Eskualdea* izeneko osasun-eskualdearen barruan dago oso-osorik, eta horren barruan 17 osasun-zona daude. Eskualde Egiturako udalerriak hiru osasun-zona desberdinetan biltzen dira:

- *Abadiño-Berriz-Elorrioko oinarrizko osasun-zona*. Honako udalerri hauek biltzen ditu: Abadiño, Atxondo, Berriz, Elorrio, Garai eta Zaldibar (Eskualde Egituraren barrukoak guztiak), eta Otxandio (bertatik kanpokoa).
- *Amorebieta-Etxanoko oinarrizko osasun-zona*. Udalerri horixe bakarrik dago barruan.
- *Durangoko oinarrizko osasun-zona***.** Durango, Iurreta, Izurtza eta Mañaria udalerriak sartzen dira barruan.

Oinarrizko-zona horietariko bakoitza egituratzen duen pieza nagusia osasun-etxea da; hori, aldi berean, oinarrizko laguntzaren (osasun orokorra, iraunkorra, jarraitua eta koordinazio orokorrekoa) garapena ahalbidetzen duen egitura fisikoa eta funtzionala da.

Horren arabera, DEEko osasun-sistemaren baliabideak hiru osasun-etxetan oinarrituz egituratzen dira, eta bakoitza oinarrizko osasun-zonetariko bakoitzean dago; horiei Durangoko anbulatorioa gehitzen zaie eta horrek kanpoko laguntza espezializatua eskaintzen du.

Osasun-etxe horietan, ematen diren medikuntza-zerbitzuak medikuntza orokorra, pediatria, erizaintza eta emagintza dira. Batzuetan, familia-orientazioa, odontologia, tokoginekologia, laguntza iraunkorra, buruko osasuna eta errehabilitazioa ere eskaintzen dira, baina ez osasun-etxe guztietan.

Toki mailan, zuzkidura kontsultategien udal-sarearekin osatzen da, eta horiek integrazio funtzionala dute Osakidetzaren kudeaketan. Bertan, medikuntza orokorreko eta erizaintzako zerbitzuak eskaintzen dira, eta zenbaitetan pediatriakoak ere bai, giza baliabideak beste zentro batzuekin partekatuz.


DURANGOKO OSPITALETIK KANPOKO OSASUN EKIPAMENDUA
Durangoko oinarrizko osasun-zona
Amorebieta-Etxanoko oinarrizko osasun-zona
Abadiño-Berriz-Elorrioko oinarrizko osasun-zona
Anbulatorioak
Osasun-etxeak
Kontsultategiak

## Ospitaletik kanpoko sare publikoa

| *ZENTROA* | *UDALERRIA* |
|---|---|
| Matienako osasun-etxea | Abadiño |
| Zelaietako kontsultategia | Abadiño |
| Amorebietakok osasun-etxea | Amorebieta-Etxano |
| Atxondoko kontsultategia | Atxondo |
| Berrizko kontsultategia | Berriz |
| Durangoko anbulatorioa | Durango |
| Landakoko osasun-etxea | Durango |
| Elorrioko kontsultategia | Elorrio |
| Garaiko kontsultategia | Garai |
| Iurretako kontsultategia | Iurreta |
| Izurtzako kontsultategia | Izurtza |
| Mañariako kontsultategia | Mañaria |
| Zaldibarreko kontsultategia | Zaldibar |

Iturria: Osakidetza / *Barruko Eskualde Egitura*, Amorebieta, (2006-11-02)

Eskualde Egitura osorako ospitale-laguntza Galdakaoko ospitaletik ematen da; hori Eskualde Egituratik kanpo dago eta zerbitzua ematen dio Barruko Eskualdeari.

EAE-LAAk planteaturiko estrategietan eta agiri honetan adierazitako estrategietan oinarrituz (ekipamendu-sistemaren lurralde-egiturari buruzko

estrategiak), honako jarduketa-ildo hauek planteatzen dira, osasuneko zuzkidura-sistemaren oinarrizko helburuak betetzeko, bai biztanleei eman beharreko zerbitzuari eta bai lurraldea egituratzeko elementua izateari dagokionez:

1. **DEEko osasun-sistemaren oraingo lurralde-antolamendua LZPk planteaturiko Lurralde Eredura egokitzea.** Eskualdeko azpierreferentziako gune bakoitzean (Amorebieta-Etxano eta Elorrio) osasun-etxe bat egon beharko litzateke; eskualdeko erreferentziako gunean, Durangon, osasun-etxea eta anbulatorioa egon behar da. Osasuneko lurralde-planifikazioaren errespetuan oinarrituriko antolamendu horren eraginez, Elorrioko kontsultategiaren kategoria igo egin behar da osasun-etxearen kategoriara, eta, horrela, antolamendu-eginkizunak Abadiñoko Matienan dagoen osasun-etxearekin partekatuko ditu. Antolamendu hori egokitu egiten da osasun- eta gizarte-beharrizanetara, eta gainera, LZPk defendaturiko Lurralde Eredua sustatzen du.
2. **Oinarrizko laguntza osasun-zonetatik antolatzeko aukera, izan ere, elementu egokia izan behar da hiritarrek gehien behar dituzten laguntzak hurbiltzeko osasun-zerbitzuetarako formulak sustatzeko.** Horrela, gainditu egin ahal izango da lurralde-antolamenduko eredu hierarkizatua eta zurruna aplikatzearen funtzionaltasun eza, lurraldearen eta biztanleriaren errealitatea ez baita egokitzen eredu horretara.
3. **Mantendu egin behar da azken urteotako aurrekontuetan egindako esfortzua, kostu gero eta handiagoen eszenatoki berriari aurre egiteko**; kostuen hazkundea, izan ere, biztanleria gero eta zaharragoa izatearen, zerbitzu gero eta gehiago behar izatearen, osasun-arloko gastuak gora egitearen eta teknologia sorberrien eraginezkoa da.

### 11.2.4.3 Gizarte-zerbitzuko ekipamendua.

EAE-LAAk ez dute aukera estrategiko berezirik planteatzen gizarte-zerbitzuen ekipamendurako; finkapen handiagoko zuzkidura-azpisektore publikoen kasuan (batez ere, osasunekoa eta hezkuntzakoa, baina baita kirolekoa eta kulturakoa ere) ez da halakorik gertatzen, horiei buruzko jarduketa-irizpide oso argiak formulatzen baitituzte, lurralde eta sektore mailakoak. Horien kasuan ez bezala, gizarte-zerbitzuen sistema normalizatzeko prozesua oraintsukoa da eta horrek erreferentzia zehatzik ez egotea azaltzen du.

Erreferentzia esplizituririk ez edukitzearen ondorioz, orokortu egin behar dira EAE-LAAk gainerako ekipamenduetarako formulaturiko planteameduetariko batzuk, eta gainera, LZPk formulaturiko irizpideak eta jarduketa-jarraibideak formulatu behar dira. Hori guztia honako puntu hauetan gauzatuta dago:

1. Gizarte-ongizateko ekipamenduari buruzko proposamenak DEEren gizarte- eta demografia-errealitatearen ezagutzan oinarritu behar dira: biztanleriaren izaera egonkorra lurraldearen zatirik handienan, gune nagusietako hazkunde txikiekin; zahartzeko joera eta ahultasun demografikoa, Ibaizabalen igarobidetik kanpoko ezarkuntza-sarean.
2 Eskualde Egiturak berezko gaitasuna izan behar du gizarte-zerbitzu guztiak emateko, bai oinarrizkoak eta bai espezializatuak.
3 Toki-eskala egokiagoa da zerbitzuak ondo emateko, eta eskala hori eskualde- eta azpieskualde-eskalekin osatu behar da, lehen aipaturiko ahultasun demografikoa kontuan hartuta.
4. Gizarte-zerbitzuen eskaintza osagarria izan behar da, osasun-laguntzari dagokionez.

DEEko gizarte-zerbitzuko sistemaren etorkizuneko garapena, 5/1996 Legean ezarritakoaren arabera, irizpide jakinak aintzat hartuta egin behar da, eta horiek, berriz, DEEren errealtatearen ezaugarrien araberakoak dira. Lege horrek emandako definizioaren arabera, gizarte-zerbitzuek babes-sistema osatzen dute, eta erantzukizun publikoa dute biztanleria-sektore handietan eragina duten gabezia larriak betetzeko orduan. Horrenbestez, lehentasunez aplikatuko da gizarte-bazterkeria eta marjinazioa eragiten duten zergatien prebentzioan, baita hiritarrak familia- nahiz gizarte-inguruan eta inguru pertsonalean integratzeko orduan ere.

Gizarte-zerbitzuen sistemaren antolamendua, izan ere, udalek eta lurralde historikoetako foru-organoek partekaturiko eskumena da, eta ekimen pribatuak ere esku-hartze handia dauka zerbitzu horiek ematean, finantziazioaren zatirik handiena publikoa izan arren.

## Oinarrizko gizarte-zerbitzuak

| *ERAKUNDEA* | *ZENTROA* | *HELBIDEA* | *UDALERRA* | *KUDEAKETA OTA* |
|---|---|---|---|---|
| Durangoko Mankomunitateko Oinarrizko Gizarte Zerbitzua | Abadiñoko Oinarrizko Gizarte Unitatea | San Trokaz plaza, 1 | Abadiño | Publikoa mankomunitatea |
| Durangoko Mankomunitateko Oinarrizko Gizarte Zerbitzua | Durangoko Merindadeko Mankomunitatea | Astola, 26 | Abadiño | Publikoa mankomunitatea |
| Amorebieta – Etxanoko Oinarrizko Gizarte Zerbitzua | Amorebieta-Etxanoko Oinarrizko Gizarte Unitatea | Herriko Enparantza z/g | Amorebieta-Etxano | Publikoa udalerria |
| Durangoko Mankomunitateko Oinarrizko Gizarte Zerbitzua | Atxondoko Oinarrizko Gizarte Unitatea | Foruen plaza, 1 | Atxondo | Publikoa mankomunitatea |
| Berrizeko Oinarrizko Gizarte Zerbitza | Berrizeko Oinarrizko Gizarte Unitatea | Olakueta plaza, z/g | Berriz | Publikoa udalerria |
| Berrizeko Oinarrizko Gizarte Zerbitza | Berrizeko Udaletxea | Margarita Maturana ama | Berriz | Publikoa udalerria |
| Durangoko Mankomunitateko Oinarrizko Gizarte Zerbitzua | Durangoko Oinarrizko Gizarte Unitatea | Bruno M. Zabala, 9 | Durango | Publikoa mankomunitatea |
| Durangoko Mankomunitateko Oinarrizko Gizarte Zerbitzua | Elorrioko Oinarrizko Gizarte Unitatea | Gerninako Arbola Enparantza, z/g | Elorrio | Publikoa mankomunitatea |
| Durangoko Mankomunitateko Oinarrizko Gizarte Zerbitzua | Garaiko Oinarrizko Gizarte Unitatea | Garai plaza, z/g | Garai | Publikoa mankomunitatea |
| Durangoko Mankomunitateko Oinarrizko Gizarte Zerbitzua | Iurretako Oinarrizko Gizarte Zerbitzua | Aita San Miguel Plaza, z/g | Iurreta | Publikoa mankomunitatea |
| Durangoko Mankomunitateko Oinarrizko Gizarte Zerbitzua | Izurtzako Oinarrizko Gizarte Unitatea | Elizalde auzoa, z/g | Izurtza | Publikoa mankomunitatea |
| Durangoko Mankomunitateko Oinarrizko Gizarte Zerbitzua | Mañaria Oinarrizko Gizarte Unitatea | Ebaristo Bustinza "Kirikiño", z/g | Mañaria | Publikoa mankomunitatea |
| Durangoko Mankomunitateko Oinarrizko Gizarte Zerbitzua | Zaldibarreko Oinarrizko Gizarte Unitatea | Diputazio plaza, 1 | Zaldibar | Publikoa mankomunitatea |

iturria: Bizkaiko Foru Aldundia. Gizartekintza Saila. Gizarte Zerbitzuen Bilduma 2007

Oinarrizko gizarte-zerbitzuak eta espezializatuak bereizi behar dira:

Oinarrizko-gizarte zerbitzuek funtsezko eginkizuna dute gizarte-laguntzaren sisteman; izan ere, laguntzako eta erantzuneko lehenengo elementuak dira, biztanleekiko hurbiltasuna aintzat hartuta. Oinarrizko gizarte-zerbitzuak udalerri mailan planteatzen dira, Oinarrizko Gizarte Unitate izeneko bulego-sare bat sortuta eta mantendta; bulego horiek kasuan kasuko zerbitzuen menpe daude.

Durangoko Eskualde Egituraren kasuan, zerbitzua gehienbat Durangoko Merindadearen Mankomunitatearen bidez antolaturik dago, eta horren barruan, Eskualde Egturaren barruko Abadiño, Atxondo, Durango, Elorrio, Garai, Iurreta, Izurtza, Mañaria eta Zaldibar udalerriak sartzen dira. Amorebieta-Etxano eta Berriz udalerriak ez daude gizarte-zerbitzuen ezein mankomunitateren barruan.

Hirugarren adinerako gizarte-zerbitzua, zalantzarik gabe, halako ekipamendurik garatuena eta tradiziorik luzeenekoa da. Izan ere, laguntza-sare trinkoa eta dibertsifikatua da, eta elkartegintzaren presentzia handia dauka; gainera, partaidetza publikoa ere ondo garatuta dago eta eskaintza zabala nahiz kalitatea proposatzeko gaitasuna dauka, adineko pertsonentzat. Honako zentro mota hauek bereizten dira:

- Jubilatuen elkarteak. Halako zentroak DEEko udalerri ia guztietan aurkituko ditugu; animazioko eta integrazioan laguntzeko lana ez ezik, bizikidetza-lekutzat ere funtsezko eginkizuna dute, eta osatu egiten dute zaharren etxeen eta kluben sarea; establezimendu ireki horietan, erabiltzaileei gizarte- eta laguntza-zerbitzuak ematen zaizkie, gizarteratzea eta partaidetza sustatuz. Eguneroko jarduerak egiteko gauza diren pertsonei zuzenduta daude eta, bertan, aisialdiko nahiz astialdiko jarduerak eskaintzen dira, baita zerbitzuren bat ere (kafetegia, ile-apaindegia,…).

  Udalerriko eskaintza publikoaren edo eskaintza pribatuaren bidez, udalerri guztiek gutxienez halako zentro bat dute. Ez dago Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundeko (IFAS) hirugarren adineko zentrorik.
- Egoitzen helburua, izan ere, gizarte- edota familia-egoeren eraginez etxean zaindu ezin diren adineko pertsonen beharrizanak betetzea da. Horri dagokionez, erabiltzaileei laguntza integrala eta jarraitua ematen zaie, euren autonomiaren arabera, eguneroko bizitzako jarduerak egiteko: osasunaren

kontrola eta prebentzioa; oinarrizko beharrizanen estaldura (fisikoak eta burukoak); okupazio-jarduerak; aisialdia eta astialdia, etab. Hiru kategoria daude:

a) **Babesturiko apartamentuak**: etxebizitza autonomoak dira, pertsona bakarrekoak edota bikotekoak, eta talde-zerbitzuak nahiz erabilera fakultatiboa dute; intentsitate handiagoko baliabiderik behar ez duen egoera psiko-fisiko eta sozialeko adineko pertsonei ostatua emateko erabiltzen dira.
b) **Etxebizitza komunitarioa**: gehienez 14 plazako bizikidetza-unitatea, nolabait ere eurenez moldatzen diren adineko pertsonentzat, familiakoaren antzeko bizi-estiloarekin.
c) **Egoitza**: 14 plazatik gorako bizikidetza-zentroa, bizileku iraunkorra eta komuna izateko erabiltzen dena; bertan, laguntza integratua eta jarraitua ematen zaie adineko pertsonei. Maila handiko ezinduei laguntzeko behar diren baliabide material guztiak eduki behar ditu.

   Babesturiko apartamentuak alde batera utzita, Eskualde Egituran honako hauek daude:
   - 8 egoitza, bi publikoak, bata Durangon eta bestea Elorrion, IFASek kudeatuta. Guztira 401 plaza, horietariko 177 publikoak.
   - 2 etxebizitza komunitario Amorebieta-Etxanon, biak kudeaketa pribatukoak (guztira 24 plaza).

## Hirugarren adinerako zerbitzuak

| *IZENA* | *HELBIDEA* | *UDALERRIA* | *KUDEAKETA MOTA* | *KIDE KOP.* |
|---|---|---|---|---|
| ***ELKARTEAK, ETXEAK ETA KLUBAK*** | | | | |
| Zelaietako Nagusien Egoitza Elkartea | Solozabal, 7 | Abadiño | Irabazi asmorik gabeko pribatua | 227 |
| San Prudencio – Matienako Jubilatuen Elkartea | Trañabarren, 13 | Abadiño | Irabazi asmorik gabeko pribatua | 400 |
| Zornotzako Hirugarren Adineko Elkartea | Plaza Zelaieta, z/g | Amorebieta - Etxano | Irabazi asmorik gabeko pribatua | 1500 |
| Amorebietako Jubilatuen Kluba | Nafarroa z/g behea | Amorebieta Etxano | Udalerriko publikoa | 200 |
| Atxondoko Jubilatuen Etxea | Ziarreta, 4 | Atxondo | Irabazi asmorik gabeko pribatua | 50 |
| Gure Izerdia Jubilatuen Elkartea | Cengotitabengoa, 6 | Berriz | Irabazi asmorik gabeko pribatua | 250 |
| Durangoko 'Kurutziaga' Hirugarren Adineko Elkartea | Kanpatorrosteta, 11 | Durango | Irabazi asmorik gabeko pribatua | - |
| Hirugarren Adineko Izar Gaztea Elkartea | Astarloa, 1 | Durango | Irabazi asmorik gabeko pribatua | 110 |
| Elorrioko Jubilatuen Etxea | A. Kapelastegui, 9 | Elorrio | Udalerriko publikoa | - |
| Garaiko San Miguel Jubilatuen Elkartea | San Miguel, z/g | Garai | Irabazi asmorik gabeko pribatua | 51 |
| Iurretako Jubilatuen Elkartea | Bixente Kapanaga, 9 | Iurreta | Publikoa | 300 |
| Izurza 'Erdoitza' Hirugarren Adinekoen Kluba | Plaza Fermin Uncilla Arroita, z/g | Izurtza | Irabazi asmorik gabeko pribatua | 31 |
| 'Ursula Donea' Hirugarren Adinekoen Kluba | Udaletxeko plaza, 2 | Mañaria | Irabazi asmorik gabeko pribatua | 100 |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| 'Nagusien Etxea' Jubilatuen Etxea | Olazar, 3 | Zaldibar | Udalerriko publikoa | 150 |
| ***EGOITZAK*** | | | | |
| Orue Egoitza | San Miguel Dudea z/g | Amorebieta - Etxano | Irabazi asmorik gabeko pribatua | 129 |
| Pinudi Egoitza | Karmen, 26 | Amorebieta - Etxano | Irabazi asmorik gabeko pribatua | 20 |
| Gure Etxea 2 Egoitza | Dudea auzoa, 25bis | Amorebieta - Etxano | Irabazi asmorik gabeko pribatua | 15 |
| José Miguel Barandiarán, 1 Egoitza | José Miguel de Barandiaran 1 | Durango | Publikoa | 113 |
| Andra Mari Egoitza | Pedro Pablo Artaloa 1 | Durango | Pribatua | 25 |
| Astarloa Egoitza | Pedro Pablo Artaloa 1 | Durango | Pribatua | 17 |
| Tabira S.L. Egoitza | Intxaurrondo, 27 | Durango | Pribatua | 18 |
| Elorrioko Egoitza | Ospitale Kalea, 2 | Elorrio | Foru-publikoa | 64 |
| ***ETXEBIZITZA KOMUNITARIOAK*** | | | | |
| Santa Anako Etxebizitza Komunitarioa | Andrandi, 10 | Amorebieta-Etxano | Pribatua | 10 |
| Gure Etxea Etxebizitza Komunitarioa | Dudea auzoa, 9 | Amorebieta – Etxano | Irabazi asmorik gabeko pribatua | 14 |
| ***BABESTURIKO APARTAMENTUAK*** | | | | |
| Orue Babesturiko Apartamentuak | San Miguel Dudea auzoa | Amorebieta - Etxano | Pribatua | 50 |

Iturria: BIZKAIKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA. Gizartekintza Saila (2000): *Adineko pertsonen Bizkaiko egoitzak* (2007ko apirilean gaurkotuta).

**Hirugarren Adinerako Zerbitzuak**



Ezinduei laguntzeko, DEEn honako zentro hauek daude:

- **Elkarteak**. Irabazi asmorik gabeko erakunde pribatuek kudeatzen dituzte, eta helburu nagusia ezindu fisikoen eta sentsorialen integrazioa da. 3 zentro: bat Amorebieta-Etxanon eta bi Durangon.

- **Eguneko zentroak**. Ezindu fisikoentzat; euren garapen integrala sustatzen da, familia- eta gizarte-inguruarekiko harremanak galdu barik. Erakunde pribatuek eta publikoek kudeatzen dituzte. Bi zentro, Abadiñon eta Amorebieta-Etxanon.

- **Egoitzak**. Ezindu psikikoen laguntza integralerako eta sorospenerako; publikoak (adibidez, Elorrioko Zumelegi Egoitza, IFASek kudeatzen duena) eta ongintzako pribatuak (Abadiñoko Atxarte Egoitza, Gorabidek kudeatua) izan daitezke.

- **Okupazio zentroak**. Aipagarria da irabazi asmorik gabeko Gorabide elkarteak Lantegi Batuak izeneko tailerretan egiten duen lana; tailer horiek ezindu fisikoentzat dira eta lotura estua dute Abadiñoko egoitzarekin. Durangon ere zentro bat dago eta, bertan, udalerri horretako nahiz Iurretako pertsonei ematen zaie laguntza.

## Ezintasunak dituzten pertsonentzako zerbitzuak

| *ZENTROAREN IZENA* | *HELBIDEA* | *UDALERRIA* | *KUDEAKETA MOTA* |
|---|---|---|---|
| **ELKARTEAK** | | | |
| Ezindu Fisikoen eta Psikikoen Integraziorako Elkartea–EFPIE | Zelaieta parkea, z/g | Amorebieta-Etxano | Irabazi asmorik gabeko pribatua |
| Durangaldeko Gorren Elkartea | Pedro Pablo Astarloa, 1 | Durango | Irabazi asmorik gabeko pribatua |
| AFNE GEU BE | Bernardo Gabiola z/g | Durango | Irabazi asmorik gabeko pribatua |
| **EGUNEKO ZENTROAK-LANBIDE ZENTROAK-ENPLEGUKO ZENTRO BEREZIAK** | | | |
| Atxarte Eguneko Zentroa | Astola auzoa, 66 | Abadiño | Irabazi asmorik gabeko pribatua |
| Txibila Enpleguko Zentro Berezia | Murueta auzoa, 7 | Abadiño | Irabazi asmorik gabeko pribatua |
| Ezintasun Psikikoa duten Nagusien Okupazio Laguntzako Zentroa | Bruno Mauricio Zabala, 19 | Durango | Udalerriko publikoa |
| Lantegui-Batuak Enplegu Zentro Berezia | Biarritz industrialdea,41 | Amorebieta-Etxano | Pribatua |
| Down Sindromearen EAEko Fundazioa - Amorebieta | Nafarroa z/g | Amorebieta-Etxano | Pribatua |
| Nafarroa Eguneko Zentroa | Nafarroa z/g | Amorebieta-Etxano | Pribatua |
| **EGOITZAK** | | | |
| Atxarte Egoitza | Astola auzoa, 66 | Abadiño | Irabazi asmorik gabeko pribatua |
| Zumelegi Egoitza | Valentin Berriotxoa, 26 | Elorrio | Foru-publikoa |

Iturria: Bizkaiko Foru Aldundia. Gizartekintza Saila. Gizarte Zerbitzuen Bilduma 1997.

Ezintasunak dituzten pertsonentzako zerbitzuak




Laguntza bereziko zentroen helburua gizarte-larrialdiko egoerei arreta eskaintzea da, batez ere drogamenpekotasunari dagokionez. Alderdi horretatik, Durangoko Merindadeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak zentro bat dauka udalerri horretan, eta horrek zerbitzua ematen dio Eskualde Egitura ia osoari.

## Laguntza bereziko zerbitzuak

| *ZENTROAREN IZENA* | *HELBIDEA* | *UDALERRIA* | *KUDEAKETA MOTA* |
|---|---|---|---|
| **DROGAMENPEKOTASUNEN PREBENTZIORAKO ZENTROA** | | | |
| Durangoko Merindadeko Mankomunitateko Drogamenpekotasunen Prebentziorako Zentroa | Bruno Maria Zabala, 9 | Durango | Publikoa (Mankomunitat.) |
| Andikona Elkartea | Kanpatorrosteta, 9 | Durango | Irabazi asmorik gabeko pribatua |
| **ELKARTEAK** | | | |
| 'Zabaltzen' Gizarteratzeko Elkartea | Murueta Torre, 8 | Durango | Irabazi asmorik gabeko pribatua |
| **ZENTRO TERAPEUTIKOAK** | | | |
| Zeletabe Marjinatuen Errehabilitazioa | Zeletabe, 15 | Abadiño | Irabazi asmorik gabeko pribatua |
| Durangoko Gaixoei Laguntzeko Batza | Kalebarria, 42 | Durango | Irabazi asmorik gabeko pribatua |
| **BESTE ZENTRO BATZUK** | | | |
| Amorebietako Tailerra (Okupazio Heziketa) | Ogena, 10 | Amorebieta-Etxano | Irabazi asmorik gabeko pribatua |

Iturria: Bizkaiko Foru Aldundia-Diputacion Foral de Bizkaia. Gizartekintza Saila. Gizarte Zerbitzuen Bilduma 2007.

Laguntza bereziko zerbitzuak




Azkenik, DEEko udalerri nagusian bakarrik dago emakumearen laguntzarako berariazko zentro bat. Gainerako zentroak emakumeei aholkua emateko elkarteak dira, eta, horietan, aipagarria da alargunen elkarte kopuru handia; hain zuzen ere, Amorebieta-Etxanon, Berrizen, Elorrion eta Durangon bertan. Horrek agerian jartzen du EAEko gizarte zibilak elkartegintza maila altua duela. Bertan behera uztearen, tratu txarren eta abarren eraginezko premiazko beharrizanen laguntza, bestalde, zentro publikoen eta pribatuen sarearen bidez egiten da, eta sare hori Eskualde Egituratik kanpo kokaturik dago.

### Emakumeari laguntzeko zerbitzuak

| *ZENTROAREN IZENA* | *HELBIDEA* | *UDALERRIA* | *KUDEAKETA MOTA* |
|---|---|---|---|
| Amorebietako 'Udalen', Emakumearen Kultura Elkartea | Sabino Arana Elizalde, 2 | Amorebieta – Etxano | Irabazi asmorik gabeko pribatua |
| Zornotzako Emakume Alargunen Elkartea | Sabino Arana, 28 | Amorebieta - Etxano | Irabazi asmorik gabeko pribatua |
| Berrizeko Emakume Alargunen Elkartea | Urzabal, 9 | Berriz | Irabazi asmorik gabeko pribatua |
| Durangoko Emakume Alargunen Elkartea | Kanpatorrosteta, 9 (Gizarte Etxea) | Durango | Irabazi asmorik gabeko pribatua |
| Bortizkeriaren Aurkako Zerbitzu Espezializatuak | Bruno Mauricio Zabala, 9 | Durango | Udalerriko publikoa |
| Emakumearen Zerbitzua | Kurutziaga, 13 | Durango | Udalerriko publikoa |
| Elorrioko Emakume Alargunen Elkartea | Azpikoerrota | Elorrio | Irabazi asmorik gabeko pribatua |

Iturria: Bizkaiko Foru Aldundia. Gizartekintza Saial. Gizarte Zerbitzuen Bilduma 1997.

Agiri honetan adierazitako irizpideetan eta jarraibideetan oinarrituz (gizarte-zerbitzuen azpisektoreari eta ekipamemdu-sistemaren lurralde egiturari buruzkoak), honako jarduketa-ildo hauek planteatzen dira, zuzkidura sistema honek (biztanleriari zerbitzua emateko eta lurralde egituratzeko zuzkidura) bete behar dituen oinarrizko helburuak betetzeko:

1. **Gizarte-zerbitzuen udalerriz gaindiko oraingo antolamendua finkatzea,** Durangoko Merindadeko Mankomunitatean bertan ez dauden udalerriak sartzeko ahalegina eginez (Amorebieta-Etxano eta Berriz). Hala eta guztiz ere, gizarte-zerbitzuen udalerriz gaindiko antolamendu honek ez du toki mailako arreta deszentralizatua ekidin behar.
2. **Elkarteen, hirugarren adineko kluben eta etxeen oraingo sarea mantentzeko eta indartzeko ahalegina egitea.** Halako

ekipamenduak biztanleengandik hurbil egon behar dira eta, beraz, toki mailan eskaini behar dira.

3. **Adineko pertsonen egoitza-sare publikoaren eraketan aurrerapausoak ematea, oraingo plaza kopurua handituz.** Batez ere, erreferentziako gunean eta eskualdeko azpierreferentziako gune bakoitzean egongo dira, baldin eta halako ekipamendurik ez badute (Amorebieta-Etxano). Plaza publikoen eta pribatuen oraingo eskaintzak ez du ondo betetzen aurreikusitako eskaria; gainera, eskaintzaren zatirik handiena pribatua da eta horrek ez du bermatzen biztanle guztiei eskaini beharreko laguntza.
4. **Biztanleria-sektore jakinetarako (ezinduak, laguntza bereziko zentroak, emakumeak) zentro berezien sarea zabaltzeko eta osatzeko ahalegina egitea.** Eskualdeko erreferentziako eta azpierreferentziako guneak izango dira zentro bakoitzaren oinarriak, eta eskaintza zabala eta osagarria egiten saiatu behar da, Durangoren, Amorebieta-Etxanoren eta Elorrioren artean banatuta.
5. **Elkartegintzak gizarte zibilean duen eginkizun garrantzitsua indartzea.** Izan ere, horrek indartu egiten du sistema eta, gainera, toki mailarekiko lotura handia ematen dio.

### 11.2.4.4 Kirol- eta kultura-ekipamendua.

EAE-LAAk kirol- eta kultura-ekipamenduei buruz dituzten planteamenduetan, oinarrizko bi baldintza ezartzen dira, lurralde-planifikaziotik sorturiko proposamenak euskarritzeko:

1. Kultura- eta kirol-ekipamenduan egiten den inbertsioa (oro har, aisialdirako eta jolasaldirako zuzkidura-eskaintza handitzeko inbertsio osoa) estrategikoa da Lurralde Ereduaren aldaketan.
2. Kultura ekipamendua (baita kirolekoa ere) koordinatu egin behar da ikastetxeen lurralde-antolamenduarekin, batez ere udalerri eta eskualde mailan.
3. Bi zuzkidura mota horiek turismo-jarduerarako erreferenteak izango dira.

Horren arabera, zuzkidura-sistema hau funtsezko bi baldintzetan oinarrituz antolatu behar da:

1. Lurraldeko Eskualde Egiturak beharrezko kirol- eta kultura-ekipamendu guztiak eduki behar ditu, hiritarren barne-kontsumorako, eta udalerri eta eskualde mailako eskaintza egokia egin behar du.
2. Halaber, DEE kanpora irekitzeko estrategiak, besteak beste, kultura- eta kirol-eskaintza berezia sortzean eta baloratzean euskarritu behar dira, eta horrek nazio-erakarpenerako gaitasuna izango du.

DEEko kirol- eta kultura-baliabideen eta antolamenduaren azterketatik eta diagnostikotik ondorioztatzen denez, oinarri nahikoa dago planteamendu horiek lantzeko, eta ekintza osagarri batzuk baino ez dira behar, bai ekipamenduen zuzkidura fisikoaren arloan eta bai, batik bat, horien lurralde antolamenduan.

Tokiko biztanleei zuzendutako kultura-baliabideei dagokienez, honako hauek bereizi behar dira: alde batetik, jardueren programazio nahiz instalazio mailaren earginez udalerriz gaindikoak izan behar direnak, eta, bestetik, eskalarik egokiena udalerrian dutenak. Eskualdeko edo eskualdetik beherako maila duten ekipamenduen artean, bi instalazio mota aztertuko ditugu: kultura-etxeak eta euskaltegiak.

Eskualde Egiturako udalerririk garrantzitsuenetan (5.000 biztanletik gorako guztietan), zuzkidura oneko kultura-espazioak daude, euren eragin-aldeen kultura-ekintzako lan egokia sustatzeko. Erabilera anitzeko espazioak dira eta horietan bizikidetza sustatzen da, era askotako jardueren bitartez: erakusketa-aretoak, liburutegiak, tailerrak, heziketa-zentroak, proiekzio-aretoak, antzerki-tailerrak, etab.

**Kultura-etxeak.**

| ***IZENA*** | ***HELBIDEA*** | ***UDALERRIA*** |
|---|---|---|
| Abadiñoko Kultur Etxea | Txanporta plaza, z/g | Abadiño |
| Iurretako Kultur Etxea | Bidebarrieta 4 | Iurreta |
| Zornotza Udal Kultur Etxea | Zelaieta parkea, z/g | Amorebieta-Etxano |
| Eraikitzen | | Zaldibar |
| Arriola Kultur Aretoa | Elizburu, 3 | Elorrio |

Iturria: www.euskadi.net/kultura, www.guiabizkaia.com

Kultura-etxeak



Euskaren erabilera eta normalizazioa sustatzeak, helduak euskalduntzearen eta alfabetatzearen bidezkoak, zentroak ditu udalerririk gehienetan, bai udal-zentroak (Amorebieta-Etxano, Durango) eta bai zentro homologatuak dituzten erakunde pribatuak (Abadiño, Elorrio, Iurreta, Zaldibar).

***EUSKALTEGIAK***

| ***IZENA*** | ***HELBIDEA*** | ***UDALERRIA*** | ***MOTA*** | ***IKASLE KOPURUA*** |
|---|---|---|---|---|
| Abarrak Aek | Matienako Udal Lokalak | Abadiño | Homologatua | 313* |
| Abarrak Aek | | Amorebieta-Etxano | Homologatua | 313* |
| Amorebieta-Etxanoko U.E. | San pedro Kalea, 5 | Amorebieta-Etxano | Publikoa | 199 |
| Zornotzako Barnetegia | Larrea Auzoa, z/g. | Amorebieta-Etxano | Homologatua | 944 |
| Abarrak aek euskaltegia | Pinondo, 3-2 A | Durango | Homologatua | 313* |
| Durangoko U.E. | Astarloa, 1-3 | Durango | Publikoa | 274 |
| Elorrioko Abizari Aek | San Juan, 21 | Elorrio | Homologatua | 180 |
| Abarrak Aek | | Iurreta | Homologatua | 313* |
| Abarrak Aek | | Zaldibar | Homologatua | 313* |

* Zentroko ikasle kopuru osoa, lokal guztietan
Iturriak: www.ikasbil.net, www.aeknet.net

Toki-eskalako baliabideei dagokienez, erreferentziako ekipamenduak udal-liburutegiak dira; erabateko sarea osatzen dute eta horrek Eskualde Egiturako ia udalerri guztietan dauka presentzia. Inprimaturiko informazioaren erabilerari loturiko jarduerak sustatzeko eta hedatzeko ez ezik, gizarte- eta kultura animazioko eta erlazioko lekuak ere badira. Zenbait kasutan, kultura-erabilera beste helburu batzuekin partekatzen duten eraikinetan egoten dira.

## Liburutegiak eta Dokumentazio Zentroak.

| ***IZENA*** | ***HELBIDEA*** | ***UDALERRIA*** |
|---|---|---|
| Monseñor Vizcarra U.L. | San Trokaz plaza, z/g | Abadiño |
| Durangoko Merindadeko Lagunak Dokumentazio Zentroa | Artolako Auditorio Etxea | Abadiño |
| Udal mediateka | Zelatabe, 10 | Abadiño |
| Errotako Kultur Etxea | Laubideta, 22 | Abadiño |
| Amorebieta-Etxanoko U.L. | Zelaieta parkea, z/g | Amorebieta-Etxano |
| Atxondoko U.L. | Foru plaza,1 | Atxondo |
| Berrizeko U.L. | Arkaraz,2 | Berriz |
| Durangoko U.L. | Kurutziaga,13 | Durango |
| San Valentín de Berrio Otxoa U.L. | Berrio Otxoa,13 | Elorrio |
| Iurretako U.L. | Bidebarrieta, 4 | Iurreta |
| Izurtzako U.L. | Eleizalde,20 | Izurtza |
| Kirikiño Kultur Aretoa | Kirikiño,12 | Mañaria |
| Zaldibarreko U.L. | Autonomia, z/g | Zaldibar |

Iturria:
www.kultura.ejgv.euskadi.net

**Artxibategiak, liburutegiak eta dokumentazio-zentroak**



Eskaintza bereziari dagokionez, kultura-eskaintza berezia duen udalerri bakarra Durango da, eta horren eragin-aldeak gainditu egiten ditu udalerria eta Eskualde Egitura. Bigarren lerrunekoa dela esan daiteke, Bizkaiko hirien artean, kultura-interesa aintzat hartuta. Hirigune historiko interesgarria eta eraikin interesgarri asko ditu, bai erlijiosoak (Uribarriko Andre Maria, Santa Ana parrokia, Tabirako San Pedro eliza), bai zibilak (Udaletxea, Zabala jauregia, Etxezarreta jauregia, Olalde jauregia); gainera, Durangoko Arte eta Historia Museoa dauka. Eskualde Egiturako gainerako udalerrien artean, benetako hirigune historikoa duen bakarra Elorrio da eta monumentu-interesekotzat izendatuta dago, Durangoko hirigune historikoa bezala.

Kirol-ekipamenduei dagokienez, DEEko instalaziorik gehienak zuzkidurakoak dira, eta ia guztiak zonako biztanleria osoari zuzenduta daude. Alderdi horretatik, aipagarria da ikuskizun-kirolaren praktika Durangoko frontoira mugatzen dela. Instalazio batzuek, era berean, beharrezko maila teknikoa dute goi-lehiaketaren praktikara egokitzeko (adibidez, Berrizko eskualde-belodromoa). DEEko kirol-eskaintzaren zatirik handiena, hala eta guztiz ere, aisialdiko kirola garatzek instalazioek osatzen dute, eta horietan gizarte eta kultura mailako beste jarduera batzuk ere egiten dira; esate baterako, eskola-instalazioak ikastetxeetako hezkuntza-programaren barruan sartzen dira.

Oraingo baliabideak sailkatzeko, instalazioak zenbait taldetan banatu ahal dira:

***a)*** **Polikiroldegiak.** Funtzio anitzeko multzo hauetan, kirol-modalitate desberdinak egin daitezke aldi berean, eta gainera, zerbitzu osagarriak ere badituzte (kafetegia, aparkalekuak). Zentro horien kudeaketa gehienetan publikoa izaten da eta euren funtzionamendua antolatzen du, instalazioen aprobetxamendua hobetzeko, ikastaroen eta beste jarduera batzuen bitartez. Zenbait kasutan, elkarte pribatuek ere badituzte halako instalazioak. Horien helburua eskualde mailako lerruna eta eragina duten ekipamenduak izatea da, udal-kudeaketaren eremua gaindituta.

**b)** **Estalitako instalazioak.** Gimnasioak, polikiroldegi-aretoak, frontoiak, etab. Oro har, erabilera bakarreko espazioak dira; izan ere, jarduera anitzak egiteko prestaturik egon arren, gehietan horiek ez dira aldi berean egiten. Frontoiak ia udalerri guztietan daude, baina polikiroldegi-pistak edo estalitako aretoak ez, horiek gehienbat biztanle kopururik handieneko udalerrietako ikastetxeetan baitaude.

c) **Estali gabeko instalazioak.** Gehienak futbol-zelaiak, baina polikiroldegi-pistak eta oinarrizko frontoiak ere bai. Espazio horietariko gehienek udal-titulartasuna dute.

d) **Herri-kirolak.** Aretoko kirolek (euskal pilota, boloak) eta landa-oroipen handiagokoek instalazio kopuru handia dute, sofistikazio maila desberdinarekin. Frontoia-probalekua binomioa konbinaziorik ohikoena da, biztanlegunerik gehienetako kirol-zuzkiduren artean.

**Udalerriz gaindiko polikiroldegiak eta instalazio bereziak**



## Udalerriz gaindiko polikiroldegiak eta instalazio bereziak

| *IZENA* | *HELBIDEA* | *UDALERRIA* | *KUDEAKETA MOTA* | *INSTALAZIOAK* |
|---|---|---|---|---|
| Abadiañoko polikiroldegi-elkartea | Arrankarru auzoa | Abadiño | Pribatua | Frontoi estalia<br>Igerilekuak<br>Polikiroldegi-pista |
| Larreako polikiroldegia | Larrea auzoa, z/g | Amorebieta-Etxano | Udalekoa | Igerilekuak<br>Estalitako aretoak<br>Atletismo-pista<br>Futbol-zelaia |
| Udal-instalazioak | Gane auzoa | Amorebieta-Etxano | Udalekoa | Frontoia<br>Polikiroldegi-pista<br>Teniseko pistak<br>Igerilekuak |
| Udal igerilekuak | Apatamonast. auzoa, 19 | Atxondo | Udalekoa | Igerilekuak |
| Learreta-Markinako polikiroldegia | Learreta | Berriz | Udalekoa | Estalitako aretoak<br>Frontoia |
| Udal instalazioak | Berriz-Buru | Berriz | Udalekoa | Polikiroldegi-pista<br>Atletismo-pista |
| Durangaldeko eskualde-belodromoa | Berriz-Buru | Berriz | Kiroleko kluba edo elkartea | Belodromoa |
| Berriz-Buro futbol-zelaia | Berriz-Buru | Berriz | Kirol-federazioa | Futbol-zelaia |
| Tabirako polikiroldegia | Tabira auzoa, z/g | Durango | Udalekoa | Igerileku klimatizatuak eta kanpokoak<br>Polikiroldegi-kantxa |
| Landako kirol-zona | Landako auzoa | Durango | Udalekoa | Polikiroldegia<br>Errugbi-zelaia<br>Futbol 7<br>Bidegorria |
| Jai-Alai frontoia | Ezkurdi auzoa, 6 | Durango | Udalekoa | Estalitako frontoia (tresna guztiak) |
| Udal-polikiroldegia | Nizeto Urkizu, z/g | Elorrio | Udalekoa | Igerilekuak<br>Frontoia<br>Squasha<br>Polikiroldegi-pista<br>Estalitako aretoa |

Iturria: KIROLEKO GOI KONTSEILUA: *II Kirol Instalazioen Errolda Nazionala 1997* (2007/04/20an gaurkotuta).
http://www.csd.mec.es/infraestr/CensoCSD/home.asp;
www.bizkaia.net.

EAE-LAAk planteaturiko eta ekipamendu-sistemaren lurralde-egiturari buruzko agiri honetan adierazitako estrategietan oinarrituz, honako jarduketa-ildo hauek planteatzen dira, kiroleko eta kulturako zuzkidura-sistemak bete behar dituen oinarrizko helburuak betetzeko, bai biztanleei zerbitzua emateari eta bai lurraldea egituratzeari dagokionez:

1. **Kultura- eta kirol-eskaintza publikoa eta eskualdekoa/azpieskualdekoa sustatu behar da, adierazitako erreferentziako/azpierreferentziako gune guztietan (Durango, Amorebieta-Etxano eta Elorrio).** Eskaintza hori, funtsean, honako ekipamendu hauek osatuko dute: kultura-etxea, euskaltegia eta polikiroldegia. Halako ekipamenduetarako mailarik egokiena udalerria da, baina hori nekez gauzatu ahal da, DEEko ezarkuntzen egitura aintzat hartuta, bertako udalerriak biztanle kopuru txikikoak baitira.
2. Aurrekoari dagokionez, **halako ekipamenduen funtzionamendu mankomunatua ezartzeko ahalegina egin behar da**, euren sofistikazio mailaren eta kudeaketa euskarritzeko antolamendua behar izatearen eraginez DEEko udalerririk gehienen eskuetatik kanpo gelditzen baitira.
3. Goiko jarduketa-ildoen garapena honako beharrizan hauetan zehazten da:
   a. Euskaltegi publikoa Elorrion. Orain dagoena pribatua da.
   b. Kultur Etxea Durangon
4. **Liburutegien oinarrizko udal-sarea osatu behar da,** Garain halako ekipamendua eginda.
5. **Oraingo kirol- eta kultura-zuzkidurek ikastetxeekiko integrazio funtzionala izan behar dute.** Eskualdeko erreferentziako gunea (Durango-Iurreta-Abadiño-Izurtza) Berrizkin batera baita azpieskualdeko erreferentziako guneek egituratu egin behar dute DEE, zuzkidura-eskaintza integratua planteatuz (hezkuntza-kirola-kultura). Eskaintza horren integrazioak mesede egin behar dio oinarrizko kultura- (liburutegiak) eta kirol-instalazioen errentagarritasunari, gutxien erabiltzen diren ordutegietan eta egunetan (aste bitartean, goizeko ordutegian eta arratsaldeko lehenengo orduetan); aldi berean, hobetu egin behar dituzte ikastetxeetako baliabide erabilgarriak.
6. **Eskualdearen irudia sustatu behar da, kultura- eta kirol-eskaintza berezia eginez.** Durango, alderdi horretatik, DEEko benetako hiriburu bakarra izan behar da, bertako kultura-eskaintza berezian oinarrituz.

### 11.2.4.5 Udalez gaindiko eta eskualdeko ekipamenduak

Zuzkiduren eskaintzaren egituraketa zuzenaren bidez beharrizanei zerbitzua ematea ez ezik, LZPk udalez gaindiko izaera duten ekipamendu singular batzuk proposatu ditu, kasu batzuetan eskualdez gaindikoak ere badirenak.

Proposamen horiek atal honetan agertzen dira jasota oinarrizko ekipamenduak direlako, eta hori horrela da LZP honek antolatzen dituen beste esparru batzuetan duten eragina gorabehera, eta hori da, adibidez, inguru naturalaren edo jarduera ekonomikoen lurzoruen kasuan berriz ere esparru horiek lurralde antolamenduaren barruan jasotzeko beharrizana dagoenean.

Beste alde batetik, egon dauden udalez gaindiko ekipamendu moduan, 7.2. planoan, hiri kalitaterako lurralde ekimenak. Ekipamenduak, deritzonean Durangoko azoka eta Urkiolako Parkeko Interpretazio Zentroa azaltzen dira.

Proposatu diren jarduketen artean ondoko hauek daude:

**Parke zientifikoa eta prestakuntza esparrua**

Bidekotzat jo da alde funtzionalaren maila honetan prestakuntza esparrua eta parke zientifikoa ekipamendua sartzea, hau da, Energia Berriztagarriei eta Ingurumenaren Kontrolerako Sare bati lotuta. Nahiz eta horien kokapena independentea izan daitekeen LZP honek horien planteamendu erkidea proposatzen du Abadiñoko udal mugarteko lurretan, hau da, Durangoren ondoan daudenetan. Horrela aukera egongo litzateke prestakuntza eta ikerkuntzaren sinergiak aprobetxatzeko prestakuntza–enpresa erlazioa bideratuz eta erraztuz.

**Energia Berriztagarrien Poloa eta Ingurumenaren Kontrolerako Sarea**

Bi hauek ikerkuntzaren arlokoak dira eta aukera ematen dute uztartzeko eta prestakuntza esparruaren eta parke zientifikoaren atal moduan sartzeko. Beste alde batetik, industri inguru baten kokatzen dira eta horrek lehiatzeko abantaila eskaintzen die eskualdeko industriei eta aukera ematen du ezagutza

transferitzeko EAEko gainerako arloari horien kokapen geografiko estrategikoari esker.

Sustatu egingo da eskualdeko askotarikotasun sektoriala, gaur egun zati handi baten automozioan jarduten duena.

**Ibai Sistema Paisajistikoa**

LZPk Ibai Sistema Paisajistikoaren proposamen bat planteatu du, hau da, paisaiara iristeko elementu moduan ibaien tarteak lehengoratzen lagunduko duena, beti ere elementu horiek duten balore ekologiko eta ingurumeneko baloreagatik behar duten babesa ahaztu gabe.

Proposamen hori Ibaizabal, Zumelegi, Zaldua eta Mañaria ibaien tarte ertainetan zehazten da. Horien guztien ezaugarria da meandro asko edukitzea eta euren ertzetan nabarmena izan delako azalera galera; halaber, gaur egun ez dago euren arteko konexiorik eta, kasu batzuetan, narriatuta daude. Hori gorabehera balore ekologiko, paisajistiko eta bioklimatiko nabarmenak artatzen dituzte.

Ibai Sistema Paisajistikoaren barruak ibaia eta bere ertzak sartzen dira, eta baita ingurumeneko interesa duten hiri aldietako zelaiak eta zelai horiek batzen dituzten ibaien arteko ibilbide paisajistikoa ere.

## 11.3 Kultura-ondarearen antolamendua.

LAAk adierazitakoaren arabera, garrantzi handikoa da kultura-ondarea kontserbatzea, herrien nortasuna adierazteko elementutzat; helburuen artean, EAEko Kultura Ondarea babestea eta defendatzea aipatzen dira.

Horretarako, EAEko Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legean babestu behar diren ondareak ezartzen dira, baita bakoitzaren babes maila ere.

Lege horretan, honako sailkapen hau ezartzen da EAEko Kultura Ondarearen barruko ondasun guztietarako:

a) Kalifikaturiko Ondasunak. Halakoen babesak interes publikoa dauka, euren garrantzia eta balio berezia aintzat hartuta, baldin eta halakotzat hartzen badira 7/1990 Legean ezarritako prozeduraren arabera; Kalifikaturiko Kultura Ondasunen Erregistroan agertu behar dira.
b) Inbentarioko Ondasunak. Kalifikaturiko ondasunei eratxikitzeko moduko garrantzi edo balio berezirik izan ez arren, EAEko kultura-ondarearen barruko elementuak dira eta halakotzat jasota daude, 7/1990 Legean ezarritako prozeduraren arabera; EAEko Kultura Ondarearen Inbentario Orokorrean inskribaturik daude.

EAEko Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legean ezarritakoaren arabera, EAEko kultura-ondarea osatzen duten ondasunak (kalifikaturikoak edo inbentariokoak) honako kategoria hauetarikoren batean sartzen dira:

a) Monumentua, hau da, banaka hartuta kultura-interesa duen edozein ondasun higigarri edo higiezin.
b) Monumentu-multzoa, hain zuzen ere, kultura-unitate bat osatzen duten ondasun higigarrien edo higiezinen multzoa.
c) Kultura-espazioa, hau da, igaraneko lekuek, jarduerek, sorkuntzek, sinesmenek, tradizioek edo gertaerek osatzen dutena, horiek EAEko kulturari eta bizimoduei lotuta daudenean.

LZPk, Lurralde Antolamendurako Tresnatzat, 7/1990 Legeak Babesturiko Kultura Ondasunak jasotzen ditu, EAEko Kultura Ondarea osatzen dutenak, udaleko eta garapeneko planeamenduek aintzat har ditzaten. Halaber, halakotzat hartuko dira lege horrek etorkizunean babestu ahal dituenak, LZP honetan jasota egon ez arren.

Bestalde, LZPk beste elementu interesgarri batzuen kontserbazioa sustatzen du; izan ere, bere ustez, elementu horiek lagungarriak izan daitezke Eskualde Egiturako aberastasuna sustatzeko, bisitarientzat elementu erakargarriak baitira.

### 11.3.1 7/1990 Legean oinarrituriko kultura-ondarea.

7/1990 Legeko Kultura Ondarean honako hauek daude jasota: Ondasun Higiezinak, Hondasun Higigarriak, Arkeologia Ondarea, Etnografia Ondarea, Ondare Dokumentala eta Ondare Bibliografikoa.

LZP honek Ondasun Higiezinak eta Arkeologia Ondarea ikertzen ditu, eta azken horren barruan, aldi berean, Arkeologia Zonak eta Arkeologia Ustezkotasuneko Zonak sartzen dira.

#### a. Ondasun higiezinak.

Balio historiko, artistiko, antropologiko, urbanistiko, tipologiko edo tekniko nabariak dituzten eraikinak, espazioak, arkitektura-lanak eta eraikuntzak dira.

Durangoko Eskualde Egituran, ***monumentu*** kategoriako Kultura Ondasun higiezin hauek daude jasota.

7/1990 Legea onetsi aurreko izendapenarekin:

| | | |
|---|---|---|
| Muntxaraz dorrea (Abadiño) | Kalifikatua | EHAA 1984-08-04 |
| Abadiñoko udal-hilerria | Kalifikatua irekia | EAO 1980-10-31 |
| Argiñetako hilobiak (Elorrio) | Kalifikatua | EHAA 1984-8-4 |

7/1990 Legea onetsi osteko izendapenarekin:

| | | |
|---|---|---|
| Kurutziagako gurutzea (Durango) | Kalifikatua | EHAA 2003-12-17 |

Durangoko Eskualde Egituran, ***monumentu-multzo*** kategoriako Kultura Ondasun higiezin hauek daude jasota.

7/1990 Legea onetsi aurreko izendapenarekin:

| | | |
|---|---|---|
| Iurretako Goiuria auzoa | Kalifikatua irekia | EAO 80-11-4 |

7/1990 Legea onetsi osteko izendapenarekin:

| | | |
|---|---|---|
| Durangoko hirigune historikoa | Kalifikatua | EHAA 97-1-30 |
| Elorrioko hirigune historikoa | Kalifikatua | EHAA 98-5-29 |

### b. Arkeologia-ondarea.

EAEko arkeologia-ondarea, 7/1990 Legearen arabera, historiaren, artearen, hirigintzaren, etnografiaren, zientziaren, teknikaren eta gizartearen aldetik duten balioaren eraginez kultura-interesekoak diren ondasun higigarriek eta higiezinek osatzen dute, babesa eta defentsa merezi duten ondasunek, eta, horien ikerketarako, arkeologiako metodologia aplikatu behar da.

#### i Arkeologia-zonak

*Arkeologia Ondarearen barruan,* ***monumentu-multzo*** *kategoriarekin,* honako hauek daude:

Durango Hiribilduko Arkeologia Zona (irailaren 26ko 428/1995 Dekretua). Dekretuan bi eremu bereizten dira:

**1. eremua**: Erdi Aroan sortutako hiribildua (XIII. mendea)
**2. eremua**: Ondorengo hazkundeak (XV. eta XVI. mendeak)
San Agustin komentua
San Francisco komentua
Santa Susana komentua
Vera Cruz baseliza
Magdalena baseliza-ospitalea
Santanoste dorretxea (8. zenb.)

Elorrioko Hiribilduko Arkeologia Zona (martxoaren 10eko 37/1998 Dekretua). Dekretuan bi eremu bereizten dira:

**1. eremua**: Erdi Aroan sortutako hiribildua (XIII. mendea)
**2. eremua**: Zabalguneei loturiko ondorengo hazkundeak
Etxebarriako San Agustin eliza
Sortzez Garbia eliza
Berriotxoako Balentin, 5. zenb. (Urkizu jauregia)

Oizko Estazio Megalitikoa. (25/2009 Dekretua, otsailaren 3koa).
Dekretuan 6 monumentu megalitiko ezrtzen dira, euren arteko lau daude eskualde honetan, Berrizko udalerrian:
Ama Birginen Baso (Markinen Baso) trikuarria
Iturzurigana trikuarria

Ama Birginen Baso II tumulua
Ipiñarrieta (Kortabarri) tumulua

Urkiolako Estazio Megalitikoa. (25/2009 Dekretua, otsailaren 3koa).
Dekretuan 2 monumentu megalitiko ezrtzen dira, euren arteko bakarra dago eskualde honetan, Abadiñoko udalerrian:
Saiputzueta trikuarria

### ii Arkeologia Ustezkotasuneko Zonak

EAEko Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legeko 49. artikuluan adierazitakoaren arabera, Arkeologia Ondarearen barruan ustezkotasun arkeologikoa duten zonen kategoria ezartzen da, aztarna arkeologikoak izan ditzaketen zonetarako, orubeetarako edo eraikinetarako; jabeak edo obren sustatzaileak orubearen nahiz eraikinaren arkeologia-balioari edo horrek obra-proiektuan izan dezakeen eraginari buruzko ikerketa aurkeztu behar du.

Arkeologia-ustezkotasuneko zonak, orubeak zein eraikinak adierazteko nahiz mugatzeko araubidea eta horien arkeologia-balioari buruzko ikerketaren edukiak (Legeko 49. artikuluan ezarritakoa), bestalde, urriaren 8ko 234/1996 DEKRETUaren bidez ezarri dira.

LZPn Euskal Autonomia Erkidegoko arkeologia-ustezkotasuneko zonak daude jasota, 1997ko maiatzaren 5eko Ebazpenaren eta 1997ko azaroaren 5eko Ebazpenaren bidez izendaturiko zonak.

## Arkeologia-ustezkotasuna duten zonen zerrenda.

Babes-eremuen tipologiak.

A gakoa: Eraikineko horma barruko eremua.

B gakoa: Eraikineko horma barruko eremua + horren inguruko 15 metro, kanpoaldeko ertzetatik hasita.

C gakoa: Elementuak okupatzen duen eremua + 5 metro horren inguruan, kanpoaldeko ertzetatik hasita.

D gakoa: Eraikinak eta horri erantsitako instalazioek okupaturiko eremua.

E gakoa: Planoan adierazitako eremua.

## 1. Abadiño

Kultura, Gazteria eta Kiroleko Sailburuordeak 1997ko maiatzaren 5ean emandako Ebazpenaren bidez izendatuta. 1997ko maiatzaren 27ko EHAA

1. Albizteiko kobazuloa (C)
2. Urkiolako de San Anton baseliza (A)
3. Olaetxe burdinola (orain baserria) (D)
4. Zelaikoa baserria (A)
5. Bengoa baserria (A)
6. Ormaetxe baserria (A)
7. San Lorenzo baseliza (ageriko egitura barik)
8. Santa Agueda baseliza (ageriko egitura barik) (E)
9. San Vicente tenplua eta nekropolia (B)
10. Betosolo baserria (A)
11. Arbetxe baserria (A)
12. Irazolako Santa Eufemia tenplua eta nekropolia (B)
13. Irureko San Miguel tenplua eta nekropolia (ageriko egitura barik) (D)
14. Muntzaraz dorretxea (D)
15. Olakua burdinola (A)
16. San Torcaz eliza (B)
17. Abadianoko dorrea (A)
18. Gazteluako San Martin tenplua eta nekropolia (B)
19. Lebarioko burdinola (D)
20. Esterripaola burdinola (D)

21. Geregiagako San Salvador baseliza (B)
22. Murueta burdinola (ageriko egitura barik) (E)

## 2. Amorebieta-Etxano

Kultura, Gazteria eta Kiroleko Sailburuordeak 1997ko maiatzaren 21ean emandako Ebazpenaren bidez izendatuta. 1997ko ekainaren 16ko EHAA

1. Belatxikietako kobazuloa (C)
2. Bernako dorrea (A)
3. Bernako burdinola (D)
4. Bernagoitiako dorrea (A)
5. Zugaza Goikoa baserria (A)
6. Saratzuko San Pedro tenplua eta nekropolia (B)
7. Santa Cruz baseliza (A)
8. Belaustegiko dorretxea (E)
9. Goiti baserria (A)
10. Zamalloa Erdikoa baserria (A)
11. Aranoako San Martin baseliza (B)
12. Dudeako San Miguel tenplua eta nekropolia (B)
13. Ibarrako dorretxea (orain baserria) (A)
14. Ibarrako burdinola (ageriko egitura barik) (E)
15. Jauregizaharra orube-etxea (ageriko egitura barik) (E)
16. Andrandegiko dorrea (baserria) (A)
17. Legarribai burdinola (D)
18. Jasokundearen Andre Mariaren tenplua eta nekropolia (B)
19. Alakano Menkoa baserria (A)
20. Gizetxe Goikoa baserria (A)
21. Sabuen errota (D)
22. Ugarte burdinola (ageriko egitura barik) (D)
23. Larreako dorretxea (ageriko egitura barik) (E)
24. Larreako San Joan Bataiatzailea baseliza (komentua) (A)
25. Ospitalea (ageriko egitura barik) (E)
26. Etxakosinaga burdinola (ageriko egitura barik) (D)
27. Olabarria burdinola (ageriko egitura barik) (D)
28. Solagureneko San Joan Bataiatzailea baseliza (B)

29. Zabala Goikoa baserria (A)
30. Boroako San Pedro tenplua eta nekropolia (B)
31. Garai baserria (A)
32. Elexagako San Pelayo baseliza (ageriko egitura barik) (E)
33. Gumuzioko San Joan baseliza (orain korta) (A)
34. Astepe burdinola (ageriko egitura barik) (E)
35. Amorebietako burdinola (ageriko egitura barik) (E)
36. Jasokundeko Andre Mariaren eliza (B)
37. Amorebietako dorretxea (ageriko egitura barik) (orain Cancelada jauregia) (E)
38. Amorebietako errota (ageriko egitura barik) (E)
39. Leginetxeko Santa Lucia baseliza (ageriko egitura barik) (E)
40. San Vicente Martiria tenplua eta nekropolia (B)
41. Nafarroa errota (ageriko egitura barik) (E)
42. Beaskoetxea baserriko zeramika-labea (D)

## 3. Atxondo

Kultura, Gazteria eta Kiroleko Sailburuordeak 1997ko maiatzaren 5ean emandako Ebazpenaren bidez izendatuta. 1997ko maiatzaren 29ko EHAA

1. Ziarreta baserria (A)
2. San Pedro eliza eta nekropolia (B)
3. Marzanako San Martin eliza (A)
4. Marzana dorrea (A)
5. Santa Lucia tenplua eta nekropolia (B)
6. Olazarra burdinola (ageriko egitura barik) (E)
7. Santiago baseliza (B)
8. Urrutia baserria (A)
9. San Miguel Arkanjelua eliza (A)
10. Ollargane baserria (A)
11. San Roque baselizatik hurbileko burdinola (ageriko egitura barik) (E)
12. Olabarriako dorretxea/burdinola (A/D)
13. Arrazolako dorretxea (orain baserria) (A)

## 4. Berriz

Kultura, Gazteria eta Kiroleko Sailburuordeak 1997ko urriaren 27an emandako Ebazpenaren bidez izendatuta

1. Jainkoaren Jasokunde baseliza (B)
2. Arriako dorretxea (A)
3. Arriako burdinola (E)
4. Zalduene baserria (A)
5. Andikonako Andre Maria tenplua eta nekropolia (E)
6. Andikona baserria (A)
7. 11. Beaskoetxea burdinola (D)
8. Larizeko dorrea (A)
9. Abaitua burdinola (D)
10. Lasuengo San Martin baseliza (E)
11. Berrizeko dorrea (E)
12. San Joan Ebanjelaria eliza (B)
13. Berrizeko San Pedro baseliza (B)
14. Murgoitioko San Joan tenplua eta nekropolia (E)
15. Zubiazpikoa burdinola (D)
16. Abaro burdinola (ageriko egitura barik) (D)
17. Arangureneko San Fausto baseliza (ageriko egitura barik) (E)
18. Amezuako San Jorge baseliza (ageriko egitura barik) (E)
19. Isuntzako San Pedro tenplua eta nekropolia (B)
20. Argizuri baserria (A)
21. Olabarri burdinola (E)
22. Olazarra burdinola (D)
23. Erroteta burdinola (D)

## 5. Durango

Kultura, Gazteria eta Kiroleko Sailburuordeak 1997ko maiatzaren 21ean emandako Ebazpenaren bidez izendatuta

1. Portal del Olmedal errota (ageriko egitura barik) (E)
2. Muruetako dorrea (orain baserria) (A)

3. Mikeldiko burdinola (D)
4. Tabirako San Pedro (A)
5. Aranekola burdinola (D)
6. Zuazolako Santa Cruz baseliza (orain baserria) (A)
7. Santa Lucia baseliza (orain baserria) (A)

## 6. Elorrio

Kultura, Gazteria eta Kiroleko Sailburuordeak 1997ko maiatzaren 5ean emandako Ebazpenaren bidez izendatuta

1. Ossako errotak (ageriko egitura barik) (E)
2. San Fausto baseliza (A)
3. Santa Elena baseliza (ageriko egitura barik) (E)
4. Ibarrako dorretxea/errota (A/D)
5. Ibargueneko dorretxea (orain Torre baserria) (A)
6. Aldekonagusi baserria (A)
7. San Vicente baseliza (ageriko egitura barik) (E)
8. Urbelekua baserria (A)
9. Isuarte baserria (A)
10. Berrio baserria (A)
11. San Esteban baseliza (B)
12. Urigarai baserria (A)
13. Santiago baseliza (B)
14. Azkarraga burdinola (orain baserria) (D)
15. Errotatxiki /Aretzaga errota (D)
16. Arregi baserria (A)
17. Zuizar baserria (A)
18. Igartua baserria (A)
19. Zabalekua baserria (A)
20. Santa Lucia baseliza (A)
21. Santa Catalina tenplua eta nekropolia (B)
22. Santa Eufemia tenplua eta nekropolia (B)
23. Arabio Goikoa dorretxea (A)

## 7. Garai

Kultura, Gazteria eta Kiroleko Sailburuordeak 1997ko maiatzaren 5ean emandako Ebazpenaren bidez izendatuta

1. Etxeita baserria (A)
2. Bekoetxea dorretxea (A)

## 8. Iurreta

Kultura, Gazteria eta Kiroleko Sailburuordeak 1997ko maiatzaren 21ean emandako Ebazpenaren bidez izendatuta

1. Olabarri burdinola (D)
2. Galarza baserria (A)
3. Orobio Goikoa baserria (A)
4. Artaza baserria (A)
5. Erdikola burdinola (D)
6. Trazaola baserria (A)
7. Etxebarria burdinola (D)
8. Gastañazako San Cristobal edo San Antonio tenplua eta nekropolia (B)
9. Jasokundeko Andre Mariaren tenplua eta nekropolia (B)
10. Ametzako San Martin tenplua eta nekropolia (B)
11. Garaizarreko San Mames tenplua eta nekropolia (B)
12. San Miguel eliza (A)
13. Bekolea burdinola (ageriko egitura barik) (E)
14. Goikolea burdinola (ageriko egitura barik) (E)
15. Zubiko errota (D)
16. Santa Apolonia baseliza (B)
17. Arandiako dorrea (orain baserria) (A)
18. Arandiako burdinola (D)
19. Orozketa-Bekoa baserria (A)
20. Orozketako Santiago tenplua eta nekropolia (B)
21. Gaztañaza dorrea (ageriko egitura barik) (E)

## 9. Izurtza

Kultura, Gazteria eta Kiroleko Sailburuordeak 1997ko maiatzaren 5ean emandako Ebazpenaren bidez izendatuta

1. Izurtzako burdinola (orain baserria) (D)
2. Izurtzako dorrea (A)
3. San Nicolas eliza (A)
5. Lejarzako dorrea (A)
5. Errota burdinola (D)
7. Albizola burdinola (ageriko egitura barik) (E)
8. Albizolako errota (orain baserria) (D)
10. San Jorge tenplua eta nekropolia (ageriko egitura barik) (E)
11. Urretxa baseliza (ageriko egitura barik) (E)

## 10. Mañaria

Kultura, Gazteria eta Kiroleko Sailburuordeak 1997ko maiatzaren 5ean emandako Ebazpenaren bidez izendatuta

1. Silibranka harpea-kobazuloa (C)
6. Kobazar-II kobazuloa (C)
9. Iturretako kobazuloa (C)
10. Markue Goiko baserria (A)
11. Markue-Beko baserria (A)
12. Markue burdinola (orain harrobiko bulegoa) (D)
13. Jasokundeko Andre Maria eliza (A)
14. San Vicente Ferrer baseliza (hilerria) (A)
15. Arria baserria (A)
16. Garaitorreko San Joan baseliza (A)
17. Garaiko dorretxea (orain baserria) (A)

## 11. Zaldibar

Kultura, Gazteria eta Kiroleko Sailburuordeak 1997ko maiatzaren 5ean emandako Ebazpenaren bidez izendatuta

1. Santa Marina baseliza (E)
2. Gatica baserria (A)
3. Zaldibarreko dorrea (A)
4. San Martin baseliza (A)
5. San Andres Apostolua eliza (A)
6. Zalduako dorrea (A)
7. Eizagako dorrea (A)
8. Eizaga Barrenengua baserria (A)
9. Olaetxea burdinola (D)
10. Olarreaga burdinola (D)

### 11.3.2 Kultura-intereseko beste elementu batzuk.

Ondoren, EAEko Kultura Ondarearen Zentroak emandako zerrenda dago erantsita.

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Kultura Ondarearen Zuzendaritza
Euskal Kultura Ondarearen Zentrua

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Dirección de Patrimonio Cultural
Centro de Patrimonio Cultural Vasco

ANEXO I

Donostia - San Sebastian, 1 – 01010 VITORIA-GASTEIZ
tef. 945 01 94 90/94 – Fax 945 01 94 91 – e-mail zentroa@ej-gv.es

# *Bienes Declarados Monumento en el Area Funcional de Durango*

| *Municipio* | *Nº* | *Denominación* | *Barrio* | *Protección* | *Boletín* |
|---|---|---|---|---|---|
| *ABADIÑO* | | | | | |
| | 20 | CEMENTERIO MUNICIPAL DE ABADIÑO | SANTROKAZ | Calificado. Incoado | BOE 31-10-1980 |
| | 24 | TORRE DE MUNTXARAZ | MUNTSARATZ | Calificado | BOPV 4-8-1984 |
| *DURANGO* | | | | | |
| | | CRUZ DE KURUTZIAGA | KURUTZIAGA | Calificado | BOPV 4-8-1984 |
| *DURANGO CASCO HISTORICO* | | | | | |
| | 102 | PUENTE SANTA ANA | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Media | BOPV 30-1-1997 |
| | 103 | PUENTE AGUSTINALDE | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Media | BOPV 30-1-1997 |
| | 105 | LAVADEROS | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Especial | BOPV 30-1-1997 |
| | 106 | LAVADEROS | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Especial | BOPV 30-1-1997 |
| | 107 | ESCALINATAS RIO MAÑARIA | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Especial | BOPV 30-1-1997 |
| | 108 | SOPORTALES | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Especial | BOPV 30-1-1997 |
| | 109 | FACHADA ECLECTICA | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Especial (Fachada) Protección Básica (Resto del edificio) | BOPV 30-1-1997 |
| | 110 | LAVADEROS | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Especial | BOPV 30-1-1997 |
| | 111 | MOLINO DEL ARCO | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Media | BOPV 30-1-1997 |
| | 112 | CASA SANTA ANA 6 | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Media | BOPV 30-1-1997 |
| | 113 | CASA ECLECTICA | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Media | BOPV 30-1-1997 |
| | 114 | CASA KALEBARRIA 2 | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Media | BOPV 30-1-1997 |
| | 115 | CASA KURUTZIAGA 4 | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Media | BOPV 30-1-1997 |

| *Municipio Nº* | *Denominación* | *Barrio* | *Protección* | *Boletín* |
|---|---|---|---|---|
| 116 | CASA BARRENKALEA 3 | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Básica | BOPV 30-1-1997 |
| 117 | CASA BARRENKALEA 5 | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Básica | BOPV 30-1-1997 |
| 118 | CASA BARRENKALEA 7 | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Básica | BOPV 30-1-1997 |
| 119 | CASA BARRENKALEA 9 | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Básica | BOPV 30-1-1997 |
| 120 | CASA BARRENKALEA 15 | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Básica (Planta baja) | BOPV 30-1-1997 |
| 121 | CASA BARRENKALEA 19 | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Básica (Planta baja) | BOPV 30-1-1997 |
| 122 | CASA BARRENKALEA 21 | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Básica | BOPV 30-1-1997 |
| 123 | CASA BARRENKALEA 29 | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Básica (Planta baja) | BOPV 30-1-1997 |
| 124 | CASA BARRENKALEA 33 | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Básica (Planta baja) | BOPV 30-1-1997 |
| 125 | CASA BARRENKALEA 12 | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Básica | BOPV 30-1-1997 |
| 126 | CASA BARRENKALEA, ANEJO ENTRE 22 - 24 | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Básica | BOPV 30-1-1997 |
| 127 | CASA BARRENKALEA 26 | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Básica | BOPV 30-1-1997 |
| 128 | CASA BARRENKALEA 28 | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Básica | BOPV 30-1-1997 |
| 129 | CASA BARRENKALEA 30 | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Básica (Planta baja) | BOPV 30-1-1997 |
| 130 | CASA BARRENKALEA 34 | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Básica (Planta baja) | BOPV 30-1-1997 |
| 131 | CASA LARITZ DORREA 1 | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Básica (Planta baja) | BOPV 30-1-1997 |
| 132 | CASA ARTEKALEA 8 | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Básica | BOPV 30-1-1997 |
| 133 | CASA ARTEKALEA 12 | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Básica | BOPV 30-1-1997 |
| 134 | CASA ARTEKALEA 16 | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Básica (Planta baja) | BOPV 30-1-1997 |
| 135 | CASA ARTEKALEA 18 | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Básica | BOPV 30-1-1997 |
| 136 | CASA ARTEKALEA 20 | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Básica | BOPV 30-1-1997 |

| *Municipio Nº* | *Denominación* | *Barrio* | *Protección* | *Boletín* |
|---|---|---|---|---|
| 137 | CASA ARTEKALEA 22 | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Basica | BOPV 30-1-1997 |
| 138 | CASA ARTEKALEA 24 | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Básica | BOPV 30-1-1997 |
| 139 | CASA ARTEKALEA 30 | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Básica (Planta baja) | BOPV 30-1-1997 |
| 140 | CASA ARTEKALEA 34 | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Básica | BOPV 30-1-1997 |
| 141 | CASA ARTEKALEA 36 | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Básica | BOPV 30-1-1997 |
| 142 | CASA ARTEKALEA 1 | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Básica | BOPV 30-1-1997 |
| 143 | CASA ARTEKALEA 5 | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Básica | BOPV 30-1-1997 |
| 144 | CASA ARTEKALE 11 | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Básica | BOPV 30-1-1997 |
| 145 | CASA ARTEKALEA 15 | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Básica | BOPV 30-1-1997 |
| 146 | CASA ARTEKALEA 41 | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Básica | BOPV 30-1-1997 |
| 147 | CASA GOIENKALE 26 | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Básica | BOPV 30-1-1997 |
| 148 | CASA GOIENKALE 22 | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Básica (Planta baja) | BOPV 30-1-1997 |
| 149 | CASA GOIENKALE 14 | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumetnal. Calificado. Protección Basica (Planta baja, primera y segunda) | BOPV 30-1-1997 |
| 150 | CASA SANTA ANA 3 | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Básica | BOPV 30-1-1997 |
| 151 | CASA SANTA ANA 7 | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Básica | BOPV 30-1-1997 |
| 152 | CASA SAN MARTIN 2 | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Básica | BOPV 30-1-1997 |
| 153 | CASA SANTANOSTE 2 | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Básica | BOPV 30-1-1997 |
| 154 | CASA KALEBARRIA 8 | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Básica (Planta baja) | BOPV 30-1-1997 |
| 155 | CASA KALEBARRIA 10 | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Básica (Planta baja) | BOPV 30-1-1997 |
| 156 | CASA KALEBARRIA 22 | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Proteccion Básica (Planta baja) | BOPV 30-1-1997 |
| 157 | CASA KALEBARRIA 3 | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Básica | BOPV 30-1-1997 |
| 158 | CASA KALEBARRIA 5 | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Basica | BOPV 30-1-1997 |

| *Municipio Nº* | *Denominación* | *Barrio* | *Protección* | *Boletín* |
|---|---|---|---|---|
| 159 | CASA KALEBARRIA 15 | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Básica (Planta baja) | BOPV 30-1-1997 |
| 16 | CASA ZABALA | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Media | BOPV 30-1-1997 |
| 160 | CASA KOMENTU 30 | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Básica | BOPV 30-1-1997 |
| 161 | CASA KOMENTU 28 | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Básica (Planta baja) | BOPV 30-1-1997 |
| 162 | CASA KOMENTU 12 | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Básica (Planta baja) | BOPV 30-1-1997 |
| 163 | CASA ZEHAR KALEA 1 | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Básica | BOPV 30-1-1997 |
| 164 | CASA ZEHAR KALEA 2 | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Básica (Planta baja, primera y segunda) | BOPV 30-1-1997 |
| 165 | CASA ZEHAR KALEA 8 | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Básica | BOPV 30-1-1997 |
| 166 | CASA ANDRA MARI 12 | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Básica (Planta baja) | BOPV 30-1-1997 |
| 167 | CASA ANDRA MARI 17 | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Básica (Planta baja) | BOPV 30-1-1997 |
| 168 | CASA ANDRA MARI 22 | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Básica | BOPV 30-1-1997 |
| 169 | CASA KURUTZIAGA 2 | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Básica | BOPV 30-1-1997 |
| 17 | IGLESIA DE SANTA ANA | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Especial | BOPV 30-1-1997 |
| 18 | ARCO DE SANTA ANA | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Especial | BOPV 30-1-1997 |
| 19 | PALACIO LEJARZA | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Media | BOPV 30-1-1997 |
| 21 | CASA EGIA | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Básica | BOPV 30-1-1997 |
| 24 | TORRE DE LARITZ | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Especial | BOPV 30-1-1997 |
| 33 | CASA DE VIVIENDAS | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Básica | BOPV 30-1-1997 |
| 34 | CASA QUEMADA | CASCO· HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Especial | BOPV 30-1-1997 |
| 35 | CASERON BARRENKALE 18 | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Básica | BOPV 30-1-1997 |

| *Municipio* | *Nº* | *Denominación* | *Barrio* | *Protección* | *Boletín* |
|---|---|---|---|---|---|
| | 36 | PALACIO SALCEDO | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Básica | BOPV 30-1-1997 |
| | 37 | IGLESIA DE SANTA MARIA DE URIBARRI | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Especial | BOPV 30-1-1997 |
| | 38 | CASA ANDRA MARI 8 | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Media | BOPV 30-1-1997 |
| | 39 | CASA SANTA MARIA 16 | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Media | BOPV 30-1-1997 |
| | 40 | PALACIO ARRIBI | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Especial | BOPV 30-1-1997 |
| | 41 | CASA GOIENKALE 18 | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Media | BOPV 30-1-1997 |
| | 43 | CASA KALEBARRI 14 | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Media | BOPV 30-1-1997 |
| | 44 | ANTIGUA BIBLIOTECA | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Media | BOPV 30-1-1997 |
| | 45 | CASA CONSISTORIAL | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Especial | BOPV 30-1-1997 |
| | 46 | CASA DE VIVIENDAS | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Básica | BOPV 30-1-1997 |
| | 47 | CASA BASOA | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Básica | BOPV 30-1-1997 |
| | 48 | CASA ARTEKALEA 35 | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Básica | BOPV 30-1-1997 |
| | 99 | PUENTE ANDRA MARI | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Media. | BOPV 30-1-1997 |
| *ELORRIO* | | | | | |
| | | SEPULCROS DE ARGIÑETA | ARGIÑETA | Calificado | BOPV 4-8-1984 |
| *ELORRIO CASCO HISTORICO* | | | | | |
| | 174 | CRUZ DE KURUTZIAGA | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Especial | BOPV 29-5-1997 |
| | 175 | CRUZ DE SAN JUAN | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Especial | BOPV 29-5-1998 |
| | 176 | CRUZ DE SANTA ANA | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Especial | BOPV 29-5-1998 |
| | 177 | CASA BUSKANTZ 8 | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Básica | BOPV 29-5-1998 |
| | 178 | CASA BUSKANTZ 10 | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Básica | BOPV 29-5-1998 |
| | 179 | CASA BUSKANTZ 12 | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Básica | BOPV 29-5-1998 |

| *Municipio Nº* | *Denominación* | *Barrio* | *Protección* | *Boletín* |
|---|---|---|---|---|
| 180 | CASA BUSKANTZ 14 | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Básica | BOPV 29-5-1998 |
| 181 | CASA BUSKANTZ 16 | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Básica | BOPV 29-5-1998 |
| 182 | CASA BUSKANTZ 18 | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Básica | BOPV 29-5-1998 |
| 183 | CASA BUSKANTZ 20 | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Básica | BOPV 29-5-1998 |
| 184 | PUERTA DEL ROSARIO | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Especial | BOPV 29-5-1998 |
| 185 | PUERTA DE ACCESO A LA VILLA | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Especial | BOPV 29-5-1998 |
| 186 | RESTOS DE CASA RENACENTISTA | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Media | BOPV 29-5-1998 |
| 187 | PALACIO URKIZU ALDATZEKUA | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Media | BOPV 29-5-1998 |
| 188 | CASA URKIZUARAN 3 | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Básica | BOPV 29-5-1998 |
| 189 | CASA URKIZUARAN 5 | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Básica | BOPV 29-5-1998 |
| 190 | CASA URKIZUARAN 7 | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Básica | BOPV 29-5-1998 |
| 191 | CASA URKIZUARAN 9 | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Básica | BOPV 29-5-1998 |
| 192 | CASA URKIZUARAN 11 | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Básica | BOPV 29-5-1998 |
| 193 | CASA URKIZUARAN 13 | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Básica | BOPV 29-5-1998 |
| 194 | CASA ELEIZBURU 10 | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Básica | BOPV 29-5-1998 |
| 195 | CASA ELEIZBURU 12 | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Básica | BOPV 29-5-1998 |
| 196 | CASA ELEIZBURU 14 | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Básica | BOPV 29-5-1998 |
| 197 | CASA ELEIZBURU | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Básica | BOPV 29-5-1998 |
| 198 | CASA ELEIZBURU 42 | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Básica | BOPV 29-5-1998 |
| 199 | CASA ELEIZBURU 44 | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Básica | BOPV 29-5-1998 |
| 200 | CASA ELEIZBURU 20 | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Básica (Planta baja) | BOPV 29-5-1998 |
| 201 | CASA PIO X 2 | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Básica | BOPV 29-5-1998 |
| 202 | CASA PIO X 4 | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Básica (Planta baja) | BOPV 29-5-1998 |

| *Municipio Nº* | *Denominación* | *Barrio* | *Protección* | *Boletín* |
|---|---|---|---|---|
| 203 | CASA PIO X 6 | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Básica (Planta baja) | BOPV 29-5-1998 |
| 204 | CASA PIO X 10 | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Básica | BOPV 29-5-1998 |
| 205 | CASA SAN PIO 12 | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Básica | BOPV 29-5-1998 |
| 206 | CASA PIO X 16 | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Básica (Planta baja) | BOPV 29-5-1998 |
| 207 | CASA SAN PIO X 24 | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Básica (Planta baja) | BOPV 29-5-1998 |
| 208 | CASAS ALINEADAS | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Básica (Planta baja del nº 26) | BOPV 29-5-1998 |
| 209 | CASA SAN PIO X 42 | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Básica | BOPV 29-5-1998 |
| 21 | CASA PORTALE | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Básica | BOPV 29-5-1998 |
| 210 | CASAS ALINEADAS | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Básica (Planta baja del nº 48) | BOPV 29-5-1998 |
| 211 | CASAS ALINEADAS | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Básica (Planta baja del nº 52) | BOPV 29-5-1998 |
| 212 | CASA SAN PIO X 17 | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Básica | BOPV 29-5-1998 |
| 213 | CASA SAN PIO X 21 | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Básica | BOPV 29-5-1998 |
| 214 | CASERON | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Básica | BOPV 29-5-1998 |
| 215 | CASA SAN PIO X 25 | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Básica | BOPV 29-5-1998 |
| 216 | CASA SAN PIO X 27 | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Básica | BOPV 29-5-1998 |
| 217 | CASA ERREBONBILLO 3 | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Básica | BOPV 29-5-1998 |
| 218 | CASA ERREBONBILLO 7 | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Básica | BOPV 29-5-1998 |
| 219 | CASA SAN JUAN 4 | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Básica | BOPV 29-5-1998 |
| 22 | CASA BENGOA | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Básica | BOPV 29-5-1998 |
| 220 | CASAS ALINEADAS | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Básica (Planta baja del nº 11) | BOPV 29-5-1998 |
| 221 | CASA SAN JUAN 13 | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Básica (Planta baja) | BOPV 29-5-1998 |

| *Municipio Nº* | *Denominación* | *Barrio* | *Protección* | *Boletín* |
|---|---|---|---|---|
| 222 | CASA SAN JUAN 15 | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Básica (Planta baja) | BOPV 29-5-1998 |
| 223 | CASA SAN JUAN 17 | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Básica (Planta baja) | BOPV 29-5-1998 |
| 224 | CASA DON TELLO 2 | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Básica | BOPV 29-5-1998 |
| 225 | CASA DON TELLO 5 | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Básica (Planta baja) | BOPV 29-5-1998 |
| 226 | CASAS URARKA 7,9,11 | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Básica (Planta baja de los nº 7-9) | BOPV 29-5-1998 |
| 227 | CASA ERREKA 18 | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Básica (Planta baja) | BOPV 29-5-1998 |
| 228 | CASA SAN BALENDIN BERRIO-OTXOA 11 | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Básica | BOPV 29-5-1998 |
| 229 | CASA SAN BALENDIN BERRIO-OTXOA 35 | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Básica | BOPV 29-5-1998 |
| 23 | CASA ERREKA 30 | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Básica | BOPV 29-5-1998 |
| 230 | CASA SAN BALENDIN BERRIO - OTXOA 4 | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Básica | BOPV 29-5-1998 |
| 231 | CASA SAN BALENDIN BERRIO - OTXOA 24 | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Proteccioón Básica | BOPV 29-5-1998 |
| 232 | CASA SAN BALENDIN BERRIO - OTXOA 9 | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Básica (Planta baja) | BOPV 29-5-1998 |
| 233 | CASA SAN BALENDIN BERRIO - OTXOA 15 | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Básica (Planta baja) | BOPV 29-5-1998 |
| 234 | CASA SAN BALENDIN BERRIO - OTXOA 25 | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Básica (Planta baja) | BOPV 29-5-1998 |
| 235 | CASA SAN BALENDIN BERRIO - OTXOA 33 | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Basica (Planta baja) | BOPV 29-5-1998 |
| 236 | CASA SAN BALENDIN BERRIO - OTXOA 41 | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Básica (Planta baja) | BOPV 29-5-1998 |
| 237 | CASA SAN BALENDIN BERRIO - OTXOA 47 | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Básica (Planta baja) | BOPV 29-5-1998 |
| 238 | CASA ERREKA 5 | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Básica (Planta baja) | BOPV 29-5-1998 |
| 24 | CASA ERREKA 26 | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Básica | BOPV 29-5-1998 |

| *Municipio Nº* | *Denominación* | *Barrio* | *Protección* | *Boletín* |
|---|---|---|---|---|
| 25 | CASA ERREKA 24 | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Básica | BOPV 29-5-1998 |
| 26 | CASA ERREKA 22 | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Básica | BOPV 29-5-1998 |
| 27 | CASA ERREKA 20 | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Básica | BOPV 29-5-1998 |
| 28 | CASA ERREKA 16 | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Básica | BOPV 29-5-1998 |
| 29 | CASA ERREKA 14 | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Básica | BOPV 29-5-1998 |
| 30 | CASA ERREKA 12 | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Básica | BOPV 29-5-1998 |
| 31 | CASA ERREKA 10 | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Básica | BOPV 29-5-1998 |
| 32 | CASA ERREKA 8 | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Básica | BOPV 29-5-1998 |
| 33 | CASA ERREKA 6 | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Básica | BOPV 29-5-1998 |
| 34 | CASA ERREKA 4 | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Básica | BOPV 29-5-1998 |
| 35 | CASA ERREKA 21 | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Básica | BOPV 29-5-1998 |
| 37 | CASA ERREKA 17 | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Básica | BOPV 29-5-1998 |
| 38 | CASA ERREKA 13 | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Básica (Planta baja) | BOPV 29-5-1998 |
| 39 | CASA ERREKA 9 | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Básica | BOPV 29-5-1998 |
| 40 | CASA ERREKA 3 | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Básica | BOPV 29-5-1998 |
| 44 | CASA DON TELLO 4 | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Básica (Planta baja) | BOPV 29-5-1998 |
| 45 | CASA MUSIKO ARRIOLA 4 | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Básica | BOPV 29-5-1998 |
| 46 | ACCESO AL CASCO MEDIEVAL | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Especial | BOPV 29-5-1998 |
| 47 | PALACIO ARESPAKOTXAGA | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Especial | BOPV 29-5-1998 |
| 48 | CASA DON TELLO 3 | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Media | BOPV 29-5-1998 |
| 49 | CASA DON TELLO 11 | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Básica (Planta baja) | BOPV 29-5-1998 |
| 50 | CASA PLAZA DEL ARBOL DE GUERNICA 4 | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Básica | BOPV 29-5-1998 |

| *Municipio Nº* | *Denominación* | *Barrio* | *Protección* | *Boletín* |
|---|---|---|---|---|
| 51 | IGLESIA DE LA PURISIMA CONCEPCION | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Especial | BOPV 29-5-1998 |
| 52 | CASA CONSISTORIAL | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Especial | BOPV 29-5-1998 |
| 53 | CASA IGARTZA | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Media | BOPV 29-5-1998 |
| 55 | CASA SAN BALENDIN BERRIO - OTXOA 1 | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Básica | BOPV 29-5-1998 |
| 56 | PALACIO DE CASA JARA | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Especial | BOPV 29-5-1998 |
| 57 | CASA SAN BALENDIN BERRIO - OTXOA 3 | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Básica | BOPV 29-5-1998 |
| 58 | PALACIO TORRE URKIZU | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Especial | BOPV 29-5-1998 |
| 59 | CASA VALENTIN DE BERRIOTXOA 2 BIS | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Básica | BOPV 29-5-1998 |
| 60 | CASA DEL BEATO-PALACIO ARRIOLA | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Especial | BOPV 29-5-1998 |
| 61 | PALACIO DE GAMIZ | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Media | BOPV 29-5-1998 |
| 62 | CASA VALENTIN DE BERRIOTXOA 10 | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Media | BOPV 29-5-1998 |
| 63 | PALACIO IBARGUEN-URKIZU | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Especial | BOPV 29-5-1998 |
| 64 | CASA SAN BALENDIN BERRIO - OTXOA 19 | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Básica | BOPV 29-5-1998 |
| 65 | CASA SAN BALENDIN BERRIO - OTXOA 21 | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Básica | BOPV 29-5-1998 |
| 66 | PALACIO QUINTANA | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Media | BOPV 29-5-1998 |
| 67 | CASA SAN BALENDIN BERRIO - OTXOA 22 | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Básica | BOPV 29-5-1998 |
| 68 | PALACIO OTSA - LEKERIKA | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Especial | BOPV 29-5-1998 |
| 69 | ANEXO AL PALACIO LEKERIKA-OTSA | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Especial | BOPV 29-5-1998 |
| 70 | PALACIO OTSA | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Media. | BOPV 29-5-1998 |
| 71 | PALACIO DE ARABIO | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Especial | BOPV 29-5-1998 |
| 72 | CASA BERRIO ATEGORTUA | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Media | BOPV 29-5-1998 |

| *Municipio Nº* | *Denominación* | *Barrio* | *Protección* | *Boletín* |
|---|---|---|---|---|
| 73 | PALACIO UGALDE | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Básica | BOPV 29-5-1998 |
| 74 | CASA GOIKO - ERROTA | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Media | BOPV 29-5-1998 |
| 75 | PALACIO DE LARIZ | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Media | BOPV 29-5-1998 |
| 76 | PALACIO DE TOLA | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Especial | BOPV 29-5-1998 |
| 77 | CASAS BUSKANTZ 4-6 | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Básica | BOPV 29-5-1998 |
| 79 | PALACIO URANDARRAGA | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Media | BOPV 29-5-1998 |
| 80 | PALACIO MARURI - CALVO | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Media (Fachada Principal). Protección Básica (Resto del edificio) | BOPV 29-5-1998 |
| 81 | CASA SAN PIO X 22 | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Básica | BOPV 29-5-1998 |
| 82 | CASA SAN PIO X 13 | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Media | BOPV 29-5-1998 |
| 83 | CASA SAN PIO X 14 | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Media | BOPV 29-5-1998 |
| 84 | PALACIO ITURBE | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Media | BOPV 29-5-1998 |
| 85 | PALACIO ALDASORO - GERRIKABEITIA | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Media (Fachada Principal) | BOPV 29-5-1998 |
| 86 | PALACIO ESTEIBAR-ARAUNA | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Especial | BOPV 29-5-1998 |
| 87 | PALACIO ALDAPEBEITIA | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Especial | BOPV 29-5-1998 |
| 88 | CASA URARKA 6 | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Media | BOPV 29-5-1998 |
| 89 | PALACIO BERRIO | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Media | BOPV 29-5-1998 |
| 90 | PALACIO ARESPAKOTXAGA - URKIZU | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Media | BOPV 29-5-1998 |
| 91 | CONVENTO DE LAS DOMINICAS | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Media | BOPV 29-5-1998 |
| 92 | PALACIO ARESPAKOTXAGA - ASKARRAGA | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Media | BOPV 29-5-1998 |
| 93 | CASAS ALINEADAS | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Básica | BOPV 29-5-1998 |
| 94 | PALACIO ITURRI | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Especial (Fachada Principal y Posterior) | BOPV 29-5-1998 |

*Declarados - Area Funcional de Durango* *Página 11 de 12*

| *Municipio Nº* | *Denominación* | *Barrio* | *Protección* | *Boletín* |
|---|---|---|---|---|
| 95 | PALACIO DE LARREATEGI | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Media | BOPV 29-5-1998 |
| 96 | PALACIO DE OLAZABAL | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Media | BOPV 29-5-1998 |
| 97 | CASA ANEXA AL PALACIO OLAZABAL | CASCO HISTORICO | Conjunto Monumental. Calificado. Protección Básica | BOPV 29-5-1998 |

## *Bienes Propuestos para ser Declarados Monumento en el Area Funcional de Durango*

| *Municipio Nº* | *Denominación* | *Barrio* |
|---|---|---|
| *ABADIÑO* | | |
| 1 | PALACIO ABADIANO | ZELAIETA |
| 17 | CASAS BENEFICIALES | ZELAIETA |
| 18 | IGLESIA DE SAN TORKUATO | ZELAIETA |
| 20.2 | PANTEÓN CELAYETA - GALÍNDEZ | SANTROKAZ |
| 21 | PALACIO URIBARRENA | MUNTSARATZ |
| 26 | CARCEL DE LA MERINDAD | ASTOLA |
| 28 | PALACIO TRAÑA - JAUREGI | TRAÑA - MATIENA |
| 29 | PALACIO OTEIZA MURUETA | MURUETA |
| 3 | HUMILLADERO DE JESUS CRUCIFICADO | ZELAIETA |
| 31 | SANTUARIO DE LOS SANTOS ANTONIOS | URKIOLA |
| 42 | PRESA DE LA FERRERIA DE OLAKUA | MUNTXARATZ |
| 43 | MOLINO DE LARRINGAN | LARRINGAN |
| 47 | FERRERIA DE ESTERRIPA | GEREDIAGA |
| 62 | CASERIO ARESTI | GAZTELUA |
| 63 | CASERIO GAZTELUGOITIA | GAZTELUA |
| 66 | CASERIO ITURRIAGA GOITIA | GAZTELUA |
| 67 | CASERIO EZTERRIPA | GEREDIAGA |
| 7 | PALACIO CAMPOS | ZELAIETA |
| 70 | CASERIO BENGOA | MENDIOLA |
| 72 | CASERIO MENDILIBAR | MENDIOLA |
| 73 | CASERIO ORMAETXE | MENDIOLA |
| 74 | CASERIO ZELAIKOA | MENDIOLA |
| 75 | CASERIO URKITZA | SAGASTA |
| 81 | LEGUARIO DE URKIOLA | URKIOLA |
| 82 | CAMPANARIO DE URKIOLA | URKIOLA |
| 89 | CASERIO ARTOLA | GEREDIAGA |
| *AMOREBIETA - ETXANO* | | |
| 10 | IGLESIA SANTA MARIA | ZUBIBITARTE |
| 18 | IGLESIA SANTA MARIA | ETXANO |
| 21 | CEMENTERIO MUNICIPAL DE AMOREBIETA | LEGINETXE S/N |
| 21.5 | PANTEON DE LOS HIJOS DE JENARO DE DERTEANO | LEGINETXE S/N |
| 27 | TORRE DE BERNAGOITIA | BERNAGOITIA |

| *Municipio Nº* | *Denominación* | *Barrio* |
|---|---|---|
| 29 | ERMITA SAN MIGUEL | SAN MIGUEL DE DUDEA |
| 3 | CONVENTO PADRES CARMELITAS | LARREA |
| 4 | FUENTE DE URGOZO | ZORNOTZA |
| 5 | CALVARIO | ZORNOTZA |
| 63 | CASERIO AUSTOLARRA | AUSTOA |
| 66 | CASERIO ETXEBARRI | BOROA |
| 67 | CASERIO GUMUZIO | BOROA |
| 70 | CASERIO OTXUENDE | DUDAGOITI |
| 71 | CASERIO EGIARTE | DUDAGOITI |
| 72 | CASERIO ANDIKARA | DUDEA |
| 73 | CASERIO GISATZA GOIKOA | EPALZA |
| 74 | CASERIO ZABALA | ERGOIEN |
| 77 | CASERIO DUDOLETA | OROBIO |
| 78 | CASERIO ZUGAZA GOIKOA | OROBIO |
| 82 | CASERIO URRITXE | URRITXE |
| 83 | CASERIO GOITI | ZAMALLOA |
| 85 | CASERIO ZARAZUA | ZARAZUA |
| *ATXONDO* | | |
| 1 | PALACIO JAUREGUI o JAUREGIGOIKOTORREA | APATAMONASTERIO |
| 10 | IGLESIA DE SAN MARTIN | MARZANA |
| 11 | IGLESIA DE SAN MIGUEL | ARRAZOLA |
| 31 | MOLINO ZIARRETA ERROTA | APATAMONASTERIO |
| 48 | PUENTE ATXONDOLO | APATAMONASTERIO |
| 5 | IGLESIA DE SAN JUAN | AXPE-MARZANA |
| 54 | CASERIO ZIARRETA | APATAMONASTERIO |
| 55 | CASERIO ZIARRETA BARRENA | APATAMONASTERIO |
| 56 | CASERIO ZUBIATE | APATAMONASTERIO |
| 58 | CASERIO OLLARGANE | ARRAZOLA |
| 59 | CASERIO URRUTIA | ARRAZOLA |
| 60 | CASERIO DORRONSORO | AXPE |
| 61 | CASERIO DORRONSORO (PAJAR) | AXPE |
| 9 | TORRE MARZANA | MARZANA |
| *BÉRRIZ* | | |
| 12 | ERMITA DE SAN FAUSTO | EITUA |
| 17 | ERMITA DE SAN LORENZO | SAN LORENZO |
| 19 | TORRE LARIZ | SAN LORENZO |
| 22 | IGLESIA DE SAN JUAN | SAN LORENZO |

*Propuestos para Declarar - Area Funcional de Durango* *Página 2 de 7*

| *Municipio Nº* | *Denominación* | *Barrio* |
|---|---|---|
| 33 | CENTRAL PATALA | SARRIA |
| 34 | CENTRAL ERROTATXU | SARRIA |
| 36 | CENTRAL HIDROELÉCTRICA OLAZARRA | EITUA |
| 37 | CENTRAL OLABARRI | EITUA |
| 40 | FERRERIA OLAZARRA | EITUA |
| 45 | MOLINO DEL CONVENTO DE LA VERA CRUZ | SAN LORENZO |
| 51 | CASERIO ETXENAGUSIA | ANDIKONA |
| 52 | CASERÍO GANGOITI GOIKOA | ANDIKONA |
| 54 | HORREO ZALDUENE | ANDIKONA |
| 55 | CASERIO ZALDUENE | ANDIKONA |
| 56 | CASERIO OTXAITA | EITUA |
| 57 | CASERIO ISUNTZA BEKOA | ISUNTZA |
| 58 | CASERIO ISUNTZA GOIKOA | ISUNTZA |
| 59 | CASERIO ORMAETXE | SAN LORENZO |
| 60 | HORREO ORMAETXE | SAN LORENZO |
| 63 | CASERIO LOITZATE | MURGOITIO |
| 66 | CASERIO BERRIZBEITIA | OLAKUETA |
| 68 | CASERIO AMATZA | SARRIA |
| 69 | CASERIO BEITIA | SARRIA |
| 7 | SANTUARIO DE ANDIKONA | ANDIKONA |
| 71 | CASERIO ONANDIA | SARRIA |
| 74 | TORRE DE ARRIA | SARRIA |
| *DURANGO* | | |
| 1 | PALACIO ETXEZARRETA | SAN AGUSTINALDE |
| 10 | FUENTE DE PINONDO | PINONDO |
| 12 | PINONDO ETXEA | PINONDO |
| 170 | LEGUARIO DE DURANGO | |
| 176 | FUENTE EL CISNE Y EL NIÑO | CASCO URBANO |
| 177 | FUENTE TABIRA | TABIRA |
| 2 | PALACIO DE ZABALA | SAN AGUSTINALDE |
| 3 | IGLESIA DE SAN AGUSTIN | SAN AGUSTINALDE |
| 4 | CONVENTO DE SAN AGUSTIN | SAN AGUSTINALDE |
| 51 | CASA ZUMALAKARREGI 12 | CASCO URBANO |
| 53 | CASA ZUMALAKARREGI 10 | CASCO URBANO |
| 54 | FUENTE DE KURUTZIAGA | KURUTZIAGA |
| 62 | PALACIO OLALDE | SAN FAUSTO |
| 65 | PALACIO GARAY | KURUTZIAGA |
| 68 | IGLESIA SAN FAUSTO | SAN FAUSTO |

*Propuestos para Declarar - Area Funcional de Durango* *Página 3 de 7*

| *Municipio* | *Nº* | *Denominación* | *Barrio* |
|---|---|---|---|
| | 69.1 | PORTADA DEL CEMENTERIO MUNICIPAL DE DURANGO | MONTORRETAS |
| | 69.2 | PANTEÓN ARROITA - JAUREGUI | MONTORRETAS |
| | 69.6 | CAPILLA ALZOLA - GARCÍA DE CASTEJÓN | MONTORRETAS |
| | 72 | FUENTE DE EZKURDI | CASCO URBANO |
| | 74 | IGLESIA DE SAN PEDRO DE TABIRA | TABIRA |
| | 79 | PLAZA DE ABASTOS Y MERCADO | |
| | 8 | ERMITA DE LA MAGDALENA | MAGDALENA |
| | 89 | ESTACIÓN DE DURANGO, FERROCARRILES VASCOS BILBAO - DONOSTIA | CASCO URBANO |
| | 95 | FERRERIA ARANEKOLA | TABIRA |
| *ELORRIO* | | | |
| | 1 | IGLESIA DE SAN AGUSTIN DE ETXEBARRIA | SAN AGUSTIN |
| | 10 | CASERIO GASTEA JAUREGI | GASTEETA |
| | 104 | TEJERA | SAN AGUSTIN ETXEBARRIA |
| | 108 | FERRERIA - MOLINO DE AZKARREKOLA | URZKIZUARAN |
| | 111 | MOLINO - FERRERIA DE CENITAOLEA | ZENITA |
| | 119 | PUENTE LABAKUA | |
| | 126 | CASERIO ALDEKOA | ZENITA |
| | 127 | CASERIO UPATEGI | ALDAPE |
| | 129 | CASERIO ARABIO GOIKOA | ARABIO |
| | 130 | CASERIO ARAUNA GOGEASKOA | ARANUETA |
| | 132 | CASERIO ARRATE | BERRIO |
| | 133 | CASERIO BERRIO TORRE | BERRIO |
| | 134 | CASERIO ISUARTE | BERRIO |
| | 138 | HORREO ALDEKOA | ZENITA |
| | 141 | CASERIO ARIANZA | IGURIA |
| | 142 | CASERIO ARREGI | IGURIA |
| | 144 | CASERIO OLAKUA | IGURIA |
| | 145 | CASERIO OLALDE | IGURIA |
| | 146 | CASERIO UGALDE | IGURIA |
| | 147 | CASERIO URIKO AZPIKOA | IGURIA |
| | 148 | CASERIO URIKOGANE | IGURIA |
| | 149 | CASERIO ZABALEKUA | IGURIA |
| | 150 | CASERIO ZUIZAR | IGURIA |
| | 151 | CASERIO LEKERIKA ONANDI | LEKERIKETA |
| | 152 | CASERIO LARRAZABAL | SAN JOSE DE MEMAIA |
| | 157 | CASERIO BEASKOA | MIOTA |
| | 158 | CASERIO ESTAKASOLO | MIOTA |

| *Municipio* | *Nº* | *Denominación* | *Barrio* |
|---|---|---|---|
| | 162 | CASERIO SERORETXE | SAN AGUSTIN DE ETXEBARRIA |
| | 163 | CASERIO TEJERA | SAN AGUSTIN DE ETXEBARRIA |
| | 166 | CASERIO SAN BIXENTE | SAN VICENTE |
| | 168 | CASERIO TORRE URKIZU | URKIZUARAN |
| | 17 | ERMITA DE NTRA. SRA. DE LOS REYES | GAZETA |
| | 170 | FUENTE DE SANTA ANA | |
| | 171 | ERMITA SANTA MARINA | SAN AGUSTIN |
| | 239 | COLEGIO NUESTRA SEÑORA DE LOURDES | ZENITA |
| | 241 | FUENTE DE BERRIOZABALETA | BERRIOZABALETA |
| | 242 | CEMENTERIO MUNICIPAL DE ELORRIO | |
| | 242.2 | PANTEÓN BERRIOZABAL - BEITIA | |
| | 243 | FUENTE DE SAN JUAN | CASCO URBANO |
| | 5 | ERMITA DE SANTA CATALINA Y DE SAN PLACIDO an pla | ZABALETA |
| | 54 | FUENTE | CASCO URBANO |
| | 7 | SAN BARTOLOME BASELIZA | MIOTA |
| | 78 | ERMITA DE SAN FAUSTO | SAN FAUSTO |
| *GARAY* | | | |
| | 12 | PALACIO GARATIKOA | SAN MIGUEL |
| | 13 | CASERIO ARROITA | SAN MIGUEL |
| | 14 | CASERIO ARROITA BEITIA | SAN MIGUEL |
| | 16 | CASERIO SOLOGARAI | SAN JUAN |
| | 19 | CASERIO AIARZA GOITI | AIARZA |
| | 2 | IGLESIA DE SAN MIGUEL | SAN MIGUEL |
| | 23 | CASERIO ETXEITA | STA. CATALINA |
| | 24 | CASERIO BARRENGO ANTZEKOA | SAN JUAN |
| | 25 | CASERIO OAR ERDIKOA | SAN MIGUEL |
| | 6 | IGLESIA DE SAN JUAN EVANGELISTA | SAN MIGUEL |
| *IURRETA* | | | |
| | 10 | HORREO DE ERCILLA | SANTA MARINA |
| | 19 | FERRERIA DE OLABARRI | OROBIO |
| | 2 | IGLESIA DE SAN MIGUEL DE IURRETA | CASCO URBANO |
| | 20 | FERRERIA - MOLINO DE ARANDIA | SANTA APOLONIA (BARRIADA DE OROZKETA) |
| | 25 | MOLINO ERDIKOERROTA | OROBIO |
| | 26 | FERRERIA DE ERDIKOLEA | OROBIO |
| | 28 | PUENTE ARANDIA | SANTA APOLONIA |
| | 31 | CASERIO OLABE NAGUSIA | BAKIXA |
| | 33 | CASERIO PALACIO | BAKIXA |

| *Municipio Nº* | *Denominación* | *Barrio* |
|---|---|---|
| 35 | CASERIO MAÑERIKU GOIKOA | GOIURIA |
| 36 | HORREO PALACIO | GOIURIA |
| 37 | CASERIO URIBE BEAZKOA | GOIURIA |
| 41 | CASERIO GALARZA | OROBIO |
| 42 | CASERIO OROBIO GOIKOA | OROBIO |
| 44 | CASERIO TRASOLA | OROBIO |
| 45 | CASERIO ETXAN | OROZKETA |
| 47 | CASERIO ISUNDEGI ZAHARRA | OROZKETA |
| 49 | CASERIO OROZKETA GOIKOA | OROZKETA |
| 50 | CASERIO OTALORA | OROZKETA |
| 52 | CASERIO ITURRIOZ | SANTA APOLONIA |
| 53 | PALACIO SAN JULIAN | SANTA APOLONIA |
| 55 | CASERIO ARANZAMENDI | SANTA MARINA |
| 57 | CASERIO ERTZILLA | SANTA MARINA |
| 58 | CASERIO URIBE NAGUSIA | SANTA MARINA |
| 59 | CASERIO URIBE ONDO | SANTA MARINA |
| 60 | CASERIO GAZTAÑAGA BEITIA | SANTA MARINA |
| 61 | CASERIO ERTZILLA 2 | SANTA MARINA |
| 64 | LEGUARIO DE IURRETA | ARRIAUNDI |
| *IZURTZA* | | |
| 1 | CASERIO PALACIO | BITANO |
| 1 | CASERIO PALACIO | BITAÑO |
| 13 | FERRERIA DE LEJARZA | ETXANO LEJARZA |
| 18 | CASERIO AURTENETXE | BITAÑO |
| 2 | TORRE BEKOTORRE | ELIZALDE |
| 4 | IGLESIA DE SAN NICOLAS | ELIZALDE |
| 5 | PALACIO ARANA | ELIZALDE |
| 8 | TORRE DE ETXABURU | ORTUZAR |
| *MAÑARIA* | | |
| 18 | IGLESIA PARROQUIAL DE ANDRA MARI | CASCO URBANO |
| 19 | C. HIDROELECTRICA MENDIZABAL | URKULETA |
| 20 | MOLINO - FERRERIA MARKUE | ALDEBARRENA |
| 25 | CASERIO BAZETA | ALDEBARAIA |
| 27 | CASERIO ETXABURU | ALDEBARRENA |
| 28 | CASERIO MARKUE BEKOA | ALDEBARRENA |
| 30 | CASERIO ORMETXE | ALDEBARRENA |
| 31 | CASERIO ORMETXE GOIKOA | ALDEBARRENA |

*Propuestos para Declarar - Area Funcional de Durango* *Página 6 de 7*

| Municipio Nº | | Denominación | Barrio |
|---|---|---|---|
| | 32 | CASERIO ARRIA | ALDEGOIENA |
| | 33 | CASERIO BIZKARRA | ALDEGOIENA |
| | 34 | CASERIO KALZADA | ALDEGOIENA |
| | 38 | CASERIO ITURRIZA | BARRUETA |
| | 39 | CASERIO URIARTE | BARRUETA |
| | 40 | CASERIO URKOLA GOIKOA | URKOLA |
| ZALDIBAR | | | |
| | 15 | FERRERIA - MOLINO DE OLARREAGA | EIZAGA |
| | 2 | CASA PALACIO EIZAGA O PALAZIOKOA | EITZAGA |
| | 20 | CASERIO ETXEBARRI | ZALDIBAR |
| | 21 | CASERIO GATIKA | URIZAR |
| | 4 | CASERIO GARAITA ONANDIA | GOIHERRI |
| | 8 | IGLESIA DE SAN ANDRES | CASCO URBANO |

# *Bienes Propuestos para ser Protegidos a Nivel Local en el Area Funcional de Durango*

| *Municipio Nº* | *Denominación* | *Barrio* |
|---|---|---|
| *ABADIÑO* | | |
| 10 | PALACIO ZELETABE | ZELAIETA |
| 11 | CASA CHALET IBAIGOITI | ZELAIETA |
| 12 | CASAS ZELETABE 1 y 3 | ZELAIETA |
| 13 | ERMITA SANTA LUCIA | SAGASTA |
| 14 | AYUNTAMIENTO | ZELAIETA |
| 15 | ERMITA DE SANTA EUFEMIA | IRAZOLA |
| 16 | FUENTE DE SANTROKAZ | ZELAIETA |
| 19 | ERMITA DE SAN MARTIN PAPA | GAZTELUA |
| 2 | ERMITA DEL SANTO ANGEL DE LA GUARDA | ZELAIETA |
| 20.1 | PANTEÓN BENGOECHEA | SANTROKAZ |
| 22 | ERMITA DE SAN ANTOLIN | MUNTSARATZ |
| 23 | ERMITA ANDRA MARI | MUNTSARATZ |
| 25 | ERMITA SAN VICENTE | MUNTSARATZ |
| 27 | ERMITA DE SAN VICENTE | ASTOLA |
| 30 | CASA UNZUETA | GEREDIAGA |
| 32 | ERMITA DE LOS SANTOS REMEDIOS Y STA. APOLONIA | URKIOLA |
| 33 | ERMITA DEL SANTO CRISTO | URKIOLA |
| 34 | ERMITA SANTA BARBARA | COLLADO SANTA BARBARA |
| 35 | CASA BENTATXORI | URKIOLA |
| 36 | ERMITA DE SAN SALVADOR | GEREDIAGA |
| 4 | ERMITA SAN CRISTOBAL | MENDIOLA |
| 42 | MOLINO - FERRERIA DE OLAKUA | MUNTXARATZ |
| 44 | MOLINO DE ATXARTE | ATXARTE |
| 45 | FERRERIA DE LEBARIO | LEBARIO |
| 46 | MOLINO DE TRAÑA | ZELAIETA |
| 48 | MOLINO DE AMAITARMIN | AMAITARMIN |
| 49 | PUENTE ARTEAGAZAR | |
| 5 | ESCUELA DE MENDIOLA | MENDIOLA |
| 50 | PUENTE SISPRIMIN | MUNTZARAN |
| 51 | PUENTE URIGUEN | |
| 53 | PUENTE LARRINA | |
| 54 | PUENTE ELIZONDO | ZELAIETA |
| 55 | PUENTE ASTOLA | ABADIÑO-ZELAIETA |

| *Municipio Nº* | *Denominación* | *Barrio* |
|---|---|---|
| 56 | PUENTE Nº 10 | LEBARIO |
| 57 | PUENTE MATIENA | MATIENA |
| 58 | PUENTE GARALGORDOBIL | |
| 6 | ANTIGUO AYUNTAMIENTO | ZELAIETA |
| 60 | CASERIO LANDA | ASTOLA |
| 61 | CASERIO OLAETXE | ATXARTE |
| 64 | CASERIO ITURRI | GAZTELUA |
| 65 | CASERIO ITURRIAGA ETXEBARRIA | GAZTELUA |
| 68 | CASERIO URIZAR | GEREDIAGA |
| 69 | CASERIO ETXENAGUSIA | MATIENA |
| 71 | CASERIO GARAIKOA | MENDIOLA |
| 77 | ERMITA DEL SANTO CRISTO | ATXARTE |
| 78 | FUENTE - ABREVADERO | GEREDIAGA |
| 79 | CASA ZELAIETA 7 | |
| 8 | CASA DENDARIKOA 10 | ZELAIETA |
| 80 | CASA ZELAIETA 31 | |
| 83 | CASA ZELAIETA 23 | |
| 84 | FUENTE CASERIO ARESTIGANE | GAZTELUA |
| 85 | FUENTE - ABREVADERO - LAVADERO CASERIO ITURRIZA | GAZTELUA |
| 86 | FUENTE ASTOLA | ASTOLA |
| 87 | FUENTE - ABREVADERO | GEREDIAGA |
| 88 | FUENTE | GEREDIAGA |
| 9 | CASA SOLOA | ZELAIETA |
| *AMOREBIETA - ETXANO* | | |
| | CALDERERIA DE BERNA | BERNA |
| 1 | ERMITA SAN BARTOLOME | SAN BARTOLOME |
| 11 | HORNO CASERIO AURTENENGO | ALDANA |
| 12 | ERMITA SAN ISIDRO | ALDANA |
| 13 | ERMITA DE SAN JUAN | ERGOIEN |
| 14 | ERMITA SAN PEDRO DE LARRINETA | BOROA |
| 15 | BATZOKIA | ZORNOTZA |
| 16 | ERMITA SAN JUAN | URRITXE |
| 17 | ERMITA SAN ANTOLIN | EPALZA |
| 19 | ERMITA SANTA LUCIA | ALAKANO |
| 2 | PALACIO LOPEZ | LARREA |
| 20 | ERMITA DE LA INMACULADA | ASTEPE |
| 21.1 | PANTEÓN DE LUIS DE URRENGOECHEA | LEGINETXE S/N |

| *Municipio Nº* | *Denominación* | *Barrio* |
|---|---|---|
| 21.2 | PANTEÓN HORMAECHE | LEGINETXE S/N |
| 21.3 | PANTEÓN JAUREGUI | LEGINETXE S/N |
| 21.4 | PANTEÓN SIN IDENTIFICAR (FAMILIA ZUGADI) | LEGINETXE S/N |
| 21.6 | PANTEÓN Dª CASIMIRA TIERRA ECHANO JAUREGUI | LEGINETXE S/N |
| 23 | ERMITA SAN LORENZO | MONTORRA |
| 24 | ERMITA DE SAN ANTONIO | SAN ANTONIO |
| 25 | ERMITA SAN VICENTE | BEDIAGA |
| 26 | IGLESIA DE SAN MIGUEL | BERNAGOITIA |
| 28 | TORRE DE BERNA | BERNABEITIA |
| 30 | ERMITA SAN MARTIN | DUDAGOITIA |
| 31 | ERMITA SAN PEDRO | SARATZU |
| 32 | ERMITA DE LA SANTA CRUZ | AUZTOA |
| 33 | ESTACIÓN FERROCARRIL AMOREBIETA - ETXANO. FERROCARRILES VASCOS BILBAO - DONOSTIA | |
| 37 | FERRERIA DE BERNA | BERNA |
| 45 | MOLINO ARKOTXAKOERROTA | BEDIAGAS |
| 50 | MOLINO DE ALZIBAR | ETXANO (ALZIBAR) |
| 51 | MOLINO DE UGARTE | LARREA (UGARTE) |
| 52 | MOLINO DE OLABARRIA | BOROA |
| 53 | MOLINO DE BERRIO | SAN MIGUEL |
| 55 | PUENTE BERRIA | BERNA |
| 57 | CASERIO ALAKAO GOIKOA | ALAKANO |
| 58 | CASERIO ALDANA GOIKOA | ALDANA |
| 59 | CASERIO GOISASKO | ALDANA |
| 6 | CASA KONBENIO 7 | ZORNOTZA |
| 60 | CASERIO ARATZOSA ERDIKOA | ARATZOSA |
| 61 | CASERIO ARATZOSA GOIKOA | ARATZOSA |
| 62 | CASERIO BEDIA | ARKOTZA |
| 64 | CASERIO GOIENGO | BERNAGOITIA |
| 65 | CASERIO ZABALA | BERNAGOITIA |
| 68 | CASERIO GARAI | BOROA |
| 69 | CASERIO AMETXARRI GOIKOA | BOROA |
| 7 | CASA SABINO ARANA 21 | ZUBIBITARTE |
| 75 | CASERIO URIKOA | IBARRA |
| 76 | CASERIO LEGINETXE GOIKOA | LEGINETXE |
| 79 | CASERIO ZUGAZA BEKOA | OROBIO |
| 8 | CASA ELIZONDO | ZUBIBITARTE |
| 80 | CASERIO BEASKOA | SAN BARTOLOME |
| 81 | CASERIO BASABE | SAN BARTOLOME |

| *Municipio Nº* | *Denominación* | *Barrio* |
|---|---|---|
| 84 | CASERIO ZAMALLOA ERDIKOA | ZAMALLOA |
| 87 | FUENTE | CASCO URBANO |
| 88 | CASA CURAL DE ETXANO | |
| 89 | CASA ETXANO 1 | ETXANO |
| 91 | FUENTE AYUNTAMIENTO | CASCO URBANO |
| *ATXONDO* | | |
| 12 | CASA ELIZALDE | ARRAZOLA |
| 13 | ERMITA DE SAN ROQUE | ARRAZOLA |
| 14 | ERMITA DE SANTIAGO | AXPE-MARZANA |
| 15 | HUMILLADERO DE SAN MIGUEL | AXPE-MARZANA |
| 16 | ERMITA DE SANTA LUCIA | AXPE-MARZANA |
| 17 | POBLADO MINERO ARRAZOLA | ARRAZOLA |
| 19 | MOLINO DE ALDEKO ERROTA | ARRAZOLA |
| 2 | CASA CONSISTORIAL | APATAMONASTERIO |
| 3 | IGLESIA DE SAN PEDRO | APATAMONASTERIO |
| 35 | MOLINO DE URZULO | ARRAZOLA |
| 36 | MOLINO DE IBERRE | ARRAZOLA |
| 38 | MOLINO ARTIA - ERROTA | AXPE, ARTIA Nº1 |
| 4 | CEMENTERIO DE AXPE | BARRIO AXPE |
| 41 | PUENTE ETXETXO | SANTIAGO |
| 46 | PUENTE MARTXOAKO | MORTZAD |
| 47 | PUENTE SAN MARTIN | MORTZAD |
| 49 | PUENTE ZIARRETA | APATAMONASTERIO |
| 50 | PUENTE IMUTZ | APATAMONASTERIO |
| 51 | PUENTE Nº 13 | APATAMONASTERIO |
| 52 | PUENTE Nº 14 | APATAMONASTERIO |
| 53 | PUENTE ARTEA | |
| 57 | CASERIO JAUREGI | ARRAZOLA |
| 6 | CASA ELIZALDE | AXPE-MARZANA |
| 62 | CASERIO ETXEZARRA | MARZANA |
| 63 | ERMITA SANTA BARBARA | LARRANO |
| 64 | ANTIGUA ESCUELA DE ARRAZOLA | ARRAZOLA |
| 65 | CASA CURAL | MARZANA |
| 66 | FUENTE CASERIO MAURTU | AXPE-SAN JUAN |
| 67 | FUENTE | AXPE |
| 68 | FUENTE | SANTIAGO |
| 69 | FUENTE ELIZONDO | ARRAZOLA |
| 7 | ESCUELA | AXPE-MARZANA |

| *Municipio Nº* | *Denominación* | *Barrio* |
|---|---|---|
| 70 | FUENTE SAN MARTIN | MARZANA |
| 71 | FUENTE | MARZANA |
| 8 | CASA AXPE S/N | AXPE-MARZANA |

*BÉRRIZ*

| | | |
|---|---|---|
| 1 | ERMITA DE SAN PEDRO DE ISUNTZA O SAN PEDRO TXIKI | EITUA |
| 10 | ERMITA DE SAN JUAN | MURGOITIO |
| 11 | CASA POSADA | SAN LORENZO |
| 13 | PAJAR DEL CASERIO MATZA | EITUA (MATZA) |
| 14 | TORRE DE BERRIZ | SAN LORENZO |
| 15.1 | SEPULCRO SIN IDENTIFICAR | ELIZONDO S/N |
| 16 | CONVENTO DE LA VERA CRUZ | SAN LORENZO |
| 2 | ERMITA SAN MIGUEL | OKANGO |
| 20 | AYUNTAMIENTO | SAN LORENZO |
| 21 | ERMITA DE SAN CRISTOBAL | SAN LORENZO |
| 23 | CASAS BENEFICIALES | SAN LORENZO |
| 24 | ERMITA DE LA ASCENSION DEL SEÑOR | SARRIA |
| 35 | FÁBRICA DE PAPEL ERROTETA | ANDIKONA |
| 37 | FERRERIA DE OLABARRI | EITUA |
| 4 | CASA DE BIDEBARRIETA | SAN LORENZO |
| 41 | MOLINO DE AMPORTA | EITUA |
| 42 | MOLINO ERROTABARRI | SARRIA |
| 43 | MOLINO BOLUNZAR | SARRIA |
| 44 | MOLINO DE UGARTE | SARRIA |
| 46 | MOLINO DE ABAITUA | ABAITUA |
| 48 | MOLINO DE LARIZ | SAN LORENZO |
| 5 | ESCUELA DE BARRIADA | OKANGO |
| 50 | CASERIO ETXEBARRIA | ANDIKONA |
| 53 | CASERIO MARIN | ANDIKONA |
| 6 | ERMITA DE LOS SANTOS ANTONIOS | CASCO URBANO |
| 61 | CASERIO BEÑAS | MURGOITIO |
| 62 | CASERIO GOMENDIO | MURGOITIO |
| 64 | CASERIO URRUTIA | MURGOITIO |
| 65 | CASERIO ZELETA | MURGOITIO |
| 67 | CASERIO MATZA | OLAKUETA |
| 70 | CASERIO ITURBE | SARRIA |
| 72 | CASERIO URIBE | URIBE |
| 73 | CASA ABAITUA-ETXEBARRIA | BIDEBARRIETA |

| *Municipio Nº* | *Denominación* | *Barrio* |
|---|---|---|
| 76 | FUENTE | EITUA |
| 77 | FUENTE DE ELIZONDO | |
| 78 | FUENTE - LAVADERO | CASCO URBANO |
| 8 | CASA CURAL | ANDIKONA |
| *DURANGO* | | |
| 100 | PUENTE ARTABILA | |
| 101 | PUENTE TABIRA | SANTA CRUZ |
| 11 | PALACIO ASTARLOA | PINONDO |
| 13 | ETXE-ZURIA | PINONDO |
| 14 | CASA PINONDO 8-9 | PINONDO |
| 15 | PALACIO DE ORUE | PINONDO |
| 171 | CASA KURUTZIAGA 16 | |
| 172 | CASA KURUTZIAGA 26 | |
| 173 | CASA KURUTZIAGA 28 | |
| 174 | CASA KURUTZIAGA 36 | |
| 175 | FUENTE | CASCO URBANO |
| 178 | FUENTE - LAVADERO | CASCO URBANO |
| 23 | CASA SANTANOSTE O IBAIALDE | CASCO URBANO |
| 25 | CASA ERMODO 2 | CASCO URBANO |
| 26 | CASERON | SAN AGUSTINALDE |
| 28 | CASA ZUMALAKARREGI 2 | CASCO URBANO |
| 30 | CASA ZUMALAKARREGI 14 | CASCO URBANO |
| 31 | CASERON SAGASTIZABAL | PINONDO |
| 32 | CASA IMAZ | PINONDO |
| 49 | CONVENTO DE SAN FRANCISCO | CASCO URBANO |
| 5 | CASA FRAY JUAN DE ZUMARRAGA S/N | CASCO URBANO |
| 50 | CONVENTO DE SANTA SUSANA | CASCO URBANO |
| 55 | RESIDENCIA COMPAÑIA DE JESUS | KURUTZIAGA |
| 57 | HOTEL KURUTZIAGA | KURUTZIAGA |
| 58 | CASA KURUTZIAGA 48 | KURUTZIAGA |
| 59 | CASA KURUTZIAGA 42 | KURUTZIAGA |
| 6 | ERMITA DE SAN ROQUE | SAN ROQUE |
| 60 | ERMITA DE LA VERA CRUZ | KURUTZIAGA |
| 61 | CASA KURUTZIAGA 30 | KURUTZIAGA |
| 63 | PALACIO GOROSTIZA | KURUTZIAGA |
| 64 | CASA KURUTZIAGA 18 | KURUTZIAGA |
| 66 | PALACIO | KURUTZIAGA |
| 67 | CASA ZUMALAKARREGI 8 | CASCO URBANO |

*Nivel Local - Area Funcional de Durango* *Página 6 de 11*

o

| *Municipio Nº* | *Denominación* | *Barrio* |
|---|---|---|
| 143 | CASERIO IGARTUA | IGURIA |
| 15 | ERMITA DE SAN JOSE | ALDAPE |
| 153 | CASERIO ALDEKO NAGUSI | MENDRAKA |
| 154 | CASERIO OLAORTUA | MENDRAKA |
| 155 | CASERIO ARESPAKOTXAGA | MIOTA |
| 156 | CASERIO ARRIETA | MIOTA |
| 159 | CASERIO GOZEASKOA | MIOTA |
| 16 | ERMITA DE SANTIAGO | ALDAPE |
| 160 | CASERIO ZEARSOLO ERDIKOA | MIOTA |
| 161 | CASERIO ETXEBARRIA | SAN AGUSTIN DE ETXEBARRIA |
| 164 | CASERIO IBARRA | IBARRA |
| 165 | CASERIO ELIZALDE | SAN VICENTE |
| 167 | CASERIO ERREMENTERIKUA | URKIZUARAN |
| 169 | CASERIO SAN ANTON | URKIZUARAN |
| 172 | SANTA EUGENIA | ARABIO |
| 173 | ERMITA DE STA. LUCIA | IGURIA |
| 18 | ERMITA DE SANTA CATALINA | IGURIA |
| 19 | ERMITA DE SAN JOSE | URKIZUARAN |
| 2 | CASA CURAL | SAN AGUSTIN |
| 20 | ERMITA DE SAN ANTON | URKIZUARAN |
| 240 | CASA BETIKOA | BERRIOZABALETA |
| 242.1 | CAPILLA DEL CEMENTERIO MUNICIPAL DE ELORRIO | |
| 242.3 | PANTEÓN GOYENECHEA - HORMAZA | |
| 242.4 | CAPILLA SIN IDENTIFICACIÓN | |
| 242.5 | CAPILLA GONZÁLEZ LASA | |
| 244 | FUENTE - ABREVADERO - LAVADERO | BERRIO |
| 245 | FUENTE | SAN AGUSTIN |
| 246 | FUENTE BERAZAR | CASCO URBANO |
| 247 | FUENTE | CASCO URBANO |
| 3 | HUMILLADERO DE SAN AGUSTIN | SAN AGUSTIN |
| 4 | ERMITA DE SANTA EUGENIA | ARAUNETA |
| 6 | ERMITA DE SAN LORENZO | LEANIZ |
| 8 | ERMITA SANTO TOMAS | MENDRAKA |
| 9 | ERMITA DE SAN ADRIAN | MENDRAKA / ZENITA |
| 98 | PALACIO DE ALDATZEKUA | CASCO URBANO |
| *GARAY* | | |
| 10 | ERMITA DE SAN JUAN | SAN JUAN |
| 11 | CASA CONSISTORIAL | SAN MIGUEL |

*Nivel Local - Area Funcional de Durango* *Página 8 de 11*

| *Municipio Nº* | *Denominación* | *Barrio* |
|---|---|---|
| 15 | CASERIO EMALDIA | SANTA CATALINA |
| 17 | PAJAR SOLOGARAI | SAN JUAN |
| 18 | CASERIO DUÑA BEITIA | DUÑA |
| 20 | CASERIO AIARZA GOITIA | AIARZA |
| 21 | CASERIO DUÑA | DUÑA |
| 22 | CASERIO LARRIÑA | STA. CATALINA |
| 26 | CASERIO OAR GAINEKOA | SAN MIGUEL |
| 27 | CASERIO AZPIKUA | URIEN / SAN JUAN |
| 28 | CASERIO GANEKOA | URIEN / SAN JUAN |
| 3 | CASA CURAL | SAN MIGUEL |
| 30 | FUENTE DE LA PLAZA | SAN MIGUEL |
| 33 | FUENTE CASERIO BARRENKUA | SAN JUAN MOMOITO |
| 4 | CASA CURAL | SAN MIGUEL |
| 5 | CASA SAN MIGUEL 27 | SAN MIGUEL |
| 8 | ERMITA DE SANTA CATALINA | SANTA CATALINA |
| 9 | CASA ETXE - ZURIA | SAN MIGUEL |
| *IURRETA* | | |
| 1 | CASA CURAL | CASCO URBANO |
| 11 | ERMITA DE SAN CRISTOBAL | SANTA MARINA |
| 12 | ERMITA DE SANTA MARINA | SANTA MARINA |
| 13 | ERMITA DE SANTA APOLONIA | SANTA APOLONIA |
| 14 | ERMITA DE SANTIAGO | OROZKETA |
| 15 | ESCUELAS DE BARRIADA | OROZKETA |
| 29 | CASERIO AGIRREZABAL ARZA | ARRIANDI |
| 3 | PALACIO GOIKOLEA | CASCO URBANO |
| 30 | CASERIO IBAIBIDE | ARRIANDI |
| 32 | CASERIO ORMAKI | BAKIXA |
| 34 | CASERIO GARAIZAR | GARAIZAR |
| 38 | CASERIO URIBE GANEKOA | GOIURIA |
| 39 | CASERIO ARTAZA | OROBIO |
| 4 | ERMITA DE SAN MAMES | GARAIZAR |
| 40 | CASERIO BASTERREKO | OROBIO |
| 43 | CASERIO OROBIO URRUTIGOIKOA | OROBIO |
| 46 | CASERIO ISUNDEGI BERRI | OROZKETA |
| 48 | CASERIO OROZKETA BEKOA | OROZKETA |
| 51 | CASERIO ERDITXE | SANTA APOLONIA |
| 54 | CASERIO TORRE | SANTA APOLONIA |
| 56 | CASERIO BIDEKOETXE | SANTA MARINA |

| *Municipio* | *Nº* | *Denominación* | *Barrio* |
|---|---|---|---|
| | 62 | CASERIO BARABARRI | AMATZA |
| | 63 | ERMITA DE SAN ANDRES | OROZKETA |
| | 66.1 | CAPILLA CAPANAGA - TOTORICA | |
| | 7 | ERMITA DE SAN MARTIN | AMATZA |
| | 8 | ERMITA DE SAN MARCOS | OROBIO AUZUNEA |
| | 9 | ERMITA DE SAN SEBASTIAN O DE SAN FAUSTO | SAN FAUSTO BAKIXA |
| *IZURTZA* | | | |
| | 11 | ERMITA DE SANTA AGUEDA | ORTUZAR |
| | 13 | MOLINO DE LEJARZA | ETXANO LEJARZA |
| | 16 | PUENTE ERROTABARRI | |
| | 17 | CASERIO BETI | ATXONDO |
| | 19 | CASERIO JAIONA | ORTUZAR |
| | 20 | FUENTE CASERIO GOITI | ETXANO |
| | 22 | CEMENTERIO MUNICIPAL DE IZURTZA | BARRIO BITAÑO |
| | 22.1 | CAPILLA DEL CEMENTERIO MUNICIPAL DE IZURTZA | BARRIO BITAÑO |
| | 3 | CASA ARANA | ELIZALDE |
| | 6 | VILLA ELIZA ETXE | ELIZALDE |
| | 7 | ERMITA DE NUESTRA SEÑORA DE ERDOIZA | BITANO |
| | 9 | ERMITA DE SANTO TOMAS | ELIZALDE |
| *MAÑARIA* | | | |
| | 1 | CASA CONSISTORIAL | CASCO URBANO |
| | 10 | CASA IZAGA-TXIKIA | CASCO URBANO |
| | 11 | ERMITA DE SAN LORENZO | ALDEGOIENA URKULETA |
| | 12 | CEMENTERIO MUNICIPAL DE MAÑARIA | |
| | 12.1 | PORTADA Y TORRE DEL CEMENTERIO MUNICIPAL DE MAÑARIA | |
| | 13 | ERMITA DE SAN JUAN | ALDEGOIENA |
| | 14 | ERMITA DE SAN MARTIN | ALDEGOIENA |
| | 15 | ERMITA DE SAN ANTONIO | CASCO URBANO |
| | 16 | VIA CRUCIS | CASCO URBANO |
| | 17 | ERMITA AITA-KURUTZEKO | ARRUETA |
| | 2 | CASA KIRIKIÑO 5 | CASCO URBANO |
| | 26 | CASERIO URREKETXE | ALDEBARAIA |
| | 29 | CASERIO MARKUE GOIKOA | ALDEBARRENA |
| | 35 | CASERIO GOTI | ATXONDO |
| | 36 | CASERIO BETI (PAJAR) | BARRUETA |
| | 37 | CASERIO BETI | BARRUETA |
| | 4 | CASA ZAZPI ZUGATE | CASCO URBANO |

| *Municipio Nº* | *Denominación* | *Barrio* |
|---|---|---|
| 41 | CASERIO ZELETA | URKOLA |
| 42 | CASA KIRIKIÑO 7 | |
| 43 | CASA KIRIKIÑO 1 | |
| 44 | CASA KIRIKIÑO 20 | |
| 45 | FUENTE KIRIKIÑO | CASCO URBANO |
| 46 | FUENTE DEL AYUNTAMIENTO | CASCO URBANO |
| 6 | CASA REMENTERIA | CASCO URBANO |
| 7 | CASA ARANA | CASCO URBANO |
| 8 | CASA IZAGA-HANDIA | CASCO URBANO |
| 9 | CASA KIRIKIÑO 18 | CASCO URBANO |
| *ZALDIBAR* | | |
| 1 | ERMITA DE SAN PEDRO | EITZAGA |
| 11 | ERMITA DE SANTIAGO | GAZAGA |
| 12 | ERMITA DE SANTA MARINA GANGUREN | GOIERRI |
| 13 | ERMITA DE SAN LORENZO | URIZAR |
| 17 | MOLINO DE EIZAGA | EIZAGA |
| 22 | CASERIO ZURIKALDAI | GOIHERRI |
| 23 | CASERIO EIZAGA BARRENANGUA | GOIHERRI |
| 24 | CASA ZALDUA 4 | |
| 25 | CASA ZALDUA 3 | |
| 26 | TORRE DE ZALDIBAR | ZALDUA |
| 4 | TORRE GARITAONAINDIA | GOIERRI |
| 5 | ERMITA DE SAN MARTIN | CASCO URBANO |
| 6 | HOSPITAL DE ZALDIBAR | CASCO URBANO |
| 7 | CASA - HOSPITAL | GOIERRI |
| 9 | HOTEL ZALDIBAR | CASCO URBANO |

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Kultura Ondarearen Zuzendaritza
Euskal Kultura Ondarearen Zentrua
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Dirección de Patrimonio Cultural
Centro de Patrimonio Cultural Vasco

ANEXO II

Donostia - San Sebastian, 1 – 01010 VITORIA-GASTEIZ
tef. 945 01 94 90/94 – Fax 945 01 94 91 – e-mail zentroa@ej-gv.es

# *Zonas Arqueológicas Declaradas en el Area Funcional de Durango*

| Municipio | Nº | Denominación | Barrio | Protección | Boletín |
|---|---|---|---|---|---|
| *Durango* | | | | | |
| | 1 | Villa | Villa medieval | Calificado | BOPV nº 203 (24-10-1995) |
| | 10 | Ermita - Humilladero de la Vera Cruz | Kurutziaga | Calificado | BOPV nº 203 (24-10-1995) |
| | 12 | Convento de San Francisco-I | | Calificado | BOPV nº 203 (24-10-1995) |
| | 13 | Convento de San Francisco-II | Komentu kalea | Calificado | BOPV nº 203 (24-10-1995) |
| | 14 | Convento de Santa Susana | | Calificado | BOPV nº 203 (24-10-1995) |
| | 15 | Casa Santanaoste | Santanaoste, 8 | Calificado | BOPV nº 203 (24-10-1995) |
| | 17 | Hospital de Santa María Magdalena y Hospital de Lázaro | Magdalena | Calificado | BOPV nº 203 (24-10-1995) |
| *Elorrio* | | | | | |
| | 1 | Villa | Villa medieval | Calificado | BOPV nº 56 (24-03-1998) |
| | 34 | Templo y necrópolis de San Agustín de Etxebarria | San Agustín | Calificado | BOPV nº 56 (24-03-1998) |
| | 4 | Iglesia de la Purísima Concepción | | Calificado | BOPV nº 56 (24-03-1998) |
| | 5 | Palacio Urkizu | | Calificado | BOPV nº 56 (24-03-1998) |

# *Zonas Arqueológicas Propuestas para ser Declaradas en el Area Funcional de Durango*

| *Municipio* | *Nº* | *Denominación* | *Barrio* |
|---|---|---|---|
| *Abadiño* | | | |
| | 27 | Recinto fortificado de Aitziki | Monte Aitziki |
| | 3 | Cueva de Oyalkoba | Mendiola |
| | 4 | Cueva de Kobazarra | Mendiola |
| | 5 | Dolmen de Saiputzueta | Saibigain |
| *Amorebieta - Etxano* | | | |
| | 4 | Templo y necrópolis de San Miguel de Bernagoitia | Bernagoitia |
| *Atxondo* | | | |
| | 7 | Iglesia de San Juan Bautista | Axpe |
| *Berriatua* | | | |
| | 3 | Cueva de Goikolau | Elizaburu |
| | 9 | Iglesia de San Pedro | Ribera |
| *Bérriz* | | | |
| | 1 | Túmulo de Ipiñarrieta | Oiz |
| | 2 | Dolmen Ama Birjinen baso | Oiz |
| | 3 | Dolmen de Iturzurigaña | Oiz |
| | 4 | Túmulo de Zarramendi | Oiz |
| *Durango* | | | |
| | 18 | Templo y necrópolis de San Vicente de Mikeldi | Mikeldi |
| | 25 | Túmulo de Artatxaga | Urkiolamendi |
| *Elorrio* | | | |
| | 12 | Templo y necrópolis de Memaia-I | Memaia |
| | 13 | Templo de Memaia-II | Memaia |
| | 15 | Templo y necrópolis de Santo Tomás de Mendraka | Mendraka |
| | 17 | Templo y necrópolis de San Adrián de Argiñeta | Zenita - San Adrian |
| | 25 | Templo y necrópolis de Nuestra Sra. de la Asunción | Gazeta |
| | 35 | Templo y necrópolis de San Bartolomé de Miota | Miota |
| | 9 | Ermita de San José | Memaia |
| *Garay* | | | |

| *Municipio* | *Nº* | *Denominación* | *Barrio* |
|---|---|---|---|
| | 1 | Recinto fortificado de Tromoitio | Tromoitio |
| | 3 | Templo y Necrópolis de San Juan de Momoitio | Momoitio |
| | 4 | Iglesia de San Juan Evangelista | San Miguel |
| | 5 | Templo y necrópolis de San Miguel Arcángel | San Miguel |
| *Izurtza* | | | |
| | 9 | Templo y necrópolis Santa María de Erdoiza | Bitaño |
| *Mañaria* | | | |
| | 4 | Cueva de Azkondo | Urkoleta |
| | 5 | Cueva Kobagorri-IV | Monte Leungane |
| | 7 | Jentilkoba de Mugarra | Peña de Mugarra |

*Zonas Arqueológicas Propuestas para Declarar - Area Funcional de Durango* *Página 2 de 2*

## 12. UDAL PLANEAMENDUEN BATERAGARRITASUNA.

Lurraldearen antolamendurako landu diren agirien irismenaren mugak eta hirigintza-planeamenduak koordinatu behar izatea (beharrizan gero eta premiazkoagoa, gehienbat hazkunderik dinamikoena duten lekuetan) kontuan hartuta, justifikaturik dago Lurraldearen Antolamendua arlo honetako udalerriz gaindiko eskumena arautzeko tresnen multzoa izatea, eta horren eginkizuna, izan ere, lurraldearen antolamendu fisikoan eragina duten politikak koordinatzea da. Horrenbestez, planifikazioaren teknika klasikoa garatuz gauzatuko dira, batik bat.

Durangoko Eskualde Egiturako udalerrietako planeamenduak bateratzearen helburua, izatez ere, Lurraldearen Zatiko Planak proposaturiko udalerriz gaindiko ekintzen kudeaketa eta garapena erraztea da.

Egindako ikerketen eta LZPren proposamenen bidez, identifikatu egin da udalerri batzuek planeamendu integratua behar dutela, planeamendu horrek gainditu egiten du udal mugarteak osatzen duen administrazio-muga arkaikoa, adibidez Iurretak, Durangok edo Abadiñok, ia lotuta dituzte euren hiriguneak, eta gainera, egoitza-lurzoru berrien proposamenek azpimarratu egiten dute ezaugarri hori, eta, horrela, administrazio-hesiak gaindituz erabilera bateratua duen Hiri Eremu bakarra osatzen dute.

Halaber, aintzat hartu behar da udalerrien bokazioa, Lurralde Ereduan esleitzen zaiena, eta horrela, ez da egokia oraingo udal-mugaketa, hiri-garapeneko estrategia egokiak gauzatu ahal izateko, kasuan kasuko planeamenduaren bidez.

Halako egoeren ondorioz, mekanismoak ezarri behar dira, inplikaturiko udalerrien planeamendua modu koordinatuan idatzi eta garatuko dela bermatzeko.

Planeamenduaren bateragarritasuna eragiten duten funtsezko arrazoiak anitzak dira, lehen esan dugunez, baina helburu komuna dute:

- Hiri Antolamenduko Egitamu Orokorretako xedapenak modu integratuan hartzea, udalerri mailako administrazio-mugak gainditzen duen lurraldearen osagaiak baitira.

- Programa orokorren aplikazioa eta hiri-arazoen soluzioa Planeamenduaren bidez ahalbidetzea.
- Osagarritasuna eta espezializazioa lortzea, mugakideak diren udalerrietako lurzoruaren erabileretan.

## 12.1 Irizpide orokorrak.

Eskualde Egituraren barruan, planeamenduen bateragarritasunaren ondoreetarako, LAJetako 19. kapituluko 5.1 atalean jasotzen denez, honako udalerri hauek osaturiko eremua zehazten da: Durango, Abadiño, Izurtza eta Iurreta.

Bestalde, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeko 63. artikuluan, planeamenduak zein kasutan bateratuko diren ezartzen da. Horri dagokionez, bertan adierazitakoaren arabera, bateragarritasuna egiteko, ezinbestekoa izango da, hiri-garapenaren ezaugarriak eta beharrizanak kontuan hartuta (zenbait udal mugartetako zona mugakideetan), eraginpeko egitamu orokorren egitura-antolamendua koordinatu behar izatea.

Irizpide horien arabera, eta LZPk aukeraturiko Lurralde Eredua aintzat hartuz, udalerri batzuen planeamenduen bateragarritasuna aztertu egin behar da, udalerriok LAJek aipaturiko lau udalerrien artekoak izan ez arren, baldin eta hori ezinbestekoa bada azpiegituren integrazioa nahiz garapena eta erabileren bateragarritasuna koordinatzeko.

Ondoren, Planeamenduen Bateragarritasun Sistemaren edukiak mugatu eta azalduko dira.

## 12.2 Udal-planeamendua bateratzeko sistemak.

Planeamenduen Bateragarritasun Sistema, izan ere, LZPk planeamendu orokorreko tresnak koordinatzeko ezarritako prozedura da, eta aplikagarria izango da, zentralitatea, izaera estrategikoa edo egitura-gaitasuna kontuan hartuta, udalerriz gaindiko eremu jakinean eragina duten lurzoru eremuetan;

beraz, planeamenduek udalerri mailakoa gainditzen duen harmonizazio eta koordinazio egokia behar dute.

Sistema horrek bete egingo du Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeko 63. eta 92. artikuluetan ezarritakoa.

### 12.3 LZPren bateragarritasun-eremuen zehaztapena eta sailkapena.

- ***Bateragarritasun-eremua:*** Egiturako hirigintza-antolamenduko xedapenen harmonizazioa behar duen azalera (Sailkapena, Kalifikazioa eta Sistema Orokorrak, hain zuzen ere, Komunikazioen eta Eremu Askeen Sistemak).

Bateragarritasunari dagokionez, Eskualde Egiturako eremu hau aztertu behar da:

– Durango - Abadiño

Halaber, proposamen batzuen ondorioz antolaketa edo trazatu irizpideak bateragarri egin behar dira, bai horiek definitzen dituzten eskemak igarotzen diren udalerri guztietan baita Alde Funtzionaletik kanpo dauden inguruko udalerri batzuetan ere. Bateragarritasun mota hau behar duten elementuak honakoetan zehazten dira:

o Bide azpiegitura berriak:
  – N-240 BOROA-LEMOA
  – N-636 LEBARIO-APATAMONASTERIO-KANPAZAR
o Planeko proposamenak.
  – Categorización del Medio Natural
  – Condicionantes superpuestos a la categorización del Medio Natural
  – Aukerako Mugikortasuna
  – Paisaiari lotutako Ibai Sistema

Eskualde Egituran, planeamenduen bateragarritasuna eragiten duten alderdi batzuk bereizten dira, eta, horrela, honako eremu hauen sailkapena egin da:

1. ***Bateragarritasun Orokorreko Eremuak:*** Eskualde Egiturako udalerri guztiei aplikatuko zaie, baita beste alde funtzional batzuetan dauden inguruko udalerriei ere, Bizkaiko Lurralde Historikokoetan edo ondoko beste lurralde historikokoetan. Helburua da Landa Ingurunearen Kategorizazioak eta horren

Baldintzatzaile Gainjarriek udalerri horietan jarraipena izatea definizio grafikoa egitean eta araupeketan duten koherentzian.

2. ***Bateragarritasun zehatzeko eremuak:*** Udal-eremua gainditzen duten hiri-jarraipenak dituztenak; horien zona mugakideetan beharrezkoa da egituraren antolamendua orokorrean koordinatzea.
3. ***Trazatuaren Bateragarritasun Eremuak:*** Lurraldearen Zatiko Planaren proposamen berriek egituratze mailako sareak edo azpiegiturak sartzen dituzte, eta horien trazatua zehatz bateratu behar da.

## 12.4 LZPren bateragarritasun-eremuen identifikazioa.

Identifikaturiko eremuak ondoren azaltzen dira, aurreko atalean ezarritako sailkapenaren arabera.

### 12.4.1 Bateragarritasun-eremu orokorrak.

Bateragarritasun Orokorra da Durangoko Alde Funtzionaleko udalerrien plangintza orokorrerako bitartekoak euren artean eta alde funtzionaletik kanpo dauden inguruko udalerrietakoekin koordinatzea, ondoren zehazten diren alderdiei dagokienez betiere.

Lurraldearen Zatiko Planeko proposamenen ondorioz Bateragarritasun Orokorrerako alderdi batzuk ezarri dira, Landa Ingurunearen Antolaketari lotuta daudenak. Izan ere, alderdi hauek koordinatu egin behar dira koherentzia bermatu nahi bada. Proposamen horien oinarrizko alderdiak Landa Ingurunearen Kategorizazioa eta kategorizazio horri Gainjarritako Baldintzatzaileak dira; horrela, koordinatuta daudela bermatuko da, barruko administrazio mugak alde batera utzita. Alderdi horiek dagoeneko sartu dira planean. Gainera, ezaugarriak memoriaren VI. kapituluan eta Alde Funtzional osorako dokumentazio grafikoan zehazten dira.

Horrenbestez, alderdi horien bateragarritasun orokorra bermatuta edukiko dute Durangoko Alde Funtzionaleko udalerriek, araudian eta Lurraldearen Zatiko Planaren antolaketa planoetan xedatutakoa betetzen bada. Baina alde funtzionaletik kanpoko udalerriekin ere bateragarritasuna bermatze aldera, udal plangintzak egiten edo berrikusten direnean betekizun hau bete beharko da

(Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 90.3. artikuluan xedatutakoa betez) eta, horretarako, inguruko udalerriei aurrerapenaren agiria bidali beharko zaie.

### 12.4.2 Bateragarritasun zehatzeko eremuak

Aldez aurreko irizpidetzat, esan daiteke halako eremuen bateragarritasuna berez ez dela beharrezkoa. Bateragarritasun hori, beharrezkoa denean soilik egin beharko da, aipaturiko okupazioaren mugako eremuak garatzeko erabakia hartzearen arabera, kasu horretan ezinbestekoa baita udal-planeamenduko eremu mugakideen arteko bateragarritasuna.

Eremu hauen antolamenduaren koordinazioa bermatzeko zehaztu den egitura-antolamenduko tresna, izan ere, Planeamenduaren Bateragarritasun Egitamua da. Lurraldearen Zatiko Planak, bestalde, Planeamenduen Bateragarritasun Zehatzeko Eremu hau hartzen du aintzat.

**DURANGO – ABADIÑO**

- ***Bateragarritasun Zehatzeko Eremua:*** Eguzkitza inguruan, jarduera ekonomikoaren okupaziorako mugako eremua dago aurreikusita, eta hori Durangoko industrialdearen handitzea izango da. Eremu berriaren barruan, bi udalerrietako lurrak sartuko dira.
  Okupaziorako mugako eremuaren garapenak, udal-erabakia behar duenak, irizpide koordinatuak aurkeztu beharko ditu forma-antolamenduari, eremu askeen sistemari eta, batik bat, bide-azpiegiturei buruz, eta inguruaren irisgarritasuna lortu beharko du.

### 12.4.3 Trazatuaren bateragarritasun-eremuak.

Lurraldearen Zatiko Planaren proposamenen ondorioz, Trazatuaren Bateragarritasun Eremuak ezartzen dira, hain zuzen ere, udalerri gaindiko sareak, ardatzak eta azpiegiturak; horien eskema grafikoak lotesleak dira eta Egitamuko dokumentazio grafikoan bateratuta daude.

Trazatuetan Egitamuan loteslea edo orientatzekoa zehazturiko eskema garfikoak ezarritako jarraitasuna segurtatzeko, inplikaturiko udalerriek antolamendu xehatua egin beharko dute, bateraturiko antolamendu-tresnak batera edo aldi

berean tramitatuz, trazatuak lehendik udal-planeamenduetan (antolamendu xehatuta jasota edukitzeagatik) bateratuta dituzten azpiegituren kasuan izan ezik. Lurraldearen Zatiko Planak Trazatuaren Bateragarritasun Eremu hauek jasotzen ditu:

**1. AMOREBIETA ETA LEMOA**

(N-240 BOROA-LEMOA)

• ***Trazatuaren Bateragarritasun Eremua:*** azpiegituraren eskema, Boroa-Lemoa lotura, LZPren dokumentazio grafikoan jasotakoa. A-8 autobidearekiko loturatik (Zornotzan) Lemoako udal mugartearen hegoaldeko mugan dagoen bidearekiko loturara.

Ahalegina egin behar da Parke Naturalek Urdaibaiko Erreserbarekin (Lemoako Haitzean) duten Lotura Estrategikoa arriskuan ez jartzeko.

**2. DURANGO – ABADIÑO – APATAMONASTERIO – ELORRIO – ARRASATE**

(N-636 LEBARIO-APATAMONASTERIO-KANPAZAR)

• ***Trazatuaren bateragarritasun eremua:*** azpiegituraren eskema, Lebario-Apatamonasterio-Kanpazar konexioa, LPPren dokumentazio grafikoan jasotzen dena. Lehen mailako konexioa Deba Garaiarekin.

Udalaitz mugaketan eraginik ez izatea zaindu behar da, eta errespetatu behar da, LAGetan Natura Intereseko Eremu bezala proposatu baita.

**3. AUKERAKO MUGIKORTASUNA**

• ***Trazatuaren Bateragarritasun Eremua:*** 4. zenbakiko Antolamendu Planoan (“Aukerako Mugikortasuna”) proposaturiko Aukerako Mugikortasun Sareko azpiegituraren eskema.

Eskema horren garapen xehatua eta kokalekua egokitu egin daiteke, planeamenduko tresnen bidez; beraz, bermatu egingo da xehatze hori bi udalerriek batera egitea, aipaturiko azpiegiturari jarraipena emateko.

**4. PAISAIARI LOTURIKO IBAI SISTEMA**

• ***Trazatua Bateratzeko Eremua:*** 2. zenbakiko Antolamendu Planoan (“Paisaiaren Irisgarritasuna eta Kultura Ondarea”) proposaturiko Paisaiari loturiko Ibai Sistemaren azpiegituraren eskema.

Paisaiari loturiko Ibai Eremua inplikaturiko udalek kudeatu behar dute, modu integratuan. Bermatu egin behar da proposamenen antolamendu xehatua inplikaturiko udalek batera egiten dutela.

## 12.5 Bateragarritasun-egitamua zehaztea, formulatzea, tramitatzea eta onestea.

Planeamenduen Bateragarritasun Sistema gauzatzeko modua, bateragarritasun específica eremuetarako, Bateragarritasun Egitamua da, eta hori, gutxienez, egitamu orokorrerako aurreikusitakoen antzeko agirietan formalizatuko da, iraunkortasun-ikerketari dagokionez izan ezik; agiri horiek bateragarritasun-eremuari buruzkoak baino ez dira izango eta, bertan, horren antolamendu koordinaturako xedapenak jasoko dira.

2/2006 Legeko 92. artikuluan ezartzen denez, Egitamuaren eragina udalerri batera baino gehiagora iristen denean, formulazioa eta tramitazioa eraginpeko udalerri bakoitzak egin dezake, udalerrien artean lorturiko akordioaren arabera.

Akordiorik egon ezean, foru-organoak bi hilabeteko epea emango du hori lortzeko. Epe hori igaro eta oraindik akordiorik ez badago, foru-administrazioak bateragarritasun-egitamu bat formulatu, tramitatu eta onetsiko du, eta horren tramitazioan inplikaturiko udalerrien entzunaldia egingo da.

Hasiera onespena jendaurrean azaltzearen iragarpena eta behin betiko onespenaren argitalpena aldizkari ofizialetan egingo dira, baita eraginpeko lurralde historikoetan gehien saldutako egunkarian edo egunkarietan ere.

Egitura-antolamenduko xedapenetan eragina duen neurrian, EAEko Lurralde Antolamenduko Batzordearen iritzipean jarriko da.